Supongo que S. A. que en la traducción guipuzcoana me dice que prefiere el término *nuen* a *nuan*, *cenduen* a *cenduan*, etc., creo que también preferirá *dizquiot* a *diozcat*, *nizquion* a *niozcan*, *dizquiotet* a *diozcatet*, *diotet* a *diet*...; pues los primeros son más usados en Beterri y, a mi parecer, más elegantes, aunque no suenan mal los segundos. Si S. A. no fuese de este modo de pensar, puede avisarme, pues de lo contrario haré uso del *zuen*, *nuen*, *cenduen*, *guenduen*, *cenдутen*, *zuten*. Y también de *nizquion*... *dizquiot*... *diotet*. (Ruiz de Larrínaga, 1954, 49).

Gutun honen ondoren Valdespinako Markesak Bonaparteri bidalita-ko beste bat ezartzen du Ruiz de Larrínagak, bertan zera diotsolarik Markesak:

(...) he hablado con Fr. José —Uriarte, alegia— sobre la traducción que S. A. desea, y le he dicho que, puesto que el vascuence de Ernani y Astigarraga son los que S. A. prefiere (...) (ibidem, 50).

Berdin mintzo zaio Aita Uriarte urte bereko uztailaren 2an egindako gutunean:

(...) he adoptado aquellos términos que, según Larramendi («Diccionario» y «Astete»), Lardizabal, Cardaveraz, Mendiburu, Iztueta, y demás, como Aguirre y las «Fábulas», me han parecido mejores, pues, propendiendo siempre al modo de hablar de Beterri (...) (ibidem, 51).

1857ko agorrilaren 17an idatzitako beste gutun baten ikus daitekeenez erabaki horretan bat zetozen Bonaparte eta A. Uriarte:

Me pregunta S. A. ¿si no sería mejor consultar sólo los autores modernos guipuzcoanos, que escribieron en dialecto de Beterri? y que cree S. A. que sólo Lardizabal sea el que ha hecho esto. A lo que creo deber contestarle que Lardizabal es el preferido por mí a todos los demás y con mucho exceso (...) (ibidem, 53).

4.3. Gipuzkera eta lapurterarekin batera *bizkaiera* ere aipatu beharra dago oraingo honetan. Euskalki honen barruan ere izan dira enparatuen gagnetik agertu diren hizkerak nahiz eta hizkeron itzalak —eta honeketan datza lapurtera eta gipuzkerarengandik dagoen aldea— ez dituen

Bizkaiko mugak gainditu. Aspaldikoa dugu, eta Humboldt en hitzok leku-ko, *Markinako* hizkerak bereganatu duen ospearen oihartzuna:

A Marquina se considera el pueblo donde quizás se hable el vascuence más puro. (...) (Humboldt, 1922, 645).

Bizkaieraren eremuan, baina, ez da erabateko erizkidetasunik izan. XIX. mende hasieratik bertatik, bizkaierak literatur-euskalki maila lortzen duenetik beraz, aukera bikoitza azaltzen da: ekialdeko (Markina-Durango) azpieskalkiaren aldekoa bata eta erdialdeko (Arratia) azpieskalkiaren aldekoa bestea eta joera bi hauen buru bi izen ezagun agertzen zaizkigu: J. A. Moguel eta Añibarro. Argi eta garbi azaltzen zuen Moguelek bere aukera *Confesino ona* liburuan:

Icusico da ez ditugula bardin erabaguiten verbaac aitatu dodan neure adisque onec [Añibarrok, alegia] ta nic; ta emendi ateraco da, ceitan dagan bizcayco eusqueriaren desbardintasuna. Ac dino *maitea*, *neurea*, *zoroa*, *gozoa*, *burua*, *Cristinaua*... nic barriz Marquina inguruan leguez *maitia*, *neuria*, *gozua*, *zorua*, *buruba*, *Cristinauba*. Cein batera, cein bestera esan, ez dau ecer galduten eusqueriac. (Moguel, 1803).

Zehaztasun berriak emango ditu *Peru Abarca*-ren hitzaurreko 20. oharrean:

Se notará en el language de este dialogo continuado en diversas conferencias, que muchas voces termino en *ja*, y *ba* contra la costumbre de la maior parte de los Vizcainos, guipuzcoanos, y Bascos. Por exemplo *oguija*, por *oguia*, *arguija* por *arguia*... *buruba* por *burua*, *zucenduba* por *zucendua*. Como el Doctor Peru es de uno de los Pueblos en que se conserva este gusto, no devia salir de lo que havia aprendido de sus Antepasados. No le falta regla para el caso. Siempre que el nombre termina en *i*, aunque tenga pospuesta la *a* por articulo, se añade la *j* con la pronunciacion latina. (...) Asimismo, quando el nombre o el participio de preterito termina en *u* se añade una *b* al articulo: como en *buru-ba*, *escu-ba*, *zucendu-ba*, *oquertu-ba*. Estos tales acaban los nombres en *ia*, quando terminan en *e*, y en *ua*, quando en *o*. *Neure*, *neuria*; *zeure*, *zeuria*; *maite*, *maitia*; *zoro*, *zorua*; *gaisto*, *gaistua*, tal es la costumbre en Marquina, Lequeitio, Elorrio, y sus circunferencias, y tambien en buena parte de la Guipuzcoa, que no diste de Bizcaia, sino quatro o cinco leguas. Yo he de confesar que es mas expedito, menos embarazoso, y al parecer mas arreglado, quando sin variacion alguna se terminan las voces con sola la adicion articular: *Arguia*, *Oguia*, *Zuria*, *gorria*; *burua*, *escua*, *zucendua*, *oquertua*. Pero no es facil hacer acusaciones a los que siguen la primera de las dichas costumbres. (Moguel, PA).

Baita hitzaurre bereko 22. oharrean ere:

El dialecto que se sigue en este Dialogo tirado es el marciano, y universalmente entendido en todo el Señorío, y todos confiesan que es el mas limpio, y organizado. No son iguales en Vizcaya todas las inflexiones de la Conjugacion, como tampoco lo son en Guipuzcoa. (...) Nada hai que censurar en ello, como tampoco en que se diga *bialdu zaitut*, o *zaitudaz*, *ditut*, o *ditudaz*. Lo que se deve pedir a todo vizcaino

es la claridad en el corte, la pureza en las voces, instruiéndose de los mismos rústicos, atendiendo sus locuciones incorruptas, y el que se quiten los abusos introducidos, como son el decir *egunien egunien*, *astien astien*, *zarien*, y otras semejantes, trastornando la *a* en *e* contra el gusto general, y la regla. En varios pueblos hai un sonsonete lamentable que desagrada al oído. De aquí tantos motes, y mutuas befas. (ibidem).

Añibarrok, ostera, euskararen eremu osoa gogoan duelarik, ez ditu Moguelek egindako aukerok ontzat emango:

Mucha parte de Bizcaya, algunos Pueblos rayanos suyos, y en las cinco Villas de Navarra posponen una *b* a la *U* de nombres, y conjugaciones: *Cerua*, *ceruba*; *zuec*, *zubec*; *deutsue*, *deutsue*, y una *j* herida al *ia*, v.g. *arguia*, *arguija*; *oguija*, *oguija*, pero como en lo restante del pays bascongado no se inovan sus radicales, omitiré dichas letras *b*, y *j*, siguiendo lo más común, y general; pues sería mucha molestia el haber de repetir por una sola letra tantas dicciones: v.g. el haber de poner segunda vez: *cendubezan*, *deutsubezan*, después de haber dicho: *cenduezan*, *deutsuezan*. Tampoco desquiciaré de su rayz la mudanza que en dichos Pueblos hacen trocando la *e* en *i*, como *bete*, *betia*: *orde*, *ordia*: y la *o* en *u* como *Jangoico*, *Jangoicua*, *cuarena*; *oso*, *osua*: pues sobre no haber necesidad de mudar estas letras que el uso ha introducido, es más natural, y más fácil el no mudar, y alterar estas letras. (Añibarro, 13-14).

Eritzi berberari eutsiko dio beste pasarte honetan:

(...) Y no se puede censurar la adición de dichas *B*. *I*. habiendose introducido esto para suabizar la *U* fruncida y la *I* asilbada. Y lo mismo añaden una *J* herida a los acabados en *I*: v.g. *arrija*, *arguija*, por *arria*, *arguia*. Estos mismos suelen mudar en *U* la *O* radical: v.g. *oso*, *osua*; *goico*, *goicua*. Y también la *E* radical en *I*, v.g. *ase*, *asia*; *bete*, *betia*; *orde*, *ordia*. Pero ocasionan alguna equivocación a los oyentes o lectores que no están acostumbrados a estas mudanzas: pues, para estos *ordia* es borracho; *asia*, comenzado; *betia*, lo de siempre. (ibidem, 167-168).

Mitxelenari esker dakigunetik, bestalde, *f* ordez *p* erabiltzean ere ez omen zetozen bat. Moguelek *p*-ren jatortasuna aldarrikatzen zuen bitartean (ikus erabaki honen arrazoiak *Peru Abarca*-ren hitzaurreko 8. oharrean) Añibarrok era honetara azaltzen zuen bere eritzia:

Cada vez achica Vmd. más el bascuence de Marquina. Después de significar las inconexiones de mutaciones de *o* en *u*, *e* en *i*, *uba* y *ija* añade Vmd. que en Marquina no aciertan a pronunciar la *f*, y que se borre del alfabeto bascongado, y nuestros escritores sucesores si se conforman con esta regla yran escribiendo *pedea*, *pielac*, *pina*, etc. Es comunísimo su uso en toda Bizcaya; usan de *f* en Navarra y Francia, y Guipuzcoa ha pegado la *p* a Marquina como también otros términos que anoto arriba. (Michelena, 126).

Bonapartek eta beronen laguntzaileek ere bikoitzasun berberarekin egingo zuten topo, erabakia, Aita Uriartek Printzeari 1860ko maiatzaren

29an eginiko gutun batek erakusten duenez, erdialdeko azpieuskalkia hobestea izango zelaririk:

Quisiera saber en cuál de los subdialectos de Vizcaya debe hacerse —itzulpen batez mintzo zaio—, y S. A. mejor que nadie podrá resolver. Yo me inclino a hacerla sin eufonías, con la *j* suave, usando para esto la *y* griega; el plural general vizcaíno *dodaz* y no *ditut*, y con la *a* final por artículo; en una palabra, en Arratiano con *a* final. (Ruiz de Larrínaga, 1957, 221).

XIX. mende amaieran eta XX.ean barrena bizi-bizirik azaleratuko da eztabaida hau. Arana-Goiri eta beronen jarraitzaileetariko asko Ekialdeko ereduaren alde agertzen diren bitartean Erdialdekoa bultzatuko dute Azkue, Zamarripa eta bestek. Honelaxe mintzatzen zen Azkue handik urte batzutara bere aukera hori zela eta:

Quise contribuir a esta unificación en el dialecto bizkaino al crear primero la Revista *Euskalzale* y poco después el semanario *Ibaizabal*, dejando a un lado el sistema mal llamado markinés, el mogueliano, y adoptando el de Añibarro, que ya antes lo pusieron en práctica Micoleta y Capanaga, y en sus mismos días el fabulista Zabala, aunque ésta su obra fué entonces desconocida. (...) (Azkue, 29-30).

Bizkaitar idazleek eredu bikoitzasun horren zama nola bizi zuten neurtu ahal izateko guztiz adierazgarria deritzogu Echeitak *Josecho* izeneko nobelaren sarreran egiten duen ohar honi:

Esta novela está escrita en vascuence vizcaíno que dice *bidea, so-loa, mendia, zirean, direan... &*, con las conjunciones *da, ta y eta*. La subsiguiente, Dios mediante, estará escrita en el que dice, *bidia, so-lua, mendija, ziran, diran... &*, sin la conjunción *da*. Así serán atendidos los que hablan en una y otra forma. (Echeita, 7).

5. Aurreritzi linguistikoak

5.1. Honaino esandakoa kontutan harturik, Kostatarrak Iparraldean —Zuberoan zuberera lehiakide izan duelarik— eta Beterrialdeko hizkerak Hegoaldean —honek ere Bizkaian bizkaiera izan duelarik lehiakide— erdietsi dutela nagusitasun eta lehentasun osoa baieztatu dezakegu inolako ezbairik gabe. Euskalki hauexek gertatu dira, beraz, euskaldunen topaleku euretara jo bait dute, bestetara baino usuago bederen, euskaraz idatzi, euskaraz elkar ulertu edo euskara ikasi nahi izan duten gehientsuenek. Argi dago, hortaz, hizkuntz-eredu bat izateak baduela abantaila eta alde onik. Txarrik ere bai, ordea. Izan ere, hizkuntzaren barietate jakin bat hobesteak nahitaez dakar berarekin batera beste bat(zu)en gaitzespena, edo Ninyolesen hitzekin esateko:

(...) debe tenerse en cuenta que el prestigio no sólo se manifiesta «en pro» de unas normas de conducta o productos culturales, sino «en contra» de otros. Aun yendo revestido de una valoración positiva, se trata de un fenómeno secundariamente negativo. Diríamos, pues, en for-

ma simplificada, que el prestigio engendra el prejuicio. (...) (Ninyoles, 105).

Hiztunik arruntenak ere hierarkia argia somatu uste izango du. Gai-nekaldean, eta bere tasun guztiekin, prestigiodun bariedadea ikusiko du eta azpikaldean, eta bere(n) keria guztiekin hau(ek), prestigio gabea(k). «Lilurak» eraginda prestigiodun hori erabiltzen ahaleginduko da, beste(a)(k), zenbait esparrutan behinik behin, baztertu eta bertan behera utziko d(it)uelarik. Inoiz, gainera, norbere bariedadeaz, hierarkia horren azpikaldean dagoela ikusirik, lotsa eta ahalke izatea jazo daiteke, norbere hizkuntza eta norbere kultura gorrotatzeraino (=self hatred) ere iritsiz:

(...) la persona con prejuicios no encuentra «exactamente» iguales ambos idiomas, o no los encuentra sencillamente distintos, y, en consecuencia, les aplica una «diferencia de trato». Su misma expectación provocará actitudes y aprensiones definidas, que, de hecho, reducirán las funciones que *todo* idioma puede (en principio) desempeñar. El aspecto subjetivo es, en cierto modo, tan importante como el aspecto objetivo, dado que de acuerdo con las expectativas que una sociedad crea en torno a su idioma puede descubrirse de alguna forma cuál será el futuro del mismo. (...) (Ninyoles, 47).

5.2. Lekukotasun gutxi —idatzizko lekukoez ari naiz, jakina— bil-du ahal izan dut *Gipuzkoako* egoera ezagutzeko baina goian aipatutako Peñafloredarenak argi asko ematen du aditzera Beterrikoaz gainerako hizkerak ez direla ondo ikusiak izan probintzia honetan:

(...) Si me valia del de Azcoytia huviera sido poco grato à todo el resto del País hasta la Frontera de Francia, por la preocupación que tienen contra el Vascuence, ó Dialecto de *Goi-erri* (...)

Nafarroara baldin bagoaz ere urritasun berberarekin egiten dugu to-po, baina Yrizarrek K. Mitxelenaren lekukotasunaz baliatuz dioen honek antzerako zerbait gertatzen dela pentsatzera eramaten gaitu:

Bähr anotó las dos formas *dut* y *det*, como indistintamente usadas en Rentería. He pedido al prof. Michelena su opinión sobre el empleo de estas formas en su pueblo natal. Me ha respondido lo siguiente: «Para mí las formas son *dut*, etc. En cuanto a *det*, la diferencia es ante todo de sexo. No se lo he oído *jamás* a una mujer. En mi tiempo, los niños de ambos sexos empezaban por *dut*, y se pasaban a *det*, en estilo un tanto solemne, por influencia de hombres mayores. (...) (Yrizar, 44).

Argia eta borobila Saroĩhandy hizkuntzalariak *Nafarroa Behereko* egoeraz zioen hau:

Le bas-nabarrais, qui aurait pourtant, lui aussi, ses titres de noblesse, est considéré par ceux-là mêmes qui le parlent de naissance, comme une langue grossière ne méritant ni d'être écrite ni d'être étudiée. (...) (Saroĩhandy, 122).

Adierazgarria, halaber, Peillenek *zubereraz* diharduelarik egiten duen salaketa:

(...) Lapurtar triunfalismuak zuberotar azentua, fonetika, irrigai, parragai bezala dauka, eta jende bezala mespretxatzen gaituzte «buru arinak» garelakoz. Tribukeria horrek nere probintziarrak euskaltzaletasunetik maiz urundu ditu, eta bizkaitarrei bezala «euskaldun gaizto» sentimendu bat sortu, euskararen atzerakadaren zio bat izan dena Zuberoan. (...) (Peillen, 21).

5.3. *Bizkaierak*, baina, adibide nahikoa eskaintzen digu —eta aspaldidanik hasita gainera!— aurreritziaren eragina ezagutu eta neurtu ahal izateko. Euskalki honen *zakartasuna* eta *baldartasuna* azpimarratuko zituen Aita Larramendik 1745ean plazaratutako Hiztegia:

Este dialecto bien hablado, me es muy agradable en las terminaciones del verbo, y en vn gran numero de locuciones; y para hablarse bien, tienen particular gracia las mugeres, y lo mismo sucede en los demás dialectos, y aun del Latin notò Ciceron otro tanto. (...) Pero estas, y las demás locuciones las pronuncian los hombres no sè con que rudeza bronca, y desapacible. Aun las expresiones sincopadas tienen su gracia, como se pronuncien dulcemente, y sin aspereza (...) (Larramendi, 1745, xxix).

Bilboko hizkeraz den bezainbatean, bestalde, erabatekoa izango da gaitzespena:

(...) Aunque en Bilbao se habla mal, pero no es assi en sus cercanias, donde la propiedad, y pronunciacion se conservan en su punto, y sucediera lo mismo en el mismo Bilbao, si en este punto se picaran algo mas de Bizcainos: ni en esto quiero decir, que no ay en Bilbao quien sepa bien su Dialecto, pues se hallan algunos. (ibidem, xxviii).

Cardaberaz ere bat etorriko da Larramendiren eritziarekin eta, adierazgarriagoa dena, berak emango digu ordezkatzeko bilakabideaz (gipuzkerak bizkaiera ordezkatzeko bilakabideaz, alegia) ezagutzen dugun lehenbiziko albisteak:

Gauza bi alere onen gañean ciertoac dira. Bata Bizcaitarrac berac, ascoc beñtzat gure Dialectoan, berenean baño predicatcea naiagodutela: eta Bizcaico Predicadore asco gurean predicatcera oitu, edo eguindirala. Bestea da, an, ta emen ere, nic ezdaquit nola, baña guizon gueienac moldecaiz, ta gogorquiago, eta andreac berenez poliQui, ta emequiago itzeguiten dutela. (...) (Cardaberaz, 13).

Euskarak XVIII. mendeko bigarren erdialdean bizi zituen gorabeherak ezagutzeko ezinbestekoa dugu J. A. Moguelen lanetara jotzea. Eurotan ikus dezakegunez pil-pilean eta bizi-bizirik zeuden sasoi hartan euskalkiak direla eta euskaldunen arteko tirabirak:

Bada atsecabe ematen didan beste gauza bat, au da enzutea Euscal-dunac gaitzqui esaten, ta aucitan becela batzuec bestequin. Guiputzac enzuten dutenean Vizcaitarren itzquera, bereala aviatzen dira esaten, au dec eusquera zatar, astun, ta gogaitcarria. Norc enzun belarriac es-

taldu gabe? Vizcaitar ascoc (ez erri gucietacoac) esango dizute guiputzac dirala *labañac beren itzqueran, emacumen mingain zorrotzentzat ona dala, vizcaicoa guizontsuagoa*. Asitzen dira quiñu ta siñuca; oec arpeguian ematen die aiei, *nion, cion, diot*, ta ala beste epai moldeaquin. Aiec berriz Vizcaitarrai, *deutsat, neutsan, zeuntsan, esan juan, ez doc, bai doc* ta onela beste itz ascotan (...) (Moguel, 1800, xiv).

Ondoren, eztabaidon antzutasuna salatzeaz batera, bizkaieraren aldeko hitzak izango ditu:

(...) Euscaldun maiteac, certaco dira itzauci oec? Cer esango digute erdaldunac errietan ta siñuca bagabiltza alcarren artean? Gure eusquera gauza ez dala. Aita Larramendi, ta Cardaverasec, guiputzac izanic, aitortzen zuten, etzequitela cein zan obeagoa: bacoitzac jarrai beza bere jaieterrico eusquera; ordea ez gaizquiric esan. Es degu erricoiac, edo errico amorean ichutuac izan bear. Nic guciac dauzcat edertzat. Zati bat naiz guiputza, ta beste zati bat vizcaitarra, ta bietara cerbait eguin banaiz ere, gueiago vizcaico eusquerara nere vicitaric gueiena emen igaro dedalaco gendeai eracasten animaco gauzaac. Libru berau ipintzea uste det Vizcaico eusqueran ere. Ez daquitenac uste dute Vizcagician esaten dala: *Ené, ara toroa plazaan manzania jaaten*. Bilbotarren erdi ndera erdi eusquera daucate Vizcagic gucico euscaratzat. Ez da ordea ala. Eztitsuagoac dira guiputzen itzac; baña itzen eusqueratasun, garbitasun, ta eusquera legueen aldetic, ez dio ecer zor Vizcaicoac, ta Cardaverasen iritzian, obeto gordetzen dira eusqueraren regla edo zucen videac Vizcaian, Guiputzean baño. (...) (Moguel, 1800, xiv-xv).

Peru Abarca-ren hitzaurreko 21. oharrean ere lotuko zaio auzi honi:

Es mui regular, que este escrito llegue a manos de algunos peritos guipuzcoanos, y que tengan por tosco el dialecto bizcaino, aunque no le podrán censurar de corrupto, y barbaro. Todos padecemos preocupaciones patrias. Un Ytaliano acostumbrado a oír y hablar un lenguaje gracioso, delicado, alagueño, por no decir afeminado, imagina que el lenguaje castellano es brusco; y a la gravedad acusa de tosquedad y barbarie: Asi tambien un refinado guipuzcoano que se ha acostumbrado a un dialecto delicado y alagueño, nota en el bizcaino, no se que tosquedad. No juzgaban asi los famosos, e imparciales Cardaveras, y Larramendi, los que hacian particular estimacion del bascuence del Pueblo del Doctor Peru. (...) (Moguel, PA).

Confesiño ona liburuaren hitzaurrean, orobat, bizkaieraren garbitasuna eta jatortasuna aldarrikatu beharrean ikusiko du bere burua, nonbait ere bi tasun hauek zalantzan ipintzen zirenaren ezaugarri:

(...) Gura dabenac sinistu bizcaico eusqueriac ez deutsalac ecer zor quiptuzenai, iracurri begui liburu onec baño leenago urtengo daben neure adisqueide andi, ta gauza onétan, neure biarlagun leguez eguiten dan Aita Fray Pedro Antonio Añibarro Zarauzco Colegio A. San Franciscoco Ordean Misionarijac bizcaitarrentzat atera daben liburu chigar, baña urre guztiac baño gueijago balio dabena. Ediroco dau *Escu-Liburu* onetan Bizcaico eusqueran edertó adierazo leitezala esan biar dirian gauzaac verba, nequezaleen aoetan dabilzanacaz. Bizcay barru barruco semia da bera, ta bere eusquera garbi ta ederrac ezagutu eraguingo dau nun nai icasi leitiala ondo verba eguiten buruba cerbait necatu gura bada. (...) (Moguel, 1803).

Luzaz dihardu bizkaierari leporatutako estigmatz, eta beti ere arrazoi linguistikoetan oinarrituz, *Cristaubaren icasbidea edo Doctrina Cristiana* liburuaren sarreran:

La variedad de los dialectos es tambien una de las dificultades al primer aspecto insuperables. Todos ellos se reducen en suma à tres. El Vizcaino, Guipuzcoano, y Navarro, ò Lavortano, sin embargo de que aun entre estos hai tales quales variaciones. Qual de ellos deba ser preferido, yo no lo dirè, por que seria disgustar à mas de uno. Solo si, que el Guipuzcoano es mas afectuoso, y su tal qual ventaja consiste, en que asi los Vizcainos, como los Navarros le oien con gusto, y le entienden quando por el contrario, no se entienden estos mutuamente. Pero tambien es gran necedad, querer preferir por tema unas voces à otras *Barre, o farra, sucaldia, edo escaratza, gura, edo nai, celan, edo nola, leguez, edo becela, ò las terminaciones en ea, o ia, como sarea, ò saria, icustea, ò icustia &c.* Lo que yo puedo decir es, que el Vizcaino usa de mejores reglas (asi lo han confesado los Guipuzcoanos inteligentes, è imparciales) y en menos palabras dice lo que los otros en muchas. (...)

Tampoco comprendo, que ventaja pueda haver en la terminacion *quin por az*. Vg. *Joco aut maquillarequin, maquilleaz, cigorrarequin, ò cigorraz?* antes bien se pronuncia esta ultima con mas facilidad, y dulzura. Seria salir de los limites de un Prologo, si pretendiera hacer un parangon de ambos dialectos con las ventajas de cada uno. Bien sè, que los hombres desimpresionados de maximas populares, y que miran de raiz à las cosas, juzgan, que el desprecio, en que tienen muchos al dialecto Vizcaino, nace de la ignorancia, y de no haver hecho jamas el menor estudio sobre su inteligencia. Vamos al caso. Que ventaja maior se halla en la simple mutacion de las letras *a o e, o u e, eguin dot, eguin det, eguin dau o deu, dozu, dezu, dabe, dute, neban, o nuan?* Con lo que puedan dar en cara à los Vizcainos es con estas barbaras voces *deutsat, neutsan &c* en lugar de *diot y nion*. Mas va, à que tampoco dan prueba alguna solida de su ventaja? En una palabra toda la variedad de los dialectos consiste en una friolera, y si se mira con reflexion, y sin dejarse arrastrar del espiritu de partido, se verá, que ambos tienen especiales reglas, que no las pudieron inventar los Guizones, y aun menos los hombres literatos, que no los conocia este Pais. (...)

(...) Nada quiero hablar sobre la pureza de la lengua. Es preciso confesar ingenuamente, que està menos alterada en lo comun de Vizcaya (no hablo de Bilbao, por que parece que aquí se esmeran en sacar un *terciumquid* de la lengua castellana, y la bascongada, como alla algunos Israelitas con la hebrea, y la Babilonica). Hablo pues de otros lugares, donde tal vez no saben aun el comercio de las gentes. (Moguel, ci).

Oso argibide jakingarriak eskaintzen dizkigu Aita Uriartek bere gutunetan. Horietariko baten, 1859ko urtarrilaren 4an Bonaparteri egini-koan, honelaxe mintzo zitzaion Leintzaldeko egoera azalduz:

El domingo pasado principiamos la misión que concluiremos el día 17. Predicamos en el dialecto guipuzcoano de Beterri, pues están acostumbrados a este dialecto en el pùlpito. (Ruiz de Larrínaga, 1954, 80).

Berdin urte bereko maiatzaren 14an egiten dion beste honetan ere:

(...) En Elgóibar sucede que la parte de la población, que se halla situada hacia Azcoitia, participa algo más del guipuzcoano, pero aún debe agregarse a Vizcaya, aunque esto no acomoda a los guipuzcoanos.

Sucede en todas estas poblaciones que miran con desdén el bascuence de Vizcaya y son muy apasionados al dialecto del Beterri: los sermones y pláticas se predicán en ese dialecto de Beterri, y muchísimas personas hacen estudio de este dialecto, por cuyo motivo hacen una mezcla; pero todavía no han podido «guipuzcoanizar» al vulgo. (ibidem, 83).

Gutziz adierazgarria deritzogu, halaber, Bonapartek Echeniqueri igorritako gutun bitan bergararren jarreraz dioenari. Bonaparteren egiaztapena zuzena izatera, gainera, hauxe litzateke euskalki bataren ala bestearen erabilera hitzunen maila sozialaren arabera banatzen delakoaren lehenbiziko lekukotasun esplizitua. Honako hau irakur dezakegu 1863ko urtarrilaren 11n idatzitako gutunean:

(...) Quand je dis biscayen et non pas guipuscoan de Vergara, je sais fort bien que cette manière de parler déplaît à Messieurs les Vergarais qui se piquent d'être de purs guipuscoans. Je ne dis pas non, de même que je ne nie pas que les sermons de leurs curés les plus instruits et que souvent même le langage ordinaire des personnes les mieux élevées soient non seulement en guipuscoan, mais même dans la variété la plus pure de Beterri. Tout cela toutefois ne change en rien à ma manière de voir. Que les Vergarais aiment ou non les Biscayens et leur dialecte, il n'en est pas moins vrai que la variété basque de Vergara qui s'étend jusqu'à Anzuola, (le guipuscoan, de ce côté, ne commence qu'à Villarreal y Zumarraga), il n'en est pas moins vrai, dis-je, que cette variété vergaraise telle qu'elle est en usage parmi le bas peuple et les paysans, appartient linguistiquement parlant au biscayen oriental. (...) (Urquijo, 1910, 257-258).

1866ko abenduaren 15ekoan, berriz, zera ziotson:

(...) car je sais très bien que les vergarais instruits, surtout à l'église, font usage du dialecte guipuscoan le plus pur et non pas de la variété *biscayenne* en usage chez le bas peuple. (...) (Urquijo, 1910, 295).

Behin XX. mendera iritsiz eurrez aurkituko ditugu era honetako eritziak. Hona hemen S. Altuberen lekukotasuna:

Es sabido que en la conjunción de los territorios de Vizcaya y de Guipúzcoa, hay una vasta zona lingüísticamente vizcaina; pero que administrativamente forma parte de la llamada provincia de Guipúzcoa. Dicha zona comprende ampliamente todos los pueblos situados a derecha e izquierda del río Deba en todo su recorrido hasta Malzaga. (...)

Pues bien: todos estos miles de habitantes, cuyo idioma propio es el euskera neta y puramente vizcaino, prefieren para la lectura el guipuzcoano, lo entienden perfectamente y la mayoría hasta lo habla en forma aceptable.

¿A qué obedece este fenómeno? Sencillamente a que el Obispado de Gazteiz envía a las parroquias de esos pueblos, casi siempre, sacerdotes de Guipúzcoa, pero de toda ella, sin distinción de zonas lingüís-

ticas: y los que llegan de *Beterri* (así llaman en los pueblos cuestionados a los de habla guipuzcoana) predicán y rezan en este su euskaldí, y aun los de *Goyeri* (o sea los de habla vizcaina) también lo hacen en guipuzcoano, que lo aprenden con facilidad durante su vida de seminaristas, al contacto, en el Seminario, con los euskaldunes de *Beterri*.

Toda la predicación y demás actos religiosos en las iglesias de los guipuzcoanos de habla vizcaina se efectúan, pues, con pocas excepciones, en el euskaldí guipuzcoano, y esto basta para que los habitantes de dichas zonas, como queda dicho, lo entiendan sin dificultades, lo hablen pasablemente y, lo que es más interesante, lo prefieran en los libros de misa, en la Doctrina Cristiana y en toda clase de lecturas. (Altube, 202-203).

Altubek, jarraian, Azkueri gertatua aipatzen du. Berau Arrasatera deitua izan omen zen, herriko jaiak zirela eta, Meza Nagusia esatera eta, bertan, bere predikuari bizkaieraz ekin bazion ere gipuzkerara aldatu behar izan omen zuen:

Hacia la mitad de la peroración, cayó en cuenta de lo que creyó imperdonable distracción, por lo que, interrumpiendo el sermón por un momento, se disculpó ante los oyentes y prosiguió su labor en el «lenguaje oficial», en puro guipuzcoano. (ibidem, 203).

Gaurregun ere bizi-bizirik diraute aurreritzi hauek. Aita Villasante, Oñatiko euskara aztertzen duelarik, ondo jabetzen da bertoko hiztunek euren hizkerarekiko daukaten lotsa eta ahalkeaz. Bi arrazoi aipatzen ditu uste horren iturburu legez: gaztelaniatik hartutako mailegu ugariez euren hizkera hori «zikindu» izana lehena eta honako hauxe bigarrena:

Beste arrazoi bat ere ba da, nere ustez, txar konpleju ori esplikatze-ko. «Euskera ona, Tolosa aldekoa. Kiputz-aldekoa». Lelo au ere maiz entzuten da. Sermoi, itzaldi eta liburuetarako beti euskera ori erabiltzen da. Eta hori eskatzen du jendeak ere. Emen Oñatin ere bai. Ango euskera apain eta dotoretzat jotzen da. Bertsolariek ere ura maite dute. (...) (Villasante, 1968, 82).

Gauza bera omen zioen Aita C. Izagirrek Oñatin bildutako hitz zerrandari egin hitzaurrean:

Oñatiarrak beren izkerakin lotsatu egiten dira: beren ustez Tolosa-aldekoa da ederrena, ta kanpokoakin itz egiterakoan berena aldatzera egiten dute. (...) (Villasante, 1981, 922).

5.4. XX. mendean zehar, bestalde, bizkaieradun ez diren euskaldunengan areagotu egingo da euskalki hau *baldarra* eta *zakarra* izateaz landara *zaila* eta *ulerkaitza* ere badelakoaren ustea. Horrelako zerbait omen zioen J. Etcheparek 1921eko agorrilaren 12an *Eskualduna* aldizkarian argitaratutako artikulua baten:

Ausarta banindadi, kitzikaño bat nezoke egin bakarrik. Gogorra da, dorpea, askotan truskila, bizkaitarren euskara. Garbiago zauku, leunago ere mendiez hunaindian derabilaguna, nahiz den gutien bat aberatsago hangoa. Ahopaldia bertzalde luzeago, eta itzulika geiagorekin, biz-

kaitarrek. Irakurtzen dugularik, ezin adituarekin askotan buruan min emaiten dauku. (...) (Charritton, 207).

Giputza izan arren kezkatu azalduko da Xabier Lizardi jarrera hau dela eta *Argia*-n 1932ko otsailaren 9an plazaratutako artikulu baten:

«Lauaxeta» 'ren «Bide Barriak» ez omen dezu irakurri, bizkaierazkoa ote-dalako, ta zuk gipuzkera baizik ez dakizulako.

Bizkaiera, gipuzkera, lapurdiera, guziak dira euskera, ta euskera eder. Guziak bear ditugu mami-mamiko (...) (Agirre, 103).

Baztarrika'tar Isidor ere, azkenik, honela mintzo zitzaion Aita Onaindiari 1959ko agorrilaren 28an egin gutunean:

Bialdu mesedez guri ere OLERTI aldizkari berria. Aita Goiriak esanda *Karmel* zabaltzen saia nintzen (Lazkaon, alegia), banan ezin, bizkaieraz dala ta ez dute artu nai. (...) (Onaindia, 136).

Bizkaitar eta bizkaieradunen lekukotasunetan ere maiz azaleratuko da gipuzkerak eurengan daukan itzal edo prestigioaren eragina eta sortzen duen lilura antzekoa baina, honekin batera, baita giputzengan gauza bera jazotzen ez denaren egiaztapena ere. Ikusi besterik ez dago, horretarako, 1916 inguruko txosten baten Belaustegigoitiak zioen hau:

(...) Frecuente es en ésta última región (Bizkaian, alegia) que misioneros como los Padres Aizpuru, Laskibar y otros dirijan la palabra en guipuzcoano, con general complacencia (...). Y si esto ocurre en Bizcaya, no hay que insistir en el éxito que el guipuzcoano obtiene en Nabarra, donde gran parte del pueblo euzkaldun le entiende si en rigor no le habla y le admira considerándole como a un euzkera superior, el verdadero euzkera. Tenemos en cambio que reconocer que el bizcaíno, a poco que de Bizcaya nos separemos, produce una impresión grande de extrañeza y tropiezo con mayores dificultades. No es posible dudar que un plebiscito de todas las regiones vascas otorgaría sus votos al guipuzcoano. (Belaustegigoitia, 18).

Ikus, halaber, 1920an Madariagak zioena:

(...) Nik dakidanez, bizkaitarrek eta bezte euskaldunak ezazago ikasten dabe gipuzkoerea, gipuzkoarrek beste euskalkiak baño. Nire ikastaroan bizkaitarrek eta gipuzkoarrek asko izan dodaz lagun, eta bizkaitar gezenok saiatu gara gipuzkoera ikasten, gipuzkoarrek bat bere ez gure euskera ikasten (...) (Madariaga, 60).

Antzerako baieztapena egingo du Oskillasok ere:

(...) askoz gehiago zabaldu da bizkaitarren arte gipuzkera beste euskaldunen arte bizkaierera baino. Bethi arkitzen dira kaletarren arte gizonen batzu gipuzkeraz ulertzen dutenak, eta erderaz eztakian giputz bat ezta geldituko ixilik Bizkaiko herri batera joaten bada. (...) (Oskillaso, 164).

Baina berak emango du jarraian gaitz horren arrazoia:

(...) Bizkaitarrak lotsatu egiten dira euren euskaraz Bizkaitik irteteko gauza eztala ikusirik eta erderaruntz bultzatuak sentitzen dira. (...) (ibidem, 165).

Behin eta berriz egin izan du salaketa berbera Aurre-Apraiiz jaunak. 1963an argitaratutako artikulua baten, esate baterako, zera idatziko zuen:

(...) Baiña daitekenik osoen egin ba-gengi be (Bizkaiera osotu batez mintzo zaigu Aurre-Apraiiz), arerio larregi izango leukezala bizkaierak nik uste. Gorrotoa bere artuko leuskiue, barriz, baten batzuk. Beñolako batzar baten kiputz batek negargarriro adirazi ebanez, beintzat, bizkaierera etxako «*bat ere atsegin*». Mogel'enak «*irakurtzen asi eta askotan erortzen*» ei yakoz «*bizkaiera kutsua duelako*». Eta, «*beste askori ere*» bardin jazo dakiokela uste dau.

Ezin ulertu daiket zelakoa dan euskeldun batzuen euskeltzaletasuna. Guk bizkaitarrok, geienok beintzat, pozarren irakurri daroaguz (zein euskelkitan irakurten gagozan be oartu bage, sarritan) beste izkelgietako lanak be, ta geurea, besteak irakurteko gaiez ezeze, gorrotogarri bere ba-da, antza, batzuentzat. Geu bizkaitarrokandik landa gure berbetea iñok irakurri be egiten ete dabn pentsamentua bere izan daroat, sarri. (...) (Aurre-Apraiiz, 1963, 185).

Hurrengo urtean argitara emandako beste baten, berriz, honako hau esango zuen:

(...) Gaitza da, antza, gurea, enpaiduentzat. Ba-doguz kiputzak eurak baizen ondo, edo obeto, kipuzkerea idatzi daroen bizkaitarrak, baiña beste izkelgietakorik bat bere ez dazaut gurea taiuz idatzi dagikenik. Kiputz-artean daitekean bizkaitarrak beingoan artu daroa arein izkerea. Baiña bizkaitarren artean daitekean kiputzak gogor eutsiko dautso bereari. Ain gaitza ete, ba, gure berbetea beste euskelkietakoentzat? Bizkaitarrai atsegin dakioe kiputz itz egitea. Bada gure ardandegietako bertulariek be bertsuak kipuzkeraz lorrinzen ekin daroatse, geienak; geurea baiña a bertsuetarako bigunago ta egokiagoa dala sartuta daukie, ba, buruan, askok, Kiputz-bertsolarieri geureeri baiña sarriago entzun izan dautsielako ez ete? (Aurre-Apraiiz, 1964, 48-49).

1975eko beste baten, azkenik:

Guretzat, bizkaitarrontzat, erreza da kiputxen euskalkia. Gipuzkoarren artean dabillan edonok, beingoan ikasi oi dau kiputx itz egiten. Baiña, kiputzak eurak, naiz-ta bizkaitarren artean luzaro ibilli izan, nekez jo daroe gurera. Oarrikasiz (esperientziz) dakit, diñodan au. Aitatzek berak bere biotza illundu daroaztan tokietan urte bat baiño be geiago egiña nozue, gipuzkoarrakaz. Mutil onak ziran, izan, bere, ta alkarren lagun zintzoak giñan. Baiña, ez dot uste, bizkaiera asko sartu zatekeanik arein biotz-belarrietan: Euren beti, ta gurea aintzat artu bere ez. Guk geuk, oztera, bigun eta polit deritxagu, ta, kiputx egitea gogoko izan oi yaku.

Zer dala-ta ez dakit baiña, nik neuk uste dot kiputxeri gaitz egiten dakiokela Bizkai'ko euskerea: Orixek berak be ez eban ondo menperatzen; eta, gitxi be gitxi ezagutu izan dodaz bizkaieraz itz egiten dakien kiputzak. Izan dira eta ba-dira, gipuzkera osotuan ederto idatzi daroen bizkaitarrak. Baiña, ez dot ezagutzen Bizkai'ko euskeraz ondo idazten dauan gipuzkoar idazle bakar bat bere. Kiputzak daitekez, ba, gipuzkera osotuan zabaltasunik gitxienez idatzi dagikeenak... (Aurre-Apraiiz, 1975, 6).

Azpimarra dezadan, bide batez, bizkaitarrek giputzen euskara bai

baina hauek haiena ezin ulertze horretan badirela tarteko bai hizkuntza barruko indarrak eta baita hizkuntzaz kanpokoak ere. Lehenengoei bagagozkie ez dugu ahaztu behar, alde batetik, bizkaiera dela joera garbiza-leak gehien nozitu dituen euskalkia eta, bestetik, mende honetan indartu eta bultzatu direla —nahiz ez sortu— jarrera ultrabizkaitarrak, guzti honen ondorioz bizkaiera gainontzeko euskalkietatik aldentuz eta urrunduz joan delarik.

Hizkuntzaz kanpoko indarrei bagagozkie, ostera, gipuztek badakite, prestigiodun euskalkia gipuzkera delarik, inor inoren euskalkira aldatzekotan besteak eurenera, eta ez eurak inorenera, aldatuko direla. Era honetako jarrerak, Mackeyk oharterazten duenez, gurean ezezik bestetan ere ezagunak omen dira:

(...) les attitudes face à la compréhension des langues ne sont pas toujours réciproques. Par exemple, bien que 87% des Suédois pensent être compris des Danois, seulement 40% de ces derniers s'accordent pour dire qu'ils comprennent effectivement le suédois; 70% des Danois affirment être compris des Norvégiens, tandis que seulement 50% de ces derniers considèrent qu'ils comprennent le danois. Les touristes de langue anglaise ont toujours agi comme si tout le monde pouvait les comprendre, bien qu'ils ne puissent eux-mêmes comprendre aucune autre langue. (...) (Mackey, 222).

Betiere barietate linguistiko bakoitzaren «prestigioa» izango da arrazoi erabakiorra:

(...) on prétend ne pas comprendre un dialecte inférieur, bien que ce dernier soit très proche de la langue maternelle. Une faible proportion de ceux qui parlent l'anga avouent qu'ils comprennent la langue très similaire et très proche du sura. Par contre, ils prétendent comprendre le hausa, l'importante *lingua franca* d'une grande région dans le nord du Nigéria. (...) (ibidem, 222).

Azken ondorio legez, beraz, badirudi erdara/euskara hierarkia ezagunaz gainera badirela, eta euskara barrukoak oraingoan, beste batzuk ere: Iparraldean kostatarra gainekaldean eta lapurteraren gainontzeko hizkerak, baxe-nafarrera eta zuberera azpikaldean genuke, nahiz eta zuberotarrek (gogoan izan dezagun Zuberoan gaindi izan dela benetako «üskalduntzat» bere burua euki duenik gainerakoei «manex» goitizena —ez arras adeitsua— ezarri diolarik) euren euskalkiarenganako atxikimendu nabarmena azaldu duten maiz. Hegoaldean, berriz, Beterriko hizkera gainekaldean eta gipuzkeraren gainontzeko hizkerak, nafarrera eta bizkaiera azpikaldean litzateke aipatu hierarkia. Euskal Herrian ere, hortaz, Ninyolesek (1972, 80-81) *double diglosia* edota Txepetx-ek (Sánchez Carrión, 1974, 68) *endodiglosia* lehenik eta *semi-diglosia* berrikitan (Sánchez Carrión, 1986, 25) izendatu duten egoera linguistiko baten aurrean geundeke.

BIBLIOGRAFIA

- AGUIRRE'tar Joseba Mirena, *Itz-lauz*, Edili, San Sebastián, 1972.
- ALTUBE, Severo de, «La Unificación del Euskera Literario», *Eusko-Jakintza*, III (1949), 2-3. zb., 181-204. orr.
- ALLENDE SALAZAR, Angel, «Carácter general de la literatura vasca», *Euskalerriren alde*, V (1915), 113. zb., 519-525. orr.
- AÑIBARRO, P. Fr. Pedro Antonio de, «Gramática bascongada...», *ASJU*, III (1969), 1-169. orr.
- ARCHU, J.-B., *La Fontainaren aleighia berheziak, neurt-hitzez Franzesetik Uskara itzuliak*, La Reolen, 1848.
- AURRE-APRAIZ, 1963: «Ni, neu, zu, zeu...», *Egan*, XXII, 4-6. zb., 183-186. orr.
- , 1964: «Batasuna dala-ta», *Egan*, XXIII, 1-6. zb., 48-50. orr.
- , 1975: «Bizkai'ko Euskerea ta kiputxak», *Goiz-Argi*, Dagonilla-20, 255. zb., 6 orr.
- AZKUE, Resurrección M.^a de, «Observaciones acerca de la obra *Langue basque et langues finnoisès*, del príncipe Luis Luciano Bonaparte», *Euskera*, VII (1926), III-IV. zb., 17-36. orr.
- BELAUSTEGIGOITIA'ta P., *La unificación del euzkera*. («Azkue» liburutegian da goen aleaz baliatu naiz).
- BONAPARTE, Louis-Lucien, 1869: *Le verbe basque en tableaux...*, Londres.
- , 1876: *Remarques sur plusieurs assertions de M. Abel Hovelacque concernant la langue basque accompagnées d'observations grammaticales et bibliographiques*, Londres.
- CARDABERAZ, A., Agustin, *Eusqueraren berri onac: eta ondo escriptceco, ondo iracurtceco, ta ondo itzeguiteco Erreglac*, Iruinean, 1761.
- CHARRITTON, Piarres, *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak*, Elkar, Donostia, 1984.
- DARANATZ, J.-B., «Correspondance du Capitaine Duvoisin», *RIEV*, XX (1929), 152-181. orr.
- ECHUITA, Jose Manuel, *Josecho*, Durango, MCMIX.
- FRANCISQUE-MICHEL, 1854: «Lettre à M. P. Mérimée sur les représentations dramatiques dans le Pays Basque», *Le Messenger de Bayonne*, 1854-12-14, 531. zb.
- , 1857: *Le Pays Basque. Sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*, Paris.
- HARANEDER, *Gudu Izpirituala*, Tolosan, MDCCL.
- HUMBOLDT, Wilhelm Freicher von, 1922: «Diario del viaje vasco 1801», *RIEV*, XIII, 614-658. orr.
- , 1975: *Los vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*, Auñamendi, Donostia.
- LARRAMENDI, P. Manuel de, 1729: *El impossible vencido. Arte de la Lengua Bascongada*, Salamanca.
- , 1745: *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence, y latin*, San Sebastian.
- , 1969: *Corografía...*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián.
- LECLUSE, Fl., *Manuel de la Langue Basque*, Bayonne, 1826.
- MACKEY, William Francis, *Bilinguisme et contact des langues*, Klincksieck, Paris, 1976.
- MADARIAGATa Angeru Aba, O.F.M., «Euskerearen bakuntzeaz», *Euskera*, III (1922), I. zb., 58-61. orr.
- MICHELENA, Luis, «FREDRICK JUNGEMANN. La teoría del sustrato y los dialectos hispano-romances y gascones», *BAP*, XII (1956), Cuaderno 1.º 117-129. orr.

- MOGUEL, Juan Antonio, 1800: *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac*, Iruña.
- , 1803: *Confesino ona edo, ceimbat gauzac lagundu biar deutseen Confesinuari ondo eguiña izateco*, Vitorijan.
- , 1935: «La Historia y Geografía de España ilustradas por el Idioma Vascuence», *Euskera*, XVI, III-IV. zb., 187-354. orr.
- , PA: *El doctor Peru Abarca (Catedrático de la Lengua bascongada en la Universidad de Basarte) ó Dialogos entre un Rustico solitario bascongado, y un Barbero callejero, llamado Maisu Juan*. (Zarauzko Frantziskotarren komentuan dagoen eskuizkribuaz baliatu naiz).
- , CI: *Cristaubaren icasbidea edo Doctrina Cristiania*. (Arantzazuko Frantziskotarren komentuan dagoen eskuizkribuaz baliatu naiz).
- MUNIBE, Francisco Xabier Maria de, *El borracho burlado, opera comica, en castellano, y bascuence. Escrita, y puesta en musica por un caballero guipuzcoano*.
- NINYOLES, Rafael Lluís, *Idioma y poder social*, Tecnos, Madrid, 1972.
- ONAINDIA, Santiago, *Eskutitzak*, Bilbao, 1974.
- ORMAECHEA, N., S. J., «Unificación del lenguaje literario: Diversas soluciones», *RIEV*, XI, 53-61. orr.
- OSKILLASO, «Ihardespen bat Mitxelena jaunari», *Egan*, XXII (1963), 4-6. zb., 162-181. orr.
- PEILLEN, Txomin, «Jon Mirande eta Aiphasorho-ren bizia (1925-1972)», *Jon Mirande-ren Idazlan Hautatuak*, Mensajero, Bilbao, 1976, 11-29. orr.
- RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. Juan, O.F.M., 1954: «Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte», *ASJU*, I [1.º aroa], 35-106. orr.
- , 1957: «Cartas del P. Uriarte...», *BAP*, XIII, Cuaderno 2.º, 220-239. orr.; Cuaderno 3.º, 330-348. orr.
- SANCHEZ CARRION, J. M.º, 1974: «Bilingüismo, Disglósia, Contacto de Lenguas», *ASJU*, VIII, 3-79. orr.
- , 1986: «Fundamentos para una teoría de la territorialidad lingüística», *Hizkuntza minorizatuen soziologia*, Ttarttalo, 20-49. orr.
- SAROYHANDY, J., «Cours de langue basque», *RIEV*, XI (1920), 121-132. orr.
- URQUIJO, Julio de, 1907: *Obras Vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712)*, Paris; 2. arg. *LGEV*, Bilbao, 1976.
- , 1910: «Cartas escritas por el príncipe L.-L. Bonaparte á algunos de sus colaboradores», *RIEV*, IV, 233-297. orr.
- URTE, Pierre d', *Grammaire Cantabrique basque*, Bagnères-de-Bigorre, 1900.
- VILLASANTE, A. L., 1968: «Oñatiko Euskera», *Egan*, XXVII, 80-94. orr.
- , 1981: «Dialektologi ikastaroa», *Euskera*, XXVI-2, 919-923. orr.
- YRIZAR, Pedro de, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (II), Caja de Ahorros Provincial de Gupuzcoa, 1981.

Euskal fonologiako berriak 1900 arte

LOURDES OÑEDERRA
(E.H.U.)

ABSTRACT

In this paper a general account of the contribution of Bascologists up to 1900 is given from the point of view of phonology. Two main questions are addressed: on the first place, whether we can talk of phonology—in the broadest sense of the word—when referring to the treatises of older authors; second, and starting out from the previous question, we try to measure the phonological depth and coherence of their reflections on sounds and some other related topics such as orthography, language apology, pronunciation, etc. Old grammars and introductions to books have been taken into account and passages directly quoted whenever possible in order to provide the reader with the most direct evidence used in the discussion.

Euskal fonologiako berriak 1900 arte

0. Euskal fonologiako berriak bilatzea xx. mendea baino lehenago ez da txantxetako gauza eta estraineko momentuan badirudi ez dagoela zereginik. Garbi dago ezin dela fonologiaren definizio estutik abiatu lan honetan, baina ez hemen eta ez gainerako hizkuntzei bagagozkie ere. Jakina da fonologia oraingo zentzuan behintzat xx. gizaldiko kontua dela—honen egokitasuna ez dut hemen aztertuko, aritu bait gara honetaz orain baino lehenago eta, gainera, gai nagusitik aterako gintuzkeelako¹. Eskuliburu askok Pragako Eskolakoei egozten diete erditzearen meritua eta esan daiteke hauek direla *jakinaren gainean* eta nahita fonologia egiten duten lehenak². Azterketa fonemikoan garrantzitsu suertatu ziren beste zenbait autoreren emaitzak ere aldi berekoak dira oro har. Ez da, beraz, ahaztu behar adituak mende honen hasieran hasi zirela orain erabat arunt zaizkigun lanabes teorikoak, zenbait kontzeptu, etiketa, analisi maila eta, azken buruan, pentsabide fonologikoa erabiltzen.

Gauzak historikoki beren lekuan kokatzea beharrezkoa da zuzen epaituko baditugu. Izan ere, errazegi (eta oker) da joan diren mendeetako ikerlariak oraingo

(1) Ik. Hurch/Oñederra «Fonemaren teoriak», *ASJU*-k 1988/1ean argitaratu duena eta baita ere Hurch-en lana ale honetan bertan,

(2) Izan ere, azpimarkatzekoa da ohartuki egiten dutela fonologia, horixe delako, nere ustez, aurrekoekiko bereizkuntzarik nabarmenena eta ordurarteko fonologilari *avant-le-mot* haiengan aurki daitekeen ezaugarri eta mugarik nabariena. Gogoeta honek badu garrantziarik hemen aztertuko ditugun autoreen ekarpena neurtzeko ere.

argitan begiratzuz, beraien huts-egiteez barre egitea. Orain guri, edo neri lan hau prestatzean bederen, lehengo autoreengan interesatzen zaiguna azterbidea da. Hau da, zientzia edota ezagutzak nondik nora dabiltzan ikusteko, axola duena azterbidea da: zertan oinarritzen ziren nora iristeko eta, horren bidez, norainoko *bizkuntzalari* edo, gure kasuan, *fonologilari* ziren. Bestalde, esan behar da aurreko garaietan hizkuntzaz aritu direnen huts-egiteetatik ere badugula zerikasirik ideia fonologiaren bilakaeraz arduratzen garenok. Neure egin nahi nituzke gainera hona aldatzen ditudan Aarsleff-en (1983, 9) hitzok:

The chief prop of this historically inadmissible assumption [the conviction that the top has been reached] is fondness for the prestigious appellations of «science» and «scientific», almost as if the thing becomes so by the mere use of those terms and becomes more so in proportion to the frequency of their use. In this view all earlier study of language is seen as a rather malicious conspiracy against the future and the present enlightenment, and history gains attention only as a sort of self-flattery.

Alde horretatik, hemen fonologia zentzurik zabalenean hartu da. Bilatu eta aintzakotzat hartu dira hizkuntzaren hots-osagaiarekin (esan nahi bait da maila fonetiko-fonologikoarekin) zerikusirik duten aipu, iruzkin, esplikazio edo deskribapenak. Hartara, ez dut denbora gehiegi pasa aurkitzen nuena *mutatis mutandis* fonetikatzat ala fonologiatzat jotzen nuen erabakitzen. Bestalde, ez dakit galderak zentzurik ote duen batez ere denboran atzera goazelarik³. Aurkitua komentatzean besterik gabe arazo paradigmaticoak eta sintagmaticoak bereizi eta, horien barruan, ingurunezkoak eta ingurunez-landakoak banakatuko dira.

Esan behar da beste zerbait oraindik lanaren ikuspuntuaz. Ez da testu azterketarik egin idazleen grafiak garaiko fonologiaren adieraz dezakeena jasotzeko. Nahikoa da, besterik gabe, lanean zehar azalduko diren aipuei gainbegiratu egitea datuak atera daitezkeela ikusteko, baina ez zen hori gaurko helburua: aztertu nahi dena da lehengo adituek fonologiaren zer zekiten. Eta, berriz esan, ez du balio ezer ez zekitela esateak fonologiarik ez zela aitzakiatzat hartuaz (eta, bide batez, ahaztuaz).

Azken buruan, zalantza sujerigarriak argitu nahian-edo ibili naizela aitortu behar dut. Ez dira fonologiaren zer edozer idatzi autore guztiak aztertu; batzuk alboratu ditut, ez dutelako berri haundirik eskaintzen eta beste zenbait, berriz, iritsi ez naizelako. Izan ere, lan hau, hemen aurkezten den beste baten bat bezala, azterbide baten edo gure artean iraganari begiratzeko modu berri baten hasieran kokatzen da⁴. Esango nuke hautatu autoreak nahikoa direla puntu nagusienak komentatzeko edo behintzat zenbait gogoetari atea irekitzeko —baina hori bestek esan beharko du, erabili ez ditudan ezagutzen dituenak, alegia—.

Hortaz gainera, honez gero historia aski jantzia dago ikastaro honetan. Esan nahi dut bestek aurkeztu duela zenbait datu garrantzitsu euskararen azterketetzat eta nik huts hutsean *fonologia* deituko diogun horri hel diezaiokedala. Bestalde, fonologiaren kontuak mundu zabalean nola zebiltzan B. Hurch irakaslearen lanean azaltzen da eta, hortik ere, markoa arras egoki ezarria dugu.

(3) Ikastaro honetan esan da joan den mendean eta lehenago fonologiarik ez zegoela, fonetika zegoela. Bide horretatik sareak estutuz esan liteke fonetkarik (ia) ez zegoela, ortografia zegoela. Alde batera uzten dut hemen izenen auzia.

(4) Alde horretatik, eskerrak eman nahi dizkiot J. Lakarra ikastaroaren zuzendariari hizkuntzalariok sarritan ahanzten ditugun alorretan sartzeko eman didan aukeragatik.

Hona hemen, labur adierazita, aurkitu nahi izan dena: a) zertan oinarrিতта esan daitekeen fonetika-fonologia egiten dutela edo ez dutela egiten lehenagoko autoreek; b) zein den euskararen fonetika-fonologiaz ematen den informazioa, honetarako gehien errepikatzen diren ideiak eta bitxi edo interesgarri gerta dakizkigukeen eritziak jasoz.

Ez dut goitik-behera jaso autore bakoitzak dioena denbora eta hurbilketa mugengatik, baina noizbait egin beharko da hori ere: autore bakoitzaren azterketa osoaren bidez bakarrik egin daiteke alderaketa lan sendoa. Aipatu (a/b) zatiketa zaila da, alor biak elkarrekin lotuak daudelako eta bataren harira datorrelako ia beti bestea. Izan ere ezin da bataz hitzegin bestereakiko ongi finkatu gabe.

1. Euskararen berriak

Ez dago gauza handirik euskararen fonetikaz 1900 arteko urteetan. Euskarari buruz ordurarte idatzitakoei begiratzen bazaie ikusten da nola arrazoi bategatik edo beste bategatik euskararen kezka zutenek ez zioten jaramon haundirik egin hizkuntzaren fonologiari. Izan ere, ez da harritzekoa fonologiak berez ardurarik ez eragitea, oso oraintsukoa bait da fonologia hizkuntzalaritza edo linguistikaren barruan maila beregaintzat hartzea.

Esan den bezala, xx. mendea baino lehenago ezin da fonologiaz hitzegin, ez dago fonologiarik, hitza ezezaguna da hizkuntzalariek deituraren beharrik ez dutelako, ez dagoelako fonologia edo fonologikoa dei daitekeen teoriarik, ez da bilatzen hizkuntza aztertzean eremu horretako esplikaziorik, hizkuntza eta hizkuntzak aztertzen dituztenen helburua ez da *zuzenean* behintzat egun fonologia egiten dugunon helburua: kezka ez zen hots sistemen azterketa berez, sistema bezala; hotsek hiztegian, ortografian, morfologian eta abarretan izan zezaketen garrantziagatik hartzen ziren aintzakotzat.

Horrek ez du esan nahi hizkuntzaren hots-eremuko erregularitasuna edo erregularitasunik eza (eta hor fonologiaren funtsa) jasotzen ez denik edota erabiltzen ez denik. Are gehiago, baten batek aurkikunderen bat ere egiten du. Gauzak ez dira bapatean sortzen eta nonbaitetik jaino bide dira kontzeptu berriago eta oraingoz egokiagoak.

xx. gizaldia baino lehenagoko euskalari guztiongan garbi ikusten da lanabes teorikoen falta. Fonologiaren kontzepturik eza besterik ez da Lardizabal bat, Larramendi baino aurrerago iritsiagatik (adibideen aukeran), berau bezain hankamotz uzten duena bustiduraz ari denean:

(...) la *t*, además de la regular pronunciación, tiene otra diversa; siguiéndole *u*: y es media entre la que tiene la *t*, y la *j* consonante, no tan fuerte como la primera, ni tan suave como la segunda. Tiene casi el sonido de *tiu* monosílabo, *ditut*, *badituzte*, *ditiut*, *badituzte*. Y para significar esta pronunciación duplican en algunas partes la *t*. (Larramendi [1729] 1979, 338).

Garbi ikusten da lehenagoko garaietan hizkuntzaz aritu direnen obretan hizkuntzaren berri bilatzean, jakintza alor bat garatua ez egoteak zer ondorio dakarren. Garbi dago euskal gramatikagile eta gainerakook ez dakitela *neutralizazioaren* berri, ez dutela izenik aurkakotasun fonologikoak adierazteko, ez dutela aspiko aurkezpenaren kezkarik. Larramendik ([1729] 1979) aditzez dioena irakurtzean eta *al* «sincopado de *abál*.» (op. cit. 202. or.) edo *oi=ohoi* (op. cit. 197. or.)

ikusten dugunean, garbi gelditzen da ez duela gainerako kezkarik, begibistan bait dauka, besterik bilatuko balu, behar lukeen alternantzia. Beste horrenbeste esan daiteke Astarloari buruz *gosaldu*-z dioena dela eta, «*goxaldu* o *goizaldu*» parekatzen dituenean, asmoa lexikoa bait da soilik eta ez bait du oguzkera horien lokeraz ondorio *fonologikorik* ateratzen —hitzen arteko lokeraren egokitasunarena alde batera utzirik hemen—. Archuk ere ortografiarekiko menpekotasunari zor diona ordaintzen du, <u>-az ari dela zubereraz [u] eta [ü] biak daudela aipatzea gogoratu ere ez zaionean egiten.

Lehenagoko gramatikak eta gainerakoak (liburu sarrerek, e.a.) irakurtzean bi inpresio dira berehala nagusitzen direnak:

1. Zer gutxi dagoen hotsaren inguruan; salbuespenak salbuespen, esan daiteke zaharrago eta urriago direla autoreak alor honi dagokionean⁵. Esate baterako, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuan, hasi aurretik, inprimari eta irakurleei grafiez egiten zaien ohar laburrean erkatzen dira <ç> eta <c (z)>, hotsen deskribapen fonetiko dei litekeena emanaz: «(...) Et vbi virgula ponitur sub ç. hoc modo quod fit dum praeponitur vocalibus .a.o.u., tunc ç. pronunciat bitur paulo asperius quam .z. vt in .c.e.c.i.» Ez dago besterik. Aipatzekoa da oraindik ere usuegi erabiltzen dela gure artean gisa honetako hiztegi inpresionista.

2. Dagoenean, nola amaiera-puntua jartzen den beti fonologilariarentzat interesgarriena datorren unean. Agertuko zaizkigu honen adibideak.

Zenbaterainoko fonetika-fonologilari ziren jakin nahian, maila azalekoenetik hasiko gara zenbait ezagueraren adierazpen izan daitezkeenak zerrendatzen:

- Aurkitzen dira sailkapen fonologikoaren araberako banaketak. Esate baterako, Kardaberatzek ([1761] 1973, 22) herskari ahokariak gainerako kontsonanteetatik bereizten ditu azalduz *mutuak* direla, «aoz esateco ots guchi eguiten dute nac». Halaber, deskribatzen ditu frikari eta ozenak eta esaten «aoz esateco Vocalen guisa diranac» direla. Zerrendatzen dituen hotsak eta proposatzen dituen deskribapenak ez daude batere gaizki azterketa fonetiko bezala eta ez daude urruti sistema binariozko sailkapen fonologikoa oinarritzen duten deskribapen fonetikoetatik (hain zuzen ere, Kardaberatzek darabilen aurkakotasuna egungo fonologian [+/-jarrarikor] tasunaren bidez jaso daitekeena da).

- Etcheberrik [h] hasperena azaltzeko esaten duena da, hain zuzen ere, ez dela, ez bokal, ez kontsonante. Itzuliko gara ostera ere puntu honetara (§ 2).

- Astarloaren (edo Erroren) letren eduki, arrazoi eta esanahietan ez naiz sartuko, ez duelako inolako interesik orain eztabaidatzen dugunerako oso entretenigarri gerta badaiteke ere. Beste hainbeste, hitzen etimologi eta osaketaz (*goi* nola asmatu zuten lehenengo hiztunek, e.a.). Deskribapen paradigmatico segmentalak ere ez digu, nere ustez, gauza haundirik eskaintzen (*Apologia*-z ari naiz, esate baterako), batipat euskararen «inondik-eztasuna» frogatu nahi bait du nola hala. Erakusten du nola euskarak badituen ama izan ditzakeen hizkuntzek ez dituzten hotsak eta, horregatik, ezin izan dituela beste hizkuntza horien alfabetoetatik kopiatu. Beste guztien artean (<ñ, ll, ch, x>, <tz, ts>, <p/f>), <ñ> da luzean azaltzen duena, baina ez du inon fonetika-fonologiarekiko interesik erakusten.

- Garrantzitsuago da euskal silabaren deskribapena eta, batipat, daitezkeen

(5) Aipagarriak dira Erro edo Astarloa, adib. alfabetoari ematen dioten garrantziagatik: txikitik haundira eraikitzen dituzte beren gramatikak, baina, dena dela, hauengan ere —batez ere hauengan— hotsak ez dira esanahirik gabeko hizkuntzaren bigarren artikulazioeko elementuak.

silaba guneena. Guztira bost bokal eta sei diptongo onartzen ditu (ai, au, ai, eu, oi, iu) eta CV, VC eta CVC silaba egiturak. Dioenez, ez da besterik euskaraz eta honetantxe datza hizkuntzaren edertasuna eta leuntasuna. Gainerako hizkuntzak ez dira iristen perfekzio maila horretara: «(...) ¿habrá alguna entre todas ellas que pueda gloriarse de estar libre de sílabas ilegítimas? (Astarloa 1803, 59). Garbi dago Astarloa dela euskalari moralistenetako bat, ez bada moralistena, eta berarentzat *ilegítimo* direla euskarak ez dituen diptongoak, herskari eta, oro har, kontsonante elkarketak: azken buruan, euskarak ez dituen hots egiturak. Baina helburu apologista eta helburu horrek dakarren mintzamoldea alde batera utziaz, egiten duen sailkapena oso da egoki silaba egituren naturaltasun jerarkiaren alde-tik⁶. Itzuliko gara gai honetara. Hobe deritzot eztabaida honetan sartu aurretik beste zenbait gai ikutzeari.

Aproposa da puntu hau lehen aipatu bigarren ezaugarriaren adibide bezala ere, alegia, interesgarriena datorrenean eteten dela maizenik autore hauen hizpidea. Egia osoa esan behar bada, aitortu behar da Astarloa dela, batipat bere *Discursos Filosóficos* lanean (hemendik aurrera DF), alde honetatik gehien eskaintzen duena. Halaz ere, ez dago gaitzetik erabat libre eta, *Apologia*-n «formación silábica» izenpean, badirudi fonologiazko erregela sintagmatikoez ari dela, baina ez daiteke esan kontzeptua bera gogoan duela. Ez da ari, oraindik, nolabait esan, hotsez —segmentuek oinarritu hotsaren egituraketaz—, silabak osatzen dituzten hots-andanez baizik:

La lengua Bascongada no tiene sílaba alguna ilegítima, como se ha dicho hablando de su silabario, y por lo mismo ninguna de sus voces puede ser entorpecida por el uso de ellas: tampoco une las legítimas con indiferencia en sus palabras: si la sílaba acaba en letra menuda, no puede anteponerse en nuestras voces a otra que empieza con consonante, cualquiera que ella sea: una sílaba que empieza con consonante no se postpone a otra que acaba en la misma consonante: una sílaba acabada en consonante no puede ser antepuesta a otra cuya inicial sea de la misma familia. (Astarloa, 1803, 63).

Ez da gertuago iristen, nahiz eta fonologiaz ideiarik duenarentzat «erretzen» egon: hemendik euskararen kontsonante elkarketaren ingurunezko baldintza paradigmatikoetatik arau sintagmatikoetarako bidez hitzegitera ez dago ezer.

• Are gehiago komenta litezke honelakoak Etcheberri ([1712] 1976, 191) ahoskabetze asimilazioaz eta afrikatuen igurzkaritzeaz ari dela irakurriaz:

Mintzatceco maneretan ere, ezta hitzcuntçaric hurbiltcen çajoenic, eta bere perpausac hain justuqui comuntzatcen, eta neurtcen tuenic, non hitcen berriçadurariçgabe, misteriosqui gauçac compasatuac beçala declaratcen baititu hunen çuhurtciac mintçatu garenean ikhusi duçun beçala. Hitzcuntçaren mintçairaz beçambatean, guztiei abantail eramaiten deraue bere garacia, eta araitasunaz: mintçatcean espainic eztu luçatcen, ez biltcen, ez eta-ere mihiçic bere toquitic atheratcen: aiticic letrac miragarriqui errepertitcen tu: batçuetan D gambiaturic, eta khenduric, eçartcen du T. Bai halaber Z khenduric T, eztiçuiago hitcei soinu eraguiteco; halaco moldez, non, hunentçat higuinçta dutenei berei-ere eder baitçaje.

(6) Honetaz askoz gehiago esan beharko litzateke, baina, ba al dago esaterik? Ez naiz ari jerarkia jakin batez, naturaltasun kontuetan azken hitza oso urruti bait dago oraindik. Dena den, aukeran, fonologia naturalaren azterbideen araberrako maila dut gogoan oro har (ik. Dressler 1985, guzti honen aurkezpen oso eta berrienetakotzat).

Erraz igertzen den bezala, azaldu/irakatsi nahi duena ez da inondik inora hotsen arteko egituratze eta elkarrekiko eragina (gramatikaren alderdi fonologiazkoa), aitzitik beretzat garrantzia duena euskarak beste guztien gainetik agertzen duen ontasuna da. Hurbilketaren azpian dagoen erregulartasun fonologikoa (idaztean berak isladatzen duena) ez du antzematen, ez diolako hotsen arteko jokoari begiratzen, gertakari fonologikoak beste jomuga baten mesedetan erabiltzen dituelako hizkuntzan berez duten nortasunaz jabetu gabe eta, hartara, zeharka bakarrik adierazten ditu.

• Alde honetatik, Astarloaren (1803, 73-74) pasarte hau izan daiteke nabarienetakoa:

Epe, decimos *Epia*, con la característica de apelativo: voz compuesta de *E*, *suave*, *dulce*... y la palabra *pe*, que es *be* su afín, y mudó la *B* en *P* por la eufonía, cosa muy ordinaria en todo idioma: la *be* significa *baxo*, *Epe* todo junto *suavidad*, o *dulzura baxa*, *pequeña*, *de pura duración*, y es la que da el plazo o término que tomamos, o se nos concede para la ejecución de alguna cosa que es el significado de *Epe* o *Epia*.

Alfabetoari eta letra bakoitzaren esanahiari ematen dion garrantziaren ondoan inon baino bortitzago gertatzen zaio fonologiazko berrien bila doanari fonologiarrekiko begirunerik eza. Eduki eta azalaren arteko lokeraren grinaz etengabe ari da hots bakoitzaren esanahia kontatzen eta, horrela, fonologiaren kimurik txikienari lekua ukatzen bere pentsamolde eta irakaskizunean. Astarloarena izan daiteke adibiderik errazena eta, ziurrenik, baita egokiena ere. Izan ere, bera besteren eredu izan zen eta zeresana oparoago eta berezkoago eskaintzeaz gain, bera da fonologiarik eza, hemen ematen ari gatzazkion zentzuan, urrutien zeramana. Egia da, dena den, erabat kontrakoa dirudiena ere esan genezakeela (ik. beherago § 4).

• Euskarari buruz eta oro har behin baino gehiagotan ateratzen den zerbait da euskaraz idatzi bezala irakurtzen dela eta alderantziz. Hau da Larramendik ahoskeraz dioen lehendabiziko gauza. Kardaberatzek ere ([1761] 1973, 20-21) «Eusqueraren berri onac» azaltzean, adierazten du euskaraz idaztea eta irakurtzea errazagoa dela beste hizkuntzetan baino, erregela gutxiago dituela. Honetan ere, Astarloa da gauzak aurreratuen dituen. Kardaberatzekin erkatzen badugu, argi ikusten da esana: «(...) eſatendan bezala eſcribitcea, eta eſcribitcendan bezala gucia iracurtea, erregalia andia da. Au beſte Izcundeac ezdute; baña Eufquerac bai» (Cardaberaz, op. cit., 27). Astarloak egokiago (fonologiaren ikuspunturik, alegia) azaltzen du kode optimoarena edo ekonomiarena, esaten bait du lehenengo hizkuntzak («primitiboak», akatsik gabeak) ikur bat / hots bat erlazioa behar zuela izan; ikur horiek ez dute betik «monogramak» izan behar: <s> vs. <ss>, <r> vs. <rr> (ik. DF 118 hh., batipat, 121 «Alfabeto del Idioma Primitivo»). Archuk ere komentatzen du euskararen ezaugarri hau. Halaber, Harrietengan ere aurkitzen da gisa horretako pasarterik:

On prononce dans la langue basque tout comme on écrit à peu-près, comme dans la langue latine, en exceptant les mots composez por *qui*, *que*, comme *iaquitea neçaque*, &c. lesquels doivent être prononcés comme dans la langue françoise, la lettre ñ, doit être prononcée comme, *gn*, en françois, *baiñan*, *baiño*, tout comme s'ils étoient écrits *bagna*, *bagno*, &c. *u*, por *ou*, *du* pour *dou*, *maitatua* pour *maitatoua*, &c. *z* se prend comme ç, pour dire *ez*, comme *eç* &c. *kba*, *kbe*, *kbi*, se prennent plus rudement, que, *qua*, *que*,

qui, &c. quoi qu'on ne prononce presque point, on met d'ordinaire *t*, après les voyelles *a*, *e*, *i*, *o*, *u*, lorsqu'il y, a ç après comme *bebatcea*, *vicitcea*, &c. on doit excepter de cette règle les Nominatifs, comme *erramacocat*, *enefat*, &c. les françois ne prononcent pas, *c*, comme il faut, ils disent *sare*, au lieu de *çare*, &c. *ll.* sans exception se prennent comme les françois dans le mot *bailler*, &c. on doit écrire *ex dut*, & non *estut*; *ex duc*, & non *estuc*; *ex dugu*, & non *estugu*; *baitut*, & non *baitdut*; *baituc*, & non *baitduc*; *baitu*, & non *baitdu*, *baitut* [sic] & non *baitdute*, &c. (Harriet 1741, 503-504).

Honek euskarari garrantzia emateaz gain, euskararen fonologiari interesa kentzen dio, are gehiago, ortografiaz ari direnen artean. Zalantzarik gabe, badu zerikusirik euskararen fonologiarekin (h.d. euskararen fonologiaren ezaugarrietatik abiatuta uler daiteke eritzi honek euskarari buruz aritu direnen artean izan duen garrantzia). Baina, hortik berez beste gai bat litzatekeenera gindoazke eta oraingoz laga egingo dugu. Gainera, esan daiteke, mahai gainean dauzkagun autoreek ez dutela inoiz tankera horretako lokerarik ikusten. Gorago komentatu bezala, gai honi dagokionean ere, euskararen ontasuna da argudiorik nagusiena eta gogoetak sakonen bultzatzen dituena. Berriz ere Astarloarekin (DF 103) amaituko dugu lanaren zati hau, nolarebait hurbilketa azientifikoaren muturreko adibide bat hautatuz:

Todas las lenguas usan uniformemente de la mayor parte de las letras. Son comunes en primer lugar a todas ellas las cinco vocales, *a*, *e*, *i*, *o*, *u*. Es verdad que no las pronuncian las naciones de una misma manera. Algunas truecan su sonido, quiero decir, truecan la *a* por *e*, la *o* por *u*: dan al diptongo *au* el valor de *a*, al *oi* el de *uc* al *eu* el de *u*, al *ae oe* el de *e*, etc.; pero este es un vicio conocido: un trastorno notorio de los avisos de la naturaleza: una manifiesta oposición al dictamen cierto del sentido de la vista.

Lanabes teorikoen ezagatik, ez dira iristen zenbait ondoriotara, horrexegatik esan liteke —gauzak axial-axaletik epaituko bagenitu— ez dutela fonologiarik egiten. Baina ez da lan gehiegirik egin behar edo fonologia gehiegirik jakin behar (beharbada bai jakin fonologia ez dela eskola honen edo haren formalismotan bukatzen) hori hala ez dela igertzeko. Autoreok fonologia egiten dute hizkuntzaren errealitate gramatikala deskribatzeko gauza diren neurrian, batzuk hobeto eta besteek okerxeago; zalantzarik gabe, hizkuntzaren fonologia, hizkuntzak gai fonetikoaz egiten duen erabilera bada, hizkuntzaren ortografiaz edo hizkuntzaren ebakera zuzenaz arduratzen denak fonologia *egin* behar du. Eta hauexek dira funtsean gure gramatikagile eta hartazko edo hontazko irakasleen kezka: ortografia eta ebakera. Maiz horixe da guri aztertzeke gelditzen zaigun atalaren izenburua (besteak beste, *El Imposible Vencido*-ko «Pronunciacion, y Ortographia del Bascuenze»). Nolabait esan genezake, beraz, bazela fonologia, baina ez kezka linguistikorik fonologiaz: helburua ez zen fonologiari gorputz teorikoa ematea, hizkuntzak ikertu eta esplikatzea baizik.

Aintzakotzat hartu behar den beste kontua da autoreok zituzten oztopoak. Hau da, arazoa ez da bakarrik gero eta atzerago joan denboran urrutiago daudela *fonologiaren jaiotzatik*, gainera, maiz ahazten bada ere, bakoitza bere garaiaren ume izaten da eta aztertu autoreok ez dira arau horretatik kanpo geratzen. Hortik azter daitezke bakoitzaren oztopoak zeintzu izan ziren, testuinguru historikoan, alegia. Informazio historikoa ni baino trebatuagoek eman eta emango dizuete ikastaro honetan zehar, neri hemen dagokidana oztopo fonologikoena argitzea da eta

saiatuko naiz ahalik eta zuzenen betetzen neure eginbearra. Honen barruan esan behar da ez dela gauza bera hizkuntzaren apologia egiten saiatzea, edo beste hizkuntzaren baten irakasbidea bilatzea, edo literatura nola argitaratu behar den arautu nahi izatea.

2. Euskal fonologiaren bilakabide eta erregelak

Ohargarria da autoreok, helburu nagusia dena dela, euskararekiko kezka bizia dutela era batekoa edo bestekoa, apologista eta mitifikatzailea —Erro bat— edo desmitifikatzailea —hizkuntzarekiko profesionalagoak, nolabait esan: Lécluse, Darrigol, esate baterako—. Baina hizkuntzalaritzatik urrutien dabiltzanek ere nahi dute azaldu, esate baterako Materreren ([1617?] 1623, xiii) xvii. mendeko hitzetan esanda, «nola behar den Euscaraz esquiribatu eta iracurtu», sinetsi, obratu eta eskatu behar dena erakustez gain. Hori dela eta, aurkitzen dira euskararen deskribapen fonetikoak eta nahigabe eta bidenabar bada ere, bilakabide fonologikoen aztarnak.

Gauzak garbi adierazteko eta gorago agindu bezala, bereiz genitzake fonologia paradigmaticoa eta fonologia sintagmaticoa. Ez naiz hemen bilakabide diren ala ez eztabaidatzen hasiko, soilik etiketak behar ditut eta batipat zentzu honetan fonologia naturalak erabiltzen dituen hauek egokiak iduritu zaizkit sailkapenaren argitasuna helburu dudan momentu honetarako. Beraz fonologia paradigmaticotzat hartuko ditut hizkuntzaren hots/fonema zerrenda eta silaben ezaugarrien (oro har tonema multzoen egituratzearen) berri ematen dutenak eta fonologia sintagmaticoa esango diogu xx. mendean gehienek fonologiatzat jotzen duten horrexi, h.d. hizkuntza ahoskatzean edo, bestela esan, aurkezpen fonologikoa fisikoki gauzatzean hizkuntzak dituen aldaketen berri ematen digunari. Ez dago nahikoa gai maila baten eta besteen arteko erlazioaz arduratzeko⁷. Are gutxiago sartuko naiz aipatzen diren hots kontuen estatus arazoetan, ez dut eztabaidatuko, alegia, maila fonologiko hutsari dagokion ala aldaketa morfologizatua den, ez badu behintzat autoreak dioena azaltzeko-edo balio.

Fonetikazko kontuak, alegia, deskripzioak direnak, batean zein bestean agertzen dira eta deskripzio bezala aurkeztuko dira batz (paradigmez) ala besteaz (kateatze sintagmaticoaz) hitzegitean. Zalantzarik gabe paradigma-berrien uzta da oparoena eta hau fonologiarik ezarekin dago lotua.

• *Hasperenaz*.—Aurkitzen da hasperenaren gainean gogoetarik, beti ere ingurunez-landa eta maila paradigmaticoan. Halakoa da Etcheberri Sarakoarengan irakurri ahal daitekeena. «Hatsapenen hirugarren partea» deritzonaren hasieran, kontsonanteen zerrenda egitean, kuriozoso da letren sailean onartu duen «h»az dioena:

Hamasei, *b, c, d, f, g, k, l, m, n, p, q, r, s, t, x, z*: *b* ezta consonanta, baicic hasperapenzco marca, edo seinelea [sic]». (Etcheberri (1712) 1976, 360).

Dena dela gramatikagile eta hizkuntzalari zaharrak aztertzen dabilenari ez zaio berri gertatzen iruzkin hau, are gutxiago hizkuntza klasikoan berri duenari. Ez da urrutiegi joan behar grekeraz hasperena adierazteko erabiltzen zen diakritikoaz gogoratzeko⁸. Dena dela eta, ortografiarena berez beste txosten baterako

(7) Bata eta besteen gramatika balioaz eta abarrez gehiago, Donegan/Stampe (1979).

(8) Ohar hau Udako Ikastaroetako entzule adituei zor diet. Bihoakie hemendik, batez ere elkarrizketetan esku hartu zutenei nere eskerrik beroena.

gai izango litzatekeelako, esapide azkar batean ahitzea zilegi bazait, esan behar da kontuan izatekoa dela grekeraz ere hots hori diakritikoz adieraztea ez bide zela apika halabehar hutsa.

Mugatik honantzako euskaraz arduratzen direnek esaten dute mugaz handiakoa dela eta batzuetan arbuiatu egiten dute. Kardaberatz ([1761] 1973, 23) da horietako bat, letra den ala ez eztabaidatzean adierazten duen legez. Larramendik onartzen du <h> hasperena duten euskalkietarako eta hiztegian hitz zenbait (*ura/hura*) bereizteko erabiltzen du. Funtsean Larramendiren arauak jasotzen dituen Lardizabalen aukera ere berori da, noski.

• *Bustidura eta palatalak*.—Lardizabalez ari garela, aipatu behar da berea dela ingurunea aintzakotzat hartuta egiten den baieztapen urrietako bat. Hain zuzen ere <ll> ari dagokio eta esaten du oso gutxitan gertatzen dela hitz hasieran.

Larramendi <t>ren bustiduraz ari dela ere ingurunezko fenomenoez ari dela esan daiteke, baina oker dabil, aipatzen duen ingurunea ez bait dator bat azaltzen ari den hots aldakuntzarekin:

(...) la *t*, además de la regular pronunciación, tiene otra diversa; siguiéndosele *u*: y es media entre la que tiene la *t*, y la *j* consonante, no tan fuerte como la primera, ni tan suave, como la segunda. Tiene casi el sonido de *tiu*. monosílabo, *ditiut*, *badituzte*, *ditiut*, *baditiuzte*. Y para significar esta pronunciación duplican en algunas partes la *t*. (Larramendi [1729] 1979, 338).

Hortxe ikusten da beretzat inguruneak ez duela balio fonologikorik: ezin du hotsen ebakeraren justifikazio izan (ez, gutxienez, azalpide). Gertuago dago Erro (1806, 77) ingurunea arrazoitzat hartzetik esaten duenean.

La anteposición o proposición de la vocal *i* a la *n* dan en la composición la pronunciación equivalente a la *ñ* en los dialectos en que existe, como *oina* por *oña*, el pie *gania* o *gaina* por *gaña*, (...) ⁹.

Lardizabalek (1856, 1) egiten duen ortografiatzeko proposamena jeneralizazio garrantzitsua da:

(...) La *ñ* también es muy usada en el cuerpo del vocablo; pero nótese que anteponer una *i* es defecto, y basta la *ñ*; v.g. *baña* y no *ba-i-ña*, *baño* y no *ba-i-ño*, *gañean* y no *ga-i-ñean*, *beñ* y no *be-i-ñ*; y si se quiere usar la *i* debe ponerse la *n* sin tilde.

Esan daiteke hurbilketa *moderno* hau Harrietengan ere aurkitzeri dela (alegia <in> [ɲ] besterik ez dela: *baña*, *baño*). Azpimarkatzekoa da Lardizabalek ez duela albokoarekiko paralelorik aurkitzen eta ez duela esaten [i] dela bustidura eragiten dena. Aukeratu adibide zenbaiten historia iluna alde batera utzita ere, garbi dago ez dela kode fonologikoan mintzatzen, hutsik ortografiatzekoan baizik.

Larramendiren azken aipura itzuliaz erantsi nahi nuke kuriosoa dela, gipuzkoarra izanik, gainerako bustiduren berri ez ematea. Aipatzekoa da, halaber, deskribapen fonetikoaren burutzeko saioa. Esango nuke ez dagoela erabat gaizki oharrenaren aldetik eta gogora dakarkigula Bonapartek [ty] grafia onartzen zuela [t'] adierazteko <tt>ren ordez (ik. Urquijo 1910, 273). Oihenartek tasun artikulatioetan oinarritzen dituen deskripzio fonetikoak bide dira lehenengo eta oparo-

(9) Apud Urgell 1987, 379: ik. artikulua hau hemen burutu ahal dudana baino grafien azterketa oso eta zehatzagorako.

enetakoak ziurrenik (ik. Oihenart, [1657] 1935). Dena den, ez dira sarriegi aurkitzen deskribapen fonetikoak autore zaharren artean.

Fonologiak euskararen ikerketan ez zuen leku eta garrantziaren lekuko ugari dugu. Adibide bat izan daiteke Larramendirenak, desegokitasunak desegokitasun, luzaroan iraun zuela eta, esate baterako, Añibarrok hurrengo mendean ia hitz berberak erabili zituen [t] deskribatzeko (ik. Michelena 1978, 338).

• *Dardarkarien neutralizazioaz* hitzegiten dugu egun. Lehen ez, noski. Baina ezin da esan besterik gabe orain neutralizazio deitzen dugun horren edukia agertzen ez denik. Berriz ere garaiko oztopo nagusienetakoaz hitzegin behar dugu, ortografia eta ebakeraren nahasteaz, alegia. Maiz aurkitzen ditugu Larramendirena ([1729] 1979, 339) bezalako baieztapenak:

(...) el nombre, sea sustantivo, sea adjetivo, que por sí, y sin el artículo se acaba en *r*, que tiene la pronunciación fuerte, dobla la *r*, cuando se declina, o se le añade el artículo, para conservar su pronunciación, v.g. *lur*, *baztér*; *edér*, *amár*! *lurrá*, *bazterreán*, *ederrí*, *amárrac*.

Berez idazkeraz ari da, ortografiaz, baina arau horren bitartez jasotzen duena bilakabide fonologikoa da, oso zeharka isladatzen badu ere. Egun hitz azkeneko dardarkarien neutralizaziotzat hartzen dugunaren ikuspuntutik, esan genezake garai hartan neutralizaziorik ez zegoela adierazten digula Larramendiren pasarte honek. Izan ere, azkenean gertatuta anizkun direnak bakarrik dira hitz barrenean grafia bikoizten dutenak. Beraz, hitz barreneko anizkunak lirateke hitz azkenean ere «fuerte», baldin eta «el nombre (...) que por sí, y sin el artículo se acaba en *r*, que tiene la pronunciación fuerte» esaldiko bigarren erlatibozko perpausa murrizgarriztat jo badezakegu¹⁰. Baina gehiago egin beharko genuke, ikuspuntu honetatik propio, honelako hipotesietan aurrera egiteko. Hemen, besterik gabe, honelako testuen azterketak eskaintzen dituen bide eta arriskuak erakutsi nahi dira.

Ugari dira Larramendirengan ere honetako komentarioei bide ematen dieten zatiak. Dardarkariarenaz gain, idazkerari dagokion atalean (loc. cit.), eskaintzen ditu fonologiazko bilakabide sintagmatikoen inguruko beste zenbait gogoeta ere. Horien artean koka daiteke, besteak beste, <ts> zein ingurunetan idatzi behar den <s> adierazten duen araua («gatzá»/«gatzú»; «otzá»/«otzú»). Idazkerazko arazook morfologiaren arabera azaltzen ditu berak. Gaur esango genuke, beharbada, morfonologia egiten duela (aipatzen dituen aldaketak erregela morfonologikoak ez badira ere, edo horrelakoetan sartu gabe oraingoz): erro eta atzizkien elkar ukitzetan aurkitzen dituen aldaketaz ari zaigu, hain zuzen ere alternantzia guneai begiratzen die zuzenean. Egia da, halaz ere, aurrekoak ere (ahoskeraren atalekoak) halakoak zirela (*dot/eztot* aldaketa jasotzen duena, adib.) eta beste baten bat ortografiatzkoa zela (<g>=[g], <x>=[s], e.a.). Izan ere, aldakuntzen sailkapenean aurkitzen diren nahasteak ez dira halabeharra edo nahigabeko hutsegiteak: fonologiak ez du berezko izaterik eta menperatzen duten hizkuntzaren beste mailen (ortografia edo morfologia, azken kasu honetan) zirrikitoetatik isuritzen dena bakarrik jaso dezakegu, esplikazioaren jomuga eta abiapuntua ez dira inoiz hotsak berez.

• *Dardarkari aurreko protesiaren* definizio paradigmatico eta ingurunezkotzat

(10) Egungo ortografi arauak bestela pentsaeraziko ligukete (alegia, perpausa ez-murrizgarria dela).

jo liteke Lardizabalek gramatikaren lehen zatian eskaintzen digun hamargarren araua: «La *r* entra en la formación de las dicciones, pero nunca al principio: así es que ningún vocablo vascongado comienza con la letra *r*, sino con alguna vocal antepuesta: v.g. *a-rrazoya*, *e-rreguea*, *e-rrota*, *e-rreca*». Azpimarkatu nahi nituzke —eta ez izan lezaketen kolore arauemaileagatik— «nunca» eta «ningún» horiek, azalpide fonologikoari dagokionean mintzaeraren tenore estatikoa oso argi azaltzen dutela iduritzen zaidalako. Dударik gabe, ez dago hotsen egiteko dinamikoaren aztarrenik ere, hizketaren hots alderdia, maila fonetikoa, ez da inoiz hotsen arteko kateatze aldakorra, hitzen (gehenez ere, erro eta hizkien) bilkura baizik.

Dardarkari aurreko protesi bilakabideaz, Kardaberatzek ([1761] 1973, 22) dio «zakur letra garratzaz» hastetik libratzen duela euskara. Baina bere ezaguera fonologikoaren ezaz jabetzeko nahikoa da erreparatzea hurrengo dakarrenaz, ortografia soila dena protesiaren maila berebean jartzen bait du. Esaten du *k* adierazteko badituela euskarak egokiagoak diren <c> edo <q> (Quintilianorenganako begirunez onartu behar omen dena, bestalde). Beste horrenbeste esan genezake <x>ren ordez <g> eta <s> proposatzen dituen arauari buruz.

Badirudi nahastea eta itsutasuna are handiagoa dela Kardaberatzengan «Latinari Eufquerac garraitcendio onetan: *ça*, *que*, *qui*, *co*, *cu* esaten dan bezala eſcribitcendu» (op. cit. 24) bezalako esaldi bat aurkitzen denean, garbi dago ortografia eta hots arazoan arteko lokera erabatekoa dela autore honengan.

Lardizabal bera ere ez da, ordea, oso atzera geratzen ortografia eta ebakerearen nahasteari dagokionez gramatikaren hasierako hamaikagarren araua ematen duenean:

La *v* consonante no tiene lugar en la formación del vocablo vascongado, sino que se escribe con *b*; v.g. *Zabala*, *Echabe*, *Zubimendi*, *baratza*, *berria*, *biotza*, *bota*, *busti*. Sin embargo, en las voces que en latín la llevan, los escritores vascongados la han conservado frecuentemente; v.g. de via *videa*, de vita *vicitza*.

• Bestelako *epentesi* baten berri ematen digu Añibarrok ([ca. 1800] 1969, 13-14, or.):

(...) Mucha parte de Bizcaya ,algunos pueblos rayanos suyos, y en las cinco Villas de Navarra posponen una *b* a la *U* de nombres, y conjugaciones: como *Cerua*, *ceruba*, *zuec*, *zubec*, *deutsue*, *deutsue*, y una *j* herida al *ia*, v.g. *arguia*, *arguija*; *oguija*, *oguija*, pero como en lo restante del país bascongado no se inovan sus radicales, omitiré dichas letras *b* y *j*, siguiendo lo más común, y general; pues sería mucha molestia el haber de repetir por una sola letra tantas dicciones (...). Tampoco desquiciaré de su raíz la mudanza que en dichos pueblos hacen trocando la *e* en *i*, como *bete*, *betia*: *orde*, *ordia*; y la *o* en *u* como *Jangoico*, *Jangoicua*, *cuarena*; *oso*, *osua*: pues sobre no haber necesidad de mudar estas letras que el uso ha introducido, es más natural, y más fácil el no mudar, y alterar estas letras.

Baina ez du aldaketa fonologikoaren kontzientziarik, *dot/dodaz* alternantzia *dozu/dozuz* erregela morfologikoa bezalaxe azaltzen duenean (op. cit., 12), ikusten den legez. Beretzat pluralaren morfologiaren ezaugarri dira biak, alegia, gramatikaren beste alor batekoak, bien arteko bereizkuntzarik gabe. Hala nola, gorago aipatu eransketa erregela ematen duenean ere, nahiz eta ez duen agerian morfologian ipintzen, ez du ingurunea ongi jasotzen. Batez ere, ez du inola ere azaltzen (nolabait somatzen badu ere: zergatik bestela arau berean ematea?) *epentesi* biak

fenomeno beraren zati direla, hau da, diferentzia ingurunearen ondorio halabeharrezkoa dela¹¹.

Lécluse berak ere, nahiz eta ortografia arazoeekin (euskarak erdaren alfabetoa erabili beharrena, alegia) argienetako izan, huts egiten du aldakuntza emankor eta lexikalkiak bereizteko garaian:

Les voyelles varient selon les différents dialectes; on dit donc *ematea* ou *emaitea*, *yatea* ou *yatia*, *cein* ou *zoin*, *astua* ou *astoa*, *dire* ou *dira*. On dit, en Labourt, *dut*, *duc*, *dugu*; en Biscaye, *dot*, *doc*, *dogu*; et dans la Guipuzcoa, *det*, *dec*, *degu*. (Lécluse [1826] 1987, 842).

Horrexegatik, noski ez du ikusten aldaketa emankorrak —lexikalkiak ez bezala— hiztun berarengan gertatzen direla; alegia, *asto* vs. *astua* eta *yate* vs. *yatia* ez direla euskalkien arteko bereizkuntza fonologiaren alorrean jazotzen den bilakabidearen seinale baizik [o, e]—>[u, i]/—a)¹².

Baina, dena dela eta begiratzen diogunari begiratzen diogula, ondorio berberera ailegatzeko gara eta horixe bilakatu da txosten honen ardatz: fonologi-gai ezberdinak aitzaki hartuta abiatzerakoan egin galderari beti antzeko (ezezko) erantzuna aurkitzea.

• *Ahoshkabetzea* dela eta hurbiltzen zaizkio gauzak gehien bat fonologiari. Izan ere, ez da harriztekoa, alternantzia dinamikoenetarikoa bait da hots aldakuntza hau eta, gainera, euskalkien (eta hizkera mailen?) arabera, hautazkoa ere izan daiteke. Guzti horiengatik, pentsatzekoa da hiztunarentzat izan dezakeen gardentasunak gardenago bihurtzen duela bilabakidea hizkuntzalariaren begietan. Bestela esan, errazagoa da honelako aldaketa emankor eta gardenen bidez burutzea fonologiak gramatikaren eta hizkuntzaren gainerako mailekiko beregaintasuna. Esan genezake, fonologia naturalaren bidetik abiatuta, batipat honelakoak behar dutela izan hiztunaren intuizio fonologikoaren oinarri daitezkeen aldakuntzak, edo, Sapirren deitura erabiliz, fonemaren balio psikologikoa gauzatzen dutenak (cf. Sapir 1949).

Adibide gisa, ikusiko dugu nola jasotzen den hau hiru autorengan. Ilunena Harrieten lekukotasuna da, gorago aipatuan esaten bait du: «on doit écrire *ex dut*, non *estut*; *ex duc*, non *estuc*; *ex dugu*, non *estugu*; *baitut*, non *baitdut*; *baituc*, non *baitduc*; *baitu*, non *baitdu*; *baitut* [sic], non *baitdute*, c.» (Harriet 1741, 504)¹³.

Larramendik ([1729] 1979, 338) honi buruz ematen duen arauaren adierazpena ia erabat da hots legearena, ingurunearen izaera lexikoagatik ezik:

(...) la negación *ex* muda la pronunciación a algunas letras, y la muda en otra semejante, y parecida, v.g. *det*, *dot*, *dáramat*, *badá*, *guera*, *guero*, *eztét*, *eztót*, *eziáramat*, *expadá*, *ezquerá*, *ezquéro*: mudanza, que la ocasionó la mucha semejanza que tienen en su sonido la *d*, y la *t*, la *b* y la *p*. Esta mudanza no es univérjal (...)

(11) Ez da esaten gipuzkeraz ere badela honelakorik. Ulertzekoa da, izan ere fonologia, hots aldaera eta aldakuntzak, ardatz ez duen azterbidean dialektologiako orokortasunak ez bilatzea.

(12) Bestela, zalantzarik gabe, esan daiteke autore hau dela mailak ongien finkatu dituztenetakoa, ortografia eta ebakera (maila fonetikoan) berex dauzkalarik, hasperenaren arazoaz ari dela nabaritzen den bezala: «Dans la Cantabrie espagnole, au contraire, on ne fait aucun usage du H aspiré, on écrit *et* on prononce, *nai*, *doatsu* et non pas *nabi*, *dohatsu* (op. cit. 842). [Azpimarkatua, geurea].

(13) Esan daiteke bilakabide *biren* berri ematen zaigula hemen, honen arauera bereizi

Antzaz hitzegitean ez dabil zuzen erabat, antza ez bait da aldaketaren arrazoi, ondorio baizik, nolabait esan: ez, berez, aldaketarena, aldaketa bakarra —bilakabide fonologiko bat— gertatuarena baizik. Badu, ordea, alde onik antzarenak, antza sistematzean ia korrelazio kontzeptua erabiltzen bait du Larramendik.

Gertuago dago, zalantzarik gabe, Astarloa Trubetzkoy eta Jakobsonengandik, esate baterako, aldakuntza fonologiko honetaz ari delarik:

Es una torpeza buscar lo que nos falta en un lugar distante cuando la [sic] podemos hallar cerca de nosotros. El ir de Madrid a Fuencarral por una cosa que no deja de haber en la Corte con igual proporción, sería reputado por una acción impropia y digna de la más solemne mofa; pues esto mismo sería el ir a buscar letras lejos de aquella que ha de ser sustituida. Si naturaleza quiso que la *B* labial sin salir de su casa tuviese por afín a la *P* y a la *F* ¿a qué ir a las palatinas, a las linguales, a las dentales para sustituirla? Este modo de sustituir letras es contrario y opuesto a las mismas disposiciones naturales del órgano de la voz. Así como la *B* labial es afín con la *P* y *F*, de la misma familia lo es también la *G* palatina con la *K*: la *t* lingual con la *D*; la *S* dental con la *Z*. No sin motivo determinó naturaleza que sólo fuesen afines las letras de una misma familia, pues éstas son las que se asemejan más en la pronunciación, como que se forman en una misma casa, en un mismo parage poco más o menos. Es visto, pues, que cuando hay que sustituir una letra por otra, se ha de buscar la que es afín a aquella que ha de ser sustituida. (DF 158-159).

Aipu honi buruz esan behar da *antz*a kontzeptu bilakatuagoa eskaintzeaz gain, argi eta garbi adierazten duela Astarloak, ahots-aurkakotasunaz, korrelazioen egitekoa (ik. guk azpimarkatua). Ez ditu kontzeptuok egungo hizkera teknikoan adierazten, jakina, gauzak esateko modua, adierazlea bera ere testuinguruan jarri behar da edukiaz jabetzeko. Izan dezake, dena dela, kasu honetan azalak ere garrantziarik hemen dagozkigun arazoak argitzeko orduan.

3. Astarloa fonologilari?

Astarloak gauzak nola kontatzen dituen erreparatzean, igartzen da, oso modu inpresionista eta zabalaz esatea zilegi bazait, bestek baino *literatura* gehiago egiten duela. Alegia, bere hizkuntzarekiko kezka eta arreta ia erabat filosofikoa (cf. Laka, ale honetan) da eta badirudi besteren zenbait helburutatik libreago dagoela. Ez du derrigorrez burutu behar hizkuntzaren deskribapen sinkroniko zehatza, ez du hizkuntza irakatsi edo itzultzeaz arduratu behar. Nolabait *hizkuntza* bera da kezkatzen duena —Saussurerengandik zabaldu den *langue* (vs. *parole*), laburtasunaren aitzakiaz jauzi haundia eginez—, delako hizkuntza lehen eta perfektoaren atzetik hizkuntzaren sistema abstraktoaren bila jartzen bait da.

Hortik datorkigu fonologiaren mailan etekin haundiena ateratzeko aukera ematen diguten zenbait pasarteren azalpide daitekeena ere. Izan ere, Astarloa hotsez ari denean, ez da ari beste zenbait bezala gertatzen diren hotsen arteko diren erlazioez eta tankera horretakoez. Berak hots sistema akatsik gabea nahi du azaldu

egin behar bait dira, alde batetik, txistukariak sortu ahoskabetzea eta, bestetik, bi herskariren elkarketa (dakigunez bigarrenaren asimilazioa eta lehenengoaren suntsitzean datzana, adibideotan urrats biak ikusten ez badira ere; cf. *baikara*, *bainaz*, e.a.). Ala, prosodia kontua ote da berezikuntza? Esanahia (lehen sailekoak hitz bitzat hartzen bide dira eta bigarrenekoak, berriz, hitz bakartzat —dena dela gaitzesten duena ere hitz bakar bezala idazten du—)?

(euskaran aurkitu uste duelakoan) eta euskararen sistema bera ere berak perfekzio horretarako emandako arrazoien arabera antolatu eta mugatuko du. Horregatik, behin baino gehiagotan aurkitzen da Astarloaren idatzietan egungo fonologian *marka* kontzeptuaren arabera eraikitzen diren jerarkien berri.

Astarloak euskal fonologiaren ezaugarriak jasotzen dituen lehenengo hizkuntza perfektuaren sistema nahi du isladatu eta askotan berak hobeagozat jotzen duena da hain zuzen ere fonologiaren aldetik aukera markagabea¹⁴. Dena den, berriro ere gauza bera bestela esatea baino egokiago gerta dakiguke zenbait hotsi buruz Astarloa beraren eritzi eta esplikazioari begiratzea.

Sudurkaritzeaz diena izan daiteke, honelako erakusgarri. Astarloaren eritzi, hotsen sudurkaritzea ez da gauza naturala, berak *ilegítimo*-tzat jotzen duen zentzurik gabeko ebakera baizik. Zuzen azaltzen du edonork duela hotsak sudurkaritzeko aukera fisiologikoa, baina ez dela batere egokia sudurkaritze hori eta txinoek, adibidez, ez dutela ongi jokatzeko beren hizkuntzaren hotsak sudurkarituz: «Tampoco puede persuadirse el filósofo que el órgano legítimo del habla sean las narices. Es verdad que los chinos rompen en ellas la voz y que tienen un idioma nazarizante; pero tampoco deja de ser evidente que esta pronunciación es ilegítima y opuesta a la naturaleza del habla». (DF 124). Bideabar esan behar da sudurkaritzearen deskripzio artikulatua ez dela berez erratua, nahiz eta txinar eta beste zenbaiten fisiologiari buruzko proposamen zentzugabeetarako iritsi azken batean.

Baina ez da hori hemen dagokiguna, Astarloaren *ilegítimo* eta *natural* bereizkuntza baizik. Hain zuzen ere eta sudurkaritzea bezalako auzi bati lotuta bikote horrek egun pil-pilean dagoen galdera fonologikora garamatza. Alegia, zer da «naturalago» maila fonologikoa, zein neurritan sartzen da erabaki horretan hiztunen nolakotasun fisiologikoa, artikulazio erraztasuna, e.a. Honelako inguruan, alde eta kontra, tinta isuri larriak gertatzen dira egungo hizkuntzalarien artean¹⁵.

Markaren arazoa amaitzeko eta ondorio modura honako gogoeta hau proposa daiteke: Astarloa gauza batez ohartu da berak bestela bataiatzen badu ere. Colonek Indietarako bidean Amerika aurkitu zuen legez, Astarloak, euskara goraiatu nahian, nabaritzen du euskararen fonologia «ez-markatua» dela¹⁶. Izan ere, ez da halabehar hutsa bokalez ari dela ikustea hau garbien, euskarazko bokal sistema bait da markatasunaren mailadian apalena.

Aurkitzen dira Astarloarengan beste zenbait aurrerapen garrantzitsu pentsabide fonetiko-fonologikoari dagokionean. Horien artean, labur bederen, aipatu beharrekoak dira:

- Ortografia egokia izango bada, beharrezko baldintza omen da ikur batek (ez derrigorrez grafema bakarrak) hots bat adieraztea (ik. DF 118 hh.). Hizkuntzek ikurrak gehitu dituzte xehetasun fonetiko gehiegi jaso nahi izan dituztelako. Guzti hau, noski, egun gaindituta dauden zenbait azalpideren artetik atera behar da,

(14) Bide batez, aipatu nahi genuke euskaraz ederki adieraz daitekeela egun hedatuen dagoen ingelesezko *marked/unmarked* pareak jasotzen ez duen bereizkuntza, alegia, *markadun* eta *markatu*-ren artekoa (cf. alem. *merkmalhaft/markiert*). Honen eztabaida osoagorako, ik. Mayerthaler 1987, 27 hh.; hona geure egin ditzakegun hitzak aldatuz, «These terminological distinctions are, I suggest, indispensable; this will become clearer during the analysis of languages with a slightly more complicated terminology than that of English». (op. cit. 29).

(15) Esan daiteke Astarloarengan *natural* hitzaren erabilera, epai arauemaile eta manikeoak alboratuz, batzuetan erraz berrinterpretatu litekeela Stamperen fonologian egun duen sanahi oinarrikoa aintzakotzat hartuta (cf., besteak beste, Donegan/Stampe 1979).

(16) Ez horregatik *markagabea*, ik. goragoko 14. oinoharra.

baina zalantzarik gabe, esan daiteke aurkitu zuela gerora fonetistek aukeratu bidea, hotsak isladatzean transkripzio fonetikoaren bidez, ortografien zor historikoak ordainduaz. Esan nahi duguna da arrazoiak gaur egokiegia iduritzen ez bazaizkigu ere, aukera onak egiten dituela fonologiaren aldetik (ik. DF 121-122).

- Astarloak, *ahoskunea* deitura erabili gabe, oso ongi daki zertaz ari den (gure mendean aurki daitezke hurbilketa itxiagoak) ezaugarri horren arabera bokal eta kontsonanteak bereizten dituenean, nolabait esaten bait du bokalek ez dutela ahoskunerik: «Siendo común entre los literatos la creencia de que unas letras se forman en los dientes, otras en el paladar, otras en la lengua o con su movimiento solo: siendo también evidente que las vocales o bicales no se hallan ligadas a ninguna parte constitutiva de la boca y que su formación se verifica en el hueco o concavidad de ella (...)» (DF 124). Orain badakigu, besteak beste, hau dela-eta neur daitezkeela hobeto bokalak fonetika akustikoaren aldetik fonetika artikulatorioarenetik baino (cf. Ladefoged 1975, 13 eta 74).

- Eztarria animaliekin amankomunean dugun ahots iturria dela esaten du. Orain badakigu eztarria dela hots uhinaren iturburua, baina Astarloaren azalpidea nahikoa aurreratua da fonetika akustikorik ezagutzen ez duen norbaitentzat. Ongi bereizten ditu eztarria, hotsaren iturburu dena, eta ahoa, hizkuntza artikulatuaren («lenguaje racional») ekoizpen gunea dena (DF 126). Honetan oinarritzen da [x] belarea arbuizatzeko orduan: ahotsa bera eta ez hots banakoak sortzeko lekuan ebakitzea ez omen da zilegi. Ildo honetan zehar aurrera, Astarloaren baieztapen ia guztietan aurkitzen dugun bikoiztasunaren alderdi itsua areagotzen da euskaraz deuseztatzeko hedatuegi eta beharrezkoegi diren herskari belareen kasuan, ezin bait du onartu —euskara izango bada hizkuntza akatsgabeena— eztarriko hotsak izan ditzan. Hor ikusten da bere apologi grina indartsuagoa dela fonetikarekiko leialtasuna baino: herskari belareak palatalen artean kokatzen ditu kontraesana konpontzeko. Garbi dago, halaber, ez dela gauza zenbait palatalek amankomunean dutena aurkitzeko ere.

- Esan behar da artikulazio modua eta ahoskunea ez direla bereizten hotsen sailkapena egitean, aitzitik sail biak nahastu egiten dira: esate baterako, *dental* izena merezi dutenak frikari dira guztiak eta [d] eta [t], berriz, *lingual* sailean agertzen dira. Sailkapenaren bidez osatzen duen tasun sisteman *lingual* da ilunen geratzen dena. Baina hori ez da ezaugarri fonetikoaren erabilera (oraindik) baldarra baino, guretzat interesa duena da sailkapena proposatzeak berez dakarrela ezaugarri sistema baten eraikuntza (eta alderantziz). Azpimarkatzekoa da, gainera, Astarloak nola lotzen duen bere ezaugarri sistema oinarritzakoa hizkuntzen oinarritzako hots kopuruarekin, hizkuntza guztiak duten funtsezko hots multzoarekin. Hain zuzen ere azterbide berberetik iritsi izan da gramatika unibertsalari buruzko proposamenera. Hala nola, esaten du, 28 letratako sistema egoki horretaz gainerako hotsak, zenbait hizkuntza gaizkitxuratutan gertatzen direnak, bigarren mailako ebakera diferentziek sortu dituztela («diferencias notoriamente accidentales»; izan ere, lehen esandakoaren ildotik eta *mutatis mutandis*, hau ez dago estrukturalisten alofoniko / fonologiko edo generatibisten azpiko / azaleko bereizkuntzen funtsetik urrutiegi.

- Hitzegin da gorago (§ 2.) silaba egituraz. Hemen aipatu nahi nituzke soilik terminologi desegokitasunaren azpian ezkututzen diren zenbait oharpen zuzen fonetika-fonologiari dagokionean. Esate baterako, esan daiteke bokal itxirik gabeko diptongoen eragozpenak (ahots-kolpearen arazoa, e.a.) oso ongi uler daitezkeela egun fonetikaz dakiguna aintzakotzat hartuta.

Interesgarria da era berean, Astarloarentzat ona dela *eufónico* dena eta eufo-

niko dela sarriago eta naturalago dena, kontrakoek, berriz, aldatzeko aukera haundiagoa dute. Honek Jakobsonen inplikazio arauak dakarzkigu gogora. Ikus, besteak beste hitzen osatze silabikoaren gainean ematen duen bigarren araua: «(...) no se usan dos sílabas cuando la primera cabe en la misma letra consonante que empieza la segunda, esto es, que no se pongan en las voces dos *dd*, *bb*, *mm*, etc., porque su monotonía destruye la eufónica pronunciación que tanto realza las palabras» (DF 154). Hemen debekutzen dena, $C_i \text{ } \& \text{ } C_i$ bilkura da eta jakina da hone-lakoak markatuagoak direla (oro har, Jakobsonen zentzuan) munduko hizkuntzetan zehar. Lehenengo araua ere ($V \text{ } \& \text{ } \textit{bersk}$. + V bilkura hobetzat jotzen duena $V + \textit{bersk} \text{ } \& \text{ } V$ baino) goikoa bezalaxe onartuko genuke, markatugotzat jotzen da hain zuzen ere Astarloarentzat txarragoa dena eta oharmenaren mesedetan gertatzen da Astarloak eufonikoagotzat jotzen duena. Hirugarren arauak, berriz, oharmenaz batera erraztasun artikulatorioa aldarrikatzen duela esan genezake ($\textit{oll} \text{ } \& \text{ } \textit{ten}$ eta $\textit{ach} \text{ } \& \text{ } \textit{mon}$ bezalakoek kontra agertzen bait zaigu).

- Batez ere, Astarloarengan aurkitzen da lehenengoz erregela edota bilakabide fonologikoen adierazpen agerikoa. DF 156-159 orrialdeetan ematen ditu gerta daitezkeen «letra» aldaketak jasotzen dituzten hiru erregelak: hain zuzen ere kenketa («Supresión de letras»), aldaketa («Sustitución de letras») eta eransketak («Adición de letras»). Guztiotan ikusten da ez duela izenarekin bakarrik asmatu. Edukiaren aldetik ere hots aldakuntzaren dinamismoaz erabat jabetu da eta, bigarren saileko aldaketez oso garbi uzten duen bezala, aldaketaren eragile izan daitekeen ingurunea ere aintzakotzat hartzen du (gorago aipatu koerlazioen arazoaz gainera):

Esta afinidad que la naturaleza dio a las letras, es un precepto nada equívoco de que en la sustitución de letras no hemos de usar sino de las que son afines a la letra que ha de ser sustituida. Sin embargo no se ha de usar de ella sino cuando en nuestras composiciones de voces se opone alguna letra a la eufonía o buena pronunciación de ellas». (DF 158).

Egia da honen ostean fonologiaren aldetik zentzuzkoen den sudurkarien asimilazio-aldakuntzaren zentzuzkotasuna ukatzen duela. Baina, berriro esan, ez dago-kigu hemen bere esplikazioen zuzentasuna epaitzea, bere arrazoibideena baino. Alde horretatik, mende hau baino lehenagoko euskalarien artean pentsamolde fonologikotik gertuen dagoenetakoa dugu.

- Aztertu autoren artean, bera da oparoen, konponbide zuzenak aurkitzen dituen ala ez alde batera utziaz, fonetika eta fonologiaren arloetako (eta fonetika / fonologiaren arteko) gai eztabaidagarrienetan barrena. Halakoa da, esate baterako, berak arazo ortografiko bezala abiatzen duen bokalen izenarena, *vocal* ala *bocal* idatzi behar den, alegia (DF 123-124).

Aproposa suertatzen zaigu azken aipatu pasartearen kontakizunaren azala eta mamia bereizteko beharraz berriz ere mintzatzeko. Egungo hiztegitik eta solik azalari begira epaitzen duenarentzat, oker dabil kontsonateak ere *sonante* direla dioenean, baina esaten duenaren eduki funtsezkoa aintzakotzat hartzen bada, garbi ir-tetzen dena da berak ortografia bidez finkatu nahi duen bokal eta kontsonanteen arteko hesiaren zuzentasun fonetiko.

Ohartzekoa da, bestalde, nola galtzen diren Astarloaren zenbait «aurrerapen» Darrigol batengan, adibidez. Erabat zientziatzeko eta zuzen den helburuaz, apologis-tek eraiki euskararen perfekzioarena, ondadearen mitoa nahi du hautsi Darrigolek. Baina bere saioan, Astarloaren zenbait intuizio baliozko ere zokoratzen ditu, hala nola markarena ([ü] edo [p^h] aztertzean, adib.). Lécluseren jarraitzaile honengan

ostera aurkitzen da grafia eta ebakeraren arteko nahasteak pentsamendu fonologikoari dakarkion basamortu agorra.

4. Ideia bat nagusitzen da esandako guzti honen ondorio: alternantziaren ezagutzarik (kontzientziarik, esanahirik funtsezkoenean) ez badago, ez dago fonologiarik zentzu modernoan; alegia, ez dago fonemarik; bestela esan, ez dago analisi mailarik, aurkezpen aurkakotasunik, ez dago fonemarik. Aldaketak ez dira ikusten hizkuntzaren fonologiaren berezko mekanismo bezala.

Ikusi ditugunen artean, esango nuke Astarloa ibili zela guzti honetatik gertuen, perfektioa bilatze horretan hizkuntzaren berezko mekanismo horiei nortasun eta garrantzia ematen dielako. Bere esanen indarra, dena dela, ez da behar baino areago goretsi behar. Kontuan izan behar da berak hizkuntza akatsik gabea, hizkuntza konkretu bat, beste guztien gainetik jarri nahi zuena, zuela gogoan eta ez hizkuntzalariek bide batetik edo bestetik antzemandako hizkuntza guztien arteko unibertsala. Beraz ez zuen burutu jakinaren gainean (baina bai praktikan) honek eskatzen duen abstrakzioa.

Alternantziarik gabe, gehienez ere egon daitezke hotsen ezaugarrien deskribaketak (kasurik onenean) edo ezaugarriei buruzko aginduak (kasurik txarrenean, batipat arauemailea alde aurretikako deskribaketa eta sailkapen sendorik gabe ari bada). Garbi dago aztertu ditugun garaietan aurreratuenek ere (Van Eys daukat gogoan) nahastu egiten dituztela maila ortografikoa eta ebakerarena, baina esango nuke oraindik ere badagoela horrelakorik eta maiz zenbait gauzatan zaharragoek izan zituzten alde onak ahazten direla.

BIBLIOGRAFIA

- Aarsleff, H., 1983, *The Study of Language in England, 1780-1860*. University of Minnesota Press-The Athlone Press, Minneapolis-London.
- Añibarro, P., [c. 1800], 1970, *Gramática Bascongada*. Donostia (= ASJU, III).
- Archu, J. B., 1868, *Bi mihiren gramatika: uskara eta frantsesa*. Lasarre, Baiona. Facsim. Hordago, Donostia 1979.
- Astarloa, P. P., 1803, *Apología de la lengua bascongada o ensayo crítico-filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen*. Madrid. Facsim. Amigos del libro vasco, Bilbo 1983.
- , 1883, *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva o gramática y análisis razonada de la euskera o bascuence*. Bilbo, Velasco.
- Campión, A., 1884, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua vascongada*. Iruña. Facsim. LGEV, Bilbo 1977.
- Darrigol, J.-C., 1827, *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*, Bayonne.
- Donegan, P. & Stampe, D., 1979, «The study of natural phonology» in D. Dinnsen (ed.), *Current Approaches to Phonological Theory*. Indiana University Press, Bloomington.
- Dressler, W., 1985, *Morphology: the Dynamics of Derivation*. Karoma, Ann Arbor.
- Duchet, J. L., *La fonología*. Oikos-tau, Bartzelona.
- Erro, J. B. de, 1806, *Alfabeto de la lengua primitiva de España y Explicación de sus más antiguos monumentos*, Madrila. Facsim. Amigos del libro vasco, Bilbo.
- Etcheberri, J., [1712], 1907, *Escual herriari eta escualdun guztiei escuarazco batsapenac latin icasteco*, in J. de Urquijo (ed.), *Obras vascongadas del doctor labortano Joanes d'Etcheberri (1712)*, Geuthner, Paris. Berrarg., Bilbo, LGEV, 1976.
- Etxepare, B., 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*. Bordele. P. Altunaren arg. Euskaltzaindia, Bilbo 1980.

- Kardaberatz, A., 1761, *Eusqueraren berri onac*, Iruñea. Facsim. L. Lopetegik zaindutako *Obras completas euskéricas*-en. LGEV, Bilbo 1973.
- Ladefoged, P., 1975, *A Course in Phonetics*. Harcourt, Brace & Javanovich, New York-Chicago-San Francisco-Atlanta.
- Lardizabal, F. J., 1856, *Gramática vascongada*, Donostia.
- Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca. Facsim. Hordago, Donostia 1979.
- Lécluse, Fl., 1826, *Manuel de la Langue Basque*, Toulouse. Berrarg. in J. A. Lakarra «Lécluseren Euskal Gramatika (1826). Euskalaritzaren historiako lanabesak (I)», *ASJU*, XXI-3, 1987, 813-916 eta J. A. Lakarra eta B. Urgell «Lécluseren hiztegia. Euskalaritzaren historiako lanabesak (II)», *ASJU*, XXII-1, 99-211.
- Materre, E., [1617], 1623, *Doctrina Christiana*. Bordele.
- Mayerthaler, W., 1987, «System-independent morphological naturalness», *Leitmotifs in Natural Morphology*. John Benjamin, Amsterdam-Philadelphia, 25-58.
- Mitxelena, K., 1978-79, «Miscelánea filológica vasca», *FLV*. [Orain PT, 363-463].
- Oihenart, A. d', 1657, *Les proverbes basques recueillis par le sr. d'Oihenart plus les poésies basques du mesme auteur*, Paris. Facsim. *RIEV*, XXVI, 1935, 201-212.
- Sapir, E., 1949, «The psychological reality of phonemes», in D. G. Mandelbaum (arg.), *Selected Writings*, University of California Press, Berkeley-Los Angeles, 46-60.
- Urgell, B., «Esku-liburuaren grafi-aldaketak (1802-1821)», *ASJU*, XXI-2, 357-387.
- Urquijo, J. de, 1910, «Cartas escritas por el príncipe L. L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores», *RIEV*, IV, 237-297.

Ohar batzuk euskal deklinabidearen historiografiarako

JABIER ALBERDI
(E.H.U.)

Abstract

In the article we can see a general vision of the different theories and presentations of the Basque declension that have taken place from the seventeenth century till the nineteenth, emphasizing specially on Pablo Astarloa's contribution.

Although it is true —the same as happens with other european languages— that there has been up to a later period a mimetic tendency in the Basque grammar towards the bases of the Latin grammar, this tendency was radically changed thanks to Pablo Astarloa's ethnocentric description. Here we note that Astarloa provides a clear reference for a change in the history of the theories about the Basque declension.

Frequently, when we talk about Astarloa, we only give him attribution to certain strange and vague theories. It is this attitude towards his extravagants ideas —as seen by the actual linguistical knowledge— that have made this writer from Durango recieve an injust treatment, even made him fall into oblivion. This work is intended to justify Astarloa, pointing out his originality and importance, as well as his faults and inadequacies in his theory about declension; at the same time, the origin and evolution of some of the main problems surrounding the Basque declension are sketched and recurrently appear within the nineteenth century.

Taking Astarloa's theory as a centre point, the article has been divided into three parts: I. Grammars previous to Astarloa. II. A) Discursos filosóficos. B) Traggia and Apologia. C) Astarloa and the linguistical ideas of the time. D) Good points and inadequacies of Astarloa's theory. III. Astarloa's influence.

0. Sarrera

Mendez mende euskal deklinabidearen inguruan agertu izan diren zenbait teoria eta aurkezpeni halako azaleko begiratua emango diegu artikulu honetan, arretarik handiena Pablo Astarloaren ekarpena aztertzeari eskeimiko diogularik.

Oso berandura arte —ezinbestean— latinaren gramatikarekiko morrontza teoriakoa oso nabarmena izan bada ere, joera hau erabat eteten da P. Pablo Astarloaren deskribapen etnozentrismari esker. Bere ekarriagatik eta bere eraginagatik esan liteke Astarloa mugarri bat dela euskal deklinabideari buruzko teoriaren historian.

Frankotan, apetz edo nahikundez jositako zenbait teoria bitxiren aitatasuna baino ez zaio aitortu durangarrari. Xelebrekeriaz betetako alderdi hauek besterik ez ikusi izanak autore hau bidegabeki baztertzeraz eraman gaitu: gure mendean Astarloa

zokoratu eta ahaztua izan da sarri askotan. Lan honen bidez —okerrak oker eta eznahikotasunak eznahikotasun— gai honi buruz azaldu zuen teoriaren orijinaltasuna eta garrantzia azpimarratu nahi genuke, legezkoa baita bakoitzari berea ematea. Aldi berean espero eta nahi genuke ohar hauek argigarri gertatzea euskal historiografia linguistikoaren atal garrantzitsu baterako: hots, euskal deklinabidearen historiografiarako.

Astarloaren teoria erdigunetzat harturik, hiru zatitan egituratu dugu artikulua: I. Astarloa baino lehenagokoak. II. Astarloa A) *Discursos filosóficos*. B) *Traggia eta Apología*. C) Astarloa eta bere garaiko ideia linguistikoak. D) Astarloaren teoriaren alde onak eta eznahikotasunak. III. Astarloaren eragina.

I. Astarloa baino lehenagokoak

Oihenart

Euskal gramatikari buruzko lehenengo entseiuak XVII. mendekoak ditugu. Haien artean, Oihenartena (1638) aipatzea mereziko luke: labur, baina zehatz ematen digu euskararen berri. Deklinabidea dela eta, aski analisi zorrotza egiten du kasuak aipatzerakoan:

Igualmente, carecen los substantivos de acusativo y vocativo, y en su lugar se usa el nominativo. (*RIEV* 17, 337)

Eta pixka bat beheraxeago, honela jarraitzen du:

La declinación del inarticulado tiene seis casos, y consta del nominativo o recto, genitivo, dativo, ablativo, y además, casos de hacer, negar o dudar. El caso de hacer es el que se pone como sujeto del verbo activo en lugar del nominativo. Ejemplo: El nominativo 'homo', sirve en latín como sujeto del nombre activo o pasivo u otros; pero no en la lengua vasca; pues con el verbo pasivo o sustantivo se pone el nominativo 'guizon', y decimos 'guizon da', es hombre; mas para formar la construcción del verbo activo hay que apropiarle el caso, que haga las veces de nominativo, y no se dirá 'guizon eguiten du', sino 'guizonac eguiten du', el hombre hizo.

Zuberotarrantzat latinaren eredua ezinbesteko erreferentzia bada ere, horrek ez dio eragotzi euskarak berezi duena ikustea; eta horretantxe ageri da bere begi ona eta ekarpena:

- a) latinak ez bezala, euskarak ez du ez akusatiborik, ezta bokatiborik ere (eta paradigmetan, beraz, ez dira agertuko!).
- b) latinak ez dituen bi kasu bereizten ditu euskarak: aditz aktiboari dagokiona, 'aktiboa' (gaurko 'ergatiboa') batetik eta ukatzeko edo zalantza adierazteko erabiltzen dena, bestetik (gaurko 'partitiboa').

Terminologiaren aldetik, ohartu behar gara 'nominativo' hitza marka morfologikoa ezezik, funtzio sintaktikoa ere ('subjektua') adierazteko erabiltzen duela. Nahasketa honek azalduko luke darabilen terminologia aldrebesa: guk 'ergatibo' deitzen dugunari berak batzutan 'aktiboa' eta bete batzutan 'nominativo activo' deitzen dio.

Bukatzeko, esan dezagun Oihenart idazle latinazaleak —gezurra badirudi ere— uste baino lokarri gutxiago erakusten dituela kontu honetan latinaren menpeko ohizko analisi linguistikoekin¹. Ondorengo euskal gramatikariak latinari atxekituago azalduko zaizkigu.

(1) BERPIZKUNDE GARAICO GRAMATIKALARIAK ERABAT LOTZEN ZAIZKIE LATINAREN KATEGORIEI. Ez ditzagun ahaztu, bestalde Scaligero baten edo Sánchez de las Brozas baten proposamenak bost eta sei kasu unibertsal postulatuz. Ikus bedi honetaz Chevalier 1986, 184-201 eta 347. or.

Micoleta

Urte batzuk geroago osatu eta joan den mendearen amaiera arte argitaratzen ez den gramatika moduko batean Micoletak sei kasu ezartzen ditu euskal izenak deklinatzerakoan —latinarentzat jarritako berberak, noski—; baina harrigarriena ergatiboari dagokion desinentzia edo forma arrastorik inondik ere ez agertzea da. Oraingo honetan, latinaren deklinabide ereduaren pisua nabarmena da, gure gramatikalaria itsutzeko adina-koa, hizkuntzaren kasu garrantzitsu batez konturatzen ez uzteko bestekoa:

Declinan-se, pues, assi. Tomemos V.g. á *Xauná*, que quiere dezir, Señor.

SINGULAR		PLURAL	
Nom.º	Xauná,	Nom.º	Xaunac,
Gen.º	Xaunená,	Gen.º	Xaunenac,
Dat.º	Xaunensat, L. Xaunari,	Dat.º	Xaunay, L. Xaunen-saco,
Acus.º	Xauná,	Acus.º	Xaunac,
Voc.º	Xauná,	Voc.º	Xaunac,
Abl.º	Xaunagas, L. Xaunean,	Abl.º	Xaunacas, L. Xaunetan.

(Micoleta 1653, 3)

Urte

XVIII. mendearen hasieran, bide beretik abiatuko da P. d'Urte bere gramatika: euskararen atzizki guztiak ezinbestean, noraezean —moldegaizki bada ere— seiko paradigma batean sailkatu behar dira. Jakina, latinaren morrontza honen ondorioz guztiz nahasia eta aldrebesa azaltzen zaigu euskal deklinabidea: kasu eta formaren arteko erlazioa bat-banakoa barik, bat-anitzekoa dugu gehienetan:

Type generale de la déclinaison du nom substantif et adjectifs

	singulier		p(l)uriel
nom.	a, ac, vic, nic. sic, cic, lic.	nom.	ac, ec, vic, nic. sic, cic, lic.
gen.	rena.	gen.	ena.
dat.	ri, ra, gno. aitharagno, gana, baithara	dat.	ei, tára, gána. taragno, baithara.
accus.	a, vic, nic. sic, cic, lic.	accus.	ac, vic, nic. sic, cic, lic.
voc.	a.	voc.	ac.
abl.	az, ez, iz, oz, uz, tic, an. baitharic, guign, ganic, baithan. co, daco, ou tcat baitharican.	abl.	ez, guign, taco. tcát, ou daco. ganic, taric, tare. baitharic, ou baitharican.

(Urte 1712, 57)

Larramendi

Larramendik berdintsu aurkezten digu deklinabidea, garai hartako Espainiako zenbait gramatikalarik urratutako bidetik²:

(2) «...Nebrija had stated that the prepositions *de* and *a* showed case in Spanish, but many of the later grammarians made the assertion that it was the article which showed case». Merril 1962, 165. or.

Ikus bedi bertan orri azpiko oharrean, artikulua kasua adierazten zuelako eritzia agertu zuten autorenen zerrenda, 165-166. or.

...mas en la variedad y diferencia de los casos, no se atiende à los nombres sino a los artículos, como en romance, francés, y otras lenguas. Hay dos diferencias: la 1ª que los artículos en estas lenguas son prepositivos ó antepuestos al nombre; pero en el bascuense son pospuestos ó subjuntivos. (...) Siendo, pues, el artículo el gobierno de los nombres y pronombres, es necesario tener bien conocido su índole y declinación. (Larramendi 1729, 1)

Jarraian «artikuluaren deklinabidea» ematen du, beti ere, latinaren sei kasuak ardaztat harturik. Jakingarriak iruditzen zaizkit nominatibo eta akusatiboari buruzko oharra:

El nominativo singular tiene dos artículos á, ác, que no pueden usarse promiscuamente, porque el primero sirve à los verbos neutros, y passivos, 'jauná dátor' el señor viene; 'hume-á il da' el niño se ha muerto: el segundo sirve á los activos: 'jaun-ác eman dit', el señor me lo ha dado (...) el acusativo es como el nominativo, con su primer artículo á y no con el segundo, v.g. 'edáten-det urá' yo bebo agua... " (...)

SINGULAR	PLURAL
N. Jaun-á, Jaun-ác- el Señor	N. Jáun-ac.
G. Jaun-arén, Jaun-aréna.	G. Jáun-en, Jáun-ena, Jáun-enac.
D. Jauna-arí, Jaun-arentzat.	D. Jáun-ai, Jaun-entzat.
Ac. Jaun-á.	Ac. Jáun-ac.
V. á Jaun-á.	V. á Jáun-ac.
Ab. Jaun-aréquin, Jaun-agátic. Jaun-agábe, Jaun-agán.	Ab. Jáun-acquin, Jáun-agatic. Jáun-acgabe, Jáun-etan.

(ibid. 2-3)

Eta aditzari buruz hitz egiterakoan, honela dio:

En fin, en resumen, todo verbo activo regular no pide ni admite más régimen que el de sus terminaciones. Estas si son absolutas solo rigen acusativo, la primera de singular y la segunda de plural, y no otro ningun caso. Si son transitivas dos de ellas tiene cada persona, y la 1ª rige acusativo de singular, la segunda de plural, y además de eso todas ellas traen dativo de la misma persona á quien se hace la transición, como 'játen-záitut', yo te como, 'ecárten-názu', tú me traes, no tienen que esplicar mas que cuando se pone la persona á quien no se hace la transición se pone siempre en acusativo y no en otro caso; v.gr. 'játen-zaitut zu', 'ecárten-nazu ni' edo 'neu'. (op. cit. 156-157).

Ikusi ahal izan dugunez, Larramendik —euskarari buruz ari dela— behin eta berriz erabiltzen ditu 'nominatibo' eta 'akusatibo' hitzak. Hortaz, ematen dituen datuak zuzenak izan arren, datuok biltzen dituen marko teorikoaren desegokitasuna bistan dago.

Euskararen bereizkarria den ergatiboa Larramendiren eskuetan, inguruko «eraso-tzaileci» jaurtitzeko arma paregabe bihur zitekeen; berezitasun honetaz ohartu izan balitz, «egile-aditz aktibo» erlazioaren inguruan tinta asko isuriko zatekeen. Nolanahi ere, ez zen horrelakorik gertatu, andoaindarrak ez baitzuen ezertako ere nabarmen erazi datu hau.

II. Astarloa

XIX. mendearen hasieran, Madrilen (1803), idazluma franko dantzan jarrerazi behar zituen liburu mardula ematen zuen argitara P. Pablo Astarloak. Bertan (*Apolo-gía de la lengua vascongadan*) oso teoria bitxia azaltzen zuen darabilgun gaiari buruz.

Edozein modutan ere, lehenagoko³ —beranguago argitaratua izan arren— *Discursos filosóficos* deritzan lanean aski borobildua zuen aipatu teoria. Ikus dezagun, bada, lehendabizi *Discursos*ko aurkezpena.

A) *Discursos filosóficos*

1. Kontzeptu edo ekintza mailako erlazioak

Astarloak bi erlazio mota bereizten ditu KONTZEPTUEN MAILAN: lehen mailakoak («primarias») eta bigarrenekoak («secundarias»). Azkenengo hauek, ekin-tzari begira bigarren mailako «agenteei» dagozkienak izango dira, «bigarren mailako kausalitateei» dagozkienak, alegia: «causa eficiente» (zergatik), «final» (zerentzat), «instrumental» (zegaz) eta «material» (zerezko). Lehen mailako erlazioak, ekintzari begira lehen mailako «agenteei» dagozkienak izango dira: «agente», «paciente», «recipiente» eta «posezor» (aurrerantzean «egile, paziente, hartzaile eta jabea»)⁴. Kontzeptu mailako bi erlazio desberdin hauek aditzera emateko hizkuntzek baliabide bi asmatu zituzten: a) deklinabidea/artikulu (hizkuntzen arabera) lehen mailako erlazioetarako; b) preposizioa / posposizioa (hizkuntzen arabera) bigarren mailako erlazioetarako:

Tenemos dicho anteriormente, y volvemos á decir para mayor claridad que los estados ó relaciones de los entes en nuestros conceptos son ó pueden ser de dos diferentes especies, es á saber, relaciones primarias y relaciones secundarias, de donde se infiere que los primeros hombres hubieron de inventar dos clases diferentes de vocecitas ó terminaciones para indicarlas. Si los agentes, por ejemplo, se hubiesen caracterizado por una sola terminación, era indispensable la confusión en los conceptos de los primeros hombres. No podrían saber estos si los tales agentes eran primarios ó secundarios, quiero decir, si eran principales operadores de la accion, ó ministeriales, esto es, cooperadores del agente principal. (...)

Todos los idiomas han conocido esta verdad. Todos ellos hacen uso de dos clases ó diferencias para distinguir las dos especies de relaciones que llevamos citadas.(...) ...es muy conforme al dictámen de la razon, y á lo que exige de nosotros la claridad de los conceptos el que estas dos clases de características se conozcan en las gramáticas con dos distintos nombres, y no hallo otros que sean más adecuados al uso de los idiomas que la declinacion ó artículo y la preposicion ó posposicion, segun el índole particular de ellos.

Estos idiomas usan de la declinacion ó artículo para hacernos ver las relaciones primarias de los nombres y pronombres, y de la preposicion ó posposicion para darnos á entender las secundarias. (op. cit. 327-328).

Diogun, bidenabar, Astarloak zentzu desberdinean darabilela 'artikulu' hitza: ohizko terminologian ez bezala (hots, ez da ingelesezko 'the', frantsesezko 'le, la,...', edo espainierazko 'el, la,...'; hauei «apelatiboak» deitzen die), artikuluak, deklinabiderik

(3) Hona hemen, A. Tovarren (1980: 111) hitzak: «Trataremos primero de esta obra, pues nos consta es anterior a la *Apología*, y Humboldt pudo utilizarla en manuscrito en su viaje».

(4) Honela azaltzen du bereizkuntza:

«Un agente puede ser principal ó primario; puede también ser ministerial ó secundario, y la claridad de los conceptos pide diferencia de características para indicar estos dos estados o relaciones. (...) Si decimos 'el hombre mató al perro', damos á entender que el hombre es la causa principal de la muerte del perro, esto es, el principal agente de ella y que el perro padece la acción ejecutada por el hombre, y en este concepto no hay agente alguno secundario ó ministerial; pero si decimos 'el hombre mató al perro con la espada', hallamos dos agentes: uno es el hombre, y el otro la espada. El hombre es el agente principal: la espada es el ministerial, esto es, el instrumento con que se ejecutó la muerte». Astarloa 1883, 326. or.

gabeko hizkuntzetan lehen mailako erlazioak adierazteko erabiltzen diren ezaugarriak dira Astarloarentzat⁵.

Aski harrigarria bada ere, Astarloaren aburuz euskara ez litzateke izango deklinabidea duten hizkuntza horietako bat: euskara, lehen mailako erlazioak adierazteko, izenari atzetik eransten zaion «artikuluaz» baliatuko litzateke. Oihenartek eta Larramendik bezala, «artikuluaren deklinabidez» hitz egingo digu Astarloak, baina haiengandik nahikoa alden duaz. Euskara, atzizkien bidez bada ere, «artikuluaz» baliatzen diren hizkuntzen sailekoa litzateke. Zergatik? Latina eta grekeraren modukoak —hizkuntza malgukariak— ez bezala, neurri handi batean itsaskorra (aglutinantea) delako. Azken hauek lehenagokoak dira Astarloaren ustetan; eta malgukariak, haietatik denboraren poderioz, degenerazioz sortuak:

Si contemplamos la declinacion de los nombres en cualquiera de las lenguas que las conocen, hallaremos que á sus principios sus terminaciones no fueron otra cosa que unas vocécitas separadas de los nombres y pronombres, asi como ahora son los artículos de los demás idiomas. Veremos que la supresion y mutacion de letras desfiguró estas terminaciones ó palabritas, y multiplicándolas por este medio, se multiplicaron las declinaciones en perjuicio de la economía de los idiomas. Veremos que fijadas estas terminaciones con los nombres y pronombres se hallan hoy en una disposición de no poder averiguar cuál sea el nombre ó pronombre primitivo, cuál su terminación. En el 'ego, mei, mi ó mih(sic) y me' ¿quién será aquel que podrá resolver cuál sea la voz primitiva, esto es, aquella con que se indicó por primera vez la persona que hablaba, y cuáles las terminaciones que añadidas á ella la clasificaron? (op. cit. 333).

Hemendik aurrera, lehen mailako erlazioen inguruan arituko gara nagusiki.

Astarloaren teoriaren arabera, lau badira adierazi beharreko kontzeptuzko erlazioak, «lehen hizkuntzak» («idioma primitivo») lau ezaugarri asmatu behar izan zituen: ezaugarri bana, erlazio bakoitzeko.

2. Deklinabidea eta «artikulubidea» inguruko hizkuntzetan: hizkuntza «egile ezaugarri motzak»

Astarloaren eritziz, lehen mailako erlazioak adierazteko deklinabidez baliatzen diren hizkuntzek (latinak, adibidez) behar baino kasu gehiago dituzte: «vocativo» eta «ablativo» direlakoak, esate baterako, sobran leudeke. Are gehiago, kasu nahasketa egozten die holako hizkuntzei:

¿Qué cosa es el nominativo? ¿Qué ministerio ejerce en las lenguas que la conocen? ¿Representa la acción del nombre y del pronombre? Si el verbo es activo nos representa la acción; si es pasivo la pasión. He aquí un caso confuso... (...) Igual confusion observaremos en el acusativo. Verémosle representar unas veces la acción, otras la pasión de los signados de los nombres y pronombres, é igualmente destituido de característica que pueda fijar y determinar cuál de estas dos relaciones haya de ser la que se nos quiere comunicar en los conceptos... (op. cit. 330)

Latinaren moduko hizkuntzek bi akats nabarmen dituzte: erredundantzia (behar baino kasu gehiago) eta nahastea (erlazioen eta ezaugarrien arteko nahastea). Hauexek

(5) «Llamaremos artículo á todas aquellas palabritas, que unidas á las voces nos hacen ver los diferentes estados ó relaciones primarias que tienen sus signados, ya con la acción, ya entre sí». Op. cit., 325. or.

Esan bezala, ez dator bat gramatikalarri garaikideen terminologiarekin: «En efecto, consúltense estos idiomas, y se verá que ningún nombre propio va acompañado de estas palabritas cualquiera que sea el caso ó género á que corresponda. Se dirá 'el hombre, la mujer'; pero no se oirá 'el Pedro, la Toledo', etc.(...) de modo que no podemos tener duda alguna en que las palabritas 'el, la, lo' del castellano y las equivalentes en otros idiomas, son unas características ó notas de nombres apelativos». Op. cit., 332. or.

dira, beraz, deklinabidearen inperfekzioak. Guzti honetatik Astarloak ondorioztatzen du lehen hizkuntzak ezin asma zezakeela horrelako aldrebeskeriarik:

Bajo de estos supuestos ¿podemos persuadirnos que el idioma primitivo, este idioma que segun vamos justificando, había de ser perfecto en todo su mecanismo, haria uso de la informe declinacion y de sus oscuros, confusos é indeterminados casos para caracterizar las relaciones primarias de los nombres y pronombres? No, no es posible que un filósofo meditativo dé origen á la declinacion en el mundo primitivo, en aquella época feliz en que el hombre se dirigia por los avisos de la sabia naturaleza, en aquellos tiempos en que no tuvo lugar la arbitrariedad (...) y en que el hombre no llegó á perturbar y trastornar el órden de cosas, establecido por la sabia naturaleza. (ibid).

Lau badira lehen mailako erlazioak, artikuluz baliatzen diren hizkuntzetan lau artikuluz izango dira: paziente, egile, hartzaile eta jabearen artikuluz.

Baina ekonomiaren printzipioaren izenean, Astarloak arrazoizkoa deritzo erlazio horietako bat «ezaugarririk ezaren ezaugarriaz» baliatuz adierazteari. Halaxe ikusten du adierazita artikuludun hizkuntzetan pazientearen erlazioa.

Gogor salatuko du hizkuntza hauetako gramatikariaren latinarekiko morrontza: haiek artikuludun hizkuntzetan latinaren sei kasuak ikusi uste izan dituzte filosofiaren kaltetan⁶. Análisi honen alderdi ahulak agerian jartzen ditu durangarrak:

Quieren que el nombre sin otro carácter que aquella vocécita que le hace apelativo, equivalga al caso nominativo de las lenguas que tienen declinacion (...) sin reparar que estas voces y otras iguales sin más ni ménos características, ejercen en los mismos idiomas las funciones de acusativo.

Eta pixka bat beheraxeago honela dio:

Lo mismo sucede con el dativo y acusativo. Estos dos casos son indeterminables en estos idiomas: 'á Dios, al hombre, á los ángeles' pueden ser dativos y también acusativos. (op. cit. 337).

Gauzak honela, artikuludun hizkuntza hauek ere ezin dira inondik inora izan mekanismo perfektu baten eredu; bestela esateko, lehen hizkuntzak ezin beregana zezakeen gaztelaniarena bezalako artikulubide nahasia, latinaren deklinabidez hornitu ezin zitekeen modu berean.

Lehen hizkuntzak ezaugarri bana behar zuen lehen mailako erlazio bakoitza aditzera emateko; baina Astarloak harriduraz aitortzen digu ez duela inongo hizkuntzatan —euskaran izan ezik, jakina— egilearen erlazioa adierazten duen deklinabide kasurik edo-ta artikulurik. Beraren eritziz inguruko hizkuntza guztiek falta dute ezinbesteko ezaugarri hau:

No hallo en los idiomas así declinantes, como en los que no tienen declinacion característica alguna que nos lleve á conocer que los signados de los nombres y pronombres, sean precisamente agentes en nuestros conceptos y que solo llegamos á este conocimiento por el sentido de los mismos conceptos, como largamente lo hemos demostrado hasta ahora.

Sin embargo, exige el buen órden y la claridad del habla, que las voces lleven ciertas nociones para que distingamos en ellas sus diferentes estados, y no podemos persuadirnos á que la lengua primitiva no se hallase hermoçada con este rasgo de perfeccion. (ibid.)

(6) XVI. eta XVII. mendeko gramatikari askok —Nebrijari jarraituz— onartzen zuten gaztelaniak deklinabiderik eduki ez arren, bazituela kasuak: «Among the grammarians who followed Nebrija, the view that Spanish does not have declensions but that it does have cases was unanimously upheld». Merrill 1962, 165. or.

3. Euskara

Liburuaren azken zatian, aurretiaz zirriboraturiko «lehen hizkuntza» horren ezaugarriekin bat datorren hizkuntza bat aurkezten du: euskara. Honek zuzen beteko lituzke «a priori» ezarritako baldintza eta arau filosofiko guztiak, hala nola, izenaren eta izenordainaren lehen mailako erlazio bakoitzak bere ezaugarri garbia izatea, beti ere, ekonomiaren printzipioa bortxatu gabe. Adierazi beharreko erlazioen eta aukeratutako ezaugarrien arteko «bat-banakotasuna» ezin hobeki isladaturik ikusten bide du euskararen.

Honako paradigma hauek eskeintzen dizkigu, lexema, mugatzailea, loturazko kontsonante edo bokalea eta kasu marka behar bezala bereiziz:

	Paciente	El no tener.
Características.....	Agente	K.
	Recipiente	I.
	Posesor	En.

EJEMPLO DE LOS NOMBRES APELATIVOS

Paciente.....	Gizon-a
Agente.....	Gizon-a-k
Recipiente	Gizon-a-r-i
Posesor.....	Gizon-a-r-en

EJEMPLO DE LOS NOMBRES PROPIOS

Paciente.....	Peru
Agente.....	Peru-k
Recipiente	Peru-r-i
Posesor.....	Peru-r-en

Paciente.....	Machin
Agente.....	Machin-e-k
Recipiente	Machin-i
Posesor.....	Machin-en

EJEMPLO DE LOS NOMBRES NUMERALES

Paciente.....	Bi
Agente.....	Bi-k
Recipiente	Bi-r-i
Posesor.....	Bi-r-en (op.cit. 675-677)

Bukatzeko «apelatibo» izenekoentzat beste paradigma bat ematen du mugagabeak («indefinidos») direnerako. Orduan izen propio eta numeralen ezaugarri berberak hartzen dituzte, baina «pazientearen artikulua» eransten zaielarik (gure partitiboa, alegia):

A más de estos artículos que son definidos, tiene el bascuence otros que podemos llamar indefinidos, y usa de ellos cuando los nombres apelativos pasan á ser partitivos, esto es, á significar una parte ó porcion de individuos contenidos en la especie representada por la voz apelativa, como cuando decimos 'ciertos hombres: varios soldados: ningun literato, etc.' Hé aquí un ejemplo de estos artículos en la voz 'gizon' hombre.

Paciente.....	Guizon-ic
Agente.....	Guizon-e-c
Recipiente	Guizon-i
Posesor.....	Guizon-en

De aquí se ve que para que los nombres apelativos pasen á ser indefinidos, han de recibir el artículo del mismo modo que los nombres propios y numerales, con la diferencia de que en ellos hay un artículo paciente. (op. cit. 677. or.)⁷.

B) Traggia eta Apologia

1802. urtean argitaratutako *Diccionario Geográfico-histórico de España*n Joaquin Traggiak (1802: s.v. «Navarra») artíkulu luzea idatzi zuen euskal hizkuntzari buruz.

Euskararen jatorria zela eta, aurreraturiko hainbat hipotesi auzipean jartzeaz gain, Traggiak oso jarrera kritikoa azaltzen du euskaldunen teorien aurrean. Bertan esandakoei erantzunez plazaratuko du Astarloak bere *Apologia*.

Deklinabidea dela eta, Traggia ez dabil oso zuhur bere esanetan. Baieztapen boro bil batzuekin kontraesanean jaustez gain⁸, oso adierazpen harrigarri eta ausartak egiten ditu: besteak beste, euskarak deklinabide atzizkiak latinetik edo godotik hartu dituelako ustea. Argiago dabil, euskararen deklinabide atzizkiak ez direla benetako artikulutzat hartu behar esaten duenean⁹, baina berriz ere gaizki-ulertuak sortuko dituen konparazio arriskugarria azaltzen du:

Que los vascongados miren las terminaciones de sus nombres como una verdadera inflexion, á imitacion de griegos, latinos y alemanes, y no como artículos pospuestos del japon ó chino, lo manifiesta la declinación reglada de sus pronombres 'ni' ó 'nic', yo: 'nizas', de mí: 'niri' ó 'neretzat', para mí, (...puesto que las lenguas que usan artículos ó preposiciones para los casos los emplean en los pronombres, v.g. 'yo, de mí, á mí, por mí', etc. Los chinos dicen: 'ngò-go', yo: 'ngò-chi', de mí, etc.; y poco mas ó ménos sucede lo mismo en japon.» (ibid, 150)¹⁰.

Astarloak bere aldetik, berri gutxi dakar *Apologian* deklinabidearen gainean. Gehienetan, *Discursosen* esandakoak adibide gehiagorekin argitzera mugatzen da; hori bai, beti ere, berbaldia Traggiaren okerrak zuzentzeari begira taiutuaz.

(7) «Artículos definidos/indefinidos» aurkaritzan kontraesan nabarmena ikusten dugu, emandako «artíkulu» definizioa kontuan hartzen badugu. Oraingo honetan, oharkabean Oihenart eta Larramendiren terminologia itzuri zaio, nonbait.

(8) Lehenengo, honela dio:

«Pasémos á los nombres: éstos son indeclinables en vascuence, como lo son en el hebreo, árabe, en el chino, japon, malayo, y otra infinidad de lenguas antiguas y modernas. Así lo fué en todas las primitivas, hasta que la necesidad hizo hallar las inflexiones para expresar los diversos estados y relaciones de la misma cosa.»

Eta beherago:

«En este idioma, declinado un nombre, sea propio ú apelativo, y de cualquier especie, están declinados todos. Sus casos son seis, y se expresan posponiendo al nombre el artículo»: (159. or.).

Horra kontraesana: badirudi lehenengo baieztapenarekin esan nahi duela euskarak —hizkuntza malgukaria ez den aldetik— ezin duela izan deklinabiderik; baina gero Larramendiren hitzak erabiliz, ohartu gabe, onartu egiten du deklinabidea.

(9) «Y pueden considerarse éstos como terminaciones fijas é inseparables fuera de composicion, mejor que como artículos», 160. or.

(10) Ikus dezakegunez, datuak nola interpretatu ez dakiela geratzen da Traggia: alde batetik, —latinean ez bezala— aldaketarik ez duen lexemari bukaera jakin batzuk eransten zaizkiola ohartzen da;

Hasiera-hasieratik aurkezten digu bere tesia: deklinabideaz baliatzen diren hizkuntzek larregiz, artikuludunek gutxiagiz¹¹ huts egiten dute. Lehen mailako erlazioei begira, behar beste ezaugarri —ez gehiago, ez gutxiago— dituen hizkuntza bakarra euskara da. Ondoren, tesi hau garatuko du *Discursosen* azaldutako argumento berberak erabiliz.

Azpirarratzekoa da, bestalde, grekera eta latinarekiko esklabutza teorikoaren salaketa sutsua: gogoz erasotzen dio Astarloak hizkuntza klasikoenganako joera mimetikoari:

¿cómo el P. Manuel Larramendi, dirá Tragia, pone seis casos en el Bascuence? Es verdad que este laborioso Bascongado, y tambien Arriet, aunque Tragia no tiene noticia de este nuestro gramático¹², dan seis casos á los nombres; pero ¿qué extraño fué el que Larramendi y Arriet se equivocasen, si todos nuestros gramáticos han tenido el mismo error, aún cuando han escrito gramáticas de lenguas que no conocen la declinacion? ¿si han hecho lo mismo los ilustres Cuerpos de nuestras sabias Academias Europeas?

Un ciego vasallage á las lenguas Griega y Latina: una preocupacion de creer arreglado todo lo que imite á estos dos idiomas, ha precipitado, ha arrastrado á toda nuestra literatura, ha obligado á que arranquen de sus respectivas lenguas Europeas lo mas bello, lo mas perfecto, lo más enérgico que tenia su mecanismo, solo porque no era conforme á estas dos tiránicas lenguas,... (op. cit. 129)

Oro har, markak isolatzerakoan — -Ø,-K,-I,-EN- kasu bakoitzaren ezaugarritzat emanez— asmatu duela esan dezakegu. Aipatu diren erlazioetako bi («paziente» eta «egile»), ordea, ez daude bat ere ondo zehaztuta: terminologia honetan argi pixka bat egiteko asmoz, aditzaren sailkapenari begiratuko diogu.

Astarloak bi aditz mota bereizten ditu: «sencillo» ('icassi') eta «doble» (gaurko erazleak: 'i-ra-catzi'). Bi hauek hiru kasetakoak, «activo», «pasivo» eta «mixto», eta hartzaileari begira, NORI-gabeak («puros») eta NORI-dunak («recipientes») izan daitezke:

... 'ilten-dot' es un verbo activo puro, porque no hay quien reciba la accion, y significa «yo lo mato»: 'ilten-deutsat' es un verbo activo recipiente, porque una tercera persona de singular entra á recibirla, y juegan en la accion tres personas: el 'yo', agente caracterizado en la 't' final del auxiliar 'd-eu-ts-a-t': una tercera persona recipiente ó dativo caracterizado en la 'a': otra tercera persona del mismo número singular paciente, caracterizada en la 'd' inicial de dicho auxiliar. (op. cit. 149-150)

Eta «mixtoei» buruz zera dio:

¿Un verbo neutro no es un verdadero verbo mixto? ¿El mismo que viene no es el venido? ¿El mismo que hace la accion de andar, no es el que la sufre? ¿No hay en estos verbos una reflexion de accion? (op. cit. 158)

hemendik deklinagaitz direla esateko arrazoia; baina bestetik —latinean bezala— Larramendik «artikulu» deritzon hori (deklinabide atzizkia) ez da osagai autonomoa, ez da espainierazko artikularen parekoa.

Nolanahi ere, bukaera horiek inflexiotzat hartzeko darabilen azken argumentua (izenordainen deklinabidearena, alegia) aski ahula da eta terminologia mailako nahaste-borrasteari zor zaio.

(11) Hona hemen, gatzelaniaren ezaugarriak Astarloaren arabera:

CARACTERISTICAS CASTELLANAS.

Nominativo.....el no tenerla.
de Genitivode.
Dativo y
AcusativoA» (Op.cit., 136. or.)

(12) Esan behar da M. Harrietek (1741:8-9) ez diola jarraitzen latinaren seiko paradigmari, zerrenda luzea eta kasu izenik gabea ematen baitu.

Bestalde, izenordainei buruz ari dela, honelako adibideak ematen dizkigu erlazioak azaltzeko:

‘Ni’, io: sin artículo alguno ha de ser necesariamente paciente, y lo mismo ‘zu’ vmd., ‘i’ tú, ‘gu’ nosotros... porque el no tener artículo las voces entre nosotros es característica de paciente. ‘Noc irartzartu-nau ni?’ ¿Quién me ha despertado á mí? ‘Gexotu-edo-zara-zu’, sin duda ha enfermado vmd.: ‘galduta-ago-i’ tú estás perdido: ‘Ezgaitu-bee gu goitu’, no nos han vencido: donde el ‘ni, zu, i, gu’ yo, vmd., tú, nosotros son pacientes, porque no tienen artículo alguno, y esto mismo sucede con el nombre, como poco hace diximos.

Si queremos que los pronombres sean agentes, posponemos el mismo artículo ‘c’ destinado para agente. ‘Ni-c bai ildodala bassaurdia’, yo sí que he muerto jabalí: ‘Zu-c eguindozu caltia’, vmd. ha hecho el perjuicio: ‘I-c aussí-dittuc gure atiac’, tú has roto nuestras puertas: ‘Gu-c artuten-ditugu arduraac’, que cuidados tan inútiles tomamos. Donde el ‘ni-c, zu-c, i-c, gu-c’, yo, vmd., tú, nosotros son agentes por hallarse caracterizados con el artículo agente ‘c’. (op. cit. 140)¹³.

Erlazioak *Apologian* azaltzen diren moduan, pentsa liteke zeharka honelako zerbait esaten zaigula: hiru aditz klase daude euskaraz: «mixtoak» (argumento bakarrekoak, «pazientearen» ezaugarriaren bidez emanak: *joan, etorri, ibili...*), «aktiboak» (argumento bikoak: «egile» eta «pazientea»: *hil, egin, hautsi, hartu...*) eta «pasiboak» (argumento bakarrekoak, baina aktanteak ekintza jasaten duela adierazten dutelarik (?): *gaixotu, ...*(?)). Marko teoriko honetan, badirudi «egilea» bakarrik izan daitekeela aditz aktiboa duen perpaus bateko -K ezaugarriaren sintagma. «Agente» terminoaren aldean, «pazientearena» askoz ilunago agertzen zaigu: gehienetan egilearen ekintza jasaten duen sintagma marka gabea (‘noc irartzartu-nau ni?’) bada ere, zenbaitetan aditz pasibodun perpausoko sintagma marka gabea ere izan daiteke (‘guxotu-edo-zara zu’).

Ezagun da termino eta erlazio hauen zehazgabetasuna hautaturiko erizpide semantikitik datozela: erizpide hau hankamotz gertatzen zaio Astarloari eta hortik datu enpirikoen hautapen partziala.

C) Astarloa eta bere garaiko ideia linguistikoak

Astarloaren datu iturri garrantzitsuenetako bat Lorenzo Hervasen lana¹⁴ bada ere, ez dirudi deklinabideari buruzko teoria jesuitaren bitartez iritsi zitzaionik. Kontu honi dagokionean —beste askotan bezala— Hervasek (1979: 244) Larramendiri jarraitzen bide dio:

El perfecto artificio de las lenguas se reduce á la diversidad de sus nombres en substantivos y adjetivos, á la diferencia de los números y casos de los nombres y, á la variedad de conjugaciones de los verbos con la respectiva diferencia de sus modos y tiempos en cada modo: y el vascuence tiene todas estas cosas con suma perfeccion, como lo demuestra su gramática publicada por Manuel Larramendi. El vascuence distingue los números de los nombres acabando en ‘a’ ó ‘ac’ el singular de ellos, y en ‘ac’ el plural. Por exemplo: ‘iauná’ y ‘iaunac’ significan señor: y ‘iaúnac’ significa

(13) Erabilitako terminologiagatik, agian, aditz iragankorren pasibotasuna defenditzea espero genezakeen; baina itzulpenetatik ikusi ahal izan denez, ez dago horrelakorik.

(14) Hona hemen, Justo Garateren (1936: 111) hitzak:

«Hervás le regala desde Roma sus cinco tomos italianos sobre lenguas. Estudia el *Catalogo delle lingue*, editado en 1784 en Cesena, y gramáticas americanas.(...)»

En estas obras vió la buena sintaxis de otros muchos idiomas, sobre todo de Asia, y los afijos en otras lenguas.

Observa el género y el artículo».

A. Tovarrek ere (1980: 120) iturri berbera azpimarratzen du.

señores: se distinguen bien por el acento el singular 'iaunác', y el plural 'iaúnac'. Los casos de cada número se distinguen por partículas pospositivas que se les añaden: así el genitivo singular es 'iaunaren'; y el plural es 'iaunen'; y así los demás.

Beste alde batetik, XVIII. mendeko Espainiako gramatikariek ez dute orijinaltasun handirik erakusten; alderantziz, latinaren ereduari erabat lotuak azaltzen zaizkigu¹⁵: Nebrijaz geroztik onartzen da gaztelaniak ez duela deklinabiderik, baina badituela kasuak: preposizioen bidez adierazitako kasuak. Okerrena, latinaren sei kasuak hizkuntza ororen kategoria unibertsaltzat hartzea izango da, ordea: preposizioen bidez seinalatutako esanahi edo-ta funtzio guztien analisisa, latinaren sei kasuko paradigmaren moldera plegatu behar da nahitaez. Espainiako Akademiaren gramatika (1771: 23-24) barren-barrenean begiratu gero, halakoxe analisi motza ikusten da, esplizitoki gaztelaniak deklinabiderik eta kasurik ez duela ezarri arren:

De la declinacion de los nombres.

DECLINACION en la Gramática latina es la variacion de un mismo nombre en diferentes casos, ó terminaciones con distinta significacion.

Por exemplo, el nombre 'Dominus', que significa señor, se declina, ó varía en latin por las seis terminaciones, ó casos siguientes.

EN SINGULAR

EN PLURAL

Dominus..... el señor.

Domini los señores.

Domini del señor.

Dominatorum..... de los señores.

Domino para el señor.

Dominis..... para los señores.

Dominum al señor.

Dominos..... a los señores.

Domine..... señor.

Domini señores.

à Domino por el señor.

à Dominis..... por los señores.

Nuestra lengua no admite esta variedad de casos, ó terminaciones en los nombres, y solo conoce diferencia entre el singular y el plural de ellos, (...)

Para expresar el diferente oficio que cada caso tiene en latin nos servimos de preposiciones,...

Ikusten denez, analisiaren ikuspuntua beti kanpotik barrurakoa da: latinaren hegitik—latinarena gramatika bakarra, unibertsala bailitzan—abiatzen dira hizkuntza partikular bat aztertzerara. Arrazoiz salatuko du Astarloak bere *Apologian* Akademiaren jokabidea¹⁶.

Nolanahi ere, mendearen azken herenean Europako ideien iturburu bihurtu den Frantziatik hasten dira hedatzen teoria linguistikoak Espainia aldera (cf. Lázaro Carreter 1985: 205). XIX. mendean izango da, Akademiari berari burututako lanaren gaurkotasun falta (pentsatzekoa da, gaurkotasuna Condillac, Du Marsais, Bezauzée,... eta horrelakoen eskutik bilatu behar zela) egotziko dionik.

Astarloak berak, bestalde, Frantziako ideia linguistiko zenbait oso gogoko zituenenez

(15) Lázaro Carreteren (1985:193) hitzak aldatuko ditut: «Por esta esquemática exposición puede deducirse la escasa originalidad e importancia que tuvo la gramática española en el siglo ilustrado.(...). La línea de codificación del español que inició Nebrija en el siglo XV, haciéndola depender de la gramática latina, atraviesa ininterrumpidamente este siglo,....».

(16) Testu honetaz Astarloak egiten duen interpretazioa bat ere zuzena ez bada ere. Ikus Astarloa, *Apología de la lengua vascongada*, 130. hh.

Espainiako XVI. eta XVII. mendeko gramatikarieren kasu teoriak irazkinduz, J. S. Merril-ek (1962:169) honela dio: «It is evident, then, that, in spite of the obvious differences in their interpretation of the Spanish prepositions, all of these grammarians had one feature in common: the failure to realize that any discussion of case with regard to prepositions was completely without meaning. The very use of prepositions had supplanted and taken over the function of cases,....».

eta bere liburuetan behin edo behin autore frantziar batzuk (Court de Gebelin eta Destutt-Tracy, besteak beste)¹⁷ aipatu zituenez, durangarraren deklinabideari buruzko teoriaren sustriak haiengan bilatu behar ez ote dugun burura dakiguke.

Dударик gabe, *Discursos* liburuaren asmoa eta filosofia bete-betean koka dezakegu XVIII. mendeko gramatikarien jarrera ez-historikoaren barruan: Rousseuren izpiritu erromantikoaz jantzita, naturalezaren arabeko lehen hizkuntza perfektoren bila abiatzen da, psikologian eta «arrazoian» oinarrituriko berreraiketa aprioristiko-a metodotzat hartuz (Mounin 1979: 152), «filosofatuz», alegia:

Filosofaremos para este efecto con la mayor atencion y escrupulosidad, sobre el mecanismo que hubo de haber tenido un lenguaje de que hicieron uso los primeros hombres. (...) Estableceremos cuantas reglas y preceptos sean necesarios para levantar el gran edificio de un perfecto lenguaje. (...) Una lengua primitiva, una lengua que hablaron los primeros hombres desde el mismo instante en que fueron criados, ¿cómo podía ménos de ser perfectísima? Infundida á nuestros primeros padres por el Supremo Hacedor, ó concedida por el mismo á la constitución del hombre, había de ser necesariamente la más acabada de cuantas son imaginables en la filosofía. Habia de pintarnos á toda la naturaleza que era su signado, con todos aquellos colores... (Astarloa 1883: 2)¹⁸.

Hala ere, garai honetan pentsamenduaren eta lengoaiaren arteko harremanen inguruan, bi dira kontrajarrita aurkitzen ditugun jarrera nagusiak: alde batetik —Beauzée-ren gidaritzapean— lengoai logikaren morroi bihurtu nahi luketenak ditugu; bestetik, lengoai pentsamendura iristeko azterbide posibleetako bat besterik ez dela uste dutenak, Condillac adierazlerik argiena dugularik. Lehenengoek gramatika orokorraren izenean logika eta lengoai uztarturik aurkezten dizkigute, espekulazioari atea irekiz. Besteek erabateko buelta ematen diote aurrekoen planteamenduari, espekulazio aprioristikoa moztuz: lengoaiaren autonomia bermaturik geratzen da, bera baita —komunikaziorako tresna izateaz gain— abiapuntu, zimendu eta lanabesa pentsamolde batzuetara iristeko:

Mais la conception de l'énoncé qui est celle de Condillac est liée à des renversements beaucoup plus larges concernant les rapports de la pensée et du langage (...)

Tout d'abord, la pensée n'est plus considérée comme ordonnée et comportant des éléments successifs tel que la substance et l'accident. Elle est vue au contraire comme «tableau» fait d'éléments simultanés. Elle ne peut donc servir de modèle à une ordonnance des éléments du langage; de ce fait, est ruinée la thèse des «langues analogues» (analogues à la pensée) suivant «l'ordre analytique» (de la pensée). Bien plus, c'est le langage, et les langues, posées comme autant de «méthodes analytiques», qui permettent l'analyse des éléments simultanés de la pensée et leur successivité. Renversement complet, par conséquent... (Delesalle-Chevalier 1986: 46)

Beraz, bi joera, bi talde desberdin: Port-Royal-go gramatikaren jarraitzaileak, Du Marsais eta Beauzée; eta Condillacen jarraitzaileak, Diderot, Batteux eta Court de Gebelin. Oro har, pentsamoldeari begira Astarloa talde hauetako baten lerroen artean sartzekotan, lehenengoekin batera sartuko genuke: haientzat frantsesaren egitura eta ordena ziren naturalezaren arabeko bakarrak (beste hizkuntzetakoak, iraultketak, noski!); beste arazo batean bada ere. Astarloarentzat ere beste horrenbes-

(17) Horra zer dioskun Justo Garatek (1936: 31):

«Astarloa estaba más abierto a las corrientes de la época, y así se comprende que citara a Court de Gebelin y a Destutt-Tracy,...».

(18) Badirudi testu honetan onartzen dela innatismo linguistikoaren posibilitatea hipotesi gisa.

te, euskarak bakarrik erantzuten die behar bezala pentsamendu, logika eta naturaleza-ren premiei. Analisi honek, azken finean, gehiegizko etnozentrismo linguistikoa ditu bere sustraiak¹⁹.

Gorago ikusi ahal izan dugunez, Astarloaren lehen mailako erlazioen eta aditz sailkapenaren artean bada halako lotura. Hala ere, analisia beti semantikoa izango da. Du Marsais-ek ere, enuntziatua aztertzerakoan, noizean behin antzeko erizpide semantikoa erabiliko du:

Et un même temps que ce découpage en trois parties: sujet-verbe-régime devient parallèle à un découpage en sujet-verbe être-attribut (ce qui est contraire, on le voit clairement, à la conception port-royaliste), *il rencontre un autre découpage en trois parties qui coïncide partiellement avec lui: celui qui divise l'énoncé en agent-action-objet de l'action, privilégiant les rôles sémantiques conçus à partir du monde sensible.* (Delesalle-Chevalier 1986: 42)²⁰.

Edozein modutan ere, datu honek ez digu gehiegi esaten: tankera horretako partike-ta eta analisi semantikoak (bai aditzarenak eta bai enuntziatuarenak) aski antzinakoak dira. Azken batean, Aristotelesen «ekintza/pasioa» aurkaritzan oinarritzen dira.

Deklinabideari eta kasuei dagokienez, mende bukaerako salbuespen nabarmen bat edo beste²¹ kenduta, esan daiteke frantses idazle guztiak bertan behera uzten dutela jarrera unibertsalista. Diderotek argi uzten du (Diderot-D'Alambert, *sv. cas*) frantsesak eta antzeko hizkuntzek ez dutela ez kasurik, ezta deklinabiderik ere; preposizioen bidez adierazten diren erlazioak, esanahiari begira beste hizkuntza batzuetan kasuen bidez adierazitakoen parekoak izan daitezke, baina sekula ere ez dira hartu behar kasutzat preposizioak. Destutt-Tracyk bide beretik joko du, baina orri azpiko ohar batean euskararen deklinabidearen berri ematen digu:

Il y a des langues qui remplissent jusqu'à un certain point cet objet, comme elles marquent les genres et les nombres, par le moyen de ce qu'on appelle les déclinaisons; c'est-à-dire, que par certains changemens de désinence appelés «cas», elles indiquent quelques-uns des rapports des noms et des adjectifs, avec d'autres noms; mais beaucoup de langues n'ont point de cas; et celles qui en ont, n'en ont qu'un petit nombre, tandis que les divers rapports qu'une idée peut avoir avec une autre, sont extrêmement multipliés; ainsi, les cas ne peuvent exprimer qu'en général, les principaux de ces rapports. (...) Aussi dans toutes les langues, même dans celles qui ont des cas, on a senti le besoin de mots distincts, séparés des autres, et expressément destinés à cet usage. (1) (...)

(1) *Excepez cependant les langues basques et péruviennes, dont les noms ont des cas si variés, qu'elles n'ont point de prépositions, et qu'elles marquent, par des changemens de désinence, tous les rapports qui, dans les autres langues, sont exprimées par des mots particuliers.* (Destutt-Tracy 1803: 114-115. Azpimarratua geurea da)

Beauzée (1767: 160-161) era berean hitz egiten du, baina euskaldun gramatikala-rien mimetismoa salatuz. Bietatik bat: edo euskarak ez du kasurik, edo bestela,

- , 1977, *Fonética histórica vasca*, 2. arg. zuzendu eta zabaldua, *ASJU*ren gehigarriak, Donostia, 3. arg. facsim. 1985.
- , 1985, *Lengua e Historia*, Paraninfo, Madrila.
- Mugica, S., 1932, «Garibay como vascófilo y como etimólogo», *RIEV*, 23, 621-625.
- Saroihandy, J., 1922, «Oihenart contra Garibay y Morales», *RIEV*, 13, 448-455.
- Tovar, A., 1977, «El nombre de Pamplona», *FLV*, IX, 5-8.
- , 1980, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Alianza Ed., Madrid.
- , 1981, «Orígenes del euskera: parentescos, teorías diversas» in *ZZEE, Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibersitatearen Argitarazioak, Bilbo, 7-25.
- Zubiaur, J. R. & Arzamendi, J., 1976, «El léxico de los refranes de Garibay», *ASJU*, X, 44-147.

Oihenart Silvain Pouvrearen hiztegia

MARI JOSE KEREJETA

(Orotariko Euskal Hiztegia)

Abstract

In this article I would like to point out especially two things. First of all the fact that under the abbreviation H. which Pouvreau uses in his dictionary, there are two sources: Devocino escuarra by Harambourre (the edition by Harizmendi), and Virginaren Officioa, also by Harizmendi. Secondly I talk about the five or six letters which Oihenart sent to Pouvreau establishing the order in which they were sent, that they were sent within a year and that Pouvreau only used information from the first three letters in his dictionary. On the other hand I'm almost certain Oihenart sent another sofar unknown letter which has disappeared. I also set out that Oihenart actually had the part missing in the second copy of the dictionary. Finally I state that from the middle of 1665 Pouvreau didn't add anything more to his dictionary, and from that point his trace vanishes. At the end of the article two appendix': a letter by Oihenart which Bourgaud des Marêts and Urquijo ignored, and never before published, and the letters already published by them but with several corrections.

Lantxo honetan bi gauza azaldu nahi ditut batez ere. Batetik, Pouvreauk bere hiztegia erabiltzen duen H. laburduraren azpian bi iturri daudela: Haranbururen *Devocino escuarra* (Harizmendik moldaturiko edizioa) eta Harizmendiren *Virginaren Officioa*. Bestetik, Oihenartek Pouvreauri bidalitako gutunez arituko naiz, eta ageruko dut zein den beraien artean dagoen ordena, guztiak urte beteko epearen barruan bidali zizkiola Oihenartek, denetara bost edo sei izan zirelarik, eta Pouvreauk bere hiztegia osatzeko lehendabiziko hirurak bakarrik erabili zituela. Ia ziurtzat jotzen dut, bestalde, desagertu den beste gutunen bat ere bidali ziola Oihenartek. Azalduko dut, halaber, Hiztegiaren bigarren kopiari falta zaion lehen zatia, Oihenartek izan zuela eskuartean. Eta azkenik, 1665 urtearen erdi aldetik aurrera, Pouvreauk ez diola ezer erasten bere hiztegiari, bere arrastoa hor galtzen delarik. Bukaeran, bi eranskin: batetik, Burgaud des Marêts eta Urquijok alde bat utzi zuten Oihenarten kartetako bat emango dut argitara; eta bestetik, hauek argitaratu zituztenak berrargitaratuko ditut, Urquijorenean zenbait huts aurkitu bait ditut¹.

* * *

(1) Lan hau V Donostiako Udako Ikastaroetako hitzaldi gisa izan zen argitaratua (Argitarapen Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1987). Harrezkero zenbait zuzenketa egin ditut, gauza batzuk kendu eta beste zenbait erantsi. Bukaeran dagoen II. eranskina ez zegoen lan honen lehen bertsioan.

Pouvreuren hiztegian, zenbait hitz eta esaldiren aldamenen laburdura batzuk azaltzen dira, eta askotan zenbaki bat ere bai. Autoreen aipamenak dira, hau da, hitz eta adibide horiek jaso ditueneko iturriak. Vinson eta Urquijo bateratsu aritu ziren auzi honetaz, Vinson "Les citations du vocabulaire basque-français de S. Pouvreau"-n (*RLPbC* 1909), eta Urquijo, urte berean *RIEV*-en argitaratutako "Las citas del diccionario de Pouvreau"-n, bertan esaten du, *RLPbC*-ko ale hori jasotzean, bera ere laburdura horiek zeri ote zegozkion aztertzen ari zela. Biek asmatzen dute, gutxi gora behera, laburdura hauen azpian zein autore dauden (O.: Oihenart; A.: Axular; E.: Etxeberri Ziburukoa; L.: Leizarraga; S., Vinsonek ez du aipatzen, Urquijok Sauguis dela dio). Ez dute alabaina, asmatzen M. eta B. eta batzutan S-ren azpian zer dagoen. Vinsonek ez ditu aipatu ere egiten, eta Urquijok uste du Materre eta Beriain izan daitezkeela. Koldo Mitxelena izan da aldi honetan argitasuna ekarri duena; "Euskal-iztegigilleak XVII-XVIII'garren mendeetan" artikuluan (*Euskera* 1961) dioen bezala, laburdura horiek berak erabiltzen ditu Oihenartek bere poesien atzealdean dakarren hiztegitxoan², eta hain zuzen hiztegitxo horretan azaltzen dira Pouvreaux berean jasotzen dituen *dubulatea*, S. (oraingoan beraz, S horrek ez du Sauguis esan nahi, Soule baizik: Sauguisek *dibulata* forma erabiltzen du), *isuna*, B., eta *necoxa*, S. M.

Nahaste handiagoa izan da, hala ere, H. laburduraren inguruan. Vinsonek lehen aipatu artikuluan, aitortzen du berak ez dakiela zeri dagokion. Urquijok zorte hobea izan zuen honetan; izan ere Oihenarten eskuizkribu batean tartekaturik, Pouvreaux Oihenarti bidalitako idatzi bat aurkitu zuen, ulertzen ez zituen zenbait hitzen azalpena eskatuz³. Eskuizkribu honen buruan "D'Harismendi" irakur daiteke, eta honen ondoren hitz zerrenda bat dator⁴, pentsatzekoa denez autore horren liburutik jasoa. Orduan Urquijok, laburdura hau zeramaten hitz eta esaldi mordoa apartatu zuen Pouvreauxen hiztegitik (batzuk orrialde eta guzti, besteak gabe) eta saiatu zen eza-gutzen den Harizmendiren obra bakarrean, hau da *Virginaren Officioa*-n⁵ aurkitzen; baina ez zeuden, eta hau da Urquijok atera zuen ondorioa: "Podemos concluir que Harizmendi debió publicar, o al menos escribir, otro libro, del cual no se encuentra, por lo demás noticia; libro que tendría un minimum de 511 pags, y que probablemente trataría de asuntos religiosos"⁶. Izan ere aipatzen den orrialderik altuena: "*nibor asaldatcea çarçoz edo hitz alferrez*. h. 511" da; eta gaiari dagokionez berriz, "*nik*

(2) Ohar hau dakar Oihenartek bere hiztegitxoaren aurretik, 67. or. eta hurrengoan: "...apres auoir aduertey le Lecteur, que la lettre L. dont ie me sers apres aucuns de ces mots, veut dire Labourt & c'est pour faire entendre que tels mots son particulièrement vsitez au país de Labourt. L. Oc, veut dire Labourt Occidental, qui est le quartier de la coste de la Mer, comprenant les Bourgs de Saint Iean de Luz & Sibore; & ce qu'il y a de Bourgs, & de villages à trois lieües ou enuiron à la ronde. B. veut dire la Basse Nauarre. S. la Soule. S. M. Soule Meridionale (qui est le quartier de la montagne, appellé vulgairement Bassaburua) & N. la haute-Nauarre".

(3) Ik. Julio Urquijo, "Las citas del Diccionario de Pouvreau", *RIEV* 1909, 504 hh. Hemendik aurrera, *Citas* bezala aipatuko dut. Artikulu honetan deskribatzen duen Oihenarten eskuizkribu hau (Pouvreuren eskuitikakoak ziren hiru folio barne), autore beraren beste eskuizkribu askorekin batera, esku askotatik pasa zen, dirudienez, eta Urquijoren aurretik P. Labrouchek izan zuen, eta lehenago Mme de Brancion delako batek.

(4) Harizmendirengandik jasotako hitz horiezaz gain badaude beste batzuk "Du dictionnaire du Sr. Etcheuerry & autres" izenburuaren pean. Oihenartek gehienak azaltzen dizkio bere gutunetan.

(5) Cf. Harizmendi, *Ama Virginaren Officioa...* Borden 1658. Vinsonen edizioa erabili dugu (Chalon-sur-Saône 1901).

(6) *Citas* 511.

banegui sure borondatea. h. 103” eta “*Jondone Laurendi cascaldua*. h. 76” beste batzuren artean.

Hala ere, ez da hemen amaitzen auzia. Vinsonek aurrerago eramaten du kontu hau Urquijoren *Citas*-i erantzun gisa moldatutako artikulua batean⁷. Vinsonek azaltzen du H. laburdura daramaten aipamenak, *Devocino Escuarraren* edizioetako batetik jasoak daudela. Liburu honek, Vinsonek dionez, edizio hauek izan zituen:

– Lehendabizikoa 1635.ekoa.

– Bigarrena 1642-43 inguruan. Garai horretako baimen bat baitago berak duen 1690(?)eko edizio batean. Vinsonek dioenez, edizio honetatik ez da ale bera ere gelditzen.

– Hirugarrena, dirudienez Harizmendik moldatutakoa, honek egiten bait dio hitzaurrea⁸; *Virginaren Officioaren* argitarapena (1658) baino beranduagokoa izan behar du, Harizmendik egiten dion hitzaurrean bere liburuaren erostea aholkatzen bait du, eta 1665 baino lehenagokoa; izan ere liburuaren edizio hau erabili behar izan zuen Pouvreaux⁹, eta gero ikusiko dugun bezala, ez dirudi 1665 urtearen erdi aldetik aurrera bere hiztegiari ezer erantsi zionik. Edizio honetatik ere ez omen da alerik gelditzen.

– Laugarrena 1690(?)ekoa; izan ere, Vinsonek datarik gabe aurkitzen dituen liburu mordo batean, “cómputo eclesiástico” delakoa urte horretan hasten da. Urte honetan bi edizio izan omen ziren: “l’une des deux, dont je ne connais que deux exemplaires, chez vous et chez moi, est imprimée avec soin en jolis caractères et sur papier fin; l’autre en gros caractères, très incorrecte, sur gros papier, me paraît être une contrefaçon”¹⁰. Nik eskuartean dudana Lazkaoko Beneditarren liburutegitik lortutakoa da, eta badirudi, errataz eta abar, Vinsonek “contrefaçon” deitzen duen horietako bat dela.

Vinsonek, esan bezala, 1690.eko edizioa zuen eskuartean, eta hor, hamar bat orrialdeko aldea gora behera, aurkitzen omen ditu Pouvreauren aipamenak. Nik ere konprobatu dut nerean, eta aurkitu ditut Vinsonek aipatzen dituenak:

(7) Julien Vinson, “Le Vocabulaire de Pouvreau”, *RIEV* 1910, 139-141.

(8) Moldatua diot, 1635ekoarengandik oso ezberdina delako; Harizmendik ez du kapituluaren eta gaiaren ordena bakarrik aldatzen, testuaren mamia bera, erabat aldatua eta ikutua dago. Hala ere ezin dudatan jar daiteke *Devocino Escuarra*-ren birmoldaketa bat denik, Harizmendik egiten dion hitzaurrean zera dio (nik, Vinsonek bezala, 1690(?)eko edizioa dut, eta hortik jaso dut ondorengo aipamena): “Huna obra hau, *Devocino escuara*; oraikoan arrimu hobean heldu zaitzu...”. Alde batetik, ikusten denez, Haranbururen liburuaren titulu berbera du, eta bestetik Harizmendik, moldatu eta aldatu egin duela ematen du aditzera. Hau dela eta, nahiko zaila da batetik besterako kideak aurkitzea, hala ere adibide pare bat behintzat aurkitu ahal izan ditut bien artean dagoen aldearen erakusgarri (honetarako *Debozino escuarra*-ren lehenbiziko edizioa, hau da 1635.ekoa, eta dirudienez 1690.ekoa dena, erabili ditut): *Oliadura edo Anunzioa* irakurtzen da sakramentu-zerrenda batean (1635, 25). Harizmendiren edizioan (1690, 7) honen kidea hau da: *Anonzioa: bekkatu abanzien barkhatzeko*. Beste adibidea: *Meça erraiten den demboran, (...) dembora lucean çarço bandian egoitea* (1635, 174s.), eta honen kidea: *Asaldatu eličan çorçoç hitz alferrez nihor* (1690, 481). Kideak direla uste dut, batean *çarço* eta bestean *çorçoç* bezala azaltzen den hitz bitxi honengatik (hemendik kanpo Etxeberri Ziburukoarengan aurkitu dut soilik), eta bestalde biak “Cofessioco miraila” kapitulu izenburu berberaren pean daudelako.

(9) Bixikeria gisa aipa dezadan Pouvreauren hiztegia, honako hau irakurtzen dela: “*Heren imprimança*. h.”. Vinsonek esaten zuen bezala, honek ezin du izan Harizmendik Haranbururen liburuaz egindako edizioa (1660 ingurukoa) besterik. Izan ere garai hartan beste edozein euskal liburu gehienera jota ere ez zituen bi edizio baino gehiago izango. Dena den hau ezin egiazta dezakegu, edizio horren ale bakar bat ere ez bait da gelditzen.

(10) *Le Vocabulaire* 140.

SP: *Ni nora, çu hara*. h. 1690 edizioaren 67. orrialdean.

SP: *Murmuriça*. h. 66. 1690.ekoan *murmuria*, Vinsonek 57. orrialdean dio, baina nerean 56.ean dago.

SP: *Nasaitasuna*. h. 66. *Boztasuna nasaitasunic gabe*. 1690.ekoan, 57. orrialdean, *boztasuna naguitasunic gabe*.

SP: *Nibor asaldatcea çorçoç edo hitz alferrez*. h. 511. 1690.ekoan 481. orrialdean *asaldatu eliçan çorçoç, hitz alferrez nibor* irakurtzen omen da, nik hau ez dut konprobatzerik izan, nire liburua 480. orrialderarte bakarrik heltzen bait da.

Adibide hauezaz gain aurkitu ditut beste batzuk liburua irakurtzean; dena den nere aleari orrialde asko falta zaizkio eta aurkitu ez ditudanak hor egon behar dute. Hauek dira nik topatu ditudanak:

SP: *Arraioa*. Rayon. h. 67. 1690.ekoan 56. orrialdean *arguiaren arraioa*.

SP: *Bulbarartia*. Poitrine. h. 168. 1690.ekoan 169. orrialdean. *bulbar arte*.

SP: *Nabaro*. h. *Odol nabaro isuria*. 1690.ekoan 97. orrialdearen hasieran *nabaro isuria* irakurtzen da, eta aurreko orrialdea falta zait.

SP: *Jondone Laurendi cascaldua*. h. 76. 1690.ekoan ez baina 1635.ekoaren 151. orrialdean aurkitu dut.

Ez da hau, hala ere, guztia; izan ere baieztatu ahal izan dut,aldi batean behintzat, Harizmendiren *Ama Virginaren Offizioa* aipatzen duela Pouvreaux bere hiztegiaren H. laburdura bera erabiliz: *Arau harçaz*. h. A cete proportion. Jatorrizkoaren aipamen osoa: *Arau harçaz anbitz duçu, / Loriara biburtu* (188. or.). Honen arabera nahikoa argia dirudi Pouvreauxentzat H. laburdurak Harizmendi esan nahi duela. Ez dakigu, ordea, zein arrazoiengatik deitzen dion Pouvreaux Harizmendi *Devocino Escuarraren* egileari bere eskuizkribuan: honen izena besterik agertzen ez delako liburu hartan eta beraz, bera hartu zuelako autoretzat, edota jakinaren gainean, eta liburua hain aldatua dagoenez Harizmendi jotzen zuelako egiletzat.

* * *

Jakina denez Oihenart eta Silvain Pouvreauxen artean izan ziren harremanak, idatzizkoak behintzat. Hor ditugu lekuko Oihenartek Pouvreauxi bidalitako zenbait eskutitz azken honek eskatutako azalpenei erantzun gisa. Hara zer dion Mitxelenak: "Oihenart izan zuen, dirudienez, gidari bizi bakarra, liburu mutuek sortera zizkioten zalantzak uxa zitzaken irakasle iztuna"¹¹.

Gutun hauek hitz zerranda soilak dira, aldamenean frantsesezko azalpena dutelarik. Pouvreauxen hiztegiaren kopietako batekin batera enkuadernatuta daude, Paris-ko Biblioteka Nazionaleko "fonds cèlte et basque"-n 8. zenbakia daraman tomoan¹²;

(11) Luis Michelena, "Euskal-Iztegigilleak XVII-XVIII'garren mendeetan". *Euskera* 1961, 8.

(12) Pouvreauxen hiztegiaren bi kopia daude Paris-ko Biblioteka Nazionalean, "fonds cèlte et basque"-ko 7 eta 8 zenbakiepan. Nik, neure konparaketak eta egiteko lehenbizikoa, hau da 7-koa, hartu dut oinarritzat, eskuartearen ditugun Oihenarten oharretatik bakar bat ere ez bait da B-n agertzen. Izan ere, kontuan izan behar da B kopiaren bukaeran datorrena: "Le 16 8r 1663 Pouureau pb", hau da, 1663.eko abuztuaren 16.a Pouvreaux presbiter, dudarik gabe kopia hau egiten amaitu zueneko data, eta dakigunez Oihenartek 1665.ean oraindik ere oharrak bidali zizkion. Bigarren kopia hau *çafarda* hitzetik hasten da. Badirudi lehenbizikoa (A) borradore gisa erabiltzen zuela eta bestea (B), A-ren garbira pasatze bat dela; izan ere A-n ertzetan dauden gauza asko

gelditzen den Pouvreauren gramatika zatien¹³ eta honen hiztegiaren artean. Hitz zerranda hauek 4.etik 32. foliora doaz.

1866.ean Burgaud des Marèts delako batek argitarara eman omen zituen lehen aldiz¹⁴. Julio de Urquijok, 1910. urtean berriro argitaratu zituen¹⁵ bestea aurkitzen zaila omen zelako. Ez Burgaud des Marèts-ek eta ez Urquijok ez zituzten 14.etik 17.era doazen folioak transkribatu¹⁶. Eta nik dakidanez behintzat, gerora ere ez ziren argitarara eman.

Oihenarten ohar hauek data bat daramate lehen folioan: “30 mai 1665”, eta ez dago beste halako zehaztasunik orrialde guzietan zehar. Baina gain begirada bat nahikoa da ohartzeko aldi diferentetan bidalitako atalez osatuta dagoela guzia; zati bakoitzaren izenburuari begiratu besterik ez dago.

Azaltzen diren eran izenburu hauek irakur daitezke:

- Pour enuoyer a M. Pouureau.
- Explication de mots basques pour enuoyer a Monsieur Pouureau.
- Advertissement sur la derniere Explication des mots basques Enuoyee a Monsieur Pouureau.
- Suite de Lexplication des mots basques demandee par Monsieur Pouureau.

eta asko B-n bere lekuan daude, baina beste zenbait ez dira B-n agertzen. Hiztegiaren bi bertsioren gonbaraketarekin jarraituz aipatu nahi genuke, B-n ez dagoela A-n (*anquaraino* nahikoa usu, eta hortik aurrera noiz-behinka, baina amaieraraino) agertzen diren gaztelaniazko definizioirik, ezta erretraurik ere. Dirudienez Pouvreaux goitik-beherako ikustaldi bat egin zion bere hiztegiari aldamenean gaztelaniazko hiztegi bat zuela, hauek guztiak erantsiz. Garai batean pentsatu nuen Covarrubiasen *Tesoro de la lengua castellana* delakotik (Madrid 1611) jasoko zituela Pouvreaux direlako gaztelaniazko erretraurak, baina Ibon Sarasolak ikusi du eta ez omen da hala. Gaztelaniazko definizioei dagokienez berriz, bada Cesar Oudinen *Thrésor des deux langues, française et espagnole* (Paris 1607) delako hiztegi bat. Nik hiztegi horren bigarren edizioaren bigarren tomoa (frantses-gaztelera) dut eskuartean. Honek ere *Thrésor des deux langues...* du izenburutzat, baina gehitzen du: “Reueu, corrigé et augmenté d’une infinité d’omissions, additions, Locutions, phrases, proverbes, Sentences & recherches tirées du Tresor de Covarrubias”. Lyon-en 1665-gn urtean argitaratua da, eta badirudi 1665 urtearen erdi-aldetik aurrera Pouvreaux ez ziola bere hiztegiari ezer erantsi. Hala ere, nik ikusi ahal izan dudanez, Pouvreaux frantseseko definizioaren ondoren ematen dituen gaztelaniazkoak, bat datoz, hitzez-hitz, nik dudana hiztegi honetakoekin (nahiz eta berak, dudarik gabe, 1607-kotik kopiatu). Are gehiago, batean behintzat harrapatu dut Pouvreaux tokatzen ez dena kopiatzen ere: *Alaba* sarreran, ‘fille’ da ematen duen frantseseko kidea, eta Oudinek *fille*-ren ondoren dioen guztia aldatzen du, hau da: ‘hija, moça, doncella’, begi bistan dago azken biak ez dagozkiola *alaba*-ri. Ez dakigu Pouvreaux ez ote zekien gaztelaniaz uste izan den bezain ongi, edota “automatismo” hutsaren ondorio ote den.

(13) Dudarik gabe zabalagoa izan behar zuen Pouvreauren gramatika zati hauek Vinsonek eman zituen argitarara *RLPbC* aldizkarian 1881. urtean lehendabiziko aldiz, eta gero, Pouvreauren beste euskal lan batzuekin batera *Les petites oeuvres basques de Sylvain Pouvreaux* izeneko liburuan (Chalon-sur-Saône 1892). Bere hiztegiari Pouvreaux egiten du gramatika honen aipu, batez ere aditz forma jokatu eta erakusleen ondoren *V. Gram.* formularekin. Hau dela eta posible izango litzateke jakitea ezagutzen denaz gain, zein beste eduki zituen gramatika honek. Guztira hiru folio besterik ez dira gorde, eta Parisko Bibliotekako pajinazioaren arabera hauek lirareteke gaiak:

1r^o *ecin. eza*. 2r^o Chapitre ... Des terminaisons des noms verbaux. 2v^o aurrekoaren jarraipena. 3v^o Chapitre second. De la construction du nom. 3r^o aurrekoaren jarraipena. Vinsonek ordena honetan jarri zituen argitaratzerakoan: 3v^o-3r^o-2r^o-2v^o-1r^o.

(14) Burgaud des Marèts, *Notes de A. Oihenart pour le glossaire basque de Pouvreaux...* Paris, 1866.

(15) Julio Urquijo, “Notes d’Oihenart pour le Vocabulaire de Pouvreaux”. *RIEV* 1910, 220-232. Hemen-dik aurrera, *Notes*.

(16) “Las palabras contenidas en los folios 14-17 están rayadas y no fueron reproducidas por Burgaud des Marèts. Tampoco las imprimo yo por el momento”. *Notes* 225, 1. oharra.

Baina ez da hau paper hauen datatzeari buruz dakigun gauza bakarra. Zorionez Urquijo jaunak hitz zerrenda hauen zirriborroak aurkitu zituen. Hain zuzen ere zirriborro horiek osatzen dute gorago aipatu dudan eta Urquijoren aurretik Labrouchek eskuartean izan zuen Oihenarten eskuizkribua. Bertan, ia denetan, data emana omen dago¹⁷:

1.-Pariskoan 30 mai 1665 dion tokian, Oihenarten zirriborroan zera dio: *Troisième explication des mots basques envoyée à M. Pouvreau le 31 mai 1665*¹⁸. Pariskoan 4.etik 8.era doazen folioei dagokio.

2.-*Explication des mots basques...* izenburua daramanak, 25 juillet 1665 data darama Oihenarten zirriborroan. Pariskoan 8.etik 10.era doazen folioak.

3.-Izenbururik gabeko zerrenda bat, Parisko 10 eta 13. folioak. Zerrenda honetan *Avertissement sur la dernière Explica(ti)on...* izenburua daramana (11 eta 12. folioak) agertzen da tartekaturik Pariskoan. Azken hau, Oihenarten zirriborroen arabera, 1665.eko abuztuaren 12(?)-ean bidalia.

4.-Pariskoan 14.etik 17.era doazen folioak, ez Burgaud des Marêts-ek eta ez Urquijok transkribatu ez zituztenak. Hauek ere izenbururik gabe daude, baina badute kidea Oihenarten zirriborroetan, datarik ez, ordea.¹⁹

5.-Azkenik, 21.etik 23.era doazen folioak, *Suite de l'explication* izenburuarekin; data, 12 mai 166(?), Urquijok dioenez ez da ongi irakurtzen.

Oihenarten hitz zerrenda hauek eta Pouvrearen hiztegia elkarrekin gonbaratuz ondorio hauek atera nituen:

1.-Maiatzaren 30.ean bidalitakoetatik, gehiena jasotzen duela hiztegian, —Oihenartek ere ez zizkion galdetutako guztiak azaldu— eta ertzean edo lerro artean tartekatuta agertzen direla; gehienetan iturria (Oihenart) aipatzen du, baina ez beti.

2.-Uztailaren 25.ean bidalitako zerrendatik, ez du ezer jasotzen Pouvreauk. Oihenartek aldi honetan azaltzen dizkion hitz asko definiziorik gabe agertzen dira Pouvrearen hiztegian (*nasaitasuna, eguiriaia, çarhoa, erriatcea*, etab.), beste batzuk (gainera badakigu hauen azalpena eskatu zuela Pouvreauk Oihenarten paperen artean aurkitutako eskuizkribuari esker), esplikatua daude, baina garbi ikusten da definizioa ez dela Oihenartena, beste iturriren batetik lortutakoa baizik. Eta azkenik Oihenartek azaltzen dituen beste zenbait ez dira Pouvrearen hiztegian azaltzen (*hildea*). Ondoren emango ditudan adibideen balioa neurtzeko, kontuan izan behar da Oihenarten definizioak jasotzen dituenean, ia hitzez hitz kopiatzen dituela Pouvreauk, eta laburtzen baditu ere hitz berberak eta hizkuntza berbera erabiltzen duela:

SP: *Çarhatcea. Baratzeo belhar gaixtoac çarhatcea.* arracher, faire secher. (O Notes 222: Becher la terre pour en arracher les herbes).

(17) Ik. *Citas* 504, 506 orr.

(18) Egun bateko gora behera horrek ez du inolako ajolarik, bai ordea Urquijok, lehen aipaturiko *Notes* artikulua buruan ematen duen *du 30 mai 1661*-k; oker zegoen zalantzarik gabe, Urquijok berak *Citasen*, ikusi bezala, 1665 urtea ezartzen dio, eta bestalde ditugun datu guztien arabera ere hala izan behar du.

(19) Inork ez du ezer esaten Parisko tomoan falta diren 18 eta 19 folioez. Dena dela orrialdeak enkuadernatu ondoren idatziak daudenez, pajinatzailearen huts bat ere izan ziteken. 20. folioari dagokionez, berriz, nahiz eta Oihenarten eskutikako paperen artean egon, badirudi Pouvrearena dela. Hori zen Vinsonen ustea ere, bere *Petites œuvres basques de Sylvain Pouvreau* (Chalon-sur-Saône 1892) liburuan (8 eta 9. orrialdeetan) argitaratu ematen bait du hiztegiarekin batera eskuizkribu zirauten Pouvrearen beste lantxo batzuekin batera.

- SP: *Belhagoia*. Iratzaren euaquitceco. (O *Notes* 222: *Belhakoia*. Un instrument qui sert a couper de la feugere).
- SP: *Çafarda*, *çafardaracoa*. Coup. (O *Notes* 223: Un coup, sans blessure, donné avec la main ou avec le plat de quelque arme. On lappelle en gascon une bourrade).
- SP: *Garioa*. Sorte d'oiseau. (O *Notes* 223: Cest la branche dun arbre, retranchée du tronc de larbre, qui est entiere et solide, non fendue ny brisee).
- SP: *Uscaltcea*. Lier, garroter. *Cepoetan uscalduric*, estant lié dans les ceps. (O *Notes* 223: Garroter ou empestrer une personne ou un cheval ou autre beste).
- SP: *Cuzcatcea*. *Oguia cuzcatcea*. Chapeller le pain. (O *Notes* 223: Oster la coque a un oeuf).
- SP: *Darticoac*, *darticoa*. Belhar suerte bat lexatceco. (O *Notes* 223: Graines de geneure).

Izenbururik eta datarik gabeko hitz zerrenda (11 eta 13. folioak). Hemendik ere ez du ezer jasotzen Pouvreaux bere hiztegian. Zerrenda horretako zenbait hitz agertzen dira, baina garbi ikusten da definizioak beste nonbaitetik lortu dituela:

Ambarra. a. Ambre. (O *Notes* 223: "closture").

Aurka (definiziorik gabe). *Aurquia*. *Oibalaren aurquia*, l'endroit d'une etoffe. (O *Notes* 223: "Aurka ou aurkia. Lendroit destoffe, item, l'oposite").

Ekitea. Auancer. Progredi. (O *Notes* 224: "Ekitea *cerbaiti*. Sapliquer ou setta-cher à quelque chose").

Ogalea. Excrementum. E. (O *Notes* 225: "Pasture aux pourceaux, ou austres bestes, faicte de farine de milh trempee dans leau"). Hemen gainera, iturria aitortzen digu: Etxeberrri Ziburukoa.

Abuztuaren 12.ekoa, *Aduertissement sur la derniere Explica(tion)* delakoa. Hemen Oihenartek, alde batetik, bere hutsegin batzuk zuzentzen ditu, eta bestetik, Pouvreauxi ohar edo zuzenketa batzuk egiten edo proposatzen dizkio.

Bere hutsak, hitzen esanahiari dagozkie. Izenburua ikusita, *sur la dernière explication*, bila hasi nintzen ia noiz bidalitakoei zegozkien zuzenketa horiek, eta ohartu nintzen aldi ezberdineko hitz zerrendei zegozkiela. Hau da:

Narriazea, 1665.eko uztailak 25.ekoari. *Chara*, 1665.eko maiatzak 30.ekoari. *Potorroa*, bila ibili arren, ez dut ezagutzen diren hitz zerrenda horietan aurkitzerik izan. Pouvreauxen hiztegian ertzean azaltzen da definiziorik gabe, E (Etxeberrri Ziburukoa) iturria aitortzen duelarik. *Albeniaren* zuzenketa, berriz, Pouvreaux bere hiztegian dakarrenari dagokio Oihenartek dioenez; bi alditan azaldu zion, honen aurretik, hitz honen esanahia, ez Urquijok eta ez Burgaud-ek transkribatu ez zuten zerrendan, eta 12 mai 166(?) ekoan. Esan dezagun, bide batez, ez dela izenbururik eta datarik ez duen zerrendako hitz bakar baten aipamenik agertzen. Beranduago bidalia izan zelako agian.

Pouvreauxi egiten dizkion zuzenketa, berriz, fonetikazkoak dira batez ere, eta horien artean gehienak *s/z* txistukarien arteko nahasketa zuzentzeko (Pouvreaux huts asko egiten baitu kontu honetan), besteak *r/rr* dardarkarien artekoak. Baina badaude esanahiari dagozkien oharrak ere. Hauek, erabat, A-z hasten diren hitzei eginak daude (hiztegi baten hasierako zatiari beraz), eta dudarik gabe, begien aurrean hiztegiaren kopia bat duela. Oihenartek berak esaten du hitzez hitz: "Le mot *albenia* est mal

interprété dans le dictionnaire de M. Pouvreau”, edota “*Adeçara* n’est pas bien écrit dans led(ict). dictionnaire. Il faut écrire *adesara*”. Aldi bakoitzean zuzentzen duen hitza agertzen den orrialdea eta lerroa ematen ditu. Pouvrearen hiztegian begiratu eta ikusten da hutsak han daudela, Oihenartek esan bezala, eta zuzendu gabe gainera. Bestalde, orrialdeak eta lerroak ez datoz bat guk eskuartean dugun hiztegiarekin; horrek, besterik gabe ez luke ezer esan nahiko, izan ere eskuizkribuak, gehienetan, numeratu gabe egoten ziren eta geroago, enkuadernatzerakoan jartzen ziren zenbakiak, batzutan mendeak ere pasa ondoren. Lerroak bat ez etortzeak ere ez, Pouvreauk aldi diferentetan hitz asko tartekatzen bait ditu. Baina gainera, Oihenartentzat orrialde berean dauden zenbait hitzek, hiztegian bi orrialdeko tartea dute. Adibidez: Oihenartek dio *arrastua* eta *arrotz* 32-gn orrialdean daudela, hiztegian, ordea, *arrastua* 22 v, eta *arrotz* 24 r. Honek, dudarik gabe esan nahi du Oihenartek eskuartean zuen hiztegia eta guk ezagutzen duguna ez direla gauza bera.

Gainera, hori nahikoa ez balitz, Oihenartek esanahia dela eta zuzentzen dizkion hitzen artean badago bat, non honek dioena eta hiztegiak dakarrena ez bait datoz bat. Hau da, Oihenartek dio: “Le mot *albenia* est mal interprété dans le dictionnaire de M. Pouvreau par le mot *endroit d’estoffe*, ou il me designe pour auteur de cette interpretation par O”, eta hiztegian berriz: “*Albenia*. a. 219. Lisiere, venelle de lit. O. Lista, orillo, venda, cabo”²⁰ eta Axularren adibide bat: “*Oibalaren albenia eta bazterra*, frange, bivo de toca”²¹ (eta hurrengo lerroan, esaldiaren hasiera), “*Nolacoa baita ehai-ten den ebuna eta oihala, halacoa içanen da (...)*”. Oihenartek bere azalpenaren jarraipenean zera dio: “Sy jay donné cette interpretation, je me suis mescompté et jay entendu seulement expliquer le mot *aurkia* car pour le mot *albenia* je trouue dans mes memoires quil signifie la lisiere du drap, et rien de plus”.

Dena dela, egia da azalpen oker hau Oihenartek berak ematen duela, 12 mai 166(?) data daraman hitz zerrenda horretan, eta hala dio: “*Albenia* cest le bon endroit du drap, autrement dit, *aurkia*”. Esan bezala Oihenartek eskuartean zuen eta guk ezagutzen ez dugun Pouvrearen hiztegiaren kopia batek definizio oker hau jasotzen du. Litekeena da hori izatea lehen aipatu dugun B kopiari falta zaion zatia, Pouvreauk osatu ahala bere adiskideari bidalia eta dirudienez galdu dena²². Alde batetik Oihenartek, zati hori dela eta, zuzentzen dizkion hitz guztiak A-z hasten dira, eta hori gure hipotesiarekin bat dator (jakina denez B kopia *çafarda* hitzarekin hasten da), eta bestetik, ez dugu zertan asmatu inork aipatu ez duen hirugarren kopiari. Begi bistan dago azken hitz zerrenda honek denboraz zuzenketarenak baino lehena-gokoa izan behar duela. Badago datu bat baieztatzen diguna “12 de mai”-ko hori, es-

(20) Ik. Oudin: “*Lisiere*. Lista, orillo, venda, cabo”.

(21) Ik. Oudin: “*Lisiere de toile*. Bivo de toca”. Eta *Diccionario de Autoridades (DAut)*: “*Toca* (...) tela delgada y clara de lino”.

(22) Hau hala dela, nahiko egiantzekoa iruditzen zait Vinsonek bere *Essai*-n (26. d-ren bukaeran) dioena: “M. de Jurgain dit que, dans ses papiers qui existent encore à Saint-Palais, chez Madame de Bracion, se trouve un *Dictionnaire basque* manuscrit: serait-ce une copie de celui de Pouvreau?”. Esan bezala Urquijoren eskuetara heldu ziren Oihenarten eskuizkribu hauek (ik. *Citas*), eta bere ustez Jurgainek aipatzen duen hiztegi hori ez zen Oihenartek Pouvreauri bidalitako hitz zerrenden zirriborria besterik: “A estos borradores (...) se referían las palabras de M. de Jurgain á que alude M. Vinson en uno de los párrafos de su *Essai*”. Hala da agian, baina litekeena da, baita ere, batetik bestera doan tartean hiztegi hori galtzea (paperak eskuz aldatu direla kontuan hartzen badugu), eta gainera ez dakit Oihenarten hitz zerrenda horien zirriborroei inork “hiztegi” izenik emango ote liekeen.

kuartean ditugunetan lehen dela, hau da, 1665eko maiatzaren 12koa, izan ere, zerrenda hau (guztietan luzeena eta A-tik U-ra doana), B-tik aurrera behintzat²³ osorik eta ia hitzez-hitz dago jasota Pouvreauren hiztegian, uztalekoa eta abuztukoa ez bezala. Dena den, ezagunen artean lehendabizikoa bada ere, ez da haatik Oihenartek bidali zion lehen. Hara zer dion azken honek zerrenda horren hasieran: “Dans la premiere partie de lad(icte) explication qui a esté envoyée...”, eta bestalde maiatzaren 30ekoaren zirriborroan hala zioen: “Troisieme explication...”.

Bat batean oroitu nintzen ordurarte ahaztua izan nuen gauza batez, hain zuzen, Burgaud des Marêts eta Urquijok ere, agian tatxatua eta irakurtzeko neketsua zelako, alde bat utzi zuten hitz zerrendaz, hau da, 14.etik 17.era doazen folioez. Alfabetikoki zerrenda hau A-tik F-ra doa (*Açurria-fagoa*). Maiatzaren 12ko zerrendak hau dio hasieran: “Dans la premiere partie de lad(icte) explication qui a esté envoyée, il y a eu quelques mots dobmis et dautres mal expliquées, qui sont ceux qui s’ensuivent jusques a la lettre F”. Gure zerrenda baztertu horretaz ari ote da?

Oihenartek aitortzen duen bezala, maiatzaren 12.eko zerrendaren hasiera, aurrekoaldi batean bidalitakoaren (hau da lehenbizi bidalitakoaren) gehigarri eta zuzenketa da. Zerrenda hau (Y) eta zirriborratua (X) parekatuaz zera ikusten da:

X: “*Afentcea*, abbattre”, Y: “*Afentcea*, veut dire mettre ou poser cest presque le mesme que *Iminzea*”. X: “*Ailliotza*, la balle du grain”, Y: “*Ailliotza*, veut dire pleust a dieu quil dit”. *Aisita* bietan: “aisé, facile” da definizioa, baina Y-n “au langage de Soule” gehitzen du. Gero, nahiko buruko min eman digun *albenia* agertzen zaigu, eta dagoeneko dudarik gabe lehenengotzat jo dezakegun zerrenda honetan, ‘venelle de licr’ da definizioa. Hori da hitzez hitz Pouvreaux bere hiztegian dioena. Oihenartek beraz hiru alditan azaltzen dio hitz hau Pouvreauxi, hemen lehenbiziko aldiz, gero, maiatzaren 12an, oker, aurrekoa zuzenduaz, ez gainera oharkabean, berak alde aurretik adierazten bait du aurreko aldiko zenbait gauza zuzentzeko asmoa, eta azkenik, abuztuaren 12.ekoan berak emandako definizio hori txartzat ematen du berea dela ohartu gabe.

Hitz gehiago ere agertzen dira zerrenda honetan modu batera eta maiatzaren 12.ekoan bestera azalduak. Pouvreaux, gehienetan, lehenbizi emandako definizioarekin konformatzen da, are gehiago, Oihenartek aurrenekoan emandako definizioaren aurkakoa bidaltzen diolarik bigarreanean, Pouvreaux lehenengoa mantentzen du. Honako adibide hauetan Pouvreaux dakarren definizioa, lehen zerrendatik jasoa da soilik:

“*Ailliotza*. O. La bale du grain”. (Ez du Oihenartek bigarreanean bidalitakoa aipatzen: “veut dire pleust a Dieu quil dit”). “*Afentcea*. a. Abbatre”. (Oihenartek maiatzaren 12.ean: “Veut dire mettre ou poser, cest presque le mesme que *Iminzea*”).

“*Arraqadura*. (...). Passion ou mauuaise habitude de quelqu’un. Il se dit aussi de q(ue)lq(ue) imperfection du corps”. (Oihenartek maiatzaren 12.ean: “Ne signifie pas seulement vne tache ou imperfection du corps dvne personne mais aussi la tare ou autre deffaut quil y a dans vn arbre ou dans vne piece de bois. *Egur arroa* ou *harroa* bois vermolu ou carie”).

(23) Dirudienez hitz zerrenda honetako A-ri dagokiona Oihenarti bidali zion hiztegi zatia osatzeko baka-rik erabili zuen Pouvreaux bi salbuespenekin: *andura* hitzari erasten dion ‘hieble’ eta *aztala*-ri erasten dion ‘gras de la jambe’, esanahi hauek, aipatu zerrenda horretan bakarrik azaltzen bait dira Oihenarten azalpen guztietan.

Hala ere batzutan erabiltzen ditu bigarrean emandako datuak definizioa osatzeko.

“*Biccorra*. a. 173. Morceau, relief. Il signifie aussi le reiect ou rebut de la farine qui demeure dans le sas, & aussi les petites bosses que le pain pousse en dehors lors qu'on le fait cuir au four”.

“*Çurruna*. (...). Roide; item un corps mort. *Guiçon çurruna*, personne lente & peu agissante. O”.

“*Ekaiia*. Gaya [lerro gainean erantsia]. La matiere pour f(aire) q(ue)lq(ue) chose. Trauail, fascherie. O”. Eta ertzean, guzti honen aurretik: “Cerbait eguiteco gaya”.

Beraz esan dezakegu buruhaustea osatu dugula, eskuartean dugun zerrenda dela falta zitzaigun *première partie de l'explication* edo antzeko izenburu bat eramango zukeena. Data kontuan berriz, ikusita zein tarte txikia dagoen bidaltze batetik bestera (maiatzean bi bidaltzen dizkio, 12.ean eta 30.ean, eta uztailean 25.ean eta abuztuaren 12.ean beste bana), uste dut ausardia handirik gabe esan daitekeela, zerrenda honek ere urte berean bidalitakoa izan behar duela.

Horrela geldituko litzateke, bada, guztia hurrenez hurren:

1. [Première explication]. *Açurria-fagoa*, 14r-17r folioak.
2. *Suite de l'explication des motz basques demandee par monsieur Pouureau*. 21r^o-32v^o ff. Maiatzaren 12.ekoa, eta nahiz eta zirriborroan ez irakurri urtea 1665 dela ziurtzat eman dezakeguna.
3. *Pour envoyer a Monsieur Pouureau*, 1665.eko maiatzaren 30.ekoa. 4r^o-7v^o ff.. (Labrouchen zirriborroan dioen bezala: “Troisième explication”).
4. *Explication de motz basques pour enuoyer a Monsieur Pouureau*. f. 8r^o-9v^o. (Labrouchen zirriborroan “25 juillet 1665”).
5. *Advertissement sur la dernière explication des motz basques enuoyee a Monsieur Pouureau*, 11r^o-12r^o ff. Labrouchen zirriborroan 1665.eko abuztuaren 12(?) data daramana.
6. Izenbururik eta datarik gabekoa 10r^o-10v^o eta 13 r^o ff.

Guzti honekin lotu behar dugu Pouvreauk Oihenarti zenbait hitzen azalpena eskatuz bidali zion gutuna, Urquijok Labrouchen paperen artean aurkitu zuena, Oihenartek omen zionez: “manuscrit enuoyé par Monsieur Pouureau 27 juin 1665”²⁴ delakoa. Zerrenda honetan azalpen eske dauden hitzak, maiatzaren 30.ekoan hasten da azaltzen Oihenart, uztailean 25.ekoan jarraitzen eta datarik eta izenbururik ez duen zerrendarekin amaitzen.

Dena den, badugu arrazoirik izan ziren gutun guziak eskuartean ez ditugulako susmoa izateko. Izan ere, badago hitz bat *potorroa*, Pouvreauk aipatu zerrenda honetan azaltzeko eskatzen diona eta Oihenartek esplikatzat ematen duena *Advertissement* delakoan:

Potorroa, outre la signification que jay donnee a ce mot, il me semble auoir ouy nommer de ce nom, en mon jeune eage, vn oyseau de mer malencontreux aux nauigans, dautant que son chant est presage dorage et de mauuais temps. Je men enquerray plus particulièrement.

Hitz hau ez dugu aurkitzerik izan ezagutzen ditugun Oihenarten zerrendetan, aipamen honez kanpo, noski; baina ia ziurtzat eman dezakegu maiatzaren 30-a eta

(24) Dutarik gabe Oihenartek hanka sartu zuen data jartzerakoan, izan ere, maiatzaren 30ean hasten da Pouvrearen zerrendako hitz horiek azaltzen, eta ezin maiatzean erantzun ekainean egindako galderi.

ohar hau bidali zioneko tartean, beste azalpenen bat bidali behar izan ziola Pouvreauri.

1665. urtean galtzen dugu Pouvreauren arrastoa. Urte honetan argitara ematen du ezagutzen dugun bere azken liburua *Gudu Izpirituala*, eta egiten dizkio azken ikutuak bere hiztegiari. Zer gertatu ote zitzaion, bat batean euskarari buruzko lanak alde bat uztea erabaki ote zuen edota hil egin ote zen? Vinsonek (RIEV 1910) aipatzen du hiztegiaren bigarren kopiarekin batera dauden Oihenarten azalpenetako 8. folioan azaltzen den ohar bat: "Trombe. L. P. 1693"; ertzean idatzia dago eta bere eskubitara dagoen hitzarekin badu zerikusia: "*Bombecia* ou *bombeciña*, flot de la mer qui se leve fort haut". Vinsonen ustez Pouvreauren eskuz idatzia dago. Horrek esan nahi luke Pouvreau urte horretan bizirik zegoela. Baina ez dago garbi hori Pouvreauren letra denik eta gainera urteen tartea handiegia da.

* * *

Oihenartek Pouvreauri bidaltzen dizkion gutunetako ortografi sistema, edo hobeto esan, sistemarik eza, nahaste hutsa da. Oso gutxitan jarraitzen ditu berak atsotitz eta poesi liburuaren hitzaurrean proposatutako arauak. Burgaud des Marêts-en hitzez (*Notes* 221 n. 1): "Il écrit tantôt suivant l'usage de son temps, tantôt suivant ses règles, parfois suivant son caprice". Eta hala da, ez ditu gauzak inoiz erabatera idazten; eta ez gainera euskarazko hitzei dagokienez bakarrik, frantsesezkoekin ere hala egiten du. Nik hemen, ohizkoa denez, berak eman bezala aldatuko ditut. Oihenarten gauzak aldatzerakoan erabili ditut soilik J-ak, beste inorengan ez bait dute ezer berezirik adierazten. Pouvreauren hiztegiaren aipamenak ere egiten bait ditut, ohar txo bat honen ortografi sistemari buruz: honek ere ez ditu gauzak erabatera idazten; hitzak iturri ezberdinetatik jasotzen ditu eta oro har, iturriaren arabera aldatzen ditu berak ere bere hiztegian (jakina da garai hartan ez zegoela erabateko ortografi sistemarik). Oihenarten idazkerari bereziki dagokionez esan behar da, honek berak proposatutako sistema erabiltzen duenean, Pouvreaux (dirudien ez bai zuen gustoko sistema hori), egokitu egiten duela, eta beti erabatera. Hau garbi ikusten da Oihenarten atsotitzak bere hiztegian aldatzen dituen. Frantsesezko ortografi sistemari dagokionez, berriz, Pouvreau Oihenart baino sistematikoagoa da, eta nolabait esateko "modernagoa". Testu honen oharretarako, azkenik, Pouvreauren hiztegia eta Oihenarten *Notes* delakoaz gain, Oudinen aipatu hiztegia eta *Petit Robert* (PR) erabili ditut, eta zenbaitetan baita Azkueren hiztegia eta *Diccionario de Autoridades* (DAut) ere.

I ERANSKINA

- Açurria*¹. Ecourgee.
*Açurriazea*². Frapper decourgee.
Adaussia. Abbaïement³ de chien.
*Ahasabaya*⁴. Le palais de la bouche.
*Afenticea*⁵. Abbatre.
Agureac. Les anciens, les ancestres.
Aha-sabaya. Le palais de la bouche.
Aholcazea. Exhorter, inviter a faire quelque chose.
*Alliotza*⁶. La bale du grain.
*Aisita*⁷. Aisé, facile.
*Albenia*⁸. Venelle de lict.
Alborotacea. Tumultuer, faire du bruit.
*Almutea*⁹. Une mesure de¹⁰ grain, picotin¹¹.
*Almutea golcoan*¹². Cest une façon de parler proverbiale de quelquun qui couve quelque dessein en son coeur.
- Amerdia* vel *emerdia*. L'accouchée.
*Andura*¹³. Sureau, sambucus arbor.
Anega. Cest une mesure a grain¹⁴
 plus grande qu'un boisseau¹⁵.
Apartanic ioaita. Marcher a lescart des autres.
*Apodera*¹⁶. Effort.
Apostua. Gageure¹⁷.
Araistia. Nagueres¹⁸.
Burdacea. Plier, courber.
Argiboa. Bossu, courbé.
*Argamaçsa*¹⁹. Du mortier fait avec terre grasse et du sable.
Arimacariac. Les choses destinees pour le soulagem(ent) des ames, comme les offrandes et largent des messes.
Arimateguia. Le manoir des ames, le paradis ou l'enfer. Au pais de Soule

(1) Pouvreak *açorria*, *açurria*. Ecourgée. Ez du Oihenart aipatzen.

(2) Oraingoan *açorriatcea* da Pouvreak ematen duen forma bakarra. Definizioa Oihenartena bera da 'frapper d'ecourgee', baina ez du aipatzen.

(3) Nahiz eta gaur egungo frantsesean 'aboïement' izan, Oudin-ek, Oihenartek bezala 'abbayement' dakar, baita Pouvreak ere.

(4) Oihenartek bi eratara ematen du hitz hau, elkartua eta beheraxeago ikus daitekeen bezala, gidoi batez idatzia. Pouvreak lehenbiziko modura dakar. Oihenarten definizioarekin, baina ez du aipatzen.

(5) Hau da maiatzaren 12.ean Oihenartek zuzentzen eta beste modura definitzen duenetako hitz bat: "Veut dire mettre ou poser cest presque le mesme que *iminzea*".

(6) Hau ere maiatzaren 12an zuzendua: "veut dire pleust a dieu quil dit".

(7) Maiatzaren 12.ean, definizio bera "au langage de Soule" gehitzen diolarik.

(8) Oihenartek beste bi aldiz ere, maiatzaren 12.ean eta abuztuan, azaltzen dio hitz hau. Ik. artikuluan honi buruz esandakoa.

(9) Pouvreak lehenbizi "*Almotea*, picotin" dakar, baina hori tatxatu eta beheraxeago Oihenarten forma ematen du honen definizio osoarekin. Dena den *almote* hitza ezaguna da goi nafarreraz.

(10) "Mesure de g" tatxatua dago, hala ere asma daiteke hori jartzen duela. Lerro ganean "pour le" irakurtzen da, hori "de" ren ordezkioz legoke.

(11) Ik. *Oudin*: "Celemin".

(12) Pouvreak *almotea golcoan*. Badirudi esapide honen esanahia beste nonbaitetik lortu zuela Oihenartena jaso baino lehen, nahiz eta definizioa berbera den beste hitz batzuetan emana dago: "frase proverbiale pour dire il a son dessein caché dans le sein; autrement *hitz ederra emaita eta barrenean gaitzerizcoa iduquitea. Gain eder barren uber*", baina ez du *almutea* onartzen ezta Oihenart aipatzen ere (aurreko sarrerarekin ez bezala, ik. 9. oharra).

(13) Maiatzaren 12.ean zuzendua: "vne herbe appellee 'hieble' en français".

(14) Tatxatua.

(15) *Oudin*: 'Hanega, medida, almud'.

(16) Maiatzaren 12.ean "empotement" gehitzen dio.

(17) Ik. *Oudin*: "Apuesta, puesta, postura".

(18) Gaur egun "naguère". *Oudin*: "*Nagueres, n'agueres*, poco ha".

(19) Pouvreak *argamaça*, Oihenarten definizioarekin (nahiz eta ez O. aipatu).

ce terme n'est usurpe²⁰ que pour lenfer.
*Armaçoin*²¹. Outil, instrument pour faire quelque chose.
*Arraçadura*²². Passion ou mauuaise habitude dune personne; il se dit aussy de quelque imperfection du corps.
*Arronta ou arrontera*²³. Commun, vulgaire, ordinaire, familier.
*Arrontatcea*²⁴. Selon aucuns il signifie moissonner, selon dautres glaner.

Arroparen pertala et non *petrala*²⁵. Le bord de la robe; item les lambeaux ou deschirures²⁶ de la robe.
*Arrunquide gaiza*²⁷. Camarade hargneux ou fallacieux.
*Affsentu*²⁸. Mise, établissement.
*Astala*²⁹. Talon.
*Astrua*³⁰. Sort, heur; *astru ona*, bon heur; *astru gaiza*, mal heur; *astruz*, par hazard.
*Aurka*³¹. L'opposite; item le bon endroit, cest l'oppose de *Imprentsua*³².

(20) Badirudi "usurpe" dioela, Pouvreaux ere hala kopiatzen du. Oudin-en arabera "usurpar" esan nahi du. Ik. *DAur*: "Vale también usar una voz en lugar de otra, o en otro sentido la misma".

(21) Maiatzaren 12.ean beste modu batera azaldua: "Veut dire un magasin darmes et aussy ce dequoy on bande vne arbalesse dict autrement *armatotcha*".

(22) Maiatzaren 12.ean: "signiffie (...) aussy la tare ou autre deffaut quil y a dans vn arbre ou dans vne piece de bois. *Egur arroa* ou *barroa* bois vermolu ou carie" gehitzen du.

(23) Maiatzaren 12.ean ia definizio bera, baina *arrontera* aldaera ematen duelarik soilik.

(24) Maiatzaren 12.ean hemen emaniko bietatik 'moisssonner' (= 'segar') eta 'glaner' (= 'espigar'), lehena aukeratzen du: 'sier le bled".

(25) Pouvreauren hiztegian biak agertzen dira, "*pertala, petrala*" (bigarren aldaera tatxatua eta gero berriro idatzia dagoelarik) definiziorik gabe, eta ondoren "*arroparen pertala*" (Oihenarten oharraren arabera, *petralaren* gainean zuzendua), "bord de robe" (eta ondoren erantsita) "lambeaux, deschirures de robe". Hala ere, s.v. *arropa*, "*arroparen petrala*" mantentzen du. Garai hartako testuetan biak irakur daitezke: *zeren ukitu zarotzun arroparen pertala* (J. Etcheberri (Ziburukoa) *Manual Devotionezcoa* II (2. edizioa Bordele 1669; faksimila, Donostia 1978, 81. or.), eta *Christoren petrala quiceaz* (Harizmendi 211). Pouvreaux berak, *Philothea* 333. or.: *ez uts çure gainean pertalezco gauçaric*.

(26) Ez da garbi irakurtzen, Pouvreaux bere hiztegian "deschirures" kopiatzen du, baina *Oudin*-ek "deschireures" dakar.

(27) Maiatzaren 12.ean bitan banatua: "*Arronquide*. Veut dire camarade" eta "*Arr#oquide gaiza*. Facheux camarade". Pouvreaux bere hiztegian *arrunquidea* eta *guison arrunquide gaitza*. A. 326, *batcari ondicozcoa* (bigarren zati hau ere Axularrek *Gueroko* orrialde berean bestearen aldamenen emana). Ez dakar Oihenartek definiziorik.

(28) Maiatzaren 12.ean zuzendua, beste bi definizio guztiz ezberdinak ematen dituelarik: "Est un mot de Nauarre et D'ipuzcoa pour dire deliberation ou resolution. On sen sert en quelques endroits de Labourt pour signifier vn travail de massonerie, *Etche horrec assentu ederra du*, la massonerie de cette maison est belle". Pouvreaux bere hiztegian: "*Affsentua*. O." (definiziorik gabe) eta "*assentuz eguina*, fait de massonerie".

(29) Maiatzaren 12.ean: *Aztala*, 'talon' adiera behe nafarrerazkoa dela adierazten duelarik eta zera gehituz: "en quelques endroits de Labourt, cest le gras de la jambe: et en dautres il se prend pour toute la jambe. Etcheberry en son dictionnaire le prend pour le jarret mais mal a mon aduis". Pouvreaux ere bi modutara idazten du, *astala* eta *aztala*, "gras de la iambe" definizioarekin.

(30) Maiatzaren 12.ean azalpena ia bera da, baina "*astru ona*, qui a bon heur" eta "*astru gaiza*, qui a mauuais heur" adjetibo modura emanak. Cf. Oihenart *Les Proverbes basques* 52: *Astrugaizaren hilzea* 'le mourir du souffreteux'.

(31) Datarik eta izenbururik gabeko zerrendan *aurkia* forma gehitzen duelarik, ia definizio bera: 'l'endroit destoffe; item, l'opposite".

(32) Bai Oihenartek eta bai Pouvreaux ematen dituzte hitz honen aldaera gehiago ere. Pouvreauren hiztegian "*Imprentçua, imprinçua*" eta (lerro gainean erantsita) "*Imprentsua*" irakurtzen dira. Oihenartek maiatzaren 12.ean, *albenia* hitza azaltzerakoan: "*albenia* cest le bon endroit du drap autrement *aurkia*. Le contraire est *imprensua*; en basse nauarre on dict *impersua*".

Autemaitea. Observer, prendre garde a quelque chose.

*Ayeru*³³. Semblant ou signe quon fait de loeil.

*Aspiçuna*³⁴. Longe³⁵ de pourceau³⁶ ou dautre beste.

Aurkia ou *Aurquienza*³⁷. Lendroit³⁸.
En Basse Nauarre on dit *Aurquin-
zea*.

Aurisqueia. Foulé, vexé, opprimé.

Arcuina ou *arkina*. Cest le fumier des brebis.

Azcanaroa. Bl.....³⁹, alicorne.

Astorea. Autour⁴⁰.

Bacotch eta hondar.⁴¹ Seul, reste.

Bago. Hestre.

Baiecoa, ezpaiecoa. Affirmatif, negatif.

*Bak'una*⁴². Singulier.

Balde. Egal, pareil.

*Batcaria*⁴³. Personne de rencontre ou qu'on rencontre.

*Behatza*⁴⁴. L'ongle; en Basse Nauarre cest le pouce.

(33) Maiatzaren 12.ean hemen esandakoari zera gehitzen dio: "il signifie aussi coniecture ou soubçon. *Ayerus edo agerus cerbayt erraytea*, dire par coniecture ou soubçon". Pouvreauk bere hiztegian, "*Ayberua. Eicen bekaturen ayeruric, omenic aippamenic*" (adibidea, Pouvreauk aitottu ez arren Axularrena da ik. Ax. 22 or., Villasanteren edizioan 12. or.). Pouvreauk ez du Oihenarten definizioarik kopiatzen, agian berak zuen adibidearekin ongi ez zetorrelako.

(34) Maiatzaren 12.ean ia definizio bera: "Longe de veau ou de pourceau". Pouvreauk *azpiçuna* definizioarik gabe.

(35) Ik. *Oudin* "Longe. Lomo de ternera, riñonada".

(36) Ik. Ib.: "*Pourceau*. Puerco".

(37) Nahaste txiki bat sortzen digu Oihenartek *aurka* / *aurkia* eta *aurkia* / *aurquienza* hitzekin. Sinonimotzat jotzen ditu, alde batetik *aurka* eta *aurkia*, bi adiera ezberdinekin 'l'opposite' eta 'le bon endroit de l'etoffe', eta bestetik *aurkia* eta *aurquienza* edo *aurquinze* 'l'endroit' adierarekin (ik. 32 eta 33. oharra). Pouvreauk argi eta garbi bereizten ditu hirurak: *aurka* definizioarik gabe dakar baina Leizarragarengandik jasotako *aurkako burgua* 'aurreko hiria' eta *aurkaz aurk* 'aurrez aurte' aldamenen ematen dituelarik; *aurquia*, oihalaren *aurquia* 'l'endroit d'une etoffe' definizioarekin; eta *aurquienza*, *aurquientzea* definizioarik gabe, baina *aurquientze* (sic, ziur asko aurreko bien gurutzaketa baten ondorioz) *bartan*, 'en cet endroit, en ce rencontre'

(38) Hor zerbait idatzi zuen Oihenartek eta gero zirriboratu.

(39) Zirriborratua dago hitz hori eta hasierako bi letrak irakurtzen dira soilik, baina maiatzaren 12.ean berriro azaltzen diolarik, "*Ascanarroat*. Le blaireau" irakurtzen da. Pouvreauk: "*Azcanarroat*. O. Blereau, taïsson". Biak, *blaireau* edo *blereau* eta *taïsson*, sinonimoak dira, Oudinen arabera, 'texon'. Badirudi hemen zalantzan egon zela Oihenart, eta gero zuzenduko bazuen ere, zaldi itxurako animalia adarbakarduntzat jo zuela *azcanarroat*. Cf. *Oudin*: "*Licorne*. Unicornio" eta italiarazko *alicorno*.

(40) Pouvreauk ere "autour". PR-ek: "*Autour*. Oiseau rapace voisin de l'épervier", XIV-gn mendekoa dela dio.

(41) Pouvreauk *bacotch* idazten du, Axularrek 29. orrialdean bezala. Baina huts bat da, Axularrek berak, beste guztietan *bacotch* idazten bait du (ik. adibidez 232. or.). Pouvreauk, hain zuzen ere, Axularrek 29. orrialdean dakarren esaldia kopiatzen du: "*bacotch eta hondar*".

Lixterzea norbaitgana auoir pente ou inclina(tion) enuers quelquun.

Biguna. Force, vigueur, courage.

Bibuna. Signifie le mesme.

Muguizea. Mouuoir.

Irastorra. Fumier faict avec feugere.

Hautemaitea. Remarquer, obseruer, item visiter.

Sendagailla. Bel exploit.

Jaigura. Enuie ou desir de sortir, item habitude de s'assembler.

Catratcea. Briser.

Crozca. Taille a tenir compte.

Çure crozcara esta nihor bedazen. Personne ne s'auance jusqua vostre conte, ou mesure.

Luçacaria. Longueur, lenthitude, dilayement.

Eguiramu. Action faicte par ostentation.

*Carbasquizea*⁴². Charger de playes.

Heldeac. Maladies populaires.

Patsarnoa. Je croy que cest le mesme que *patsa*, qui veut dire le marc⁴³ de la pome quon pille au pressoir.

Alka. Cest vne herbe appelée⁴⁴ autre(ment) *larre oloa*⁴⁵.

Azcoina. Cest le creux, ou trou ou entre la viz, et particulierement la viz dvn pressoir⁴⁶.

Aguirandoa. Cest vne corruption des motz *au guy l'an neuf*.

Auencac. Les escheles de corde pour monter le long du mast dvn nauire. Feu

(40) Beste definizio bat dakar Pouvreauk: "grajon rejetton darbre, branche de l'année". Oihenartena ertzean kopiatzen badu ere gero tatxatua dago.

(41) Urquijok, oker, 1661 irakurtzen du oraingoan.

(42) Pouvreauk *carbasquitcea* dakar bere hiztegian Oihenarten definizio honekin, eta ertzean adibide bat, iturririk aipatu gabe: *Bilusgorrituric carbasquitua*. Dena den aditz honek badu agian zerikusirik hor bertan dakartzan "carbaça" (definiziorik gabe) eta "othe carbaça souche du jauneau" rekin. (Azken hau Oihenartek maiatzaren 12.ean azalduko).

(43) Ik. Oudin: "*Marc qui sort du pressoir*. Borujo, burujo".

(44) Urquijok *appelee*.

(45) Pouvreauk: "*Alka*. Herbe a faire balais".

(46) Ik. Oudin: "*Viz de pressoir*. Husillo de lagar, torno, rosca".

- Monsieur d'Etcheberry l'interprete *antemna*. Mais mal, a mon aduis, car *antemna* se dict *maspreza* en basque.
- Azua*. Braise.
- Balde, baldatua*. Veut dire impotent, qui ne peut sayder de quelque membre.
- Barata*. Signiffie ce que est bon a manger: item, noise, riotte; item, brouillerie. Dou vient *baratari*⁴⁷, cest a dire brouillon, qui embrouille les affaires.
- Bard*. Veut dire hier au soir. On dict plus comunem(ent) *barda*.
- Bedatsea*. En Soule cest le printemps.
- Beguitea*. La boutonniere⁴⁸, ou le trou ou entre le bouton; il se prend aussy pour vn noeud large & pour vn las.
- Bele erroia*, ou simplement *erroia*, cest un vieux courbeau.
- Je ne sçay ce que veut dire *lokazea*, mais *lokarzea* cest sendormir⁴⁹.
- Berestemiao*. Un homme qui est tout particulier et ne conuerse ny ne communique guere avec personne.
- Berundazea*. Plomber ou garnir de plomb.
- Bethurusta*. Etcheberri l'interprete *supercilium*; en bassenauarre et en Soule lon dict *bep'urua*.
- Betuna*. En Soule cest lherbe betoine.
- Bixcorr*. Qui est vif, vigoureux. Item, aspre, cest le contraire de *leun*.
- Bigourda*. Reietton darbre.
- Bilkorra*. Suif⁵⁰. On dict en bassenauarre et en Soule *milgorra*.
- Bisca*. Du glu.
- Bocazea*. Acheuer. Cest vn mot de la haute nauarre.
- Borma*. Verglas. Item muraille.
- Çaguitazea*. Sollicitter, pousser a faire quelque chose.
- Çaldarra*. En langage biscayn veut dire vn clou ou froncle.
- Calin*. Rustaud, lourdaut.
- Camaña*. Lict de matelot dans son⁵¹.
- Chara*. Taillis.
- Carraioa*. Charroy.
- Vli farfailla*. Moucheron qui se va brusler a la chandelle.
- Esponda*. Le bord dvn champ, ou dvn chemin qui est un peu eleué.
- Alboca*. Musette.
- Alkutsac*. Les fesses.
- Erriertatsu*. Rioteux.

(47) Urquijok *baralari*. Oihenartek berak erabiltzen du *baratari* hitza erretrau batean: *Ausilaria [ari]ta esac onja barataria*, "plaideur salarie bien le Notaire ou le Gressier" (Pr. 59). Pouvreaux *barata*, *baratari*, *baratatu* eta *baratatsu* formak dakartza hiztegian, eta Oihenartek hemen ematen dizkion azalpenez gain, "*baratac* bourdes, *barataria* donneur de bourdes, *baratatcea* donner des bourdes" eta "*baratatsua*, berreguinqui (= 'dote-re') ibili nahia çorrez betheric". Ik. Oudin: "*Bourdes*. Embustes, mentiras". Erabat berdinak izan ez arren, Oihenart eta Pouvreaux ematen dituzten azalpenak ez dabilta hain urrun bata bestearengandik.

(48) Urquijok *boutouniere*.

(49) Ez bata eta ez bestea ez dira Pouvreauxen hiztegian agertzen. Baina *Citas* 515. or.an ikus daitekeen bezala, Pouvreaux *lokhatzea* hitzaren esanahia galdetu zion Oihenarti. Dugun azken zerrendan, ordea, "*locatzea*, glosser" azaltzen dio Oihenartek. Ik Oudin: "*Glosser, gloucer, & Glousser*. Cacarear, cloquear, graznar" eta "*pouille qui Glousser*. Clueca".

(50) Ik. Oudin: "*Suif*. Sebo, sevo".

(51) Ez Bourgaud des Marèts eta ez Urquijok ez zuten jakin azken bi hitzak argitzen. Gure ustez *dans son* da hor dioena, Pouvreaux hala kopiatzen du. Ik. Oudin: "*Du son*. Afecho, salvados, semolas, cernidura". Hori dela eta agian "lict (...) dans son"ek 'lastozko ohe' esan nahiko luke, baina ez du itxura onik, litekeena da Oihenartek esaldia amaitu gabe utzi izana. Azkuek "cama de marinos en sus buques" bezala azaltzen du *kamaña*, Bizkaikoa dela adieraziz.

Gona. Cotillon de femme, ou de fille.
Drunda. Fusil a alumer du feu.
Chardanga. Fourchette.
Ixkernua. Eau croupissante.
Kiritzea. Esbranler vne chose qui tenoit ferme.
Larru cberrenda. Lais de cuir.
Mairana. Marrein⁵², bois coupé, non encore façonne, qui est destiné a quelque ourage.
Marfil. Yuoire.
Oruia. Galop ou course.
Pherdoa. Fredon ou refrain.
Pherro. Chien.
Puio. Eminence.
Vhillada. Arrousement.
Vngo ou *ongo*. Paix, accommodement.

Hascurri. Nourriture.
Alcarauia. Langage des Affricains, limitrophes despaigne.
Inguma ou *engouma*. Incube⁵³ ou phantosme qui charge les corps des dormants.
Vfiafa. Desdain.
Ircaitza. Sousris.
Berretsapena. Augmenta(ti)on.
Salho. Proposition. Item, concert.
Ozta. A peyne, *vix*.
Hiriaren sornac. Je ne sçay que veut dire *sorna*; mais *soborna* cest la venelle d'entre deux maisons: item, un fossé et *hirico sobornac* sont les fosses de la ville.

Explication de motz basques pour enuoyer a Monsieur Poureau.
 [25 Juillet 1665]

Nasaitasuna. Relachement. Il vient de *na||aizea* qui signiffie lascher ou relacher.
Eguiraia. (Forsan, *iguraia*), sentinelle, garde.
Çarhoa. Bougie.
Çaharoa. Gaule⁵⁴.
Çarbazea. (Forsan, *sarbazea*), becher la terre pour en arracher les herbes⁵⁵.
Hildea. Mortalitté.
Sarnea. Grosse gale avec croustes.
Sarnez maldatua. Chargé de cette sorte de gale.
Belbakoia. Vn instrument qui sert a couper de la feugere.

Bombecia ou *bombeciña*. Vn flot de la mer qui sesleue en lair fort haut.
Bormua. La gorme.
Çafarda. Vn coup, sans blesseure, donné avec la main ou avec le plat de quelque arme. On lapelle en gascon *une bourrade*.
Charboa. Vn petit poisson comme un goujon. On lapelle en gascon *droguen*.
Garioa. Cest la branche dvn arbre, retranch[ee] du tronc de larbre, qui est entiere et solide & non fendue ny brisee.

(52) Urquijok *mairein*, baina guk *marrein* irakurtzen dugu. Pouvreaux ere hala dakar. Oudin-ek bi aldaera dakartza bere hiztegian: "*Marrain*, m. borne (= 'madera') para edificios" eta "*Merrain*, borne".

(53) Ik. *Notes* 222, 2n: "La edición de Burgaud des Marêts dice, tal vez por error "sucube".

(54) Pouvreaux "*Çaharoa*. Gaule. *cigorra*. Ik. Oudin: "*Gaule*. Vara".

(55) Pouvreaux *çarhoa*, *çarhapeac* eta *çarhatcea* dakartza familia bereko hitz bezala lehen biak definiziorik gabe eta hirugarrenaren adibide bat: "*baratzeco belbar gaixtoac çarhatcea*, arracher, faire secher". Oihenartek azken zerrendan "*çarhoa* ou *çaroa*. pré".

Erriatzea. Cest vn mot de Marine qui signiffie destacher vne corde du⁵⁶ nauire.

Labore. Cest du bled meslé de froment et orge ou segle.

Labore poxina. Vn morceau de pain faict de ce bled meslé.

Chimuxa. Cest un fil de couleur bliue quon mesle aux seruiettes, aux napes, et autre linge vers les deux boutz.

Maguinchac. Gousses de febue.

Iraulaya. Vne sorte de gateur.

Mothoa. La coiffure dvne femme de condition commune.

Vscalzea. Garrotter⁵⁷ ou empestrer vne persone ou vn cheual ou autre beste.

Trempea. Disposition de la sante dvne personne. *Trempe gaiz dut*, je me trouue mal.

*Treueça*⁵⁸. Trepied.

Mortuco chirripac. Les sources deau en hautes montaignes.

Nabicaria. Desir, conuoitise.

Narriatcea. Se desgouter de quelque chose.

*Ñapur*⁵⁹. Affriandi a quelque chose. On dict cela, non seulement dvne personne, mais aussy dvne beste, la-

quelle ayant pris goust a lherbe de quelque clos ou jardin, on ne peut lempecher dy entrer.

*Ñapurtu da*⁶⁰. Il sest affriandi.

Idaroquitea. Faire sortir.

Ichiritzea. Digerer.

*Icorcirinac*⁶¹. Tumeurs qui viennent aux mains a ceux qui trauaillent.

Iarbaitea. Suiure.

Iamba. Beellement de brebis.

Guisquilla ou *Quisquilla*. Vn malou-tru⁶², couuert de haillons.

*Ep'aitca*⁶³. Coupe.

Engreñazea. Ce mot se dict dvn enfant le quel pour estre mourri avec trop de delicatete et de complaisance, deuiet facheux & difficile a contenter.

Charchia. Cordage de nauire, amarre.

Cuscazea. Oster la coque a vn oeuf⁶⁴.

Darticoac. Graines de geneure.

Durdusia. Rudoyement.

Elkortua. Deuenu sourd, item, desseiché.

Encalicazea. Croupir.

Erresa. Pain de menage, *panis secundarius*.

Escatima. Debat, contestation.

Estribua. Soutien, arcaboutant.

Gogonduri. Bien intentionné.

(56) Urquijok *de*.

(57) Urquijok *garroter*.

(58) Urquijok *truceça*. Jatorrizkoan *treueça* irakurtzen da argi eta garbi. Lehenago ere, maiatzaren 12.ean, azalduriko hitza.

(59) Urquijok *napur*. Baina *ñapur* irakurtzen da jatorrizkoan, *n* gaineko marratxoaz zerbait eskubi aldera leurratua badago ere, hala gertatzen da aurrerago ematen dituen *ñapurtu* eta *engreñazea*ekin, besteak beste. Hala dakar Pouvreauk eta baita Azkuek ere, Oihenarten eskuizkribua aipatzen dutelarik.

(60) Urquijok *napurtu*.

(61) Agian leherkari ahoskabe hasperenduna, *-kb-*, da hor azpian dagoena, Oihenartek *c* gainean marra bat egiten bait du, nahiz eta ez duen bere ortografi arauetan halakorik aipatzen. Pouvreauk *ikorcirinac* (Pouvreaurantzat zenbait <k> = /kh/), eta Axularrek *iccorcirinac* (90. or.).

(62) Ik. Oudin: "*Malotru*, m. Mezquino, desaliñado".

(63) Oihenartek *ep'aitca* idazten du, baina huts bat da dudarik gabe. Pouvreauk *eppaitça* dakar bere hiztegiaren definizioz gabe.

(64) Hemen Oihenartek "*Çurcazea*. Froncer un cotillon ou vne chemise qui sont trop longues" dio, baina zirriborratua dago guztia, ziurrenik Oihenart beraren eskuz. Ez dugu hitz honen adibiderik aurkitu.

Aduertissement sur la derniere Explica(ti)on des motz basques Enuoyee a Monsieur Pouureau.

{1665.eko abuztuaren 12(?)}.
 [1665.eko abuztuaren 12(?)].

Je me suis mescompté en interpretant *narriazea* se desgouster⁶⁵, car jay creu parler de *nardazea*, qui a cette signiffica(ti)on et *narriazea* veut dire deuenir faché ou offensé en sa santé.

Je nay pas aussy bien interpretté le mot *chara* pour bois taillis⁶⁶, car *chara* veut dire vn arbrisseau ou arbre taillis et le bois taillis sappelle *xaradia*.

Potorroa. Outre la signiffica(ti)on que jay donnee a ce mot⁶⁷, il me semble auoir ouy nommer de ce nom, en mon jeune eage, vn oyseau de mer malencontreux aux nauigans, dautant que son chant est presage dorage et de mauuais temps. Je men enqueray plus particulierement.

Le mot *albenia* est mal interpretté dans le dictionnaire de Monsieur Pouureau par le mot 'endroit d'estoffe', ou il me designe pour autheur de cette interpreta(ti)on par la lettre "O". Sy jay donné cette interpretation, je me suis mescompté et jay entendu seulement expliquer le mot *aurkia*, car pour le mot *albenia* je trouue dans mes memoires quil signiffie la lisiere du drap, et rien plus⁶⁸. Cest vn mot de la vallée de⁶⁹ Bastan.

Adeçara pour dire 'tout presentement' n'est pas bien escrit dans led. dictionnaire. Il faut escrire *adeşara* avec l'ş latin et non avec ç.

Pag. 13. La mesme erreur sest glissee au mot *aitaço*, 'bisayeul'; car il faut escrire *aitaşo* et non *aitaço*.

Mesme erreur en la page 6 dud. dictionnaire ligne 45, ou il faut escrire *lotşa* et non *lotza*.

Semblable erreur en la page 11, ligne 45, ou il faut escrire *uşua* et non *uşua*.

En la page 11 il faut escrire *abal urrina* avec double *rr*.

En la page 21 *ameztia* est mal interpretté bois taillis, car cest vn bois de haute fustaye consistant en vne sorte de chesnes que les gascons appellent *tausins*.

Page 27 faut lire *ark'ara* pour dire vne brebis chaude, et non *arçara* qui signiffie 'derrechef'

Page 28 ligne 49⁷⁰ faut escrire *arrencas* par double *rr*, car avec simple *r* ce mot signiffie 'vn harenc'

(65) Urquijok *degouster*. Artikuluan esan bezala, Oihenartek, adiera oker horretan, uztailaren 25.eko hitz zerrendan azaldua.

(66) Maiatzaren 30.ekoan azaltzen dio hau baina 'taillis' da soilik han ematen duen definizioa. Zuzenketa Pouvreuri dagokio, bere hiztegian: "*Chara*. h. *Charadia*. h. Oihan gaztea. bois taillis" dakar eta Oihenartek pentsatuko zuen, dirudien bezala, sinonimotzat jotzen zituela.

(67) Esan bezala, hitz honen azalpenik ez da agertzen guk ditugun zerrenda hauetan.

(68) Honen aurretik Oihenartek bi alditan azaldua, lehen hitz zerrendan eta maiatzaren 12.ekoan, bigarren aldi honetan ematen duelarik adiera oker hau. Ik. honi buruz artikuluan esandakoa.

(69) Eta ez *du* Urquijok dion bezala.

(70) Urquijok 19; guk 4 irakurtzen dugu berak 1 irakurtzen duen tokian.

En la page 29 ligne 11⁷¹ les motz *eguiçu argui* sont superflus et ne respondent pas a l'interpreta(ti)on.

Page 30 *udar arnoa* ne veut pas dire pommé, mais poiré, cidre fait de poire.

Arno bustiñoa ne veut pas dire vin pur mais du pommé pur, fait du suc de pomme sans y mesler de leau.

En la mesme page 30 ligne 37, il faut escrire *arnoçalea* avec le ç a queüe et non avec j.

Page 31 ligne 2 faut escrire *arra[s]atcea* avec vn j et non pas avec ç et en la troisesme et en la quatriesme ligne *arras* doit estre aussy escript par j et non par z.

En la ligne 32 *arrainçalea* doit estre escript avec un ç et non avec s.

Page 32 ligne 4 il faut dire *arrastroa* avec r & o, et non *arrastua*.

Aux lignes 8, 9, 10, 12, 13, 14, 17 il faut escrire *arratz*⁷² avec vn j et non avec z.

[Izenbururik eta datarik gabea]

Anua. Cest le mesme que *anboa*, la pittance du berger.

Arrubia. Cry dvn chien enragé.

Ambarra. Closture.

Arpina. Plantain, herbe.

Arro, Egur arroa. Bois carié ou pourry.

Aurka ou *aurkia*. Lendroit destoffe, Item, lopusitte.

Aurkas, aurkazea. A lopusitte.

Ascu. Brasier.

A[st]ekal. A chaque semaine.

Bakarria, errecebiçalea. Etcheberri lexplique *coniux*.

Bakari ona bathu du. Il a rencontré vne persone qui lui a fait bon accueil et la bien receu.

Beta la[st]oa ou *meta la[st]oa*. Pile de paille.

*Dai[st]aillu*⁷³. Goustement.

Endrecera. Endroit.

Entregu. Assuré.

Billigardazea. Deuenir gaillard.

Bocaleta. Voisinage de la barre.

Carra[s]cazea. Racler.

Cobrua. Conduite.

Cofoleta. Petit coffre.

Corcazea. Cest le mesme que *cocazea* s'accrocher⁷⁴.

Comborra. Tronc dvn arbre.

Charlingoa. Gasouilleur, grand parleur.

Chingoca noa. Je marche a clochepied.

Chinoa. Porc marin.

Çarhoa ou *çaroa*. Pré.

Çabaroa. Gaule.

Cilla. La bosse dvne tonne. Item vn homme qui a gros ventre.

Cinegotcia. Vn Jurat ou escheuin.

Çolda. Crasse du visage ou de la teste.

Ekaraia. Faut dire *ukaraia*. Cest le poignet⁷⁵.

(71) Urquijok 2, guk 11 irakurtzen dugu. Oihenartek <ii> idazten du, eta Urquijok berak, lerro batzuk gorago 11 idazten du beste *ii* baten ordez.

(72) Urquijok *arrotz* irakurtzen du. Gure ustez ez dago dudarik Oihenartek *arratz* jartzen duela hor, beraz, zuzendurik, *arrat[s]* izango litzatekeena. Ez luke, inolaz ere, *arrot[s]* ('extranjero') idaztea proposatuko. Pouvreauren hiztegian, hain zuzen ere, 7 forma ematen ditu (beste hainbeste lerrotan) *arrats* eta bere eratorrien artean eta *s* bajuarekin idatzirik (Oihenartentzat /z/).

(73) Eta ez *dai[st]aillui*, Urquijok dion bezala. Hala ere bitxia gertatzen da hitz forma hau. Pouvreaux, *Citas* 515. or.an ikus daitekeen bezala, *dastaillua* hitzaren esanahia galdetzen dio. Dena den, ez dugu hitz honen beste lekukotasunik inon aurkitu.

(74) Maiatzaren 12.ean hemen ematen duen *cocazea* eta *crocazea* azaltzen dizkio adiera berarekin.

(75) Pouvreauren hiztegian *ukaraya* da agertzen den forma bakarra, "le poignet; muineca. O." definizioarekin.

Ekaia. A esté interpretté au premier memoire.

Ekitea cerbaiti. Sapliquer ou sattacher⁷⁶ a quelque chose.

Eskalda. Eschaufaison.

Gardinga. Rance.

Hazcabarrazea. Gratter, *scalpere*.

Herbi oillarra. Huppe, oiseau.

Hempazea. Dict Etcheberri, mais on dict comunement *hompazea*, deuenir enflé.

Indura bandura. Sy feray, non feray.

Kabotcha. Chabot, poisson, *Cephalus* en latin.

Largana. Vne aire hors la maison.

Laia. Vn outil dont on se sert en Espagne au lieu du soc pour labourer la terre.

Laštola. Vne cabane faicte de paille.

*Locatzea*⁷⁷. Glosser.

Macia. Vn sas.

Modorro. Sot, stupide.

Satšuria. Taupe.

Ogalea. Pasture aux pourceaux ou autres bestes, faicte de farine de milh trempee dans leau.

Cericazea. Fourgoner⁷⁸.

Orrierriaga. Rounceaux⁷⁹.

(76) Eta ez 'settacher' Urquijok dion bezala.

(77) Urquijok *localzea*, baina ez dago dudarik *locatzea* dioela.

(78) Urquijok "fourgonner".

(79) Urquijok dioenez (*Citas* 506), azken hau ez da agertzen Labrouchek zituen Oihenarten zirriborroetan.

Euskara XVI-XVII. mendeetako zenbait idazle atzerritarrengan

PATRIZIO URKIZU

1. Joannes MAURUS CONSTANTIANUS, beste izenez Jean Le Maure¹ errenazimenduko humanista bat dugu, idazle eta inprimazle, klasikoen editore eta Réolen moldiztegiaren jaiotzarekin lotua ageri zaiguna. 1500. urtean Bordeleko epaile eta doktore ospetsu zen Joannis Halcourt jaunari latinaren konposizio eta deribazioaz, hots, hitzen eraketaz liburu bat eskaini zion zeinaren tituluak honela dioen:

Joannis MAURI Constantiani in Cōmentarios Compositionū ac derivationū lingue latine ad Micātissimū spectantēque nobilitatis virū D. Joannē de Haulcourt Radiātissimū Juris utriusque doctore Bordegaleūz senatorem².

Orrialdearen amaieran honelaxe aipatzen digu data «Anno dñi Millesimo quingentesimo», hau da, mila eta bostehungarren urtean argitaraturiko liburua dugu. Hau erreserbako kutxa batean ongi gorderik zegoen, baina baimen berezi batez ikusterik ahal izan nuen. Latinez idatzirik dago, baina arretaz irakurririk euskarazko hitzokin topatu genuen. Hona hemen:

- a) subcerniculū.i. cribrū farinariū gal.les.vasconice.sedal³.
- b) encaustus.i. oculorum morbus.vascon.lagaigue⁴.
- c) hydropotes.i. aquepotor, vasc.benlegne⁵.

Beraz, Joannis Maurus-ek hitz horiek aipatzen dituenean, SEDAL, LAGAIGNE eta BENLEGNE euskal hitzak bezala jotzen ditu.

Baina zein da beroien esenahi zehatza? Ez dira agertzen Koldo Mitxelenak *Textos Arcaicos Vascos* liburuaren amaian ematen duen hitz zerrendan, eta beraz, Larramendi, Azkue eta Corominas-en hiztegietara jo dugu laguntza eske eta hauxe argitu digute.

1. A. Claudin, *Les origines de l'imprimerie à La Réolle en Guyenne, 1517. Recherches sur la vie et les travaux de Jean le More, dit Maurus, de Contance*. 1894.

2. Bibliothèque Municipale de Bordeaux, Rés. p. X. 327.

3. Fol. xiii.

4. Fol. xxiii.

5. Fol. xxiii, v.

a) «SEDAL: 1.º (BN), cerda, crin: soie de porc, crin de cheval»⁶.

Azkuek dioenaren berdintsua dio Lhandek ere eta Corominas-ek eransten du:

SEDA, 1220-50. Origen incierto. Quizá del lat. SAETA 'cerda de puerco, de caballo, etc.', 'sedal de pescar', que en la Edad Media debió de aplicarse al hilo de seda, porque entonces este género se importaba en hilo, de ahí pasaría al tejido de seda. Así parece deducirse de la unanimidad de las lenguas romances, que suponen como nombre de la seda una base SETA; desde ahí, ya en los ss. VIII-IX, pasó el vocablo a varias lenguas germánicas y célticas. Deriv. *sedal*, 1495⁷.

Etorki ezezagun hortaz mintzo zaigu Larramendi euskarazkoa duela jatorria adieraziz:

cedazo, baya, baea, cetabea. Lat. *incerniculum*⁸. cerda, viene de el Bascuence *cerri da*, que significa es marrano, y este es el que por antonomasia se llama ganado de cerda, *çurdac*. Lat. *setae-arum*⁹.

Beraz, hitz honen etorkiaz badirudi Larramendi eta Mauri ados daudela.

b) Bestalde Koldo Mitxelenak bere tesia den *Fonética Histórica Vasca* izeneko liburuan LAKAIN hitza aipatzerakoan hau xe adierazten digu:

Hay bastantes ejemplos de alternancia l-/cero (20): *guip. akañ(a)*, etc. 'garrapata': lab. *lakain id* (cf. *gasc. lagagno* y vid. *Corominas*, sv. *legaña*¹⁰).

Berriro hartu dugu Corominas esku artean eta hauxe diosku LEGAÑA hitzarenpean.

LEGAÑA, h. 1600; la forma más extendida y antigua es *lagaña* s. XIV. Voz común al castellano con el catalán, s. XII, y el occitano, s. XIII. Origen incierto, probablemente prerromano, quizá de la misma etimología proto-hispánica que el vasco *lakaiña*, que significa 'hebra', 'aspereza', 'nudo de árbol', 'gajo', suponiendo que el sentido primitivo fuese 'brizna' (acepción al parecer cimentada en el cat. ant. (*laganya*), de donde 'broza', 'menudencia', y de ahí 'legaña'¹¹).

Duda eta ilunbe hauetarik irtetzeko jo dugu berriro Larramendirengana argitasun bila eta hauxe topatu dugu:

Lagaña, viene de el Bascuence *lacaña*, que significa gajo, ó colgajo en las ubas, y por la semejanza al humor congelado,

6. R. M. Azkue, *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbo 1905, T. II, 214.or.

7. J. Corominas, *Breve diccionario etimológico de la lengua castellana*. 3.ed. Madrid 1973, 527-528.or.

8. M. Larramendi, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latin...* Donostia 1745, 186.or.

9. M. Larramendi, aip. lib., 190.or.

10. L. Michelena, *Fonética Histórica Vasca*. Donostia 1977, 323.or.

11. J. Corominas, aip. lib., 357.or.

que cuelga de las pestañas, se le dió el nombre de lagaña. *Macarrá, bacarredá, pistá, beteria*. Lat. lippitudo¹².

Eta goazen, bada, azkenik Mauri-k aipatzen digun hirugarren hitzarekin.

c) BENLEGNE ikusi eta berehala gaztelaniazko «beleño» gogorazi digu eta berriro Corominas kontsultatuz hau irakurri dugu:

BELENO, h. 1106, nombre de una planta narcótica, viene de una base *BELENIUM, de origen prerromano indoeuropeo, cuyas variantes se documentan desde el s. I, y que ha pasado también a varias lenguas germánicas y eslavas, por influjo de *beleño* el verbo *envenenar* se convirtió en *embeleñar*, *-iñar*, en textos de los s. XIII-XVI...¹³.

Baina begiraturaz «hydropotes» UZEIk argitaraturiko *Biologia I. Landare eta animalien izenak, izendegia* liburuan beste zentzu zeharo ezberdin bat aurkitu diogu, honela baitio:

- «3542. Hydropotes inermis (swinhoer)
- e. ur-orein
- g. ciervo acuático
- f. cerf des marais
- i. (chinese) water deer¹⁴.

Dena den, hona bada hiru euskal hitz Joannes Maurus-en uste-tan SEDAL, LAGAIGNE eta BENLEGNE (ondo irakurri badugu), jadanik 1500. urtean koka daitezkenak eta dirudienez Europa guz-tian aski zabaldu zirenak erdi aroan.

2. Carolus BOVILLUS SAMAROBRIUS frantsesez Charles de Bouelles, Sancourt-en jaioa 1470. urte inguruan, filosofo, matematikari eta hizkuntzalari ere badugu, Alemanian 1505. urtean eta, gero 1507.ean Erroman izan ondoren, Espainian izan zen, Ximenez kardenala ezagutuz. 1533. urtean Parisen Robert Estienne, idazle, zuzentzaile eta editore zenaren moldiztegian hain zuzen ere *Liber de differentia vulgarium linguarum* izenekoa argitaratu zuen, zeinaren titulu osoak honelaxe esaten duen:

Caroli Bovilli Samarobrini Liber de Differentia Vulgarium, & Gallici sermonis varietate. Quae voces apud Gallos sint factitiae & arbitrariae, vel barbaricae: quae item ab origine Latina manarint. De hallucinatione Gallicanorum nomini. (Irudia). Parisiis, Ex officina Roberti Stephani MDXXXIII¹⁵.

Beraz hizkuntza «vulgar»-en ezberdintasunaz ari zaigu, XVI. mendeko ahozketa frantsesaz ohar interesgarririk emanez, eta bere gramatikaz arduraturiko lehenetakoa dugu. Bere XII. kapitulu-

12. M. Larramendi, aip. lib. T. II, 32.or.

13. J. Corominas, aip. lib., 91.or.

14. Uzei, *Biologia I. Landare eta animalien izenak. Izendegia*. Donostia 1984, 293.or.

15. Bibliothèque Nationale de Paris. Coll. Ristelhueber, n.º 13.

luan euskaldunen hizkuntzaz mintzo zaigu eta hona hemen zer dioen latinez:

De Biscainis inter Gallos & Hispanos diversa ab utrisque utentibus lingua. Cap. XII. Sedet partim in Gallia, partim in Hispanis, gens ignotae originis, diversa & a Gallis, & ab Hispanis aloquio. Partem eius gentis in Pyreneo sitam, & Hispanorum regno obaudientem, Hispani Biscainos, seu Viscanos vocant. Portionem vero caeteram citra Pyreneum, in Francorum regno confidentem, Galli nunc Vascones, nunc Baschas appellant, vulgus Gascons, vel Basques. Nam trium literarum B, G, & V simplicis, atque etiam duplicis vv, crebriuscula sit à vitiiis laborum in seinvicem alternatio. Quamobrem Viscainorum, Vasconum, Gasconum, Bascharum gens, est eadem, & linguae unius: quamquam diversis nunc regnis attributa. Fortasse hi sunt quos Plinius Vacceos dixit: nam & nomen & solum satis alludunt¹⁶.

Euskaraz honela itzuli dudan zatia: «XII. Kapituluua. Galoen eta hispanoen artean eta herri hauetarik hizkuntza ezberdina dabilten Bizkaitarretaz.

Zati bat Galian eta bestea Hispanian bada herri bat etorki ezezagunekoa hizkuntzaz ezberdin dena bai galoen eta bai hispanoengandik. Hispanoek Pirineoetan Espainiako erregeen menpean den herri honen zatia *Biscainos* edo *Viscanos* deitzen dituzte. Baina beste partea, Pirineotako alde honetan dagoena, eta Frankoen erresumaren baitan fidatzen direnak frantsesek bai *Vascones* bai *Baschas*, eta hizkuntza arruntean *Gascons* edo *Basques* deitzen dituzte. Ezen eta B,G, eta V sinplearen artean, baina W letren artean ere maiz hots aldaketa ematen da ezpainen ahoskatze bizio baten ondorioz. Horregatik, Bizkaitar, Euskaldun, Gaskoin eta Baskoen herria bera da eta hizkuntza bakarrekoa, egun bi erresumetan berezirik dagoenarren. Agian Pliniusek Vacceos bezala izendatzen zituenak litezke, bai izenak eta bai lurak hortaratzen baitakituzte».

3. Hieronymus MEGISERUS Sttugard-en jaio zen 1555. urtean protestante familia batetan, eta bere aita «artzaiak» antzinako hizkuntzak irakatsi zizkion, 1571. urtean Tubinga-ko unibertsitatara bidali zuelarik eta hemen Crusius-en, garaiko helenista famatueneratarikoaren irakaskintzak errezibitu zituen. Oso azkarra izaki, eta bai Geografia, bai Historia, bai ekialdeko hizkuntzak ordurarte Alemanian aski baztertuak izan zirenak ikasi zituen. Europa osoa bisitatu zuen, eta horren ondorioz zenbait liburu ere idatzi zituen, hala: 1) *Catéchisme*, 1584 (grekar hexametroan, eta latinezko itzulpen batekin), 2) *Dictionarium quatuor linguarum* [alemana, latina, ilirioa eta italianoa], Graetz, 1596, eta besterik. Baina guri interesatzen zaiguna bereziki beste hau da:

16. Aip. lib., 12.or.

Thesaurus polyglottus vel dictionarium multilingue ex quadringentis circiter linguis, dialectis, idiomatibus et idiotismis constans. Francfort, 1603.

Liburu hau Austriako enperadoreari eskainirik dago eta xit arraroa bilakatu da. Vinsonek ere aipatzen du bere bibliografian, baina era honetara:

1190. Thesaurus polyglottus vel dictionarium multilingue (400 langues) (sic) par J. Megister. Francfort, 1608, in-8, xxxij-832-751 pà 3 col. Le basque (cantabrice) y figure et est assez souvent confondu avec le gascon (vasconice)¹⁷.

Eskuartean erabili dugun alea ez zen, noski, 1608.ekoa 1603.ean argitaratua, ez eta ere 400 hizkuntzetako berrogeikoa baizik. Sarreran hizkuntzak aztertzen eta sailkatzen saiatzen da eta seigarren atalean «Tabula sexta Europae» Europako hizkuntzak behatzen ditu eta honelaxe diosku:

Tabla Sexta
EUROPAE

...Jam commemoratus, latinae, Graecae, Germanicae & Sclavoniae Linguarum Dialectos, Europea quoq. sunt sequentes:

Hungarica

Hibernica, seu Irlandica

...

Cantabrica, seu Vasconica seu Vetus Hispanica¹⁸.

Alegia euskara beste izenez *cantabrica* eta *vasconica* deitua omen dena, espainiar zaharra dela eta Europako beste hizkuntzen sail eta etorki berdinekoa bezala jotzen da, garaian ziren ideien arabera. Geroago, hitz zerrenda multzoak berrogei hizkuntzetan, gutxi gora behera dakartza, eta horien artean euskarazkoak, kontatu ahal izan ditugularik ehunen bat, baina ia denak jadanik Buenaventura VULCANIUS-ek 1597.urtean Leydenen argitaratu zuen *De Literis et Lingua Getarum sive Gothorum...* liburuan zekartzanak¹⁹. Beraz, hemen ez ditugu Vulcanius-ek aipatzen ez dituen batzu baizik ikusiko. Badira zerrendan zenbait iratxo ere, hala nola: VIHASREA²⁰ vicitzea orde, GUEY²¹ oguey-ren partez, eta URICIA²² unciaren lekuan.

Bizkaierazko forma batzu ere badakartza dudarik gabe L. Marineo Siculoren *De rebus Hispaniae memorabilibus...* 1533-tik hartuak, hauxek direnak²³: AYTEA, AYDEA²⁴, ALABEA²⁵, ANA-

17. J. Vinson, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Paris 1898. T. II, 715.or.

18. H. Megiserus, aip. lib. Introductio.

19. J. Garate, «Juicios y glosario vasco-latino de Buenaventura Vulcanius». *Euskera* VI, Bilbo 1961, 239.or.

20. H. Megiserus, aip. lib. T. II, 716.or.

21. H. Megiserus, aip. lib. T. II, 706.or.

22. H. Megiserus, aip. lib. T. II, 108.or.

23. L. Michelena, *Textos arcaicos vascos*. Madrid 1964, 146-147.or.

24. H. Megiserus, aip. lib. T. II, 216.or.

25. H. Megiserus, aip. lib. T. II, T. I, 543.

GEA ²⁶, ARDAOA ²⁷, ARREVEA ²⁸, IRACURTEN DOT ²⁹, IRARGUIA ³⁰, LASTER EGUITEN DOT ³¹.

Badira ere beste zenbait hitz euskalduntzat ematen dizkigunak eta Vinsonen ongi dioen bezala gaskoinarekin nahasiak direnak: PAIRE ³² eta PIBOL ³³, Louis Alibert-en hiztegian agertzen den bezala «paire, père» aita, eta «pibol, peuplier» ³⁴ makal beltza «populus nigra»-ren ordaineko ³⁵ ematen direnak.

Beste hiru hitz bitxi ere ageri dira: DORSA ³⁶ latinezko «dorsum»-pean, MIRTIL ³⁷ «salamandra» bezala, eta CIVADE ³⁸ «squilla parva»-ren itzulpen gisa. Hauen berdintsurik, ordea, ez dut hiztegiatan topatu, ezen Larramendik dioenez:

Espalda, ez voz Basconzada, de atzalda, atzaldea, que significa lado opuesto al delantero. Espalda, bizcarra. Lat. Tergum, dorsum ³⁹.

Salamandra, especie de lagarto, que no se halla en España, salamandra, arrabio mota bat da. Lat. Salamandra ⁴⁰.

Eta, azkenik «squilla parva», «cebolla albarrana» delakoaz beste hau baitiosku:

Albarrana, cebolla silvestre, *astatipula, basaquipula* ⁴¹.

Duda batekin gelditzen gara, beraz, MIRTIL, DORSA eta CIVADE XVI. mendean euskaraz erabiltzen ziren hitzak ote diren, gero galduak, hala nola PAIRE eta PIBOL Xuberoa aldean eta gaskoinaren eraginez erabiltzen zirenak ote diren, ala egilearen nahaste huts bat.

4. Badira ere beste zenbait liburu, nola Paulli MERULAE *Cosmographiae generalis libri tres...* Amsterdam-en 1605.urtean argitaratua Vinsonen ere aipatzen duena ⁴², eta non esaten zaigun euskarazko zatiak argitaratu zirela *Revue de Linguistique*, XXVIII. ean 264-268.orrialdeetan eta non latinez zenbait xehetasun eman ondoren euskaraz ematen digun «Gure Aita» (Oratio dominica,

26. T. I, 564.or.

27. T. I, 710.or.

28. T. II, 538.or.

29. T. I, 789.or.

30. T. I, 822.or.

31. T. I, 382.or.

32. H. Megiserus, aip. lib., T. II, 216.or.

33. H. Megiserus, aip. lib., T. II, 294.or.

34. L. Alibert, *Dictionnaire occitain-français d'après les parlers languedociens*. Toulouse 1966, 520, 545.or.

35. Uzei, aip. lib., 65, 78.or.

36. T. I, 448.or.

37. T. II, 453.or.

38. T. II, 552.or.

39. M. Larramendi, T. I, 443.or.

40. T. II, 268.or.

41. T. I, 50.or.

42. J. Vinson, aip. lib., T. II, 715.or.

cantabrice) ⁴³ Leizarragaren *Testamendu Berriaren* itzulpenetik hartua eta espreski San Mateoren ebanjeliotik ⁴⁴, «sinhesten dut» Leizarragak bere *ABC edo Christinoen instructionea othoitz eguiteco formarequin* deitu liburuttoan dakarrena ⁴⁵ hala nola Lucius Marineus Siculus-enetik harturiko hitz zerrenda ⁴⁶.

5. Joseph Justus SCALIGER (1540-1609) Julius Caesar jakintsuaren semeak garai hartan italiar eta frantses humanisten lan filologikoak bildu eta gainditu zituen, eta ez hori soilik, bere irudimen sortzaileaz zeuden hutsuneak betetzen saiatu zen ere ⁴⁷.

Frantziako hegoaldean jaioa, Bordelen ikasi zuen lehenik eta gero Parisen, Collège de France delakoan Turnebus irakaslearen ikasle berezi, berehala jabetu zelarik, grekaz, hebreoaz, arabeaz eta ekialdeko beste hizkuntzetaz. Asko idatzi zuen eta berak zioen bezala «J'ay esté une putain prostituée à faire des vers à tout le monde come Dorat» ⁴⁸.

1562. urtean protestant egin zen, eta Genève-n bi urte eman zituen (1572-74), azkenik Leydengo unibertsitatean, Holandan irakasle ihardun zuelarik. Bere idazlanetatik antolaturiko antologia bat erabili dugu esku artean eta bertatik bi aipamen emango ditugu.

LANGUES. Il y en 24 Matrices en Europe: Zeus la Grecque, Deus la latine (...). Les Basques sont Cantabres, qui est comme je crois le vieux langage d'Espagne: comme il apert par les papiers qui se trouvent dans les villes d'Espagne. Cantabria tenoit la Navarre de delà les Pyrénées, les Basques de deçà & une partie de la Gascogne ⁴⁹.

Hots, bere eritziz ere euskara dela Espainako antzinako hizkuntza eta bai Pirineoko alde batean bai bestean euskaldunak bizi direla.

Hiztegi moduan eginiko liburuan Nafarroako Margarita printzesaz mintzatzen da, dituen biblietaz eta eskuzkiribuetaz, eta beste gauzen artean *Basque* hitza aipatzean, bere burua ere azentuatik euskaldun jotzen duelarik beste pasarte batean, hauxe diosku.

BASQUE. Le langue tient sept journées. Il en a cis & ultra mōtes, à une demie lieue de Bayonne commence le langage. Il y a Basque en France, Navarre, & Espagne. Il faut que les Basques parlent quatre langues. François, parce qu'ils plaident en français au Presidial de Bayonne, & de là à la seneschaussée d'Aqs;

43. P. Merulae, *Cosmographiae generalis...* Amsterdam, 1605, 303.or.

44. J. Leizarraga, *Testamendu Berria*, Rochellan, 1571, S. Mathheu, cap. VI, 9-13.or.

45. J. Leizarraga, *ABC...* Rochellan, 1571; P. Merulae, aip. lib., 433.or.

46. L. Michelena, *Textos arcaicos vascos*. Madrid 1964, 146-147.or.

47. R. Pfeifer, *Historia de la filología clásica de 1300 a 1850*. Madrid 1981, 194.or.

48. J. J. Scaliger, *Prima Scaligerana...* Groningae 1669, 110.or.

49. J. J. Scaliger, aip. lib., 136.or.

Gascon, pour les pays Basque & Espagnol: C'est un langage estrange que le Basque, c'est le vieil Espagnol, come le Breton bretonnant est le vieux Anglois. On dit, qu'ils s'entendent, ie n'en croy rien, ils nomment pain & vin de mesme, mais le reste est bien different. J'ay leur Bible⁵⁰.

Alegia, euskara mintzo dela Frantzia, Nafarroa eta Espaniako erresumetan, eta euskaldunak lau hizkuntza mintzazu beharrean aurkitzen direla, hau da, frantsesa, gaskoina, gaztelania eta euskara. Espainiako hizkuntza zaharra omen da, eta euskaldunen artean mintzatzeko modu ezberdinak direnez gero bere ustez ez dutela elkar ulertzen, ezen ogia eta ardoa berdin izendatzen badute, bestea oso diferentea den. Biblia euskalduna ere baduela bere liburuaren artean.

Exenplu eta adibide xorta hau, aipamenok bukatzeko esan dezadan artikulutxuaren muina. Ene uste apalez, bai XV. mendeko baina batipat bai XVI-XVII. mendeetako liburuetan, hiztegietan, kosmografiatan, etabar, asko gelditzen da oraindik aztertzeko eta jakiteko zein eritzi zuten garai haietan euskararen etorkiaz eta hiztegiak. Ez litzateke, bada, arraroa euskaraz idatzi ziren liburuak eta galdutzat ematen direnak oraindik agertzea, honela gure literatura eta hizkuntza ttipi baina maitagarria hobeto ezagutzen joango garelarik.

Lezon, 1986, martxoak 19.

50. J. J. Scaliger, aip. lib., 25.or.

CAROLI BO-
uilli Samarobrini li-

BER DE DIFFERENTIA VVI
gariū linguarū, & Gallici sermonis varietate.
Quæ voces apud Gallos sint factitiæ & arbitra-
riæ, vel barbaræ: quæ item ab origine Latina
manarunt.

De hallucinatione Gallicanorum non



PARISIIS.
Ex officina Roberti Stephani.
M. D. XXXIII.

Pierre d'Urteren hiztegia

PATRI URKIZU
(U.N.E.D.)

Lehen aldiz Pierre d'Urteren *Dictionarium latino-cantabricum* latin-euskara hiztegi eskuizkribatuaren argazkiak eskuratu nituenean somatu nuen berehala banuela orrialde haietan altxor bitxi bat gure hizkuntzaren nondik norakoaz arduratzen eta bere egituraz sakonago jabe nendin. Urteak iragan ziren, ordea, ongi ohartu baino lehen zeintzu behar zuten izan ikerlanaren mugari eta harroinak, hastapen eta metodoa ahalik eta zehazkien aurkez nezan (laister espero dudana arabera)* Koldo Mitxelena doktore irakasle jaunaren zuzendaritzapean tesi moduan bere azterketa. Hemen doa-kizue, bada, bertako muina labur-labur emanik.

R. M. Azkue abade euskaltzale agurgarriak 1927. urtean Ingalaterran euskal eskuizkribuak ikusten eta aztertzen egon ondoren, honelaxe idazten zuen gaur plaza-ratzen dugun gaiaz, Pierre d'Urteren hiztegiarekin, hain zuzen:

...el tercer manuscrito, *Dictionarium latino-Cantabricum* (...) es y creo que será siempre obra inédita... (Azkue 1928: 224).

Besterik gabe ematen zigun aurre-eritzi ezkor hau, eta luzea izango litzateke euskararekiko tankera horretako eritzien historiaren aipamena; esperantza gabeko uste hori aurki desegingo delakoan gaude, ordea, orain.

Hizkuntza herri baten historiaren ispilu eta gordailu da, gizartearen komunika-bide tresnetarik bat izateaz gain, eta Martin-ek dioen bezala kultur hizkuntza batek bere baitan iraganaren aberastasuna agertzen baitu lotsagabekeria handia litzateke bere sakontasun hori ezezagutzea:

Une langue de culture reflète en elle la richesse de son passé et c'est la trahir que d'en ignorer la profondeur historique (Martin 1969: 50).

Beraz, Urteren hiztegia aztertzerakoan ezin ahantz nitzakeen bere etorkiak, bere inguruneko historia hurbilari hain zuzen ere XVI-XVII. mendeen gain-so labur bat bederen eman gabe ezin egon nintekeen, eta derrigorrezko zitzaidan bereziki Pierre d'Urteren bizitza urteetara inguratzea.

Bere garai hau bi arotan bereiz dezakegu. Lehena, Euskalerrian Donibane Lohizune sorterri eta hazerri izan zuen hartan, eta gero Baionan Lapurdiko hiriburuan, Maule Ziburuko hiriburuan, kasu, eta Bearnen aldean kaputxino eta hugonote gisara

* Dagoeneko aurkeztua (1986-1987 ikasturtea) EHU-ko Filologia Fakultatean eta 1989an 2 liburukitan Mundaizek argitaratua [*Argitaratzaileen oharra*].

bizi zuena 1664.etik 1685era doazen urteetan. Bigarrena, herbestaturik Ingalaterran XVII. mendeko azken urteetan eta XVIII.eko lehen bi hamarteetan eman zuena.

1664. urtearekin jaio zen eta urtarrilaren bian bataiatu zuten Donibane Lohizuneko artxiboeke esaten digutenez:

Janvier 1664

D'Urté Le deuxieme janvier 1664 a esté baptisé Petry fils Joannis d'Ourte et de Marie de Camiño, sa femme, naquist hière le P. a este Betry Canonier et la M. M. Lissardy par moi Belaryet, curé (Baptêmes 1664).

Honela bada, Louis XIV.aren ezkontza hirian eta Lapurdiko kostalde mugituan, garai ekaitztsu, higiduraz betean, tromentez eta gerlez estalirikako une hartan Betri donibandarrak iragan zuen haurtzarora, antza bere osaba Kadet kapitainaren babespean.

Bere idazlanetan agertzen diren albiste sakabanatuei jarraikiz nolahalako bizitza ahal bat eraiki dugu.

Mutil koskor zelarik kaputxinoen komentuan, "Les Recolettes" izeneko prailitegian hasiko zen bere lehen borrokak ematen hizkuntza klasikoekin, latina eta grekarekin, baina lehenarekin batipat. Halere, eta antza denez, Sarako eskolaren inguruan, Euskalerriko Atenas haren itzalean sortu ziren euskal liburuekin eta euskararen barne egiturarekin ere harremanetan hasiko zitzaigun.

Baionan geroxeago filosofia eta teologia ikasten murgilduko zen garaiko erlijio eztabaidetan oso-osorik, baina badirudi bere Gramatikan dioskunaren arabera ez zela katolikoaren superstizioetara batere atxikia:

Parce que dès ventre de ma mère je suis nè très insensible pour toutes es superstitions de l'Eglise romaine (Urte [1712] 1900: 14).

Honela XVI. mendeko beste euskaldun zenbaiten moduan (Sans de Tartas mauletarra (cf. Stelling-Michaud 1980: VI, 8) eta Jean d'Etcheverry Donibane Lohizuneko 1559. urtean Genève-n ikasle bezala zeudenak (cf. Geisendorf 1957: 168, 202) eta gero Donapaleura apez protestante bezala etorri zirenak, Joanes Beraskoitzekoa 1571. urtean Rochellan *Iesus Christ gure launaren Testamentu Berria* eta beste zenbait libururen itzultzailearekin batera, Jakes Buztanobi Lakarrikoa Bastidan Leizarragaren jarraitzaile eta euskal dotrina bat ere inprimarazi omen zuena beste liburuttoen artean, Joanes de Tartas apez xohutarra (ik. Clement-Simon 1894-5: 320), eta Piarrres Landetxeberri (ibid.) eta beste zenbait gehiago (cf. Bearn ms), ikusirik Pierre d'Urtek zein nolako pertsekuzioeak pairatzen zituzten protestanteek beren sinesmenengatik, bere burua eta gogoia dirudienez erlijio erreformatuaren ildora lerratu zituen, bizarra moztu, prakadundu eta hugonote bihurtu zelarik Bearne aldean, kasu, iraganen zuen egonaldiren batean, hiztegian hitz gaskoin zenbaitek adierazten digutenaren arabera (*aditxas, komai, konpai...*). 1685. urtean Nantes-eko ediktuaren deuseztearen ondorioz, ordea, beste protestante milioierdiak egin zuen legez deserriko bidea hartu beharrean aurkituko zen, noski.

Askok babesa eta laguntza Genève-n, Amsterdam-en, Rotterdam-en eta batipat Londresen ediren zuen gure Pierre d'Urtek bezala, eta azken hiri honetan topatuko dugu bere bizitzari buruzko bigarren albiste zehatza, alegia, 1699. urtean Judith

Gautereau-rekin ezkontzen zaiguna, Artillerie-ko eleiza frantsesean Barbauld ministrari eta lekuko delarik (Minet 1925: 6). Ez dirudi, gainera, bakarrik bizitzeko egina zenik, eta alargundu ondoren bigarrenez ezkondu zen 1719. urtean Margaret Hermett-ekin, jadanik aski zaharkiturik zegoela Castle Street-eko kaperatxo ederrean (London Marriages licences. Matrimonials 1719. Guildhall Library. London, MS 10091-SS).

Bere anderea eta seme-alabak hazte eta mantentzearren George I.ak errefuxiatuentzat emandako diru laguntzetarik baliatu ahal izan zuen (Haag 1886: V, 1063), eta ziurren bere Gramatikan esker onez aipatzen duen John Chamberlayne-k "The Society for the Propagation of Christian Knowledge"ko partaideak lagunduz, ezen Mathurin Veyssière de la Croze orientalistaren gutunetan dagerren legez "amicus quidam Chamberlaynii ex oppido St Iohannis de Lutz oriundus" (Della Croze 1746: III, 370) lagunak ziren eta Urtek ordainez Chamberlaynek 1715. urtean hizkuntza anitzetara Amsterdam-en argitaratu zuen *Oratio Dominica...* deitu libururako emango zizkion, noski, bertan ageri diren hiru "Gure Aita" ezberdinak. Liburu honen sarrera David Wilkins Lambeth Palace-ko liburuzainak eta Vinsonen hitzetan Urteren "le corresponsal" (1891: I, 25), hau da gutun izkribatzaileak, idatzi zuen, eta barnean Guilielmus Surenhusius, Adrianus Rolandus, Joannes Schroederus eta beste hizkuntzalari askok parte hartu zuen. Garaiko ideiei jarraikiz, mendebaldeko eta ekialdeko hizkuntzak, erromantzeak eta ez erromantzeak gonbaratuz, agertzen saiatzen ziren hizkuntzen arteko ezberdintasunak ez zirela axaleko aldakuntzak baizik, eta Biblia interpretatuz munduko hizkuntzak oro hebreotik zetozela, etorkia Babelko dorrean sortu zen nahasmenduan zutelarik.

Era berean, garaiko hizkuntzalari galestar ospetsua zen Edward Lhwyd-ekin batera, Leibnitz-ekin eta beste askorekin uste zuten euskara Espainiako hizkuntza zaharra zela eta keltar hizkuntzen ahaidea.

David Wilkins, John Chamberlayne, Edward Lhwyd, Hans Sloane besteen artean garaiko Ingalaterrako hizkuntzalari eta jakintsuak euskaraz arduratu ziren, eta antza, Leizarraga, Vulcanius, Oihenart eta Micoletaren idazkiak zezagutzatelarik eta guttiegi iruditzen, bultzatuko zuten ziur aski Pierre d'Urte bere idazlanaren burutzera, hau da, Gramatika, Testamendu Zaharraren itzulpena eta *Dictionarium latino-Cantabricum* delakoa izkiribatza.

Pierre d'Urteren eskuizkribuak hil zenean, M. Williams welsherazko antologia baten egile zenaren eskuetara iragan ziren eta honenetatik W. Jones matematikariarengana, eta azkenik honen ikasle izan ziren Thomas eta George Parker jaun nobleen jauregira, alegia, Earl of Macclesfieldt-arren Shirburn-eko gaztelu zaharreko liburutegira, hain zuzen, oraindaino bertan dirautelarik (Vinson 1891: I, 23).

Bibliatik itzuli zuen zatia, *Ethorkia* eta *Ilkitcea*-ren 22 kapitulu Llewelyn Thomasek 1894. urtean argitaratu zuen, egin zuen edizio eder eta dotore batean. Bertan dakusakegu Pierre d'Urte, akats eta hutsune batzu landa, itzulpena berriro ez irakurtzearen ondorio, noski, idazle erraz eta arin, joskera garbi eta graziaduna, euskararen ahalmen guztien jabe, itzultzaile bikain bezain trebe agertzen zaigula.

Gramatika, berriz, Wentwort Webster jaunak argitaratu zuen 1900. urtean. Transkripzio akatsez josia egon arren, eta aski desordenaturik, benetan interesgarria dela uste dugu, bai fonetika aldetik garaiko trenkatzeaz ematen dizkigun oharrenga-

tik, bai hiztegitxoan hedadura zabalagatik, bai adizkera ugarien zerrendagatik —zeintzu duela gutti Jacques Allières irakasleak ikertu dituen— (Allières 1985, 1991), bai joskeraz dioenarengatik eta bai solas bizi eta arruntengatik, ezagutzen dugun lehen gramatika luzea Larramendiren “Ezina egina” (Salamanca 1729) baino lehenagokoa jo daitekeelarik, eta Koldo Mitxelenak bere euskal literaturaren historian dioen bezala (Michelena 1960: 87), material askoz aberatsagoz osatua eta hornitua.

Baina utzi zigun Pierre d’Urtek beste eskuizkribu bat oraindaino argitaragabe duguna, *Dictionarium Latino-cantabricum* deitua, latinezko hiru lehen letrak soilki lantzen dituen, hots, *A*, *Ab*, *Abs*-etik *Commotus* hitzeraino doakiguna. Hiru letra hauekin ordea 2457 orrialde bete zituen. Beronen kontsulta eta azterketa Gipuzkoako Diputazioan dagoen “Seminario de Filología Julio de Urquijo”-n den eta Guildford irakasle eskoziarrak Koldo Mitxelenari bidalitako kopiari esker egin ahal izan dugu. Eta heldu gara, bada, hitzaldi honen muin eta mamira: Urteren hiztegia.

Eskuizkribu orijinala, esan bezala, Ingalaterran Shirburn gazteluko liburutegian aurkitzen da (Watlington, North Library, 112 N, 13-17) bost liburuxkatan banaturik. Hasieran aditzari buruzko latinezko hamabi ohar dakar, lau orrialdez eta beste zenbait welsheraz idatziak, dirudienez nahasketa baten ondorioz.

Wentworth Webster-ek argitaratu zuen zatitxo bat *A*, *Ab*, *Abs*-etik *Abfigurire*-raino doazen orrialdeak eskuizkributik kopiatuta (Webster 1895), baina ez dirudi arreta handirik merezi izan zuenik, edo oihartzun gehiegirik ez zuen lortu orduan Urteren hiztegiak, eta horrela ia gaurdaino.

Zein hiztegi hartu zuen eredutzat Urtek? Edo, zein latin hiztegi baliatu zen latin-euskarazkoa taxutzeko? Honetaz mintzatzerakoan Webster-ek, esaten digu nola ez duen aurkitu eredia eta ez zuela Urtek, antza, erabili soilik hiztegi klasiko bat, ezen behe-latinezko hitz mordoa ematen baitu, Du Cange-ren hiztegian agertzen ez direnak ere. Horrela, bada, eredia kausitzekotan Forcellini eta Facciolati latin hiztegiak baino lehenagoko hiztegiak ongi arakatu beharko lirakeela, dio. 1502.ean Ambrosius Calepinus italiar humanistak argitaratu zuen latin hiztegiak, adibidez, aitzinakoekin gonbaratuz aurreramendu handia suposatu bazuen, hau era berean kaxkar eta atzeratua gelditu zen 1543.ean Robert Etienne-k Parisen argitaratu zuen *Latinae Linguae Thesaurus* famatuarekin, Pfeiffer-ek dioskunez (Pfeiffer 1981: II, 184). Baina humanista, protestante eta erregearen moldiztegiak honen hiztegia Forcellini-k Italian 1771. urtean argitaratu zuen arte erabiliena eta onena izan bazen, gauza berdintsua esan dezakegu argitaratu zituen beste liburu anitzez, eta bereziki *Dictionarium latino-Gallicum* (Etienne 1546) deritzanarekin, zeinarekin Urterenak latin hitzen zerrendetan eta gero frantses itzulpenen ordez euskaraz ematen dituentan baduen antza eta berdintasunik aski

Halere, dirudienez ez da hau eredu bakarra, bertan ez dauden latin hitzak ageri baitira Urterenean. Dena den, eta G. Matorék dioena frantsez hiztegiez errepika daiteke, hau da, XVI-XVII. mendeetan zail dela jakiten zein den eredia eta zein ondorengoa, zein lehena eta zein bigarrena:

Il est très difficile de déterminer (...) à une époque (des XVI^e et XVII^e siècle jusqu’à 1660) où le plagiat est la règle, qu’ils sont les ouvrages originaux qui méritent une étude approfondie (Matoré 1968: 67).

Gure ustez Urtek berea egitekoan hiztegi bat baino gehiago erabil zezakeen. Alde batetik R. Etienne-rena edo honen kopia laburtu bat, eta bestetik Londresen bertan aurki zezakeen beste latinezko hiztegiren bat, edo latin-ingeles hiztegi bat, bai Davis-ena (1632), edo bai beste norbaitena.

Hitz zerrendarekin hasi baino lehen, agertzen dira eskuizkribuan aditzari egokitutako hamabi ohar, Ll. Thomas-ek zioenez egokiago leudekeenak gramatikaren barnean ipiniak beste aditzei buruzko azterketekin batera; baina Urtek sarreran ezarri bazituen garbi eta argi uztearren izan zen hainbat eta hainbat aldiz hiztegi barrenean agertuko ziren zenbakien esanahia, adibidez:

n. 2. Quintuplex datur infinitivus modus omnium verborum (aliquibus exceptis quibus est solummodo quadruplex) numeris distinctus ut 1. *mintçacea*, 2. *mintçatçen*, 3 *mintçatu*, 4. *mintça*, 5. *mintçatuc*o vel *mintçaturen*. Loqui. &... (I, f. 1).

Infinitiboan ager daitezkeen bost mota ezberdinez mintzo zaigu, zenbait kasutan lau soilik ematen direla adieraziz eta demaigun zenbatzeari zehatz-mehatz jarraituko dio hiztegi osoan.

Darabiltzan grafiez eta laburdurez esan beharra dago anarkiko samar ageri zaigula lehen soaldian, baina honen zergatietarik bat hiztegia berrikusteko denborarik eza izan daitekeela. Minuskula eta maiuskulak ez ditu bereizten anitzetan, eta hizkien ganbioak aurkitzen baditugu batzutan hizkuntzaren erabileraren ispilutzat har litezkeenak dira, "koine" bat, eredu arautu bat sortu gabe zen garaikoak, hala *a/e* eta *ua/uba* aldaerak: *urmariatu*, *urmeriatu*, *mussua*, *mussuba*... Gramatikako kategoriak adieraztekoan badarabiltza zenbait laburdura ere, hala: *gen*(itiboa), *inf*(initiboa), *mod*(ua), *num*(eroa), *v*(ir, harra), *f*(emina, emea), *vid. sup.* (videre supra, gorago ikus), *vid. Gram.* (videre grammaticam, gramatikan ikus), *part*(izipioa), *adj*(etiboa), etabar. Sudurkaria edo nasalizazioa adierazteko bokalaren gainean marratxo bat ipintzen du: *Trojaticā*... etabar.

Bost bokal erabiltzen ditu euskararen egitura fonologikoaren legez /a, e, i, o, u/, hala: *urmariatçea*, *proverbioa*,... Dieresia ere badarabil diptongoaren bigarren bokalean, hala: *gaü*, *goiça*...

Kontsonantei dagokienez berezitasun hauetaz ohar gaitzke:

a) B/V ageri dira: *bada*, *Verresen*...

b) G-, GU^{e,i}- hots bera adierazteko darabiltza: *guztagarri*, *guerla*, *guisara*...

c) J/I nahasten ditu anitzetan: *jaiquija*, *jarijetea*...

d) C, K-, KH-, QU-, hots bera adierazteko darabiltza: *caç' eguitea*, *kaka*, *erakbararaçi*, *naiteque*...

e) L, N, P eta R bere aldakin fonetiko hasperendu LH, NH, PH, RH-ekin ageri dira: *elbe*, *janhari*, *epbe*, *erbo*...

f) LL, GN, TT, GT hitz espresiboetan darabiltza, hala: *llilluramendu*, *gnagnoac*, *ttipi*, *gtipitgoa*...

g) R-, RH- eta -RR- hots bera adierazteko darabiltza zenbait alditan: *royala*, *rhodestar*, *erre*.

h) TSS-, TÇH, TÇ- darabiltza /ç/, /ç/ eta /c/ fonemen grafia bezala: *plegutssua*, *tçbarrean*, *neglijentiça*...

i) SS-, CH-, C-, Z darabiltza /s/, /š/ eta /s/ fonemen grafia bezala: *sassogna*, *ochala*, *çabal*, *uztay*...

Hots guzti hauen ahoskeraz Urtek bere Gramatikaren 7. orrialdetik 12.eraingo ematen digu ohar interesgarriarik beste hizkuntzetakoekin gonbaratuz, "Du son de lettres et consonnes" deitu kapituluan ([1712] 1900: 7-12). Ikus dezakegu, bada, nola XVI-XVII. mendeko idazle lapurtarren ortografiari jarraikitzen dion, baina aipatzen dudan nahasmendua ere erabiliz.

Azentuaz mintzatzerakoan esan behar da Urtek batzutan Leizarragak, Tartasek, Belak, eta Oihenartek egiten zuten bezala kakotxoak ere ipintzen zituela zenbait bokal gainean. Pierre Lafittek azentua aztertzen duenean E. Spencer Dodgson-ek 1898. urtean argitaratu zuen *Ethorkia*-n oinarritzen da bere azterketa egiteko (Lafitte 1967) eta Koldo Mitxelenak, bertan oinarriturik, bostgarren azentu motan sailkatzen du bere zenbait adierazkai emanez (Michelena 1972, 1977). Hona hemen Urteren hiztegia aztertuz gordetzen duen araudia:

1) Silaba bateko hitzek ez dute kakorik hartzen: *jo, ur...*

2) Silaba biko hitz anitz paroxitonotzat ematen ditu: *húntça, éta, çbóla...* Mugatzailea hartzen dutenean paroxitonoak dira ere zenbait hitz, hala: *maingúa, lúcea, itssúa...*

3) Hiru silabatako hitz anitz paroxitonotzat hartzen ditu: *escára, itçúra, idúríz.*

4) Proparoxitonoak Lafittek dioen bezala hitz anitzekin ageri dira: *áçhóla, pintórea...*

5) Lafitteren arabera azentua beti silaba berean dirau, eta Koldo Mitxelenak dioen legez, kasuarekin paradigmaticoa da, ez lumeroak ez mugatzaileak ez dutelarik zerikustekorik: *egúnetic, egúnera; arté, artétic, artétican...* Baina badira kasuak hau ukatzen dutenak, hala nola: *escára-escarázcoa, dictionário-diccionarióa...*

6) Aditz izenak batzutan paroxitonoak dira, baina bestetan proparoxitonoak: *berstéa, deitçéa, etssitçéa*, baina *icendátçea, emátea, eçártçea...*

7) Atzizkirik duten hitzek honen lehen silaban daramate azentua, honela: *itssúa, ittutássuna, ikaragárria, likhisquería, dantçatégua, buruçáguia, berancórra...*

Azentuaz landa joskeraz ere zenbait ohar ematen dizkigu, adibidez "Cantabricismus" deitzen duen joskera mota, exenplu hauetan bezala:

a) "*ussantçaren podoreac garáitua*. Hic est cantabricismus"

b) "*arno urac garaitua, garaituricácoa, olbatua, olhaturicácoa*. Praxis haec ultima fraequens est cantabrice"

c) "*Jaincóz haiceztátua*. Hic est cantabricismus."

Beraz, adierazi nahi digu euskarak modu berezi bat duela aktibotasuna eta eraginkortasuna agertzeko. Alde batetik -K morfema erabiliz a) eta b)-n bezala eta bestetik -Z morfemaren bidez, c) adibidean legez. Honek, noski, badu izen bat "ablativus agentis" berak ere gramatika erabiltzen duena "Passivis additur ablativus agentis. *Hautaz maitatua da, betaz biguindua da*" (Urte [1712] 1900: 445), eta Lafittek ere beste izenez, "médiatif" deitzen duena bere gramatika (amaz gastatua da; Lafitte 1978: 344).

Beti esan ohi da errefrauak, atsotitzak, ditxoak, erran komunak, zaharrek eta arruntak hizkuntza baten jitearen gordailu direla, eta historian zehar hefferi honen jakituriazko esaldi bitxiak direla, eta ez direla inondik ere mespretxagarri balio

handiko baizik. Honela kontsideraturik idazle handiek beren idaztietan maiz erabiltzen dituzte eta jasotzen, Oihenartek (1657: preface) dioen bezala:

qu'ils s'estoient conservez par le moyen de leur brieveté, & l'agreable façon qu'ils ont d'exprimer les choses. De là est venu que plusieurs grands personnages n'ont pas dédaigné d'en faire des recueils.

Urtek Garibai, Lope Isastikoa, Jakes Belakoa, Voltaire, Oihenart eta beste askok bezala ez bazuen bilduma bat egin ere, gogoan zituen eta gogora zetozkion atsotit-zak sakabanaturik ematen dizkigu perla bitxien moduan, adibideok bezalaxe:

Irabaciac ognac arin ditu, Eztu orgac beharriric, Hantçiren han cignac eta mignac.

Hitzez-hitz itzultzen bazuen ere Urtek ematen dizkigu bitxikeria frango han-hemenka gaiak behaturik edo kilikaturik, esate baterako Euskalerriko historiaren oihartzunak aipatzen dizkigunean, honela:

Augustus emperadoreac azpiratçen ohi çuen Escalherria, partez beronec, partez bere fortuna onaren bidez vel bertçeei hartaracotç escua emanic.

Edo beste batean Uztaritzeko emakumeen ile apainduraz mintzo zaigunean:

Calyptra. Uztharizco mothoa. Haec est genus quoddam Calyptrae mulier in oppido Uztharitç in prov. Laphurdi.

Edo teologiako ikasketetan ikasitakorik ematen digun pasadizo honetan:

Apolinario hereticoa zegnac baitçioen hitçac vel berboac hartu çuela haragia arima arraçoindunic gabe eta etçela Iessu Christoren baithan natura bat baicen.

Edo eta aipamenez ari garenez *Biblia*, *Alkoranoa*, Platonen *Errepublikak*, *Batrachomymachia*, *Apokalipsioa*, eta

Apocolocynthisis. Claudio Emperadorearen heriotçearen gagnean, cégna phoçoátua içatu baitçen onjóac vel peretchícuac janic.

Beraz, garaiko seme bezala ohizko ziren liburuak eta jakite iturriak zerabiltzan Urtek, hau da Biblia eta erlijiozko beste liburuak, hala nola latin eta grekerazko klasikoak.

Goazen, bada, orain hertsiki lotzera nolako prozedura zerabilen itzulpenetan ikusteari eta batez ere hitzak moldatzeko, taxutzeko eta eratzeko zuen modu propioa, nola batzen zituen aurrizki, artizki eta atzizkiak erroekin, eta hauek beren artean, sinonimoak eta alor semantikoak aztertzeraz laburzki bada ere.

Hitz onomatopeikoek beren hotsen bidez badirudi ekintza bera nahi dutela errepikatu, eta horregatik hizkuntzaren lehenetarikoak omen dira, batzuen eritziz, izen zaharrak, "mots primitifs" sailekoak. Bere balio adierazkorrengatik Lafittek "interjections improprement dites" (Lafitte 1978: 182) delakoekin batera sartzen ditu eta Euskaltzaindiaren gramatikak honela aipatzen ditu:

Konbentzioz finkatuak direlako, alegia, ditu hizkuntza bakoitzak bere interjekzioak gutxi edo asko besterenetik desberdinak (1985: 510).

Urtek ere erabiltzen ditu hotsen imitazio gisara, hauexek: "aü aü eguitea", "bé eguitea", "bir, bir, bir", "fa, fa", "goill, goill, goill", "har har har nigar", "tintin dognua" etabar.

M. Zalbidek lantxo batean hitz eraketaz ari zaigularik sailkatze bat proposatzen digu, eta honen arabera antolatu dugu gure azterketa, hots, mailegutza, eratorpena, konposizioa, zabalkuntza semantikoa eta berrerapen lexikala (Zalbide 1982: 197), baina hiru lehenak soilki ikusiko ditugu hemen.

Mailegu hitzak direla eta, euskarak jatorrizko ala arrotz zituen hitzez eritziak eta eztabaidak ugariak izan dira. Axularrek, Jakes Belakoak eta Arnaud Oihenartek besteren artean XVII. mendean bere eritzia eman zuten eta XVIII.ean Larramendik egin hiztegiak eragin handirik ukan zuen bai Hego, bai Ipar Euskalerrian, bai Lafittek (1931: 126-8), bai Peillenek (1983), bai Mitxelenak (1961), bai Pagolak (1984) eta bai Lakarrak (1985) erakusten diguten bezala. Baina Urtek inongo aurre-eritziarik gabe, nondikakoa axola gutti zaiolarik erabili zituen maileguzko hitz mordoak, hala nola, *abade*, *abadesa*, *abandonatu*, *abantail*, *avaricia*, *abaricioso*...

Batzuetan gatzelaniatik edo frantses etorkizkoak ez ezik bearneratik hartuak ere bai bestetan, hala: *aditxats*, *komai*, *konpai*... Eta ingelesetik ere. Adibidez, bati usina edo doministikua jo diola adierazteko "blessus" darabil, "Bless Iessus"-en laburpena, honela, "ethortçen tçaie Blessus".

Aurrizkiei bagagozkie, beti esan ohi da euskaraz ez dagoela aurrizkirik ia, *des-* eta honen parekoak kenduz gero:

No se descubren más que conatos aislados, que sólo en algún caso (*des-* alternando con *ez-*, la partícula negativa vasca en *desegin* 'deshacer' *des-lez berdin* 'desigual', etc, *mes-* en algunos dialectos) ha llegado a tener vitalidad (Mitxelena 1978: 24).

Baina Urtek *des-lez-/mes-* aurrizkiez landa badarabil sail eder bat, besteak beste hauexek: *anta-lante-lanti-* (*antagonista*, *anteciano*, *antifona*), *kontra-* (*kontrabanda*, *kontrasorgin*...), *artçhi-* (*artçhiapez*, *artçhiduque*, *artçhipizpizu*...), *biz-* (*bizerregue*, *bizcun-dea*...) eta *erre-larra-* (*erreberritu*, *erredoblatu*, *arrabota*...).

Atzizki maileguak, noski, ugariagoak dira euskaraz eta Urteren baitan ere agertzen dira pila, hala: *-antçal-antçial-entçia* (*akhabantçia*, *abundantçia*, *abstinentçia*...), *-ecia* (*finecía*, *tristecía*...), *-ano* (*comediano*, *africanos*...), *-ario* (*boticario*, *abersario*...), *-ero* (*banquero*, *establero*...), *-ista* (*antagonista*, *droguista*...), *-mendul-mentu* (*abertimendu*, *Parlamentu*...), *-os(o)* (*abaricios*, *balioso*), *-sa* (*abadesa*, *prioresa*...), *-tadel-tate* (*birjinitade*, *birjinitate*, *pietade*, *pietate*), *-cio(ne)* (*adoracioa*, *adoracionea*, *acussacionea*...).

Dakusakegunez ez du inongo kupidarik Urtek bereganatzeko bai latinetik edo bai erromantzeetatik datozkiokeen aurrizki edo atzizkiak bere beharretarako, hots, itzultze lanerako nahitanahiezkoak zeritzaizkionak erabiltzeko, zio nagusi bat soilki izanik, alegia, bere jaio eta hazerrian euskaldunen artean erabilia izatearena.

Hitz eratorriak "autonomia lexical" deritzana osoa luketen erroi hizki bat edo gehiago eransten zaizkien haiek lirateke, eta era honetako anitz darabiltza Urtek, adibidez: *aitcin-* (*aitcingidari*, *aitcinjoaile*...), *atce-* (*atcemarte*, *atcemartequia*...), *bassa-* Lafittek dioenez aurrizki bizienetakoa eta emankorrenetakoa bai landare, bai abere, eta bai pertsoneri ere eransten zaiena (Lafitte 1978: 38) (*bassabelhar*, *bassabaratchuri*, *bassaabre*, *bassoillo*, *bassaguiçon*... *bassandre*...), *bacha-* ematen digu Urtek gero, antza, etimologia faltsoz *be-* eman duena, alegia, "bachanafartarra", eta ez "benapartarra". *Ber-* erre-ren pareko eta ordain bezala badarabil ere (*berreguign*, *berrehun*...), *bertcen-* ahaidetasunezko kasu batzu adierazteko (*bertcencussigna*...), *-sa* atzizki arrotzaren or-

dez emetasuna adierazteko *ema-* darabil, bai Bibliaren itzulpenean, bai hiztegian (*emabalesaltçaillea, emaguiçajalea, emaesclabo, emasorguigna...*), ez- aurrizkia xit emankor zaio ere ta hor ematen dizkigu (*ezacordatu, ezardietssi, ezdeussequign...*) mordoia, *baz-* aditzaren infinitiboa laugarren eran batipat familiako arazoan adierazkarri dagerkigu (*bazaita, bazama, bazamalur, bazherri...*), *leben-* aurrizki bezala ere demaigu (*lebensorthu, lebencussin...*), *ugaz-* aurrizkia *-izun* atzizkiaren kide bezala eta zentzu berarekin (*ugazaita, ugazama, ugazalaba...*).

Faktitiboak ere ugari dira agertzen hiztegiaren orrialdeetan zehar beren atzizki eta guzti, hala nola: *-araci, -arazgarri, -aracitçaille, -eraguin, -eraguille, -eraguingarri,...* Ithurriren hitzetan "infinififs causatifs" (1985: 378) diren horiek eta beren ondorioak porrostaka azaltzen dira: *biguiaraci, hillaraci, adisquidearazgarri, adiaracitçaille, bigueraguin, hilleraguin, ahantceraguigngarri...*

Hain litzateke demaizkigun atzizki ororen exenplu eta adibideen zerrenda luzea eta amaiezina, sailka bakarrik aipatuko ditugula:

- a) Ofizioak eta teknologia: *-ari, -(e)gile, -gin, -ko, -lari, -(ai)le, -tzaile, -zain, -zale.*
- b) Ahaidetasuna eta nondikoak: *-(t/d)ar, -iar, -so, -gignarraba, -bitxi, -unide.*
- c) Ahalmen eta nortasun on eta gaitzak: *-dun, -duria, -gaitz, -garri, -keria, -kor, -tasun, -tzar.*
- d) Leku eta uneak: *-alde, -aldi, -azpi, -be, -leku, -tegi, -toki, -pe, -baitan, -enean.*
- e) Ugaritasuna eta eza: *-anda, -bat, -erdi, -di, -gabe, -tsu.*
- f) Ekintza eta modua: *-ka.*
- g) Desio eta gurak: *-gura, -gale, -kar, -zale.*
- h) Ttipierazleak: *-kilo, -tila, -tto, -txo, -txiki, -ttipi -(i)ño, -xko, -xki, -xume.*

Hitz konposatuak hizkuntzaren baitan autonomia osoa duten bi elementu lexikal elkartzuz sortzen diren esanahi berriak osatzen dutenak dira. Bere barne muinean elipsia dago. Lafittek bere gramatikan hamabi konposizio mota ezberdin aipatzen baldin baditu, Zalbidetik gorago aipatutako artikuluan bost demaizkigu eta horien arabera Urteren zenbait exenplu azalduko dugu:

- a) Izena + izena. Eredua: *Gaztaifabrika, ahuntçadar, akbelarre, alupiçar...*
- b) Osagarri zuzena + izeneragilea. Eredua: *Urresaltzaille, balesteguille, balioemaille, bankarruteguille...*
- c) Sintetiko eragilea. Eredua: *Artzain, abreçain, banderçain, ainguraçain, oihançain...*
- d) Izena + adjetiboa. Eredua: *Ankamotz, grazieder, kastabici, adimferde...*
- e) Aditza + izena. Eredua: *Idazmakina, arraparraign, ebortçlekhu, escapalekhu...*

Baditu Urtek bere hiztegian eredu konplexuagorik, ordea, hiru eta lau elementu ezberdinen loturaz sortutakoak, hala nola: *tintaplumatoqui, iguzquilkhialde, ikusera-khustegui, kukushilbassabelhar, salerosbiletche...*, etabar, baina uste dut adibideekin aski dugula oraingoz.

J. A. Letamendiak Axularren itzulpen modua aztertzen duenean (1981: 165) komentatzen digu nola Leizarragak Axularrek baino askoz ere hertsiaigo, literalago itzultzen zituen testuak, honek lege erretorikoen ezagutzaren eraginez eta batipat idazkera propio baten moldatzeko borondatearen ondorioz, "amplificatio" delakoa erabiltzen baitu beste erretorika irudien artean. Baina, Axular Urterekin gonbaratuz gero, ohartzen gara honek latin hitzak itzultzerakoan askoz ere oparoago, joriago eta

ugariago ematen dizkigula ordainak. Hala Axularrek “agricola”, itzultzean *laboraria* badarabil, Urtek beste guztiok ematen dizkigu: *nekhacı́lea, jorralária, haintçurlária, mahastiçagna, sagardiçáğna, baratçeçána...* Edo-eta “animus” itzultzerakoan Gero-n *borondate* soilki ematen bada, Urtek hemeretzi hitzok demaizkigu: *opinio(ne)a, sentimendua, izpiritua, adiméndua, intelijéncia, eçagutça, jujaméndua, gogóa, nahia, guticia, umórea, pasio(ne)a, imajinacio(ne)a, fantésia, borondátea, asmúa, inclinacio(ne)a, afeccion(ne)a, jaidúra, pentura* eta *bibotça*.

Garaiko ohiturari jarraikiz, beraz, sinonimoak pilatzen zituen bata bestearen atzetik, bere hizkuntza altxor aberatsa dela adierazten digularik, eta bertan, noski, hiztegi sinonimogileek badute zer ikas, zer azter eta zer ediren.

Azkenik Urtek darabiltzan arlo semantikoen zenbait xehetasun emango ditugu. Ez da euskaraz UZEIk argitaratzen dituen hiztegi teknikoek aparte eta bai Aranart-Lafittek (d.g.), bai Euskaltzaindiak 1975ean argitaratuaz landa hitz sailak zentzuaren arabera zerrendatzen duen hiztegi gehiegirik. Urte saiatu zen bere Gramatikan besteek bezala, hitz sailak zentzuaren ildoz pilatzen, aurkibidean honela ordenatzen duelarik hiztegia:

Des choses qui se fondent, des choses d'une Boutique, gens de metier, etc, des vers, bêtes venimeuses, des metiers, appartenance de l'âme, des sens, de quelques autres noms substantifs (Table des Matières).

Baina hiztegian ez du sailkatze berezirik egiten, hitz bitxirik eman arren. Adibidez, astronomiazkoak (*Atcemarie, hariç guardarguiçagui...*), geografia fisikoak (*begoalde contraco uztaiia, eguberdi, negubaste...*), egurats eta denborazkoak (*airelekbhu, hormabendo, canicula...*) mineralogiazko pilo bat (*bordetsai harri preciatua, harri preciatu ferdeçboa...*), botanikazkoak (240tik gora) askotan Larramendirengan agertzen diren berdintsuak, hala nola sendagintzarako balio dutenak (*sudurodolbelharra, betibicibelharra, odolgueldibelharra, unguierdibelharra...*). Donibandarra zenez gero itsas hiztegi zabaldu eta arrain izenak ere oparo demaizkigu (*çurdarragna, atun bastarta, kbromarragna...*). Basabereak, etxeabereak, hegaztiak, herrestakiak eta marmaloak, bakoitzak bere izen propioa darama Urteren hiztegian. Giza soina eta gorputz funtzioak aipatzerakoan ematen dizkigu batzu xit bereziak, batipat, seksoarekin zerikustekorik dutenak, hala nola; *alu, potchor, pito, aluçale, pitoçale, guiçachigorra, alupiçarrac...* etabar, baina “vulgarismus” direla adierazten digu eta “utete (sic) caute”, hots, kontuz eta arreta handiz erabiltzeko gomendatzen du, besteentzat, noski, tabu zirenez ez zuten izaterik ere. Eritasunak, sendagaiak, jan-edanak, jazkerak, apainkerak adierazten dutenatarik ere badu multzo ederrik. Hizkuntza eta filosofia sailetan aberatsenatarikoak metrikakoa eta erretorika iñdrietakoa du garaiko hiztegi klasikoetan ohi zen bezalaxe. Literaturaz, musikaz, dantzaz, antzertiaz, arkitekturaz, pinturaz, eskulturaz, erlijioaz eta eskolaz ere badu perla bitxirik, ez Azkue ez eta Lhanderen hiztegiengan agertzen ez direnak. Arlo berezientakoa ahaidetasuna adierazten duena du (*amirabrasso, aitirabrasso, aitaitasso, bertencussigna, ugazalaba, hazaizpa...*) Bähr hizkuntzalariak berak aipatzen dituenak (Bähr 1935). Arlo edo alor semantikoekin bukatzeko azpimarratu beharra da aberatsenatarikoa ofizio izenena dela teknologiarenekin batera, hitz galdu eta benetan ongi taxutu eta asmatuak demaizkigularik (*ainguraçagn, alkimiguin, distilelte, etabar*).

Amaitzeko, beraz, esan dezadan laister argitaratzen bada Urteren hiztegia (eta hori espero dugu), hiztegitik, gramatikari, ikertzaile eta euskaltzaleek oro ediren duketela bere baitan zer ikasirik, altxor bitxirik. Urtek hain ongi XVII. mendearen bigarren partean ikasi, gorde eta gogoratzen zuen Donibane Lohizuneko hizkera, kostaldeko hizkuntzaren gordailu eta hitz kutxa, benetan ederra orok laister dastatzeko zoria ukan dezagula.

Bibliografia

- Allières, J., 1985, "Statut et limites du polymorphisme morphologique. Le verbe dans la Grammaire Cantabrique Basque de Pierre d'Urte (1712). 1^e Partie", in J. L. Melena (arg.), *Symbolae L. Mitxelena Oblatae...*, Gasteiz, E.H.U., 889-921.
- , 1991, "Statut et limites du polymorphisme morphologique: le verbe dans la Grammaire cantabrique basque de Pierre d'Urte (1712): Seconde partie (les auxiliaires)", in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, "ASJU-ren Gehigarriak" 14, Donostia, 767-812.
- Aranart, Ph., Lafitte, P., (d. g.), *Les mots basques groupés d'après le sens*, Ikas arg., Baiona.
- Archives Municipales de Saint-Jean-de-Luz. Baptêmes, Année 1664.
- Azkue, R. M., 1928, "Manuscritos vascos en Inglaterra", *Euskera* IX.
- Bähr, G., 1935, *Los nombres de parentesco en vascuence*, Bermeo.
- Béarn, Nicolas, Eglises et pasteurs 1557-1685. Bibliothèque du protestantisme français. MS 952.
- , Pasteurs A-G, MS 548. Bibliothèque du protestantisme. Paris.
- Bela, J. C., *Tablettes*, = Clement-Simon, C., 1894-5, "Le protestantisme et l'erudition dans le Pays Basque au commencement du XVII^e siècle. Jacques de Bela. Biographie, Extraits", BSSLAP.
- Chamberlayne, J., 1715, *Oratio dominica...*, Amsterdam.
- Davis, J., 1632, *Antiquae Linguae Britannicae dictionarium duplex, prius britannico-latinum, posterius, latino-britannicum*, Londres.
- Della Croze, M., 1746, *Thesauri Epistolici Lacroziani*, III, Lipsiae.
- Du Cange, Ch., 1678, *Glossarium Mediae et Infimae Latinitatis*, Paris.
- Etienne, R., 1546, *Dictionarium latino-gallicum*, Lutetiae.
- Euskaltzaindia, 1975, *Zortzi urte arteko hiztegia*, (= *Euskera* XXX), Donostia.
- , 1985, *Euskal Gramatika: leben urratsak*, Iruñea.
- Geisendorf, P. F., 1957, *Livre des habitants de Genève*, I, 1549-1560, Droz, Genève.
- Haag, E., 1886, *La France protestante*, Paris.
- Ithurri, A., 1985, *Grammaire basque, dialecte labourdine*, Baiona.
- Lafitte, P., 1931, *Euskaldunen Loretegia*, XVI.garren mendetik hunatako liburutarik bildua. *Leben zatia 1545-1800*, Baiona.
- , 1967, "L'accentuation labourdine au XVII^e siècle selon L'Étorquia de P. d'Urte", "L'Art Poétique Basque d'Arnaud d'Oyhenart", *GH*.
- , 1978, *Grammaire basque, navarro-labourdin littéraire*, 3. arg. Donostia.
- Lakarra, J. A., 1985, "Larramendiren hiztegitzaren inguruan", *ASJU* XIX-1, 9-50.
- Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido. Arte de la lengua Bascongada*, Salamanca.
- Leizarraga, J., 1571, *Jesus Christ Gure launaren Testamentu Berria...* P. Hautin, Rochella.
- Letamendia, J. A., 1981, "Equivalencias léxicas vasco-latinas en el Gero de Axular", *ASJU* XV.
- London Marriages licences. Matrimonials 1719. Guildhall Library. London, MS 10091-SS.

- Martin, R., 1969, "Le Trésor de la langue française et la méthode lexicographique", *Langue française* II.
- Matoré, G., 1968, *Historie des dictionnaires français*, Paris.
- Minet, W. S., 1925, *Register of the churches of the Tabernacle Glass-house Street and Leicester fields, 1688-1783*, London.
- Mitxelena, L., 1960, *Historia de la literatura vasca*, Madrid.
- , 1961, "Euskal iztegiak XVII-XVIII. garren mendeetan", *Euskera* VI, 7-22.
- , 1972 "A note on Old Labourdin Accentuation", *ASJU* VI, 110-121.
- , 1977, *Fonética histórica vasca*, 3. arg., "ASJU-ren Gehigarriak" IV, Donostia.
- , 1978, "El elemento latino-románico en la lengua vasca", *FLV* 17.
- d'Oyhenart, A., *Les proverbes basques recueillis par...*, 1657, Paris.
- Pagola, I., 1984, "Neologismos en los Juegos Florales", *ASJU* XVIII-1, 53-160.
- Peillen, Tx., 1983, (arg.), *Jusef Egiategi, Lehen liburua edo Filosofo Huskaldunaren ekbeia (1783)*, Bilbo.
- Pfeiffer, R., 1981, *Historia de la filología clásica de 1300 a 1850*, II, Madrid.
- Stelling-Michaud, S., 1980, *Le livre du Recteur de l'Académie de Genève (1559-1878)*, Droz, Genève.
- Shirburn Castle. Oxon, Watlington, North Library, 112 N.
- Thomas, Ll., 1894, *Anecdota Oxoniensia. The Earliest Translation of the Old Testament into the Basque Language (A fragment)*, by Pierre d'Urte of St. Jean-de-Luz, circ. 1700, edited from a MS in the Library of Shirburn Castle, Oxfordshire. Oxford, at the Clarendon Press.
- d'Urte, P., [1712] 1900, *Grammaire Cantabrique Basque*, W. Websterren arg., Bagnères-de-Bigorre.
- , [1715] 1989, *Dictionarium linguae cantabricae*, P. Urkizuren arg., Mundaiz, Donostia.
- Vinson, J., 1891, *Essai d'une Bibliographie de la langue Basque*, Paris.
- Webster, W., 1895, *Le dictionnaire latin-basque de Pierre d'Urte*, Baiona.
- Zalbide, M., 1982, "Hitz-eraketa: Lexiko sorkuntzarako baliabideak", in U.Z.E.I. *Hizkuntzalaritza Hiztegia*, Donostia.

Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1880)

LUIS MICHELENA

Elegir es siempre trabajoso y elegir lengua en una ocasión como ésta es doloroso, al menos para mí, además de molesto. Pesadas las razones que me empujaban en uno u otro sentido, he llegado a la conclusión, dadas las circunstancias, de que valía más no escoger el castellano, salvo en esta brevísima explicación.

En efecto, es difícil que quien las haya leído se olvide de las palabras de don Julián Elorza, tan entrañablemente unido a esta Sociedad cuyo renacimiento no ha podido ver, al presentar la conferencia de don Julio de Urquijo (p. 404 de las Actas) sobre «El estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca».

Ello, a mi modo de ver, demuestra con toda elocuencia el interés que tenemos todos de que nuestra peculiar lengua salga de la postración... y en que la difundamos, sin temor ni tibiezas, por todos los ámbitos del pueblo vasco a fin de que de esa manera podamos celebrar, en fecha no muy lejana, un Congreso en cuya convocatoria podamos decir lo que no hemos podido ahora: la lengua oficial de este Congreso será el Euskera.

Estoy seguro de que estas palabras de don Julián no tienen el sentido exclusivista que una lectura literal, que no tomara en cuenta la situación, podría atribuirles. En todo caso, a mí no me mueve ningún interés de esa clase. He pensado simplemente que, si la lengua vasca puede y debe tener oficialidad en algún caso, éste ha de ser sin ir más lejos la sección del Congreso dedicada a ella misma. Esto es lo que nos sucede, por ejemplo, en la Universidad, y me parece natural que ahora ocurra lo mismo.

Añado una observación como final de este principio. Un estudio detenido de la situación lingüística de Vasconia, y empleo deliberadamente el término románico, durante los siglos XVIII-XIX o cualesquiera otros, supondría también una consideración atenta de los romances hablados en sus tierras. No puedo entrar aquí y ahora en esa materia: aun sin salir del campo que se me ha asignado, creo que lo referente al romance quedará bien dibujado aunque sólo sea a contraluz. No hay mayor necesidad de hablar de su avance si se toca el retroceso del vascuence.

* * *

1. Kongreso honetan egotzi zaidan zeregina 1918ko lehenbiziko hartan Urkixo jaunak bere gain hartu zuenari dagokio nolazpait ere, erdaraz aipatu berri dudanari. Egokitazuna, ez dago esan beharrik, gaiaren funtsari eta mamiari, bes-

* *Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa*, Bilbo 1983, 237-250. or.

tela esan euskarari, dihoakio. Egokitasunaren aldamenean, ordea, ez dira desegokitasunak eskas eta ez dira, bestalde, axolarikgabeak.

Urkixoren gaia, izenburuak argi eta garbi adierazten duenez, ez zen euskara izan zuzen-zuzenean. Gogoan zuena ez zen hizkuntza eta hizkuntzaren gorabeherak, hizkuntzaren inguruan egina zegoen eta egiten ari zen ikerlana bai-zik, filologia eta hizkuntzalaritzaren aldetik hain justu, bi hitz hauek orduan (Urkixoren ingurunean batipat) edo hitz horiek aditzera ematen dituzten gogoetak aski ongi bereizten ez ziren arren. Orduko ez eta etorkizuneko ez ere mintzatu zen, ezinbestean, hizkuntzari buruz, garai hartako eztabaida latzen oihartzuna Oñatira zekarrelarik. Ez genuke, nik uste, gehiegi irri eta farre egin behar azaltzen ziren iritzi-arrazoiez, beste horrenbeste egingo baitute guk ahotan darabilzagunez 65 urte barru. Nolanahi ere den, badirudi Urkixok hizkuntzalaritzari (eta Schuchardtek ere zekarrena hizkuntzalaritza historikoa zen) guk orain opako geniokeen baino eragin eta ondorio larriagoa aitortzen diola, gidari eta lemazain gisa.

Ezarri zaizkigun mugarrietarik irten gabe, XVIII-XIX. mende barruan alegia (1700-1880 bitartean, zehazkiago), hiru punturen inguruan mintzatu nahi nuke, labur eta arinki noraezean, besterik ezinean. Hizkuntzaren egoeraz hitz egin beharko dut aurren-aurrenik, eta euskal literaturaz ondoren: idatzirik dagoena literatura izango dugu saio honetan, nahiz paperek artikulu fedekoak edo etxearen zein erleen gobernua tratatu. Komeni baita dagoeneko esatea, bestetan sartu baino lehen, hizkuntza eta literatura elkarrekin bortizki kateatuak agertzen zaizkigula euskararen kondairan barrena. Izan ere, hizkuntzaren lurra eta mugak mehartu eta murriztu ahala, hedatzen eta aberasten ari dira literaturarenak. Eta ondorio horren balioa ez da bi mende horietan ahitzen.

Urkixok erabili zuen puntua ere erabili beharko dut azkenik, nahi eta nahi ez. Bestela esan, eusko ikaskuntzaren zati den euskal ikaskuntzaz mintzatu beharko dut, agindutako mugetan, gramatika, hiztegi eta euskarari dagozkion gainerakoez: sail horretan sartzen zaizkigu, besteak beste, Urte, Larramendi, Astarloa eta Mogel eta geroagokoak gainera. Berebiziko pisua dute azkeneko biek arlo honetan ere, eta bi arrazoigatik gutxienez: Garate jaunak azpimarratu izan duen gure kulturaren gailur horretan ari direlako lanean, 1794-1808ko bitarte horretan, eta gure bitarteko izan zirelako kanpotarrekin. 1800 inguruan agertzen baita Humboldt gure artean eta honek, gure berri jakin ondoren, euskararen berri onak zabalduko ditu European eta European eraskinetan, ia aipamen soiletan gelditu ziren lehenagokoek egin ez zuten bezala. L. M. Siculok esan nahi dut edo Bonaventura Vulcanius-ek, Merulak, Scaligerok eta bestek, Adelung-Vater, Humboldten bultzagile gertatu zirenak barne.

Orduantxe, mende-mugaren aldamenean hasi ziren halabeharrez argitaratzen, Espainian eta gaztelaniaz, Hervás-en liburu trinkoak, honek *de omni lingua* idatzi zituenak. Eta, nahiz Larramendi eta beste euskaldunen mendeko den beti eremu horretan, euskarak burua agerian ateratzen du orobatasun horretan.

2. 1700ean, urte hori ezarri digutenez gero abiapuntutzat, zenbait gauzaren jabe da oraindik Euskal-herria, pare baten jabe batipat, eta diodan bidenabar hemen eta gero izen horretaz izendatuko dudana ez dela XIX. mendean «Zazpiak bat» ikurpean bilduko den lurralde mordoa baizik. Euskaldunez kanpora, bada hor, dakigunez, erdaldunik ere.

Bietarik bat hain zuzen aipatu dudana hizkuntza da. Izan ere, mendebal-alde honetako gainontzeko eskualdeak hartzen baditugu konparaketarako, ez da gurea

izan ezik aspaldietako hizkuntzarik mintzaira indoeuoparren bultzadaz, eta latinarenaz azkenik eta batipat ito ez denik. Nornahik aski harrigarri deritza iraute etengabe horri, eta horrela iritzi behar ere. Artean bederen ez du inork, jende piloa saiatu delarik, esplikazio oso-beterik aurkitu.

Bistan daukagu euskarak erro sendoak zituela gure herrian landatuak, eta komeni genuke orain artekoak baino ikerlan sakonagoei ekingo bagenie zer-nolakoak ziren jakiteko. Fergusonek ez zekien ongi zer gerta zitekeen hedatu zuen «diglosia» hitzarekin eta hitzak azaltzen edo estaltzen duen gogoetarekin: ezin asma zezakeen, lerrenak egirik ere, hortik sortuko zela euskarak dituen eta izan dituen nolanahiko gaitzen argibidea. Diglosiak joa dagoen egoeran, ez zaio orain beheko maila baizik aitortzen gure hizkuntzari. Beldur naiz, haatik, ez ote ziren gauzak bestela gertatzen gurean, ez baitaiteke izan azpiko eta morrontzako hizkuntzarik mendez-mende iraungo duenik gureak bezala.

Maila nagusiak eta apalagoak, uste dudanez eta Sánchez Carrión-en iritziari narraiolakoan nago, barren eta kanpo neurtu behar dira, ez goi eta behe, hemengo eta oraingo ohituraren arabera. Idatzi, noski, erdaraz idazten zen edonon eta ofizialtasuna, axalekoa bederen (ahotik belarrirakoa ez baitago gehienetan jasorik), erdarari, erdareki hobe, zegokion. Baina eginkizun goitar eta dotoreago hauek ez ziren behar bada, ez ziren segur aski, deus asko eguna joan eta eguna etorri erabiltzen ziren oinarritzko eta premiazkoenen aldamenean. Halaz guztiz, egoera horrek berekin zeraman aldakortasuna, ez baitzegoen aski tinko etortzeko ziren larrialdiei gogor egiteko. Mugak urtzen hasiak ziren aspaldidanik eta euskal eremuak urritzen erdararen aldan, erdararekin aurrez-aurre, kemenak ahultzen eta makaltzen baitzihoazen. Barrengo harra ere, hiri larrietan nabarienik, abiatua zen lanean.

Bigarrenoz, bagenuen besterik 1700ean, hizkuntzaz kanpo: foruak, lege zaharrak edo nahi den gisa izenda daitezkeen hein batetako burujabetasunaren agiriak, eta hein batetakoak diot ez delako inor ez ezer, Jainkoaz beheiti, bere buruaren jabe oso. Legeok tokian tokikoak ziren, hori guretarrei maizegi atzentzen bazaie ere. Holakoak nahiz halakoak, baziren, izan, zein ahulago zein sendoago. Eta gure jendeak, erabat hartzen badugu, gogokc, guztiz gogoko, zituen, eta ez zegoen jende hori bertan behera uzteko prest bere baitarik. Puntu hau berriz ukitu beharko dut bereziki eta luzaroago.

Hizkuntzarekin gertatzen den antzera, ez da garbieroegi ikusten nola bere hartan iraun zuten antzinadanik zetozen direlako lege horiek. Foruak, maiz entzuten dugu horrelakorik, nonnahi aurki daitezke, edonongo hiri eta eskualdeetan. Hau egia delarik, ordea, eta egia delako hain justu, sortzen zaigu ezin askatuzko orapiloa. Han-hemengo ezin konta-ahala zirenok suntsitu ziren, desagertu, eta ez dute aspaldian indarririk; balio, historigileentzat balio dute eta, onenean ere, restu-argitaratzaileentzat gainera. Gureak, berriz, zutik gelditu ziren XVIII. mendea arte eta, izatekotan ere, sendotu egin ziren, argaldu beharrean. Egungo egunean bertan, nabari dugu, zuzenka eta zeharka, haien errainua gure egintzetan, gure oroitzapenetan ez ezik.

Geurezko genituen eskubideak ez ziren (sekula, behar bada) etxeko hizkuntzaren alde erabiliak izan, gorengo gobernu mailan behintzat. Gure arbasoek ez zuten, halaz guztiz, gogor hartu hizkuntza, nik axalekotzat jotzen ditudan kasu batzuetan baizik. Ukatu izan didate hori horrela zela, baina lehengoan irauten dut eta iraungo, aski den adinako kontrako frogarik erakusten ez didateino. Arrazoizko dirudi inolaz ere, jokabide egokiagoa izatea, nahiz sendagarria ez izan, etxeko gauzak antolatzeko zenbait esku geneukaino, ondoren ezagutu duguna

baino, eskubideak eskualdatu ondoan: kanpotik gero eta kaltegarriago etorri zai-guna baino, alegia. Azken finean, zergatik eta hargatik, geuregandikako legeekin batera ibili da euskara beheraka.

3. Aski baketsua dirudi XVIII. mendeak azken laurdenera heldu arte. Gain-giroki begiraturaz gero, noski, ez baita alferrik matxinada hitza mende horretakoa, nahiz egitez eta agian hitzez sustrai goiztarragoak izan. Guztiarekin ere, luzatzen ez diren borrokak latzak eta minak izan daitezke sarri aski. Ezinegona ez dut ukatuko, nabari denean, gure gizartearen kontraesanetarik sortua zenik: kontraesanok, nolana ere, besterengan aurkitu ohi ditugu beti edo maizenik, sekula ere ez guregan, zinez uste dudana adieraztea zilegi baldin bazait. Eta erantsi beharko da era bateko baino gehiagotako kausak dabiltzala dudarik gabe jokoan, nork bartzuei nork besteei (nork bere opilari ikatza) opa badio ere nagusitasuna. Hor sartzen dela esan nahi nuke zenbaitek gutxitu adina beste zenbaitek gehitu ohi duen bertako eta kanpotikako aginteen arteko ezineramana.

Estatuen izaera biziki aldatzen hasia dugu, gero eta bizikiago, eta aldatze horrek ez dio onik ekarriko gure lege-nortasunari. Jakina da Frantzia lehenago eta errutsuago dela joera hori, baina Espainian bertan jaso zuen burua 1700 baino lehenago: hori ontzat hartzeko aski genuke Olivares-en politika-bideez oroitzea. Artean geldirik ez bageunden, 1789tik honantz iraultza latz bihurtzen da bitar-reko irristada leuna. Eta berrizaleek eragin duten iraultza ez da sorterrian, Frantzia, atertzen, mugak ez baititu haren olatuak gelditzen. Ibiliaren lasterra ez da gainera geroztik gelditu, itxuraz baizik (Vienako Kongresoan edo), eta aurrerago eta bortitzago agertuko zaigu aldakuntzaren oinatza. Bide hori, aldakortasun hazkorrena, darama munduak: mundukoek daramagu, hobeki esan.

Ez naiz axaletik eta kaxkarki baizik ezagutzen ez ditudan gertakariak zehazki kontatzen abiatuko. Neure iritziz, dena dela, 1794 hartuko nuke hegoaldean aro berriaren mugarri. Elkarren hurrenko datoz gero 1808ko gerratearen hasiera, Fernando VII.aren erreinaldiaren gorabeherak guretzat ilunak, karlisten lehen-biziko eta bigarren (besterezentzat hirugarren) gerrateak. Eta azkeneko honen bukaeran, 1876, ordukoek eta geroxeagokoek erabat, ia 1900 arte, foruen heriotz-urtetzat hartu zutena.

Badirudi, urrutitik begira gaudela, aski soseguz eta aski ustekabean hartu zutela bertakoek iraultza, baita gure burujabetasunari zegokion aldetik ere, behar ziren eragozpenbideak Estatu jeneraletan agertu ondoan. Iraultzazaletu ziren berehalakoan, iraultzaile jantzia hartu zuten behintzat, momentu bateko beroantza aurki epeltzen zitzaielarik. Gero, XIX.ean, bi urte markatu behar genituzke guxienezko kontuan: 1848 eta 1870.

Humboldtentzat *Baskenland* zelakoa hemen zegoen dagoeneko 1800en aldamenean, ez Iparraldean, eta maizago ikusten ditugu ordutik hangoak honera begira hemengoak hara baino. Gure alderdiko Euskal herrien gehientasuna, sarritan esan denez, gauza aski nabarmena zen XVIII. mendearen lehen urteetan, eta pixkaren bat lehentxeago ere bai, segur aski. Lurraren hedadurak, jendetzaren ugariak, ekonomiak eta bestek honantz makurtzen zuten pisua, eta ez dut uste Utrecht-ko erabakiak izan zirenik eragile soil urrutiko arrantzaren erorikoarekin, bai baitirudi Luis XIV.ak lur joerazi ziola, ehunen bat urtez lehenago gure aldekoa Felipe II.ak desegin zuen antzera.

Hasi berrian nolana hiko politika paperak sorrerazi zituen Iraultzak, uste eta asmo berrien mandatari, inguru etako hizkuntzetan. Horiekin eta erantzunekin idazki mordoxka metatu zen euskaraz ere. Orduko berritsukeriari isilaldi luzea

etorri zitzaion ondotik, eta orobatsu gertatu zen Espainian iraultzaren etsaiekin: batzuek eta besteak zirela medio, ez zen zenbait urtez euskal izkribu gehiegirik zabaldu bazterretan. Urteen buruan, ordea, politikarako bidea irekirik gelditu zitzaion euskarari, han eta hemen.

4. Inoiz idatzi izan du Odón de Apraiz-ek Arabako euskararen galera XVIII. mendekoa dela bereziki Nafarroakoa XIX.ekoa den bezalaxe. Arabako atzeratzearen kezka argi azaltzen du, esate baterako, Aita Kardaberazek, bere *Eusqueraren berri onac* sonatuan (1761). Argiago eta hedatuago mintzatu zen Landazuri, 1798ko *Historia civil de la M.N. y M.L. provincia de Alava* deritzan liburuan. Hona zer dioen, 156 hu.: «...no obstante de algunos años a esta parte va en ella en notable decadencia este idioma. Consta que la época de la pérdida del bascuence es en el presente siglo y de pocos años á esta parte por lo respectivo á las hermandades de la llanada de Alava en que ha faltado ya su uso, y en que constantemente se ha hablado, pues testifican las personas de alguna edad haber sido corriente y frecuente su uso en hermandades en que hoy nada se habla».

Nafarroan lekuko batek baino gehiagok dio, adibidez, galduxe zebilela hizkuntza zaharra hain euskalduna izan zen Lizarra-aldean, lehenbiziko karlista gerratea sutan zegoelarik. Ez dirudi garai horietan euskal luraren barrunbean hizkuntza galduan zebilenik, ezta iparraldeko mugan ere. Mugatik hurbil, gehiagoren artean hautaturik, Bilbo-aldea aipatuko dut. Esan daiteke noski ez zela atertu hain oinarrizko dugun Bilboren erdalduntzea aldi horretan barrena inguruan, Iruñerrian bezalaxe, tinkoago irauten zuelarik euskarak.

Bi arrazoï aurkitu zizkion Landazurik erdararen Arabako aurrerakadari eta hona zein diren aipatu lekuan: «Dos causas pudieran señalarse que han contribuido á esto principalmente. La primera, el haber entrado por Curas párrocos en los pueblos de Alava personas que ignoraban este idioma, ó que no hacían aprecio y caso de usar de él... La segunda causa que puede señalarse de la corrupción del bascuence en Alava es el trato indispensable y frecuente con los Castellanos confinantes con ella». Elizgizon erdaldun edo erdalzaleak eta mugaidetazuna hartzen ditu kontutan, arrazoï nagusi gisa.

Beste bat ere aipatzen duelakoan nago, ordea, euskararen galgarritzat pixka bat goraxeago: «Luego que tienen edad los niños para poder ser instruídos en leer, escribir, y enseñanza de doctrina cristiana, los envían á las escuelas que hay en diferentes lugares, dándoles despues sus estudios á los que intentan ascender al estado Sacerdotal». Haurtzarotik entzun izan dut zenbaterainokoa zen arabarren aurrerakuntza eskola gaietan eta zalantza izatekoa da, lotsa eta penagarri delarik, ez ote zen aurrerakuntza hori berori, irakasleek erdaraz batipat minizatzen zirelakoan bainago, kaltegarri eta are hilgarri bertako hizkuntza zaharrentzat.

5. Ez genuen behinere lortu, bada, irakaskuntzan euskara sartzea eta, egia esan, ez ginen gehiegi saiatu ere. Utz dezadan alde bat kristau dotrina, hau azkenean bedere euskaraz ematen baitzitzaien euskaldunei, mugaldeen izan ezik agian. Batzuen eta besteen ahaleginak, eta ez genuke hemen Larramendiren izena bazterrean utzi behar, zabaldu zuten euskara elizan eta elizakoetan, iparraldean aspaldi eskura zutenaren antzeratsu, eta zabaldu ez eze, baita jaso eta apaindu ere, gaiari zegokion duintasunaren mailakoa izan zedin.

Erlijio gaietarik kanpo Joanes Etxeberry Sarakoa abiatu zen behar zen bide-tik, euskara latinaren irakaspide bihur zedin: jakina da garai horretan, eta baita

gero ere, ezinbesteko tresna zela latina mundu honetakoan eta bestekoen berri jakingo bazen. Eta ekitaldi zuzenen eta gogorren honek hartu zuen erantzunik latzena, hotzena izan zelako. Liburuska bat besterik agerterazteko ez zen gauza izan, *Lau-urdiri* (*Laphurdi* edo *Lapurdi* ez zen Etxeberriren gogokoa, lapur-piloa edo adierazten zuelakoan) *gomendiozco carta, edo guthuna*. Aitzindari gisa azaldu zelarik, gidari eskasa gertatu zen ez baitzion ez irakaspideari, ez irakaspidea aditzera ematen zuten gainerako izkribuei aterik zabaldu: Urkixok argitara zituen hauek, 1907an ^a.

Etxeberrri medikuak, bide berrien froga etxean baizik egin ez zuelarik, geurera etorri zitzaigun: badakigu Larramendi ezagutu zuela eta hau haren hiztegiak, non dagokeen ongi ez dakigunaz, baliatu zela. Ez dakigu, berriz, zer pentsatu eta sentitu zuen saio ausart harek zeharo lur jo zuenean. Lapurdi utzi zuen, baita eredutzat hartu zuen hango euskararen barrutia ere. Obrak 1712 ingurukoak baldin badira, Nafarroako Beran genuen 1716an, gero Hondarribian eta azkenik, medikuntzan beti, Azkoitian.

Erraz igertzen da euskarak bazuela sarrera, noraezean, irakaskuntzan, beheko mailan batipat, eta hizkuntz-mugatik urrutiago, gehiago eta zabalago. Ezin zitekeen, ordea, bitarteko baizik izan, eskualde bakoitzeko erdara batera eta bestera ikasi artekoa, erdara hori zela bide ikasten baitziren gainerakoak, hizkuntzak barne.

Hortik dator liburu mordo ezaguna: M. M. Harriet, *Gramatica escuaraz eta francesez composatua*, baina *francez hitzcunça ikhasi nabi dutenen faboretan*, 1741; *Introduction à la langue française et à la langue basque*, 1840, A. Hiriartena, «destinée spécialement pour les Ecoles du Pays Basque»; A. P(ascual) I(turriaga), *Arte de aprender la lengua castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*, 1841, eta orobat beraren *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*, 1842, eta abar. Azken hau, Printzeak, 1857an, gehitua argitaraz gero, euskararen aldetik ikusi ohi dugu, baina ongi adierazten du harako izenburuaren osagarri hark ez zela hortarako bakarrik idatzia izan ^b.

Alegiek bazuten zerikusia irakaskuntzarekin, nondik zuten ez badugu ere orain ongi ikusten. XIX. mendean, mende-mugaren aldamenen gehienez, Mogeldarrenak ditugu eta gero, Lafontaine eta Samaniegoren atzean maizenik, Zabala, Iturriaga (1842), Goihetxe (1852), Arxü (1848) urte berean, nola ez ba, *Kantu patriotikak* argitara zituena eta, geroxeago, *Uskara eta franzes gramatika*, 1852an lehen aldiz eta 1868an hirugarrenez ^c.

Jendeen, jende hazien, on eta probetxurako lanak ere bazuten arrakasta, gehiago behar bada idazleen aldetik irakurleenetik, eta argitaratzaileenetik baino. Nik neronek ere ezagutzen ditut esku-izkribu lodixkak edo arras lodiak argitara irten ez direnak, bi tomatoko Oñatiko Arrazolatarren *Instruccinua* ^d, eta Iruñean zegoen *Doctrina para la instrucción de la familia de casa en vascuence*. Josef Egiategi zuberotarrarenak ere eskulan hutsa izan dira, nik uste, oraintsu arte. Ik.

^a [2. arg. RIEV² 28, Bilbo 1976.]

^b [Ik. orain Bonaparterenaren facsimila (Hordago, Donostia 1977) eta P. Altunak prestatuturiko *Jolasak* (Bonapartek erantsiriko gabe), Donostia 1987.]

^c [Zabalarren *Alegiak* A. Zelaietaren edizioan atera dira (Donostia 1987), Hordagok agertu zituen facsimilean Arxuren gramatikaren 3. edizioa (Donostia 1979) eta Goyhetcheren *Fableac edo Aleguiac* (Donostia 1978).]

^d [Cf. 470. or. 40 oharreko bibliografia.]

Lehen libüria edo filosofo hüskaldünaren ekbeia (1785), Euskaltzaindia 1983, Txomin Peillenek prestatua.

6. XIX. mendean, 1839 zazpi urteko gerratearen azkena eta bakealdi aski luzearen aurrena gertatu zitzaigunean, Iturriaga, liberal kutsukoa, moderatueta-koa noski, Iztueta-rekin batean Donostia eta Donosti-inguruko jauntxo liberalen hizketa-lagun eta mahaikidea, izan genuen, kezkatu izateaz gainera, hizkuntzarekiko kezken adierazle ozena, lasai baino lasaiago bizi ziren herritarren artean. Apaiz eta irakasle honek argiro ikusi baitzuen jakitea zabaltzearekin, idazle-irakurtzeak medio, ez zietela babeslekurik indartsuenek haize berriei gogor egingo, ezta mendirik erpinenak ere zabaltzen ari ziren uholdeei gainik hartuko. Lehen honetaz genekiena orain hobeki jakin dugu Aita Lasaren lanei eskerrak.

Halaz guztiz, eta puntu honi ere begiratu behar zaio, gora eta aurrerabidean genbiltzan hegoaldeko euskaldunok, jakite gaietan. Ikus, adibidez, P. B. Villarreal de Berrizen *Maquinas hidraulicas de molinos y herrerias...*, 1736 (1740an hilko zen egilea). Ez dago, esan beharrik ez, orduko fisika eta aldamenekoen gailurrean, baina bide onetik dabil, eta goiz gainera: bidea ona zela, diruaren eta indarraren aldetik (okerragoak orainago agertuko), geroak erakutsi du.

Erdaraz mintzatu zen liburu horretan Villarreal de Berriz eta erdaraz mintzatuko dira Azkoitiko Zalduntxoak, Bascongada eta Bergarako Real Seminario zeritzana (Erret Mintegia, garbizaleagoentzat). Ez, egia esan, ez ziren beti eta erabat erdaraz mintzaten. Euskaraz ere mintzaten ziren, ongi zegokien orduan. Euskaraz jakin, berriz, ongi baino hobeki zekiten, Azkoitia edo Bergara aldekoek batipat. Izen ona du jauntxo buruzagiak euskal literaturan eta ez, nik uste, me-rezi duen adinakoa^e.

Gauza bat da, ordea, esango dit edonork, hizkuntza jakitea eta bestea oso hizkuntza horren bitartez zernahi gaitaz aritzea. Dударik gabe esan dezakegu ez zutela uste euskal irakaskuntzarako premiazkoa zen lan eskeragan barrena abiatzeak gehiegi balio zuenik. Eta ez zait iruditzen bidegabeko ausardia itxuragabeko malkar horietan sartzea ez zitzaizela gogora etorri, susmorik iheskorrean ere.

Are gehiago. Nor bere garaiko ume denez, berrizale haiek ere iraganaldiari josiak zeuden eta ez zuten lotura hori hautsiko eredutzat hartu zituzten arrotzek besterik irakasten ez bazieten. Hor momentu batez gelditzen bagara, luzaro gabe autemango dugu ez zela XVIII. mendea, mende guztien bilduman, xoko bakoitzeko hizkuntzaz nahiz dialektuaz gehien arduratu izan dena.

Hona lekukoa, bakartasunak ahulduko ez duena, Zalduntxoak baino lehenagokoa izanik ere: European, dakigunez, goizago izan ohi zen bestetan gurean baino. Leibniz hartu nahi dut mintzagai, jakintsua izateaz gain, langile amorratua eta munduan izan den adimendurik garbientako baten jabea. Adimendu hori eta adimendu horri eragin zion lana zernahiz aritu zen eta zernahiri bide artean ez ezagunak zabaldu. Ez zeuzkan hizkuntzak ahazturik eta, hizkuntza kontuan, jakin nahi zuen euskara non koka Europakoen artean.

Ez dirudi, bada, eredu makurra gogoan badugu, eta ez da betaurrekorik behar hori ikusteko, bere herriko hizkuntza, alemana, guztiz maite zuela. Eta, guztiarekin ere, ia idatzi zuen guztia «erdaraz» idatzi zuen: aspaldidanik zeto-

^e [Ik. azkenengoetan X. Altzibar «Euskara Adiskideen batzarrean» in J. L. Melena (arg.), *Symbolae L. Mitxelena*, Gasteiz 1985, II 1119-1135, Zenbait Egile «Peñaflorida kondearen II. Mendeurrena» *Euskera*, 2, aldia, XXX-1, 1986, 7-66 eta X. Mendiguren «*El Borracho burladoko euskararen azterketa*» *ASJU XXI-1*, 1987, 135-162.]

rren latinaz, Europako lehengo hizkuntza ikasiaz, eta Europaz zenbait sailetan nagusitzen ari zen frantsesaz, berri bezain landuaz. Oker zegoen, behar bada eta segur aski, ordutsuko gehienak bezala, baina bazituen *bere* arrazoiak eta arrazoi horiek; ez gureak, izango dira harekiko azken juizioan erabiliko direnak, gehiegi luzatzen ez baldin bada.

Ez diot ezer Oñatiko Unibertsitateaz, eroria baikeneukan zutik zegoelako itxuran. Bascongada, bere gisako gainerako elkarteak European bezala, ez zen Unibertsitatearen osagarri, honek bete nahi ez zituen eginkizunak betetzeko izan baitzen sortua. Zenbait lanbide eta kargutarako behar zen jakitea (eta titulua) Oñatin (eta erbestean ere bai) jasotzen zen; Bergaran, berriz, ikerketarako premiazko ziren lan eta langileak prestatu nahi zituzten.

7. Lehen hartu dut ahotan, behin edo gehiagotan, XVIII.ak ekarri zuen hegoaldekoen goraldia iparraldekoen aldean. Kultur-lanetan ez zen, ordea, gehiegi bistaratu buru-jasotze hori. Hemen zuzen-zuzenean dihoazkigun euskarazkoetan batipat. Nik neronek ezagutu dut gaztetan gure artean nabari zen halako susmo txarra ez ote zuten azken finean hangoek guk, hain garbiak ginelarik ere (eta batzuek, noski, besteak baino garbiago), idazten genuen baino hobeki, modu jatorragoan ez hain modu «dorphean», idazten.

Espainia eta Frantzia, eta besterik uste duenak barkatuko al dit pentsatzen dudana izkutuan ez edukitzea, ez dira hitz soilak eta guretzat arrotzak. Bi aginte-eremuren izenak dira eta, honek hurbilagotik ukitzen gaitu orain, bi kultur-eremurenak; eta gu, damurik, erdibiturik gabilta zein batean zein bestean. Eta egoe-ra bikoitz honen aztarrenak edozein sailetan nabari dira.

Irakurri, esate baterako, han maizago egin da eta neurri zabalagoan hemen baino. Axular eta Etxeberri Ziburukoa, adibidez, ez daude, ezta alderatzeko ere, Beriain, Kapanaga edo Otxoa de Arinen parean. Eta, halaz guztiz, jendeak haiek irakurri egin zituen, egiazki irakurri, behin baino gehiagotan irten baitziren argitara lapurtarren obrak.

Idazten ere, goizago hasi ziren han, goizago, eta goragoko eskailburutik. Liburu kontu hori bakarrik hutsa litzateke. Berdin gertatu da etxekoei, adiskideei, nagusi-zerbitzariei, eta gainontzekoei idazterakoan. Usuago erabili da han euskara zeregin horretan, aise usuago, hemen baino. Nere adineko jendeak eta zaharra-koak, zaharragorik gelditzen baldin bada, ongi dakite hori horrela dela.

Ez da segur aski idatzi den guztia gure irispidera heldu, gutunak eta antzekoak besterik baino gutxiago. Inprentatuak ere galdu dira, orain lehen baino hobeki dakigunez. Esku-izkribuak diren arren, badakigu, haatik, pastoralak antzezten zirela XVIII. mendean eta are lehenago, Zuberoan eta Nafarroa Beherean. Gure artean, berriz, aurkikunde miresgarria izan zen Barrutiaren *Acto*-a Gerrak topatzea eta Azkuek argitara ateratzea. Eta zorigaitzeko argitaragabeen edo zabaldugabeen istorio honetan, berri alaiak dakart Barrutiarenaz kezkatuak dauden ezjakinentzat. Egia da delako esku-izkribua, Gerrak ikusi zuena, agertu dela. Are gehiago, inprenta-lanak aski aurrera direlarik, aurten bertan, «presarik eta pausarik gabe» besteak zioen bezala, kalean idoro omen dezakegu ^f.

8. Ezin naiteke gaingiroki baizik garai hartako euskal literaturaz mintza. Ez da komeni ere. Iparraldekoek lehengo bideari segitzen diote: mendi-hegietan barrena bezala dabilta, gailurrak bazterrean utziaz. Izenak, Xurio, Maister, Ha-

^f [Ik. 703. or. *l* oharrean aipatu bibliografia gehi 696. or. *d* oharra.]

raneder, Larregi, Duhalde, Harriet-Haraneder, eta beste hainbeste. Ezagun dira bertsolariak eta erdi-bertsolariak: Beñat Mardo, Bordaxuri, Etxahun batez ere...

Berrikuntzak Gipuzkoan aurki daitezke eta Gipuzkoatik Bizkaira eta, indarra galduz, baita Nafarroara ere zabaltzen dira. Iturburu, hemen, Larramendi jesuita dugu (1690-1766), andoaindarra jaiotzez. *Arte*-a utzi zuen, inoiz «Ezina egina» itzuli izan ohi dutena. *Diccionario trilingüe* deritzan euskal hiztegia (euskara baita ezpairik gabe nagusi hiru hizkuntzetan), beste zenbait liburu, hil ondoan argitara zen *Corografía de Guipúzcoa* ospatsua, eta ezin konta ahala paper, orain Telletxea Idigorasi eskerrak irakur ditzakegunak, irakurriko ditugunak ez baldin badira. Berrien artean badira euskarazkoak ere, lehengo pusketa haiei eransteakoak: ez dira, ordea, ez luze, ez ugari ⁸

Halarik ere, aho betean goraipe dezakegu idazle trebe den aldetik, bai euskaraz laburtzki, bai erdaraz ausarki: erdaldunek, diodan bidenabar, ez diote ezagutu ez aitortu gaztelaniak dion zorra, baina ez ezagutzearekin ez dute deuseztatu.

Bestetan esan dudanez, erdaraz ugari bezain euskaraz urri idatzi zuen Larramendik. Nekez aurkituko dugu, beraz, bera baino lekuko egoskogorrorarik zenbaitek orain, gau eta egun, dioena gezurtatzeko. Larramendik euskal letretan utzi zuen hatza eta oinatza ez da berehalakoan galduko. Euskaldunek erdaraz lan-tzen dituztenak ez dira, bada, kaltegarri nahi eta ez nahi. Onerako eta probetxuzko ere gerta daitezke inoiz. Bizi zelarik ere, jarraile inoiz mindua izan zuen Kardaberazek holakorik egotzi zion. Euskaraz usuago idatzi balu, «nos huviera hecho a todos otro favor mayor y nos huviera enseñado prácticamente a hablar, escribir, etc.» Nolanahi ere, «mesede ttikiagoa», zeharkakoa gainera, ez dio ukatzen. Nola uka zezakeen, nahi izanik ere!

Larramendiren urratsetan datoz, Kardaberazek kanpora, Mendiburu (eta Mikelestorena), Basterretxea, Ubillos... Jesuitak aldegitara behartu ondoren ere, Larramendi hil eta hurrengo urtean, bestek hartuko du haren xedea eta jokabidea, hurbilagotik nahiz urrutiagotik. Hor duzue Lizarraga apaiz nafarra eta, nahi baduzue, Harriet, Haraneder-en itzulpena Larramendiren hiztegiari esker zuzendu (nahiz okertu) zuena. Inolako kulparik erakusten ez duena, nik besterik esan arren, Hiribarren-en *Euskaldunac* poema da.

9. Larramendik izkribuz eta predikuetan erabiltzen zen euskara garbitu nahi izan zuen, jaso eta aberastu; eredu bat sortu eredurik ez zuen hizkeran. Eta ezin uka nahi zuena erdietsi zuela, hein jakin batean, beti gertatu ohi den gisa. Gipuzkoan eta, elkarren hurren, Bizkaian eta Nafarroan. Hautatu zuen gipuzkera, oharturik ala oharkabez, Beterrikoa izan zen, eta hori da gero Larregiren ondotik ibili zen Lardizabal zaldibiarrek, Larramendiren gramatika ia-ia hitzez-hitzez aldatzeaz gainera, *Condaira*-n (1855) bereganatu zuena. Ez da, bada, miresteko aurki Bonapartek gipuzkera huts bihurtzea.

Ez zeukan, noski, gipuzkera gogoan, edo ez zeukan gogoan soil-soilik, Larramendik, euskara bera baitzuen begiz joa: ez zegoen, ordea, euskalkirik gabeko euskararik eta dialektuak, bestalde, ez dira noraezean (ikus Grezia) hizkuntzarentzat kaltegarri. Etorkizuneko batasun kontuak nekez pentsa zitezkeen orduan, eta egin, inola ere ez. Oroit gaitezten Etxeberriren ametsen ondore hutsalaz.

Hiru bide hartu zituen, ene ustez, Larramendik euskal hitzak, esaerak eta gramatika-bideak aberasteko asmoan, garbitzeko eta zuzentzeko ez ezik. Hauexek genituzke, bestetan esan dudanez:

⁸ [Ik. 908. or. 24. oharra.]

a) Edozein alde eta alditako euskal hitza, hangoa nahiz hemengoa, inoizkoa nahiz oraingoa, euskarazkoa den aldetik, erabil daiteke bertako nahiz besterango euskaraz. Debekuak eta eragozpenak ez dira falta, baina oztopo horien oinarria euskaldunen zabarkerian datza eta ez bestetan.

b) Inondikako hitzak (esaerak, etc.) erabiltzeaz gainera, eskubide osoa du gu hitz horien zentzua eta adiera ahal adina hedatzeko eta zabaltzeko, testu-inguru berriak aukeratuaz. Horrela jokatzuz gero, ez du inongo euskaldunek harritzeko eta espantuz agertzeko eskubiderik.

c) Hitz berriak sortzeko eskua ere badugu, edozein hizkuntzatan gertatzen denez, eta Larramendi baliatu zen horretaz, xvii.ean Oihenart bezalatsu, trake-tsago haatik. Baditugu gainera geureganatuak eta etxerakotuak ditugunak metaka eta ez genituzke (Altubek oraindik orain horixe uste zuen) bertan behera utzi behar. Horrelakoetan, aski da, garbiminak joak daudenentzat, mailebuen norabidea aldatzea (*norabidea*, noski baino noskiago adiskide zenak idazten zuenez, erdarazko «sentido» da, ez «dirección», deus baldin bada): erdaratik euskarara izan beharrean, usuenik gertatu denez, alda ditzagun euskaratik erdarara. *Alabanza*, esate baterako, *alaba antza* da, bistan dagoen arabera. Bidea, gezurraz baliatzea zilegi baldin bada (probetxugarri den gezurraz, jakina), ez da gaitzerakoa. Altubek ez zukeen, ordea, ontzat hartuko, ezta guk ere apika.

10. Bada liburu eta artikulurik franko xix. mendeko euskal literaturaz berri aberats bezain zehatzak biltzeko. Zilegi izan bekit, beraz, hemen ixil-gordean uztea, oharren bat edo beste egiten dudalarik.

Euskarazko lanen gaiak zabaltzen doaz. Batez ere, gero eta ugariago dira mundu honetako gauzez mintzatzen direnak eta elizgizon ez diren idazleak. Gogora datozkit orain *Peru Abarca*, Iztuetaren *Guipuzcoaco condara* (Gipuzkoako euskaldunei beren izaera eta arbasoen esanak eta eginak irakasteko asmoz ondua), Hiribarren-en *Eskaldunac*, eta abar. Ez ditut ahaztuko, azkenik, ez Elizanburu ez Bilintx, joan den mendeko euskal poetarik onenak, nere gogorako.

Eta ez nuke hari laburregi gelditu zitzaion *Piarres Adame*, hazi ez zen landare galantaren bihia, ahaztuko.

Zerbait esan nahi nuke, haatik, Agosti Xaho basabürütarrak. Izena eta omena beti izan duela esango nuke, nahiz ez den beti izen ona izan. Orain ere, horrelako zerbait badu, lehen ez bezalako arrazoiengatik agian^h.

Berak aurkitu omen zuen, itzulinguru larriekin egia esan, gure herriaren egiazko bide zuzena. Jende gutxik zekien, ordea, eta hori zekitenek berek ez zekiten orain jakin uste dugun arabera. Arana Goiriren aitzindari izan genuela Garate jaunak erakutsi izan du, entzule-irakurleak harrimenez eta espantuz betetzen zituelarik. Hori, Donostialdean, 1930an, zenbait urte gorabehera gertatzen zen gertakaria da, oroitzen naizenez. Gazteegia naiz, ordea, neure zaharrean, lekuko fidagarria izateko.

Ez zen, bestalde, euskal idazle suharra izan. Euskarazko liburu bakar baten berri izan dut, eta ez dakidan besterik baldin bada, barka eta eskua jaso. Harako *Azti-beguia*-z ari naiz, delako *Bassaburutarrak Ziberou herri maitiari Parisetic igorririk beste hanitchean aitzindari arguibidean goiz izarra*, 1834, delakoaz. Aipatu, aipatu izan dut, baina inoiz ere ez ikusi. Orobat gertatzen zitzaion ni baino askozaz ere jakintsuago zen Julien Vinson jaunari, honako haxe baitio: «Je n'ai jamais pu trouver d'ex. de cette brochure, que n'a pas été annoncée au *Journal de*

^h [Cf. J. Juaristi «J.-A. Chaho: las raíces antiliberales del nacionalismo vasco» *Cuadernos de Alzate* 1, 1984, pp. 72-77.]

la librairie, et qui n'est pas à la Bibliothèque Nationale». Badirudi ageri dela hor susmo edo kez karen baten surmur ixila.

Esanak esan baditut, ez da xuberotarraren oroitzapena belzteko asmotan izan, ongi baitakit bide berri ugari ireki eta zabaldu zituela, asmakizunak nahaste, euskal kulturaren. Besterik erakutsi nahi nuke, ezer erakustekotan. Honek ere, Larramendik bezala, eusko ikaskuntzari bizi-oro lagundu ziola erdaraz mintzatu arren. Eta berriz ere gorago aipatu dugun puntura gatoz.

Hiribarren-ek (81. or.) laudorioz bete zuen Xahok erabili ohi zuen frantsesa: egia da, eraskin bezala, salbaidera itzultzea nahi zukeela, baina hori ez zen, Hiribarren-entzat bederen, gaitza desiratzea:

*Atharraztik ilkhitzen Chabo yakinsuna,
Beira balu fedea, Eskaldun lehena.
Gutic dute frantsesa nola harc ibiltzen,
Ezdu ere pareric denean mintzatzen.
Balinba nabico du holaco guizonac,
Laguntzen duelaric ceruco dohainac,
Eskaldunen fedea berriz besarcatu,
Eta heiekin biciz herria altchatu!*

11. Hizkuntzak eraman ohi gaitu, bide batetik edo bestetik, hizkuntzalari-ritzara, izan ditzakegun jakin-nahiak eta zalantzak baretzeko. Eta hori, egia delarik, ez da inorentzat guretzat baino egiazkoago. Sarritan, gainera, gehienetan behar bada, sortzen digun gose-egarria ez da hizkuntza barruan berdintzen, horren egitura arakutzen eta miratzen. Kanporako ere behar genuke, munduan gertatu direnen jakin-bide eta aztergailu izan dadin. Hauexek lirateke oraindik ere entzun daitezkeen zenbait galdera: noizkoa, nondikakoa, zeinen ahaide edo auzokoa, etc. Nolakoa den ere galdetzen da, noski.

Hiztegi, gramatika eta horrelakoetan beste aldekoek aurrea hartua zuten. Gure Pozaren (eta gutxi gehiagoren) truk, XVII.ean izan zituzten, besteak beste, Oihenart eta Pouvreau euskaldundua. Hemezortzigarrenaren lehen partean bazi-tuzten Etxeberri gorago aipatua, eta Urte. Harenak, ordea, jakite hutsari ez zegozkionak gainera, huts egin zuten ia zeharo, ikusi dugunez. Urte atzerriratua, berriz, ez dugu ezagutu, gramatika eta itzulpen, 1900 arte, eta biribiltasunaren bila eskaini dut urte hori. Hiztegia, hasia eta bere laburrean aski hazia, ez da oraindik argitara irten. Oraingoan ote? ⁱ

Larramendik bizten du hemen behinere itzalia egon ez zen hauspeko sua eta lehen liburuan, *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España, de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas, demostración previa al Arte, que se dará á luz desta lengua*, 1728: Arte-a, *El imposible vencido* deritzana, hurrengo urtean agertuko zen. Hori aski ez bazen bazterrak zirikatze-ko, luzaro gabe irten zen *Diccionario trilingüe* entzutetsua. Hitzaurrea irakurri dionak, eta Larramendik hor, egia eta inbusteria nahaste, adierazten dituen arrazoiak, purrustadaz eta parrastadaz gatzozpinduak, erraz antzemango dio hiztegia argitara baino lehenagoko giro gordinari, baita ere argitara ondoan sor zitekeen garratza-agoari. Zenbait urteren buruko *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria* delakoak, berriz, ez die deus gehitzen gure funtsik gabeko eskakizunei.

Errieta eta sesio hauek gerra bizi bihurtuko dira 1800en auzoan, eta behar bada Larramendirenak har daitezke zetorren ekaitzari gogor egiteko prestamen antzera. Harrokeria genuen lagun orduan eta espa, agian, besteak, juzku okerre-

ⁱ [Ik. 352. or. b oharra.]

tan hastea ez bada. Hizkuntza, eta historia eta beste zernahiren azpian datzana politika denez gero eta eraso alde honetarik Madrildik datorrenez, obra pare ezaguna ez dut aipatu besterik egingo: *Diccionario geográfico histórico de España*, sec. 1, 1802, eta Llorenteren *Noticias históricas de las tres Provincias Vascongadas, en que se procura investigar el estado civil antiguo de Alava, Guipuzcoa y Vizcaya y el origen de sus Fueros*, 1806-8.

Euskararen alde, nolazpait esan eta hauek ez dute bestelakorik ukitzeko gogorik, J. A. Mogel eta Astarloa apaiza plazaratzen dira. Bestalde, orduan bertan, azaltzen da Spainian Lorenzo Hervás-en *Catálogo de las lenguas de las naciones conocidas... y clases de estas según la diversidad de sus idiomas y dialectos*, 1800-1805. Euskaltzale azaltzen da, aurreko mendean aita Henao bezala, baina, «alde» agertzeaz kanpo, ez dakar argi berririk gure gauzetara: etxekoen laguntzaz baliatzen da.

Buruenik, Humboldt, euskara eta Euskal herriaren deiak liluratu, etorri zitzaigun gurera, gure gauzei buruzko zenbait berri atzerrian jaso ondoan. Humboldt eta Humboldten ingurumariko euskaldunetz eta orduko Euskal herriaz, Justo Garatek aztertu du, Justo Garatek daki eta Justo Garatek erakutsi du. Harenez baliaturik prestatu nuen inoiz «Guillaume de Humboldt et la langue basque» zeritzan artikulua, *LINGUA E STILE*, 8 (1973), 107-125, gero *Wilhelm von Humboldt nella cultura contemporanea* (cur. L. Heilmann) liburuan, Bologna, il Mulino, 1976, jaso¹. Jakina denez, orain badugu hontaz eta hartaz, euskal hizkuntzalaritzaren aldameneko pasarte xebreak eta negargarriak kontatzen dizkigun Tovar-en liburu ezaguna: *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, 1980^k.

Oraingo iritziei bagagozkie, Humboldt-ek ez zuen ondore onik atera euskararen bitartez egin zuen saio nagusian. Argitasunak bildu zituen, haatik, baita Astarloarengandik ere, eta euskararen izaeraz eta egituraz zabalkunde eskerga, zena zelako, egin zuen munduan barrena.

Astarloak baditu merezimendu gailenak eta, gailenak izateaz gain, beti aitortzen ez zaizkionak. Berak erakutsi zigun, izan ere, nola euskal adizkiak parti, deklinabide mugagabearen berezitasuna berak ezagutu zuen Darrigolek baino lehenago eta utz ditzadan hortan gauzak, gaia behar bezain landua ez dagoelako. Kontrako aldetik, berriz, berak sartu zuen, ez sortu, testuak (hitzak, hobeki esan) azken muturreraino xehatzeko usuarioa eta partiketa modu hori, Arana Goirik ontzat hartu zuelako noski, bizirik zegoen 1936an, nahiz zokoratuxea. Altubek esaten digunez. Puntu horri lotu zitzaion Urkixo Oñatin:

Entiéndase que no trato de negar talento al autor de los *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva* [ni, *Apología* arras hobea delakoan nago]... Pero el error garrafal de Astarloa, el que más estragos ha causado en la vascolología indígena, es el de haber aplicado al vascuence el desacreditado sistema etimológico del celtista Davies. En vez de detenerse en la raíz [«en el morfema» edo esango lukete orain] en la descomposición de las palabras, Astarloa pretende que cada una de las letras de todo vocablo vasco tiene una significación determinada.

Labur-beharrez ari garelarik ere, beste pasadizo nagusia falta zaigu 1876 baino lehen. Ezaguna da Louis-Lucien Bonaparteren (1813-1891) obra, aski baita horretarako horrenbeste lekutan zintzilik aurki daitezkeen mapak ikusiak nahiz begiraldiz ukituak izatea. Hau erants dezakegu, haatik, eta legezko ere bada agian eranstea. Bereizkuntza hori ez bide da guztiz bidezkoa geroagokoen ustez,

¹ [Eta orain LH 126-142. or.]

^k [Ik. horren berri hemen 920-926. or.; lehenago *Muga* X, 1980, 122-128.]

baina hola edo hala balio du eta onartzekoa litzateke Bridgmann-en irizpideen arabera. Onartzekoa ez ezik, onartua ere izan da, guztiok baitarabilgu harrezkero, Azkueren edo besteren zenbait ukitu gorabehera.

Jakina da bi klasetan banatu zituela euskalkiak eta izenak aldatuko dizkiet hemen klaseoi, azpian datzana argitzekotan, errusoz Soviet Batasunean erabiltzen direnen arabera. Euskalkiak idatziak izan daitezke (lau gertatu ziren gurean, gero Campion ikasleak gramatikaren izenburuan ipini zituenak), baita ere ez idatziak, artean idazteko ohitura nabaririk biztu ez zutenak.

Hauen legea ez da eskualdeko, auzoko, etxeko ohitura baizik, eta ez dute bestelako eredurik. Bai, ordea, haiek: lapurtera nahiz gipuzkera ereduren baten mende daude, horiei obeditzen zaie (edo, behintzat, obeditu behar litzaeike) edozer gauza *euskalki horietan* idazterakoan. Ez dira inoren «amaren hizkuntza», hiztunen gainetik dagoen lege, egiune edo abenikoari dagozkie.

Gerokoek (1870ak Printzearen erorikoa ekarri zuen, gerra itxuragabeki galduaren ondorioz), hala nola van Eys eta Vinson-ekin eta besterekin ernatu ziren iskanbilet, kontatzea merezi lukete¹. Teoria aldetikakoak ziren gehienbat, dena den, eta Bonaparte ezereza genuen sail horretan.

12. Ene iritziz, 1794 izan zen, berriz diot, bidagurutz eta bihurtune nagusia guretzat. Sartu zirenek izan zituzten lagun eta adiskideak, onenak behar bada, baina ez gehienak. Gerratean zapaldu gintuzten, egia, hemengo edo kanpokoen erruz; ez, ordea, borrokarako deirik izan ez genuelako. Lekuko dugu, besteren artean, urte hontan bertan Bilbon kantatzeko ziren kantak:

*Baña ezta aztutecua
Francesen Guerra
Galduba izan eztadin
Daucagun Fedia:
Beintzat gomutan dauca
Bilboco Urijac
Lagunduten deitsela
Vizcaitar guztijac.*

*Bacochac eguiten dau
Emen al dabena
Jaquinic dala Guerra
Jaunac nai dabena:
Fraile ta Abadiac
Besteecez batera
Jagui dira pozarren
Armac artutera.*

Lelo hori atertu gabe entzun daiteke geroztik, eta ipuin zaharrak berritzen dituzte 1808 eta ondoko urteetako ezbehar odolgiroek: Cadizko oihartzunek ere bai, apika, baina nik ez ditut agerian ikusi. Hona beste 1817ko bertsoak. Ikus daiteke batzuetan bestetan baino euskaltzaleago nahiz erregezaleago agertzen direla. Bi eratan agertu da bilduma hau, egile ezaguna omen duena, bigarrena bestea baino luzeagoa. Bigarrenetik hartu dut neure bigarrena:

*Cegaitic derichazu
Aimbeste neque lan*

¹ [Ik. orain R. Gomezen lana in J. A. Lakarra (arg.), *Euskalaritza XVIII eta XIX. mendetan*, EHU 1989.]

*gure erri onetan
orduban artu zan?
Gordetearren sintzoro
Jesusen leguia,
gure Foru garbijac,
eta eusqueria.*

*Gure erregue onac
Ta emazte cintzuac
laxtanduco ditube
Vizcaico auzuac.
Eurac izango dira
gueure Gurasuac
ta zainduco descubez
osoro Forubac.*

Eta horrela 1833-39-raino, baita gero ere. Ikusten denez, erregezkoak ager daitezke, Espainiako Koroaren jabe, eta desagertzea ere gerta daiteke. Guztiori, nolana ere, Foruekin eta Euskal herriaren zimentarri den euskararekin batera. Eta lehenbiziko puntua atzundu zait: oinarri nagusi den kristau erlijioa. Elizgizonak gogor ekin zioten zeregin horri eta batez ere, ustea ustela ez bada, fraileek izan ere, garai hartako gauzak ongi ezagutzen dituen adiskide batek dioenez, fraileak ziren orduan zer gerta ahala galduan irteten zirenak, gertaerak lehengo egoera aldatzen bazuen.

13. Horrela asmatu eta zabaldu zen liberalen esaera hura: *fuerrista, carlista*. Jendeak orain soil-soilik gogoan duen *euskaldun, fededun* ez da, gehienez ere, beste horren itzala edo erantzuna baizik. Gure bigarren gerratea ere etorri eta joan zen, sortuko ez zen hutsartea betetzeko prestatua (orduko Manterolak badu antziki 1931ko Pildain-ekin), eta hondamendia utzi zuen ondorengo gisa.

Hots, gure arteko askok, orduan gehienek nik uste, hondamendizat hartu zutena. Bada, bai, bestela pentsatzen duenik orain, baina ni besteri natzeko. Donostiako liberalak ere, Lasalak espantuz eta bihotz minez bere kaltetan ikusi zituen foruzale bihurtzen: foruzale edo federalista agian, *Ancien Régime* zelakoa aldentzearekin izenak eta izanak aldatzen hasiak baikenituen. Foruen kaleak eta plazak loratzen zaizkigu nonnahi, Cánovas-ekin egon nahi ez duenik ez da falta (eta Cánovas zen orduko jaiko ttikia, baita kultur gauzetan ere), eta ez da eskas beste era beretsuko seinalerik.

Guztiarekin ere, badugu jende xalo eta ximplea honelakoxe galdera atergabe egiten diguna: baina hemengo herriak, Xepelar bezalako fabrika-langileak, zer galdu zuen Foruak galtzean? Lehen esan baitut orduko jendearen ustez, nahiz ikasi nahiz ezjakin izan, Cánovas-en bitartez galdu genituela Foruak eta orduan hain zuzen, ez lehenago. Jauntxoentzat izan zen galgarri galera hura (eta Bilbo-Donostietako burgesak ez ziren jauntxoak) eta ez jende arruntarentzat.

Arrazoi dute, behar bada, baina ezin dezake egungo eguneko inork aldi hartako edozeinek zekiena jakin, ez sentitzen zuena sentitu. Hona zer bertso egin omen zituen Txirritak, eta ez da Txirrita jauntxotzat hartuko duenik jaio, Cánovas-en alarguna ikusi ondoan:

*Il da Canovas, juan da Canovas,
pikaro gaizki aziya!
Galdu zituen ifar garbiyak,
jarri du trumoi nasiya.*

*galdu zituen fueruak eta
Jaungoikuaren graziya,
galdu zituen bere lagunak,
galdu du bere biziya.*

Txirrita, behintzat, ez zuen inolazko klase edo ekonomi kezka arduratzen: sagardoaren prezioaz kezkatzen zen, izatekotan ere. Eta ez zen haren ahotik gorroto itsua mintzatzen, beste bertsoak ederki adierazten duen bezala:

*Iru relejo, iruna kate,
iru mallakin bakoitza,
buruan berriz iru korona,
petxuan iru orratza;
iru doblako amoriyua
tximista bezin zorrotza,
iru tirotan utzi zizuten
zuri senarra ill-otza:
iru ezpatak zulatzen dute,
señora, zure biotza!*

Foruen on eta gaitzak ezin dira, bestetan esan dut, bere bakarrean hartu: sortu zuten egoera beste zerbaitekin berdinu behar dugu. Askatasun eta (orain, dirudienez, batez ere) berdintasunaz ari garenez gero, ikusi behar duguna da non zegoen bitarte larriagoa goiko eta behekoen artean, Bergara eta Durangon ala Ciudad Rodrigo eta Sepúlvedan. Nekez ixil ditzakegu, bestalde, ixilerazteko gogorik bizienak bultzatzen bagaitu ere, hortaz bere garaian, ilunbezale baino argituago izanik, Foruen alde, ez kontra, mintzatu zirenak.

Gogora datozkit Humboldt (ez lituzke orain gutaz, ez hurrik eman ere, orduan esan zituenak esango), Tallien gerran etsaia eta, lehentxeago, Agirre, Manuel, 1748an jaioa omen. Bere *Cartas y discursos del militar ingenuo* deritzan idazki bilduma A. Elorzari eskerrak eta A. Elorzaren sarrerarekin azaldua izan da Donostian, 1974ean. Argitaratzaileak ederki erakusten du Agirre hori, zena zelako, ezin zitekeela inolaz edozein lege zaharren aldeko izan. Hortik dator, beraz, gure harridura honen «Respuesta de un viajante a un amigo que le pidió noticias del Seminario Patriótico y del País Bascongado» (1780) irakurtzean. Gutunaren egilea, delako Agirre hori, lehenbizikoaren (Mintegiaren) aldeko izateaz gain, bigarrenak duen gobernubide eta lege-erakundearen adiskide guztizkoa agertzen zaigunean.

Argitaratzailea ere, egia esan behar badugu, miresten da zertxobait. Ez gehiegi, ordea, ezina egin bihurtzeko aski baitu auteman ezinak diren kausak irakur daitezkeen hitzen truk eta ordain erakartzea. Esate baterako, hemen Agirrek diotenak «supone un curioso olvido, no sólo de la documentación que... recoge los *Extractos* de la Bascongada, sino incluso de la constante crítica que recorre el resto de sus páginas. La idealización a que procede aproxima los rasgos con que describe la sociedad vasca a los del estado de la naturaleza. *Tal vez* (nik azpimarratzen dut) *cuenta en esta actitud el relativo dejamiento (!!) a que, respecto a su tierra de origen le obliga la profesión militar*». Eta atzean gelditua izan balitz, besterik ez ezagutzeak ematen zion ezjakintasunaren indarrak bultzaturik horrela mintzatu zela esango zigukeen, eta uste hau ez litzateke bestea baino desarrazoizkoago. Nolanahi ere, nahiz batera nahiz bestera, galduan gu, eta besteri uzten diot «gu» horiek nor diren aurkitzea. *Q.e.d.*

14. Bada Iztuetaren pasarte ezagun eta maiz aipatua (*Guip. prov. cond.*, «Itzaurre»-ko vi. or.) honera ere aldatzea egoki iruditzen zaidana:

Guipuzcoaco biztanle prestu guztiac badaquite arguiroqui, beren zoriona datorquotela jatorriz dituzten Fuero onesquietatic; bañan oec oso ta garbi gordetceco gauzaric bearrena cer dan ezagutcen dutenac, guichi dira chit. Fueroac beren oñean irozotceco quirtenic irmeena eta euscarriric seguruen da Euscarazco itzcuntzari ondo contu eguitea; cergatic alcarri laztanduric arras itsatchiac arquitec diran, batac bestea ecin laga dezaquean moduan. Euscara ill ezquero Fueroac ez dira bicico; bañan Euscara bici bada, Fueroac piztuceo dira. Fueroac nai dituanac, maite izan bear du Euscara; eta Euscara maite dabenac, Euscaldunai Euscaraz bear die itzezin ta adierazo, berai dagozquoten gauza guzti guztiac [Eta horrexegatik eta horientzat, euskaldunentzat, egin zuen euskaraz liburu hau Iztuetak]. Bestela, zapuztuceo da Euscara, muishinduceo dira Euscaldunac, eta igues-eguingo dute Fueroac.

Unatuxe eta are gehiago unatzeko bidean zegoelarik, hizkuntzak iraun zuen dirudienez uztarkideak baino luzarago. Eta Iztueta ez zen, oraingoz ikusten dugunez, arras oker ibili bere etorkizunarekiko usteetan. 1876 ez zen guretzat hilotsa izan, soil-soilik, nolazpait ere pizkunde-dei bihurtu zitzaigulako, kultur arloan batez ere. Erdaraz bai, baina baita euskaraz ere, lehen gertatu ez zena gertatu zen geroago. Larregi opa baikenion politikari (edo politika gisako zer-baiti) eta gutxiegia horri zuzenean ez zegokionari.

Aski dugu hitz bitan bake ondokoak gogoratzea. 1876an agertzen dira dagoeneko moldez Hermilio Oloriz eta Arturo Campion; 1877an, Becerro de Bengoa. Urte honetan hasten du Manterola donostiarrak *Cancionero vasco* delakoa, eta 1880an sortu EUSKAL-ERRIA aldizkaria, 1919an ondorengoak utzirik ahituko zena. Orain behar bada gehiago erabiltzen den Salaberri mauletarraren bilduma, *Chants populaires*, 1870ekoa da.

Iraupen eskaseko REVISTA EUSKARA eta REVISTA DE LAS PROVINCIAS EUSKARAS, Iruñean eta Gasteizen, 1878koak dira. Urte berean argitaratzen da *Iriyarena*, bi urtez lehenago Ziburun antzetzua. 1879an *Amaya* (eta barka biezadate erdarazkoen eta horrelakoen alde ez daudenak), baita ere *Piarres Adame*-ren «aipamen onez» saritua izan zen pasartea, Donostiako *Euskal-izkribatzaileen indar-neurtzea*-n.

Muga joa dut, jo ta pasea ere bai. Legeak debekatzen dit orainengoz mintzatzea. Eta etorkizunekoek, ezinak ez baldin badu legerik, alferrik litzateke deus esatea. Beraz,

*Hanbategi beud' erranak
agerriz dadutzanak.
Eztazkit, exterrazket
Gordailuan daunzanak.*

Azkenaldeko hitzak

Ahalik eta trinkoen bildu gogo nuen gaia: lortu dudana ala ez, besterik da. Horrexegatik, bada, aipamenak eta gisa horretakoak hutsean edo hutsaren hurrenean utzi nituen.

Endrike Knörrek eskura zidan Landazuriren testu ezaguna; liburu horrek badu beste edizio bat, Gasteiz, 1976an argitara irten zena. Beragandik jaso dut, gainera, Landazuriren *Los compendios históricos de la Ciudad y Villas de la M.N. y M.L. Provincia de Alava*, Gasteiz 1798; eta oraintsu 1976. Hemen ere

bada berri labur bat «Nanclares» deritzan zatian, 147. or. *Piarres Adame*-ren aintzindari Donostian saritu eta argitara zuten «pasartea», liburuxka baino bederatziren bat urte lehenago azaldua, I. Sarasolari eskerrak ezagutu dut^m.

Txirritarenak A. Zavalak «Auspoa» sailean atera zituen hartu ditut: bitan eta bitara argitaratuen artean eginiko aukera nerea da, ezinbestean. Goien, 12. aldatu bertsoak bi lekutan aurkitu ditut zenbait aldaera gora-behera. Azkeneko aldiz, A. Irigoyen-ek azaldu ditu: «Bilbo eta euskara», *EUSKERA* 22 (1977), 385-425 eta batez ere 419 eta hurrengoetan datorren «Gaboneco cantia vizcaitar guztientzat, euscaldun emacume batec ateria 1819garren urtian Abandoco elextian» (beste bertso pare bat ere jaso dut lan horretarik). Gehienak lehenago ere aurki daitezke Urkixok *RIE* Ven eman zuen bilduman: «Fábulas en dialecto vizcaíno», 1 (1907), 88 hh. (urtea ezaguna da, lehenbizikoa delako eta baita ere, hain justu, hor bertan datorrelako harako Dodgson-en berri hura). Hemen dihoazkigunak 91-92 orrialdeetan daude «Anchinaco euscaldunen alabantzac» izenarekin, urtez 1817. Bilduma Aita Zabala bilbotarrak egin zuen, noski, eta Azkuek Parisen jaso, baina esku artean darabilgun bertso saila «Doña María Vicenta Moguelena» omen da, «euscaldun emacume batec ateria», beraz.

Direlako bertsook, dioena ongi hartu badut, Berlinen 1857an agertu bezala argitara omen ditu Irigoyenek (396. or.). Mähnen *Denkmäler der baskischen Sprache* ezagunetan irten omen ziren: liburuxka ez dut orain helmeneanⁿ. Nolanahi ere, ikus daiteke, geroxeago, Xabier Altzibar, «Bizenta Antonia Mogelen biziaz eta lanaz zenbait argibide», *EUSKERA* 27 (1982), 457-494.

Ez dagokio lekuari, eta ez dihoakit niri, zein den zein baino goiztarrago erabakitzea. Aurrean erakusten dituzten urteak fidagarri badira, «Doña María Vicenta»-rena «euscaldun emacume bat»-ena baino zaharragoa da bi urtez. Haren saila honena baino laburragoa da zenbait bertsoz, eta ez hain «bizkaitarra» gainera, iruditzen zaidanez. Ikus, bestela, elkarren parean batenak eta besterenak: *euren (euscaldunen) muguetatic / Vizcaico lurretic, gueure euscaldunac / Vizcaico mendijac, euscaldun zagaiac / Vizcaico gentiac, gueure ezaugarria / Vizcaico ezaugarrija*. etc.

XVIII. mendeko eta inguruetakoa historialariez aretotik kanpora esan nuena esan dezaket orain, jaso zutenek ez baitzuten erabat zuzenki jaso. Komeni litzaiekela, nioen eta diot, euskaraz zerbait jakitea edo, gutxieneko kontuan, euskarazkoen erdaratzaileak aldamenean edukitzea: eta haiei komeni ez bazaie ere, komeni lukete irakurleek. Kondaira ez omen da, inoiz izan zenez, errege, erregeina, erregezko, handizki eta jauntxoaren tirabirak lerro-lerro ipintzea kontu kontari, nahiz eta gerra, ondorengo bake eta guduak bana-banan aditzera eman. Ezin Txirritari gehiegizko sinesterik opa Cánovas zenbat tiroz hil zuten jakin nahi badugu. Kondaira, ordea, ez da holakoetan agortzen eta ez da Txirrita lekuko txarra ardurazko diren zenbait puntutan.

Garai horretaz eta ingurukoez mintzatu nahi duenak badu nondik abia, hor barrena dabilen iritzi mordoaren (beti, hala behar eta, «kontrakoen») arrazoiak eta desarrazoiak arakatzeko. Lehengoez gainera, leku nabarmen batean agertu berria da gure kaltetan aginte osoa duen harako *damnatio memoriae* hura, hemen «Adiskideen» kaltetan, salaketarako izan ezik. Eta gaitz erdi gure arbasoen izenak ixilpean eta ilunbetan gelditzen direino.

^m [Ik. orain I. Sarasolak prestaturiko J. B. Elizanburu. *Piarres Adame*, «Euskal Klasikoak» Euskal Editoreen Elkarte, Donostia 1986.]

ⁿ [Ik. orain P. Urkizu. «C. A. F. Mähnen kanta eta bertso bilduma. Berlin 1857» *Egan*, 1986, 1-2, 13-84. or.]

Larramendiren gramatika eta gramatikagintzaren historia

RICARDO GÓMEZ
(EHU)

Abstract

This paper deals with Larramendi's Basque Grammar (1729) and tries to place it in the 18th century Grammatical Tradition. In section 1, some trends of Western Grammar and Larramendi's knowledge of them are shown. In 2, the framework of Greek and Latin grammars is briefly explained. In 3, I relate some characteristics of Larramendi's grammar with the classical pattern above mentioned. In 4, I gather some examples of the influence of the classical tradition and consider their suitability for the description of Basque language. Finally, in section 5, general conclusions and other considerations are explained.

0. Larramendiren *El imposible vencido* (Salamanca 1729), jakina denez, lehenbiziko euskal gramatika argitaratua da¹. Ez zen, haatik, hutsetik sortu. Txosten honetan aurreko tradizioek gramatika hartan utzi zuten itzala eta eragin zitzaketen arazoak aztertu nahi ditut. 1. atalean XVIII. mende arteko Mendebaldeko gramatikagintza joera zenbait aurkeztu nahi ditut eta Larramendik zein neurritan ezagutu eta baliatu ahal izan zituen laburki azaldu. 2.ean eredu klasiko edo grekolatindarra azalduko dut zehazkiago. 3.ean *El imposible vencido*-ren ezaugarri orokor batzuk eredu horrekin erlazionatuko ditut. 4.ean eredu grekolatindarraren eragin horren adibide batzuk bil-tzen eta berauen egokitasun edo desegokitasuna nabarmentzen saiatuko naiz. 5.ean, azkenik, ondorio orokorrak bilduko ditut eta beste zenbait gogoeta aipatuko.

1. Lau dira, ene ustez, Larramendik eskumenean zituen gramatikagintz joerak eta bere lanean nolabaiteko islada utz zezaketenak. Hurbilenetik urrunenera hartuta, ondoko hauek dira: euskarari buruzko aurreko lantxoak, hizkuntza erromanikoen

* Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet txosten honen zirriborro ezberdinak irakurri zituzten guztiei, Gidor Bilbao, Agurtzane Elordui, Joseba A. Lakarra, Pello Salaburu eta Koldo Zuazori. Eskaini zizkidaten ohar eta iruzkin aberasgarriek lan hau hobetzeko, baina ez nire oker guztiak ezabatzeko, balio izan dute.

(1) Larramendiren aurreko gramatika-lanetarako, ik. Oyharçabal 1989. Berriki burutu du Edurne Alegriak Larramendiren Arteari buruzko tesina bat (Alegria 1990). Ene iritziz, lan hau *El imposible vencido*-ren irakurketa-gida egokia izan daiteke, bereziki euskara ez dakitenentzat, Larramendiren azterbideaz ezezik, euskararen egituraz eta egungo analisiez ere berri ugari eskaintzen bait du.

gramatikak, misiolarien hizkuntz deskribaketak eta gramatikagintza grekolatindarra.

Lehenbizikoen artean aipamen berezia merezi dute Oihenarten *Notitia*-ko XI eta XIV. kapituluetan azaltzen diren berriek (cf. Oihenart 1656; Saroihandy 1923). Zernahi gisaz, Larramendik ezagutu ahal izan bazituen ere, ez dirudi hortik gauza askorik bere egin zuenik. Larramendi bat dator Oihenartekin euskal hitz guztiak *-a-z* bukatzen ez direla baieztatzen duenean (cf. Oihenart 1656: 168-169; IV, 16), baina ez dugu albo batera utzi behar nor bere aldetik ondorio berberera iritsi ahal izateko posibilitatea. Beste adostasun batzuk ikus ditzakegu adizki jokagabeen eraketan (Oihenart 1656: 342-343; IV, 50-54) eta abots pasiboaren tratamenduan (Oihenart 1656: 344; IV, 152-157). Ez da falta, baina, ezberdintasun nabarmenik. Honela, Oihenartek bereizi zituen deklinabide mugatu eta mugagabe («artikulu-dun» eta «artikulugabe») horien aztarnarik ez da somatzen Larramendirengan; Oihenarten (1656: 350-352) *ezac* eta *adi* —gure **ezan* eta **edin*— aditzei dagozkien formak, baita **edun*-enak ere, *izan*-en barnean sartzen dira andoaindarraren gramatikak²; azkenik, Oihenartek adizki trinkoak erregulartzat —eta, beraz, jatorrizkotzat— eta perifrastikoak irregulartzat hartzen dituen bitartean, Larramendik zeharo kontrako iritzia agertuko du, urte luzeetan euskal gramatikarietan uste hedatuena izan zena, bestalde (cf. Gómez 1989: 361).

Y por ser este modo de Conjugaciones compuestas mejor, por menos expuesto á errores, mas distinto, y mas capaz de distincion, y consecuencia; por esso el Bascuenze es de tanto acierto, puntualidad, y harmonia en sus Conjugaciones regulares. Digo *regulares*; por que todas las Conjugaciones irregulares son simples, y ninguna es compuesta, sea del verbo activo, sea del neutro. (IV, 46)

Gazteleraren gramatiketara zuzentzen bagara, bi joera bereiz ditzakegu: eredu klasikoari jarraitzen diona eta gramatika filosofikoa deritzona. Lehenbizikoaren barnean, Nebrijarenetik hasi³ eta jesulagunek berek prestatu zituzten eskuliburuetaraino, hainbat gramatika-lan burutu ziren Espainian (ik. Closa Farrés 1977, 1978; Lázaro Carreter 1949; Lope Blanch 1990; Padley 1988: 154 hh), baina ia guztietan ezaugarri amankomun anitz aurki daitezke. Gure gaiari dagokiolarik, honako bi hauek dira aipagarri: eredu grekolatindarraren jarraipena —jarraipen itsua zenbaite-tan— eta, era eta aldi berean, eredu berau beste hizkuntza batean ezartzeak eragindako eragozpenak gainditzeko ahaleginak. Horrela, esaterako, *Gramática de la lengua vulgar de España*-ren (Lovaina, 1559) egile izengabeak, gaztelerazko aditzaren aurkez-penean iraganaldi pluskuanperfektoa eta abots pasibo osoa aintzat hartu ez dituelarik, ondoko ohar honekin azaltzen du:

Acabaron se ia las Conjugaciones delos Verbos dela lengua Vulgar de España: en las quales se han declarado todos los modos i tiempos que ella tiene, sin quitarle, ni

(2) Oihenart, batetik, *nais* eta *adi*-ren eta *dut* eta *ezac*-en arteko erlazioaz, hurrenez hurren, eta, bestetik, *adi*-k eta *ezac*-ek modu ezberdinen arabera duten banaketaz ohartu zen (Oyharçabal 1989).

(3) Agian ez zuen *Gramática de la lengua castellana* (1492) ezagutuko, garaian ez bait zen oso zabaldua izan eta bigarren argitalpena 1744rarte agertu ez bait zen. Bai, ordea, ezagutu bide zuen Nebrijaren latinezko gramatika, XVIII.eko azkenerarte Espainian latinaren irakaskuntzarako eredu bakarra izan zena (ik. Lázaro Carreter 1985: 145 hh).

añadirle cosa alguna. Espantarse han (quiça) algunos, de que no pongo io en estos Verbos el Tiempo mas que perfeto, i la Voz Passiva, como dizen los Latinos. Estas son dos cosas, las quales io no pongo por causa que esta lengua no las tiene: i el que desto se maravillare, maraville se también de su ignorancia, *pues (tiniendo ojo ala Latina) por ella quiere formar i ordenar todas las otras; que es, como si un çapatero con una mesma forma quisiesse hazer çapatos para todo i qualquier genero de hombres (...)* por tanto digo, que cada lengua tiene sus particularidades, diferentes las unas delas otras todas...

Ikusiko dugunez, horren antzeko jarrera da Larramendik erakusten duena. Bigarren joera, gramatika filosofikoa edo orokorra, Sanctius-en —El Brocense goitizenez ezagutuaren— *Minerva*-rekin (1587) hasten da Espainian, baina XIX. menderarte ez du arrakasta handirik lortuko, Port-Royaleko gramatikaren jarraitzaile diren Frantziako gramatika orokor eta arrazoituen eragina (Beauzée, Destutt de Tracy, Du Marsais, Thiébaud, etab.) nabarmentzen ez den arte alegia (ik. Brea Claramonte 1980; Calera Vaquero 1986; Gómez Asencio 1981). Horregatik ulertzekoa da arrazoian oinarritzen den hizkuntzalaritza honek Larramendiren gramatikan isuri nimitzua uztea. Izan ere, gutxitan murgiltzen da bere Artean —hagitzez sarrigo Hiztegian— garaiko teorien eztabaidetan eta gramatikaren justifikazioan. Aginteraren aldiari buruzkoa (IV, 69), erromantzeetako pasiboaren ezari buruzkoa (IV, 152-157) eta generoen alferrekotasunazkoa (IV, 250-256) dira salbuespen bakarretakoak. Hizkuntza guztiek sei kasu dituzten Sanctiusen proposamenari ez dio muzin egiten; baina, erakutsi nahi dudanez, eredu grekolatindarraren jarraitze itsu gisa errazago azal daiteke, delako teoria horrekiko adostasunez baino.

Ameriketara bereziki aldatu ziren misiolariak berehala ohartu ziren bertako hizkuntzak ikasi beharraz, indiarrei Berri Onaren mezua heleraziko bazieten. Horretarako, hainbat gramatika moldatu ziren XVI.eko hasieratik aurrera⁵, guztiek Larramendiren Artearekin antzekotasun batzuk aurkezten dituztelarik⁶: Mitxelenak dagoeneko aipatutako «celo evangélico» delakoaz gain, oraingoan gehiago interesatzen zaizkigu gramatika hauetako teorizazio urria —hizkuntz irakasbide izateak eragindakoa— eta eredu grekolatindarra ezartzeko kausitu zituzten eragozpen handiak, euskara bezala puntu anitzetan hizkuntza klasikoetarik eta are erromantzeetarik oso urrun geratzen bait ziren.

2. Mendebaldeko gramatikagintza —beste hainbat kultur arlo bezala— Grezian hasi zen. Erromatarrek ia ahobatez grekerarentzako eredia jaso eta latinari ezarri zioten aldaketarik gabe. Esate baterako, Donatus (K. o. IV. m.) edo Priscianus (ca. K. o. 500) gramatikalarien lanek Dionisio Traziakoaren (ca. K. a. 100) eta Apolonio Discoloren (K. o. II. m.) eragin zuzena agertzen dute. Nolanahi ere, “kopiatazale

(4) Aipua Rojoren artikulutik (1978: 289-290) hartuta dago. Azpimarratua nirea da.

(5) Gramatika hauetariko zenbaiten aipamen eta iruzkin baterako, cf. Lope Blanch (1990: 40-46) XVI eta XVII. mendeez eta Closa Farrés (1978: 71 hh) XVIII.az.

(6) Mitxelenak markatu legez (1988 [1959]: 904), irakasbide hauetan bilatu beharko genituzke Larramendiren gramatikaren aitzindariarik hurkoenak: «El precedente más importante, si bien más lejano, está en otra parte. El arte de Larramendi se alinea junto a las numerosas gramáticas de lenguas indígenas sobre todo de América que misioneros españoles compusieron en su siglo y en los anteriores: incluso se puede probar, como veremos más adelante, que uno de los motores principales fue también en nuestro caso el celo evangélico.»

huts" izatearen akatsa egotzi zieten latindar hauen gramatiken iraupenari esker gorde zen grekoen lana, horrela Berpizkundearen sorrera ahalbidetu zutelarik (Robins 1984). Aipa ditzadan, gehiago luzatu gabe, orainokoa hainbestetan azaldu den eredu grekolatindarraren ezaugarri orokor batzuk:

a. Autoritateen aipamenak: Idazle "onak" (*auctoritates*) dira arauak zilegiztatzen dituztenak; usadioa bigarren mailan geratzen da. Izan ere, gramatikalari anitzen helburua idazle klasikoen hizkuntza gordetzea da, orduko latina aski aldatua agertzen bait zen. Idazle onen erabilpenaren eraginez hurrengo mendeetako gramatikagile gehienak hizkuntza idatziaz arduratuko dira, hizkuntza mintzatua alboratuz eta are gaitzetsiz.

b. Morfologiaren nagusitasuna: Gramatika hauen lehengaia, oinarritzko unitatea, hitza da. Hitzak klaseetan, perpaus ataletan, banatzea eta bakoitzaren aldaketak paradigmetan ezartzea da eredu honen xede nagusia. Hortaz, lehenbizi grekerarako eta gero latinerako asmatu zen perpaus atalen sailkapenak jarraituko du hizkuntza arrunten gramatiketan ere isladatzen.

c. Egitura: Lan gehienetan banaketa berbera errepikatzen da, hurrenkera mantenduz eta zati bakoitzari zabalera bertsua emanez. Horrela, lehenbiziko atalburuetan ortografiaz, letrez, azentuaz eta silabaren egituraz aritzen da; bigarren saila perpaus atalen eta berauen akzidenteen edo aldagaien azterketari eskaintzen zaio, etimologia zeritzan saila alegia —hauxe zen, esan bezala, gramatika-lanaren gunea eta luzeen zihoan zatia—; hirugarren sailean sintaxiaz ziharduten, bi arazo ardatz harturik (perpaus atalen hurrenkera eta egitura). Ereduzko egitura honetan zenbait aldaketa gerta zitezkeen, baina funtsean atalburu nagusien hurrenkera eta pisua bere horretan mantentzen ziren. Adibide gisa honetara dakartzat Donatusen eta Nebrijaren gramatiken aurkibideak; nabari denez, ezberdintasun markagarri bakarria Nebrijak atzeritarrei gaztelera erakusteko sartzen duen azkeneko atalburua litzateke.

Donatus		Nebrija	
ARS MAIOR II		Libro Primero. En que trata de la Orthografía	103
1. De partibus orationis	613	Libro Segundo. En que trata de la Prosodia t	
2-10. De nomine	614	Sílaba	133
11. De pronomine	629	Libro Tercero. Que es de la Etimología t Di-	
12. De uerbo	632	ción	161
13. De aduerbio	640	Libro Cuarto. Que es de Sintaxi τ orden de las	
14. De participio	644	diez partes de la oración	201
15. De coniunctione	646	Libro quinto. De las Introducciones de la Lengua	
16. De praepositione	648	castellana para los que de estraña lengua	
17. De interiectione	652	querrán deprender	225
			(Quilis 1984)
ARS MAIOR III			
1. De barbarismo	653		
2. De soloecismo	655		
3. De ceteris uitiis	658		
4. De metaplasmo	660		
5. De schematibus	663		
6. De tropis	667-674		
	(Holtz 1981)		

3. Larramendiren *El imposible vencido*-ren ezaugarri orokorrei kontu egiten badiegu hauteman daitekeenez, bertan eredu grekolatindarraren berezitasun zenbait errepikatzen dira sarri, baina beste zenbaitetan eredu horretatik aldendu egiten da. Hurbiltze eta urruntze hauek erraz uler daitezke: lehenak gramatikagintz tradizioarekiko atxikimenduari zor zaizkio eta bigarrenak Artearen helburu eta euskararen orduko egoerari⁷:

a. Eredua klasikoari jarraiki, Larramendiren gramatikaren atal nagusia, lehenbizikoa, morfologiari dagokio, bestela ere ulertzekoa dena: euskal gramatika ororen ezaugarri dugu hau ezinbestez, euskararen morfologia aberatsa —aditzaren morfologia batik bat— aintzat harturik. Bestalde, egituratik idoki gabe azpimarratzekoa da ohituraren kontra prosodiari eskainitako atala bukaeran, ez hasieran alegia, agertzea⁸. Honetara dakart, bada, Artearen aurkibide laburtua:

INDICE
de las cosas,
que se contienen en este Arte
del Bascuenze.

[Hitzaurrea (6 or.)]

Primera parte.

Cap. I.	Del nombre; de sus articulos, y de su declinacion.	Pag.	1.
Cap. II.	De los Pronombres, y de sus declinaciones.	pag.	20.
Cap. III.	De las Conjugaciones de los Verbos de Indicativo.	pag.	42.
Cap. III	[sic]. Del Modo Imperativo.	pag.	69.
Cap. IV.	Del Modo Optativo, ò Subjuntivo.	pag.	72.
Cap. V.	Conjugacion 2. absoluta de regimen plural.	pag.	85.
Cap. VI.	Siguense las Conjugaciones relativas.	pag.	90.
Cap. VII.	Del verbo passivo, y del auxiliar <i>naiz</i> , ò <i>naz</i> .	pag.	152.
Cap. VIII.	Del verbo neutro, y de sus Conjugaciones.	pag.	162.
Cap. IX.	de los verbos determinables <i>oi</i> , <i>ecin</i> , &c.	pag.	196.
Cap. X.	Conjugaciones del verbo activo, junto con las inflexiones, que corresponden a <i>possem</i> , <i>potes</i> , puedo, puedes.	pag.	210.
Cap. XI.	Conjugaciones del verbo neutro con las inflexiones correspondientes al <i>possum</i> , &c.	pag.	226.
Cap. XII.	De los verbos irregulares del Bascuenze.	pag.	232.
Cap. ultimo,	Conclusion de la primera parte, en que se habla de generos, y preteritos.	pag.	250.

Segunda parte,
ò la Syntaxis.

Cap. I.	Construccion del nombre.	[pag.	257]
Cap. II.	Del Relativo.	pag.	272.
Cap. III.	Del Pronombre, y su construccion.	pag.	283.

(7) Oso antzekoa da Jakobsenek (1973: 5) dialektika honi ematen dion azalpena: «He [Larramendi] seems to want to show that the conventional terms of Latin grammar can all be applied appropriately to Basque, and also avoids completely any attempt at coining new terms for the purpose of labeling distinctive Basque forms or categories. Hence a tension arises between wanting Basque to seem much like Latin, on the one hand, and wanting to describe accurately its peculiarities, on the other».

(8) Diodan azken aldi honetan arreta berezia merezi izan duela Larramendiren prosodiak, bi artikulua baliatu bait dira atal honetako iruzkinez (Altuna 1991 eta Juaristi 1990).

Cap. IV.	Del Verbo, y su construccion.	[pag. 287]
Cap. V.	Del Verbo neutro, y su construccion.	pag. 300.
Cap. VI.	Construccion de los irregulares, determinables, y otros.	pag. 302.
Cap. VII.	De los modos de oraciones.	[pag. 304]
Cap. VIII.	Del Adverbio, y su construccion.	[pag. 323]
Cap. IX.	De la Posposicion.	pag. 331.
Cap. X.	Construccion de las demás partes de la oracion.	pag. 334.

Tercera parte.
Prosodia del Bascuenze, ò tratado
de sus acentos.

Cap. I.	Pronunciacion, y Orthographia del Bascuenze.	pag. 337.
Cap. II.	El acento es la regla de la pronunciacion del Bascuenze.	pag. 341.
Cap. III.	Acentos del nombre, y pronombre.	pag. 350.
Cap. IV.	Prosodia del Verbo, y de sus constitutivos.	pag. 354.
Cap. V.	Prosodia del adverbio.	[pag. 367]
Cap. VI.	Apendiz de la Poesía Bascongada.	[pag. 373]

b. Larramendi ez da, ordea, autoritateen irizpidean oinarritzen. Izan ere, euskal literaturaren egoera ez zen oso dohatsua denek onarturiko idazle batzuen autoritatea izateko. Arazo honi dagokiolarik, usadio ezberdinak onartzen dituela esan behar da. Ez da arauemailea, ez behinik behin geroxeago Erret Akademiaren Gramatika (1741) izango den bezala. Dena dela, nolabaiteko arauak, norma bat, ezarri nahi dio euskarari, baina ez du kontu honetan oso hertsiki jokutzen:

El uso en algunas partes ha introducido, que en la terminacion de la tercera persona de singular de la conjugacion absoluta, el relativo no solo añade una *n* à la vocal, segun la regla, siguiendo tambien en v. g. *jaten-du, deu, dou; jaten-duen, deuen, douen sagarrá*: mas este uso no embaraza la regla general. (IV, 275)

c. Halaber, ereduarekiko, gramatikarien terminologia hedatuenarekiko, iritzi zabalenekiko, etab. aski kritiko, eszeptiko batzuetan, azaltzen da. Hona adibide gisa Artetik idokirikoa pasarte hauek:

...passarémos à establecer aora los principios generales, y necesarios, para arreglar en consecuencia las Conjugaciones, y sus modos diversos, advirtiéndolo, que, aunque estoy mal con muchas locuciones de los Gramaticos en orden à la division, naturaleza, propiedades de los verbos, y de los nombres, de sus tiempos, y modos, seguiré no obstante el uso comun de otros Artes, y sus Autores. (IV, 43)

Pero por que los Gramaticos tienen tambien sus derechos, y limites, no disputaré su division de tiempos, ni sus nombres. (IV, 59)

Desadostasuna terminologiaren egokitasuna juzkatzen duenetan areagotzen da:

Yo procuraré declarar brevemente estas propiedades, y no mudaré los nombres comunes, con que en España se significan estos tiempos del Optativo. (IV, 72)

Aora nos toca hablar de los verbos irregulares, anomalos, defectivos, impersonales del Bascuenze, sin disputar con los Gramaticos sobre la propiedad destes nombres. (IV, 232)

...y pudieran tambien llamarse oraciones de *andando*, siguiendo este insulso, aunque tan comun distintivo de oraciones,... (IV, 318)

d. Eredu grekolatindarra oso egitura ezberdina duen hizkuntza batean ezartzean arazoak eta desegokitasunak sortzen dira, gaztelarekin eta areago Ameriketako hizkuntzekin gertatzen zen legez. Larramendik badaki, jakin, ereduak mugak ditue-la eta badu bere aitzindarietasunaren kontzientzia argia. Halaber, euskararen apartekotasunaren eta horrek zekarzkion zailtasunen berri ematen du:

Si llaman imposible à una gran dificultad, la confieso desde luego; y que sobre lo dificil, que es, disponer Arte de qualquiera Lengua, en la nuestra, por lo singular de su artificio, y por no estar sendereado el camino, son tan de vulto las dificultades, y embarazos, que no me admiro, que, quando en algun tiempo tuvieron pensamiento de componer Arte della, aterrados desistiessen de la empresa. No he tenido guia, que vaya delante, y me dirija, me ha sido preciso romper el camino, en que apenas pueden servir las ideas de otros Artes, mas que para el cotejo; por que el Bascuenze es una Lengua, que congenia poco con las otras. (IV, hitzaurrea)

...que en todo caso observen, que la construccion, ò Syntaxis del Bascuenze, comparada con la de otras Lenguas, es pospositiva: observacion, de cuya falta ha nacido parte de la gran dificultad de componer Arte Bascongado. (IV, hitzaurrea)

Beraz, ereduak gainditu egin beharraz kezkatzen da barzuetan:

Otros, que han estudiado mal, ò bien la Gramatica Latina, piensan, que essa ha de ser la regla de todas las demás Gramaticas: de donde nace, que piden unas raras puntualidades en Bascuenze, y otras Lenguas comparadas precisamente con el Latin; y no reparan, que pidiendoseles al trocado otras cosas, que se hallan en el Bascuenze, y demás Lenguas, no se encuentran en el Latin. V. g. tres numeros tiene el Griego; pues busquelos en Latin: tres segundas personas tiene el Bascuenze; pues busquelas en Latin: dos preteritos perfectos de Indicativo; pues busquelos en Latin, y assi de otras innumerables cosas. (IV, 85)

Los Gramaticos tienen tambien verbos, que llaman *impersonales* no sê por qué. En Bascuenze pueden llamarse, si quisieren, con esse nombre, los verbos, que corresponden a los que en Latin, y otras Lenguas son impersonales. (IV, 249)

4. Zernahi gisaz, eta garaiko jarrera arruntena denez, gehienetan oharkabean bada ere, itsu-itsuan jarraitzen dio grekolatindar gramatiken ereduari. Ondoren, bai desegokitasunen bai jarraipen itsuen adibide batzuk erakutsi gogo ditut xehekiago.

4.1. Esan bezala, gramatikagintza tradizionalaren auzi nagusienetako bat perpaus atalen sailkapena da. Arazo honi dagokiolarik, Dionisio Traziakoak abiatu eta Donatus eta Priscianusen bitartez zabaltzen den zerrenda da, aldaketa txiki batzuk gora-behera, gehienetan errepikatzen dena⁹. Dionisiok zortzi atal bereizi zituen: izena

(9) Salbuespen aipagarrienetakoa dukegu Varron, zeinaren sailkapenak Chomskyk X-barraren teorian bildutako proposamena gogora ekartzen baitu. Izan ere, Varronek bi irizpidetan oinarriturik —kasurik duten ala ez eta aldirik duten ala ez— lau perpaus atal bereizten ditu: izena, aditza, partizipioa eta adberbioa (azken honetan "partikulak" ere sartuko zirelarik). Horrela, izenak kasua badu, baina aldirik ez; aditzak kasurik ez eta bai aldia; partizipioak biak

(adjektiboa barne), aditza, partizipioa, artikulua, izenordaina, preposizioa, adberbioa eta juntagailua. Latindarrek peitu zuten artikulua ordez —eta atalen kopurua mantentzearen— interjekzioa gehitu zuten. Dakusagun, orain, Larramendiren zerrenda:

Siguiendo la comun opinion de los Gramaticos darémos á esta Syntaxis del Bascuenze sus ocho partes de la oracion, *nombre, pronombre, verbo, participiá, posposicion, adverbio, interjencion, y conjucion*. El articulo, como determinacion que es del nombre, y pronombre, quiero se entienda ser parte dellos. (IV, 258-259)

Beraz, zerrenda klasikoan aldaketa bakarra ezartzen du, ezinbestekoa zena bestalde; preposizioaren ordez posposizioa sartu, Larramendik berak hitzaurrean azpimarratzen duenez, horrelako egitura bait du euskarak.

4.2. Deklinabidearen paradigmak sei egiten badiegu, latinarren sei kasu berberak errepikatzen direla nabari da:

SINGULAR	
Nom.	<i>á, ác</i> — el, la.
Gen.	<i>arén, aréna</i> — de, de el, de la.
Dat.	<i>arí, aréntzat</i> — a; para.
Acus.	<i>á</i> — el, la.
Voc.	<i>ó, á</i> —
Abl.	<i>aréquin</i> — con el, con la. <i>agátic</i> — por el, por la. <i>agábe</i> — sin el, sin la. <i>án, eán, agán</i> — en el, en la. (IV, 3)

Honen antzeko paradigmak aurkeztu zituzten Oihenart, Mikoleta eta Urtek lehenago eta Hervás, Lardizabal eta Gèzek geroago, besteak beste (cf. Alberdi 1989). Jarraitze itsu honetaz zenbait ohar egin ditzakegu. Absolutibo eta ergatiboaren arteko bereizkuntzarik, jakina, ezin dugu aurkitu. Ergatiboari XIX. menderrate —eta oraindik ere XX.ean— “nominatibo aktibo” edo antzeko deiturak ezartzen zizkioten. Guztiarekin ere, beste anitzetan bezala, Oihenart dugu aitzindari: bere sei kasuak —kopurua mantentzen saiatzen bait da— ez dira latinarren berberak: ez ditu bokatiboa ez akusatiboa sartzen (nominatiboaren bidez adieraziko bait lirarteke), baina beste bi kasu eransten ditu, ezeztatzea edo zalantzazkoa (*-(r)ic*) eta egitekoa (*-(e)c*).

Ereduaren jarraipenaren eragin zuzena dugu datibo eta ablatibo kasuetan gertatzen dena: Lehenbizikoan «a» eta «para» itzulpenek behartuta berezko datiboari (*arí*) destinatiboa ere (*aréntzat*) erantsi behar dio —orobat Mikoletak—. Ablatiboa, bere aldetik, “cajón de sastre” moduko bihurtzen zaio Larramendiri, era eta eite desberdinetako kasuak metatuz —*aréquin; agátic; agábe; án, eán, agán*—, beti ere latinezko kasua eredutzat hartu bait du.

ditu, eta adberbioak bat ere ez. Beste salbuespen bat da Sanctiusengandik abiatuak (eta honek Aristotelesengandik eta tradizio arabiar-hebraiarretik jasorik, antza) gramatika orokorretara hedatuko dena: izena, aditza eta partikulak. Saillkapen hirukoitz honen alde begien bistako arrazoi erlijiosoak eman ziren besteak beste.

Numeroari dagokionez, Oihenarten irizpide formalari ez jarraitzeak, hots, singular eta plural numeroak baino ez bereizteak, baieztapen bitxiak egitera behartuko du:

Pero notese, que si el nombre se acaba en vocal, como *arri*, *arguí*, el genitivo es de singular, suprimida la *a*, como *arrirén bat daucat*, tengo alguna piedra, *arguirén batec itsutú nau*, alguna luz me ha cegado: pero si el nombre se acaba en consonante, el genitivo es de plural v. g. *chacír*, *mutil*, *jaun*, &c. *chacurren bat*, *mutillen batec*, *jaunen batéc*, y no *chacurrarén bat*, *mutillarén bat*, *jaunarén bat*. (IV, 286)

Azkenik, paradigmatak kanpo utzi behar izango ditu beste hainbat "artikulu"10. Partitiboaren markak (*íc*, *ric*) nominatibo eta akusatibo singularrari atxikiko dizkie, egoera zehatz batzuetan soilik erabiltzen direla ohartuz. Genitiboaren barnean sartzen ditu instrumentalaren markak; *áz*, *záz* eta *z*, ez artikulua bereizten ditu eta bigarrenak ablatiboaren antz handiagoa dutela erasten du. Ablatiboan sartuko du, bestalde, *az* posposizioa «que corresponde á la preposicion de ablativo *con*, v. g. *espatáz*, *maquilláz jo-deu*, *il-zuen*.» (IV, 11). Azkenik, leku-denborazko kasuak adberbiotzat hartuko ditu, nahiz eta aldi berean posposiziotzat ere hartu (IV, 323 hh).

4.3. Zenbakiei eskainitako atalburuan euskara hartzen bide du oinarritzat, zerranda hogeinaka antolatzen bait du, ez hamarnaka. Ene ustez, alderantziz jokatu izatekotan *ogueitamar*, *berroqueitamar* etabar agertuko ziratekeen, gaztelerazko zenbakien kidezkat. Zenbakien esparrutik atera gabe, deklinabide mugagabea aintzat ez hartzeak arazo franko sorrarazten dizkio, gaztelerazko artikulua agertzen den ala ez:

La diferencia está, que los numerales del Bascuenze, que se acaban en vocal, en el segundo nominativo —ergatiboa— que corresponde al que, y en Romance no lleva *los*, añaden una *c*, v. g. *bi*, *bic*, *hirú*, *hirúc*, *zazpi*, *zazpíc*: pero los que se acaban en consonante, añaden *ec*, *bat*, *batéc*, *bost*, *bostéc*, *amár*, *amarréc*; aunque tambien varias veces se pone esta terminacion à los que se acaban en vocal.

Esta diversidad, que tienen los numerales en sí, passa tambien à los nombres, de que vienen acompañados; demanera, que si el numeral del Romance dexa el artículo *los*, *las*, el nombre añade una *c*, si se acaba en vocal, y si en consonante *ec*, v. g. cien Angeles te lleven, *eun Aingurúc eraman azatela*, *amár guizonéc nácarte*, diez hombres me traen. Se entiende la regla para los verbos activos. Pero si el numeral del Romance viene con el *los*, *las*, el nombre del Bascuenze toma el artículo *ac*, v. g. los cuatro hombres *lau guizonac*, &c. (IV, 40-41)

(10) Deklinabide atzizkietarako Oihenartek ere badarabilen "artikulu" berba zergatik erabiltzen duen erakusten saiatzen naizen Larramendiren tradizioarekiko atxikimenduaren barnean azal daiteke, grekerazko artikulua deklinatuen statusarekin alderatuz gero. Gauza jakina da artikuluez lagundurik aurkezten zirela grekerazko gramatikaren paradigmak kasu ezberdinak eta, ohitura honi jarraitzearen, *bic*, *haec*, *hoc* erakuslearen formez baliatuko zirela latindarrak zeregin berorretarako, artikulurik ezean. Artikulua gramatikagintza klasikoan kasu markaren eramaletzat edota izenaren genero eta numeroaren adierazletzat hartu bide zen, bestelako funtziorik ezarri gabe. Artikulua izenaren determinatzailetzat hartzea, ordea, beranduagoko kontua da; agi denez, Port-Royaleko gramatikarekin eta ondoko gramatika filosofikoekin hasi zen (Gómez Moreno 1981: 160). Nolanahi ere den, J. A. Lakarrak ohartarazi didanez, "artikulu" berbaren esanahiaren arazoa uste baino korapilatsuagoa izan liteke; izan ere Zavalarentzat, esaterako, gaurko "adizki" berbaren pareko edo bait litzateke.

4.4. Perpaus atal bakoitzaren azpisaillkapenean antzeman daiteke nabarmenkiago ereduarekiko atxekimendu hertsia. Adibide gisa, eta Larramendiren gramatikan duen pisua ere kontutan harturik, aditzaren azpisailak aipatu gogo ditut. Aditzak hiru azpisailetan banatzen ditu: aktiboak, pasiboak eta neutroak; honetan Priscianusek eta beste hainbatek bezalaxe jokatzan du, definizio nozionalak ematerakoan:

...el verbo no se llama activo, por que significa alguna accion; pues tambien el passivo significa accion: ni el verbo se llama passivo, por que significa alguna passion. Llamense pues con esos nombres, por el modo particular que tienen de significar, à la accion, ò la passion: el verbo activo significa la accion, rigiendo un acusativo tacito, ò expreso, à que ella se termina, sin cuydar de su recepcion: el verbo pasivo significa la passion, ò recepcion de algun exercicio, sin cuydar de su origen, y principio. (IV, 163)

Aditz neutroak, ez aktibo ez pasibo den arren, pasiboaren antz hadiagoa du bai esanahiagatik bai formagatik ere:

Con todo esso, el verbo neutro imita mas la condicion del passivo, que del activo, assi por que significa algun exercicio, sin cuydar de su principio; como por que significa un exercicio, que no pide salir fuera, y buscar acusativo, à quien se termine. De aqui nació, que el Bascuenze, que es Lengua Philosophica, haze sus verbos passivos con los auxiliares absolutos —hots, NOR sailekoak— del verbo neutro, observando puntualmente la correspondencia entre el significado del verbo passivo, y neutro, y entre los modos de significar, que tienen ambos. (IV, 163-164)

Larramendik hiru aldi “filosofikoak” bereizten ditu: oraina, iragana eta geroa Gainerako aldiak oinarritzko hiru hauen aldaerak lirakeke. Banaketa hau, dagoeneko Donatusen Arteetan kausi daitekeena, gramatika filosofikoak zabalduko du (Sanctius, Port-Royal, etab.) eta XIX. mendetik aurrera arrakasta erdietsiko (ik. orain *EGLU*-n ematen dena). Halarik ere, Larramendik gramatikarien ohizko banaketa anizkoitzari amore ematen dio.

Los tiempos propiamente hablando no son mas que tres, presente, preterito, y futuro, y ninguno ay, que no se reduzca à alguno destes tres; por que todos los demás son modificaciones, ò del presente, ò del preterito, ò del futuro. Pero por que los Gramaticos tienen tambien sus derechos, y limites, no les disputaré su division de tiempos, ni sus nombres. (IV, 57-58)

Horrela honako aldi-zerrenda hauxe eskaintzen digu hurrengo lerroetan: orainaldia («presente de Indicativo»), iraganaldi burutugabea («preterito imperfecto»), iraganaldi burutua («preterito perfecto»), iraganaldi “pluskuanperfektoa”, geroaldi inperfektoa eta geroaldi perfektoa. Saillkapen hau gramatikagintzan oso arruntzat jo dezakegu. Donatusek, Priscianusek eta, esaterako, Nebrijaren gaztelerazko gramatikak proposatzen duten zerrenda berbera da, azkeneko bi aldien bereizketan izan ezik. Baina geroaldi inperfekto eta perfektoa Nebrijaren latinezko gramatikaren bigarren edizioak (1523) bereizten ditu dagoeneko, bertan *amabo* / *amavero* bikotea sail ezberdinetan sartzen bait da, eta gaztelerarako lehen aldiz Lovainako 1555eko egile izengabeko *Gramatika*-k (cf. Rojo 1978).

Bestalde, Larramendik iraganaldi burutua bi motatakoa izan daitekeela dio; bata hurbila (*yo he comido*) eta bestea urruna (*yo comí*). Latinean peitu den bereizkuntza

honen jatorria, noski, euskaran jarriko du, eta beronetatik ikasiko zuketzen gaztelerak eta gainerako erromantzeek (IV, 60). Europan bereizkuntza honen abiapuntua Port-Royaleko Gramatikan (1660) kokatu behar dugu. Lan honetan, aldien sailkapenenan berrikuntza nabari bat ezartzen da, zeinaren bitartez iraganaldi hurbila eta urruna bereiztea erraztuko bait da: aldi bakunak eta aldi konposatuak. Lehenbizikoak oraina, iragana eta geroa dira. Bigarrenetan lehenagoko edo geroagoko ekintza batekiko erlazioa ere kontutan hartzen da¹¹.

4.5. Aditz bakunen eta konposatuen —nahiago bada, trinko eta perifrastikoen— antzinatasun eta jatorriaren arazoan, esan bezala, geroztik eta XIX. menderarte jarrera nagusia izango dena ezartzen du Larramendik, hots, adizki konposatuak dira erregularrak, eta beraz jatorrak, eta bakunak irregularrak, kutsatuak. Beraz, euskaraz aditz guztiak, “benetako” aditz guztiak konposatuak lirarteke. Larramendiren iritziz, latinez denak bakunak lirarteke eta gazteleraz, aldiz, bi eratakoak leudeke. Honetarako erabiltzen duen irizpidea —pasiboetarako ere baliatzen duena— komunztaduraren agerpena da. Partizipioak komunztadurarik zaintzen ez badu, benetako partizipioa da eta, ondorioz, adizki konposatua dugu (*ha amado*); komunztadurarik zaintzekotan, ostera, ez da partizipioa adjektiboa baizik, eta aditza bakuna da (*amatus, -a, -um est, es amado, -a*). Guzti honetatik bi ondorio ateratzen ditu: gaztelerak ez du adizki pasiborik eta euskarak, ez latinak ez grekoak, eman dizkio gaztelerari —eta orohar erromantzeei— adizki konposatuak.

4.6. Adizki jokagabeak («modos del infinitivo») sailkatzerakoan ere, latina izango du gidaburu:

	Infinitivo del verbo <i>jan</i> .	
Pres. infin.	<i>jan, jatea</i>	comer, comido.
Pret. infin.	<i>jan-izán</i>	aver comido.
Partic. pres.	<i>játen</i>	comiendo.
Partic. fut.	<i>jangó, jánen</i>	quien ha de comer.
Fut. de infin.	<i>jan beár</i>	aver de comer.
Gerund. Genit. y Dat.	<i>játeco</i>	de comer, y para.
Gerund. Acusat.	<i>játera</i>	à comer.
Partic. pret.	<i>janá</i>	comido.
Ablativ. absol.	<i>janíc</i>	aviendo comido. (IV, 50)

Oraingoan bederen latinarekiko zorra aitortzen du, hala nola desegokitasunaz ohartu ere:

Antes de explicar estos modos, quiero brevemente desembarazarme de algunos reparos. Ya tengo antes insinuado, que estoy muy mal con muchos destes nombres, con que los Gramaticos declaran los varios modos del Infinitivo, no solo en Latin, sino tambien en otras Lenguas; pero que no quiero quitarles la possession en que están, ni obligarlos à forjar otros nombres. Y solo advierto, que à los varios modos del Infiniti-

(11) Spainian Belloren gramatikan sartzen da bereizkuntza hau lehenbizikoz (1847), baina lehenago ere Astarloak jaso zuen *Discursos filosóficos*-en, nahiz eta lan hau 1880. urtean ez argitaratu.

vo Bascongado doy esos nombres, solo por que con los mismos se explican los modos del Infinitivo Latino, con los cuales se corresponde mejor. (IV, 50-51)

Menpekotasun honetatik arazo batzuk sortzen dira: formalki “infinitibo” soilak ez diren forma batzuk sartu beharrean dago (*jan beár*); itzulpen bitxiak ematera bultzatzen du (*jangó, jánen* ‘quien ha de comer’); ablatibo absolutuaren marka bezala *-(r)íc* ematen du, nahiz eta deklinabidearen aurkezpenean nominatiboaren aldaeratzat hartua zuen¹²; orobat gerundioekin, batak ez bait du datiboaren markarik (*játeco*) ez eta besteak akusatiboarenik ere (*jávera*). Bestalde latinaren eta euskararen erabateko paralelotasuna bilatu nahian¹³ *jaten* eta *jango, janen* adizkien kide latindarrak (*manducans* eta *manducaturus*, hurrenez hurren) ere forma aldaezinak direla baieztatzen du. Beraz, latinezko orainaldiko eta geroaldiko partizipioen deklinagarritasuna saihesten du zeharo.

4.7. Aditz irregularrak edo trinkoak, konposatuen gisara, aktibo eta neutroen artean banatzen ditu. Baina oraingoan ere aktibotasunaren edo neutrotasunaren irizpidea gazteleraren kideen arabera erabiliko du, ez euskarazko aditzak hartzen duen “nominatibo”aren arabera, Larramendik berak markatu bezalaxe:

Lo 2. el nominativo de singular tiene dos artículos *á, ác*, que no pueden usarse promiscuamente; por que el primero sirve à los verbos neutros, y pasivos, *jaun-á dátor* el señor viene; *hume-á il da* el niño se ha muerto; el segundo sirve à los activos, *jaun-ác eman-du*, el señor me lo ha dado, *hume-ác artzen-du*, el niño lo toma. (IV, 4)

Horrela, ergatiboa eskatzen duten zenbait aditz neutroen barnean sartuko ditu, antza lehenago esandakoaz gogoratzeko, hala nola *idurí* ‘parecerse’, *iritzí* ‘parecer’, *iraquí* ‘hervir’ eta *iraun, iraundú, irauntú* ‘durar, perseverar’ (IV, 244-249). Guzti hauetan irizpide nozionalaz baliatzen da, ez bait dute akusatiborik, hots, neutroen moduan jokatzeko bait dute alde honetatik, nahiz eta formalki aktibotzat hartu behar izan. Jakina, gazteleraz ere aditz neutroak liriateke.

5. Lerro hauekin ez dut Larramendiren Arteaz iritzi txarrik zabaldu nahi izan. Gramatika honen “akatsak” nolabait azpimarratzean, ene asmoa Larramendiren eredu posibleetan eta berauek euskarari ezartzeak sortu zizkieten zailtasun eta arazoetan arreta handiena jartzea izan da; azken batean, Larramendi bere garaiko seme dela erakustea. Tamalez, grekolatindarren eredu orokorrean oinarritu behar izan dut txosten hau, oraino ez bait dakigu Larramendik zein gramatika erabili zuen eskuartean bere Arteari ekiterakoan, ezta eredu zko gramatika-lan bakarretik abiatu zen ere.

Dena dela, ez nuke bukatu nahi *El imposible vencido*-k, garaiko ezagutzak aintzat hartzen baditugu, euskararen oso deskribapen ona ematen duela eta, euskararen egituraz den bezainbatean, lorpen zoragarri eta intuizio zorrotz batzuk ere badituela argi utzi gabe. Honen seinale, Larramendiren Arteak ondorengo euskal gramatike-

(12) Oihenartek bi *-íc* atzizkiak, izenkietakoa eta adizkietakoa, bat ditu.

(13) Oroit bedi gramatikagintza tradizionalan latina eredu formala ezezik, hizkuntza aberats eta noblearen eredu ere badela, eta hizkuntza batek zenbat eta latinaren antzekotasun hertsia goa izan, aberastasun, nobleatasun eta prestigio handiagoa erdiesten zuela.

tan izan zuen eragin aparta (Hervás, Añibarro, Zabala, Lardizabal, van Eys, etab.)¹⁴. Horregatik, R. H. Robinsen ondoko hitz hauekin bukatu nahi nuke, Hizkuntzalari-zaren historialari honek grekoei buruz idatzi zituenak Larramendirentzat ere zeharo baliagarriak direla uste bait dut:

But it must be remembered that we are judging them in the light of many generations of subsequent speculation, and are in danger of passing sentence on them by the application of retrospective legislation. [...] Pioneers always have the hardest job and always make mistakes. (Robins 1951: 46)

Bibliografia

- Alberdi, X., 1989, «Ohar batzuk euskal deklinabidearen historiografiarako», *ASJU* XXIII-2, 411-434.
- Alegria, E., 1990, *Manuel de Larramendi et sa Grammaire "El Imposible Vencido-Arte de la Lengua Bascongada". Travail d'étude et de recherche*, tesina argitaragabea, Université de Bordeaux III, Bordeaux.
- Altuna, P., 1991, «¿Son hexadecasílabos los versos de Dechepare?», in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, *ASJU*-ren Gehigarriak, 14, Donostia.
- Breva Claramonte, M., 1980, «La teoría gramatical del Brocense en los siglos XVII y XVIII», *REL* X-2, 351-371.
- , 1983, *Sanctius' Theory of Language. A Contribution to the History of Renaissance Linguistics*, John Benjamins, Amsterdam / Philadelphia.
- Calero Vaquera, M. L., 1986, *Historia de la gramática española (1847-1920)*. De A. Bello a R. Lenz, Gredos, Madrid.
- Closa Farrés, J., 1977, «La difusión de la *Ars Minor* de E. Donato en los siglos XVI y XVII», *Anuario de Filología* III, 47-80.
- , 1978, «La difusión de la *Ars Minor* de E. Donato en el siglo XVIII hispano», *Anuario de Filología* IV, 39-91.
- Donzé, R., 1970, *La Gramática General y Razonada de Port-Royal*, EUDEBA, Buenos Aires.
- Gómez Asencio, J. J., 1981, *Gramática y categorías verbales en la tradición española, (1771-1847)*, Univ de Salamanca, Salamanca.
- Holtz, L., 1981, *Donat et la tradition de l'enseignement grammatical*, CNRS, Paris.
- IV = Larramendi 1729.
- Jakobsen, W. H. Jr., 1973, «The First Basque Grammar», *The Basque Studies Program Newsletter*, 8, 4-7.
- Juaristi, J., 1990, «De métrica vascorrománica», *ASJU* XXIV-2, 385-405.
- Keil, H., 1961 [1855-1859], *Grammatici latini*, Georg Olms, Hildesheim (8 lib.). Lehen arg.: B. G. Teubner, Leipzig.
- Kukenheim, L., 1951, *Contributions à l'histoire de la grammaire grecque, latine et hébraïque à l'époque de la Renaissance*, E. J. Brill, Leiden.
- Lakarra, A., 1989, «Gogoetak XVIII. mendeko euskalaritzaren inguruan», *ASJU* XXIII-2, 447-461.

(14) Bidenabar, egiteke dago, eta egin beharreko lana deritzot, *El imposible vencido*-ren eraginaren miaketa sakona, bai ondoko gramatiketan baita euskara idatzian —agian zailago hautematen, baina ezinutzizkoa azterketa egoki eta osoa izango bada—, andoaindarraren eraginaz aritzean gehien bat hiztegitzaren arloan mugitu bait gara orain arte behintzat.

- Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada*, Salamanca. Berrarg. fak. Hordago, Donostia, 1979.
- Lázaro Carreter, F., 1949, *Las ideas lingüísticas en España durante el siglo XVIII*, Anejo XLVIII de la RFE, CSIC, Madrid. Bigarren arg. Crítica, Barcelona, 1985.
- Lope Blanch, J. M., 1990, *Estudios de Historia Lingüística Hispánica*, Arco/Libros, Madrid.
- Michael, I., 1970, *English Grammatical Categories and the Tradition to 1800*, Cambridge Univ. Press, Cambridge.
- Mitxelena, K., 1988 [1959], «La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)», *SHLV*, II, 900-911. Lehen arg.: *Cuadernos de la Cátedra Feijoo* VI.
- Nebrija, E. A. de, 1492, *Gramática de la lengua castellana*, A. Quilisen azterketa eta arg., Editorial Nacional, Madrid, 1984.
- Oihenart, A., 1656, *Notitia utriusque Vasconicae tum Ibericae tum Aquitanicae*, Paris, bigarren arg. osatua. Gazteleraizko itzulpena erabili dut, J. Gorosterratzuk moldatua, *RIEV* XXVII (1926), XXIX (1928).
- Oyharçabal, B., 1989, «Les travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729)», *ASJU* XXIII-1, 59-73.
- Padley, G. A., 1976, *Grammatical Theory in Western Europe 1500-1700. The Latin Tradition*, Cambridge Univ. Press, Cambridge.
- , 1988, *Grammatical Theory in Western Europe 1500-1700. Trends in Vernacular Grammars II*, Cambridge Univ. Press, Cambridge.
- Robins, R. H., 1984 [1967], *Breve historia de la Lingüística*, Paraninfo, Madrid.
- , 1951, *Ancient & Mediaeval Grammatical Theory in Europe*, G. Bell, London.
- Rojo, G., 1978, «Las primeras descripciones del verbo castellano», in *Estudios ofrecidos a E. Alarcos Llorach*, III, Oviedo, 281-304.
- Saroihandy, J., 1923, «Doctrina gramatical de Oihenart», *Tercer Congreso de Estudios Vascos*, Donostia, 41-46.

Larramendirekin aurreko hiztezigintzaren historiaz: aztergai eta gogoeta

JOSEBA ANDONI LAKARRA
(EHU, Gasteiz)

0. Laburpena

Segidan euskal hiztezigintza zaharraz hobekiago jabetzeko azterkizun diren gai zenbaitez arituko naiz; ez guztiez, noski, gehiegi bait dira agortzeko, ez eta guzti-kerako ere, hiztegi bakoitzak arazo bereziak aurkezten bait ditu hemen ukitu orokorra-goez landa. § 1.ean Larramendi (L) aurreko hiztezigintzaz ihardungo dut gain-gainetik, diren filologi arazoak aipatuaz eta beren azterketak euskal hiztegi-gintzaren historiarako eta L artezago aztertze duen interesa aldarrikatuaz: § 1.1. Hitz zerrendak, § 1.2. Galdutako hiztegiak, § 1.3. Gordetakoak. § 2.ean L-rekiko azken urteotan izan den hurbilketa aldaketa zirriborratzen dut, ondorengo ataletan sendotzeko eta zehazteko asmoz. § 3.ean L-ren hiztegiaren praktikotasunaz ihardungo dut, gaztelera-euskara ordena ez dela horren aurkako aitzakia erakutsiaz (§ 3.1.); bestalde, egitura hori eta eredu (Academiako hiztegia) XVIII. mendeko hainbat hiztegiarekin amankomunean duela gogoratzen dut, hori dela kausa indarririk gehiena galtzen duelarik apologizatasunean oinarrituriko azalpenak. Atal hori amaitzeko (§ 3.2.) apologiekiko excursus bat gehitzen dut, batetik haien egitekoa ez bait da artez ulertu, eta, bestetik, euskal apologiak zuzen aztertze beren benetazko testuinguru-ruan (garaikide eta erkagai direnekin batera, katalan herrietakoekin, esaterako) egin behar dela markatzen saiatu naiz. § 4 iturri arazoei eskaintzen zaie: § 4.1.ean L-k ez zituela iturri guztiak aitortu gogoratzen dut eta baita oraindik alde honetatik aurre-rapek Harriet (H) Eraskineko (E) nahiz Hirukoitzeko (HH) iturri izan daitezkeela aldarrikatzen; § 4.2.ean testukritikak hiztegi azterketari iturri bilaketan eman die-zaiokeen laguntza zenbaiten erakusgarriak dakartzat: sarrera konplexuen edo atzizki analisisitik datozkigunak, E-ko adibideen bitartez; § 4.3.ean E-ko iturriez orain ditugun datu berrien aurrean diren arazoak zirriborratzen ditut, bereziki L-k baino lehenago haren iturriak ere Axular erabiltzetik datozkeenak. § 4.4.ean E-ko iturrien zenbatekoak dakiguna laburtzen dut eta baita H ez soilik E-ko baina HH-eko ere izan zela erakusten. § 5.ean aurreko atalaren jarraipen gisa HH-ak garaiko bi hiztegi-ekin dituen harremanetarik zenbait puntu dira aztergai: § 5.1.ean Sbarbi-Urquijo

* Ene eskerrik beroenak adierazi nahi dizkiet Gidor Bilbao eta Ricardo Gómezi eman didaten laguntzagatik. Esan gabe doa geratzen diren hutsak neureak direla.

(*SbUr*) hiztegiaren kronologia eta egiletasunaz diren datuak miatzen ditut eta § 5.2.ean *HH*-ren bihurketa noraino iritsi zen mugatzen L-ren beraren euskara-gazte-lera hiztegiaren. § 6.a hitzberriei eman zaie: § 6.1.ean H-ren hiztegiko *-katu* eta *-kuntza-z* osatuak aztertzen dira, eratorriak sortzeko guztien erabileran eta euskara-frantsesa eta frantsesa-euskara hiztegien artean diren ezberdintasun handiek (zehatzago, frantses-euskara hiztegiaren den atzizkibidezko eratorpenaren aldeko joerak) azalpen berezia eskatzen dutela irudituz. § 6.2. eta § 6.3.ean L aurreko beste bi hiztegitako (Pouvreau eta Urte) hitzberriak sortzeko ohitura erakusten dut, ezaugarri hau ez zela L-rekin sartu euskal tradizioan, eta maila jaso eta landua (ez herrikoia) eraikitzeko gogoia legez aurretiaz zela frogatuz; atal honekin amaitzeko, § 6.4.ean Pouvreaux eta Urtek beren euskal testuetan ere hitzberriak erabiltzen dituztela markatzen da, horrela L-k bereetan egitea itxadon daitekeen gauzatat aurkezten zaigularik. § 7.a garbizaletasunari/keriari dagokio: § 7.1.ean L garbizalekeriaren aitzindari egin nahi izan dutenen aurka bere benetazko usadioa zehazten dut, bera baino lehen Euskal Herrian izan diren garbizaletasunaren beste zenbait erakusgarri ere aurkeztuaz (Etxeberri Sarakoa, Mikoleta) eta Akademien garaian zabaldua bazen ere garbizaletasuna, keriak beranduagoko direla gogoratzen; § 7.2.ean L aurrekoen artean ere garbizaletasunik badela erakusten dut: Mikoletaren adibidea bidenabar gogoratu ondoren H-ren euskara-frantsesa eta frantsesa-euskara hiztegien artean eratorpen atzizkien erabileran ikusi (§ 4.1.) asimetria erdarakada eta mailebu gordinenarekin errepikatzen dela erakusten dut, bigarreanean elementu horien ezabaketarako bera-riazko gogoia kausituaz. § 8.ean filologi alderditik Hiztegi Hirukoitza eta gainerako hiztegitagintza zaharrarekiko ditugun eginkizun batzu aipatzen dira.

1. Larramendi aurreko hiztegitagintza

1.1. Hitz zerrendak

Erdiaroan hasten dira, izen hutsen aldamenean testuinguru edo itzulpen zehatza-
goz argituaz erdal testuetan agertzen zaizkigun hitz, glosa eta esaldi eskutadak (ikus *TAV* adibide batzuetarako). Behar bezala bildu eta ikertu gabeko 2. graduko tradi-
zio hau aberatsa da oso (Poza, Garibai, Etxabe, Villareal, *Corografía...*): euskal testu
tradizioa den bezain murrizta izaki, kopuru zein gaien aldetik, hainbat hitzen lehen
agerraldia aurreratzeko eta mordoxkaren hedadura, bizitza, erabilera eta esanahirako
ezinutzizko gertatzen dira.

Aimery Picaud-en famatua dugu ezagutzen den lehendabiziko hitz zerrenda.
Geroztik badira beste zenbait, urteak igaro ahala gehituaz: Von Harff, Marineo
Siculo, Venturino... Europako bideen ugaltze eta seguragotzearekin Euskal Herri-
koenaren seinale (ikus *TAV*). Erraz antzeman daitekeen legez, ezin itxadon larregi
berba zerrenda llabur (bat ere ez dozena t'erditik gorakoa) hauetarik. Bidaiariak
behin behineko eta premiazkoen dituen alor semantikoetara mugatzen dira: jan-eda-
na, egoitza, horiek ordaintzeko dirua, izpirituarekiko beharrak... edo, inoiz, haragiz-
ko irritsei lotu ardurak.

Zerrendotarik gehienak ez ziren beren garaian argitaratu, baina beste batzu (Ma-
rineo Siculorena, esaterako) bai, eta XVI. mendetik aurrerako europar hizkuntzalarien
iturri dirateke: ikus Garate 1961 eta Oroz 1981 Vulcanius-ez, edota Urkizu 1986

zenbait ikertzaile ingelesez. Alor honetan ere baliteke oraindik zer iker izatea, bai izan diren gainerakoak bilduaz, eta baita Leizarragaren *Testamentu Berria*-ren itzulpenaren (edo haren zatien) erabileraz; bestalde, Leizarragarena hitz bilduma berrien sortzaile izan zen: cf. Llwyd-ena (Abott 1906) edo, zatika, Vulcanius eta Bullet (Aquesolo 1967).

Beren laburrean oso ezberdinak dira helburu eta egituretan Leizarragaren eta Oihenarten hitz bildumak: “Çuberoaco herrian usançatan eztiraden hitz bakoitz batzu hango ançora itzuliac”(70 bat hitz) eta “Neurtitz hautaco hiz bekanen adigarrria” (120 bat), hurrenez hurren. Badu Oihenartek enparauko “erakusgarri” interes-garririk:

[...] el hecho de encontrarse en la composición de la lengua española actual ciertas reliquias o restos muy conformes a los elementos de la vasca, muchísimas expresiones puramente vascas, o sacadas de éstas, de las cuales exhibiré una especie de muestra, tomada de las tres primeras letras del alfabeto[...] (*Notitia*, § XIII).

Larramendiren hiztegiko *estandarte*, *alabanza*, *ibero* eta gainerako etimologiaren aitzindari dugu, bada; diferentzi nabarmen batekin, ordea: ez da bertan ikusten jesuitaren harako “confieso que me retozo de risa...”, etab. (cf. Lakarra 1985a).

Hitz-zerrenda eta hiztegiñoen arteko dira Ibarguen-Cachopín kronikaren amaian (1600-1605) gordetako euskara-gaztelerezkoa, Sarasolak (1983) lehendabizikoz argitaratua, eta Mikoletaren *Modo breue para aprender la lengua vizcayna*-koa (1653, baina joan den mendearen akabuan argitaratua; cf. orain Zelaieta 1988). Lehendabizikoan 150 bat hitz (gehienak errepikatuak kontrako ordenan ezartzean) ditu, eta 400 inguru, “los más usados en vascuence propio” (gaztelera-euskara) bigarrenak (ikus § 7.2.). Ibarguen-Cachopín kronika han-hemengo materialez osatua izaki, hiztegitxo horren etorkiaren arazoa datorkigu berehala; argitaratzailea gipuzkeraren alde agertzen da argiro baina ez bide litzateke ezinezko arabera ordezkatzea ere (cf. Lakarra 1991c).

Nicolaas G. H. Deen-ek Kopenhageko Arnamagnaena Bibliotekatik argitara zituen lehendabizikoz Vestfirðir Islandiako herrialdean XVII. mendean idatzitako bi hitz-zerrenda: *Glossaria duo vasco-islandica*. Argitara ziren garaian argitara zirelako (1937), beharbada, ez ziren ezagunegi ikertzaileen artean Mitxelenaen salbuespenarekin (ikus orain Bilbao 1991a). Beren interesa, aldiz, ez da nolana hiko: 750 bat hitz (ez beti argiegiak islandiar fonetika eta grafia dela bide) baizen ez badira ere, euskal arrantzaleen eta islandiarren arteko kontaktua —bizia, oso, 16an eta 17an— ez eze beren artean sortutako pidgina ere isladatzen digu: *sumbatt galsardia for; Christi Maria presenta for mi balia, for mi presenta for ju bustana* (Hualde 1991a: 433hh). Euskararen etorkia Iparraldekoa dugu, izan ere handikoak bait ziren batez ere hara eta Canadara (ikus Bakker 1991 hango euskal arrastoez) zihoazen marinel gehienak.

1.2. Galdutako hiztegiak

Hiztegi oso eta benetakoetan badugu, gutxienez, gureganaino iritsi ez den hiruren berri: Bela zuberotarraren, Bidegarai baxenafarraren eta Joanes Etxeberri Ziburuko lapurtarraren bana, hain zuzen. Eta hori XVII.ean; hurrengo mendean beste hainbeste: Leintzko Oyangurenen tagalo-gaztelera-euskara (cf. Oyharçabal 1989), bigarren Etxeberriren (Sarakoaren, ikus beherago) eta Duhaldereenak, alegia.

Arrastoren bat utzi diguna Ziburukoarena dugu: hainbat sarreratan Pouvreau haren hiztegiaren zordun aitortzen zaigu (ikus Urquijo 1910ean). Hauetarik anitz ulertzeko Oihenarten laguntza behar izan zuen hark eta deitoragarria da oso horko adibideen arabera —are gehiago egilearen obretako hiztegi aberastasuna ezaguturik— bestetan lekukotasunik utzi gabe joan zaigun altxor hori ez gordea.

Belari dagokionez (1586-1667) zera da dakigun bakarra: hiztegia eta baita, dioskunez, ondu omen zuen gramatika ere galdu egin direla, soilik haren erretra bilduma txiki bat geratzen zaigularik euskarazko lekukotasuntzat. Egia da Peillenek (1983b) XVIII. mendearen amaieran eta XIX.aren hasierako haren ondorengo baten hiztegian XVII.ekoaren eragin edo jarraipenen bat ikusi nahi izan duela, baina ez du horretarako frogarik eskaintzen; zati on batean, gainera, nekez eskeini ahalko, Larra mendiren eredu eta hitzak nabarmen bait dira.

Dominique Bidegarai kaputxinoaren zenbait diru eske badira 1675etik 1679raino (hots, heriotzeraino) Nafarroako Estatuei aurkeztuak euskara-latina-frantsesa (gero gaztelera ere bai) hiztegi bat eta “rudiments” —Etxeberri Sarakoak hatsapenak deitu zituen— batzu argitara asmoz. Nahiz eta egileak zioenez 20 urteko lana izan, Zuberoa, Baxenafar eta Lapurdiko hitz eta esamoldeak oro biltzen zituena, eta hagitx abantaila lekarkiekina euskal haurrei Euskal Herritik ilki gabe zientzien giltza zen latina eskuratzeko (cf. Etxeberri) nahiz Bidegaraik euskararen laudorio sutuak egin —“ama hizkuntza”, orduan burua agertzen zutenak oro baino ederrago, hebraiera salbu, hartatik beste edozein baino hurbilago— Nafarroako Estatuen laguntza berandutu egin zen eta egilearen heriotzak ez zuen lagundu argitalpenaren bide malkarretan (cf. Dubarat 1914 eta Oyharçabal 1989).

XVIII. mendeko, Larramendi aurreko (?) (eta jesuita batena, orobat) hirugarren hiztegi galduaren berria Gidor Bilbaori zor diot. Hara P. Delattre-ren *Les établissements des jésuites en France depuis quatre siècles*, Institut Supérieur de Théologie, Enghien, 1949-56, 1478. orrialdean zer irakur dezakegun:

Le P. Pierre du Halde, Béarnais ou Biscayen de naissance, nos archives dissent: Cantaber, né le 14 de septembre 1682, entré 1.er septembre 1699. Longtemps professeur de Lettres, quatre ans de Philosophie, seize ans de Théologie, il fut dix ans supérieur de diverses maisons, ensuite Bibliothécaire à Bordeaux où il travailla à un dictionnaire basque en trois volumes in folio, toujours recherché, mais disparu, comme beaucoup d'autres travaux, lors de la dispersion des Jésuites en 1761. “Humboldt, lit-on dans le *Bulletin du Bibliophile* de Techner (Paris, 1839, p. 544) dit qu'on lui affirmé que, s'il existait encore ce dictionnaire se trouvait à Bourdeaux [ez dio horrenbeste; soilik 3 liburukitzar irakurtezin bete omen zituela esan ziotela]. Celui qui écrit ces lignes peut dire à son tour qu'il les y a cherchées avec zèle sans pouvoir obtenir sur leur compte aucun indice”. Le P. du Halde vivait encore, infirme, au Collège de Bourdeaux lors de la suppression de la Compagnie (1762).

1.3. Gordetako hiztegiak

Nicolao Landucci lucarra izan zen 1562an osatutako *Dictionarium Linguae Cantabricae*-ren (eta beste italierazko eta frantsesezko biren) paratzaile. 112 folio, 6000 hitz eskas (s-tik aurrerakoek ez dute euskal ordainik), bete zituzten haren hiru

laguntzaile arabarrek: A gasteiztarrak (cf. Mitxelena 1958) eta B ekialderagokoe (cf. Zuazo 1989), bereiziki. Hiztegia ez zen 1958 arte (Mitxelena eta Agud-en edizioan) argitaratu, eta ez ezezagunez: Humboldt, Aizkibel, Azkue eta Urquijok izan zuten haren berri baina indartsuago izan bide zen Larramendik hartaz *Hiztegi Hirukoitz*-aren hitzaurrean esana: “pieza es por cierto muy despreciable, y que más se compuso para irrisión que para honor del Bascuence. Muy mal escrita en la ortografía, llena de barbarismos...”. Erdarakadak gora behera, L-k ez zituen, Eraskinean bederen, Landucciren aberastasunak baliatzeke utzi (cf. Mitxelena 1961, 1970). Argitalpenaz landa, Mitxelenaren ikerketak berebiziko garrantzia du bertan ematen bait zaigu artean ezezagun zen euskalki baten, —araberaren— berri, aldamenekoe-kin zituen harremanak zehaztuaz (ikus orobat Lakarra 1986b eta bereiziki Zuazo 1989). Orain material berriak (Gamiz, Portal) eta bai aldameneko euskalkien eta baita araberaren ezagutza hobea ditugularik, Landucciren hiztegiak azterketa berri-rik (eta 1958ko edizioan ahaztu zen orrialde pare gehitzea) merezi du (cf. Lakarra 1991c).

Silvain Pouvreau euskaldunberriaren euskara-frantses (eta, zati batzuetan, -latin-gaz- telerazko) hiztegia ehun bat urte beranduagokoa (cf. Vinson 1891, 1910) dugu. Parisko Biblioteka Nazionalen 2 kopia ezberdinetan (7 eta 8. eskuizkribuak) gorde da: 8.ak *çafarda*-tik *xusquerra*-ra gordetzen du 167 foliotan (gramatika ohar eta besterekin); 7.a osoa dugu, 213 foliotan, zuzenketa eta gehiketekin. Oraindik argita- ragabe badirau ere Duvoisin, Maurice Harriet, Azkue, Lhande eta bestek (Xahoren kopia ere ikusia dut) baliatu dute, aspalditik bait da ezagun haren aberastasuna. Oihenartek egindako oharrez landa, eta haren lanetarik jasotako berbekin batean, Pouvreauek Axular, Leizarraga, Etxeberrri Ziburukoa (are honen galdutako hiztegia), Harizmendi eta honek moldatutako Haranbururenak ere (cf. Kerejeta 1991) bildu bait zituen (cf. Urquijo 1909 eta Vinson 1910) herritik jasoz landa. Halere, ikerke- ta oso atzeratua dugu: monografia on bat falta zaigu egituraz (mailebu, hitzberri eta eraketa modua barne; cf. beherago), bi eskuizkribuen arteko diferentzietz, hauen eta hiztegi laukoitzaren saio laburraz (cf. Bilbao 1992), frantseseko eta espainierazko iturrietz (Oudin, Covarrubias eta enparauez)... Bere euskal itzulpenetako hizkera ere argigarri bide genuke egiteko honetan. Ikus Lakarra 1991c, 1992b eta hemen § 6.2.

Pierre d’Urteren *Dictionarium latino-cantabricum* (Londres 1715) a-tik *commotus*-era baino iritsi ez arren, 2.457 orrialde ditu, 10.000 bat euskal hitzekin (cf. Urkizu 1989ko bihurteta), errepikatuak zenbatu gabe. Urteren aberastasuna ere handia da alor semantiko aniztetan bere argitaratzaileak markatu legez: landare, animalia, lan- bide...; bidebatez ez da ahazteko haren *Grammaire Cantabrique*-ko hiztegiñoa ere. Garbizalekeriaren etsai eta gogoan zuen bere jaioterriko (Donibane Lohitzuneko) hizkeraren ordezkari gisa aurkeztu ohi zaigu (horrela oraindik Urkizu 1989: 106hh) baina irudi hau neurri batean egoki izan arren ez bide da osoro (ikus § 6.3).

1741ean ateratakotzat dakar bere burua Martin Harriet “notari erreialac” onduta- ko *Grammatica escuaraz eta frantsez, composatua frantsez hitzcunça ikhasi dutenen faboretan* (Bayonan Faubert alarguna eta J. Fauvet erregueren imprimadoriac baitan) delakoak. Egileak irakurtzaileari ziotenez ez zuen hura egiten “bera examinatua içateco, bai- ñan bai hunen medioz frantsez hitzcunça ikhasteco guticia duten euscaldunec, içan

deçaten lagunça eta errechtasun gutibat, presuna sabant eta jaquinsunec francez hitzcunçan eguiñ dituzten liburuetaric cerbaiten compreniceco, eta hetarik cembait provotchuren atherateco”.

Liburua, egiteko zen guztietarik atera bide zuen bakarra, aski handia da, bere 512 orritan. Horietarik heren bat, 268tik 440 bitartekoa, hiztegi bikoitzak betetzen du: “Dictionarioa escuaraz eta francesez, çoiñetan hasten baitire hitzçac escuaratic” (268-323) eta “Dictionnaire françois & basque. Dictionarioa francesez eta escuaraz” (324-440) direlakoek, hain zuzen.

Hiztegiok, beren xumean, ez dute aparteko arretarik merezi izan; esaterako Mitxelena 1970-ean ere ez dira, bidenabar bederen, aztergai. Alabaina, badirudi nola-baiteko eraginik izan dutela, zuzenean edo zeharka euskal lexikografiaren historian. Lècluseren *Manuel de la langue basque*-ko bi hiztegiak haien zordun ez eze kopia argi (eta “garbitua”) ditugu (cf. Lakarra-Urgell 1988); Añibarrok ere zenbait eskutada kopiatu zizkion (Urgell 1992) eta, gainera, bertan da Mitxelenak Larramendiren Eraskinean ezagutu gabe utzi iturririk nagusia (cf. Lakarra 1991a). Badira, bestalde, beren egituran ikertzeke dirauten eta bai Larramendiren hiztegi-gintza eta baita aurrekoa beste modu batez ikustera garamatzaten ezaugarriak.

2. Larramendiren hiztegi-gintza: hurbilketa berri bat

Urte batzutatik hona mende hasieratik hedatua zen Larramendiren hiztegi-gintza-rekiko eta, oro har, L-rekiko hurbilketa aldatu edo aldaketarako bidean jarri dela dirudi (cf. Lakarra 1985a, 1991a eta hor aipatu bibliografia). 1929an haren hiztegi-gintza hitzgeitea egokitu zitzaionean gaia “alferra ta parragarria” irudi zekiokela “jakintsuren bati” ohartzen zigun Orixek; *Genio y Lengua*-n “malogró su gigantesco esfuerzo extraviando el movimiento literario por los derroteros de la polémica esteril y de la diatriba ociosa” leporatzen zitzaion, eta “para los hombres de nuestra generación el P. Larramendi resulta casi una figura ridícula” otutzen zitzaion Villasanteri; irizki-deak bilatzea, gainera, erraz litzateke beharrik balitz.

Iritzion atzeko ikuspegia anakroniko eta agor zen filologiaren historiari eta euskararenari zegokionean, hurrenez hurren. L-ren etimologiak gezurtatzen eta haietaz iseka egiten zihardutenek, esaterako, ez bide zuten ikusi haien funtzioa (bataio agiri bailiren), ezta antzeman lanaren premiarik eza: “confieso que me retozo de risa...”, etab.

Hiztegia (gramatika eta gainerakoak legez) ez zuen “para no envidiar a otras lenguas alguno de sus ornamentos y curiosidades”, kanpotarrentzat etxe-koentzat bainoago; “Larramendi izan da, lehendabiziko aldiz eta erabat hizkuntza larreakoa noranahiko bihurtu nahi izan duena” (Mitxelena 1984). Teorikotzat, alperrikotzat, zutenen aurka, haren lanaren praktikotasuna nekez bada ere antzeman izan da, helburuetan zein haiek gauzatzeko orduan: aski izan da berak esanak aurreiritzi gabe irakurri, garaikideen harreraz oharatu, besteren kultur proiektuekin erkatu eta ondoko 150 urteetako eragina gain-gainetik usnatzearekin.

L ez da uste izan den bezain bakan euskal hiztegi-gintzaren tradizioaren barnean. Hark baino lehen hiztegi-gileek asmatu zituzten hitzberriak, idazle landuek ere egiten zituzten bezalaxe. Areago dena, hizkuntzaren legeen arabera eta haren beharrak

berdintzeko, hitzberriak sortzeko ahalmena —hizkuntzaren askatasunaren seinale eta haren nortasunari zor zitzaion eskubidetzat— L aurretik aldarrikatua zen dagoeneko (Etxeberri Sarakoak inork baino ozenago; cf. Lakarra 1985a, 1992b). Urrutitik zetorren katearen begi bat zen, bada, ez ikusi nahi izan den berrikeria; are gutxiago bitxikeria.

Hitzberrien erabilera ere ez zen Iztueta eta beste xebebreren baten apetetara mugatu: sortzailearen beraren obran kausitzen ditugu lehen lekukotasunak, joan den mendaren azkenetaraino landutasunen batera heltzen den edozeinek ematen digularik, inola ere, L-ren hiztegiaren erabilera kultur gaienekin erkatuaz historikoki ikeritzeko behar adina lanabes (cf. batez ere Sarasola 1986; adibide berri batzutarako ikus orain San Martin 1991 Altuna 1992 eta Gómez & Lakarra, prestatzen).

Euskal hiztegi-gintzaren tradizio nagusiaren barnean eroso kokatzen bada, orobat literaturarenean. Hegoaldeko idazle askok hiztegiaren hitzaurrearen bitartez ezagutuko ditu Iparraldeko idazleak eta hiztegiaren bitartez eskuratuko haiengandik bildutako aberastasunak (bitzuen emendakin dira Zabalaren *Noticia...*, *VRB* eta Otxandioko eskuizkribua). Maisuaren esanei jarraiki hurbilduko dira literatur gipuzkera eta bizkaieraren sortzaileak Axular eta enparauengana (ikus orain, lehenagokoez gain, Urgell 1991a, 1991b, 1992). Tradizioarekiko lotura hau L-tarren eta haren kidezako aranatarren arteko diferentzia aipagarria dugu. Ez bakarra, jakina, oso bestelakoak bait dira beren iritzi eta jokabideak euskal hitz altxorraz: jatorrizko hitzen, hitzberrien eta mailebuen egiteko eta erabilera esparruez. Ez da L-gan gero-koengan (Azkue tarteko) den mailebuen aurkako erabateko iritzirik, ez haiekin josiak diren aurreko idazleen liburuak erretzeko (Kirikiño batek legez) grinarik, demagun. Tarteko bidea eskatu zuen hark euskararentzat: ez ingelesek adina, nor bere hizkuntza mezprezatzea eta bertoko hitzak ahaztea bait lekarke, ezta frantsesek bezain guti, berba faltaz gogoetak gauzatzeko peitu bait ginatete (*gogora Corografía*). Bi “eskolek” (euskal historiografi erraz-zaleak hain gustoko duen berba orotarako eta agor hau darabildalarik) sortzen eta erabiltzen dituzte hitzberriak, ez ordea hitz berak (aranatarrenek aurrekoenak ordezkatzeko dituzte) ez eta egiteko berarekin. L-renak, jakintza arloetarakoak dira, soil soilik, ez eguneroko; ez zetozen ezer ordezkatzera, aldatzera ez garbitzera, hutsarteak betetzera baizik (cf. orain Pagola 1992 maisuaren hitzberrien bilduma baterako; ikasleenak, noiznahi orobatsu ez direlarik, bilgai ditugu).

Aipatzen ari naizen L-ren hiztegi-gintzarekiko ikerketetan emandako hurbilketa aldaketa honetan izan du bere pisua haren gramatika (cf. Gómez 1991) ere kontutan hartuak. Garaikideek eta ondokoek, orobat, gramatikan finkatzen zuten bereziki (“famoso por haber el imposible vencido”) L-ren ospe nagusia, eta ez bide zen hiztegiarena baino urriago haren erabilera. Ez da soilik, gogotan hartzekoa bada ere, euskal gaiztoko adibideak salatzen zituenean batez ere sintasiko hutsak salatzen zituelako; griegoengandik gutxienez datorren eta euskal ikerketetan ere isladarik izan duen pentsamoldeari atxikiz, gramatikari eman zion lehentasuna, “hizkuntza usteltzea haren arima eta forma ahitzea baita, gorputza hazi edo urritu. Haren arima eta forma den hizkuntzaren antze eta armoniak diraueno, gorputza diren berbak asko zein gutxi izan, ez da hizkuntza usteltzen eta lehenagokoa bera da” (*DT*, clxiv; ikus Lakarra 1985a eta 1992b azalpen zabalago baterako).

Aurreko mendeetan ere saiorik izan arren (cf. §1), XVIII. mendea eman dezakegu euskal hiztegi-gintzaren benetako hasieratzat. Hiztegi eta hitz-bildumak ugaltu egiten dira: Landucci, Mikoleta eta Pouvreauren izenen aldamenean Urte, Larramendi, Aizpitarte, Arakistain, Harriet, Etxeberri Sarakoa, Bela, Añibarro, Mogel eta besterenak jar ditzakegu. Areago dena, hiztegi moetek ere ñabardura berriak hartzen dituzte: euskara-gaztelera, gaztelera-euskara-latina, latina-euskara, euskara-frantsesa / frantsesa-euskara, euskara-frantsesa-gaztelera-latina, ingelesa-euskara... hizkuntza bere osotasunean edota euskalki edo bailara bakarrean (Erroñkari, esaterako) hartuz. Azkenik, XVIII. mendeko hiztegi-gintzak —eta honen barnean Larramendirenak— artekoak ez legezko eragina izango du idatzizko euskal hitz altxorrekiko edo, oro har, hizkuntzaren historiarekiko: ezaguna da, inprimatu ere bera izan zen inprimatu bakarra, Azkueren hiztegi bitartean Larramendirena dela eredu eta iturri orokor.

Ez dut esango oso atzeraturik dela euskal lexikografiaren historiaren garai haien atzerketa, honekin norbaitek gainerakoak aurreratuko edo aurreratuagoak dabiltzala uler bait lezake. Eta, izan ere, ondoko garaiko hiztegi-gintza —Mitxelena L-z eta Azkuez egindako ikerketak salbu— ez dago hemen atzergai dukeguna baino egoera hobean: hasierakoek edo zaharragoek gure artean —bestetan legez— arrakasta haboro izan ohi dutenez, haiei buruzko lan edo bibliografi aipu gehiago eriden dezakegu. Halere, hor datza zenbait hiztegi eskuizkribaturik (Pouvreaurena bera!), hainbatek ez du ikertzaileen —ez lexikografoen ez hizkuntz historiaz zaletuen— arreta berezirik erdietsi, eta erdietsi dutenek zenbait ohar solte (biobibliografiaz gehientsuenean) izan da jaso guztia.

Urte eta Harriet oraingo alde batera utziz, gainerako hiztegi-gileak L-ren *Hiztegi Hirukoitz*-aren inguruan bil ditzakegu, haren moldaketa (Aizpitarte, Aizkibel), eras-kin (Arakistain, Goitiandia) edo —gutxienez— zordun (Añibarro, Sbarbi-Urquijo) bait dira guztiak, are atzerrian: cf. Aquesolo (1967) *Bullet*-en euskal hiztegiaren egituraz. Eta eredu edo iturri horrekiko ezezagutza da, azken finean, gainerakoetan ere isladatzen eta errepikatzen dena. Izan ere, norbaitek besterik baleritzo ere, *HHa* ez da ezagunegia. Ausartuko nintzateke esatera hartaz idatzi duen batek baino gehiagok ez duela ez gorpuzta ez hitzaurrea bera osorik irakurri, usu aurrekoen gaitzespenak saltsakari berak edo eskasagoak erabiliz erregostera mugatuaz.

3. Hiztegiaren praktikotasunaz

3.1. Gaztelera-euskara ordenaz

Usuegi besterik idatzi bada ere dagoeneko (cf. Lakarra 1985a, Mitxelena 1984) aski argi geratu bide da Larramendi ez zela izan ustezko edertasunen soan eta haien bilketa alferrean aritu ziren horietakoa, “obra púramente teórica” deitua izan arren.

Hiztegiaren ordena bera ere hartu izan da gaineratu zaizkion aitzakion artean:

Dentro del mismo plan compuso el *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuense y Latín*, con el objeto de probar que el euskara es una lengua culta. Siendo la suya una finalidad apologética su objetivo principal es devolver el honor a la lengua insultada, se entiende que Larramendi, siempre que la realidad no se ajuste a la pureza que él defiende, no tuviese reparos en inventarse una realidad a su gusto. Así el *Diccionario Trilingüe* está lleno de términos vascos inexistentes, inventados por el autor para la

ocasión. La obra está escrita y pensada para los extraños, no para los vascos, y las correspondencias vascas se hallan en función de los términos castellanos. (Sarasola, *HSLV* 55).

La disposición del *Diccionario* (castellano-vasco-latín) es un pie forzado que le obligó a rellenar con neologismos los huecos sin traducción (Mitxelena, *HLV* 102).

El diccionario propiamente dicho comprende dos tomos, y está ordenado en forma de diccionario castellano-vasco, o sea, se toman como base las voces castellanas del Diccionario de la Real Academia Española, y al lado se ponen las voces vascas y latinas correspondientes al vocablo castellano. [...] Es decir, que las voces vascas están ordenadas y traídas en función de las castellanas. Por fuerza del mismo plan adoptado, la atención del lexicógrafo tenía que verse sobradamente absorbida por la preocupación de buscar términos que fuesen equivalentes exactos de las voces que hallaba en los tomos del diccionario de la academia española, o de crearlos cuando no los hallaba. De todas formas, y a pesar de los graves defectos señalados, fue una obra verdaderamente titánica la llevada a cabo por el P. Larramendi, y el caudal de voces auténticas que ha recogido en su diccionario es muy considerable. También aquí ha ocurrido que al comprobarse las muchas voces de forja que hay en el diccionario larramendiano, se desestimó con exceso su valor real. (Villasante, *HLV*, 134-135).

Gramatika eta Hiztegiaren hitzaurreetan garbi asko uzten du gogoan duena zera dela, euskara "goren gradora" igotzea, bai kanpokoentzat (apologien bitartez) eta baita etxeakoentzat ere, landuaz eta egokituaz. Berariaz erlijio zabalkundea aipatua-
rren, eskola eta gainerakoak ez ditu ahanzten, eta seglarren eskuetan ere berebiziko tresnak dirateke, zeinnahi mezu moeta zabaltzeko, Iturriaga eta Iztuetaren, Egiategi eta Ulibarriren eta beste hainbat eta hainbaten obrak lekuko (ikus Gómez-Lakarra, prestatzen). Ez dugu zer dudatan jar iparrizartzat praktikotasuna zuela honelako lekukotasunak urriak (ezezagunegiak, hobe) izan arren.

Ezer baino lehen berresan dezadan (cf. Lakarra 1985a) ez zaiola duen garrantzia aitortu Patxi Altunak (1967) argitaratu Larramendiren euskara-gaztelera hiztegiari. Bere hirukoitza atzekoz aurrera jartzeko saio amaitugabe honek (ikus § 5.1.) froga garbia damaigu, oraindik gehiago behar bagenu, hiztegia atzerritar etsaiei ihardesteko aterea dela pentsatzen dutenen aurka; soilik Larramendiren heriotzak eta hark usu salatu (*HH*, xxviii hh, Altuna 1967: 139) euskaldunen ezaxola eta zabarkeriak azal dezakete andoaindarraren euskara-gaztelera hiztegi hori lehenago eta gehiago ez ezagutua eta, horrenbestez, L-ren hiztegi-gintza lanak beste begiz ez ikusia.

Asmatutako hitzberrien zergatia, Larramendi eta garbizaletasuna eta L-ren hiztegiaren helburu eta emaitzez bestetan ere (1985a) mintzatu naizenez, nakion hemen haren hiztegiaren egiturari, hots, gaztelera-euskara-latina ordenari. Konpli da ikus-tea egileak berak zer dioen hiztegia euskara-erdara zergatik ez den azaltzean: "Mi primer pensamiento fue poner primero la voz bascongada y después la correspondiente castellana y latina; pues así se llamaría al parecer con más oportunidad diccionario del bascuence. Pero mudé la idea atendiendo a la utilidad de este género de obras". (*HH*, xxxviii)

Ez zuen gehiegitarako balio lehendabizi euskal berba jarriz geroz; Espainian nahiz Euskal Herrian hiztegia erabili behar zutenek bazekiten jadanik gaztelera, eta

zekiten gaztelera horretaz baliatu beharra zuten euskara (gehiago) ikasteko. Anglès-ek bere *Prontuario ortbologi-gráphico trilingüe en que se enseña a pronunciar, escribir y letrear correctamente en latín castellano y catalán-en* (Barzelona 1743) katalanari dago-kion zatia ere gaztelera zergatik den azaltzeko "es constante que en España (aunque sea catalán) ninguno hai, si es literato, que ignore la castellana" diosku (apud Colon-Soberanas 1985: 116). Gainera, eta ohar bedi honetaz, euskaraz ez zuen bospasei dotrina baino aurkitzen; gaztelera, aldiz, baziren argitaraturik hainbat liburu ia kultur arlo guztietan, eta kultura hori zen eskuratu eta euskararatu behar zena; ikus behegoko Baldiri Rexach-en antzeko pasartea (1749) Euskal Herritik kanpo ere antzeko arazorik (eta aterabiderik) izan dela ohartzeko.

Badirudi XVIII. mendean ez zela Larramendi bakarra izan hartu zuen eredia hartzen. Ez da soilik Aizpitarte-Real Sociedad Bascongada de Amigos del País-en kidesasuna (cf. Altuna 1985, Echenique 1985); hitz zerrendaz gorago lanik egin nahi zuenak L-ren eredu bera hartzen zuen Euskal Herririk landa ere:

A partir de la publicació del *Diccionario de la lengua castellana* per la Real Academia Española (Madrid, 1726-1739), estimulada per la del diccionari de La Crusca de Florència (Venècia, 1612) i per l'edició dels diccionaris d'altres nacions, nasqué a les diverses terres de parla catalana la necessitat de posseir un diccionari semblant. Aquell repertori castellà esdevinguè, com veurem, una meta i un model a seguir (Colon-Soberanas 1985: 127).

Quan el 24 d'abril de 1770 es tornà a tractar el mètode que s'havia de seguir per formar el diccionari català [Barzelonako Acadèmia de bones lletres-ena], es va recomanar tenir present el que havia fet l'Acadèmia de la Crusca i l'Espanyola per a llurs diccionaris. I hom acordà" que el diccionari que va a formarse sea al mismo tiempo sucinto y claro, tan completo que se pueda, para que sirva de depósito de la lengua catalana y de desempeño para la utilidad del público, no sólo en punto de las voces usuales y corrientes, sino también para la inteligencia de la antiguas y aún de las antiquadas, que deberán incorporarse con las demás por orden alfabético, señaladas particularmente y con las remisiones convenientes a los vocablos que les corresponden en el día. Las varias acepciones y sentidos de unas y otras, ni los precisos exemplos de comprobación deberán omitirse, como ni la interpretación latina (ibid, 131).

La disposició del Vocabulario [Mallorqui-castella, fra Antoni Oliver-ena, Josep Tògors i Zanglada eta Guillem Roca-k osatua] i de la seva continuació és senzilla. Segons l'enlluernament provocat pel diccionari de l'Acadèmia espanyola, hom ha seguit el cabal lèxic d'aquesta obra (sens dubte l'edició princeps) i ha establert una llista per ordre alfabètic dels mots mallorquins, al costat de cada un dels quals són donats els equivalents en castellà i en llatí (ibid, 125).

Ros [*Breve diccionario valenciano-castellano*, 1739] tingué l'acudit de copiar al costat del mot castellà d'alguns lemes catalans la definició donada pel *Diccionario de la Academia de la Lengua Española* (ibid, 123)

D. Félix Amat, que Vm. conoce, i algún otro compañero tienen adelantado el Diccionario Cathalán que piensan imprimir; han seguido el Diccionario de la lengua castellana, i recogidos los diccionarios de nuestra lengua le han aumentado de muchas voces... (Mayans-i 1784an egindako gutun batetik; ibid, 134).

3.2. Bidenabar apologiez

Baliteke oraindik norbaitek pentsatzea lan hori (eta egitura horretan) soilik “para no envidiar a otras lenguas alguno de sus ornamentos y curiosidades” burutu zuela. Haatik, ez zuen zertako. Jadanik egina zuen horrelakorik bere *De la antigüedad*-en edota *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria*-n; aski zuen zerbait gehiago erantsi nahi bazuen hiztegiaren hitzaurrearekin, baina ez zuen zertan egin 800 orri handitik gorako hiztegirik. Arrotzekin jokatzan ari zen partida irabazia zuen eta tantu askogatik Arakistainek ziotsonoz. Burukomin gehiago ematen zion, ordea, euskaldunen epeltasunak eta behin eta berriz inarosten zien; erdal testuetako euskarazko zatiak ez dira beti arrotzak iraintzeko edota haietaz irri egiteko; *Corografía*-n, esate baterako, euskaldunen batasun faltaz eta alferkeriaz, eta horietatik datozkeen arriskuez mintzo da.

Apologiaren premia eta arrazoia ere ez da behar bezala ulertu izan. Etxeberrik, beste zeinnahi bezain zuhur eta praktikotzat izan ohi dugun egile batek, euskararen apologia ematen digu bere *Escuararen hatsapenac latina ikbasteco* gramatikaren *aitzinean* eta honen sarrera bezala; irakur dezagun azkeneraino L-ren lehen obraren titulua: *De la antigüedad y universalidad del bascuence en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas*. Lehenago ere gogoratu dut, izan, luzeago dela, bigarren zati hau denek ez ezagutu arren: *Demonstración previa al Arte que se dará a luz desta lengua*. Hots, bai Etxeberrik eta bai L-k beharrezko, nahi eta nahiezko dituzte apologiak. Gramatika bat edota hiztegi bat “gauza serioegia” zen oraindik zeinnahi hizkuntzari buruz egiteko; *merezi* egin behar zuen hizkuntza horrek. Frogatu egin behar zen deskribakizuna hizkuntza bat zela eta ez erdipurdiko ahuntzerdara edota zarata nahasi eta itsusizko sorta bat.

Çérto é que a lingua castelhana muito melhór é que o vasconço de Biscáia e o çeçeár çigano de Sevilha, as quáes nam se pôdem escrever" (João de Barros, in Buescu 1971: 397).

Amado Alonsoren hitzetan “[Barros] ha buscado en el vascuence y en el gitano dos ejemplos extremos de jerigonzas y lenguas bárbaras [...] en contraste con las lenguas civilizadas” edo oharrean argitaratzaileak (Buescu) dioskunez “Para João de Barros o vasconço apresentase como o prototipo de língua bárbara e ininteligível (Cf. *Déc.* III., ed. de Hernâni Cidade, pág. 262)”. Ez dut Barros-en beste obra hori eskuratzerik izan baina Alonsok aipatutako “Diálogo em louvor da nossa linguagem” horretatik atera gabe hizkuntz nahasketa azaltzeko “E assi os filósofos, matemáticos, juristas, médicos, todos antre si trázem termos que nam sam latinos nem gregos, mas cási um *vasconço* de artes em que os homens gástam tantos anos (400-401, etzana neurea). Edo “quanto à dificuldade de gramaticalizar e ortografiar tal língua, diz: “ôs que fálam vasconço, que trócam umas léteras per outras” (Buescu 1971: liiii)

XX. mende honetako hizkuntzalaritzan onartezinezko gertatzen bada ere honelako jarrerarik, hedatuena zen orduan eta lekuko garbiak eriden daitezke:

Sobre el portugués y el catalán apenas habla Madera. Trata a ambas lenguas como idiomas secundarios, que tenían más o menos la misma estructura que el castellano, pero con grandes divergencias en el vocabulario. *Madera considera que no vale la pena tomarse el trabajo de estudiar una lengua que no pertenece a las 72 lenguas originarias y que debe su existencia a mezclas posteriores.* (Bahner 1966: 111; etzana neurea).

Soilik honi aurre egin ondoren jaitsi zitekeen “praktikara” eta gramatika edo hiztegia argitaratu edo argitaratzen saiatu, beti —gogora Bidegarai (cf. Oyharçabal 1989) eta Etxeberri— argia ikustera ez bait ziren iristen.

Apologista “teorikoek”, ez zuten bigarren urrats hori ematen, noski, beren egiazko helburua eta xedea ez bait zetzan hizkuntzan bertan, hizkuntzaren atzean edota gainean baino. Etxeberri eta L bezalako “praktikoek”, ostera, lehenengo saioa urrats-tzat, erabili ohi zuten bigarrenera heltzeko asmoz. Modu honetan ez ulertzeak, eta anakronikoki egungo irizpide eta helburuetarik epaitzeak azal bide lezake Azkue eta Aranaz geroztik L-k pairatu duen beherapen eta hondamena, Villasantek zioskun meziprezura iritsi arte.

Tovar-ek (1980) ezin ase gaitzake ez XX. mendera arteko euskareriko azterketen histori gisa ez euskararen inguruan izan diren mitologia eta ideologiaren azterketari dagokionez. Ez da, soilik, hutsuneak direla (nabarmenak, hala ere, Claveriaren ber-tsoak nekez lepora ahal dakizkiekeen Sarako Etxeberri edo Kardaberatzena); testuin-gurua zaio falta. Hots, mitologia eta ideologia horiek zertarako dira, nondik datoz, eta, bereziki, Euskal Herria ote beren kokagune bakar? Bestalde, eta hau ez da Tovarri bakarrik egotz dakioken errua, ez dirudi egoki hizkuntz ideiak erkatzekotan behin eta berriz Gaztela edo Frantzia gogotan izatea. Hor dira, hurbilago segurki, berena estatu hizkuntza bilakatzea lortu ez zuten katalan herriak, Galizia eta, behar-bada, beste anitz Añamenditik iparrerantz.

Hara Josep M. Miquel y Vergés-engandik (*La filologia catalana en el período de la decadencia*, 1938, berrarg. 1989) hartzen ditudan pasarteok:

Ignasi Ferreres, en la seva ja citada *Apologia del idioma català*, és un altre rebel. El títol sol és eloqüent, i els adjectius, amb què algú moteja el nostre idioma, “aspre, incult y escàs” són base del seu anatema. Cal associar els noms de Josep Barberí, Miquel Pla, R. Simon Pla, Josep Puiggarí, Antoni Savall, Francesc Surià i Joan Ignasi Savall amb l’esperit de l’apologia, ja que sabem que figuraven en aquella societat que, amb el nom de Comunicació Literària, subsistí nou o deu anys (XVIII. mendearen hasieran) amb finalitats reintegratives. (85)

Juntament amb aquestes activitats (Ferreres-enak) destaca el gest exemplar dels pre-lats del Principat, que el 1727 disposen i ordenen que no es permeti explicar l’Evan-geli en altra llengua que la catalana. (83)

Baldiri Rexach (*Instruccions per la ensenyansa de minyons*, 1749koaren egilea) no és pas un home indiferent a la sort del nostre idioma; ben al contrari, se’ns mostra gelós de la seva glòria i propugna el seu ús literari. Fa bonic el que diu en el capítol “De la sciència de las llenguas:” No me diga algú, que les bons llibres de las llenguas estrangeras ja se troban traduhits en la llengua pròpia, y nativa, perquè això és cosa molt falsa, y singularment respecte de nostra llengua Cathalana, respecte de la qual podem dir, que són molts pochos los llibres estrangers, que si troban traduhits, y no sols los hòmens Doctes Cathalans han faltat en no fer la traducció de molts llibres estrangers, que són utilíssims, però sí també han faltat, en no escríurer en Cathalà alguns llibres molt bons que han fet imprimir en llengua Castellana, o en Llatí, com si la Nació Cathalana no meresqués, o no tingués la necessitat de ser tant instruhida, com quiscuna de les demés. (88).

Etxeberri eta Larramendirengan (orobatsu, Bidegarai baitan aurreko mendean) elkartzen dira, batak bestea osatuaz, zein bere aldetik ia ulertezin lirartekeen apolo-gista, gramatikalaria eta hiztegegilea. Badute iderik, garaikideak gainera, Euskal Herritik landa. Hara, esaterako, bila daitezkeen ugarien artean, Colon eta Soberanas-ek Carles Ros-*ez* (A. Basterorekin batera XVIII. mendeko katalan filologiaren gailur Miquel i Vergés-entzat, 1938: 105) diotena:

la seva producció més interessant per a nosaltres ultra la de dos opuscles apologètics de la llengua, és la d'un bon nombre de tractats gramaticals i ortogràfics i de vocabularis, escrits tots amb una sola finalitat: facilitar el coneixement, pràctic i profund, de la llengua autòctona (1985: 122).

4. Iturriez

4.1. Iturri guztiak aitortu ote Larramendik?

L-k bere iturriak hiztegiaren hitzaurrean aitortzen ditu (*HH* §§ XIX-XX eta XXVII); batetik liburuak, batez ere lapurtarrak; bestetik herritarrengandik jasotako hitzak; azkenik bere kabuz asmatuak, zientzia hizkuntzarako. Hori, ordea, azalpen orokorra dugu, eta ez digu, beranduago Azkuek aurpegiratuko zion bezala, zeini bere etorkia (idazle edo herria) ezarri eta azterketa luze baten bitartez baino ezin jakin zein nondikoa datekeen. Azterketa hori gehienbat egiteke dugu, euskal lexiko-grafiaren historiarako duen interesa ez balu bezala. Diodan zerbait, ordea, bestetara baino lehen: Azkueren eta gerokoan aipatu kritika ez da zuzena, L-k ez bait ditu etorki markak ahazten zabarkeriaz; berak diosku berariaz utzi dituela ezartzeke Euskal Herri osora heda daitezen eta ez ahantz, halako edo holako tokitan baino ez zirelako orduan gordetzen (ikus Lakarra 1985a eta Sarasola 1986). Zalantzarik gabe, bazen bere egitekoan dialektologi aitzindari izateaz goragoko asmorik.

H-en *Gramatica escuaraz eta francesez*-koa (1741) da (cf. Lakarra-Urgell 1988) Lécluseren *Manuel de la langue Basque*-ko frantses-euskara hiztegiaren (1826) iturri nagusia. Ez da Lécluse, haatik, haren zordun bakarra, iturriari zor dizkion Lécluseren hiztegiko zenbait ezaugarri markagarri L-ren *E*-n ere errepikatzen bait dira; *E*-ren beste iturri, artean ezezagun, baten aurrean gabela onartu beharra dugu, bada (cf. Lakarra 1991a; Urgell 1992 Añibarroren H-rekiko zorrak).

Hitzaurrean berak H aipatu aipatzen digu: “Acaba de imprimirse una Gramatica de Bascuence, y Francés, por su Autor Monsieur Harriet, con muchas curiosidades, y un Diccionario cortito del Bascuence, y Francès, todo en octavo; cuyas voces con otras, que le faltan de su Dialecto, se hallaràn en mi Diccionario”. Zenbait lerro beherago deskribatzen eta epaitzen duen Landucciren hiztegiarekiko juzku gaiztoa ez bada ere, badirudi, itxura batean, L-k ez zuela progotxagarrizkorik eriden Martin Harrieten gramatika atera berriko hiztegietan.

Larramendi aztertzerakoan itxura eta aitor hutsetan ez gelditzea komeni zela aspaldi erakutsi bazigun Mitxelenak, orain dagokigun iturrien azterketan ere aurkituko dugu horretarako ziorik. Hara bestela H eta *E*-ren arteko huts bateratzaileak eta H-*ez* baliaturik *E*-n egin daitezkeen irakurketa zuzenagoak:

436. Muro, *afantua*, cf. H “mur, *afantua*, *pareta*, *murrua*”. Cf., aldiz, bertan “maçonner, *asantatcea*”. 600. Semejante, *alayo*. H “*halaio*, *pareil*, *semblable*” bertako “Fau-

tes à cor[r]iger dans les Dictionnaires"-en ere biltzen zaigu: "p. 299 *halaioa*, [l]isez] *halacoa*" (511. or.). 629. Tacha, *narraioa*, *narrioa*. H "tâche, *notha*, *narraioa*". 203. Despedazar, *pedazatu*. H "piece, *pusca*, *pedechua*"; "rapiecer, *pedechatcea*". 423. Miseria, *ezceria*. H "misere, *ezceria*, *escasia*, *laceria*". 463. Ocasión, *aurguina*. H "occasion, *parada*, *aurguina*", "si j'étois en occasion, *aurguinlan banainz*". 622. Suponer, *balizcatu*. H "le moulin suposé ne fait pas de farine, *balizcaco iharac ez du iriñic eguiten*" eta "suposer, *balizcatcea*".

H hartzekodun seguru dugu, bada. Zor horren zenbatekoa, aski larria, E-ko sarreren banan banako azterketa batek esango liguke (cf. Lakarra 1991a); hemen soilik zenbait adibide aipatuko dut.

12. Aceptar, *onartzea*. Cf. H "accepter, *topatcea*, *onharcea*", letraldaketa sistematikoarekin; 79. Atreverse, *ausartatu*. Cf. H. "oser, *ausartatcea*" eta "atrebitecea, *ausartatcea*, oser", "ausartatua, osée, f.". 105. Brazo, *galtzarra*. Cf. H "galçarra, bras, m." (Fr-eusk.koan, "bras, *besua*", "sein, *galçarra*"). 176. Cuidado, *gardia*. Cf. H "sérieusement, *gardiacorqui*", "sérieux, *gardiacorra*", "fidèle pour tenir le secret, *gardiacorra*". 352. Justificar, *bitoretu*. Cf. H. "justifier, *bitoretcea*", "il a été justifié, *bitore athara da*". 368. Momento, *liparra*. Cf. H "instant, *liparra*", "un instant, *lipar bat*", "dans un instant, *lipar baten buruan*". 373. Lienzo, *liñia*. Cf. H "liñia, linge, m.". 377. Limitar, *chedatu*. Cf. H "limiter, *chedatcea*", "marquer, *siñalatcea*, *chedatcea*". 391. Malicia, *amarrua*. Cf. H "malice, *amarrua*", "malicieux, *amarruxua*". 410. Melancolía, *languiadura*. Cf. H "melancolie, *languiadura*". 428. Moneda, *chebea*. Cf. H "monoye, *moneda*, *chebea*"; "la monoye d'un écu, *luis baten chebea*", "chebea, menu", etab.

H-ren eragina ez hitz solteetan baina hizkuntzazko eta grafiazko xehetasun anitzetan kausi dezakegu:

5. Abrigo, *malda*. Azk-k dioenez adiera honetan BN da berba hau; cf. H "abri, *leiorra*, *malda*", "à l'abri, *maldan*, *esalgunan*, *atherian*". 15. Acomodar, *onsatu*. 153. Componer, *onsatu*. Ekialdeko *on(t)sa*-tik Mitxelena-entzat (M). Cf. H "acommoder, *onsatcea*". 247. Escoba, *jatsa*. M-k ekialdekotzat du (Ax *isats*); cf. H "balay, *jatsa*", txistukariaren grafia ohi bezala egokituaz. 266. Facciones, *hazbeguiac*. Azk-k *azbegi* "facciones" B-kotzat du, baina L-ren letraldaketarako ohiturak ezaguturik iparraldeko iturri batek behar du; cf. H "traits de visage, *hazbeguiac*". 376. Lima, *carraca*. "Leiz" (M) baina H "lime, *lima*, *kharraca*"; "limer, *limatcea*, *kharracatcea*". 401. Marca, señal, *zagutcuza*. Harrigarri M-rentzat (errata ez bada) batez ere GN-rtzat jo ohi bait da e-. Baina cf. BN-koa den H-n: "marque, siñalea, *çaguiquñça*". 407. Mediano, mediocre, *erdixucoa*. Ez dator Ax-etik hark ez bait darabil grafi hori, bai, aldiz H-ek: "médiocre, *erdixucoa*". 496. Pasatiempo, *aliaca*. H "aliaqua, *passetemps*". 657. Tumulto, *biaorea*. M-k bearn. zah. *biafore*, gask. *biabore*, "grand cri, clameur, appel au secours, etc." (FEW 14, 377b) familiarekin lotzen du, iturburuaren bilaketa gidatuz: "H" tumulte, *biaorea*, *alarma*.

4.2. Testukritika hiztegiatan. Sarrera konplexuak eta atzizkiak

Testukritika liburuetan ez da eriden ohi gauza handirik hiztegiez. Izan ere, hertsian, ez dira *testu*, (hizkuntz historialariek, gure artean are HLEH-ak edo OEH-ak, bereizi ohi dute testuen lekukotasuna eta hiztegietatikoa), eta berez, ez dagokie testukritikalariei haien azterketa. Alabaina, penñsaketa apur batek erakuts liezaiguke nekez onar dezakegula honelakorik. Hasteko, edizio eta eskuizkribu diferenteen

arteko ezberdintasun anitz hiztegi arazoak dira: hitz aldaerak, sinonimia arazoak, arkaismo eta berrikuntzak, etab; bestetan kopiagile, moldatzaile edo argitaratzaile-ren batek delako testu bat prestatzeko halako edo holako hiztegia erabili du. Azkenik, ez da zaila ikustea hiztegien azterketa filologikoak badituzkeela lexikografia hutsez landako emaitzak (iturriak zehazteko orduan, esaterako); ez bide da ezinezko, halaber, hiztegien azterketan testukritikaren ariketatik ateratako ezagutzaren bat edo beste interesgarri izatea, eta are, ditekenea iruditzen zait, alderantziz. Gorago ikusi dugun huts bateratzaile eta irakurketa hobeen erizpideez gainerakorik erants dezakegulakoan nago eskuartearen ditugun azterkizunetarik abiatuz.

Sarrera anizkunak. Hiztegiaren ematen diren sarrera konplexuak, nahiz iturri antizen arrasto nahiz dagoeneko iturriek izan ditzaketenen islada izan daitezke. Honela, inoiz sarrerako hitzetarik bat Ax-engandik hartua eta bestea(k) Land edo RS-etikoak ditugu E-n. Alabaina, arrunt errazago azal daiteke E-ren egitura ezaugarri hau beste hiztegi bat duenean iturri:

144. Colcha, *cunchoina*, *matelasa*. Cf. H "matelas, *cunchoiña*, *matelaça*". 149. Comer demasiado, *chiflatzea*. 150. Comer con gusto, *ñaflatzea*. Cf. H "manger, *jatea*", "manger par excés, *chiflatcea*", "manger avec goût, *ñaflatcea*". 169. Cosecha, *uztailla*, *biltzapena*. Cf. H "saisons, *ustailac*, *bilçapenac*". 195. Desconfiado, *fidagaitza*. 196. Desconfianza, *fidagaiztasuna*. Cf. H "méfiant, *fidagaitça*, *iduricorra*"; "méfiance, *fidagaiztasuna*". 270. Faltriquera, *saquela*, *chiscua*. Cf. H "poche, *saquela*", "pochette, *chiscua*", *sakbela*, *poche*". 405. Matanza, *sacailla*. Hacerla, *sacaillatu*. Cf. H "massacre, *sakailla*", "massacrer, *sakhaillatcea*", "massacrer, *sarrasquitcea*". 452. Nones, *bacochia*. 489. Pares, *birichia*. Cf. H "paire, pair, *parea*, *biritchia*", "impair, *bakbotchia*", "*biritchia*, pair, m.", etab.

Atzizkiak. Ezagun denez (cf. bereziñi Sarasola 1986, xehetasunak xehetasun) idazkera landuaren tasun markagarrietarik delarik atzizkien erabileraren ugaltzea, eta ez izaki atzizki bakoitzaren zedarriztapen tinkoegirik, usadio bereziak aurki daitezke egileen artean, bai atzizki hautapenari, eta baita atzizki bakoitzaren balioari doakionez. Honela bada idazleen artean, arago haien zabaltzaile nagusi diren hiztegi-gigileenean. Eginkizun emankor dugu atzizkiak arrasto edo aztarna gisa erabiliaz ondutako euskal hiztegien azterketa historikoa. Oraindik behar bezala xurgatu ez den iturri honen balioaz jabetzen gaitu E eta H-ren azterketak. Hara adibide pareia.

Guertacuntza E-ko bi sarreratan azaltzen zaigu: 125. "Caso, suceso, *guertacuntza*" eta 619. "Suceso, *guertacuntza*". "Ez dut E honetako *-kuntza*-zko eratorriek oro bezala, L-ren sorketa (guztiz erregularra, bestalde) susmoa bizten duen hitz honen lekukotasunik erideiten. Hain zuzen ere, horietarik soilik guztien eredu bilaka zitekeen *azar-cunza*-ren (E-ko 78.a) antzinatutasuna frogatu ahal izan dut" dio Mitxelena (1970), 125. sarrerako iruzkinean.

Alabaina, ez da zer suposa L-ren asmaketak direnik E-ko *-kuntza*-dunak oro. Hasteko, hau berau HH-aren E baino zaharragoa da, askogatik ez bada ere: H "succés, *guertba-qunça*". Bestalde, etorki bera dute 401 "marca, señal, *zagutcuntza*", 409 "mejoras, *obecunzac*", 499 "paseo, *ibilcuntza*", 532ko "preferencia, *lencuntza*", eta 616 "suficiente, *asquicuntza*"-k ere; salbuespenen artean Mitxelena aipatu 78 "atrevimiento, *azar-cunza*" (RS165) eta 408 "medicamento, *midicuntza*" (Ax 425) dira. Soilik 648

“tormento, *toliacuntza*” iruditzen zait L-k gainerakoen eredura asmatutako hitza eta honetan ere, bai hau eta bai 75 “Atormentar, *toliatu*” biak baditu ere etorki ezezagunekotzat, M-k berak markatzen du Izt eta Voc.-k lehena jasotzen dutela, eta bai *toliatu* (Hiribarreni hartua) eta baita bere eratorriak ere Lh-k. Aditzaren etorkia H fr-eusk. dugu: “tourmenter, *toliatcea*”. Eratorria egile honengan ez da aurkitzen eta berau dugu H-engan peitu den E-ko *-kuntza*-dun bakarra. Baina, ez da zalantzarik lehen bilduen aurrean, hari zor dio horren erabileraren ideia L-k; areago ia guzti haiek dagokien aditzaren ondotik bait dakartza H-k.

Gehienak ez dira, bada, Mitxelenak suposatu legez E-n sortu, H-en hiztegia baizik.

Badira halaber *-catu*-z osatutako aditzak E-n; hara hemen beren zerrenda osoa: 26 eta 264 *marruscatu*, 66 *billacatu*, 259 *eguincatu*, 462 *bisicatu*, *estocatu*, 498 *ibilcatu*, 533 *lencatu*, 622 *balizcatu*, 649 *lancaueta* 678 *icuscatu*. Guzti guztiak, Ax-engandiko *bisicatu* salbu, H-engandik jasoak: “froter, *marrusquatcea*”; “ruiner, *billaquatcea*”; “stipuler, *eguincatcea*”, “il stipule bien, *ongui eguincatcen du*”; “obstiner, *estocatcea*”; “se promener, *ibilcatcea*”; “préferer, *lebencatcea*”; “suposer, *balizcatcea*”; “travailler, *lanca-teea*”, “visiter, *ikbuscatcea, visitatcea*”, hurrenez hurren.

Egia da Mitxelenak 26 eta 264 “*Marruscatcea, froter entre les mains*” dela gaztigitzen digula Pouv-rentzat. Horrelaxe Azkuek aipatzen duen Ax 41 ere. Besterik ez dioelarik, badirudi M-k Ax-en pasarte hau duela L-ren iturritzat. Orobat 66 “Arruinar, *billacatu*”-n azalpen errazeko gainerakoetan bezala, M-k etorkia zuzen zuzenean ematen du: Ax 190 eta 423. Ax-ez landa Pouv-k eta Haranederrek ere badakartela gehituaz. Litekeena den arren, E-n atzizki horrekin eratuak diren aditz guztiak H-engandik hartuak izatea hauetan ere haren alde erabakitzeke arrazoï garrantzitsua da, ene ustez, eta haboro bigarrenari dagokionez, “il a ruiné toute sa maison, *bere etche gucia billaquatu du*” eta “détruire, *destrucea, billaquatcea*” ere bait datoz gorago aipatu sarreraren bertan.

616. “Suficiencia, *asquicuntza*”, 617. “Suficiente, *asquitsua*” 593-594 sarreretan agertzen diren *aski*-ren eratorri pare “satisfacer” *asquiesi*, “satisfecho” *asquiesia*) gogoratzten badu ere, Mitxelenak ez daki ezin zehaz dezakeen iturriren batetik hartuak ala L-k berak asmatuak diratekeen.

Baina Mitxelenaren beldurraren aurka erakutsi den legez, L-k ez du E honetan *-kuntza* atzizkiaren bitartez hitzberrik asmatzen, *toliacuntza* salbu, eta sail horretako ia guztiak direla H-engandik jasoak. Horrela gertatzen da kasu honetan ere, bi hitzak bait dira dagoeneko H-engan: cf. “suffire, *asqui icatea*”, “suffisant, *asquixu*”, “suffisance, *asquiquança*” eta “suffisamment, *asquiqui*”.

Aldiz, ez dirudi *-dura* atzizki honen erabileran H-ek L zaletu zuenik *-kuntza*, edo, beste neurri batean, *-katu*-rekin egin bezala:

Soilik “melancolía, *languidura*” du E-ak iturri hartatik baina ez du “attachement, *estequadura*”, “mouvement, *biguidura*”, ez “soveranité, *gaindura*”, nahiz eta bertatik jaso 227 “embarazo, *estecua*”, 413 “moverse, *higuitu*” eta 610 “soberano, *orotaco*”, zalantzazkoa da 44 “amortecimiento, *bildura*” eta ez da *bazdura* baizik 171 “costumbre, *aztura*”-ren iturrikoa. Datuok esanguratsuak dira H-engan 40 bat eratorri bait dira atzizki horretaz baliaturikoak (4 eusk.-fran. hiztegia eta fran.-eusk.zkoan gaine-

rakoak). H-en *-dura-*ren eta beste bien lekukotasunen kopuruak oso antzekoak izan arren, guztiz bestela agitzen da *E-*ean.

4.3. Arazo berriak Eraskin-eko iturriez

Lakarra 1991a-n ikusi legez, H ere *E-*ren hartzekodun berri bilakatzean Mitxelena 1970ean Landucci, *Refranes y Sentencias* eta Axularren artean egin kontu garbiketa zerbait berrikusi beharrean gara.

Arazo larriena Ax-ekikoa du, bera izanik iturri nagusia, batetik, eta haren eta H-en hizkerak beren artean bigarrenarena eta Land zein *RS-*ena baino askozaz hurbilago izaki, bestetik.

Gauzek duten benetazko zailtasunaren poxi bat antzemateko, mia bedi H “familiar, *ausart, trebe, entregu*” eta gogoratu harako “orai badirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, eztela iendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe”. Bide berean garamatza goiko esaldiok dakartzan “Irakurtzailleari” 10eko aurreko zatiaren eta H-en gramatikako “Iracurçailleari”-tik ondoren ezartzen ditudanen arteko erkaketak:

[...] Hunetzaz kontent ezpazara, egizu zuk zeure moldera, eta zure herrian usatzen eta segitzen den bezala. Zeren ez naiz ni hargatik bekhaiztuko, eta ez mutturturik iarriko. Aitzitik haur da nik nahi nukeien gauzetarik bat, ene enseiu aphur hunek kilika zinitzan eta gutizia, enseiu hobego baten egitera eta ene hemengo falten ere erremediatzera.

[...] deliberatu dut obra chume hunen arguitarat emateco, eta menturaz hau içanen da causa cembait bercec hartuco baitu deliberatione obra hobego baten eguiteco, hargatic ni ez naiz bekhaiztucu, aiticitic hori içanen da ene placera; seguratua naicelatic nor nahi den ni baiño gaiño dela hunelaco materiez arguitasun guehiago emateco euscaldunei.

Loturaren sendotasuna markatzeko, komeni da 506-507 orrialdeetako “Escualdunei gomendioa eta abisua” interesgarri eta izenburu oihartzuneko pasarteren bat ere hona ekartzea. Axularrek antzekoaren aitzineko bietan bezala “badaquiçue haiñitz mudança guisa ematen çaiola escuarari haiñitz herritan, hala nola” batez zenbait aipatu ondoren hara zer gehitzen duen:

Orai bat bederac ikhar eçaçue ala hartu ditudan bideac, ala utci ditudan moldeac diren hoberenac, eta axeguiñ eguiñen darotaçue niri çuen iduria horren gaiñean errateaz liburu hau haren duçuelatic asaiaca bat beçala, ondoan eguiñ diteque mudança behar dena gauçac ongui ikhartu ondoan.

Ez da zalantzarik, bada, H-k ere ezagutu eta erabili zuela Ax L-k baino lehen (cf. Mitxelena 1981 eta Urgell 1991a, 1991b, 1992 Ax-en arrasto gehiagotarako).

Halere, gehienetan era ezberdinetako arrazoiak ditugu *E-*ko delako sarrera batean hitzak ez Ax baina H-tikoak direla suposatzeke: forma 138 *ocenqui*-ren kasuan, esanahia 203 *pedazatu*-renean (ikus gorago), hitz horien edo beren eratorrien agerraldi kopurua 413 *higuitu*, 464 *aisia*, 502 *bipildu*, 509 *galtzapen*, 538 *estacuru*, 603 *esleitcea*, H-rengandikoetan L-k egiten dituen aldaketen barnean sartzea 639 *achiquitu*...

Arrazoi nagusia, ordea, besterik da. Egunoroko esperientziak dioskunez, hainbatetik hainbatean, hiztegi-gileek aurreko hiztegi-etarik hartu ohi dute (gogora Pouv-

ren Etx.Zib.arekiko zorra edota beherago ikusiko den Sbarbi-Urquijoren L-rekikoa) eta, askozaz gutxiago, noizean behin edo kasu berezietan, testuetarik zuzenean. Badakigu L-k testuak ere erabili zituela, batez ere testuak erabili zituela, nahiago bada, baina horrek ez bide zezakeen saihas ofiziokoen artean hain erroturik den azturatik. Nolanahi ere, badirudi hainbat eta aukera gehiago dukeela E-ko hitz batek ez testu batetik, RS zein Ax-engandik, hartua izateko —bestelako, hots, formazko edo semantikazko erizpiderik ez denean— zenbat eta L-k hura erabiltzeko behar edo beta gehiago izan. Alegia, berezi egin behar soilik behin, hiztegiatarik batean, adibide ez eratorritik gabe datorren H-ko litekeen kide (ez-hapax) baten eta H-en bi hiztegiatan, sarrera bat baino gehiagotan, eta, oraindik hobe, L-k hitz horri eman dion gaztelerazko itzulpenaren frantsesezko formazko (ez beti esanahizko) kideztakoan, erabilera adibide eta zenbait eratorrirekin inguratua den beste baten artean. Nabarmena da honelakoetan hiztegiek edozein testuren aitzinean duten azalpen boterea; hara segidan kasu bat edo beste:

352. Justificar, *bitoretu*. Cf. H “justifier, *bithoretcea*”, “il a été justifié, *bithore athara da*”. 332. Impotencia, inhabilidad, *eciña*. 333. Impotente, inhábil, *ecindua*. Cf. H “impossible, *eciña*”; “incapable, *ecindua*”, eta orobat “incapacité, *ecindura*”. 370. Libertad, *escudencia*, *lacho*. Cf. H “liberté, *escudencia*”; “il a pris la liberté, *escudencia hartu du*”; “libre, *lacho*”; “il est en liberté, *lachoan da*”. 391. Malicia, *amarrua*. Cf. H “malice, *amarrua*”, “malicieux, *amarruxua*”. 428. Moneda, *chebea*. Cf. H “monoye, *moneda*, *chebea*”; “la monoye d’un écu, *luis baten chebea*”, “*chebea*, menu”. 470. Oponerse, *contracartu*, oposicion, *contracarra*. Cf. H “opposer, *contraca[r]tcea*”, “opposition, *contracarra*”.

4.4. Aldaketak iturri berriaren aurrean

Ikus ditzagun orain aurreko azterketaren emaitzak zenbakitan (zehaztasun gehiagotarako ikus Lakarra 1991a). 776 hitz dira guztira E-n, bikoiztasun faltsuren bat eta forma edo esanahi berean agertu hitzak ezabatu ondoren. Horiatarik 243 dira Ax-engandik hartuak (% 31,13), 161 ezagutzen ditugun RS-eko zatietarik (% 20, 74), 129 H-tik (% 16, 62), eta 67 Landucciren hiztegitik (% 8, 76). 9rentzat (% 1,15) hautagai bat baino gehiago dugu ezagutzen diren iturrien artean, 47 RS-en zati galdurikoak izan daitezke (% 6, 05) eta 118rentzat (% 15, 20) ez dugu oraindik iturbururik.

Seiren bat da, bada, H-k E-ren iturburuez argitzen duena eta, oraindik ere zer iker dugun arren hondarra agortzeko, gainerako iturriek, Ax-i bereziki, M-k egokitu mailebuak zehazteaz landa, erdira jaisten du etorki ezezaguneko sarreraren kopurua.

H aldamenen ezarritik HH-ren gorputza barrena oster txiki bat egiten badugu orain, ez ote gara ez soilik H E-ren iturri bilakatu baina hipotesi ausartago bat egiteko moduan? Hara behin behineko emaitzak lehendabiziko sarreretan:

Agradable, *naicaria* / agreeable, *nabicaria*. Agrio, *miña*; agrura, *acrimonia*, *mintasun* / aigre, *miña*; aigreux, *mintassuna*. Apetencia, *apetito*, *jambidea* / appetit, *janbidea*. Arrogante, *furfuiatsua* / arrogant, *furfuiatxua*. Aventura, *guertacaria*, *guertapena*, *suertaldia*, *jazoera* / aventure, *guertacaria*. Avaricia, *lucurarigoa*; avariento, *lucuraria*; avaro, *jaramanál* / avare, *lukhuraria*; avarice, *lukhurarigoa*; avaricieux, *iaramana*. Auditor, *aditzallea* /

auditeur, *aditçaillea*. Austero, *haindurrá*, *dorpeá*; austeridad, *dorpetasuna*, *haindurtzal* austere, *dorpea*, *haindurra*; etab.

Luze joko luke bakoitzaren gorabehera eta bermegoak azaltzeak; banago, ordea, L-k H HH-aren gorputzean bertan, ez soilik E-n, erabiltzea egiantzeko ez eze zerbait gehiago ere bilakatzen dutela. Pare bat datu haboro: L-k “caza de aves, *ibiza*”, “cazador, *ibiztaria*”; “cazar, *ibiztatu*” dakartza, *bb* horiek, hitz barneko kokagune horretan, ez dutela zalantzarik uzten iparraldeko iturri idatziren batetik hartuak direla, beste askotan bezala gorde duelarik puntu horretan iturburuaren grafia: cf. H “chasser, *ibiztatcea*”, “chasse, *ibicia*”, “chasseur, *ibiztaria*”. Bigarren bat: H “bagatelles, *chirebilqueria*” L “bagatela, *chireilqueria*”, iturburuko formaren zuntasuna emandakotzat joaz, mailebatzailea *b* kentzera mugatuaz (cf. Lakarra 1991a eta 1992b azterketa zabalagorako).

5. HH eta XVIII. mendeko bi hiztegi

5.1. Sbarbi-Urquijo hiztegi

1907an ateratzen zen Parisen *Obras vascongadas del doctor laboriano Joannes D'Etcheberri (1712) con una introducción y notas por Julio de Urquijo e Ibarra*. Bertan ziren bere bizian argitarara *Lapurdiri gomendiozco carta edo guthuna* eta argitaragabe utzitako *Escuararen hatsapenac*.

Euskal Herrian zehar liburu bilaketan ari zela Zarauzko Frantziskotarren Artxibu interesgarrian Urquijok ediren zituen azken hauekin batera ez zen, ordea, Larramendik aipatu zuen haren hiztegiaren berririk:

El doctor don Juan de Echeberría, natural de Sara en Labort, oy médico de la villa de Azcoitia, muy docto y amante de su lengua, tiene años ha compuesto un diccionario quadrilingüe de bascuence, castellano, francés y latín, que impresso pudiera servir para entender los pocos libros que ay en bascuence, aunque no con toda extensión. Avrá diez, o doce años que estando de passo en Azcoitia me lo fió por dos días y entresaqué muchas voces del dialecto laboriano, para ponerlas después en las correspondientes del castellano. Harto me huviera alegrado que huviera precedido la impresión deste Diccionario para valerme del trabajo ageno sin ofensión de su autor en quanto dixesse bien con la idea del mío. (DT, xxxvj).

Madrilidar liburuzale batek, José María Sbarbik, uste zuen hainbat urteren ondoren bere eskuetara iritsia zela eskuizkribu hori. Are gehiago dena, Urquijok konparatzeko *Escuararen hatsapenac*-etik orri baten fotografia bidaltzean berak zueneko esku bera ezagutu uste zuen.

Alabaina, Sbarbiren ustea ez zitzaion batere segurua iruditzen Urquijori, nahiz eta kontutan hartu arrapataka idatziriko testuaren (Zarauzkoa) eta tajuz eta rxukun inprimategirako prestatuaren artean (Sbarbirena) izan daitekeen aldea. Egiantzaren bat, aitortzen duen legez, eman ziezaiokeen aburu hari hiztegi eskuizkribatu hori ere XVIII. mendekoa, lapurtar batena, 202 orri soiletakoa eta euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta latinez osatua izateak, hots Larramendik emandako datuekin, oro har, ongi etortzeak.

Bestalde, zuhur erakusten zuenez, Sbarbiren hiztegian (*SbUr* aurrerantzean) bazi-

ren *alosis* "musa", *bocantça* "elocuencia", *estrosada* "batalla", *communztadura* "concordancia" eta beste zenbait Etxeberriren usu erabiltzen dituen hitzak, eta nahiz eta L-ren hiztegian ere idoro berauek, horrek ez dio frogari indarririk kentzen, andoaindarrak saratarri mailebatuak bait lirakeke. Latinezko itzulpenetik datozen frogak ere erabiltzen ditu Urquijok: *Hatsapenac*-etan *arthaduri* "studiossum" itzultzen da eta, hortaz, *artha* Etxeberrirentzat "studium" zen; itzulpen hau berau agertzen da hain zuzen *SbUr*-en: *artha* "studium, cura".

Halere, guzti honen ondoren, bere eritziz ez zen zalantzagabeko frogarik eskuizkribua Etxeberriren egokitzeko eta baieztapen borobilik ez egitea iruditzen zitzaion hoberena.

Mitxelena (1970) berrartu zuen eztabaida. Urquijoren argudioak gogoratu ondoren hark aipatzeko utzitako datuak ekarri zituen. Ezer baino lehen, *HH*-rekiko zordun da *SbUr*, hor bait dira *E*-ko bitxikeriak oro eta gorputzetiko anitz ere.

Bestalde, markatzen du, "*seilac*, favus, pañales, raion de miel" bezalako nahasketen aurrean (*panales* ulertu da), gaztelarazko hitzekin egiten dira diren "quid pro quo"ak, eta ez frantsesezkoekin.

Laburpen bezala, Mitxelenaentzat ez da ezer eskuizkribuan Etxeberrirena izatea ezinezkoa egiten duenik, baina bai fetxa zailtasunak, 1749an hil bait zen, *HH* argitara eta lau urtetara; eskuizkribuan erabili zuela suposatuta beharko litzatekeela deritzo.

Bere egiletasunaren aldeko frogak ere urri diren arren, *SbUr*-en badira harenengan usuko diren hitzak: *alosis*, *bocantça* (L-k ere badakartzanak), *antcecaitça* "inconcinis", *communztadura* "conventio", *estrosada* "proelium", *urmariatua* "liquefactus", *yendaquia* "natio" L-k ez dakartzanak.

Eta hau da bere ondorioa:

Cabe, por lo tanto, en lo posible, y hasta en lo verosímil, que el manuscrito sea de Etcheberri, lo cual vale tanto como considerarle acreedor en su comercio con Larra-mendi. En tal caso, Etcheberri sería la fuente primera de *alosis*, forma que parece aislada en el léxico vasco, de *bocantça*, que pudo ser popular o formado por analogía, y de *huzcuja*, que sería un derivado de *utzi* "dejar" (Mitxelena 1970: 30-31).

Dakidanez, *SbUr*-ekiko egiletasun edo kronologi azterketetan azken aurrerapena Gidor Bilbaok (1991b: 767) egindako oharra da:

Kronologiari dagokion xehetasun bat iruditzen zaigu guri bereziki azpimarragarri [...] Etxeberriren berak hiztegia moldatzen hasi zela lehenbizi eta gero ekin ziola gramatika prestatzeari. Latina ikasteko gramatikaren bertsio bat 1712.ean idatzi zuela onartuz gero, urte hori baino lehenagokoak izango genituzke zalantzarik gabe hiztegia hasia zueneko lehen saiok. Xehetasun hau gainera, ez dugu hutsala, Etxeberriren garaikide zen Urteren lanekin alderaketarik egin nahi duenarentzat.

Urterekiko alderaketa hori ez litzateke, noski, lotura eta zorrik erabakitzeke, ez bait da horrelakorik erakutsi oraingoz eta ez bait dirudi arrazoirik denik bata bestearen lanaren berri izan zuela suposatzeke; alabaina, bada beste erkakizunik euskal hiztegi zaharren tipologiarik (cf. frantsesentzat Quemada 1968) egitekotan,

eta azterketa hori ezinbestekoa dugu aurrerantzean ere ez dezaten iraun orain arteko topikoek euskal hizteigintza zaharraz.

Goian hona ekarri pasartean Bilbaok *Lau-urdira gomendiozco carta edo guthuna*-ko zati hau dakarkigu gogora:

Halacotz, bada Escualdunen pena eta neque hau iccusiric hasi nintcen Escuaraz, Latinez, Francesez eta Espainolez hitztegui baten moldatcen; bide hartaz Escualdun guztiec eta bereciqui ene hertar Lau-urtarrec cembait fagore, eta laguntça içan leçaten gatic; bere herritic camporat ilkhi gabe, cembait hitzcuntçaren parte bederen ikhasteco. Ordea noiz-eta-ere uste bainien aiticina neramala neure obra, hohora citçaitan, deus guti balio çuela ene travailluac, eta cimendugabeco obraren pare içanen cela baldin lehenbiciric ez banituen moldatcen Escuarazco lehenbicico hatsapenac, Latin ikhasteco; ceren hauc baitira cein-nahi hitzcuntçaren cimenduac, çainac eta erroac (400. or.).

Orain arte ikusiak aski ilun izan dira, ene irudiko, eskuizkribuaren egiletasunaz mintzatzean, kontraesanak ere falta ez direlarik; hortaz, datuak ordenan jartzen eta ondoriorik ahalik eta argienak ateratzen saiatuko naiz.

SbUr ezin izan daiteke 1712 baino lehen Etxeberri moldatua, ezta (hura bera izan edo artean beste nolanahi berritu) 1745 baino lehen (agian 1734 inguruan) hark Larramendiri utzia. Horretarako den arrazoirik sendoena —aski den adinakoa Mitxelenak dioenaren kontra (cf. gorago)— *SbUr* eskuizkribuan Etxeberrirenen *ezin* izan zitezkeen hitzak jasotzean datza. Soilik 1745 ondoren, gutxienez hiztegia inprimategian zelarik osatutako Eraskina (eta agian lehen 3 letretako emendakinak), cf. Lakarra 1991a: 256) ezagutu ondoren eskura zitzakeen hitzak dira *SbUr*-en jasoak. Esaterako *E*-ko hutsak edo Harriet, Landucci, *RS* edo Axularrengandikako zenbait hitz. Izan ere, ez du ezer laguntzen Mitxelenak proposatu hipotesiak —hots, Etxeberriren *L*-ren eskuizkribua erabil zezakeela— fetxa zailtasunak arintzeko; horrela ere *SbUr* *L*-ren zordun litzateke:

E 1 ablandarse, *cantitu*: *SbUr cantitcea*, -tu (gero erantsia), emollire, *cantitcen içatea*, mouere se, mover se, bouger, se remouer. *E* 5 Abrigo, *malda*: *SbUr malda*, apricatio, abrigo, abri, montée, precipice. *E*-ko hitza *H*-tik hartua da (Lakarra 1991: 230). *E* 6 Abril, *opea*: *SbUr opea*, torta, torta, tourte; id apirilis mensis, abril, avril. *E*-koa *RS*-eko hapaxa da (Mitxelena 1970: 54). *E* 8 Acabarse, *asacatu*, *neitu*: *SbUr asacatcea*, *asacatu*, finire, acabarse, etre a sa fin. *Asacatu* *RS*-eko hapaxa da (Mitxelena 1970: 54); *neitcea* ez da *Ax*-en (Mitxelena, ibid) eta *L*-k *H*-tik hartu du (Lakarra 1991a: 233). *E* 9 Acaecer, *apucatu*: *SbUr apucatcea*, *apucatu*, succedere, acaecer, survenir, arriver. *E*-koa Landucciren hapaxa da (Mitxelena 1970: 54). *E* 11 Acelga, *zarba*, *bezarra*: *SbUr bezarra*, boeta, acelga, bette puiée. Baina *bezarra* *L*-ren hutsa da Landucciren “açelga yerua, açelguea verarra”-tik (Mitxelena 1970: 55).

Bestalde, ez dirudi *E*-tik hartuak beranduago, azken orduan, erantsiak direnik *SbUr*-en: testuan barnean dira gainerakoak bezala, ez izkinetan edo lerro artean.

1712 eta 1740 inguruko (*L*-k berea eta, agian, berak *L*-rena ezagutu baino lehenagoko) Etxeberriren hiztegia ez dela erakutsi ondoren, *SbUr* honek Etxeberriren hiztegiarekin hurbileko edo urrutiko loturarik izan lezakeen genuke galdera.

Ezezkoa frogatzea ezinezkoa delarik, baiezkoa argigarri edo emankor den ikusi

beharko. Baiezkoa bi eratakoa izan liteke: a) Etxeberriren hiztegiaren zordun da; b) Etxeberriren hiztegiaren bermoldaketa bat da, bermoldaketa honetan bestelako iturriarik, L-ren hiztegia esaterako, erabili zituelarik moldatzaileak (Etxeberri zein beste delarik hau). (a) besterik gabe erabakiezina da Etxeberrirenaren eskuizkribu, zirriborro edo antzeko ezer gabe; gehienez ere saia gaitezke erakusten (baina horrek ez luke (b) deuseztatuko) *SbUr*-en badirela saratarraren usadio eta ohituren arrastoak. Bestalde, arrasto horiek *zuzenekoak* direla (eta ez L bitartekoak) beharko genuke erakutsi, *HH*-n jaso ez diren Etxeberriren “estilemak” erabiliaz, demagun. Honelakoak gutxi dira, ordea. Eta ez bedi pentsa hertsiegi jokatzeko eskatzen denik Etxeberriren arrastoak bilatzean: Axularren oihartzunak, esaterako, ez dira arbuizatzeko; kontra-koa, hain justu, haren usadioaren besteren baino salatzaileago diren bezainbatean (cf. Altuna 1988).

Etxeberrirenaren bermoldaketatzat jotzeko arrazoiak orokorrak zein zehatzagoak izan daitezke. Lehendabizikoetarik genuke hiztegiaren egitura bera (eusk.-lat.-gazt.-frant.), antzeko bestelako hiztegiaren berririk ez bait dugu; ohar bedi (cf. gorago) Etxeberri “escuaraz, latinez, *francesez eta espainolez*” dioskula baina azken bi hizkuntzen ordena aldaketa —horrelakorik izan bada— ez litzateke 1745 ondoren eta Hegoaldean egindako bermoldaketa baten aurka; izatekotan ere alde. Urquijok eta Mitxelena gaztigatu euskararen etorkia (lapurtera, gehienbat, eta hori ez da saihesteko 1745 ondoren Larramendi darabilen testu batean), hutsak direnean gaztelarazko hitzekin izatea, etab. ere hipotesi honen barnean oso egoki kokatu ahalko lirateke.

Oraingoz, bada (cf. Lakarra 1992b eta Bilbao-Lakarra, prestatzen, azterketa zabalago baterako) *HH* erabiliaz egindako Etxeberriren bermoldaketatzat nuke.

5.2. Euskara-gaztelera hiztegia

1967an argitaratzen zuen Patxi Altunak Larramendik amaitzeke eskuizkribuan utzitako euskara-gaztelera hiztegi bat. Fitak duela ehun urte aipatu arren, bestek lehenago aztertu ez kontutuan hartua ez izaki, L-ren hiztegi-gintzarekiko azterketa gehienak erren ziren alde honetatik. Geroztik beste begiz ikus zitekeen (cf. Altuna 1967, Lakarra 1985a) *HH*-ean hiztegiaren egitura eta egiteko ez esanak eta, azken finean, L-ren “praktikotasunaz” (cf. § 3).

HH gaztelera-euskara zergatik den azaldu ondoren “he observado este método en el Diccionario, esperando que otro curioso, que quisiese trabajar algo, podrá sin mucha dificultad disponer el Diccionario, en que se pongan antes las voces del Bascuence, y después las del Romance; pues leyéndolas en este Diccionario y teniendo dispuestos los pliegos, y quadernos necesarios, las pueden ir escribiendo en la letra, y combinación que les toca” (*DT*, xliij).

Alabaina, ez bide zuen hurbileko euskaltzaleengan horretarako prest zenik ikusten eta beregain hartu zuen aurrekoaren bihurketa.

Izan, baten bitartean *HH*-ren bermoldaketa horretan ari zenik, seguruenik Larramendik haren berririk inoiz izan ez arren: Bullet (*Memoires de la Langue Celtique*, 1755-59-60). Haren liburuan 10.000 euskal hitz (edo euskal hitzatz emandako dira, euskaldunekin izandako tratutik jasotakoez landa, Leizarragaren *Testamentu Berria*-ren itzulpenaren hiztegia (eskuizkribatua), euskara-irlandera-eskoziara-galera-korni-

koa (eskuizkribatua), Fauvet-en *Hirur lenguajetan tresora*, Oihenarten *Notitia* eta, batez ere, Larramendiren hirukoitza erabilirik (Aquesolo 1967: 144). Lehenago Vinsonek (1891) legez Aquesolok ere L-ren hiztegia du askorekin Bullet-en iturri nagusizat, *HH* eraldatua izatera iristen ez bada ere. Damurik, ezin esan Bullet-en lana asetzeko modukoa izan zenik, ulerpen hutsak eta hutsarteak (deribatu eta konposatuen erroak falta usu) eta, oro har, azkarregi eta euskararen egituraren ezagutza handiegirik gabe egindakoaren arrastoak ez bait dira falta (Aquesolo 1967: 145-147).

Euskara-gaztelera hiztegian ez zuen Altunak *HH*-n ez zen hitzik kausitu; badirudi, beraz, haren bihurketa dela edo, hobe esan, bihurketa hori bide zen L-ren gogoia, burutzerik ez bait zuen izan. Izan, 112 orrialde handi dira, bakoitzean hiruna zerrendarekin, guztira zortzi-bederatzi mila hitz, Altunaren kontuen arabera.

“Ze letraraño iritxi zen erdera-euskerazko iztegian? Alegia, noraiño itzak zituena aldatuak iztegi zaharretik berri onetara eta nundik ezkerozkoak falta zitzaion berrira aldatzea?” galdetzen zuen Altunak. Berak esan bezala, zaila da erantzuten; erabateko segurtasunik izateko banan-banan aztertu beharko liriateke hitzak. Halere, Altunak zuhurki dakusan legez, bada noraino ez den iritsi erabakitzeko biderik:

Ar dezagun, esate baterako, erdera-euskerazko iztegitik m-gaz asten den erderazko itz bat: “morir”, adibidez. Orren ordezkoa euskeraz *il* da; ba, *il* ezta ageri iztegi berri onetan. *Illerazo*, *illaraci*, *illerazopena* eta abar *il*-etik erakarriak, berriz, bai, auek bada-kartzi; baiñan oiek erdera-euskerazko iztegian “amortiguar, amortiguamiento” esan nai dutela dion ezkerro, A izkian arkitu zituen.

Beste adibide bat: “mano” erderaz *eskua* da euskeraz; ba, *eskua* ere ezta ageri iztegi onetan. Itz onetatik erakarriak diren beste batzuek, bai, bada-kartzi; esate baterako, *escumaquilla*, *escumuñac*, *escubarea*, *escuera* eta abar; baiñan oiek erderaz “báculo, besamanos, bielda, compás” omen diren ezkerro, B eta C izkietatik artuak zituen.

Beste orrenbeste esan dezaket *meza-z*, erderaz “misa”. *Meza* ere ezta ageri iztegi onek. Berebat *beldurra* naiz *bildurra*, erderaz “miedo”; ez bata ez bestea ezta ageri iztegi onetan”(143).

“Aurreneko bozpasei izkien azpian agertzen diren euskerazko itzak baizik etzi-tuela iztegi berri onetan aldatu esango nuke” dugu Altunaren ondorioa, edota “Muga bat jar dezakegula uste dut [...] okerrik gabe esan dezakegula uste dut M letraraño beñipein etzela iritxi erdera-euskerazko iztegian, eta ortik aurrera-koak, beintzat —atzeragokoak ere ez, apika, denak—, aldatzeko astirik izan gabe atzi zuela erioak Larramendi Aita”.

Baina hainbestetara ere iritsi ote zen? Aurrera baino lehen, ohar bedi euskara-gaztelera hiztegiak zortzi bat mila hitz baditu *HH*-ak hirurogei milatik gora izango dituela (800 orrialde x 80 inguru bakoitzeko). Ez da pentsatzekoa, bada, bihurketa urrutiegi heldu zenik eta, lana sailean egin bazuen, M-ra ez eze askozaz atzerago ere iritsi bide zen.

Banago badela, eta Altunak emandako ohar eta datuetarik ilki gabe, hurbilketa haboro eskain diezaigukeen xehetasunik:

zenbait orrialdetan osoro bete gabe agertzen dira zerrendak, azpiko aldean bete gabeko utsunea, andixeagoa, txikixeagoa, dutela. Beste iztegi zaharretik urrenez-urren itzak

artu-ala idazten zituen, iñolaz, berri onetan eta, jakiña, euskeraz zegokien letrapean ipintzen zituen. Orregatik eztira agertzen, agertu ere, beti itzak izkien-jarraiak eskatzen duen ordena zorrotzean, erdera-euskerazko iztegian agertu-ala zetozkion giñoan baizik. Batetik bestera atzekoz-aurre aldatu baizik etzuen egin; geroagoko lana bearko zuen izan, emen artutakoak zuzendu, ordenatu eta urrenez-urren ipiñi. Baiñan ortarako astirik etzuen izan.

Gauzak honela, letra bakoitzaren azken sarreretan begiratzen badugu, han behar dute *HH*-tik jaso azken hitzak. Hauek miatzen baditugu ohartzen gara ez M letran baina askoz lehengo gelditu zela Larramendi. Hara begirada arin batean ateratzen zaiguna:

A-ren azken sarrerak AR-ri dagozkio: *arauguea*, desorden, desconcierto; *arauguetu*, desconcertar, turbar el orden; *artalguetu*, desempadarrar. B-renak BE dira: *beltzurda*, corneja; *beanza*, *beanzoa*, correlación; *beronzcoa*, correnzia. C-renak CU: *cuperatia*, denguera, etc; *cuculdu*, desaparecer; *cupidaguea*, despiadado; D-renak DES: *desguicendu*, *desloditu*, desengrosar; *desirlicatu*, *desuraitu*, desengrudar; desalbiñotu, desenhebrar; E-renak ER: *errebela*, descarriar; *erautsi*, hacer bajar, descender; *erauspena*, descendimiento; F-renak FR: *fracabaguea*, desbragado; *fracarteia*, bragueta; *fracajario*, el de bragas caídas; G-renak GO: *gaistotu*, depravar, malear, hacerse malo; *gozacaiztu*, *gozagueu*, desabrirse; *gozacaizta*, *gozaguea*, desabrido, indigesto, desabrimiento, indigestión; etab.

Ikus daitekeenez azken hitzak erdara-euskara hiztegian *des*-ekin hasten diren sarreretakoak dira gehienez ere. Saio berau egin dut gainerako letra guztiekin ere eta ez dut kontrakorik eriden. Hortik aurrerako erdal itzulpenak (*e*-, *f*- edo beste hasten direnak) sarrera horietan ziren (usu azalpen edo eratorri gisa)e ta ez dioskute L aurrerago joan zenik bihurketa lanotan.

6. Hitzberriak

6.1.-*kuntza* eta *-katu* Harrietan hiztegiatan.

§ 2.2.ean ikusi dugu badela aski arrazoi zenbait hitz eratorri (*-katu* eta *-kuntza*, baina ez *-dura*, baliatzen dutenak) ez *E*-n asmatuak baizik eta *H*-tik hartuak direla esateko. Testukritikan iturriaren erabilerak, hots, delako egile batek, holako edo halako era batez eta honako edo horrako helburu batez erabiltzeak, ez soilik erabilzaileari baizik iturriari berari buruzko berri eta aztarnarik eman liezaiguke.

L-ren inguruko lanetan hainbesteko lekua hartu duen hitzberrien gaia behar bezala aztertzeo oinarriak jartzeko komeni da zehaztea *E*-koen iturri zuzen diren *H*-ko *-kuntza* eta *-katu*-z eraturiko konposatu horiek hiztegiaren 2. zatian, frantses-euskarazkoan, sortu direla; izan ere "*hitzcunça*, langue, f., langage, m." da, oso oker ez banaiz lehendabiziko zatian, euskara-frantsesezkoan, aurkitzen den era horretako bakarra. Ikus, aldiz, bigarreneko emaitzak:

"abbreviation, *laburqunça*", "changement, *aldaqunça*", "comparaison, *bardinqunça*", "corruption, *gaitzqunça*", "dégât, *caltea*, *galqunça*", "décente, *jautxqunça*", "disposition, *erabilqunça*", "election, *hautaqunça*", "entrée, *sarrilguia*, *sargunça*, *sarbidea*", "exercice, *ibilqunça*", "fatigue, *onhadura*, *onbaqunça*", "instruction, *irakbasqunça*", "langue, langage, *hitzcunça*, *minçaica*", "lecture, *irakburqunça*" [or. *-khar*-], "longitude, *lucequnça*",

“marque, *siñalea, çagutqunça*”, “meliorations, *hobequnça*”, “naissance, *sorqunça, ethorquia*”, “naturel, *ethorqunça, hazqunça*”, “obtention, *ardiesqunça*”, “ordonnance, *manaqunça*”, “pacification, *facegua, baquequnça*”, “passion, *pasionea, pairaqunça*”, “préférence, *lebenqunça*” [or. *lo-*], “(la) promenade, *ibilqunça*”, “revisement, *berequnça*”, “recherche, *billaqunça*”, “regard, *behaqunça*”, “reglement, *chuchenqunça*”, “remarques, *goardiaqunçac, çagutbideac*”, “remontrance, *erakhusqunça*”, “renouvellement, *erreberriqunça*”, “saveur, *gostuqunça*”, “sens, *sentiqunça, senxua*”, “sentiment, *sendimendua, sendiqunça*”, “séparation, *berezqunça*”, “soffrances, *pairaqunçac*”, “spectacle, *ikhusqunça*”, “succès, *gwerthaqunça*”, eta “*veüë, vista, ikhusqunça*”.

Hots, 41 goiko bakarraren aurka. Bigarren atzizkiaren azterketako emaitzek zuzenbide berean garamatzate: “*cerracatcea, scier*”, “*cerracatua, scié, m.*”, “*chucatcea, essuier*”, “*chucatua, essuié, m.*”, “*chucatua, essuiée, f.*”, “*iguericatcea, nager*”, “*iguericatu, nagé, m.*”, “*iguericatu, nagée, f.*” soilik euskara-frantses zerrendan baina hara frantses-euskara hiztegian:

“*s'accôter, sabecatcea*”, “*s'agenoüiller, belauricatcea*”, “*assembler, biribilcatcea*”, “*battre, guducatcea*”, “*combattre, guducatcea*”, “*comparer, bardinquatcea*”, “*détruire, billaquatcea*”, “*dévider, harilgatcea*”, “*dévidé, harilgatua*”, “*distinguer, berezatcea*”, “*empêcher, thebehatcea*”, “*enroüé, maillucatu*”, “*enroüer, maillucatu*”, “*égratigner, haztaparkhatcea*”, “*exercer, ibilcatcea*”, “*exciter, cihiquatcea*”, “*froter, marrusquatcea*”, “*genoüiller, belauricatcea*”, “*grater, kharracatcea*”, “*grincer, hirriquatcea*”, “*imiter, iduricatcea*”, “*inégalier, çaiarcatcea*”, “*limer, kharracatcea*”, “*melanger, nahastecatcea*”, “*nager, iguericatcea*”, “*opposer, contracatcea*”, “*piller, biribilcatcea*”, “*pleurer, parracatcea*”, “*préferer, lebenecatcea*”, “*se promener, ibilcatcea*”, “*ranger, lerrocateca*”, “*ronder, burubilatcea*”, “*ruiner, billaquatcea*”, “*il a ruiné toute sa maison, bere etche gucia billaquatu du*”, “*scandaliser, gaitzbidecatcea*”, “*scier, cerracatcea*”, “*sillonner, hildocatcea*”, “*stipuler, eguincatcea*”, “*il stipule bien, ongui eguincatcen du*”, “*substituer, ordaincatcea*”, “*suposer, balizcatcea*”, “*traverser, çaiarcatcea*”, “*travailler, lancatcea*”, “*visiter, ikbuscatcea*”, “*vomir, goiticatcea*”.

Nekez azal daiteke kopuru ezberdintasun larri hau —eta gertakari beraz ohartzen gara gainerako deribazio atzizki garrantzitsuenei (-*ada*, -*ara*, -*ari*, -*bide*, -*dura* (ikus honetaz § 4.2.), -(*k*)*eta*, -*gabe*, -*garri*, -*gin*, -*go*, -*kor*, -*kuntza*, -*lari*, -*men*, -*mendu*, -*ntza*, -*pen*, -*tasun*, -*tsu*, -*tzaille*, etab.) doakienez— soilik bi zatien tamainan oinarrituaz, euskara-frantsesarena bestearen erdia pasatxo bait da, gramatikako 268-323 eta 324-440. or., hurrenez hurren. Berariazko borondatea kausi dezakegu frantses-euskara hiztegian atzizkibidezko deribazioz sortzeko euskara-frantsesean peitu ziren hizkuntza jasoago baterako berbak (cf. § 7.2. H-ko beste bikoitzasun batzutarako).

6.2. Hitzberriak Larramendi aurreko hiztegitan: Pouvreau

Lehenago erakutsi bezala (cf. Lakarra 1985a), ez da bakarrik ezin manten daitekeela L-k hain ospe txarreko izan dituen hitzberriak erdal egokitzenak betetzeko eta kanpotarrak isiltzeko asmo hutsez sortuak direla, berak bait du aitortzen, (gazte-leraz, haiek ere ulertzeko moduan) aldarrikatzen, hobe, “voces facultativas” delakoak guztiak asmatu dituela, lehenago horrelakorik ez bait zen sortu, premiarik ere ez izaki.

Premiak, ordea, garaian garaikoak eta zeinek bereak; L aurretik ere horrelakorik nozitu eta nolabait konpondu nahi izan zela dakusgu H-en lekukotasunean. XVI eta XVII. mendeko idazle lapurtarren obretan ere hitzberri anitz bildu ahalko genukeela markatua dut dagoeneko, eta orobat hiztegieta andoaindarraren aurretiko ohitura dugula, are euskal hiztegi gintzan (cf. Lakarra 1985a). Beldur naiz puntu hauek ez diren behar arretaz azertu.

Pouvreauren lanaren balioa goraiatu eta ondoko hiztegi gileek dioten zorraren handia markatu arren akats bat bederen aurkitzen zion Mitxelena "Erru bat du izatekotan: izan ditezkean itz erakarriak, ez direnak bakarrik, sartu dituela zenbait aldiz, dirudien bezintzat." (1961: 370).

Horrela dirudi, bai. Har bitez sarrerok:

cimurra "ride", *cimurtcea* "rider, fourir", *cimurtasuna*, *cimurdura*; *circilla* "deçhiré en ses habits", *circiltea*, *circildura*, *circiltasuna*, *circilqui*; *cofia* "coüeffe", *cofiatcea*, *cofiadura*; *colera* "colere", *esquer emoc ene coleran egonari* [...], *coleratcea*, *coleratsua*, *coleramendua*; *consolatcea* "consoler", *consolacionea* "consolation", *consolamendua*, *consolagarria*, *consolatiçaillea*; *curiosa* "curieux", *curiostasuna*, *curiostea*, *curiosqui*; *çurmindua* "moisi, vermoulu", *çurmindura*, *çurmintasuna*, *çurmintcea*; *damua* "douleur, regret [...]", *damucorra*, *damutsua* "damuz bethea", *damu gaitzic*, *damugarria*, *damutcea*, *damutcecoa*, *damuztatcea*, *damuztaturic*; *desgogara* "a contracour", *desgogara çait* "il me deplaist", *desgogaracoa* "qui deplaist", *desgogaramendua*, *desgogoragarria*; *dolua* "deüil", *doluzcoa* "de deüil", *doluzco arropa* "robe de deuil", *dolugarria*, *dolutzea*, *dolutsua*; *dukea* "duc", *duketcea*, *duketasuna*, *dukezza*; *dulcea* "doux, eztia", *dulcetcea*, *dulcetasuna*, *dulcequi*; *durdusia* "menace", *durdusiaitcea* "induriatcea, menacer, froller", *durdusiadura*, *durdusiatçaillea*, *durdusiaz eta me-hatçuz*, *durdusiataturic* igorri nau.

Ikusten denez berba gehienek ez dute ez itzulpen ez iturri markarik, eta zenbait hurbilagotik miatzen baditugu, badirudi alor semantiko horretako bat edo beste aditu edo irakurrik gainerakoak euskal morfologiaz, atzizkien baliabideez zehazki, zekiena (hiztegi aurreko gramatikatzuan bada zerbait, Vinsonen gustokoa ez izan arren) erabilirik osatuak direla.

Mitxelena lehen aipatu pasartean Pouvreauren "bekatu" hau arintzat, hedatutzat, jotzen zuen:

Agitz zabaldua dago joera ori, dakigunez, edozein tokitako iztegi-gileen artean. Yakov Malkielen itzekin, izkuntza aldatu gabe, esateko (*Romance Philology* 12, 1959, 374s.) "Far more numerous an, all told, more insidious are the latent words smuggled in deliberately. In the Romance languages [eta orobat gurean, diot nik (K.M.)] these ordinarily comprise derivatives manufactured with the aid of productive and sharply focused suffixes, in particular of those enjoying unopposed extension, such as *-able* (*-ible*), and *-ador* (*-edor*, *-idor*), on the verbal, and *-ero*, on the nominal side. Such formations are readily understandable, they may at any moment be introduced with impunity; however, the sober truth is that speakers, for some reason or other, do not bother to activate all of these potentialities, and scrupulous lexicographers [baina ba ote horrelakorik guregan?], unless they adopt a preceptive attitude, ought no to tolerate, still less stimulate, their infiltration" (Mitxelena 1961: 370).

6.3. Adibide berri bat: Urte

XVII eta XVIII. mendeetako hiztegigintzaz ari zelarik “mende orietako iztegi-gi-lléen artean bada irugarren bat: Pierre d’Urte praille ibiltaria, Ingalaterran galtzadundua zena. Onek, ordea, atzerrian egonik, etzuen iñoren libururik erabili. Ongi gogoan zeukan Donibaneko izkera azaldu digu, orren parekorik ezpaitzuen gaiñera iñon arkitzen. Eta, batez ere, bere idazlanak eztira oraintsu arte argitara irten; bere iztegia, berriz, oraindik ez” zioskun Mitxelenak (1961: 361-362). Zorionez, eta Patri Urkizuren lanari eskerrak (Urkizu 1989) azkena aldatu da: eskura dugu Urteren hiztegia eta are hura bezain baliagarri izan daitekeen haren bihurketa (ia osoa) ere.

Alabaina, zehaztasun asko eta asko gehiago izan arren orain Urteren bizitza eta lanaz, funtsean ez dirudi haren hiztegigintzazko irudia aldatu denik. Larramendiri helburu garbizaleengatik hainbat hitzberri asmatu beharra leporatuz (“aurre-iritzi eta helburu honekin gertatuko zaio aita Larramendiri hitz asko asmatu behar izatea kutsua eta usain jator bat mantentzearren”, Urkizu 1989: 107) eta garbizalekeriaren gaitzez mintzatu ondoren, “Urtek erdaratik hitz pila bat hartzen du, Leizarraga beskoiztarrak baino areago oraindik” kontrajartzen dio Urkizuk (1989: 107-109); “argi eta garbi ikusten da inongo aurre-iritzirik gabe, nondikan zetorren hitza gutxi axola zaiolarik zerabiltzala urtek hitz guzti horiek, eta horrela jokatzeko arrazoi bakarra bere sorterrian eta hazerrian, Donibane Lohizunen, horrelaxe erabiltzen zizuztela, duela” ere gehituz (Urkizu 1989: 109).

Gainerako Euskal Herrietan baino gehiago izango ote zen ez dakidan arren, Donibanen maileburik zatekeenik eta han ikas Urtek ez dut nik ukatuko; zalantza gehiago dut, Mitxelenak aipatu, eta Urkizuk berak askozaz zabalago ikertu Urteren bizitza ibiltaria ezagutu ondoren, guztien etorkia hangoa denentz. Urkizuk Larramendiri han-hemen kontrajartzen dion Urteren herrikoitasuna, ordea, beste alderdi nagusi batetik ere pitzatua dugu (Larramendiren “usain jatorrez” ikus Lakarra 1985a eta hemen § 7.). Behin baino gehiagotan ukitzen ditu Urkizuk Urteren hiztegian ageri diren hitz konposatu eta eratorriak; *kontr-* dela eta “askotan azaltzen da eta oso herrikoia da” diosku adibideok hautatuaz: *kontragaitz*, *kontrapasio(ne)*, *kontrapozoin*, *kontrparte*, *kontrapisu*, *kontrasorgin*, *kontregin*, *kontrintresa*, *kontrusantza*... (1989: 111); aurrerago *alkimista* ez baina, “hobeki”, *alkimigile*, *alkimigin* darabilela; *aitzin-*, *atze-*, *basa-*, *ber-*, *bertzen-*, *ema-*, *erdi-*, *ez-*, *haz-*, *lehen-* eta *ugaz-* erakusten zaizkigu Urteren lekukotasun gisa aipatu ohi den euskararen atzizki eskasiaren faltari aitz (1989: 115; ikus bertan adibideak); hitzen eraketari dagokionez “jator, herrikoia eta bizi agertzen zaigularik hemen ere” aurkezten zaigu (1989: 124), etab. Alabaina, 129. orrian Azkue eta Lhanderen hiztegiaren agertzen ez diren eta Larramendirenak “bezain egoki *asmatuak*” diren hitzak aipatzen zaizkigu, eta 134.enean “gure uste apalez Urte Larramendi bezala edo antzera ibilia izango zen ere Lapurdi eta Xuberoa aldeko belardi, zelai, soro, mendi, eta baserrietan galdezka eta bilduaz arloan hitz sailak, eta horrela bildutako izendegiez baliatuko zen dudarik gabe latin hiztegia itzultzeko eta hitz bakoitzari bere ordaina emateko” esaten bada ere, handik aurrera biltzen den zenbait alor semantiko begiztatu ondoren neke zaigu hori hertsia hertsian sinestea. Hor diren *arimegoitza*, *arrazoinlari*, *basajainkotasun*, *bataialari*, *desaitorra*, *erdijainko*, *fraidetegi*, *katikisatzailen kronikiskribalari*, *oroitliburu*, *ostiatoki*, *obrasmatu*, *obrasmatzaille*, *bankarrutgile*, *bizerrege*, *dirutoki*, *parlamentegi*, *parlamentetxe*, *dirubankazain*, *harrimo-*

rroilgile, merkaturiazain, eta hiztegiaren gorputzean eriden daitezkeen dozenak eta dozenak (*abuaztagarri, adarbestiadi, adiskidearazgarri, aflijigarri, agradagarritasun, ahantzarazgarri, aitzinguardia, akusagarri, akusalari, alarguntasun, aldarontasun*, etab. horrela ote?

Eta asmaketa ez da mugatzen latin-euskara hiztegiara. Hara Gramatikako zenbait hitz Donibane (eta bestetako) hizkera herrikoitik jasoak begitantzen ez zaizkidanak: “redempteur” *errescataçaillea*; “ciel empiré” *ceru goréna*; “l’orgueil” *superbioa* ou *urguillu-tassuna*; “luxure” *lobitassuna*; “paresse” *naguitassuna*; “graisse” *guiçentassuna*; “secheresse” *idortassuna*; “bonté” *ontassuna*; “politesse” *leguntassuna*; “blancheur” *churitassuna*; “ame, raisonable, sensitive, vegetative” *arima, arraçoingaya, sentigaya, neurrigaya*; “droiture” *çuçentassuna*; [nom substantif] “du bien” *ontassuna*; “richesses” *aberastassunac*; “amitié” *adisquidetassuna*; “sagesse” *prestutassuna*; “force” *indarra* ou *borthiztassuna*; “honneté-te” *onbestassuna*; “tremblement” *ikhara* ou *ikharamendua*; “esclavage” *esclabotassuna* ou *gathibutassuna* eta beste hainbat eta hainbat *-tasun* eta *-keria* baliatuaz sortuak.

6.4. Hitzberriak hiztegiileen testuetan

Lakarra 1985a-n komenigarri iruditu zitzaidan zerbait esatea Larramendik asma-tutako hitzberrien etorkizunaz eta, L-k bere euskarazko idazkietan egiten duen erabileraz, erabilera hau dela kausa zalantzan jarri izan bait zen L-ren “seriotasuna”; beste hitzez, idatzi izan da hitzberriak Hiztegiaren egiturak (erdara-euskara) jartzen zuen atekatik bere burua ateratzeko (baina ikus § 3.1.) baliabide maltzurra baino ez zirela. Iritzi horri jarraikiz, ateka horretatik kanpo zenean Hiztegia osatu ondoren, eta honenbestez etsaien irainak suntsiturik, asmaketok ez omen zuketean arrazoirik eta L-k bertan behera utziko omen zituen bere euskal idazkietan. Era berean, jarrai-tzaileak ez omen zitzaizkion itsuki jarraiki neologismoen praktikan, benetazko herri euskararen ezagutza sakon(ago)agatik edo.

Aurreiritziok zuzenduak dira dagoeneko (Lakarra 1985a, Sarasola 1986, Urgell 1986, etab). Larramendik erabiltzen zituen hitzberriak bere euskarazko zatietan, eta hori, berak dioskunez, baita Hiztegia argitara baino lehen ere (cf. Lakarra 1985b). Ezin espero dezakegu, ez eta gutxiagorik ere, *Hiztegi Hirukoitz*-eko hitzberriak oro L-ren testu laburregietan agertzea; ez du lekurik, betarik ez beharrik. Bihur gaitezen berriro egilearen asmoetara eta gogora dezagun hitzberriak soilik teknika eta zientzi gaietakoak (“facultativas”) direla; ez ditugu, beraz, hortik kanpo zer itxadon ez L-ren ez besteren testutan.

Hitzberriak ez ziren oso premiazko dotrina llabur eta sinpleak egiteko; batez ere euskara idatzian tradizioz bada erlijiozkoa delarik, hain zuzen. Alabaina, liburuak luzatuaz eta gaiak ugarituaz eta jaikiago eginaz joanez gero, lehen ukitu gabeko gauzak ateratzen ziren eta, horiekin batera, gauzok deitzeko berben beharra sortzen (cf. Mitxelena 1984a: 15).

Larramendirekin egindakoaren antzekorik egin zitekeela iruditu zait Pouvreau eta Urterekin. Hara begirada arin baten emaitzak (hitz bakoitzetik adibide bakarra, lehen aurkitua, ematen dut):

Pouv. Imitacionea 23 *ilhuntasun*, 24 *iaquintasuna*, *aberatstasun*, *galcorren*, 25 *hitzgui-lleac*, (çure) *iaquingabea*, 27 *erorcor*, *hauscor*, *galgarrietara*, 29 *largotasun*, 30 *flacotasuna*, *minçacorra*, 32 *guthiciadurari*, 33 *superbiotasunari*, 34 *fecbotasunaz*, 38 *laincotiartasuna-*

ren, 41 *fasticagarriac*, 42 *fermugabetasuna*, 45 *probetchugarri*, 47 *hautscor*, 51 *epeltasuna*, *ansigabetasuna*, *berotasunetic*, 55 *solbasquerietan*, *urguillutasunetic*, *devocionetsu*, 57 *pisutasunaz*, *vanaloriasaleñtcat*, 256 *fede-dudagabeco*, *languiadura*, *bessarcatçaillea*, *flacotasunetic*, 257 *bihotzgabetasuneco*, *gogoetsu*, *devocionegabeco*, *devocionetsu*, *eztitasuneco*, *vicigarria*, 258 *garbitasuna*, *saindutasuna*, 259 *lanquidea*, *ecin icusizco*, *obratçaillea*, *beregaineco*, *eguinbideari*, 261 *conseillaria*, *beharquietan*, *laincozcoaren*, *humiltasun*, *devocionetsu*, 262 *urriquemendu*, *cilbeguiqui*, *hildumatugabeac*, *bertscailluetan*, *humilgarrien*, 263 *berantcor*, 265 *simpletasunean*, 266 *esque(r)gabetasunen*, 267 *bidegabestatu*, *muturtasuna*, *haserredura*, 269 *loakartasun*, 271 *distiaduraren*, 272 *doatsutasuneco*, *Jaincotasunaren*, 274 *sendagarritzco*, *apeztasuneco*, 275 *maitaria*, *saindutasun*, *biotzberatasun*, 277 *baqueguillea*, 278 *miragarriqui*, *ontasuna*, 281 *higoindura*, 285 *arguidunac*.

Pouv. Petits oeuvres, 5 *saluatçaillea*, *saluaria*, 6 *minçaillea*, *minçaria*, *laboratçaillea*, *irakasçaillea*, *irakaztuna*, *ikaztuna*, *ikaslea*, *çuburtasuna*, *çuburtcia*, *irakazmendua*, 7 *berreguindura*, *berreguintasuna*, *berreguinqueria*, *liçunqueria*, *liçuntasuna*, *liçundura*, *erhoqueria*, *erbotasuna*, *asquitasuna*, *asquitca*, 11 *crueltasunian*, *barrencorric*, 13 *urruntasuna*, 15 *primutasunaren*, 17 *billusgorritasunaren*, 18 *miraculluscoac*, 20 *maitatçailley*, *laincozcoaren*, 21 *bortbiztasunaren*, 25 *compligarri*, 28 *abalkadura*, *urguilluqueriac*, *abalketasunac*, *neurrigainezco*, *burupea*, 29 *creatugabea*, *otboitzguillen*, 30 *peintadura*, 31 *goratasunaren*, *beberatasunaren*, 32 *ecin hillezco*, 33 *maitarasun*, *miragarritasunac*, *nahasmenduco*, *beregainezco*, 34 *ohorezcoaren*, 35 *seruitçutasun*, 36 *etchequille*, *miragarri*, 37 *berdindurac*, *lerrodura*, *munduguilleac*, 75 *guerthança*, 76 *burupetsutasun*, *gogortasunaren*, *seculacotasun*, 77 *beguitartetsua*, *liberalitasunen*, 78 *iustugarritasunaren*, *saindumenduaren*, 79 *compligarri*, 80 *mudagabeco*, *naturaleçazco*, *gayitasunaren*, *ukigarri*, *obligagarritzco*, *eppagarriric*, 82 *iustutasunaren*, *eraguintetara*, *ordenatçaille*, 83 *esquiribatçailleac*, 84 *sebitasunezco*, *espantagarri*, *pompisunec*, 86 *saindugarritasunaren*, *ethorquizco*, *sebitasunetic*, 88 *neurrigabeco*, *ondocotasunaren*, *hiltcecotasuna*, *barrayamenduac*, 89 *eguitateac*, *ezbiltcecotasun*, *ezgalicecotasunetic*, *galicecotasunera*, 90 *batetarasuneraino*, *itburburuzco*, 91 *hobengabetasuneco*, *baldintasun*, *legueguille*, 92 *hobengabe*, *hobengabetasuna*, *ohizcampoco*, *cimendatçaillearen*, 93 *iustutasuna*, *libratçaille*, *bozcarioçaille*, 95 *nothagabeco*.

Urte Biblia 1 *ethórquia*, *hedadurabat*, *egozquia*, 2 *berrestacibillquiac*, 5 *agradagárria*, *guticiagarria*, 6 *etssáitassuna*, 10 *crueltassun*, *biburqueriez*, 11 *luçetassuna*, *çabalitassuna*, *haltotassuna*, *herrestaqui*, 12 *begaldun*, 14 *gatzarrasunetic*, 15 *orbóitçapéna*, 16 *abalquisuna*, *eztitassunean*, 114 *sariçaleac*, 115 *lebensortbuen*, 116 *esclabotassun*, *filistintarren*, 117 *çamaldunetan*, 118 *goybeltassuna*, 119 *saindutasunean*, 120 *primuontassun*, 124 *bi-deangoaille*, 126 *adartrompeta*, *armadalekhuan*, 127 *ieloscor*, 128 *naussitassunari*, 129 *neurrimendútic*, *maitarassunétic*, 129 *guiçaescláboa*, *emaescláboa*, 130 *oboinqueria*, *emasorguina*, *imaijnadoratçaillea*.

Erakusgarri huts honi gutxi (kopuruz zein atzizki ñabartasunean) deritzonak gogora beza zein testu moeta ren aurrean garen eta artean honelakoetan zutela, bat izatekotan, idatzizko tradizio rik. Ohar bedi, orobat, ez diodala ez bataren ez bestea ren kasuan (bereziki Pouvreaurenean) hitzok oro beraiek asmatuak direla —batzu bai zalantzarik gabe—; aski zait beren lexikografi lanaren eta idazle ihardunaren artean gehiegizko kontraesanik ez dela erakustearekin.

7. Garbizaletasunaren historiarako oharrak

7.1. Larramendi garbizalekeriaren aitzindari?

Lakarra 1985a-n erakutsi nuen dagoeneko ez zela zuzena Aranaren aitzindari tizat joaz Larramendi garbizaletzat izatea hari buruz lehenago irakurri lege z: “primera raíz

del carácter teórico y purista que siempre se ha dejado sentir en el tipo de idioma utilizado por la literatura vasca meridional” (Sarasola 1976: 127), “arraigando en el sentimiento vasco la semilla —y plaga— de los puristas de principios del XX” (Sarasola 1976: 55, eta cf. gorago aipatu Urkizu 1989). Hitzberriak zertarako nahi zituen ezaguturik eta orobat gainerakoetan eskatzen duen erdiko bidea, zail egiten da pentsatzea L-ren hiztegian “usain jatorra” (dena dela hori) mantendu asmoz mailebuak ez direla izango pentsatzea. Lehendabiziko orrialde dozenan eta begi kolpe batez hauek aurkitu ditut esaterako: *abadesa, abadesea, abadia, abadearen barrutia, banderaduná, banderatua, abaninoa, abarcatu* (“abarcar”), *abecéá, abetoa, bezatu, abiatu, bigoteduna, abilidadea, testamentu bague, bizcochatua, ablativoa, abollatu, abollatzalea, abollantza, abollatzea, bolsatua, botiñatua* (“abotinado”), *botoitu, botoitzea* (“abotonar”), *abrigatu, arropaz, apirilla, broqueldu* (“abroquelarse”), *ezcutatzea, absolutú, absolutitza, absolvicioa, absolvigarriac, abstinencia, cabal eguin, cabaldu, acabatu, acabatzea, acabaraci, acabantzá, acaballá, calcatu, calcaria* (“acalcador”), *calcatzalea, canaleztatua* (“acanala-do”), *cañabera, cañaberratzea, canabelatua*. Azkueren galdera ikurrik ez antzeko salatzailerik gabe dira, orobat, “Cielo” *cerua*, “iglesia” *eleiza, eliza*, “ley” *legue* eta beste. Izan ere L-ren usadioa aski urruti gelditzen da XX. mende hasieratik zabaldu diren, baina ez bakar ez lehen diren, (ustez bederen) ezagunagoetarik.

Garbizale zen Larramendi, noski, eta behin eta berriz iharrosi ohi zituen halako ahuntzerdara, euskara, gaztelera eta beste hizkuntzen nahaste mordoiloak, lehenago Etxeberrik egin bezala:

mintçatceco manera astrugaitz nahasi maneragabecoa, hitz bat latinez, bertcea francesez, bertcea gastelaniaz, edo italianoaz, eta bertce gaineraco ahotic atheratcen tuzten hitcez jar çaitetzeque dudatcen ala diren Antipodetacoac, ala Barbariacoac; guisa hunetan eguiten dute saltsa bat hambat saltsacari diferentez appaindua, eta çain çappore gaitcetacoa, non munduan den sabaldarrajoric handienari-ere eman çaitetçoque higuinça, edo goragalea. (Etx. 167)

Horrelakotsuak anitz eriden daitezke, ez soilik hiztegiaren hitzaurrean, baina baita *Corografía*-n edota Mendibururi egin hitzaurre-gutunean ere:

Alabañan [sermolari] guchic daqui bere jayeterrico Eusquerearen erdiá, eta alpérrac diradén bézala, eztute icasi nai gueiago, ta éztie nai béren burúai atseçabéric emán. Baña onetatic cer guertatzen dá? Daquiten pisca arequin, hitz molcho, escúmen baten diña eztán arequin nola eciñ adierázo dituztén beren esacariac, badarasáte púlpituan hitzera naasi bat, beñ Eusquéra, beñ Erdéra, beñ Latiñera, gucia leudaçuá, ciquindúa, baraustuá: ceñean dirudién, igo diralá gaiñ artará enzúle[ei] burlá eguitera. (*Autobiografía*, 279)

Haatik, ezin har haren pentsamolde eta jokaera garbizalekeriaren lekukotzat. Mitxelenak idatzi legez (1983a: 20) “nekerik gabe ager daiteke zer nahi izan zuen Larramendik euskarari, euskara idatziari, buruz. Euskarak burua jasoko bazuen... premiazkoa iruditzen zitzaion... artean ez bezalako euskal prosa erabiltzea: garbiagoa, jatorragoa, apainagoa”. Komeniko da, bada, garbitasuna eta garbizalekeria be-reizten hastea L-k lehenago Etxeberrik bezala ez bait du ezer bat baino gehiago itsutu duen bigarrenetik.

Mitxelena (1983a: 21) ohartarazi duenez, Akademien garaian bizirik, halabeharrez zatekeen garbizale euskara hizkuntza landuen sailean sartzeko. Akademiak gogoratzen zaizkigunez gero garaiko giroaren erakusgarri, komeni bide da Gili Gaya-k (1963: 18 hh) Espainiakoaren lexikografi lanaz esandakotik zer edo zer hona ekartzea:

(...) hay que tener en cuenta que la preocupación académica esencial en aquel momento era el *casticismo*, entendiendo esta palabra en su sentido rigurosamente etimológico de *castizo*, lo que pertenece a la *casta*, lo patrimonial o lo que es claro y propio. Por no ser claras ni propias se desechaban las extravagancias no castizas del último barroco. Este concepto de *casticismo* pertenece sobre todo a la primera mitad del siglo XVIII, y no debe confundirse con el *purismo* que sobreviene por la lucha antigalicista en la segunda mitad del siglo, y dura buena parte del siglo XIX. El *purismo* surge del *casticismo*, pero es un concepto más restringido y polémico.

Hor egin bereizkuntzak eta horren ondorioek (dialektoetatik eskuzabal hartu hitzez, esaterako) badukete interesik gure XVIII. mendeko hiztegigintzaren eta hizkuntz ideien inguruko eztabaidetan, noizbait azterketa patsadatsuagorik egin baledi, bederen; nolahi ere, banago lanean zehar aipatu diren eta oraindik bil daitezkeen hainbat pasartek, Etxeberri eta Larramendi Gili Gaya-ren "casticismo" horretan errazago kokatzen dituztela bestetan baino.

7.2. Garbizaletasuna Larramendi aurretik

Garbizaletasunen bat, mailebu gordin eta premiagabeen aurkakoa eta hitz jator eta eskurakoen aldekoa besterik ez bada ere (cf. Lakarra 1985a) izan zen, ordea, L. aurretik euskal idazle landuen eta are hiztegiilerik arruntenen artean ere. Garibairekin hasten eta Mogelekkin oraindik jarraitzen zuen arren Bilboko euskararen ospe gaiztoak, hara Mikoletak bere *Modo breve para aprender la lengua vizcayna*-n hitz zerrendaren aurretik jarri zuena:

Pondremos aquí un vocabulario breve de los nombres que más exquisitos son en nuestra lengua, porque hay muchos que con el mismo sonido y significación del romance se vascueñean, como "sermón" *sermoea*, "considerar" *consideradu*, etc. Esto es lo que más puede enseñar la teórica: la práctica es lo que más obra en la demostración de nuestro idioma como en los demás, pero más en éste, etc.

Ondoren (eta *Diccionario breve de vocablos los más usados en vascuence propio, puestos por orden alfabético* izenburu esanguratsua ren pean) bi hitz horiek saihestu arren, hor dira "abad" *abadea*, "abadesa" *abbadessea*, "abatida cosa" *baxua*, "abatirse" *baxadu*, "abilidad" *abilidadadea*, "a buen tiempo" *dempora onean*, "acordarse a coro" *acordadu*, "azafrán" *azafraea*, "azucar" *azucarea*, "alcalde" *alçateea*, "ánade" *ansarra*, "ángel" *angerua*, etab.; baina baita (eta besterik gerta bide zitkekeen) "avezar, enseñar" *yracasi*, "ablandar" *bigundu*, "abollar" *sapaldu*, "abreviadamente" *laster*, "acompañar" *lagundu*, "apetecer" *guratu*, "apetito" *gurea*, "árbol" *arecha*, "arroyo" *errequea*, "asomar" *aguirtu*, "atolladero" *baçaçea*, "barco" *batela*, "barquero" *batelerna*, "barreno" *guimaleta*, etab.

Gorago (§ 4.1.) euskara-frantsesaren eta frantses-euskara hiztegieta hitzberrien maiztasun eta eraketaz ikusi ditugun bikoiztasunen kide bide dira honakook ere:

<i>abondancia, frangancia</i> , abundance	: abundance, <i>frangancia</i>
<i>abandonatcea, largatcea</i> , abandonner	: abandonner, <i>largatcea</i>
<i>affligitcea, tristatcea</i> , affliger	: affliger, <i>axekhabeztatcea</i>
<i>aise, errech</i> , aise	: aise, <i>errech</i> , <i>gogacara</i>
<i>arbola, çubatça</i> , arbre, m.	: arbre, <i>çubatça</i>
<i>arroganta, furfuiatxua</i> , arrogant	: arrogant, <i>furfuiatxua</i>
<i>attencionea, artha</i> , attention	: attention, <i>artha</i>
<i>borondatea</i> , volonté, f.	: volonté, <i>gogoa</i>
<i>canala, istuna</i> , canal, m.	: canal, <i>istuna</i>
<i>data</i> , date, f.	: date, <i>egunca</i>
<i>dignea, gaia</i> , digne, m.	: digne, <i>gai</i> , <i>gaia</i>
<i>errefusatcea</i> , refuser	: refuser, <i>eza ematea</i>
<i>erlequia</i> , relique, m.	: relique, <i>qutxua</i>
<i>erruñatcea</i> , ruiner	: ruiner, <i>billaquatcea</i>
<i>faltatcea</i> , manquer	: manquer, <i>hutsquitea</i>
<i>flacatcea</i> , affoiblir	: affoiblir, <i>herbalcea</i>
<i>frescoa</i> , frais	: frais, <i>berria</i> , <i>becea</i>

Nabarmena da bigarren hiztegiaren lehendabizikoan Léclusek salatzen zituen (cf. Lakarra-Urgell 1988) gehiegizko erdarakadak ezabatu nahi izan direla, ordain jatorrak edo mailebu errotuagoen bitartez. Kasuren batean euskara-frantsesean izanik dagoeneko euskal hitz garbia, mailebu gordina ezabatu egin da besterik gabe.

Hurrengo sarrerotan ere garbizaletasun bera isladatzen zaigu; mailebuak desagertu ez arren, ezarri da besterik ere haien aldamenean bigarren hiztegiaren:

<i>airatcea</i> , voler	: voler, avec ailes, <i>begaldatcea</i> , <i>airatcea</i>
<i>akbusatcea</i> , accuser	: accuser, <i>acusatcea</i> , <i>gaineguin</i>
<i>akhabatcea</i> , achever, finir	: achever, <i>neitcea</i> , <i>akhabatcea</i> , finir, <i>akhitcea</i>
<i>arraça, leiñua</i> , race	: race, <i>egoquia</i> , <i>casta</i> , <i>leiñua</i>
<i>arraçoiña</i> , raison	: raison, <i>mengua</i> , <i>çucena</i>
<i>carnaceria</i> , boucherie	: boucherie, <i>carnaceria</i> , <i>haraguite guia</i>
<i>capitaiña</i> , capitaine, m.	: capitaine, <i>aitcindaria</i> , <i>capitaiña</i>
<i>çacua</i> , sac, m.	: sac, <i>çacua</i> , <i>çurruna</i>
<i>detchema</i> , dixme	: décime, dixme, <i>hamarrena</i> , <i>detchema</i>
<i>errenta</i> , rente	: rente, <i>alocararioa</i> , <i>errenta</i>
<i>ielosia</i> , jalousie, f.	: jalousie, <i>ielosia</i> , <i>bekhaizgoa</i>
<i>ifernua</i> , enfer, m.	: enfer, <i>ifernua</i> , <i>gaistotegua</i>
<i>imagiina</i> , image, m.	: image, <i>imaiina</i> , <i>iduriia</i>
<i>imitatcea</i> , imiter	: imiter, <i>imitatcea</i> , <i>iduricatcea</i>
<i>inspiratcea</i> , inspirer	: inspirer, <i>burutara ematea</i> , <i>burutaratcea</i>

H-ren gramatikan 506-507 hutsegiteen zuzenbidearen aurretik erdiezkutaturik egileak ezarri zuen “Escualdunei gomendioa eta Abisua” hura berriz ere gogoratu beharrean gara. Bertan “haiñitz mudança guisa ematen çaiola escuarari haiñitz herri-

tan” adibideen bitartez erakutsi eta bere liburuan behar diren aldaketak egiteko prest agertu ondoren, ez du ahazten, orobat, idatzi bezala irakurtzen ez den frantsesa euskaldunek ikas lezaten prestatuak zuen “liburu chumetto”-ari propaganda apur bat egitea ere. 504. orrian iragartzen dituenak legez, ezezagun horrena bezain interesgarri zaigu orain segidan datorrena:

baita berce liburu bat bi partetan, lehenbicoa escuaratic verbo gaitz eta erreguelan ez diren batçuen khenceco, hala nola *nago, noba, darasat*, &c. horlaco haiñitz erreguela gabe dire, eta erreguelacoac dire *egoten naiz, goaten naiz, erasten dut*, &c. berce parte da escualdunec berce hitzcuncetatic hartuac dituzten hitcen khenceco, hala nola

<i>Intencionea</i>	chedea
<i>inclinacionea</i>	pendura
<i>inquietatcea,</i>	khechatcea
<i>ingrata</i>	esquergabea, &c.

Lehenbicoac berce hitzcuncetatic dire eta berceac escuara dire.

8. Amaieratzat

§ 2.ean aldatzeko bidean aurkeztu ditudan Larramendi eta euskal hizteigintzarekiko ikerketak lehenagoko egoera hits hartara iristeko zioak bi eratakoak izan dira, ene aburuz: batetik, eta gauza ezagunegia denez ez naiz honetan sobera luzatuko, euskal filologia bere osoan dabil atzeratua. Beste toki eta tradizio batzutan XIX. mendean edo, gehienez ere, XX.aren hasieran burutu ziren hainbat oinarrizko lan egiteke dira; gainera, euskalaritzaren historiak —anekdota bildumez ari ez garen neurrian bederen— garapen urria izan du eta usuenik ez dakigu zein diganteren gainean igotako ñañoak garen, erraldoi ugari ere inoiz izan ez arren. Bestetik, lexikografia ez da, oro har, teoriara eta hatsarrien garbiketara emanegi diren ikertzaileen baranoa. Azkueren hiztegiaren berrazterketa proposatzerakoan Malkiel lagun hartuaz Mitxelenak (1970) gogoratzen zigun bezala eremu horretan kantitatea nagusitu ohi zaio kalitateari, eta oraindik orain erakusgarri apartik eman digun zabarkeria ezagunik aipatzera (au)sartu gabe (oi *batelez* hura eta bere kideak!), itsuek ere bada-kuste kopiaketa eta ebasgoa ohitura gaitzesgarri baino ekandu arrunt eta errotu direla bertan.

Benetako ezagutza filologikoan —litekeena omen norbaitek (baina “hau ere euskaldun, noski”), besterik uste arren— baino xelebrekerietan oinarrituago zen ikuspegia aldatu da eta XVIII eta XIX. mendeetako euskara idatziaren historiarekiko emaitza eta aitzinamendurik izan da azken urteotako bibliografiak irakur ditzanak ikus bide lezakeen legez.

Dakiguna, halere, ezer gutxi da dakikegunera, eta are jakinbeharrera, iristekotan egiteke den guztiaren aurrean: Mitxelenak hasitako L-ren Hiztegiaren Eraskinaren azterketa amaitu; behingoan Hiztegiarekin sartu bere egitura ikusiaz, hitzberri, mailebu, hiztegi-hitzak eta testu-hitzak ezagutuaz eta markatuaz; mailebuen zenbata eta nolakotasuna zehaztu; orobat hitzberriena, zelan sortzen dituen gehituaz (cf., zati batean, Azkarate 1992); hiztegi-hitzena, L eta aurreko eta garaiko hizteigintzaren harremanak azalduaz; L-ren hitzberri (eta hark bertakotuen) iraupena eta bizitza

ikertu (orain, zorionez, *OEH* ezinutzizkoaz balia gaitzke); *Hiztegi Hirukoitza*-ren eta *Diccionario Vasco-castellano*-ren arteko erlazioa; *HH* eta garaiko eta beranduagoko hiztegien artekoa (Sbarbi-Urquijo delakoarekikoa, esaterako)... Hemen horretaz ezer gutxi aipatu arren (cf. Lakarra 1992b), niri neuri hiztegiaren eta gramatikaren arteko erlazioa eta bakoitzaren tokia hizkuntz teoria eta hizkuntzaren deskribaketaren barnean (cf. Trabalza 1908, Kukenheim 1932, Padley 1976, 1981-85, Ramajo 1987, Ahlquist (zuz.) 1987, esaterako) begitantzen zait ikergai emankor eta sendo, ez soilik L eta Sarako Etxeberriren baina Pouvreau, Urte zein Harrieten —eta are bere benetako testuinguruan kokatutako euskal hiztegi gintza zaharraren— ikuspegi zuzenagorik eraikitzen hasteko. Segur naiz beste dozenerdina puntu gehituko lukeen ikerlari frango litzatekeela, horretan denbora luzeegian jarri gabe gainera. Bat edo beste askatzen saia dadinik ere ez agian faltako.

9. Bibliografia

- Abbott, T. K., 1906, "On an early Latin-English-Basque dictionary", *Hermathena*, XIV, 55-105.
- Ahlquist, A., 1987 (zuz.), *Les premières grammaires des vernaculaires européens* (= *Histoire-Épistémologie-Langage*, IX-1), Paris.
- Altuna, P., 1967, "Larramendiren iztegi berria", *Euskera* XII, 139-300.
- , 1985, "Azpitarteren hiztegi argitaragabea Loiolan" in J. L. Melena (arg.), *Symbolae L. Mitxelena*, EHU, Gasteiz, II, 1096-1110.
- , 1988, "Axularren eta Sarako Etxeberriren hizkera" in *Euskara Biltzarra. II. Euskal Mundu Biltzarra*, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz, I, 233-250.
- , 1992, (arg.), "Cortesia", *ASJU* XXVI-1, 119-143.
- , & Lakarra, J. A., 1990, (arg), *Manuel Larramendi. Euskal testuak*. Andoain.
- Aquesolo, L., 1967, "Un diccionario vasco inserto en *Mémoires de la Langue Celtique*, de Bullet (1755-1760)", *BAP* XXIII, 141-147.
- Arzamendi, J., 1981, "Euskal lexikografiaren historiarako hastapenak" in *ZZEE, Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 163-193.
- Azkarate, M., 1992, "Larramendiren hitz-eraketa" in J. A. Lakarra 1992 (arg.), 207-219.
- Bahner, W., 1966, *La lingüística española del Siglo de Oro*, Ed. Ciencia nueva, Madril.
- Bilbao, G., 1991a, (arg.), "Glossaria duo vasco-islandica", *ASJU* XXV-2, 315 hh.
- , 1991b, "Larramendirren garaikide bat: zenbait xehetasun Joanes Etxeberri Sarakoaz" *ASJU* XXV-3, 751-768.
- , 1992, "Silvain Pouvreauren hiztegi laukoitzaz", *ASJU* XXVI-2, 341-389.
- , Gomez, R., & Lakarra, J. A., prestatzen, *Larramendiren El Imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*.
- Breva, M., 1991, "Las ideas lingüísticas del siglo XVIII en Lorenzo Hervás: la descripción de las lenguas del mundo", *ASJU* XXV-3, 769-781.
- Buescu, M. L. C., 1971, (arg), *Joao de Barros. Gramatica da lingua portuguesa*. Faculdade de Letras, Lisboa.
- Colon, G. & Soberanas, A.-J., 1985, *Panorama de la lexicografía catalana*, Encic. Cat., Barcelona.
- Duvarat, V., 1914, "Le dictionnaire basque et les rudiments du P. Dominique Bidegaray, franciscain du convent de Pau", *RIEV* 8, 6-16.
- Dubois, C., & Dubois, J., 1971, *Introduction à la lexicographie: le dictionnaire*. Larousee, Paris.

- Echenique, M^a T., 1985, "Campomanes y el proyecto de un gran diccionario vasco" in J. L. Melena (arg.) *Symbolae L. Mitxelena*, Gasteiz, EHU, II, 1089-1095.
- Etxebarria, J. M., 1990, "XVIII eta XIX. gizaldietako sei hiztegi argitaragaberen berri" in E. Perez Gaztelu & P. Urkizu (arg.), *Patxi Altunari Omenaldia*, EUTG, Donostia, 63-83.
- Fita, F., 1880-1881, "Suplementos al *Diccionario Trilingüe* del P. Larramendi, escritos en 1746 por el P. Fr. José de María Carmelita Descalzo", *Revista de Ciencias Históricas*. [Barcelona].
- Garate, J., 1961, "Juicios y glosario vasco-latino de Buenaventura Vulcanius", *Euskera* VI, 239-245.
- Gili Gaya, S., 1963, *La lexicografía académica del siglo XVIII*, Cuadernos de la Cátedra Feijoo, n^o 14, Oviedo.
- Goitiandia, D., 1754, [Eraskina Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza*-ri]. E. S. Dodgsonen argitalpena, *RLPhC*, 1897, 313-324. Berriz X. Altzibarren tesi argitaragabea, EHU 1989.
- Gómez, R., 1991, "Larramendiren gramatika eta gramatikagintzaren historia", *ASJU* XXV-3 783-796.
- , & J. A. Lakarra, prestatzen, "Itzulpen liberalak (1820)".
- Gulsoy, J., 1959-62, "La lexicografía valenciana", *Revista Valenciana de Filología* VI, 2-3, 109hh.
- Hualde, J. I., 1991a, "Icelandic Basque pidgin", *ASJU* XXV-2, 427-437.
- , 1991b, "Manuel de Larramendi y el acento vasco", *ASJU* XXV-3, 737-749.
- Ibar, (= J. Mocoora), 1936, *Genio y lengua*, Tolosa.
- Kerejeta, M^a J., 1991, "Oihenart Silvain Pouvreauren hiztegia" *ASJU* XXV-3, 865-899.
- Kukenheim, L., 1932, *Contributions à l'histoire de la grammaire italienne, espagnole et française à l'époque de la Renaissance*, N. V. Noord-Hollandsche, Amsterdam. Berrarg. H. & S. Publishers, Utrecht, 1974.
- Lakarra, J. A., 1984, *Euskal Thesauruserako Gaiak: Hegoaldeko Testuak (1700-1745)*, tesina argitaragabea, EHU- Gasteiz.
- , 1985a, "Larramendiren hiztegiagintzaren inguruan", *ASJU* XIX-1, 9-50.
- , 1985b, "Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737)", *ASJU* XIX-1, 235-281.
- , 1985c, "Berriz Larramendiren segizikiokoez", *ASJU* XIX-2, 439-452.
- , 1986a, "Burgosko Dotrina (1747): I. Testua eta oharak", *ASJU* XX-2, 533-594.
- , 1986b, "Bizkaiera zaharra euskalkien artean", *ASJU* XX-3, 639-681.
- , 1987, (arg.), *Hiztegiak eta testuak*, (= EHU-aren Donostiako Ikastaroak), Bilbo.
- , 1991a, "Testukritika eta hiztegiak: Harriet eta Larramendi" in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, *ASJU*-ren Gehigarriak 14, Donostia.
- , 1991b, "Martin Harrieten hiztegiak", eskuizkribua, EHU, Gasteiz.
- , 1991c, "XVIII. mendera arteko hiztegiagintza", eskuizkribua, EHU, Gasteiz.
- , 1992a, (arg.), *Manuel Larramendi. Hirugarren Mendeurrena*, Andoain.
- , 1992b, *Ikerketak XVIII. mendeko euskal hiztegiagintzaren etorkiez*. Doktorego tesia, EHU, Gasteiz.
- , & Bilbao, G., prestatzen, *Sbarbi-Urquijo hiztegia*.
- , & Gómez, R., 1992 (arg.), *Euskalaritzaren historiarako: I. XVI-XIX. mendeak*. *ASJU*-ren Gehigarriak XVI, Donostia.
- , & ———, prestatzen, "Arakistainen gehigarriak".
- , Urgell, B., 1988, "Lécluse-ren hiztegia: Euskalaritzaren historiarako lanabesak (II)", *ASJU* XXII-1, 99-211.
- Larramendi, M., 1728, *De la antigüedad y universalidad del bascuence en España*, Salamanca. Faksimila Ed. Vascas, Donostia 1978.

- , 1729, *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca. Faksimila Hordago, Donostia 1979.
- , 1745, *Diccionario Trilingüe del castellano, bascuence y latín*, Donostia.
- , *Corografía de Guipúzcoa*, J. I. Tellechea Idígorasen argitalpena, Donostia 1969.
- , *Autobiografía y otros escritos*, id, ibid., 1973.
- , *Sobre los fueros de Guipúzcoa*, id., ibid., 1983.
- Lázaro Carreter, F., 1949, *Las ideas lingüísticas en España durante el siglo XVIII*, CSIC, Madrila.
- Lope Blanch, J. M., 1990, "La lingüística española del Siglo de Oro" bere *Estudios de historia lingüística hispánica*-n, Arco Libros, Madrila, 5-50.
- Mitxelena, K., 1958, "Introducción" in Mitxelena & Agud 1958. [Orain SHLV-n].
- , 1959, "La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)", *Cuadernos de la Cátedra Feijoo*. [Orain SHLV-n].
- , 1960, *Historia de la literatura vasca*, [=HLV], Madrila. 2. arg. Donostia 1988.
- , 1961, "Euskal iztegitilleak XVII-XVIIIgarren mendeetan", *Euskera* VI, 7-22. [Orain SHLV-n].
- , 1964, *Textos Arcaicos Vascos*. 2. arg. ASJU-ren Gehigarriak XI, Donostia 1990.
- , 1967, "Los refranes del cuaderno de Oihenart", *ASJU* I, 11-44. [Orain SHLV-n].
- , 1970, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Bilbo.
- , 1974, "De lexicografía vasca (A propósito de *Axular-en Hiztegia* del P. Luis Villasante)", *FLV* VI, [Orain SHLV-n].
- , 1981a, "Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak" in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea, Deustu. [Orain SHLV-n].
- , 1981b, "Euskal literaturaren kondairarako oinarriak", ibid. [Orain SHLV-n].
- , 1983, "Mendiburu eta Larramendi", *Euskera* XXVIII, 19-23 [Orain SHLV-n].
- , 1984, "Aurkezpena" in I. Sarasola, *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia*, GAK, Donostia, I, 11-23. [Orain SHLV-n].
- , 1988, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, J. A. Lakarra (arg.), "ASJU-ren Gehigarriak", 10 Donostia, 2 lib.
- , & Agud, M., 1958, *Nicolao Landucci. Dictionarium Linguae Cantabrigiae (1562)*, Donostia. [Hitzaurrea SHLV-n].
- Niederehe, H.-J., 1987, "La lexicografía española desde los principios hasta el año 1599" in H. Aarsleff, L. G. Kelly & H.-J. Niederehe (arg.), *Studies in the History of the Language Sciences*, J. Benjamins, 157-166.
- Ormaetxea, N. (= Orixé), 1930, "Larramendiren iztegia", *Euskera*, 252-261.
- Oroz Arizcuren, F. J., 1981, "Lucubración sobre un glosario vasco-latino: El *Parergon* de Vulcanius (1597)", in *Logos Semantikos. Studia Linguistica in honorem Eugenio Coseriu (1921-1981)*. Gredos, Madrila, I, 339-357.
- Oyenart, A., 1658, *Noticia de las dos Vasconias, la Ibérica y la Aquitana...* Trad. castellana de J. Gorosterratzu, *RIEV* 17-19. zb.ak.
- Oyharçabal, B., 1989, "Les travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729)", *ASJU* XXIII-1, 59-73.
- Padley, G. A., 1976, *Grammatical Theory in Western Europe 1500-1700. The Latin Tradition*. Cambridge Univ. Press, Cambridge.
- , 1981-85, *Grammatical Theory in Western Europe 1500-1700. (Trends in Vernacular Grammar, I-II)*, Cambridge Univ. Press, Cambridge.
- Pagola, I., 1992, *Neologismos en la obra de Sabino Arana*, inprimategian.
- Peillen, Tx., 1983a, *Josef Egiategi. Leben liburria edo filosofo buskaldumaren ekbeia*. Euskaltzaindia, Bilbo.

- , 1983b, "Belako zaldunaren zuberotar hiztegia XVIII. mendean", *FLV* xv, 127-146.
- Pensado, J. L., 1960, *Fray Martín Sarmiento: sus ideas lingüísticas*, Cuadernos de la Cátedra Feijoo, nº 8, Oviedo.
- Quemada, B., 1968, *Les dictionnaires du français moderne (1539-1863)*, Didier, Paris.
- Ramajo, A., 1987, *Las gramáticas de la lengua castellana desde Nebrija a Correas*, Univ. de Salamanca, Salamanca.
- San Martín, J., 1991, (arg), *Jaquin-bide iritarautia Españiaco Neurquidaren, edo Constitucio berriaren erara adrezatua...* [1820], Eusko Legebiltzarra, Gasteiz.
- Sarasola, I., 1976, *Historia social de la literatura vasca [SHLV]*, Akal, Madril.
- , 1980, *Materiales para un thesaurus de la lengua vasca*, tesi argitaragabea, Barzelona.
- , 1986, "Larramendiren eraginaz eta", *ASJU* xx-1, 203-216.
- Segarra, M., 1985, *Història de l'ortografia catalana*. Empúries, Barcelona.
- Soberanas, A.-J., 1977, "Les edicions catalanes del diccionari de Nebrija", *Actes del Col.loqui Internacional de Llengua i Literatura Catalanes*, Barcelona, 141-203.
- Soto-Michelena, M^a J., 1978-79, "El lexicón de *Refranes y Sentencias de 1596*", *ASJU* XII-XIII, 15-86.
- Tovar, A., 1980, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Alianza Ed., Madrid.
- Tellechea, J. I., 1985, "Larramendi en las *Mémoires de Trévoux* (1748)" in J. L. Melena (arg.), *Symbolae L. Mitxelena*, Gasteiz, EHU, II, 1075-1087.
- Urgell, B., 1985, "Literatur bizkaieraz: Añibarroren *Esku-liburua*", *ASJU* XIX-1, 65-117.
- , 1986, *Añibarroren Esku-liburua eta literatur bizkaiera: aldaketen tipologiatik idazkeraren garapenera*, tesina argitaragabea, EHU-Gasteiz.
- , 1987a, "Añibarroren inguruan zertzelada batzu" in Lakarra (arg.) 1987.
- , 1987b, "Hiztegi aldaketak Añibarroren *Esku-liburua*-n" *ASJU*, XXI-2, 357-387.
- , 1991a, "Axular eta Larramendi", *ASJU* XXV-3, 901-928.
- , 1991b, "Añibarro Axularren itzultzaile" in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, "ASJU-ren Gehigarriak" 14, Donostia, 315-336.
- , 1992, "Martin Harriet Añibarroengan", *ASJU* XXVI-1, 221-258.
- Urkizu, P., 1971, (arg.), *Tresora hirur lenguaetakua*, *ASJU* V, 175-191.
- , 1986, "Euskara XVI-XVII. mendeetako zenbait idazle atzerritarrengan", *ASJU* XX-2, 343-350.
- , 1989, (arg.), *Pierre d'Urteren Hiztegia (Londres 1715)*. EUTG, Donostia. 2 lib.
- Urquijo, J., 1910, "Las citas del diccionario de Pouvreau", *RIEV*, IV, 505-519.
- Villasante, L., 1974, "El P. Larramendi y su obra lexicográfica", *LGEV*, Bilbo, II, 169-174 eta 479-483.
- , 1979, *Historia de la literatura vasca*, 2. arg., EFA Oñati.
- Vinson, J., 1891-7, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Facsimilea Urquijoren oharrekin, *ASJU*-ren Gehigarriak 9, Donostia 1984.
- , 1910, "Le vocabulaire de Pouvreau", *RIEV*, IV, 139-141.
- Zelaieta, A., 1988, (arg.), "Rafael Micoleta Çamudio: *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*. Bilbao 1653", Cuadernos de sección, *Hizkuntza eta literatura* 7, 133-214, Eusko Ikaskuntza, Donostia
- Zuazo, K., 1989, "Arabako euskara", *ASJU* XXIII-1, 3-48.

Larramendiren eraginaz eta

IBON SARASOLA

Mende honen hasieratik orain arteko ikuspegiaren arabera, Larramendi ez zen izan euskal gramatika baten eta hiztegi bitxi baten egilea, eta hegoaldeko literaturgintzaren nolabaiteko eragile teorikoa baizik. Ikuspegi ofizial horren aurrean, badirudi azken urteotako euskal ikerkuntza hasia dela Larramendiren euskal literaturarekiko eraginaren egiazko garrantziaz jabetzen. Ikuspegi berri honen lekuko —lekuko baino zerbait gehiago—, J. A. Lakarraren «Larramendiren hiztegi-gintzaren inguruan» (*ASJU* XIX-1, 1985) artikulua bikaina gertatzen da. Lerro hauetan delako artikulua eragin dizkidan zenbait iruzkin eta gogoeten berri eman nahiko nuke, besterik gabe.

1. Lakarraren artikulua ildotik, eta hitzberrien erabilteari dagokionez, zerok gaineratu beharko lirateke gutxienez:

a) Ulibarririk bere *Gutun liburuan* dakarren euskal-erdal hiztegi-modukoak ia iturburu bakartzat Larramendiren *DT*-a du. Bestalde, bere eskutitzetan ez dira falta hitzberriak, larramenditarrak (*ekautu* etab.) nahiz haren erara sortuak (*izortegi* etab.).

b) Espero zitekeen bezala, Adiskideen Batzarrekoen hitzaldi eta bertako ikasleen euskal lanetan begien bistakoa da jesuita andoaindarraren eragina¹. Orabat Ubillosengan (*hitzune, araututsa, Jakiunde* etab., etab.), E. Adoainengan (ik. F. Ondarraren «Escritos en vascuence del P. Esteban de Adoain», *FLV* 1985, atera berria), eta zer esanik ez Mendibururengan.

c) Iparraldeari dagokionez, Lakarrak aipatu obrei, 1828-ko *Testament berria* gaineratu behar zaie. Hau da agian, Iztueta eta Egiategiren idazlanen ondoan, Larramendiren eragina nabariarik

* Eskerrak eman behar dizkiet J. A. Lakarra eta I. Seguiolari, artikulua honen lehen idaztaldea irakurritz gero egin dizkidaten ohar eta kritika jakingarriengatik.

1. Ik. X. Altzibar, «Euskara Adiskideen Batzarrean», *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae* (Gasteiz 1985), 1119-1135. or.

azaltzen duen Lore-Jokoen garaiaz aurreko liburua. Bestalde Lécluse-ren *Manuel de la langue basque*-ko hiztegietan nabaria da Larramendiren itzala eta are, neurri batean bederen, harekiko zuzeneko zorra. Orobat, I. Seguiolak adierazi didan bezala, Inchauspek, *Guero Guero*-ren bere «ekhoiztean» bederen, erabiltzen ditu hitz larramenditarrek: *batundetu*, *eskiribakida*, *adere*, adibidez, hitzaurrean bertan.

e) Lore-Jokoen garaiari dagokionez eta haien inguruan sortu zen hizkuntz eraberritzean badago oraindik zer azterturik I. Pagolak azaldu dituenz gainera. Adibidez, Antiaren itzulpen lanak *DT*-aren erabat mendeko eta are morroi lotsagabe agertzen dira². Lore Jokoetatik at baina garai bertsuan, Iturzaeta otxandiotarraren obrak berraztertze sakona merezi luke, eta ez Larramendiren eraginaren ikuspegitik soilik³.

2. Beste maila batera igarotzen garela, Larramendiren eragina neurtzeko ez da aski «agerkidatu», «jaiera» edo «leinargiti» agertzen diren testuen bila aritzea. Beraren lana zela medio Hegoaldean (edo Gipuzkoan edo Bizkaian) hedatu ziren hitzak ere kontuan hartu beharko lirateke. Izan ere, hitz asko dira gaur egun erabatekotzat edo euskalki guztietan betidanikotzat jotzen baditugu ere Larramendiri eskerrak berezko eremutik at hedatu direnak: esate baterako, *adin* ez da Larramendiri esker gipuzkerazko idazleen artera hedatu zen hitz bakarra⁴.

2. Vicente de Arana-ren, *El brebaje maravilloso*, poemaren itzulpen *Aberedari Miragarria*-ren honako pasartean marka guztiak hausten bide ditu Otaegik: *Kolko tupozkari altxatuaren, eta lepo marmol-arrimuetan ederraren antza* «el levantado seno palpitante y el primoroso cuello alabastrino» (*Euskal Erria* 1882c, 578); cf. Larramendiren *DT*-n «Alabastro, marmolen motako arri churi bat».

3. Iturzaetari buruzko Villasanteren iritzia (*HLV* 280.or.) «todas las obras de Iturzaeta están en vascuence vizcaíno popular y auténtico» badirudi ez dela erabat zuzena, bereziki haren *Aita Gaspar Astete-ren Icasbide Cristinaukorraren azalduera laburrak* (Durango 1899) obrari dagokionez. Liburu osoa neologismoz (larramenditarrez nahiz bere kabuzkoez) josia agertzen da. Idaztanka ere aski nabarmena da, honako erakusgarrian ikus daitekeenez: *Cergaitic derichoe asigarriak edo lenenac lau on-oidade onei? Diralaco on-oidade oituracor guztien asiera eta jatorriac leguez*. Neke handirik gabe aurki ditzake irakurleak delako *azaldueretan* pasarte are nabarmenagoak.

4. Laster argitarako den K. Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren lehen liburukian frogatzen edo den bezala, *adin* Iparraldeko eta Nafarroako hitza zen berez. Gipuzkoako liburuetan —eta beharbada sermoigintzan— Larramendiren hiztegiaren eraginez hedatzen da. Bizkaian ez da gauden mendea arte hedatzen, bizkaierazko idazle klasikoan artean *adin* «adimendu»-ren ordezko bezala erabiltzen zelako.

Kontu berean, *Hiztegi hirukoitza*-ri eskerrak hegoaldeko idazlangintzatik desagertzen —edo bakantzen— diren hitzak sartu beharko lirateke. Puntu hau ez da gure artean oraingoz batere aztertu, baina nik bederen badut halako susmoa azterketa horretatik fruitu oparoak aterako genituela. Hemen ere mailak leudeke: denek edo baztertzen dituzten hitzak (*infinitamente* etab.), eta idazle «txukunenak» soilik (Mendiburuk eta Agirre Asteasukoak bai, baina Cardaberazek eta Gerrikok ez, esaterako) baztertzen dituztenak.

3. Arazoa oro har harturik, Larramendiz aurreko eta ondoko idaztankerak dira erkatu beharko liratekeenak.

Da gauza bat esan, eta pensatu alditequean excelenteena, ta admirableena; Jaun bat infinitamente Poderoso, Sabioa, Justoa, Principioa eta fiña gauza guztiena.

Da esan al, ta pensa al ditequean gauzarik andiena, ta miragarriena; Jaun bat fin gabe ona ahalsua, jaquinsua, justua, gauza guzieren asiera ta fiña.

Bi pasarte hauen artean hogeitaz urteko alde besterik ez dago. Lehenegoa, Irazustarena, 1739koa da; bigarrena Mendibururona 1760 ingurukoa. Bitarte labur horretan jazo den «iraultza»-k iturburu jakina du: Larramendiren obraren —bereziki 1745eko hiztegiaren— eragina. Ildo beretik, azpimarkagarria da XVIII.mendeko bizkaierazko obren artean helduena eta XIX.mendearen hasieran eratzen den literatur bizkaieratik hurbilen dagoena Cardaberaz *Kristiñau Doctrinea* izatea.

Ikusten denez, ia erabateko eraberritze hori ez dagokio soilik hiztegi-alderdiari. Hizkuntzarekiko jarrera orokorra da hemen aldatu eta irauli dena. Hots, Larramendiren eraginez, erdararen mendeko eta morroi huts izateari utzi eta hizkuntzaren berezko baliabideei begira jartzen saiatzen hasi da euskal idazlea.

Iru oetatic bata iñola ere ez da bestea; ta iru oetatic bacoitza, beste biak bezala, da Jaincoa; zeren Aitatasuna, Semetasuna ta Espiritu-Santutasuna, gauza baná edo bereziak izanagatic, Jaincotasun bat baizic ez da Irutasun edo Trinitade hau guzia.

Milaren artean hautatu dudan Ubillosen (*Christau doctriñ berri-ekarlea* 126) pasarte hau, esaterako, inungo aldetik ezin begi-

tanduzkoa litzateke Larramendi baino lehen; orobat, K. Mitxele-
nak inoiz komentatu didan bezala, Muniberen teatro-saioek edo
Basterretxearen bertsoek erakusten duten moldaera-handinahia.

4. Ez dut hau aukerarik egokiena literatur hizkuntza baten
aurrerabidea baldintzatzten duten alderdi guztiez aritzeko. Baina
bada bat Euskal literatur hizkuntzaren bilakaeran ene ustez froga-
-harri gertatzen dena, orain arte egin zaion hutsaren hurrengo ja-
ramona gorabehera. Euskal atzizki-sistemaren bilakaera eta aurre-
rabidea da. Izan ere koerlazio guztiz garaia bide dago literatur
euskalki baten eratzearen eta bertan gertatzen den hitz eratorrien
kopuruaren artean. Iparraldean, Etxepare —gaiak tratatzeko mo-
duan eta, P. Altunak erakutsi duenez, darabilen hizkuntza-motan—
poeta erabat herrikoia da; eta, hain zuzen, ia hitzik ez da Etxepa-
rerengan atzizki bidez sortutakorik. Lapurtar klasikoa eratzen du-
ten Leizarragaren, Etxeberri Ziburukoaren eta Axularrengan, al-
diz, hitz eratorrien ehunekoa nabarmenki altuagoa da, antza. Ba-
dakit puntu honek azterketa zehatza eskatzen duela, eta atzizki
bakoitzaren bilakaeraren historia finkatu arte ez dagoela baieztatze
biribilik egiteko modurik. Dena dela banago, esaterako, Lakarrak
aurkezten dituen Leizarraga eta Axularrenganikako hitz-zerrende-
tan ezer gutxi dela herriaren ahotik jaso. Are gehiago, *-tasun*
atzizkia zenbatzaile bati itsatsiz Etxeberri Ziburukoak *hirutasun*
sortzen duenean, delako atzizkiaren ohizko ezartze-eremua bortxa-
tzen ari da, *uhindi* (Man. Dev. II 151) edo *arraindi* (ib. 153) sortze-
rakoan *-di*-rena bortxatzen ari den bezalaxe⁵.

5. Beste kontu bat da atzizkiok gerora izan dituzten gorabeherak.
-tasun-en ezartze-eremua etengabe hedatuz joan da, eta gaur egun *nortasun*
bezalako hitzberri bat ez du inork aitzakiatzen. *di*-ri dagokionez, bere ere-
mu-hedatzea ez da askok uste duten bezain berria: Etxeberriren aipatu
adibideez gainera, Cardaberazengan *aingerudi*, *santudi*, *erregladi*, jendedi
aurkitu ditut, *ondi*, *gizondi* Lécluseren *Manuel*-ean eta *gurdidi*, *odolgirodi*
Iztuetarengan; eta begien bistakoa da azterketa sakon batek itxuragabe
ugalduko lituzkeeta adibideak. Horrela, P. Altunak Mendibururen *Idazlan*
argitaragabeak-etan zertu duen azterketan *ondasundi*, *landi*, *nekadi*, *atsegin-
di*, *etxedi*, *ontartedi*, *zulodi*, *garidi*, *grazidi*, *bekatud*, *indardi*, *oialdi*... aurki-
tu ditu. Eta *lagundi*-ren fabore esan dezadan ez dela Sabino Arana zorione-
koak asmatu hitz bat: I. Pagolak erakusten duenez aski erabilia zen Lore-
Jokoen garaian, Larramendiren *lagunkida*-rekin batera. Egia esan, ez da
ulertzen zergatik *nortasun*, *hiztegi* edo *arautegi* «zilegitzat» ematen dituz-
tenek ez duten *lagundi* edo *araudi*-rekin orobat egiten, arazoa hizkuntza-
rekikoa gabe ideologikoa (cf. *Euskadi*...) ez bada bederen. Eta *gaztedi* ego-
kia iruditzen ez zaienetakoa naiz, *gazteria* aspaldidanik ongi finkatua ho-
besten dudalako, besterik gabe.

Hegoaldekoari dagokionez, Larramendiz aurreko literatur ekoizpenaren tasun nabarienetako bat hitz eratorrien eskasia gorria eta atzizki bidezko —*tasun*, eta leharbada *garri*-ren bidezkoak ezik— hitz-sortzerik eza da⁶. Jakina denez, egoera hau erabat aldatu zen Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzaz* gero.

Bat nator Lakarrarekin «*Hirukoitzean* gutxiena da asmatua eta gehiena herritik eta autoreetatik hartua» dionean, baina dena dela asko da nere ustez berak sortua. Atzizkien ezartze-eremua hedatuz sortuari buruz ari naiz. Hemen ere badago zer azterturik eta zer zehazturik⁷. Halere, hor zehar —hitzerdika bederen— hain zabaldurik dagoen ustea, «Larramendik gaizki eratutako hitzak besterik ez zituen asmatu; bere hiztegiko gainerako eratorriak betidaniko euskal hitz jatorrak ziren» edo diona, ezin onartuzkoa iruditzen zait. Gaur erabiltzen ditugun eratorrietako asko Larramendiren eskutik heldu zaizkigu; beste askok, aski bizirik —gaur proposatzen zaizkigun beste zenbait baino biziago— iraun zuten, mendearen hasieran Arana birgarbizalearen eta Azkue populistaren eraginez baztertuak gertatu ziren arte.

5. Aipatu direnak gorabehera, esan beharrik ez dago Larramendiren proposamenetako asko ezer gutxi erabiliak edo erabat

6. Beharbada *RS* izan daiteke alde honetatik salbuespen nabariena. Beti harritu nau delako esaera zaharretan, erderatikako hitz ugari izan arren, ez dela ia hitzik begien bistako erdal itxura duenik. Eta beharbada oker nago, baina *ibar-jaun* bezalako hitzei, esaera zaharron biltzaile-moldatzaileak —denetik egin bide baitzuen— sortutako zeren eitea hartzen diet. Hildo beretik adierazgarria iruditzen zait errefrauetan *denbora*-ren ordez *aldi* sistematikoki agertzea, gure mendearen aranazaleek egingo zutenaren aitzindari. Orobat, *zartegi* 'vejez' eta *gaztegi* 'mocedad'-ek, *RS*-en moldatzaileak *-tegi* atzizkiaren ezartze-eremua hedatuz hitzberriak sortzeko saio gerora ondorenik gabeak dirudite. Beriaini dagokionez, agertzen duen nolabaiteko heldutasuna Iparraldeko autoreen irakurraldiei zor bide dio. Zein izan daiteke bere *h*-a erabiltzearen eta erabiltzeko moduaren iturburua lapurtar tradizioa ez bada?

7. Badaude aztarnak, Hegoaldean eta Larramendiren garaian, hitz eratorri asko —are arruntenak— «herrikoiak» ez zirela ikuserazten dutenak. Esaterako *asiera* «betidanikoa» bazen, zertara zetozen Mendiburu baten zalantzak *asiera* eta *askuntza* baliokideen artean? Honelako duda-mudak —egile beraren *aitatasun/aitanza*, Cardaberaren *erraztasun/erraztura* eta abarrek bezala—, eratzen, sortzen ari den hitzberri-sistema batean halabeharrez gertatzen diren zalantzen adierazgarri dira. Hitzberriak sortzen ari zirela eta hitzok ez zirela «herrikoiak» ikusteko, cf. «Gure guizon ta andra baserrietacoac chit ederqui, ta bear bada inorc ez becela, itzeguiten dute berai dagozquien gauza ascotan. Ordea ez luquee jaquingo nola zucendu itzac gauza goratu ta beren gañeticoetan» (J. A. Mogel *Eracasteac* vii).

baztertuak izan zirela. Gertakari honen arrazoi nagusitzat —zenbait aipu Lakarraren artikuluan bertan ikus daitezke— zera aipatu da, idazleok —eta Larramendi bera— bere euskal senari eskerrak, aldrebeskeria edo bitxikeria horien desegokitasunaz —hizkuntz desegokitasunaz, hain zuzen— ohartuak zirela alegia.

Nik besterik dela uste dut. Larramendiri dagokionez, prestatzen ari zen euskal-erdal hiztegi P. Altunak argitaratuan *DT*-ko «voces facultativas» direlako guztiak sartzen ari zela ikusirik, benetan nekeza da orduan ere txantxetan ari zela pentsatzea. Orobat, ondokoen harekiko oro-harrezko jarrera honako hitzetan adierazten dena bide zen:

Orañ eun urte Apaiz bat Ernanin omen zan, bere ustez, Euscaraz ondo zequiena: urte asco da Apaiz zar bati aditu niola, anciñaco Apaiz ori aize banoz [sic] betea oi cegoela, ta alabatcen zala, lau boz, edo itz oiec: ATOMO, ECLIPSE, HOGUERA, ta HORIZONTE, iñorc ere Eusqueraz emango etzizocala. Aizezco arrotasuna. Apaiz orrec guchi cequien, ori baño ezbasequien. A. Larramendic oriec, eta ascoz meago ta gaitzagoac bere Dicionarioan ederqui dacartci. Lausoa edo ela da Atomoa: Arguea da Eclipse edo arguigabea: Sucarra edo suac egitea da Hoguera: Marboilla da Horizonte. (Cardaberaz *Eusqueraren Berri Onac* 46 h).

Ez dut uste garai hartako testuak arakatuez gero kideko aipuak aurkitzea zaila litzatekeenik, bereziki XIX mendearen azken hamarkadetan, hau da, I. Pagolak azaldu duenez, Larramendiren eraginaren «urrezko urteetan». Eta 1900 arteko epealdian, antzadenez, ez dakigu jesuita andoaindarraren lanari inongo alderdikako aitzakiarik jarri zion inoren berri.

Dena dela bazegoen desegokitasunik Larramendiren ahaleginean. Baina ez zen hizkuntzarekiko desegokitasuna, euskaldungoaren kultur egoerari buruzkoa baizik.

Egercicioac A. S. Ignacioc Gaztelaniaz esribitu cituen. Baña orietan nic dacusadana da, animen provechuraco danean, Latiñezco itzac edo bozac, alerik erreparo gabe Santuak artcen dituela. Ori bera, bada, bear danean ta arrazoi andiarequin Euscaldunac eguin bear degu: ta are gueiago, ta premia andiangoaz, Eleizaco gauza ta Misterio edo Sacramentuen gañean itzeguitean: eta Oracio, edo mortificacio, ta espirituco Dotrinaren puntu edo gauzaren bat ondo adierazo nai degunean. // Itzqueraren batzuec orrela artceac, esan nai eztu, Eusquerac berariazco itz garbi, ta berezcoac gauzentzat ezdituela. Ondo daquienaren-

tzat baditu. Esan nai dedana da, orañ iñori Eusqueraz eracustera ez noala, ezpada animai nolerebait laguntzera, eta oriec salvatceco bearren diran gauzac ondo adierazotzera. (*Cardaberraz Egercicioac* I 29).

Ala bada gure euscal-errietaco guizon ta andra, nescach ta mutillic gueien gueienac dira jaquituriaren aldetic, aurchoac becela, ta eman bear diegu animaco oguiac ceatu ta puscatuta. (J. A. Mogel *Eracasteac* v).

Otoitz-gaiac moldatu ditut euscaldunen oneraco; ta orre gatic, oi den baño gueisseago gauzak ceetzen, ta aguertzen ditudala. (Mendiburu *Otoitz-Gaiac* I iracurleari).

Euscarazco Liburu hau, Euscaldun utsentzat eguiña da; bada Frances, Latin edo Gastelania daquitenac, neque gutiagorequin ecus dezaquee beste Libruetan, onetan eracusten dena. (Mendiburu *Jesusen Bihotzaren Devocioa* iracurleari).

Eusqueria berez aberatsa da, baguenqui ondo. Gueuc Eleisa guizonoc verba ascotan naastau, ta ezaindu dogu Eusqueria. Gueuri entzunda, daquijeez baseerrietacuac *Jaungoico Omnipotentia, Poderosua... Virginia Clementisimia... Misericordijosia... Absolvicinoia... Mandamendubac... Doloria... Errestituzinoia...* Ta beste onaco verba euscalgaistoco asco. Erdeera ezdaquijeen euscaldunac, euren echeetan, ta artu emoneetan biar daven guztia, esaten davee eusqueera garbijan. Cristinautzaco icasijan dira euscaldun gaistuac. Ezda au eusqueeriaren errubaa, ez bada gueuria. Ta ain dauqueez ija artubac erdeera, edo latin verba batzuc ece, euraquin ez bada, aituten ezdavee ondo dotrinia, edo cristinautzaco eracutsija. Onen bildurra arren, imini ditut erveste verba bat batzuc Icasiquizunetan. Bada Cristinautzaco eracutsijan zucen aituten emotia, leenago da, verbeetan eracustia baino. (F. Bartolome. *Icasiquizunac* I, iracurliari).

Eusquera garbi garbian gucia ipiñi banizun, etcenduan guztia entendituco, ta ala ez nuen deseo nuena logratuco. Utci bada aurqueriai: Eta beguiratu sustanciar. (J. C. Echeverria *Devociozco vicitzeraco sarrera* 6).

Ill ciran Larramendijac, Astarloac, Moguelac baña ez eureen liburubac; oraindic gustijac arguitara urten ezbadabee bere. Vici da oraindic zorijonez Erro, ta zaletuten bagara ondo eusqueerara, erro zabalac botaco ditu bazter gustijetara, ta orduban urtengo dabee liburu barri eusqueeriaren Lora, ta ondasunetz betiac. (J. J. Mogel *Baseerritaar nequezaleentzaco escolia* viii).

Larramendiren asmoak aurrean aurkitu zuen egoeraren alderdi nagusiak bere ondoko euskal idazleen aipu hauek erakusten dituzte. Larramendiren lanaren azken xedea —eta nabarmenago ikusten da hori Lakarraren artikularen ondoren— euscaldunen

hizkuntz kontzientzia biztea, eta euskara euskaldunen kultur hizkuntza bihurtzeko «azpiegitura» —gramatika eta hiztegia— ezartzea izan zen⁸. Haren ihardukiaren alderdi apologetikoa ere azken helburu hori iristeko bitarteko bat —erabat beharrezkoa, kontuak nola zeuden jabetzen bagara— besterik ez zen.

Larramendiren ametsak edo bete ez zirela esan beharrik ez dago. Euskaldun ikasiek, betidaniko joerari jarraituz, erdara hartzen dute orain ere kultur hizkuntzatzat, hots, erdaldunak dira ikasiak diren heinean. Erdaraz moldatzen dituzte beren liburuak, erdarazkoak dira beren irakurketak, erdara erabiltzen dute beren arteko harremanetan, lumaren bidezkoetan bederen⁹. Euskara euskaldun hutsen erlijio-heziketa bideratzeko soilik erabiltzen da, salbuespenak salbuespen, eta gutxi, oso gutxi dira arlo honetaz arduratzen direnak. Dena dela erlijio-heziketa horren maila nabariki jasotzen da, eta, Larramendiri eskerrak, edukien maila-jasotze horrekin ados datorren euskara idatzlaren duintze nabarmen bat gertatzen da. Baina ahalegin honen mugak —euskaldun huts zen herri xehearen kultur maila apalaren eta hizkuntz maila desegokiaren ondoriozkoak— begien bistakoak ziren eta, goragoko aipuetatik ikus daitekeenez, ongi jabetuak zeuden horretaz hura gauzatu zuten elizgizonak. Bestalde, kontuan eduki behar da —hori azpimarkatzeaz ere ez dira ahazten— elizgizonon eginbidea beren mezua entzuleengana heleraztea dela, eta gainerako egitekoak xede nagusi horrek baldintzatzen dituela. Argi dago marko mehar eta baldintzaz bete horretan Larramendiren «voces facultativas» direlako gehienak erabat lekuz kanpo gertatzen zirela, alderdi guztietatik, Mementuz bederen, eta denbora egokiagoren zain, agian.

6. Gure argudioari jarraituz, maila gorago —edo euskararentzat arrotzago— batean egin ziren saio urrietan gertatzen dena aztertu behar dugu. Lakarraren lanean ikus daitekeenez, Cardaberraren liburu «tekniko» bakarrean, Iztuetaren bi liburuetan, Iturriagaren jolasetan edo Mogelen latinetikako itzulpenetan, adibidez,

8. Gogora bedi Larramendiren harako «Ahora está en disposición el bascuence y en punto para hablarse en cualquier ciencia y facultad...» hura, Lakarrak bere lanean aipatzen duena.

9. Cf. besteak beste «Este prólogo [bere erakusaldiak nola erabili behar diren azaltzen duena] se ha puesto en castellano, temiendo que muchos Catequistas [hots, erlijio-irakaskuntzaz arduratzen ziren elizgizon eta laguntzaile euskaldunak] no lo leerían de otra suerte». J. B. Aguirre *Eracusaldiac* 1803, 15.

Larramendiren neologismoen erabilera nabariki eta adierazgarriki gehitzen da. Are gehiago —gaiak eta idazkerak horrela eskatzen zuen— V. Moguelen Luis de Borbon Kardenalaren *Carta Pastoral*-aren itzulpenean, edo Egiategi zuberotarraren *Filosofo huskaldunaren ekheiak* liburu handinahian. Eta, zer esanik ez, Iztuetak bere *Condaira*-n gaztelaniatik itzultzen dituen zatietan. Itzulpen hauen delako trakeskeria eta jatortasun falta Larramendiren eraginari leporatu bazaio ere, nere ustez arrazoiak hortik at bilatu behar dira. Bestela uste duenak erka bitza Iztuetarenak Ipar aldean, Iraultzaren garaian, Larramendiren hiztegia gabe frantses hiztegiaren eraginpean egin ziren itzulpenekin, eta garbi ikusiko bide du trakeskeria eta jatortasunik ezaren iturburu nagusia tradizio eskasiak dakarren trebetasun falta dela, ez hiztegi aldetiko «gehiagikeria».

Baina arazo hau gorabehera, bada beste bat aski garrantzizkoa eta behar adina azpimarkatu ez dena. 1750-1900 bitarteko testuen «larramenditartasuna» ez da autoreen arabera banatzen —ondoko garbizaletasunetan oro har gertatu ohi denez—, erabiltzen den tankera eta mailaren arabera baizik. *Ipui onac*-etan hain jator idatzi zuen berbera da *Carta pastoral*-aren itzulpenean hain larramenditarra agertzen dena. M. Soroak, jostiduri eta elkarrizketa herrikoi-en egileak, «orain guacen aditzera ematera nolacoa dan ango izatera iritarauki eta elkargarritazunec, erakutsiric lumeroakiñ, zer modu mercakingarrian dagon...» eta kidekoak idazten ditu *Euscal-naparren joaera edo emigrazioa* itzulpenean¹⁰. *Azaldue-rak*-eko Iturzaeta *Berbaldiak*-ekoa baino askoz larramenditarragoa, da, bigarrenak ahoz esateko sermoiak diren bitartean lehenengoak kristau ikasbidearen egiak gure artean gutxitan eman den goratasun batez azaltzen direlako hain zuzen. Eta abar.

Guzti honetatik bi ondorio atera daitezke:

a) Hegoaldean bederen, 1750-1900 bitartean kultur maila gutxienekoa —hots, bertsolari eskolatu gabeena edo kristau ikasbide marjinalena— gaintitu duten euskal idazlan gehienen atzean Larramendiren eragina —zuzena nahiz zeharkakoa— nabari daiteke. Eta maila jakin batetik gora aritu behar zenean nahi ta ez jo behar zen haren hiztegiara. Ez zegoen euskararen alorrean beste hautabiderik.

10. Donostia 1885, 88. or. I. Pagolari zor dio! liburu hau ezagutzea.

b) 1900 urtea arteko euskal idazleentzat Larramendiren hiztegiari ezin zitzaion hizkuntz aldetiko aitzakiarik jarri; hortaz, gaiaren nolakotasunak, tankerak eta kultur edukiak alde batetik, eta irakurleagoak —ustezko irakurleagoak— bestetik, baldintzatzen zuten, beste ezerk baino areago, haren erabilera.

7. Puntu honetara iritsiz gero, beharrezkoak bide dira ohar batzuk euskaldungoaren kultur egoera eta bilakaerari buruz. E. Knörr-ek *Ineffabilis* buldaren Laudio aldeko bizkaierazko itzulpen bat argitara zuen, J. A. Uriartek egina¹¹. Bulda beraren gipuzkerazko itzulpen bat *Euskal Erria*-n agertu zen, 1885 urtean, Uriarterena hau ere. Bi emanaldion arteko berezitasunik deigarriena ez datza euskalki-diferentzietan, hitz landuen aurrean batean eta bestean hartzen den jokaeran baizik. Horrela, Laudioko bertsioko *eguiya, obispo, misterio, mancha, santidade, pensamintu, pillar, escallera*-ren aurrez aurre gipuzkerazkoko *sinistamen, apaiznagusi, eskutapen, kutsu, santutasun, gogorazio, abearri, zurubi* ditugu; eta honetako *banak eta bereziak, berezitu, ilcor* etab. perifrasi bidez ematen dira Laudiokoan.

Ze ontorio atera behar da Uriarteren jokaera honetatik? Zergatik agertzen da garbizaleago —eta neurri batean larramenditarago— gipuzkeraz ari denean Arabako zoko bateko euskaraz ari denean baino? Neretzat erantzuna argi dago: Gipuzkoan, Laudio aldean ez bezala, bazegoen euskaldun ikasi multzo bat hitz horiek hizkuntzaren maila jasoan —euskara idatzian edo hitzaldietakoan, esate baterako— normaltzat jotzen zituena. Multzo berak posibleztatu zuen Lore Jokoen eta *Euskal Erria* aldizkariaren inguruan gauzatu zen kultur produzioa. Beste hitz batzuek esateko, XIX. mende bukaerako gipuzkerak bederen bazuen dagoeneko maila landu bat, teori hutsa baino zerbait gehiago zena¹².

8. Esan gabe doa azken puntu honek ondorioz dakartzan arazok luzeegi aritzera bultzatuko nindutekeela. Halere, zerbait esan nahiko nuke ildo honetatik.

11. Ik. «Una traducción de Uriarte al vascuence alavés: La Bula ineffabilis de 1864», *Piarres Lafitte-ri omenaldia*. Bilbo 1983.

12. Kontua lehenagotik zetorrela, J. A. Mogelen *Confesio Ona*-ko hitzaurreko honako pasartean antzeman daiteke. «Nic icusi banau bizcaitarretan eusqueriaren zaletasun quiputzetan necusana, ez nintzan ain esquer dongacua izango, cein da ichico nituban barurik neure bizcaitarrac...».

Literatur tradizioari buruzko azterketen ondorioak ateratzeko orduan kontutan eduki beharko genuke euskalkien banaketaz gain hizkuntza mailena —euskal hiztunen mailena— dagoela. Esaterako, gipuzkerazko testuetan *irutasun* edo *almen* agertzeak ez du esan nahi, noski, Gipuzkoako azken baserritarrak berezkoak zituelako erabiltzen ziren hitz batzuen aurrean gaudenik. Berezko ez zituen ez horiek ez horien erdal ordainak¹³. Bere bizitzatik —hots bere kulturatik— at zeuden denok. Eta, bestalde, zer zentzu du horrelako hitzei, Azkuek eta egiten duten bezala, euskalki-marka ezartzea?

Ikuspegi hau baliagarria gerta daiteke gure artean egin diren zenbait euskalki-azterketen egiazko esannahia atzemateko. Adibidez, eta lehenengo eta behin, Bonaparte Printzearen —edo besteren— aginduz moldatu ziren hainbat euskalki-itzulpenek, Inchauspek oharterazi zuen honako arazoarekin egiten dute topo:

Volontiers je consens à la substitution du mot *liburia* au mot *guthuna*. Si votre Altesse trouve convenable de faire ce changement. Mais vous voudrez bien me permettre de faire à ce sujet quelques observations. Si dans un ouvrage en dialecte labourdin, (et il en est de même de Guipuscoan) on devait employer les mots généralement usités dans le langage, on aurait un basque bien altéré et surchargé de mots étrangers. Il faudrait dire par exemple: *passatu* pour passer; *arribatu* pour arriver; *seguitu* pour suivre; *guardiatu* pour garder, et non *igaran* ou *iragan*; *heltu*, *jarraiki beiratu* ou *zaintu* termes toujours employés en Soule. Il faudrait faire à chaque page de la traduction de Haraneder corrigé par M. Harriet plusieurs changements. Ma traduction ni pour *guthuna* ni pour d'autres, n'aura pas besoin de dictionnaire explicatif. (A. Irigoyen «Cartas de Inchauspe al Príncipe Bonaparte» *Euskera* 1975, 175 h.).

13. Harrez gero bada gure artean halako joera bitxi bat euskara «herrikoia» eta erdara elkarren kidekotzat hartzeko. Esaterako I. Berriatua zenak txosten bat aurkeztu zuen 1963ko Euskalzaleen Biltzarrean, Bermeoko arrantzaleen hizkeraz. Delako txostena horrela hasten da: «Nire lan onetan Bermeoko berbak erabiliko dodaz. Aolan, asikera asikeratik ikusiko dozue zelakoa dan Bermeotarren leksikua. Orrek ez dau esan gura, Bermeotarrak legez bardin berba egingo dodana. Eurak asko laburtuten ditue berbak, [...]. Nik neuk berbak oso osorik esango dodaz, eta bizkaiera literarioa erabiliko dot; baña leksikua Bermeotar utsa izango da jeneralmentean». Baina nork sinets dezake *leksiko* Bermeoko arrantzaleen hitza zenik? Argi dago *hiztegi* —edo *hitz-ondare* edo nahi dena— *leksiko* bezain arrotz gertatzen zela bermeotar arrantzaleentzat. Zergatik lerratzen da orduan I. Berriatua erdarazkoaren alde? Aspaldidanik entzuten ditugu euskarak jasaten duen diglosi egoeraren aurkako salaketak. Ez dakit noraino egiten diren salaketok euskararen mesedetan. Horrela balira, diglosia horren hizkuntz-ondorioen kontrako ahaleginekin batera etorri beharko lukete.

Inchausperen aipu honek, funtsezko axola badu ere, ez du arazoaren alderdi bat besterik aipatzen: herri xeheenak eta euskaldun ikasiak ezik beste denak galdu dituzten hitzena, alegia. Baina bada besterik. Hizkuntz egoera jakin batean «irabazi» ez diren hitzena, adibidez. Izan ere, esaterako, printzeak moldarazi zituen Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoako Kristau ikasbideetan *Trin(i)tate* —edo *poderoso, adoratu...*— agertzeak adierazten duen gauza bakarra zera da, Nafarroako haran horietan¹⁴ euskaldun ikasirik ez zegoela eta, hortaz, *hirutasun* hitza heldu ez zelarik itzul-tzaileak zuen hautabide bakarra erdararena zela. Ez gaude hemen erdararen eraginez galdu den hitz baten aurrean, kultur arazo baten ondorioz «irabazi» ez den baten aurrean baizik.

Uste dut horrelako kontuak gogoanago eduki beharko genituzkeela printzeak «tel qu'il a été recueilli sur les lieux mêmes [...] de la bouche des gens de la campagne» —maila jasoko testuen itzulpenaren bidez!¹⁵— emandako hainbat euskalki-argibideren aurrean. Bonaparteren —eta besteren— azterketek batez ere eus-

14. Ez zen berdin gertatzen Luzaiden, I. Seguiolak argitara duen Etxeberriren Dotrinan (ASJU 1985-1) ikus daitekeenez. Esan dezadan bidenabar ezagutzen ditudan kristau ikasbideen itzulpenen artean bikainenetakoa Damaso Legazen nafarrerazkoa (1880) iruditzen zaidala.

15. Cf. Campionek *Orreaga* (Pamplona, 1880)-ren hitzaurrean diona: «La elección del texto más conveniente para este tipo de comparaciones [euskalki artekoak, alegia] no dejó de embarazarme un poco; lo primero que me ocurrió fue elegir un texto religioso; pero la circunstancia de emplearse en ellos muchas palabras que el euskara ha tomado prestadas directamente del castellano, y por lo mismo, indirectamente del griego y latín, y de estar escritos en esa forma llena de imágenes y comparaciones que caracteriza al estilo oriental, hizome desestimar mi primitivo proyecto, porque necesariamente habían de resultar las versiones con marcado sabor extranjero, sea por las palabras, sea por la construcción de las frases» (7.or.), eta beherago «cuando se quiere apreciar el estado de un lenguaje esencialmente popular, es práctica desacertada la de usar palabras que representen ideas abstractas o científicas, porque éstas no son del dominio del pueblo, y con ellas únicamente se consigue lucir el ingenio y los conocimientos de los autores, si éstos, imitando al Padre Larramendi, forman las palabras técnicas y filosóficas con los elementos del propio lenguaje, sin acudir al gran arsenal de las lenguas clásicas». Esan dezagun bidenabar Campionek gipuzkeraz moldatu zuen *Orreaga* balada laburrean hitz larramenditar nabarmenak —hala nola *kondaira, arzepizpiku, beadi, pozkida*— agertzen direla, nahiz eta egileak esaten duenez «*Orreaga* tiene la ventaja de que las ideas y palabras en ella usadas y desarrolladas [...], no sean superiores y distintas de las que el pueblo basco usa y conoce diariamente» (ib. 8.or.).

kararen gizarte-egoeraren berri ematen dutela nago: maila¹⁶ ba-koitzean zer galdu zen eta zer irabazi zen, alegia.

* * *

9. *Eraskin gisa*. Lerro hauek amaitu ondoren J. A. Lakarrak Burgosko *Christaven Doctrina* (1747) eskuratu berriaren aldaki bat neuregana dit, bertako euskara-motaz zerbait esan ahal dezadan hemen. Gainbegiratu baten ondoren eta Lakarrak berak gaia me-rezi duen arretaz aztertu ondoren esango duenaren zain, «Pernandoren egia» bat besterik ez dezaket aurrera, hots, Mendiburu-Larramendiren itzulpen hau nabarmenki larramenditarra gertatzen dela. Horrela «Cer ta cein da gure Jaincoa?»-ri ematen dion erantzuna,

Da esan al ta gogora al ditequean gauzaric garaien ta miragarriena, Jaun bat finicgabero ona, al guziaren jabea, jaquintsua, justua ta gauza gucien asiera ta bucaera.

Era berean, eta hiztegiaren aldetik, *ongidago, hizkiroi, berezide, sinisdeta, banaro, aalti, ondekidatu, bereizkiro, jaiera, gurgite, dongede, utsalde, goarpe, indargeio, miñariko, ezkutape, goiteria, hildura, hilduratu, opotar, burutar, ekadoia, egokari, eta abar, alderdi batetik —alderdiez hitz egin ahal badaiteke—, eta *Alabiz, Agur Maria, aal guzi(z)ko, partalertasun, aginte, erbestetu, deserri-te, urrikaritsu, onetsi, Jainkotasun, gizatasun, beti iraungarri, askieste, hirutasun, eskabide, Erosle, gloriatzalle, ganzutu, jakinez, otoitz, eskari, gogoeta, begirunetu, lagun urko, aitormen, urriki-mentu, prestamen, diñaro, ordendu, gallendu, gurari, desalai, almen jakintasun, sendagalla, beldurtasun, sinismen, ontasun, menpetu, doatsutasun, adiñon (!), naikari, erregiñatu* eta abar eta abar, berrogeita zortzi orrialdetako liburuxka batean.*

16. Jakina denez, Bonapartek literatur euskalkiak eta hizkera arruntak bereizten zituen, eta haietan, batez ere literatur gipuzkera eta lapurterazko itzulpenetan, halako eskuzalbatasuna erakusten zuen maila jasoko hitzak onartzeari buruz. Horrelako zerbait atzeman daiteke Inchauspereen aipatu pasartean edo A. Uriartek bidali zizkion eskutitzetan. Dena dela, printzeak B. Echeniqueri idatzi zion harako «la lengua hablada no tiene ninguna autoridad en estos dialectos literarios. Sólo hay que invocar los buenos libros» (P. de Yrizar *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* I 97-tik hartua), baieztapena ez dut uste praktikan erabat bete zuenik.

Las ideas lingüísticas del siglo XVIII en Lorenzo Hervás: la descripción de las lenguas del mundo

MANUEL BREVA CLARAMONTE
(Universidad de Deusto)

Abstract

Hervás' views on Romance and Spanish linguistics, his ideas about substratum and his influence on the dissemination of the knowledge of American Indian languages have already been studied by Lázaro, Coseriu, and Tovar. In this article, the author focuses on Hervás' attempts to uncover the artificio gramatical or grammatical mechanism of language. By artificio of language, Hervás means their peculiar morphology, word order or syntax, writing system and pronunciation. Several of his linguistic descriptions are exemplified here. Thus, the author shows how Hervás accounts for a number of particles in the Chilean language, how he makes a typology of numerals based on a variety of world languages and how he identifies the morphemes of the Lord's Prayer in Quechua. Hervás collects grammars and data from languages around the world through previous missionaries' works and other religions language informants. His data description foreshadows late-nineteenth and twentieth century work in the area of linguistic typology and morphosyntactic analysis.

0. Introducción

Las creencias religiosas han potenciado el estudio de las lenguas durante muchos siglos y han inspirado en los eruditos cristianos un deseo de conformar sus hallazgos con las ideas expuestas en la *Biblia*. El *Génesis* era interpretable en el sentido de que Dios creó una lengua infusa en los primeros hombres de la cual provendrían todas las demás. Por otro lado, en el célebre castigo de la Torre de Babel ocurrió la confusión de lenguas, surgiendo a raíz de dicho castigo las setenta y dos lenguas matrices de los descendientes de Jafet, Cam y Sem, de las cuales derivarían los idiomas conocidos. En el curso de la historia, se han levantado numerosas polémicas en torno al nombre y naturaleza de la lengua original. Se solía afirmar que el hebreo era la lengua primitiva, aunque luego por razones patrióticas varios filósofos y gramáticos reivindicaron este honor para las lenguas de sus propios países. En el siglo XVIII, algunos de estos puntos citados se habían descartado totalmente o se habían resuelto de modo satisfactorio. Así, se pensaba que de la lengua infusa de los primeros hombres no podían provenir el resto de los idiomas, que era inútil la búsqueda de la lengua

primordial y que era difícil la investigación de las voces primitivas. En fin, con los descubrimientos geográficos iniciados en el Renacimiento, se llegó a la conclusión de que existía una gran diversidad de lenguas que, en términos religiosos, se justificaba por la confusión de la Torre de Babel.

Dentro de estas coordenadas, examinaremos varios aspectos de la obra de Hervás. La relativa originalidad de Hervás, aprovechable historiográficamente, ya fue señalada por Lázaro (1949), Batllori (1951), Coseriu (1975-1976, 1976, 1978a y 1978b) y resaltada por Tovar (1980, 1981a, 1981b, 1984 y 1986) y Larrucea (1984)¹. Así, se han destacado su aportación a la lingüística románica e hispánica, su contribución al establecimiento de varias familias lingüísticas, su concepción de sustrato y su influjo sobre Humboldt, Adelung y Vater en el conocimiento que éstos tenían de las lenguas amerindias. En este trabajo, ahondaremos en las ideas de Hervás sobre la búsqueda del artificio gramatical de las lenguas, algo que le lleva a recoger descripciones morfosintácticas de tipo sincrónico, ya conocidas, o a realizar otras nuevas sobre la base de los datos obtenidos de varias fuentes. Este aspecto de la obra de Hervás ha sido menos estudiado que su contribución a la lingüística comparada.

1. El artificio gramatical

Puesto que nos encontramos en un ciclo de conferencias con motivo del 3er Centenario del nacimiento del Padre Manuel de Larramendi, resulta apropiado, antes de entrar en el tema central de mi trabajo, hacer un breve comentario sobre las obras lingüísticas de estos dos jesuitas. Es obvio que, aunque tanto Larramendi como Hervás se ocuparon del parentesco y relación entre las lenguas, existen semejanzas y diferencias en sus obras en cuanto a énfasis y contenidos. Larramendi se preocupa, sobre todo, del estudio de la antigüedad y universalidad de la lengua vasca, escribiendo una gramática de dicha lengua y un diccionario trilingüe. No obstante, Larramendi ejerce una influencia considerable sobre Hervás en varios temas.

Así, a través de Larramendi, le llega a Hervás la idea de que el vascuence es la lengua primitiva de toda España "La perfezione, o dicasi, el seculo di oro della lingua Bascuence fu prima che nella Spagna entrassero i Romani, allorchè il Latino idioma era ancora nella sua infanzia o nella sua prima formazione" (*Catalogo delle lingue* 1784: vol. 17, 205). Hervás también sigue a Larramendi cuando afirma que el latín tiene muchos elementos vascos (*Catalogo delle lingue* 1784: vol. 17, 206). Mantiene con Larramendi la idea de que el *Diccionario* de la Academia no reconoce la deuda del español al vasco en las etimologías (*Trattato dell'origine degl'idiomi* 1785: vol. 18, 99). Por último, defiende, a través de Larramendi la doctrina fantástica de una dominación española en Italia, que explicaría la existencia de topónimos vascos en Italia, negándosele al latín la calidad de "lengua matriz". El latín sería una mezcla de etrusco, griego, céltico y cantábrico, es decir, vasco (*Trattato dell'origine degl'idiomi* 1785: vol. 18, 234 y *Catalogo delle lingue* 1784: vol. 17, 82) (cf. Tovar 1980: 138-139 y 1986: 29-37).

Una vez hemos examinado sumariamente la relación entre Larramendi y Hervás,

(1) Véase Brevé (1981, 1985 y 1987) para otros aspectos de la lingüística del siglo XVIII incluido el propio Hervás y Panduro.

pasamos a presentar las descripciones de las lenguas del mundo que aparecen en Hervás. Antes de exponer algunos ejemplos de los análisis comparativos y descriptivos, que revelan el artificio gramatical o simplemente el artificio de las lenguas, convendría definir dicho término. En el *Vocabolario poligloto* y en el *Saggio pratico delle lingue* "artificio gramatical" se aplica tanto a los procedimientos flexivos como a los sintácticos. Es algo manifestado explícitamente por Hervás. Cuando Lázaro (1949: 129) concluyó que el artificio se refiere a la sintaxis, estaba en lo cierto. Es lo que se deduce de la lectura del *Catálogo* en español. No obstante, también hay textos en el mismo que permiten interpretar más ampliamente este concepto, tal como ha señalado Val Alvaro (1986: 1235-1236)². Existe un texto de Hervás (1795: 126-127) en este sentido que es bastante clarificador:

Del artificio de estas lenguas apenas he dado idea, pues para empezar a darla con la debida extensión y claridad es necesario escribir largos tratados, en que con exemplos se pusiera a la vista la varia y artificial formación de las partes de la oración en los idiomas, el diferente orden que tienen en el raziocinio, y la gran diversidad que existe en los elementos alfabéticos y en la pronunciación de la palabras.

Por *artificio* entiende, pues, la descripción de la morfología de las partes de la oración, el orden de palabras o sintaxis, los sistemas de escritura o alfabetos y la pronunciación. En la obra de Hervás parece existir cierta confusión sobre el significado de esta expresión porque en el análisis de cualquier parcela o campo lingüístico, sea morfológico, sintáctico o fonético, el estudioso conque se habla del artificio gramatical, lo que ha originado ciertas definiciones restringidas, que eran exactas pero incompletas. En realidad, el término artificio engloba el estudio de los componentes grafémicos, fónicos y gramaticales de las lenguas y de su sistema de funcionamiento, es decir la gramática o el sistema de las lenguas en sentido amplio.

La finalidad lingüística que se propone Hervás la resume en el *Saggio pratico delle lingue* (1787: vol. 21, 26-27), donde declara que su obra es una contribución al estudio de la afinidad de muchos idiomas, de la diversidad de otros muchos y del estado de casi todas las lenguas conocidas del mundo. Estas afirmaciones no sólo muestran su interés por el estudio del parentesco de las lenguas dentro de la corriente comparatista iniciada con especial vigor casi dos siglos antes y que tenía antecedentes en la Edad Media, sino que revelan también su preocupación por el descriptivismo sincrónico y tipológico. Hervás acumula todos sus datos, principalmente, de los jesuitas expulsos que llegaron a Roma de todas las partes del globo. Obtiene información de los extranjeros y de otros hablantes de lenguas exóticas que vivían en Europa y de los diccionarios de la época. Consulta trabajos manuscritos e impresos, catecismos, versiones de los Santos Evangelios y gramáticas, que le han procurado los misioneros (*Vocabolario poligloto* 1787: vol. 20, 161 y *Saggio pratico delle lingue* 1787: vol. 21, 53 y 55; cf. Tovar 1986: 29-37 y 47-55).

En el *Trattato dell'origine degl'idiomi* (1785, vol. 18), estudia el origen, formación, mecanismos y armonía de las lenguas. Varios aspectos de lo tratado carecen de

(2) Véanse, por ejemplo, los pasajes de Hervás en el *Catálogo de las lenguas* (1802: vol. 3, 288 y 1804: vol. 5, 241-245).

interés para los lingüistas contemporáneos. Así, al considerar la formación de las palabras que significan los órganos de la voz, explica que el nombre que indica "lengua", en casi todos los idiomas, debe tener una o más letras lingüales, como son la *l*, *r*, o *s*. Lo mismo ocurre con los nombres que significan funciones de la lengua como *lamer*.

Latín	Lambere	Inglés	Lick
	Lingere	Malayo	Djilap
Español	Lamer	Arabe	Lisiden
Francés	Lecher		Laehs
Vascuence	Limicatu	Madagascaro	Lelea
	Milliscatu	Tagalo	Dilai
Turco	Jalamak	Mejicano	Papaloa

Aduce ejemplos de hasta un total de 37 lenguas que contienen esas letras lingüales, es decir que se articulan con el ápice o dorso de la lengua y que significan acciones o cosas que tienen que ver con la lengua (*Trattato dell'origine degl'idiomi*, 1785: vol. 18, 39-42)³.

En el *Vocabolario poligloto* (1787: vol. 20, 111), al comparar las pronunciaciones del latín, etrusco y griego, explica que el etrusco carecía de la serie de consonantes oclusivas sonoras *b*, *d*, *g* y de la vocal media *o*. Reproducimos a continuación algunos de los ejemplos que utilizó como prueba:

Latín	Italiano	Etrusco	Griego
Bannitus	Bandito	Vannitu
.....	Gamba	Janca
Posco	Poscolo	Bosko
Lignum	Legno	Lenu
Pello	Butto	Bálbo
Pavor	Pavore	Phobós

En *Escuela española de sordomudos* (1795: 158), habiendo advertido la incapacidad de los antiguos hispanos para pronunciar el sonido velar oclusivo sordo *k* en palabras latinas como *climex*, español *chinche*, o como *ascia*, español *hacha*, o sea la palatalización de la velar delante de la vocal anterior, Hervás defiende implícitamente el principio de reglas fonéticas sensibles al contexto o a determinados dialectos, principio que tiene antecedentes en los comparatistas de los siglos precedentes y que fue asumido con posterioridad por la lingüística del siglo XIX.

Coll'osservazione delle lingue ho stabilito per una delle massime fondamentale della storia di esse, che in tutte le nazioni (benchè alcune abbiamo ricevuto nuovo linguaggio)

(3) Aunque este punto preocupe poco al lingüista contemporáneo, en la actualidad se habla de la relatividad en la arbitrariedad del lenguaje. Bolinger (1981: 10-11 y 130-131) llama *phonestheme* a grupos de palabras que se asocian entre sí por compartir cierta calidad fónica, que es demasiado vaga para que pueda constituirse como morfema. Por ello explica que existe una relación, que trasciende las lenguas particulares, entre las vocales altas y anteriores (como son las vocales de *wee* y *teeny*) y el significado de pequeñez; en tanto que las vocales con la lengua baja indican tamaño grande. Uno *chips* (astilla) cosas pequeñas, pero *chops* (corta) cosas grandes; otros ejemplos son *slip/slab* y *nib/knob* (cf. Wittmann 1966: 88-90).

difficilmente perisce la pronunzia, o l'accento del primitivo idioma che parlavano; e che però la pronunzia con alcune parole dell'antico idioma, che sempre restano, principalmente nella gente della campagna, non poco giova per iscoprire il carattere dello stesso idioma, benchè sia estinto [*Vocabolario poligloto*, 1787: vol. 20, 111].

Aquí Hervás resalta el principio de cierta indelebilidad fonética de las lenguas a través del tiempo, idea que quedó algo desdibujada en el *Catálogo español* (1800: vol. 1, 17) (cf. Lázaro 1949: 47). Esta idea, formulada con mayor claridad, aparece redactada ya en la *Escuela española de sordomudos*, 1795: 158 y 1962):

En la pronunciación⁴ de las lenguas se esconden las semillas de muchas verdades dignas de la observación de los críticos... La pronunciación es la señal exterior indeleble del carácter distintivo de las naciones.

Así pues, la pronunciación de las lenguas cambia conforme a ciertos principios. Las lenguas se desfiguran en su evolución, pero ciertos aspectos fonéticos permanecen imborrables.

Este principio es igualmente extensible a la morfología. En su obra, Hervás analiza y compara las flexiones semejantes, pues éstas nos ayudan a establecer la afinidad o diversidad entre las lenguas. Utiliza el presente de indicativo del verbo *ser* en persa antiguo, o sea lo que actualmente llamamos avéstico, para mostrar la concordancia entre esa lengua, el turco y el griego (*Vocabolario poligloto*, 1987: vol. 20, 72):

	Avéstico	Turco	Griego	Latín
Soy	Em	Im	Eimi	Sum
Eres	I	Sin	Eis	Es
Es	Est	Dur	Esti	Est
Somos	Im	Iz	Esmen	Sumus
Sois	Id	Siniz	Este	Estis
Son	End	Dirlir	Eisi	Sunt

En este caso, un estudio comparativo de la flexión muestra el parentesco entre varias lenguas localizadas geográficamente en la misma área.

Las raíces parecidas y el vocabulario también son criterios que nos ayudan a establecer semejanzas entre las lenguas. En el *Vocabolario poligloto* (1787: vol. 20), Hervás maneja unos 150 idiomas para buscar las relaciones entre ellas. Cuando estudia el parentesco de las lenguas americanas, coteja el vocablo *Dios* en varias de la América meridional que parecen tener cierta relación. Así, en guaraní se dice *tupa*, en

(4) Por *pronunciación*, Hervás (*Escuela española de sordomudos*, 1795: 137) entiende cualquier acento vocal que se profiera por los órganos vocales: "Por lo que respecta a la pronunciación entiendo qualquiera acento vocal, que se profiere por los órganos vocales con una simple acción. En este sentido la palabra *Stirps*... será una sílaba; como también la palabra flamenca *Strengst* (vigorosísimo) que tiene ocho letras". En esto parece seguir la doctrina de Marco Fabio Quintiliano cuando afirma *Comprehensio literarum consequens sub uno accentu, et uno spiritu prolato*. Por otra parte, debemos señalar como algo sumamente interesante, el estudio comparativo que hace sobre los acentos o pronunciaciones del idioma español que faltan en las lenguas amerindias y asiáticas, o sea un total de más de 65 lenguas. Se trata, pues, de un estudio de fonología contrastiva del español.

tupí *tupa*, en zamuca *tupade* y en chiquita *tupa*. Este análisis nos recuerda el realizado por José-Justo Escalígero (nacido en 1540), en *Opuscula varia, anteaq̄ edita* (1610), quien designa las familias mayores europeas a partir de la palabra *Dios*: familia de lenguas con *deus* o romana, familia con *theos* o griega, familia con *godt* o germánica y familia con *boge* o eslava (*Vocabolario poligloto* 1787: vol. 20, 33 y cf. Dęoixhe 1978: 60-61).

En el *Vocabolario poligloto* (1787: vol. 20), Hervás afirma haber recogido 63 palabras, las más usuales del vocabulario básico, en más de 110 lenguas y dialectos para ver la conexión entre ellas. Por experiencia y reflexión, el sabio jesuita pensó que los nombres de las cosas usuales, no raras, podrían aportar la luz necesaria para el conocimiento de la verdadera afinidad y diversidad de los idiomas:

Io mi figuro che al modo sieno non poche nazioni provenienti da famiglie disperse, fugitive o raminghe per mare, o per terra... abbia conervato soltando de' loro nativi linguaggj le parole più comuni, ed usuali, quali sono le rispettive significanti ne' loro idiomi [*Vocabolario poligloto*, 1787: vol. 20, 23].

He aquí la relación:

Agua	Claro	Dedo	Garganta	Negro	Rojo	Viento
Alma	Cielo	Dulce	Labio	Noche	Piedra	Ventre
Animal	Ceja	Mujer	Lago	Ojo	Selva	Hombre
Año	Cuello	Cara	Lengua	Oloroso	Sol	
Blanco	Cuerpo	Frente	Luna	Oscuro	Espalda	
Boca	Muslo	Rayo	Madre	Padre	Estrella	
Brazo	Corazón	Fuego	Mano	Pez	Camino	
Cabello	Demonio	Pierna	Mes	Pecho	Arriba	
Cabeza	Diente	Día	Miel	Pie	Tierra	
Casa	Dios	Abajo	Nariz	Lluvia	Pájaro	

Este vocabulario es básico y, por tanto, fácilmente localizable en todas ellas. Así, 24 términos se refieren a partes del cuerpo como *boca* y *brazo*, y los restantes son conceptos primarios como *casa*, *pájaro*, *padre*, *piedra* y *pez*. En la lista aparecen palabras abstractas de más difícil comprensión, como *alma* y *demonio*, que quizá fueron incluidas por motivos religiosos (*Vocabolario poligloto*, 1787: vol. 20, 161-219).

Si bien es verdad que Hervás intenta estudiar la afinidad y disparidad de las lenguas, mostrando a través de la comparación sus relaciones genéticas, también se halla en Hervás un deseo descriptivo de tipo sincrónico cuando afirma que su obra ofrece datos sobre el estado de casi todas las lenguas conocidas del mundo (*Saggio pratico delle lingue*, 1787: vol. 21, 26-27). El interés de Hervás por el estudio y la recolección de datos sobre el funcionamiento de las lenguas del mundo es importante.

Así, en el campo de la morfología, no sólo describe formas verbales que se asemejan a los paradigmas de las lenguas europeas, sino que presenta otras más exóticas, como las del araucano o chileno que, en sus propias palabras, hace un uso elegantísimo de la sílaba interpuesta (*Trattato dell'origine degl'idiomi*, 1785: vol. 18, 164-165 y *Saggio pratico delle lingue*, 1787: vol. 21, 16):

Presente de Indicativo

Amun	'amo'	Amulan	'no amo'
Reconocemos aquí la obsesión deísta (el oscuro Roux-Bordier aspiraba a una nueva religión universal basada en un cristianismo depurado y desjudaizado). Esta obsesión sería la base filosófica implícita de la antropología mitificadora del siglo XIX que alcanzaría en el siglo XX su madurez mortal con el nacionalsocialismo alemán (Poliakov 1985: 108).

La semilla de Astarloa, la semilla de la etnolatría y la glotolatría, ha ido creciendo lentamente durante los dos últimos siglos hasta dar sus frutos letales en nuestro

tiempo. Y uno no puede menos que leer hoy, con simpatía y tristeza, aquellas desenfadadas líneas que nuestro gran ilustrado Félix María de Samaniego escribía en julio de 1786 a su amigo marqués Benito María de Ansotegui:

Marquina, cuyos habitantes creen que no hay más en el mundo que el exiguo terreno que rodea sus montañas, mundo dirigido por Astarloas y Mogueles. Al bendito D. Pablo Pedro dígame V. que para una obra que pienso escribir de antigüedades antediluvianas me diga (puesto que él debe saberlo) cómo se llamaban en el Paraíso Terrenal los escribanos, sastres y zapateros (Gárate 1936: 29).

Bibliografía

Fuentes primarias

- Astarloa, Pablo Pedro de, 1803, *Apología de la lengua vascongada o ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen: en respuesta a los reparos propuestos en el Diccionario geográfico histórico de España, tomo segundo, palabra Navarra*, Madrid.
- , 1804, *Reflexiones filosóficas en defensa de la Apología de la lengua vascongada o Respuesta a la Censura crítica del Cura de Montuenga*, Madrid (Sin nombre de autor).
- , 1883, *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva o gramática y análisis razonada de la euskera o vascuence*, Bilbao.
- Chaho, Joseph-Augustin, 1834, *Paroles d'un Biskaien aux liberaux de la Reyne Christine*, Paris.
- , 1836, *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1835)*, Paris.
- , 1843, *Aitor. Légende cantabre*, Bayonne.
- Conde, José Antonio [J. A. C., Cura de Montuenga], 1804, *Censura crítica de la pretendida excelencia y antigüedad del vascuence*, Madrid.
- , 1806, *Censura crítica del Alfabeto primitivo de España y pretendidos monumentos literarios del vascuence*, Madrid.
- Court de Gebelin, 1773-84, *Monde primitif analysé et emparé avec le monde moderne considéré dans l'histoire civile, religieuse et allegorique*, Paris.
- De Maistre, Joseph, 1821, *Les soirées de Saint Petersbourg*, París (*Las veladas de San Petersburgo*, Buenos Aires, 1943).
- Erro y Aspiroz, Juan Bautista, 1806, *Alfabeto de la lengua primitiva de España y explicación de sus más antiguos monumentos de inscripciones y medallas*, Madrid.
- , 1807, *Observaciones filosóficas en favor del Alfabeto primitivo o Respuesta apologetica a la Censura crítica del Cura de Montuenga*, Pamplona.
- , 1815, *El mundo primitivo o Examen filosófico de la antigüedad y cultura de la nación vascongada*, Madrid.
- Hamann, Johann Georg, 1760, *Versuch über eine akademische Frage*, Berlin.
- , 1771, *Vermischte Anmerkungen*, Berlin.
- , 1772, *Philologische Einfälle und Zweifel*, Berlin.
- Herder, Johann Gottfried, 1771, *Abhandlung über den Ursprung der Sprache*, Berlin ("Ensayo sobre el origen del lenguaje", in *Obra escogida*, trad. de Pedro Ribas, Madrid, 1982, pp. 131-232).
- , 1784, *Ideen zur Philosophie der Geschichte der Menschheit*, Berlin (*Idées sur la Philosophie de l'Histoire de l'Humanité*, trad. de Edgard Quinet, Paris, 1834).
- Humboldt, Wilhelm von, 1817, *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweyten Bandes des Mitbridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache*, Berlin (*Correcciones y Adiciones al Mitbridates de Adelung sobre la Lengua Cantábrica o Vasca*, trad. de Justo

- Gárate, con una introducción por Julio de Urquijo, San Sebastián, tirada aparte de la RIEV, año 27, tomo XXIV, núm. 3, julio-septiembre de 1933).
- , 1821, *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Spaniens vermittelt der Baskischen Sprache*, Berlin (*Primitivos pobladores de España y Lengua Vasca*, versión de Francisco Echebarría y prólogo de Arnauld Steiger, Madrid, 1959).
- , 1975, *Los Vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*, trad. de Telesforo de Aranzadi, San Sebastián.
- Llorente, Juan Antonio, 1806-7, *Noticias históricas de las Tres Provincias Vascongadas*, Madrid, 5 vols.
- Moguel, Juan Antonio, 1881, *El doctor Peru Abarca, catedrático de lengua vascongada en la Universidad de Basarte. Diálogo entre un rústico callejero vascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan*, Durango.
- Poza, Andrés de, 1587, *De la Antigua Lengua, Poblaciones y Comarcas de las Españas, en que de paso se tocan algunas cosas de la Cantabria*, Bilbao (*Antigua Lengua de las Españas*, edición de Angel Rodríguez Herrero, Madrid, 1959).
- Süssmilch, Johann Peter, 1766, *Versuch eines Beweises, dass die erste Sprache ihren Ursprung nicht vom Menschen, sonder allein vom Schöpfer erhalten habe*, Berlin.
- Traggia, Joaquín, 1802, "Del origen de la lengua vascongada" en la voz "Navarra", *Diccionario geográfico histórico de España por la Real Academia de la Historia*, Madrid, art. XIII, 151-156.
- Zamácola, Juan Antonio, 1818, *Historia de las naciones vascas de una y otra parte del Pirineo Septentrional y costas del mar Cantábrico desde sus primeros pobladores hasta nuestros días. Con la descripción, carácter, fueros, usos y costumbres y leyes de cada uno de los estados vascos que hoy existen*, Auch.
- , 1822, *Perfecciones analíticas de la lengua vascongada e imitación del sistema adoptado por el célebre ideologista Don Pablo Astarloa en sus admirables "Discursos filosóficos sobre la primitiva lengua"*, Bilbao.

Bibliografía secundaria

- Altzibar, X., 1986, "Euskaldunen nazio eta hizkuntza (1770-1830)", *Euskera*, XXXI (2. aldia), 1, 17-45.
- Arana Martija, J. A., 1986, "Frantzisko Xabier Maria Munibe eta Idiakez Peñafloridako IX. kondearen genealogiaz", *Euskera*, XXXI (2. aldia), 1, 61-66.
- Azúa, F. de, 1983, *La paradoja del primitivo*, Barcelona: Seix Barral.
- Bahner, W., 1966, *La lingüística española del Siglo de Oro. Aportaciones a la conciencia lingüística en la España de los siglos XVI y XVII*, Madrid: Ciencia Nueva.
- Basurto, R., 1986, "Elementos neoclásicos y prerrománticos en la historiografía vasca de principios del s. XIX: J. A. de Zamácola", *RIEV*, *Homenaje a D. Julio Caro Baroja*, 3, 661-676.
- Berlin, I., 1983, *Contra la corriente. Ensayos sobre historia de las ideas*, México, D. F.: Fondo de Cultura Económica.
- Castaños, F., 1978, *Astarloa y la lengua vasca*, Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína.
- Daranatz, J. B., 1909, "Astarloa, Zamácola y Erro", *RIEV*, III, 375-395.
- Dorfles, G., 1967, *Estética del mito*, Caracas: Tiempo Nuevo.
- Dumont, L., 1983, *Essais sur l'individualisme. Une perspective anthropologique sur l'idéologie moderne*, Paris: Seuil.
- Fernández de Pinedo, E., 1974, *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco, 1100-1850*, Madrid: Siglo Veintiuno.

- Finkielkraut, A., 1987, *La défaite de la pensée*, Paris: Gallimard.
- Gárate, J., 1936, *La época de Astarloa y Moguel*, Bilbao: Junta de Cultura Vasca de la Excelentísima Diputación de Vizcaya.
- Gerard, R., 1963, *L'Orient et la pensée romantique allemande*, Paris: Marcel Didier.
- Juaristi, J., 1984-5, "Joseph-Augustin Chaho (1811-1958): las raíces antiliberales del nacionalismo vasco", *Cuadernos de Alzate*, Invierno, 1, 72-77.
- , 1986, *La tradición romántica. Leyendas vascas del siglo XIX*, Pamplona: Pamiela.
- , 1987a, *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*, Madrid: Taurus.
- , 1987b, *Literatura vasca*, Madrid: Taurus.
- King, E. I., 1962, "¿Qué es el romanticismo español?", *Boletín del Seminario de Derecho Político*, 2ª época, 31, 109-117.
- Kohn, H., 1977, *Historia del nacionalismo*, México D. F.: Fondo de Cultura Económica.
- Lázaro Carreter, F., 1985, *Las ideas lingüísticas en España durante el siglo XVIII*, Barcelona: Crítica (2.ª edición).
- Michelena, L., 1985, *Lengua e historia*, Madrid: Paraninfo.
- Mourelle-Lema, M., 1968, *La teoría lingüística en la España del siglo XIX*, Madrid: Prensa Española.
- Otero, C.-P., 1972, *Letras I*, Barcelona: Seix Barral.
- Paz, O., 1985, *Lectura y contemplación*, México D. F.: Librería del Prado.
- Poliakov, L., 1984, *Historia del antisemitismo. La emancipación y la reacción racista*, Barcelona: Muchnik.
- Sebold, R. P., 1970, *El rapto de la mente. Poética y poesía dieciochesca*, Madrid: Prensa Española.
- , 1974, *Cadalso: el primer romántico "europeo" de España*, Madrid: Gredos.
- , 1983, *Trayectoria del romanticismo español*, Barcelona: Crítica.
- Silver, P. W., 1985, *La Casa de Anteo. Estudios de poética hispánica (de Antonio Machado a Claudio Rodríguez)*, Madrid: Taurus.
- Smith, A. D., 1976, "Neo-classicist and Romantic Elements in the Emergence of Nationalist Conceptions", in Argyle, W.Y. et al., *Nationalist Movements*, London: Macmillan Press, 74-86.
- Steiner, G., 1975, *After Babel. Aspects of Language and Translation*, Cambridge University Press.
- Tovar, A., 1980, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Madrid: Alianza Editorial.

Astarloaren hizkuntzalaritzaz

ITZIAR LAKA

(M.I.T.)

ABSTRACT

This paper analyses the philosophy of language of P. P. Astarloa (1752-1806). It is underlined that his main work, Discursos Filosóficos, written at the end of the XVIIIth century, did not receive its well deserved attention as it was shadowed by Apología, a minor work derived from the above mentioned. Unlike the general Basque grammatical tradition which exclusively cared about Basque, Astarloa was interested in language and in the linguistic capacity inherent to human nature. He thinks that differences among languages are accidental, and that the core principles are common to all of them. It is said that the purists of the end of the XIXth century altered Astarloa's work removing from it every reference to human linguistic ability and using his thoughts about the «primitive language» in favor of the euskara garbia pursued by them.

1. Sarrera

Hitzaldi honetan, Pedro Pablo de Astarloa (1752-1806) euskal hizkuntz-filosofoaren hizkuntzalaritzaren oinarriak aztertuko ditugu. Ez ditut ikutuko ikastaroan * zehar bestek jorratuko dituzten gaiak, Astarloaren iturriak eta ideologia kasu. Entzuleari bururatu zaio honez gero, baina, ezin daitekeela gai hauen artean zatiketa txukunik egin. Izan ere, Astarloak irakurri liburuek, izandako gogoetakideek, munduari buruz zituen eritziek eta gainerako beste hainbeste zertzeladak, hein handi batean itxuratu behar izan zituzten nahi eta nahi ez bere hizkuntzari buruzko ideiak. Aurkeztu asmo dudan Astarloaren aldea, bada, ikastaroan entzungo ditugun durangarrari buruzko gainerakoekin loturik agertuko dela espero dut, alde ezberdindun ondarea egituratuz.

Iraganaldia aztertzeari ekitean, eta bereziki iragan horretako ideiak eta asmoak direnean aztergai, oihal fin baten bestaldetik bezala ikusten ditugu arazoak, sekula ez garaikoek ikusten zituzten legez. Oihal fin hau gure geure ideia, asmo eta aurkikuntzek ehuna da; bestaldean erakusten duen irudia aldatu egiten zaigu ehuna aldatu ezker. Agian, hauxe da iraganaren berrazterketa interesgarri eta etengabe berri egiten duena. Ez dugu iragana bakarrik aztertzen: aldi berean, geure orainak darabilen ideia eta eritzi sareari ere begiratzen diogu. Astarloaren hizkuntzalaritzaz eskeiniko dudan ikuspegiak, bada, ez dio hutsetik begiratzen durangarraren lanari, hori egitea ezina delarik. Ez naiz bere eta nire artean dagoen ehuna ezkututzen saiatuko, baizik ehun horren bitartez aurki ditzakegun argitasun berriak aurkezten. Era

* [Arg. oharra. «Euskalaritza XVIII eta XIX. mendetan» izenarekin EHU-K 1988-ko Udaran (Iraila) Donostian antolatua aipatzen du egileak].

berean, espero dut ariketa honek ez dituela durangarrari buruz esango ditudanak ustearen erdi ustel bilakatuko; aitzitik, Astarloaren lanean garaturik dautzan hainbat ideia interesgarriren aurkitzeko balioko duelakoan nago. Esan dezadan alde aurretik, beraz, bazterrean utziko ditudala ezagun baino ezagunago ditugun bere lanaren zenbait ezaugarri: euskara aintzinako lehen hizkuntza zelako ustea, soinuek berezko esanahia dutelakoa, hizkuntzak bikaintasuneko norgehiagoka batean erabiltzeko joera... Gaurkoan, Astarloak hizkuntzaz, gizakion hizkuntzarako ahalmenaz egiten zituen galderak eta aipatu zituen arazoak aztertu gogo nituzke, soil soilik.

2. Ikuspuntua

Ezagutza-zientzien artean (hots, *giza ezagutza* zer den eta nola gertatzen den ikertzen duten zientzien artean), hizkuntzaren azterketa dugu alorrik garrantzitsuenetako bat egun. Zientzia talde hauen barrunbean garatzen ari den hizkuntzalaritzak (aurrerantzean ezagutza-hizkuntzalaritza deituko dudana) egiten dituen galderetatik eta aztertzen dituen arazoetatik hainbat ez dira oso berriak; ezagutza-hizkuntzalaritzak, izan ere, berpiztu egin ditu XVII eta XVIII. mendeetako hizkuntz-filosofiak seriooki eta era sakon batean sorturiko eztabaidak eta arakaturiko gaiak, XIX. mendeko eredu aldaketak ia erabat suntsitu zituenak. Izan ere, gizakion hizkuntz-eragutza azaltzea helburu duen gramatika sortzaileak erantzukizun dituen galdera nagusi asko garai hauetan egin ziren lehenbizi, eta sarri asko, oso antzerako modu batean. Alabaina, garai hauetako hizkuntzalaritzaz egin diren lan gehienak hizkuntzari buruzko ikuspuntu arras ezberdin batetik ari dira; ez dute XVII eta XVIII. mendeetako hizkuntz-filosofia adimenduzalearen oinarri eta ideia nagusietan interesik, edota berekiko hurbiltasunik.

Ezagutza-hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik airtuko naiz gaurkoan Pedro Pablo de Astarloaren lanaz. Bere idazlan nagusia, *Discursos Filosóficos*, erabiliko dut aztergai, eta bertan aurki daitezkeen ideia nagusiak, laburki bada ere, bilduko ditut. *Discursos Filosóficos* (aurrerantzean DF), tesi liburua dugu: giza hizkuntza guztien iturri izan zen hizkuntza bakar bat bazela, eta hizkuntza horren ondorengo zuzena euskara dela frogatzea du xede.

Lehen hizkuntzarena ez da Astarloak bakarrik eztabaidaturiko arazoa; izan ere, lehen hizkuntzari buruzko eztabaidak bete batean aurki daitezke kristautasunaren ondoko hizkuntzalaritza eta filosofian, erdiaroan hasi eta XIX. mendean sartu arte. Lehen hizkuntza honen ondorengo zuzena zein zeneko eztabaida bizian askotariko eritziak biltzen ditu aurreko mendeetako literaturak, hebraiera agertzen zaigularik hautagaien artean indartsuen. Astarloak hautagai berri baten alde argudiatzen du, eztabaida nagusiaren ildoan. Egia bada ere lehen hizkuntzaren kontua desagertu dela hizkuntzalaritzak darabiltzan kezken zerrendatik, eta Astarloa erabat erraturik zebilela euskara lehen hizkuntza zela defendatzean, honek ez luke durangarraren lan osoa barregarri eta arbuigarri bihurtu behar. Hainbat eta hainbat ditugu DF-en ikutzen diren gaiak, eta hauetarik asko lehen hizkuntza euskara zen ala ez zen alde batera utzirik garaiko eztabaida filosofikoen erakusgarri interesgarriak ditugu. Atera zituen ondorio enpirikoak egiazkoak ez direlako, Astarloaren lana bere ondorengoengan izan zuen eraginagatik bakarrik aztertzeko joera izan dugu euskal gramatika tradizioaz mintzatzean, lan horrek berez izan zezakeen garrantzia edo interesa erabat bazterturik.

Hona bada nire gaurko tesia: Astarloak ideia argiak zituen gizakion hizkuntzarako ahalmenaren gainean, eta baita hizkuntza bat 'ezagutzeak' edo 'jakiteak' esan

nahi duenaz. Euskal gramatika tradizioan bakarrenetako bat dugu *euskaraz* gaindi *bizkuntzaz* diharduena: gizakiok hitz egiteko dugun ahalmenaz kezkatzen dena, eta hizkuntza bera darabilena ikergaitzat. Astarloa, bada, ez da *gramatikalaria*, *bizkuntz-filosofoa* baino, berak azaldu bezala. Alabaina, euskal gramatikaren eremuan ere, gaur eztabaidagabeak begitantzen zaizkigun hainbat arazo eta gertakari bere lanean aurkezten dira lehenengoz. Konturatzen hasiak gara egun Astarloak XX. mendearen hasierako *berpizkunde* garbizalean izan duen eragin ezin saihestuzkoaz; baina agian garbizaleen iragazkitik igarotako Astarloaren ondarea ezagutzen dugu soilik. Astarloa bera zuzenean ezagutzeko sasoia heldu da, *garbizaleek* gehien mirestu zuten euskal gramatikalaria izateak ez bait du Astarloa *garbizale* bihurtzen. Mende aldaketak hainbat gauza aldatu zituen, bai Europan eta baita Euskal Herrian, eta ezin ditzakegu kutxa berean sar DF-en egilea eta *Euskal Izkindearena*, esaterako. Izan ere, Astarloak duen hizkuntzari buruzko kontzepzioa eta garbizaleek zutena erabat kontrajarriak direla erakusten saiatuko nahiz gaur,

Astarloagan ageri den hizkuntzaren kontzepzio hau aurkeztuko dut hitzaldiaren lehenengo zatian. Honen ondoren, eta hitzaldiaren bigarren zatira goazelarik, Astarloaren lanari begiratzeko beste modu batez ihardun nahi nuke, laburki bada ere. Iragan mendearen bukaeran eta honen hasieran aritu ziren *garbizaleek* Astarloaren lana nola ikusi eta ulertu zuten ikusiko dugu. Ez da hau, ene eritzian bederen, dagoeneko igarota dagoen arazoa: agian, guk uste baino neurri handiagoan, oraindik nahikoa zabaldurik dabilen durangarrari buruz dugun irudia liteke hau; berrikusi beharrekoa, gure ideiek eta asmoek aldaketarik ezagutu badute behintzat; oihal berriak ehuteko gauza izan bagara urteen buruan,

3. Discursos filosóficos

Harira ez datozen arazoengatik 1883.errete argitaratu ez zen arren, DF XVIII. mendearen azken hamarkadan idatziriko liburua dugu. Argitaratu aurretik, eskuizkribuaren zenbait kopia eskurik esku ibili ziren orduko Espainiako hizkuntz-filosofoen¹ artean. Hau dela eta, liburuari buruzko aipamen eta iruzkinak sarri aurki daitezke XIX. mendearen hasierako lanetan². Bere idazlan guztien artetik, DF dugu Astarloaren pentsakera hobekien eta osoroen biltzen duena, eta Durangokoren ondarea biltzekotan ezinbestez aztertu beharrekoa. Izan ere, liburu mardul hau izan zen bere lehen lana, eta lanik nagusiena. Argitaratu zituen gainerako idatziak, izan ere, DF-en mantenduriko tesien areagoko defentsak, azalpenak edota

(1) XIX. mendean ondo sarturik gauden arte, zaila da filosofoa ez den hizkuntzalaririk aurkitzea. Izan ere, egile gehienak alor bietan ari dira. Nahikoa da aurreko garaiotan hizkuntzari buruzko kezkak dituzten egileen lanei begirada bat botatzea honetaz jabetzeko: idazlerik gehienek filosofo izena ematen diete beren buruei. Astarloa, bada, ohiturari jarraiki ageri zaigu bere obra nagusia bataiatzean. Bera ez da gramatikoko bat (Larramendi litzatekeena), baizik eta filosofoa; bera ez da hizkuntza jakin baten datu eta ereduak biltzen dituenetakoa, baizik hizkuntzen izaeraz arduratzen denetakoa. Horregatik aukeratu dut hizkuntz-filosofia izena, nahiz egun egiten den hizkuntz filosofiak gai ezberdinak erabiltzen dituen.

(2) Astarloaren lana argitaratu aurretik ezagutu zuten ikertzaileen artean W. Humboldt hizkuntzalaria dugu. Humboldtak 1779.ean ezagutu zuen Astarloa, Euskal Herrira egin zuen lehen bidaiari. Tovarrek (1980) erakutsi bezala, alemaniarrek euskararen gainean eginiko lan gehienek *Discursos Filosóficos*en dute oinarri. Honeka, esaterako, Humboldtaren eritzian Astarloa da 'euskal aditz jokoa asmatu eta bere ordena sistematikoa erakutsi duen lehena' (Humboldt, 1817, 319). Are gehiago, Humboldtak *Discursos Filosóficos*etik hartu zuen aditz laguntzaileen morfema banaketa, hala nola euskal morfologiak Astarloak eginiko zenbait analisi. Egiteke dago oraindik Humboldt eta Astarloaren artekotasuna zehazki aztertuko duen filologia lana.

frogantzak ditugu: *Apología de la lengua bascongada* (Madrid, 1803) eta *Reflexiones filosóficas en defensa de la Apología bascongada o Respuesta a la Censura crítica del cura de Montuenga* (Madrid, 1804). Alabaina, hasiera batean bigarren mailako ziren lan laburrago hauek beren sorburua baino lehenago argitaratu ziren, eta ondorioz ezagunago egin. *Apologiaren* kasuan bereziki, egileak gramatika soiltzat (hots, datu-biltze eta antolatze hustzat) zuen idazlantxoak, DF bezalako lan teorikoagoari aurrea hartu zion berehala.

XVII-XVIII. mendeetako egilerik gehientsuenentzat, Astarloa barnean dugula, hizkuntza ikertzea giza-gogoa, adimena ikertzea zen, eta hizkuntzari buruzko galderak eta ikerlanak giza adimena eta ezagutzarako ahalmena ulertzeko bidean bete beharreko urratsak ziren. Honela bada, berez zetorkien hizkuntzalaritza eta filosofia elkartzea, filosofia ere giza gogoaren azterketa den aldetik. Astarloaren lanean, bada, gramatika eta filosofia elkarri josirik ageri zaizkigu, ez dago bata bestetik bereizterik idazlearen gogoetak eta argudioak besamozturik utzi nahi ez baditugu.

Hitzaldi honen eremu llaburretatik kanpo gelditzen da DF bezalako idazlan luze baten azterketa zehatz eta orokorra; esan bezala, beraz, Astarloak giza hizkuntza ahalmenari buruz zuen ikuspuntua eta eritzia aztertuko dut soilik, eritzi honek duen interesa erakusten saiatzen naizelarik aldi berean.

*Discursos Filosóficos*ek hitzaldi nagusi bi ditu: lehenean, 'lehen hizkuntza izan zen ala ez' izenburua duenean, giza hizkuntza guztiak lehen hizkuntza bakar batetik datozela argudiatzen du. Bigarren hitzaldian, 'hizkuntza hori orain baden', lehen hizkuntza hori euskara dela frogatzen saiatzen da, hizkuntza bien gramatika arrazoindua aurkezturik. Oraingoan, eta Astarloak hizkuntz ahalmenari buruz esaten duena gai hartu dudalarik, lehen hitzaldiari begiratuko diot batik bat. Bertan aurkezten ditu Astarloak bere giza hizkuntz ahalmenaren gaineko burutzazio eta ideiak, XVII eta XVIII. mendeetako hizkuntz filosofiak zerabiltzan gai nagusiak eztabaidatzen dituelarik. Azken batean, Astarloaren lanean aurkitzen dugun hizkuntz kontzeptzioa hasiera batean uste genezakeena baino egungo ideietatik hurbilago ageriko zaigula espero dut.

DF-eko lehen hitzaldian frogatu nahi den tesia hizkuntza guztiak iturri beretik datozela da. Astarloa, bada, bere alde duen ebidentziarik indartsuenarekin abiatzen zaigu: funtsean, giza hizkuntza guztiak berdintsuak dira, azalean erabat ezberdin badirudite ere. Ideia honek ematen dio hasiera bere lehen hitzaldiari:

Desde la más remota antigüedad procuraron los filósofos averiguar el origen de ellos [*hizkuntzena*], y desde entonces tuvo principio la ruidosa cuestión de si hubo o no un lenguaje primitivo. Veían que los idiomas se igualaban en número con la inmensidad de las naciones (...). Observaron que aunque estos idiomas eran diferentes no dejaba de haber en ellos una conocida analogía. Sus letras, sus sílabas, sus inflexiones y juegos de voces, presentaban a la contemplación del sabio motivo justo para no dudar que en los lenguajes debía haber necesariamente una verdadera e innegable filiación. (DF: 5).

Antzekotasuna, noski, oso neurri mugikorra dugu; baina ezin uka genezakeen kontua da Astarloak hitzotan aurkezten duena. Giza hizkuntzak gizakiok gizartearen komunikatze beharrak betetzeko 'asmatu' diren kodigoak badira soilik, harri-garria da elkarren artean duten antzekotasuna: hizkuntzaz hizkuntza errepikatzen dira kategoria berberak, kategoriak elkartzeko moduak, gertakari sintaktiko nagusiak... Honen aurrean hiru azalpen moeta eskein genitzake: a) halabeharrak sorturiko bitxikeria da, b) hizkuntza bakar batetik datoz ezagutzen ditugun guztiak, c)

gizakion adimenaren berezko atala da hizkuntz ahalmena, eta hizkuntzak ahalmen horren muga-tartean alda daitezke bakarrik.

Ohar gaitezen Astarloak, antzekotasunaren ebidentzia aurkeztean, alde batera uzten duela lehen hipotesia, hots, halabeharra. Izan ere, hauxe da beti gertakari interesgarrien aurrean alhora utzi beharreko hipotesia, ez bait du inoiz ondorio interesgarriarik ekarriko. Honela, hizkuntzalariak gertakarien aurrean atera behar duen ondorioa zera da: «que en los lenguages debía haber necesariamente una verdadera e innegable filiación». Lotura honen zergatia non den erabakitzean dago bigarren eta hirugarren hipotesien arteko erabakia: denboran, historian datza, edo gizakion adimenaren izatean. Dakigunez, Astarloak lehen bideari emango dio lehen-tasuna. Aitzitik, bigarrenari buruzkoak ez ditu erabat bazterrean utziko.

Lehen hizkuntzaren bilatze honetan, DF-ek Erdiarotik zetorren kristau tradizioari jarraitzen dio, eta Parabisuan mintzatu zen hizkuntzak izan behar zuela onartzen du. Hauxe dugu Astarloaren lana erabat baztertzera eraman gaituen arrazoietako bat, hots, atera zituen ondorioak erraturik zeudela. Alabaina, hizkuntzen antzekotasun honen zergatia asmatu ez bazuen ere (eta apalki onarturik geuk ere oraindik asmatzerik izan ez dugula), aipagarria da Astarloak giza hizkuntza guztien batasunaz duen oharmena, ez bait da hau euskal gramatika tradizioan sarri agertuko den gogoeta. Gaineratik, bada parabisuko hizkuntzari dagokionean ere durangarrak egiten duen azpimarra interesgarri bat: Astarloak, gainerako egile kristauak ez bezala, ez du Biblia erabiltzen lehen hizkuntzaren frogatzat. Hizkuntza guztiak iturri bakarra izan zutela frogatzeko, ordea, eskumenean dagoen ebidentzia erabili beharra dagoela erabakitzen du. Izan ere, dio Astarloak, bitarikoa da eskumenean dugun ikerketarako lanabes hori: gizakion adimena batetik, eta giza hizkuntzak eurak bestetik, zeinnahi direla. Are gehiago, Astarloak bere aurrekoek eta garaikideek lehen hizkuntzaren bila abiatzean hartu dituzten bideak kritikatzan ditu: a) lehena, nazio eta gizataldeen historian atzera jotzea, talde bakoitza hizkuntza bakar bati lotuaz; b) aurretiaz erabakirik neurribiderik gabe eginiko hizkuntzarteko gonbaraketa, baliorik ez duena. Bide bi hauek, Astarloaren hitzetan, nahasgarriak dira, ikerketaren kalterako baizik balio ez dutenak:

Si recurrían a la sucesión de las naciones para formar la genealogía del lenguaje, a dos pasos que diesen, se hallaban abismados en las oscuridades de los más remotos siglos, sin que pudiesen dar con la maternidad de éstas, ni con la filiación de aquellas innumerables gentes, (...). Si contemplaban la unisonancia de voces y esta uniformidad que hallamos en varios juegos del mecanismo de las lenguas, esto mismo era el mayor obstáculo para poder discernir cuál debía de ser la lengua madre, y cuáles habían de ser llamadas hijas. (DF: 5-6).

Astarloaren egitasmoa, beraz, bestelakoa dugu. Bi aldetatik ekiten dio lehen hizkuntzari buruzko ikerketari. Lehenik, gizakion adimenari begiratu dio. Gizakiok bakarrik darabilgu hizkuntza; beraz, hizkuntzarekiko ikerketa gizakion gaineko ikerketa da derrigorrez. Ondorioz, lehen hizkuntzaren arazora hurbiltzeko bide bat lehen gizakiak nolakoak ziren aztertzea litzateke. Ikerbide honetan abiaturik, DF hurrengo frogatzen saiatuko da:

1) Que los primeros hombres hicieron uso de la facultad del habla, desde el primer instante de su creación. 2) Que el lenguaje que hablaron no fue el de la acción, sino un lenguaje de voces articuladas y significativas. 3) Que este lenguaje no fue infuso por Dios, ni adquirido por el

hombre, sino natural. 4) Que el primitivo idioma fue uno y no muchos. (DF: 7).

Bigarrenik, Astarloa lehen hizkuntza horren ezaugarri nagusiak aurkitzen aha-
legintzen da. Jakinik ezagutzen ez duen hizkuntza horren azterketan abiatzea aitz-
kiatuko zaiona, ezina baita enpirikoki ezer baieztatzea edo ukatzea, Astarloak gogo-
ratzen digu zientzian ez dagoela aurretiaz erabakitzerik zer aztertu eta zer ez, ez
bait du zientzia ikerketak *a priori* erabakiriko muga kontzeptualik:

Toda tentativa en materia de nuevos descubrimientos lleva consigo los
melancólicos caracteres de la dificultad. Sin embargo, estos obstáculos nun-
ca han sido vistos en la literatura como motivos capaces de separar al fi-
lósofo de sus investigaciones. (DF: 110).

Honez gain, diosku Astarloak, lehen hizkuntza ez zaigu guztiz ezezaguna:
lehen hizkuntzarik izan bazen, egungo hizkuntza guztiak bere ondorengoak dira,
eta ondorengo hauetan aurki dezakegu arbasoaren eitea. Hizkuntzek unibert-
salki agertzen dituzten ezaugarriak, izan ere, lehen hizkuntza haren atalak ditugu:

Sabemos en primer lugar que entre este idioma y todos los que se
hablan en el mundo hay una conocida analogía. Sabemos que son las mis-
mas en todos los lenguajes las partes gramaticales que los constituyen.
Sabemos que así la primitiva lengua como las demás tienen letras y for-
man sílabas con ellas: (...). Sabemos que todas ellas tienen nombres, pro-
nombres, verbos, participios, preposiciones, adverbios, interjecciones, con-
junciones. Sabemos que jugando de estas partes de la oración de ciertas
partículas o terminaciones, reciben las voces en todas ellas aquellos carac-
teres que son necesarios para indicar los diferentes estados de sus asigna-
dos. ¿Es esto no tener noción alguna del idioma primitivo? (DF: 110).

Hizkuntzarteko gonbaraketari dagokionez, eta lanerako lanabes baliagarriene-
tako bat delarik, Astarloak lehenago ere ikusi dugun azpimarra baliotsua egingo
du berriz: hizkuntzak bata bestearekin erkatzean, funtsezko arazoa ez da datu elkar-
keta, baizik eta lanaren bidez, gonbaraketa hori zein aldetatik egin behar den
asmatzea. Hau da, funtsezko ezaugarriak azalekoak diren etatik bereiztea, eta erka-
gaiak ongi zehaztea. Hizkuntzarteko datuak erabiltzean, garrantzitsuena ez da antze-
kotasun eta desberdintasunen pilaketa enziklopedikoa (garai hartan eta beranduago
ere maiz egin zen eredu), baizik eta «...reconocer con la mayor escrupulosidad
cual sea la extensión a que puede llegar la facultad que tenemos de hablar, (...)»
(DF: 117) Aipu honen haritik, gorago aurreraturiko zerbait gogora dezakegu: Astar-
loak giza hizkuntza guztiek erakusten duten amankomuntasunaren azalpentzat lehen
hizkuntza jotzen duen arren, ez du haatik ahanzten giza adimenaren mugek ere azal
ditzaketela hizkuntzek dituzten aldeak. Hala bada, hizkuntzarteko gonbaraketak
emango duen fruitua gizakion hizkuntzarako ahalmenak dituen muga ezagutza
izango da.

Astarloarentzat, hizkuntzarako ahalmenaren jabe izatea gizaki izatea da. On-
dorioz, ezina da gizaki izatea eta hizkuntzarako ahalmenik ez edukitzea. Honen har-
ritik, arbuiatu egingo ditu zenbait filosofok, beren artean ezagunena Rousseau-k,
mantentzen zuten eritzia, zeinaren arauera hizkuntza ez bait zen gizakion berezko
ezaugarria, baizik gizarateak sortu ahala asmatu-rikoin komunikatze-tresna:

Si los primeros hombres no hubieran podido hacer uso de la facultad
del habla desde el primer instante de su creación, jamás hubieran llegado

a hablar, hubieran sido mudos ellos, y hubiéramos sido igualmente mudos nosotros. (DF: 9).

Durangarraren ikuspuntutik, gizakiok gizarteekin batera hizkuntzak *asmatu* zituztela mantentzeak esan nahi luke bazirela gizakiak (gure arbasoak) ikusmenik edota entzumenik ez zutenak, eta beranduago *asmatu* zituztela ahalmen hauek. Era berean, hizkuntz ahalmena eta gainerako gorputz zati anatomikoen arteko analogiak erabiliko ditu Astarloak liburuan zehar erakusteko nola hizkuntzarako ahalmena, besoak edo hankak bezainbeste dela gizakion ondare biologikoaren atala (alabaina, eta erkatze honen aldamenean, bien arteko alde nagusi bat ere azpimarratzen zaigu: gorputz atalek jokabide mekanikoa dute, eta animalia guztiengan aurki daiteke eratze mekaniko hau; adimenduzko atalak, ordea, ez dira mekanikoak eta ez dira animalien aurkitzen).

Funtsean, argudiobide berbera erabiltzen du tradizio kristauak hizkuntz ahalmenaz zuen azalpena kritikatzean. Tradizio honen barnean zabalduen zebilen azalpenak Jaungoikoak emaniko dohaizat jotzen zuen gizakion hizkuntz ahalmena. Hots, gizakiek, sortuak izan ondoren jaso zuten hizkuntza. Honi *lenguaje infuso* zeritzon; gaurkoan *emaniko hizkuntza* deituko dudana, eta bide miraritsuen bitartez igaroen Jaungoikoaganik Adanenganaino.

Astarloak aitzakia nagusi bat aurkitzen dio azalpen honi: egia balitz, orduan Jaungoikoak bere osotasunean sortu zukeen izadia gizona izan ezik, hizkuntza beranduago eman behar izan ziolarik, mirariak erabiliaz. Ondorio hau ezinezkotzat harturik, ukatu egiten du; hizkuntza berezkoa zaio gizakiari, lehoiari orroa legethez:

Ni el órgano de la hormiga fue más imperfecto que el del león, ni el del hombre menos completo que el del elefante. Todos eran igualmente completos, o todos ellos eran igualmente incompletos. Pues ¿por qué el relinchar es natural al caballo, y no le es al hombre el hablar? (DF: 39).

Guzti honek erakusten digu Astarloaren pentsabidean hizkuntz ahalmena berezko gizaki-ezaugarri bezala itxuraturik zegoela, eta ideia honek berebiziko garrantzia zuela bere lanean. Izan ere, puntu honi dagokionez, Astarloa tradizio adimenduzalaren eskutik dabilkigu, eta Descartes-ek azalduko hizkuntzarako ahalmenari buruzko ikusmolde berbera agertzen du. Chomskyren hitzek laburbiltzen dute hizkuntzari buruzko ikusmolde hau:

...a species-specific capacity, a unique type of intellectual organization which cannot be attributed to peripheral organs or related to general intelligence and which manifests itself in what we may refer as the 'creative aspect' of ordinary language use —its property being both unbounded in scope and stimulus-free. (Chomsky, 1966: 4-5).

Descartesen tradizioan bezala, Astarloak ere azpimarratzen digu hizkuntzak duen alde sortzailea, animalien arteko komunikabideek duten estimulomenpekotasuna eta errepikatze mugei kontrajarriaz. Honekin batera, eta Erromantizismorako bidean arras sarturiko egilea delarik, azpimarra berezia egiten du giza hizkuntzek duten sortzeko eta berritzeko ahalmenean (Humboldt bere gogoetakideak egiten duen bezalaxe, berak ere Descartesek sorturiko tradizioaren zati erromantikoa osatzen duelarik).

Zenbait pentsalarik lehen hizkuntzaren ideia baztertzeko eman arrazoiak, Astarloaren eritziz, bitarikoak dira (DF: 41): (i) Eguneroko bizitzak eskeintzen dizkigun gertakariak, esaterako umeak hizkuntzaz apurka jabetzen direla, hitz eginaz jaino

beharrean, edota mutu-gorrek eta ume basatiek hizkuntzaz jabetzeko duten ezintasuna, edota munduan diren hizkuntzen aniztasuna; eta (ii) aurkezturiko hipotesietan lehen hizkuntzari egotzen zaizkion ezaugarriak, hala nola bere egitura zehatza, bere hainbeste espresio eta morfologia konplexua.

Astarloak, banan banan, bere aldeko argudio bilakatuko ditu aitzakia guzti hauek. Hau egiteko erabiltzen duen bidea ezaguna da Zientzia Filosofian: Agerian duen ebidentzia hartu eta abstrakzio maila altuago batean aztertzen du. Adibidez, umeek hizkuntza hutsetik ikasten dutelako ideia aitzakiatuko du, egia osoa ez dela argudiatuz, zeren

...el hombre no es mudo en su nacimiento: antes al contrario, empieza a hablar desde el mismo instante en que se deja ver en el mundo, y si su idioma se halla aún en mantillas, no es porque no le sea natural, sino es porque aquel órgano, que los primeros hombres recibieron en su total robustez, se halla en el hombre-niño por una conocida disposición del Supremo Hacedor en un estado de debilidad. (DF: 46).

Lehen moetakoa kontraargudioak deuseztaturik, bigarren moetakoa jotzen du Astarloak, interesgarriagoak izaki azterketa sakona merezi dutelakoan. Bigarren moetakoa kontraargudio hauek lehen hizkuntzaren izatea bera jartzen dute zalan-tzan, hain zuzen ere hizkuntza honek zuen konplexutasun eta zehaztasun ikaragarriarenengatik ezin bait zuen aldatu gabe iraun denboran zehar. Alabaina, erantzuten digu durangarrak aitzakia honen aurrean, nahiz egungo giza hizkuntzak iturri horretarik denborak bere ibilian eraginiko aldaketen fruitu diren,

Corramos paso a paso por todas sus partes constitutivas y hallaremos que esta diversidad de lenguages que tanto se estraña y admira, no es una diversidad intrínseca y esencial, sino muy estraña y accidental. (DF: 102).

Beraz, Astarloak lehen hizkuntzaren ondorengo zuzentzat aurkeztu nahi duen hizkuntzak (euskarak) eta gainerako giza hizkuntza guztiek duten aldea, ez da berezkoa, baizik eta azalekoa, denborak eraginikoa. Puntu honetatik aurrera, Astarloak lehen hizkuntzaren gramatikari buruzko hipotesi xehe eta arrazoindua eskeintzen digu, filosofia erabilirik argudioen oinarri (DF, 113-530). Ondoren, halaber filosofikoki arrazoinduriko euskal gramatika aurkezten digu, eta gramatika biak funtsean berbera direla erakusten (DF, 530-766). Beraz, gramatika bien arteko antzekotasunak bere tesia dakar ondorio: Euskara da lehen hizkuntzaren ondorengorik osoena. Hemen lau lerrotan laburtu dugun liburuaren zati hau behar beharrezkoa den arren Astarloaren pentsamolde eta lanaz osotasunean jabetzeko, ez ditugu gaurkoan aztertuko gramatika bi hauen gora beherak. Aitzitik, hurrengo urrats gisa, Astarloak bere ondorengo garbizaleengan izan zuen eraginaz esan nahi nuke zerbait.

4. Garbizaleak: DF-en irakurketa berria

Laburbilduz, atal honetan erakutsi nahi nukeena da nola eta zergatik aztertu berri ditugun Astarloaren pentsakerako zenbait puntu erakargarri gertatu zitzaizen xx. mendearen hasierako garbizaleei, eta nola egile hauek egin zuten irakurketak zuzendu zuen durangarren ondarea hasiera bateko bere asmoetatik aldendurik dagoen bitetik.

Berpizkundeko egileek Astarloaren lanaren irakurketari ekin zioten, beren hizkuntzari buruzko ikusmoldeetik. Garai hau dugu euskal abertzaletasunaren jaiotzaren

lekukoa, eta funtsean, Europako beste hainbat lekutan gertatu bezala, abertzaletasuna eta joera garbizaleak elkarriz utzarturik ageri zaizkigu. *Aberrri, enda, kondaira* bezalako kontzeptuen eraikuntzarekin batera, *aberrri-hizkuntza* ideiarekin eraikuntza ematen da. Ingurumari honen barnean, Astarloaren lana errazki molda zitekeen garbizaletasunaren ildora, eta are gehiago garbizaletasunaren iturri eta sorburutzat jo; izan ere, hauxe da Azkue eta Aranak, garbizalerik sutsuenak, egin zutena, Astarloaren zenbait gogoeta berezi harturik abiapuntu.

Zeintzu dira garbizaleek jaso eta bultzatuko dituzten gogoeta horiek? Galdera honek berebiziko garrantzia du, garbizaleek eginiko aukera honek zuzenean itxuratuko bait du ondorengook oraindik ere egiatzat ematen dugun durangarraren irudia. Izan ere, garbizaleek alde batera utziko dute Astarloaren lanean hainbeste pisu duen gizakion hizkuntz ahalmenari buruzko guztia, hala nola euskara eta gainerako hizkuntzek duten amankomuntasunari buruzkoa. Azkuek eta Aranak *euskara garbira* bidea irakurri nahi dute Astarloaren lanean, eta ondorioz, zuzen zuzenean euskarari buruzkoa denaz arduratuko dira soilik, bai beren lanetan, baita Astarloaren irakurketan. Garbizaleen idatzietan ezin aurki daiteke giza hizkuntzazko ahalmenari buruzko aipurik. Datu honek soilik berehala erakusten digu Astarloa eta garbizaleen artean dagoen aldea zenbatekoa den; durangarraren idatzietan oinarritzekoak diren kezka eta galderak erabat ezabatu dira mende bukaerarako. Astarloarentzat, gramatikariaren lana hizkuntzen arteko antzekotasuna azaltzean datza; garbizaleentzat, ordea, gramatikariaren lana *euskara garbiaren* aurkikuntza da. Azkuek zuzenean eta garbi azaltzen digu hau bere *Euskal Izkindearen* sarreran:

Euskaraz izkera-mueta bi dagoz: euskaraa bera bere izkerantzakaz, eta diartekoa; euskara garbia eta nastua. A bat dai' lau edo bost arpegiduna; beztea mila modutakoa. Nik aleginez euskara garbia arautu ta erakutsiko daut. (Azkue, 1891: viii).

Era berean, Aranak:

Lo razonable es, pues, que dentro del Euskera se construyan, por de pronto, tantos dialectos como regiones hay dentro de Euskaria que han sido políticamente distintas en la historia, y que cada uno de esos dialectos se forme con los elementos gramaticales y lexicológicos más puros que hoy se encuentren esparcidos en los diferentes subdialectos y variedades de la respectiva región. (Arana, O.C.: 389).

Astarloak bazekien DFen aurkezturiko atzizki paradigma ez zena osoro euskaldunek hitzegitean erabiltzen zituzten atzizkien paradigma; aitzitik, honek ez du kezkatzen, bere helburua ez bait zen Euskal Herrian zeharreko atzizki bilketa zehatza, baizik eta euskal aditz laguntzailearen funtzionamendua azaltzea. Honetarako, bada, halako abstrakzio maila batetik jokatzeko, eta darabiltzan aditz formak euskal aditz laguntzailearen mekanismoaren adibideak edo prototipo idealdunak dira. Astarloak ez du inolaz ere euskaldunen usadioa aldatzeko asmorik, ez du asmo arau-mailerik. Adibidez, anizgileez ari delarik, Astarloak bizkaierazko -z erabiltzen du paradigmatan. Halere, *-it-* morfema ere anizgilea da, eta sarri biak elkarrekin ageri dira aditz forma berean; are gehiago dena, hiztun gehienek erabiltzen duten morfema dugu hau. Hona zer dioen Astarloak bere aukera azaltzean:

No es mi ánimo por eso el oponerme al uso de la voz *itu* y me valdré de ella en la gramática de la lengua bascongada como *de una voz propia y perfecta*, y si no hago uso de ella en estas demostraciones es para que sean más claras y perceptibles. (DF: 709-710).

Egileak aipatzen digun gramatika hori *Apología de la lengua bascongada* dugu, eta ez DFeko bigarren zatiko gramatika arrazoindua. Astarloarentzat DF eta *Apología* erabat ezberdinak dira: lehenak euskal gramatika *azaldu nabi* du (eta horrexegatik hain zuzen gramatika *arrazoindua* deritzo); bigarrenak, ordea, euskara *deskribatzen* digu. Honegatik bada, lan bietan aurkezturiko formak eta gertakariak ez dira berdin berdinak. Lehen lanean, abstrakzio maila batetik dihardu egileak; bigarrenean, hiztunek erabiltzen dituzten formak jasotzen ditu.

Garbizaleek, espero zitekeen bezala, Dfen aurkezten diren gertakariak jasoko dituzte euskara *garbiaren* iruditzat. Honela, bada, Azkuek Astarloak eskeiniriko aditz laguntzaileari buruzko ia guztia bilduko du *Euskal Izkindean*, hala nola hitz ordenari buruzko azalpena; Aranak, bere aldetik, soinuen berezko esanahiazko teoria jaso eta garatuko du. Ondorioz, garbizaleek egituratzen duten gramatika eta DFekoa oso antzerakoak dira aurkezturiko forma eta azalpenetan. Antzekotasun honek, aitzitik, sustraietan datzan ezberdintasun nagusi bat estaltzen digu: lanaren asmoa, helburua. Astarloak giza hizkuntza eta gizakion hizkuntzarako ahalmena azaltzerako bidea urratu nahi du; garbizaleek *euskara garbia* aurkitu dutelakoan daude, eta gaizki hitz egiten ari diren hiztunek darabilten euskara *gaiztoa* bazter dezaten saiatzen dira.

Laburbildurik, hizkuntza azaltzeko saioa arau-zerrenda bilakatzen da garbizaleek eginiko irakurketan. Bertan jasotzen ez den guztia ez da hizkuntza garbiaren parte, kitto. Errazki ikusten dugu batetik besterako bidean hizkuntzalaritza eta gramatikagintza ulertzeko modua sustraitik irauli dena. Astarloak sarrien erabiltzen duen ideia 'hizkuntzazko ahalmena' dugun bitartean, garbizaleen lanetan hitz bi hauek ez dute lekurik aurkitzen behin ere. Astarloaren abiapuntua giza hizkuntzen arteko oinarri oinarritzko antzekotasuna den bitartean, garbizaleek behin eta berriz kaleratuko duten asmoa kontrakoa da: giza hizkuntza guztiak ezberdinak dira errotik, eta denen artean ezberdinena euskara dugu:

Euskaraa ez dai bezte izkeren antzeko aberatsa: aberatsa dai' edozein baino aberatsagoa eta ugariagoa; ezdai baina aberastasan au zatika batua' bere erraietan' gizonen zelan ezdakiala' sortua baino. (Azkue, 1891: 152).

Astarloak luze eztabaidatzen du, gorago ikusi dugun bezala, hizkuntza eta gizaki izatearen artean dagoen ezinhautsizko lotura: gizaki izateak eta hizkuntzarako ahalmena izatea loturik doaz. Ideia honen alde, beraz, Jaungoikoak gizakiei honelako edo bestelako hizkuntza dohaizat eman ziela ukatuko du. Gizakiok beren hizkuntzazko ahalmenaren poderioz dituzte hizkuntzak. Garbizaleek, ordea, hainbat urteren buruan, euskararen sorkuntza giza gogoaren arrastorik aurkitzen ez dela mantenduko dute, Jaungoikoak edo sortua delako asmoa erdi itxuraturik. Honela, Azkuek:

Euskaraak aberatsa ta iakituriz betea izateko' ezdau adobakirik bear; bere sustraietan ezdai gizonan burutasunik agiri. (Azkue, 1891: 118).

Astarloak hizkuntzak giza hizkuntzarako ahalmenaren emaitza direla zalantzagabeko gertakaritzat jotzen duelarik, garbizaleen gogoetak beste bazterreko mugetara doaz: Euskara (gainerako hizkuntzez ez da ezer esaten) ez da euskaldunen gogoetan dagoen hizkuntzazko ahalmenaren adibidea baizik euskaldunen gainetik eta euskaldunek kanpo datzan izatea. Euskaldunak ez dira euskararen jabe inolaz ere, eta euskaldunek desegin baino ez dute egiten euskara, belaunaldiz belaunaldiko erabileran:

Ire ikasleak ire asmo aukerak ikasi ta zabaltzen asitakoan, urte batzuk barru gaurko euskera sastua, Bizkaian beintzat, garbi-garbi, txukun txukun ta yáio zenean bezain txau ta txuri yarriko zaigu. (Azkue, 1925: 61).

Aipu hauek, eta beste hainbestek, ageri-agerian jartzen dute, ene eritziz, Astarloa eta garbizaleen arteko alde. Erakusten saiatu naizenez, alde hau sustraian datza, erabiliriko datu eta gramatika-legeetan baino areago. Era berean, hizkuntzari begiratzeko era bi hauek, gain gaineko aldatze xumeak baztertzen baditugu, bizirik dirautela begitantzen zait. Hizkuntza zer den galderari erantzuteko bide nagusi bi itxuratzten dituzte: maunduko hizkuntza guztiak, joanak eta etortzekoak barne, giza gogoren ahalmenaren adibideak direla dio erantzunbide batek. Besteak, hizkuntzek berezko izaera dutela esaten digu, gizakiez kanpo ere errealtatean nolabait bizi diren izate platonikoak (gu bezala jaio, bizi eta hil egiten direnak). Hizkuntza zer den da sustraian datzan arazoa. Oraingo honetan ez naiz arazo honen eztabaidan areago luzatuko; halere, eta bukatzeko, J. L. Borgesek asmatuako liburutegi amaigabea ekarri nahi nuke harira, hizkuntza(k) zer d(ir)en galdera hori era harrigarri batean egin bait daiteke bertan.

Liburutegi amaigabea, liburu guztiak daude bildurik. Den denak: direnak eta litezkeenak. Gauzak errazteko, har dezagun gure alfabeto erromatarrean idatz daitezkeen liburuak. Liburutegiaren apaletan, ezagunak ditugun hainbat eta hainbat liburu aurkituko ditugu, hala nola *Obabakoak* edo *Peru Abarca*, edota *Discursos Filosóficos sobre la lengua primitiva o gramática y análisis razonada de la éuskara o bascuence*. Hauen aldamenean, aitzitik, etorkizunean idatziko diren liburuak eta inoiz idatziko ez direnak ere ikus ditzakegu: *Artoa*, *Piero Bottariren uda*, eta abar... Bada beste liburu moeta bat; hona hemen zenbait izenburu: *mjkabr*, *kahf* *oeirig*, *kadsjhgk*, *ffffff ff*. Liburuzainak galdetuko baligu liburu hauek euskaraz idatzirik dauden ala ez, denok erantzungo genuke ezetz. Erantzun zehatza eskertuaz, eta bere liburutegia behar bezala sailkatu nahian, beste liburu mordo bat ekartzen digu. Hauetariko baten azalak *Ophabakoak* dio. Atxagaren liburua bezalakoa da alde txiki batengatik izan ezik: hitz guztietan, bigarren letra *p* da, esaterako, *Ipzkeribuak hpamaika opprialde dpitu...* Euskara al da hau? galdetzen digu liburuzainak. Zer erantzungo genioke? Irakur dezakegun liburua da, uler dezakeguna, baina idatzirik dauden hitzak ez dira euskara. Erantzuna zein den asmatzen saiatzen garelarik, liburuzainak honen antzeko beste hainbeste liburu erakutsi nahi dizkigu: *Gparhoa*, *Kreggsala*, *Pxxeru Axxbarca*, *Laibnccguae Prffimithbiae Vaszdffcokjdmun...*

BIBLIOGRAFIA

- Arana, S., 1965, *Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin* [=OC.], Sabindar-Batza, Buenos Aires.
- Astarloa, P. P., 1883, *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva o gramática y análisis razonada de la éuskara o bascuence*, Velasco, Bilbao. Berrarg. facsim. Amigos del Libro Vasco, 1983.
- Azkue, R. M. 1891, *Euskal Izkindea*, Astuy, Bilbo.
- , 1925, «Txukuneria», *Euskera*, VI.
- Chomsky, N., 1966, *Cartesian linguistics: A Chapter in the History of Rationalist Thought*, Harper & Row, New York.
- , 1986, *Knowledge of Language*, Praeger, New York.

- Humboldt, W., 1817, «Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitt des zweiten Bandes des Mithridates über die cantabrische oder baskische Sprache» in Adelung & Vater, 4, 175-360.
- Laka, I., 1986, *Hiperbizkaieraren historiaz: hastapenak*, EHUko tesina. [Ikus ASJU XX-3, 1986. eta XXI-1, 2, 3, 1987].
- Lázaro Carreter, F., 1949, *Las ideas lingüísticas en España durante el siglo xviii*, CSIC, Berrarg. Crítica, Barcelona 1985.
- Tovar, A., 1980, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Alianza Ed., Madrid.

Guillaume de Humboldt et la Langue Basque

KOLDO MITXELENA

1. On aurait pu croire, lorsque Guillaume de Humboldt a commencé à s'intéresser à la langue basque, que ce n'était qu'un banal fait divers. Cette initiation s'est montrée cependant lourde de conséquences du fait surtout que Humboldt a fait presque en même temps la connaissance du pays. L'histoire est trop bien connue: il serait donc inutile de s'attarder ici sur les détails¹.

C'est à Paris, sous les apparences d'un contre-coup du projet qu'il mûrissait déjà de voyager en Espagne, qu'il commença son initiation à la langue avec les matériaux qu'il pouvait se procurer sur place. Ce n'étaient pas exactement des moyens de fortune, puisque, en fait de grammaires et de dictionnaires, il y a trouva les ouvrages d'Oihenart et de Larramendi, ainsi que la *Gramatica escuaraz eta francesez* (1741) du notaire Harriet². Ce n'était quand même pas assez, ainsi qu'il s'en rendait bien compte. Et, avant tout, bien que pour des raisons fort différentes de celles qui auraient mû un Schleicher, il voulait apprendre la langue dans son cadre naturel.

des termes plus justes. Le temps oppose une barrière, souple mais ferme, à nos essais de pénétrer dans un passé trop lointain. La question des rapports de la langue des inscriptions stricto sensu ibériques avec le basque reste ouverte. Mais il faudrait s'y attaquer avec l'attention qu'elle mérite et avec tous les moyens dont on dispose aujourd'hui.

Humboldt s'est laissé prendre au piège des ressemblances qui ne sont pas des homologies: ceci était d'autant plus facile qu'il a exploré comme pionnier le domaine de l'onomastique où les mirages sont plus fréquents que les oasis. Le vieux aphorisme *qui nimis probat, nihil probat* a été trop souvent oublié: faut-il rappeler les noms, si différents d'ailleurs l'un de l'autre, de Trombetti et de M. Swadesh? Une méthode qui, en linguistique comparée, est assez puissante pour démontrer n'importe quoi, n'arrive au bout du compte à démontrer rien qui vaille.

Humboldt, qui devançait ses contemporains par l'ampleur de ses conceptions en linguistique générale était plutôt en retard sur son siècle quant à la considération historique de l'évolution des langues: il est loin de Rask, de Bopp ou de J. Grimm. Il suffira d'en montrer un échantillon basque. Humboldt, fourvoyé peut-être par les préjugés de ses guides locaux, n'a pas su reconnaître l'empreinte évidente du latin et des langues romanes dans le lexique basque; elle n'est pas bornée, tant s'en faut, au domaine du lexique. Bien au contraire, il s'est acharné à poursuivre un fantôme inconsistant: les ressemblances avec le grec³⁸.

11. Pour nous, basques, Humboldt a représenté le premier contact réel de la tradition linguistique locale, qui avait alors atteint un haut sommet, avec la tradition scientifique occidentale: le deuxième, dont la continuité semble assurée, ne se produira qu'avec Hugo Schuchardt, cent ans après³⁹. La brèche d'un isolement qui s'effritait déjà pendant la deuxième moitié du XVIII^e siècle, s'est ouverte au moment où un puissant mouvement d'idées, né et développé surtout en Allemagne, mêlait ses remous aux renversements socio-politiques qui avaient déjà frappé de mort l'Ancien Régime européen. Humboldt aurait dû être pour nous ce que Schiller était pour Dostoïevski: l'exemple le plus pur, le plus beau, d'un humaniste —périmé peut-être, mais combien attachant—, qui, sans acception de personne ou de peuple, sans méconnaître l'importance des forces matérielles qui déterminent l'histoire, aspirait néanmoins à embrasser le genre humain tout entier, afin de le comprendre, dans une image unique.

Pour Humboldt, l'expérience basque, loin d'être inutile, a été le modèle même de ce que devait être une enquête linguistique. C'est lui-même qui l'a dit: "Dieser ersten Erfahrung in diesem Theile der Sprachkunde folgte ich in den übrigen" (*GS* VI, 1, 139).

(38) Ce n'est pas dire qu'il n'arrive pas, à l'occasion, à exprimer des vues très correctes sur l'origine de certains mots. A propos de l'esp. *merino*, il est d'avis que le mot remonte en dernier ressort au lat. *maior*, et il rejette l'opinion attribuée à Sarmiento, selon laquelle *merino* serait une variante de *marino*, du fait que cette variété de brebis aurait été introduite en Espagne en provenance de l'Angleterre.

(39) Le prince L.-L. Bonaparte, dont l'oeuvre basque est d'une importance exceptionnelle, n'était au fond qu'un amateur: on ne peut rien ajouter au commentaire de Schuchardt, *RIEB* 3 (1909), 133-139. Julien Vinson, farouchement hostile à l'enseignement néo-grammairien comme la plupart de ceux qui écrivaient dans la *Revue de linguistique et de philologie comparée*, était, quoique initié à la linguistique, une sorte d'anachronisme vivant.

References

- Farinelli, A., 1924, *Guillaume de Humboldt et l'Espagne*, Torino.
- Garate, J., 1933, *G. Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*, Bilbao.
- , 1935, *La época de Astarloa y Moguel*, Bilbao.
- , (ed.), 1936, J. A. Moguel. *La historia y geografía de España ilustradas por el idioma vascuence*. Bermeo (et *Euskera* 16-17, 1935-36).
- , 1946, *El viaje español de G. Humboldt*, Buenos Aires.
- Schuchardt, H., 1968, *Primitiae linguae Vasconum*², éd. A. Tovar, Tübingen.

Esku-liburuaren grafi aldaketak (1802-1821)

BLANKA URGELL
(Euskal Herriko Unibertsitatea)

ABSTRACT

Between the first (1802) and the second (1821) editions of the *Esku-Liburua* («Handbook») by the Bizkaian writer Pedro Antonio de Añibarro, there are many appreciable variations brought about by the author, of which those affecting spelling are particularly systematic and interesting. In general, they address the aspects of Basque spelling which were most hotly debated until the constitution of the current standard form, and they unfailingly offer new solutions, some of which became widespread years later.

The main objective of the changes is to match the spelling with the phonological peculiarities of Basque, and, at the same time, to eliminate the incoherences inherited from Spanish spelling, often adopting the positions of the Castilian grammarians themselves. Although a precursor of these practices, Añibarro did no more than receive ideas of previous theorists like Larramendi and Cardaveraz, whom to an extent he went along with. Another close influence, doubtless more surprising and less well-known, is that of Juan Bautista de Erro and, largely through him, Pedro Pablo de Astarloa; it was this influence which gave rise to many of the more daring changes.

Demagun euskal grafiaren historian hiru garai bereiz ditzakegula argi pixkat egiteko asmoz: 1) *Tradiziozkoa*: erdaratiko grafiaren erabilerak akritikoa nagusi denean; 2) *Kritikoa*: lehenengo sistema gaitzetsiaz eta berri bat aurkitu nahian bide ezberdinak aukeratzen direnean; 3) *Finkatzea*: beste garai bietako erabilerak neurtuz eta mugatuz grafi sistema bat orokor bilakatzen denean.

3. garaia euskara batuaren eraiketarekin bermatu eta «tradiziozko» deitu duguna lehenengo euskal esaldi ezagunarekin hasi zela onartzen baldin badugu, soilik bigarrenaren hasiera non kokatu gelditzen zaigu zehaztatzeko. Badirudi, bestalde, XIX. mendearen bukaera (J. I. Arana, S. Arana-Goiri eta R. M. Azkuerekin) dela haintzat hartzeko apro-

(*) Lan hau Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin egiten ari garen ikerlanaren barnean kokatzen da. Zehazkiago, 1986-IX-30ean aurkeztu genuen *Añibarroren Esku-liburua eta literatur bizkaiera* tesinako lehendabiziko atala —egokitua eta, ustez, hobetua— da.

posena, orduantxe ekin bait zitzaion, eta sutsu ekin ere, sistima egokia aurkitzeari, guztiok dakigunez. Gizon horiek ireki bideetatik etorri zenaren nortasuna zerbaitetan badatza, proposamen eta kontraproposamen ezberdinen alde edo aurkako idazki ugarietan datza, hain zuzen: ordutik aurrera tradiziozko usadioak —bakoitzean indar eskasagoekin— eta euskalariak proposatzen zituzten berrikuntzak elkarrekin bi-zi, usu gurutzatu eta azkenik sistima bakar baterantz abiatzen dira, egungo grafi-sistima (hots, 3. garai hura) sustraituaz.

Halere, badagoke hain argi diruditen zatiketa hauen arteko etena ilunagotzeko xehetasunen bat edo beste: hala erakusten digute behintzat arestian egin azterketek, XIX. mendearen inguruan murgiltzen zen euskal giroaren kontu osoa emateko oraindik urriak badira ere. Laka 1986an, esaterako, Astarloaren eredentziaz mintzatuz, Azkue gaztearen ideia anitzek gramatikolari (barka, apologista) horrengan dutela oinarri frogatzen zaigu eta, halaber, Azkue ez horren gaztearen —hots, jada Euskaltzainburuaren— erizpideetan gelditu hondarrez (hain hondar ote?) ohartzek. Azkuek eta gainerakoek zaharkiturik ikusten zuten aurreragoko jarreratik aldentzeko eta bereizteko gogo bizia zeukatela begibistan dago, idazle eta idazlan zaharrei izan ziezaieketen begirunea gora behera; honek ez du azaltzen, ostera, zer dela eta erabili behar den, haiengan bete betean sinistuz, bereizi-nahi hura aurreritzi gisa heurak definitzerakoan. Horregatik, XIXaren hasieratik bukaerara jauzia egon zela egia bada ere (eta uste horretan sendotzen gaitu Sarasolak (1976) erakutsi kopuruetatik atera daitekeen ondorioak), bakoitza bere lekuan jartzeko urruntasun nahikoa lor dezakegu jada —hainbat gauzatan oraino hurbil ditugun arren—, mende horretan zehar gertatutakoa (epeka gertatu arren ere) lotzen joateko, alegia, zerén eta inon, ez eta bertan ere, ez bait da ezer ezerezetik jaiotzen.

Hitzon asmoa ez da XIX. mende bukaerako euskalarien orijinaltasuna zalantzan jartzea; aitzitik, erkaketaren bidez aurreragokoak dautzan gutxietatik atera nahiko genituzke: haien idatzietan ondokoek zer hartu topatu zuten gero, zer esan bazeukatela —eta guk zer iker—azpimarratu gogo dut. «Tradiziozko» garaia ez da, izan ere, dirudien bezain deskribaeraz, ez zirelako (ezin zutelako, bidenabar) atzerriko grafiaren erabilera itsu itsuan gelditu, segidan aurkezten ditugun arrazoiak eta gertakariak direla bitarte:

1) Has gaitzen xeheenetik. Mitxelenak (1978) azaldu bezala, erdal grafia egokitzeak berak arazo praktiko asko ekarri zituen euskal literaturaren lehendabiziko garaietarik: ez teoriarik egin baina idaztera zihoanez gero, idazlerik axolakabeenak ere aukera batzu egin behar izan zituen; gaztelearen grafia aski ñabarra izanik ere (orduan orain baino ñabarrago) ez da beti lortu —zalantzan ibili gabe, bederen— euskal hotsak (hau da, gazteleak ez zituenak) behar edo nahi bezain berezi adieraztea eta bai sarri mantendu —ohiturak hartaraturik— berandu xa-

mar arte gatzeleraren oposaketa (dagoeneko soilik etimologiko, honentzat ere) zenbait: *v/b*, esaterako. Arazoa are gehiago zailtzen zaigu erdara eta euskararen aldaketa fonologikoak (gogora /x/) barne sartuez gero. Beraz, euskalaririk izan zein ez izan, idazleek istilu hauei erantzun eman behar izan zieten. Askotxok, jakina, eskuartean zeukaten sistema mailebatua kezka berezirik gabe erabiltzera mugatu zuten beren zeregina; besteak, aldiz, grafia egokiago bat lortzen saiatzen dira, inoiz —gogora, adibidez, J. B. Agirrerena; ik. Mitxelena (1978: 394)— berrikuntzak proposatuz.

2) Bestalde, nahiz eta bereizkuntzarik garrantzitsuena, ziur asko, ez datzan garaian, ez mugimendu bati atxikia izatean, ezpada idazlearen jarreran¹, tradiziozko garaian nolabait bi azpigarai bereiztera beharturik gaudela deritzot, eta hori erakustera dago zuzendurik lan hau neurri handi batean; bi azpigarai hauetarik bigarrena erabat loturik dateke (baina oraindik zehazki ezagutzen ez ditugun bideziorretarik) «kritiko» deitu dugunarekin. Larramendi izango da, hemen ere, ezarri beharreko muga, bere jarraian teorikoen idatzi bakoitzean ugariagoek —eta bereek batipat— hazi eta hezi bait zituzten idazle ikasien hiztegi eta gramatikazko jokoerak (cf. Lakarra 1985). Grafiari dagokionez ere esankizunik zuela iruditu bide zitzaion andoaindar honi: izan ere, berak aholkatu eta zabaldu zuen <tz> eta <ts> grafien erabilera gaur ezagutzen dugun eran eta baita <h>arena *hitz*, *hura* eta *hori* bezalako hitz jatorretan ere (cf. Lakarra 1985: 243-4)² *Diccionario Trilingüe* eta *Imposible Vencidón* bestelako eritziak emateaz eta berrikuntzak erabiltzeaz gain. Honelakorik ez dago Larramendi baino lehen, Garibai eta Madariagaren arrakastarik gabeko saioak salbu³. Ondoren, ordea, egoe-ra aldakor hau areagotzen joan zen agerriki, lehendabizi Kardaberatzen *Eusqueraren berri onac eta ondo escribitceco, ondo iracurtceco ta ondo itzeguiteco Erreglac* (Iruña 1761) liburuxkarekin⁴, baina gero eta sarriago XIX. gizaldirantz, idazle bakanetarik hasita orain arte apologista huts bezala ezagutu diren egileenganaino, Larramendik egina bermatzera zein eztabaidatzera datozen proposamen ezberdinekin.

(1) Hau, da, lanerakoan duen ikusmira: euskal kultur giroan —txikienean izanda ere— sarturik egotea, norberaren herria ez den zerbait zabalagorentzat idaztea etabar izan daitezke euskal idazleen artean taiuzko bereizkuntza egiteko baldintzarik garrantzitsuenak, zalantzarik gabe (cf. Lakarra 1985:32).

(2) Azkoitiko sermoia Larramendirena dela frogatzeko asmoz, Larramendiren grafiaz ezeze larramenditar askorenak berri jakingarri anitz bildu digu Lakarrak lan honetan; honi esker badakigu *tz* eta *ts* kontuan Kardaberatzek ez baina Mendiburuk eta Larizek (ezagutzen diogun 1773ko edizioan bederen) bete bete jarraitu ziotela maisuari (cf. 245.or.). <tc>aren desagerpena ez da oraindik orokorra XIX. mendearen hasieran, ordea, P. Bartolomeren idatzietan eta Añibarroren NDn ikus daitekeenez, baina gertatzeaz dago, zalantzarik gabe. Añibarrok behintzat azkar asko uzten du: *Esku-liburuan* (enparauetan bezala) <tc> ez da inoiz edo behin isurtzen den grafema baino: A25 *atzeneco* : B30 *atzeneco*; A89 *jantciera* : B99 *yanci* (=D82); A71 *eriotcea* : B80 *eriotzearen*; A205 *viotcecoa* : B207 *biotzecoa* soilik aurkitu dizkiogu; behin, oraindik, B66 *biotcera* (=D54) bigarren edizioan.

(3) Hauek hainbat alderditan ahoskera deskribatzeaz gain, grafia berriak proposatzen (eta Garibairen kasuan baita erabiltzen ere) dituzte: Garibaik <sh> [ʃ] adierazteko (ik. Urkixo 1919:602) eta, Madariagarekin batera <^> bokal sudurkariak markatzeko (*apud* Mitxelena 1977:48). Geroko asko legez, hauek euskal fonologiak alboko hizkuntzen grafi-sistimarekiko zerkartzan arazoak konpontzeko saioak dira, jakina.

(4) Alabaina, ez dirudi, Lakarrak ohartu bezala (1985:245), Kardaberatz proposatu sistimari lotu zitzaionik, ez eta bertan ere: *tz/tc* zalantzez erakusgarri nahikoa izan daiteke liburuaren izenburua bera.

Lan honetan aztertzen dugun *Esku-liburuaren* egilea, Pedro Antonio Añibarro, duda muda eta arazo guztion artean dugu, hain zuzen: Larramendiren jarraitzaile aitortua, bera ere gramatikalaria, apologista deritzegunen belaunaldirik emankorrenetarikoaren garaikide da. Bere idazlanetan oro har eta are *Esku-liburuaren* edizio ezberdinen arteko aldaketetan aurkitu ahalko dugu orduko sistema edo sistema-ezaren erakusgarri, zalantzan zein finkaturik zeuden grafien ispilu; ispilu ezin hobe, gainera, alde zurretik badiogu 1802ko ediziotik 1821ekora emandako grafi-aldaketak ugari bezain pisudunak direla. Hasierakoan aipagarririk ozta idoro badaiteke ere, aldaketaren ostean Añibarroren grafiak askotan ez du zerikusirik markinar idazleenarekin ez eta, berrikuntzarik ausartenetan gutxienez, Bizkaitik kanpo usuen erabiltzen zenaekin ere.

Gauzak honela, gure zeregina, aldaketen kontu emateaz gain⁵, aldatzeko arrazoiak eta eragilea zehaztatzera —ahal den neurrian— zabalduko da, grafiaren historiarako urrats batzu eman nahian, bide batez.

1. X (SS) → SH

1450-1620 tartean kokatu ohi da /š/-/ž/ bikotearen desagertzea, /x/ bilakatuta, gazteleraz; alabaina, hots berriak lehengo grafiak (<x> batetik eta <j g> bestetik) luzaro mantendu zituen: legez, *Real Academia Española*ren 1815.eko *Ortografía*an <x>ari bakarrik /ks/ taldea adierazteko betebeharra utzi zitzaion arte (cf. Lapesa 1984: 102, 421-424).

Bitarte honetan, badirudi Hegoaldeko euskal idazleek buruhauste franko izan zutela, gaztelerazko grafian haziak izaki eta hari begira nahi eta nahi ez⁶, ez bai dute nahiko genukeen bezain ondo <x> (= /š/) eta <j,g> (= /x/) letren arteko bereizkuntza gordetzen (cf. Mitxelena 1978: 393). Hildo honetatik, Larramendik

algunas palabras se escriben con *x*, pronunciada no guturalmente, sino á la Latina ó estrangera, v.g. *ori orixe, alaxe* &c. que se inclina á la pronunciación de *orisie, alasié*.

zehaztu behar du gramatikan (338.or.) eta honelatsu hiztegian ere:

Tres o quatro pronunciaciones se hacen difíciles a los que no saben el Bascuence y le quieren aprender, y hablo de los Españoles, porque para otras Naciones no lo son, como lo he probado por experiencia (...). La tercera es de las voces que suenan á la *x* y su pronunciación Latina, v.gr. *auxe, orixe, guexeago, goxo*, y se pronuncian casi *ausye, orisyé, gueisyéago, goisyo* (xxxviii.or.).

(5) Kasik kontu hutsa eman genuen Urgell 1985n; aldaketa gehiago ere gaineratu ahal zaizkie hor bildutakoei.

(6) Ez da honetan inongo mezperezurik ikusi behar, gazteleraren hertzetan dauden beste hizkuntzei ere berbera gertatu ohi bait zitzaion; Catalunyan, esaterako, ortografi-tratalari guztiek, neurri ezberdinetan bada ere, Correas, Nebrixa, Mateo Alemán eta antzeko kide gaztelarrak dituzte gidari istiluzko kontu guztietan. Ik. honetaz Segarra 1985, bereziki XVII-XVIII. mendei dagokiena (38-129.or.).

Aipuon araberba bateko <si> eta besteko <(i)sy> horiek hautakizun bainoago nahasbiderik ez sortzeko eta ahoskapena gidatzeko behin behineko grafema diruditen arren (cf. «se pronuncia *casi*»), aski da bere euskal idatzietara jotzea zerbait sakonagoa zela ohartzeko: Mitxelena (1978:394) hiztegian barrena ikusitakoa baieztatuz⁷, jadanik Larkarra (1985:247) *puisca* bat aurkitua da berak argitaratu Larramendiren Azkoitiko sermoian; gainerako zenbaitetan azkar arakaturaz aurkientza hauek egin ditugu: *choraisca* Cor. 152 (cf. Azk. *txoraxka* eta DTko *eroiscoa* s.v. «loquillo»), *maisucariac* Cor. 68 (cf. bertan segidan «mazuqueros» gazteleraz eta Azk. *mazukari* (B-a-m-o)n lekutua), *lisiba* (?) DT xviii (DT s.v. «lexia»: *lisiba*, *lisibea*, *gobada*), *puisca* DT xxiii, *gais-toa* (?) DT xlvii, S. Cas. 18 (cf. S. Cas. 24 *gaiztaquerien* eta DT s.v. «malo»: *gaiztoa*), *bereisquiro* DT 1, S. Cas. 9 (cf. DT s.v. «distintamente»: *berezquiró*) eta DT clxxxvii *moisala* (cf. Azk. *moxal*), *catacuisanacha* (cf. Azk. *katakuxa* (B-mañ) eta *katakuxantxa* (G-and)), *quereisa*; DT clxxxvii *muxicari* xviii *muxica* o *mucsica* (sic, baina cf. s.v. «melocotón»: *muisica*, *muxica*) kontrajar dakioke. Hauen aldamenean, <x> dun adibide guztiak -xe indartzaileari dagozkio: *orrelaxe* DT lvi, *auxe* IV 391, Mend-gut. 278.

Honen ostean, Kardaberatzek alperrikako bikoiztasun nahasgarri bezala aurkezten du <x,j,g> sorta eta agerian erabaki zehatz batz hartzen: 1) <x> a euskaratik herbestetzea; 2) <g> nahikoa dela /x/ irudikatzen (ik. 4. atala <j>aren gaineko istiluaz); 3) /ks/ <gf>⁸ zein <f>z idaz daitekeela: 4) /š/ <†>aren bidez adieraziko dela:

X,x, Equix[au Eu querac berez iñoiz ere bear eztu: ta ori ez ufatcea aurrenizat obeda: g edo gea orren lecuan badegu: ta e[aten dan bezala e[cribitu bearda: *Egemploa*, *Egercicioa*, *Egercituua* ta be[teac: *Eg[aminadorea*, *eg[aminatu*, naiz e[aminatu [batequin ondo e[aten ta e[cribitcenda (23.or.).

S, s, fuerceari bere indarra quentceco Erregla ori bera gorde bearda: Eusquerac *ña*, *ñe*, *ñi* duen bezala, aoz esateco ta escribitceco du [a, [e, [i, [o, [u: eta onela x edo equixaren bearric ezdu, *Auge*, *orige*, *onelage*, *orrelage*, *Eleja*, *gajoa* ta beste onelacoac indarra quendu ta errazago dira: *Au[e*, *ori[e*, *a[ea*, *Ele[fa*, *ga[oa* (25.or.).

Honela behin betikoz /ks/, /x/ eta /š/ idatzizko nahasbideetatik atera nahi zituen; Larramendiren digrafoa bakunduz (honek ere s altua bait darabil, garai hartan ohi bezala), ordea, —irakurle zuhurra dagoeneko ohartua bide dugu— /š/ eta /s/ arteko bereizkuntza deuseztatzen zuen, <f> bait da (goikaldeko aipamenean nahita mantendu dugun legez) liburu honetan oraingo <s>aren tokian *beti* darabilen zeinua.

(7) Berak bildutako adibide argiei erans dakieke «Troxeçillo, en que duermen los Franciscos, *ctzitegi eistua*» non *eistua esturen* aldaera bustia baino ez den; cf. Dicc. Aut. s.v. «Pequeño quadro de tabiques, de altura de media vara, de forma de una cuna, y de la medida de una tarima, en que suelen dormir los Religiosos de S. Francisco».

(8) Ahoskeratik tradizioetik baino hurbilago dauden honelako grafiak ez dira ezezagunak hemendik at: cf. Segarra 1985 Märtir Anglèsen *cs* zein *gs* (84.or.), Josep Ullastraren *cs* (87.or.), Petit i Aguilarren *gs* edo *gz* (95-96.or.) edota Antoni Febrer i Cardonaren *cs* edo *gz* (117-118.or.) erabiltzeko proposamenak, guztiak XVIII. mendeko català idatzirako.

Nolanahi ere, Kardaberatzen legeak —Larramendiren isileko aholkua bezalaxe— ez ziren, dakidalarik, enparauen paperetara igaro: ar-tean lehenengo grafema berak edo erabiltzen ziren, J. B. Agirrerren txanotxodun letrak bezalako saioari leku emanez (ik. Mitxelena 1978:394-395). Bizkaieran, zehazkiago, <x> eta <ss> ohitu ziren, azkena —berriago, antza denez— <ll>aren eredura egina (Mitxelena 1978:395-396). Horren lekuko, Añibarroren *Gramática bascongadako* grafiazko atalean soilik /x/ <g>z idatzi daitekeela mantendu da maisuen bene-tazko proposamenetarik, nahiz eta Larramendiren gramatikatik kopia-tzen aritu:

Algunas voces se escriben con X no gutural, sino a la latina: v.g. *orixe, auxe, orrexec...* En otras voces se puede suplir con G como en castellano: v.g. *egemplo, egercicio...* Otras se suplen con dos SS, como *maixua, maissua; gaixoa, gaissoa; elexa, elessa, etc.* (168.or.).

<g> albo batera utziaz⁹, *Esku-liburuaren* lehendabiziko edizioan (A-n) bikoiztasun hori bera dakusagu: <x> nagusi izan arren, <ss> solteren batzu (6 orotara) topa daitezke:

Elessara 225, *Elesseari* 131, *Essamine* 124, *gaissoen* 229, *gaisotasu-nac* 104, *Maissu* 196¹⁰.

Esku-liburuaz landa beste idatzietan ere sistima beraz baliatzen zela dirudi, murrizketa batekin, halere: <ss> A-n baino askoz maizta-sun gehiagorekin eta hitz batzuetan nahiko sistimatikoki (beraz, bere gramatikako banaketatik hurbilago), grafema horren testuingurua *i* on-dorengoa zela erakutsiz:

ME *gaisotasun* 17, 20, 99, 114; *Maissu* 20; *elessa* 20, 131, 242, 251; *ereseguín* 21, 107; *gaissoic* 21, 29; *gaisso* 239, 241; *guissagaixoac* (!) 240; *gaisotu* 113 etab.

NA *gaisotasun* 3, 6, 7, 25; *Maissu* 6; *gaisso* 6, 57 etab.

GG-esk *Elessa* 1, 3, 17, 111, 355; *ereseguín* 16; *maissu* 31, 59; *gaisso-tasun* 159; *issildu* 256; *issil* 167 etab.

ND *Maissu* 27, 34; *beressi* 17; *essamine* 47, 48 etab.

LS *gaisotasun* 4; *gaisso* 21, 29, 57; *gaisotu* 22, 53; *essamina* 34, 42, 130; *Maissu* 88, 95, 114; *guixa-gaisso* 160.

Esku-liburuaren 1821eko (B) eta 1827ko (D) edizioetan, aldiz, <x> eta <ss> <sh> bilakatu dira beti^{10 bis}:

A4 *goxetic* : B6 *goshereanic*; A5 *goxean* : B9 *goshean*; A6 *oxin* : B10 *oshin*; A7, 11, 12 *elexa* : B11, 15, 16 *elesha*; A12, 21 *baxen* : B16, 25 *bashen*; A15, 119 *erexeguín* : B18, 125 *eresheguín*; A30, 77 *auxe* : B34, 87 *aushe*; A184 *ixilic* : B191 *ishilic* etab.

(9) Baina araua edizio guztietan betetzen duela azpimarratu behar: A133 *egemplu*, B28, 78 *general*, A1=B1 *Colegioco* eta *Virginaren* agerraldi orotan gutxienez.

(10) A-n <ss> <s>rekin aldizkatzen da: *gaissoen* 229, baina *gaisoac* 78; *gaisotasunac* 104, baina *gaisotasun* 66, 160, 182; *essamine* 124, baina *esamine* 124, 125, 139. Añibarroren eskuizkribuekin erkatuz, ene ustez esan daiteke, dena den, inprentan egindako hutsak izan daitezkeela.

(10 bis) <ss>n bi salbuespen: A196 *maissu* : B200 *maisu* (=D172) eta *i* ostean agertzen ez zen bakarra, *esamina* 130(2), 131, 154.

Honekin, esan gabe doa, bai bere lehengo bikoiztasuna ¹¹ eta baita Larramendi eta Kardaberatzen kezka konpondurik utzi zituen Añibarrok, ibili gabeko bidetik izan bazen ere. Gure lehendabiziko ardura berrikuntza hau zela eta, <sh>a nondik ikas zezakeen jakitea izan zen (cf. Urgell 1986: 12-16); egun, zitezkeen aztergai guztiak aztertu ondoren, maisu zuzenen beharrik ez dela deritzogu, Euskalerriko leku eta garai ezberdinetan digrafo bera agertu bait da erabiltzaileen arteko lotura ezagunik gabe: Gorago Garibaiz esandakoaz gainera (cf. 3. oharra), alderantzizko digrafoaz, <hs>z, ballatu zen Gamiz arabarra 1760 inguruan ondu poesietan (ik. Goikoetxea 1983:220) /s/ idatziz jartzeko; Zaraitzuko dotrinaren azken bi zatietan (bigarrena XX. mendearen hasieran eta hirugarrena XIXaren bukaeran kokatu dira; cf. Mitxelena 1982: 21-42) <sh> balio berarekin irakurtzen da. Azkenik, eta bestalde Añibarrorangandik ezin hurrago, beste horrenbeste idoro ahal izan dugu Zarautzko komentuko artxibuan gordetzen den A. Francisco Antonio de Palaciosen euskal sermoi bilduma.

Pausa gaitzen gibelego honi buruzko berri gehiago ematearren: sermoi liburu lodikote hori data gabe ageri da, baina XVIII. mendearen azken hamarkadetakoa behar du izan. Letra txikerrak, paper erre samarrak eta pipien lanak irakurgaitz bihurtua dugunez gero, ezin daiteke segurtatu <sh>z besterik erabiltzen ote duen; horren agerraldiak ere urri dira nolabaiteko gipuzkera dirudien bere hizkeran; hara, dena den, ditugunak ¹².

Gai~~sh~~o batec eduquiarren escu~~sh~~etan vere gaitzaren sendagaia ez badaqui zer guisatara artu bear duhen guchi valiatuco zayo sendagaia aldean izatea. Emendi gaur azaldu bear degu zer modutan valiatu bear degun S. Josef gloriosoaren vitarteco-tasunarequin.

gucioc guirade esqueco gai~~sh~~oac.

ni naiz esqueco gai~~sh~~o bat, eta Jangoicoa da nere premien erre-mediatzalla.

Palaciosen erabilera eta Añibarroena zuzenean loturik daudela pentsa dezakeenak zergatik Añibarrok ez duen 1821 arte bere idatzietan <sh>rik sartu azaldu beharko liguke, zeren eta gertakari honen aurrean biak 14 urtean zehar elkarrekin bizi izanak (eta are Añibarro bestearen aitortzaile izaki) edota Palaciosen sermolari on (eta santu) ospe handiak (cf. Villasante 1961) ez bait dute berez baliorik; zalantzaren alde garaitzuko sermoitegietan (Agirregoikoa bizkaitarrarenean, esate baterako) digrafo horren arrastorik ez bide dagoela ere ekar daiteke.

Zarautzeko komentuan Añibarro norbaitekin biltzekotan, Mateo Zabalarekin bildu behar dugu, zalantzarik gabe oraingoan, gure literatur historien arabera bien artean Arratiako eskola deitu ohi dena osatzen

(11) <ss>aren aldetik ere istilutsua, /s/ren ordaina ere izan bait zitezkeen, gutxienez Lora Sor-tan: 95 *essango*, 137 *essanic*, 13 *Confessiño* etab.

(12) Ezin dugu orrialderik zehaztu, liburuan zenbatu gabe daudelako; horregatik esaldiak ahalik eta luzean aipatzen ditugu, ulertzetik izan genuen neurrian.

bait dute; eta, hain zuzen, <sh> eta soilik <sh> da bere idazti eza-gun guztietan Zabalak darabilena:

— Alegietan¹³: *asheturic* 92; *bashen* 91, 530, 543; *gaisho* 27, 29, 32(2), 95, 530, 534, 535; *gosh* 96; *goishago* 97; *goshean goshetic* 34; *eleshara* 38; *iñosh* 33, 93(2), 530, 537; *ishurtzen* 93; *ishil* 539; *ishilic* 33, 28; *isho* 541; *Mishochu* 537; *mushari* 541; *nosh* 35, 530; *orishe* 95; *oneshegaz* 35; *troshac* 37; *ushatu* 28, 33, 93, 540; *ugarashioac* 529.

— *Verbo regular bascongado*: *eleshan* 8(3); *eleshatic* 18; *gaishotu* 61.

— *Noticia*¹⁴: *aishiac* 10, *aisheac* 10.

— Ulibarriri egin gutuna¹⁵: *ishilic*, *iñosh iñosh*, *bashen* (2).

— Sermoi liburua¹⁶.

Ezin alboratu, behin honetara ezker, idazle bion berrikuntza garaiko grafialarien bidez azaltzerik ez dagoela, Astarloa eta Errorentzat mende hasiera hasieratik <x>a /š/ hotsaren euskal grafema bait da (biak Madrilen bizita, bertako literatur giroan jadanik susma ote zitekeen geroxeago *Academiak* hartuko zuen erabakiaren aitzindaririk?):

La letra X ó su sonido no es conocido á los castellanos, ni puede ser expresado sino de viva voz. Este sonido es el mismo que dan los franceses al *ch*: los ingleses al *sh*: los alemanes al *sch* y los masoretas á *sin* de los hebreos, cuando colocan el punto *daghess* sobre el tercer brazo de esta letra (*Discursos* 129.or.)¹⁷.

...todos los signos que representan estas adiciones son precisamente Euscaranos, tales son el *Xi X* (*Alfabeto primitivo* 87-88.or.)

Aitzitik, teorikoengandik at, idazleen artean —zehazkiago, Gipuzkoako idazlerik garrantzitsuenen artean— bilatu behar dugu Añibarro eta Zabalaren jarrera bera: J. B. Agirre bat bustidurak transkribatzeko gorago aipatu dugun sistimaz baliatzen zen bitartean, Iztueta, *Gipuzkoako dantzetan* (1824) hautatu bidea utzi¹⁸ eta hil ondoren (1847an) argitaratu zioten *Gipuzkoako kondairan* <(i)sh> trigrafoa¹⁹ erabiltzera moldatu zen, lehenagoko <x>a ia zeharo baztertuz:

aisha 388; *alaishen* 380, 395; *bezalaishen* 385, 387; *gaishoi* V; *gaishotu* 382; *guishaishoa* VI; *goishoa* 392; *isheca* VIII, 516; *ishecatu*

(13) Azkueren edizioaren arabera (1907-1909) aipatzen dut; behin izan nuen Azkue Bibliotekan gordetzen den eskuizkribuarekin erkatzeko aukera eta, aldaketaren bat izanik ere, oro har fidagarria dela segurtatzeko.

(14) Berea dela frogatutzat utzi zuen A. Ruiz de Larrinaga ez zen *sh*-aren argudio honetaz (ez grafiaz oro har) baliatu, baina erans dakieke berak han emandakoei, zalantzarik gabe (cf. Ruiz de Larrinaga 1924:79).

(15) Gutun honen zati luze bat Urkixok (1915:228-229) argitaratu zuen. Irakurketa gaitza izanik, gero idazlez idazle igaro diren errakuntza gutxi batzu isuri zitzaizkion. Lehenena eta agiriuna gutuna 19koa dela esatea da, *bederatzigarren* garbi irakurtzen bait da. Nire aldetik ere, aitortu behar dut Zabalaren gutunekoak —eta soilik honetakoak— direla Urgell 1985:96, 72bis oharrean Ulibarriri —gain-begirada arin batez— leporatzen nizkion *sh-ak*.

(16) Eskuizkribu hau Irungo Pasionisten komentuan dago egun; 197 bat orrialde ditu eta bertan bildutako sermoi batzuren dataren arabera (1822, 1825, 1833) *ELaren* bigarren edizio ondokoa izan daiteke.

(17) Argiago oraindik, sarri agertzen den harako «...la x bascongada, *ch* francesa, *sh* inglesa, *sch* alemana» (120.or.; ik. 121, 134, 535 eta 1803:49 ere.).

(18) Cf. *aixa* 6, 178, 180, 182; *auxen* 174; *gaxoaren* 176; *goxoqui* 76; *ixecaz* 8; *ixilic* 9; *ixucaric* 184; *ixuriric* 182; *muxinduric* iii, 8; *pixua* 176...

(19) Trigrafoa dela diogu, zeren eta soilik horrela azaltzen bait da *alaishen*, *bezalaishen*, *goishoa* eta *muishincak -i* eramatea; gonbara bitez hauek —eta orobat *gaisho*— aurreko oharrean aipatu *Dantzeta*ko *x*-dun kideekin, berreraiketa faltsuak izan daitezkeela gezurtatzeko.

259, 516; *ishilic* 394; *ishuritaco* 381, *ishurteraño* 378; *lumisharra* 517; *muishinca* VIII, etab., baina *auxen* 280.

Halaber, Iturriagaren *Diálogo* setan (Bonapartek argitaratua sinistu behar baldin badugu) <x> baizik ez da ageri; Iztuetari zuzentzen dion gutun data gabe batean, ordea, «andre prestu gasho oec» (Garmendia 1968:177) idatzi zuen²⁰. Goizegi da agian —eta nolana ere zehaztasunez exkasegi gabiltza— Zabala-Añibarro eta Iztueta-Iturriaga bikoteak letra xume hau dela kausa estuago lotzeko; Zabalak eta Iztuetak lagun amankomunak bide zituzten (Ulibarri eta Lecluse, adibidez) baina ez dugu erlazio zuzenen berririk²¹. Alabaina, 1841ean Iztuetak eta Iturriagak irakurri eta kritikatu behar izan zuten Zabalaren *Verbo regular bascongado* Gipuzkoako Aldundiaren mandatuz: argitaratzea biziki gomendatu zuten eta hala egin zen 1848an (cf. Lasa 1977:521) eta hantxe bertan ikusi (ezagutu?) ahal izan zuen Iztuetak *Kondairan* sartu grafema hura.

Gipuzkoar horien eta Gipuzkoan luzaro bizitako bizkaitar haien erabilerak zerikusirik ote duen frogatzen zaila izanik ere, egia da <sh>ak Probintzian aurkitu zuela bere txokoa, arrunt izango bait zen gero ere —I. Sarasolak adierazi didanez— Donostiko eskolan eta, hementik, oraintsu arte ikusi daitezkeen *Joshe* bezalako idazkerak.

2. QU → K

1821ean Añibarroren *Esku-liburuaren* bigarren edizioa argitara deanean agerriki apurtzen da lehendabizikoz /k/ hotsa adierazteko tradiziozko usadioarekin; ordura arte *k* grafema iparraldeko idazleen bitxitasuntzat hartzen zen hegoaldean, gaztelerazko banaketa ezaguna bete betean jarraitzen zen bitartean.

XIX. mendean zehar grafia berriak —hots <k>k— orandik ondo neurtu gabe dauden atzera eta aurrerakadak egin zituen eta mende bukaeran eztabaida gai anitz eskeini zien oraindik euskalari eta euskaltzaleei²². Guztiarekin ere, badirudi *k*-ren alde edo aurkako gatazka XIX.

(20) Ezin gehiago zehaztu Iturriagaren jokabidea: *Euskalzalen* eta *Euskal-Errian* argitaraturiko alegiek grafia aldaturik dute agerriki.

(21) Ez dakit zein oinarriekin diocn Lasak «ilustres literatos y amigos [nik azpimarratua] del franciscano muerto [Zabala]» Iturriaga eta Iztuetaz, gutxienez lehenbizikoari dagokion neurrian: «He recibido su última apreciable de Vd. —idazten dio Iztuetari— y el tratado del verbo vizcaino del Padre Zabaleta de que en ella me habla y que se ha servido pasarme para su examen el Sr. Guereca, secretario actual de esta provincia. Abundamos de esta especie de obras así como escaseamos de otras. Se conoce, el P. Zabaleta como él mismo lo dice ha hecho un gran estudio de la materia que se propuso tratar» (Garmendia 1968:193). Birritan nahasten du izena, geroko gutun batean zuzentzen badu ere: «He leído la obra del P. Misionero Zabala y me parece que ha llenado perfectamente el objetivo que se propuso, y que ha hecho un servicio señalado a nuestra lengua y por consiguiente a nuestro país» (id. 196.or.).

(22) Aski luzea —eta gatz handikoa— da, adibidez, «Euskalzale» (Azkue) eta «Vascofillo»-ren (Azkueren *alter ego*aren) arteko eztabaida *Euskalzale* aldizkarian. «Vascofillo»-k irekitzen du sesioa *k*-ren kontra Mogel bere alde ekarriaz («Vascofillok Euskalzaleri» *Euskalzale* I (1897), 3.or.); «Euskalzale»-k, beste zenbait gauzaren artean, honela erantzun zion: «Mogelek dinoala *k* prantzesena dala. Prantzes orrek zu ta ni baizen euskaldun garbiak dira. Onan balitz ere ¿zer? Mogelek baino gitsiago balio eztaben Añibarrok, beren *Esku-liburuan* *k* sarri sarri oitu eban; Mogelek baino gitsiago balio eztaben Eusebio Maria Azkuetarrak *k* oitu eban; Mogelek baino gitsiago balio eztaben Zamakolak, beren *Historia de las naciones vascas* deritson liburu ederrean, dino *k* antñinako euskaldunak sarri oituten ebela» («Euskalzalek Vascofiliori» *Euskalzale* I (1897), 10.or.). Ik. oraindik «Vascofillok Euskalzaleri» (id. 27.or.) non eztabaida honen azkena eta beste baten hasiera ikus daitekeen.

mendea baino lehenagotik datorkigula. Izan ere, XVIII. mendean Kardaberatzek kontrakar handia egiten dio:

K. Letra onen edo Griegoen Kaparen bearric batere Eusquerac ecertaco ezdu: orren lezuan (sic) *c* edo *q* baditu: *K* letra onequin Eusqueraz ezta cer escriptu (*EBO* 23.or.).

Correasen *Ortografia Kastellanaren* (1630) antzekorik ez da, aldiz, euskararentzat ezagutzen oraindik; Kardaberatzen hitzok Larramendiren harako «usan [lapurtarrek] y sin necesidad alguna de la *k* cuyo oficio hace igualmente la *c* ó la *q*» (*DT* xxvii.or.) aipuaren ondorio bezala ulertu behar ditugu; era berean mintzatu zen Mogel ere hurrengo mendean:

Se valen también mucho de la letra *k*, y es mucho embarazo para los demás bascongados que no la usamos en voz alguna (*Peru Abarka* 11.or.).

Alabaina, Mogel hil eta pare bat urte beranduago arazoa zeharo beste ikuspuntutatik ikusten eta tratatzen hasten da: hegoalde/iparralde oposaketa ahaztuz, *k*-ren erabilerari oinarri historikoa ematen zaio, bere «euskaltasuna» frogatu nahian:

Los Euscaranos conservan todavía en su alfabeto oral el sonido de la letra *q*, como en *Mezquiriz*, *Amezqueta*, &c. pero para representarla en la escritura se valían de la letra *Gamma* y de la *Kapa*; por esta razón reduzco á este lugar la *q*, signo que no conocieron los primeros Bascongados, y á quien dieron ser sin necesidad los Romanos en tiempos muy posteriores (*Erro* 1806:63).

Beraz, historikoki *q* grafiaren aitzindaria —eta are euskal aitzindaria (cf. *Erro* 1807: «...el nombre *Kappa* del Alfabeto Griego es Bascongado» eta 1806:71 horren azalpenerako)— da *k*. Honék zuzenean azaltzen digu zergatik aldatu zuen Añibarrok soilik *qu*, eta ez *c*²³:

A2 *daquizu* : *B2* *dakizu*; *A177* *equin* : *B186* *ekin*; *A142* *erruquia* : *B157* *errukia*; *A6* *esquer* : *B10* *esker*; *A7* *esquiñiten* : *B11* *eskiñiten*; *A1*, 3 *eusqueran* : *B1*, 4 *euskeran*; *A79* *euqui* : *B89* *euki*; *A6* *eztaquit* : *B10* *eztakit*; *A139* *gaistaqueriac* : *B155* *gaistakeriac*; *A108* *jaquen* : *B116* *yaken*; *A56* *jaqui* : *B63* *yaki*; *A3* *jaquinez* : *B5* *yakin-eza*; *A7* *quitugarritzat* : *B11* *kitugarritzat*; *A213* *leuquean* : *B213* *eukean*; *A3* *litzatequezanac* : *B5* *litzatekezanac*; *A7* *neque* : *B11* *neke*, etab.

Honetan, haatik, *sh*-arekin gertatu zenez, Añibarro ez zihoan baka-rik: A. Zabala ere grafema honetaz baliatu zen testuinguru berean bere idatzi guztietan. Alabaina, biek *sh*-aren aldaketa ilunpetan uzten zuten bitartean, *k*-renaz ahapaldi oso bat eskeintzen digu Zabalak *VRBn*²⁴:

(23) Gogora, dena den, euskaldun hauek ez direla *qu* baztertu nahian zebiltzan bakarrak, ez lehenak: Nebrixak 1492an honela zioen: «De la *q* no nos aprovechamos sino por voluntad, por que todo lo que agora escrivimos con *q*, podríamos escrivir con *c*, maiormente si a la *c* no le diésemos tantos oficios cuantos agora le damos» (*apud* Segarra 1985:48-49).

(24) Añibarro, ordea, erabat tradizioari atxikia da *GBn*: «La letra *k* se suple con la *C* o *Q*, v.g. Calendario... como en castellano» (167.or.).

Así mismo usaré de la *k* antes de la *e* y de la *i* en lugar de *qu*. La *k* originariamente vascongada, como puede verse en el *Alfabeto primitivo de España* del sr. Erro cap. 6, a más de simplificar la escritura ahorrando una letra, que por el hecho de no pronunciarse, debe reputarse superflua, fija la lectura de modo que el rudo (y tal vez el que no lo es tanto) que con la *qu* leería *cue*, *cui*, no podrá errar viéndolo escrito *ke* y *ki* (vii.or.).

Ikusten denez, Errori berea kendu gabe, idazkeraren duda mudek beste ezerk baino kezkatuago dago Zabala: mende bukaeran hain erabilia izango zen «Aots bakoitzari izkira bat dagoka» (Azkue 1891: 29) araupean digrafoak izan omen zezakeen interpretapen bikoitza uxatu nahi du irakurleen onerako. Ikuspundu honetatik aldaketa ez da batere alperrikakoa: mende hartan /kw/ etimologikoak <qu>rekin idatzi ohi ziren, latinaren arabera; 1741ean *Academiak* holakoak <qu>z adieraz zitezten agindu zuen, /k/ hutsa irudikatzen zutenetik bereizi nahian; beraz, Añibarro eta Zabala idazten ari direnean /kwe/ bezalakoak <cue> idaztera behartzen zuen 1815eko legea atera berria eta, antza denez, gutxi ezaguna zen (cf. Lapesa 1984: 423, 3bis oharra).

Haatik, testuetan *k*-ren sarrera pausuka eman zen arren, euskalariak aurrerago joan ziren: Errok berak (1806: 66-68 «C ó Z» eta 71-73 «K» ataletan) jakintzat uzten du <c> soilik /s/-ri dagokiola eta, bide batez, <c>ren lekuan <z> imintzeko joeratxoia ere agertzen; ez dago adibideak ikustea baino: *cea*, *zacurra*, *zingarra*, *zimista* batetik eta *kaba* (*kappa* aintzineko euskaraz) bestetik.

Aurreragoko pausu honen emalea Astarloa da, zalantzarik gabe, <c>/<z> kontuan berak antzeman uste zituen arrazoi fonetikoiez bereiztearen alde badago ere:

Reparo que la C y la Z son tan afines, que es muy difícil hallar su diferencia. Esta dificultad ha hecho creer a los literatos de primera nota que la C es supérflua en los alfabetos y podía sustituirse por la Z. No me disgustaría esta supresión, porque con ella cesaría la torpeza de hacer sonar como K palatina á la C dental. Sin embargo, no puedo resolverme a afirmar que el sonido de la C es uno mismo que el de la Z... (1883: 128).

Zamakolak ere <c> eta <qu> baztertu nahi ditu /k/ren eremutik:

Los Bascos no conocían las letras C ni Q (...). En lugar de la C y de la Q usaban de la K (1818: II, 142).

Eta oraindik sutsuago oharrean:

En algunas escrituras antiguas de los Bascos he visto que la K era semejante á la de una C, y á fe que si desterrásemos ésta y la adoptásemos hoy todavía con el sonido de K, pudiéramos simplificar mucho nuestro alfabeto castellano (id.).

Proposamen honek oihartzuna aurkitzen du Zabalaren VRBn:

y si se hiciese mas estensivo su uso [k-rena] proporcionaría en nuestra conjugación la ventaja de poderse indicar su pronunciación con un mismo caracter en singular y plural. Por ejemplo lo que en nuestros libros se escribe «*etorri yaca ó yaco*, él se le ha venido, y *etorri yaque* ellos se le han venido» podría escribirse: «*etorri yaka y yake*» (vii.or.)

orain ere bere aldetik gramatikazko arrazoiak (Azkueren hitzetan: «Izkira bakoitzari aots bakar bat dagoka» *Euskal Izkindea* 29.or.) dakartza, morfema bereko hots berbera bi grafema ezberdinez irudikatzearen kontraesana erakutsiz. Alabaina, ikusten denez, gure oraingo usadorantz doazen eritzi eta proposamenak poliki poliki eta ikuspegi aldaketa handi baten ostean inposatu beharko ziren; gertuago zuten istiluari bukaera emateko, *qu* : *k* bihurketa paperean gauzatzen ausartu baziren ere, horren aldamenean soilik lotsaz aipatzen da *c* : *k* bihurztearen komenigarritasuna.

Añibarro eta Zabala ez ziren izan, agi denez, Erroren hitzak era honetara ulertu eta praktikara eraman zituzten bakarrak: Ulibarriren *Gutun liburuan* ere nahiko sarri sartzen da *k qu*-ren ordeztu:

*euzkeldun 4, adeskide 13, euzkeraz 18, Mikeletetzat 24, kentzea 27, yakitun 27, daukie 27, osankida 74, etab.*²⁵

Bukatzeke, esan dezagun Añibarrori ez zaiola *Esku-liburuaren* edizio bi horietarik kanpo <k>rik isuri, ezpada bere hiztegian, baina behin edo birritan (s.v. «acción descompuesta» *cikinkeria*, *zatarkeria*), hortaz, beranduagoko eranskinetan.

3. MB, MP, → NB, NP

A6 *ceimbat* : B10 *ceinbat*; A6 *onembeste* : B10 *onenbeste*; A3, 18, 24, 48 *dempora* : B55 *denporearen*; A48 *aimbat* : B55 *ainbat*; A26, 140, 144, 160, 194 *aimbeste* : B30, 155, 159, 173, 199 *ainbeste*; A132 *campora* : B140 *canpora*; A217 *embajadea*; A 31 *empeñuric*; B94, 217 *enparadu*, 26 *enparetan*.

Añibarroren aintzindariak eta inguruko gehienek ez zuten zalanztarik izan puntu honetan: *m* idazten zen *p* eta *b*-ren aurrean, gazte-lerak mantendu duen usadioaren arabera. Euskararen kasuan grafia hau araupeturik zegoen gutxienez Kardaberatzen *Eusqueraren berri onetatik*:

Beste erregla jaquiña: *b* ta *p*-aren aurretik *m* esribitu beardezu, ta ez *n*: ala, *ambat*, *cambat*: *amparoa*, *ampolla* ta orrela besteac esan ta esribitzatzu (27.or.).

XIX. mendearen hasiera aldean, baina, zerbait gertatu zen usadio eta erregela hau deuseztatu zuena: Añibarro ezeze Zabala ere *nb* eta *np* hasten da erabiltzen:

(26) Eta baita bere emazteak ere, Ulibarririk ez baldin baditu honen gutunak ikutu transkribatzean: cf. *izkiribatua* 202.or.

Alegietan: *onenbestegaz 91, ainbagacoan 91, ainbeste 92, canpococ 92, ceinbati 97* etab.

Eztabaida nahiko goiz sortu zen gazteleraz: 1517ko *Reglas de Orthografia en la lengua castellan*an Nebrixak gaitzesten zuen zenbaitek egiten omen zuten *n*-ren erabilera *b*, *p* eta *m*-ren aurrean, bere eritzian *m*, eta ez *n*, bait zen entzuten zena (cf. Segarra 1985:41.oharra); hurrengo gizaldian, oster, Mateo Alemanen *Ortografia castellan* (1609) zeharo kontrakoa —bai fonetikan eta baita ortografian ere— defendatzen da. Gatazka honen oihartzunak *atalàra* ere heldu ziren, esaterako, eta XVII. mendean Antonio Font-ek Mateo Alemáni jarraitzen zion bitartean (cf. Segarra 1985:47-48), mende bat beranduago Marc Antoni d'Orellana eta Pere Màrtir Anglès usadio zaharrari atxikitzen zaizkio, fonetikazko arrazoia baztertuta latinaren araua mantentzearen (cf. Segarra: 1985:76-77 eta 84).

Dakidalarik, gure artean azkenean onartu genuen erabilera berrizalearen alde jarri zen lehenbizikoa Astarloa da, berriz ere arrazoi fonetikoak aipatuz:

¿Para qué sustituir en la lengua latina la *n* por la *m* antes de B, P y M? No hallo motivo alguno: no hallo ofendida la eufonía en las voces *impius*, *imbuo*, *impotencia*: para mi oído son más eufónicas que *impius*, *imbuo*, *impotencia*. Los sabios españoles ya van corrigiendo este defecto en la escritura, pues la boca de nuestros compatriotas siempre ha pronunciado *n* y no *m* aun cuando aquella venía delante de la B y P (157-158.or.).

Alabaina, aipu honek ezin azal dezake Añibarro eta Zabalaren berrikuntza; are gehiago, Astarloaren bitarteko (cf. 10. atala) izan ziren Zamakola eta Erro ez dirudi ohartu zirenik horretaz, zeren eta maisua-rentzat <m> latinaren okerra zen arren, Errok mantentzen bait du aitzineko euskararen etimologiak proposatzerakoan; adibidez:

Este nombre Gamma, puramente bascongado, se compone de *gam*, *gama*, que significa lo que está encima, lo alto, &c como se ve en sus compuestos *gam-bara*, *gam-batu*, y de *me mea* estrecho... (1806:62).

4. J → Y

Aldaketa hau bereziki aipaturik eta oinarriturik aurkitzen dugu B eta D-ko hitzaurreetan.

Bizcaitar eurac erri apur batzuec ez besteetan, Nafarrac, eta ara bere gueyago Francia-co euscaldunac esaten dabe *yan*, *yausi*, *yo ya-gui*; eta alan esaten ebeen anchina, eta anchina andi bagaric euscaldun guztiac. *Ja*, *je*, *ji*-a ez dabela euskerac berea, ta bai erderati erantsia ao batez dirauscue Larramendi-c, Cardaberaz-ec, Herbas-ec, D. Yoan Antonio Zamacola-c eta, berbabaten, gaucea ondo adituten yaken guztia (B 8.or.).

Hori dela eta, A-ko <j> guztiak <y> bilakatu dira B-n (eta horrela mantendu D-n ere):

A5 jagui : B9 yagui; A11 jagon : B15 yagon; A83 jaquin : B93 yakin; A76 jai : B86 yai; A216 jaiegun : B230 yaiegun; A167 jaijo : B179 yaijo; A218 jaiotza : B232 yaiotza; A3,8 jaquineza : B5,12 yakin-eza; A174 jan : B184 yan; A236 janaria : B247 yanaria; A82, 174 Jangoico : B92, 184 Yaungoico; A32 janciric : B37 yantziric; A106 jar-lecu : B114 yar-lecu; A20 jaramoten : B24 yaramoten; A7 jataz : B11 yataz; A10 jarraitu : B15 yarraitu; A112, 172 Jauna : B119, 182 Yauna; A5, 7 Jesu-Cristo : B9, 11 Yesucristo; A1, 5 Jesus : B1, 9 Yesus; A7 joan : B11 yoan; A81 joco : B92 yoco; A5 Josepe : B9 Yosepe, etab.

Ados dago berarekin, besteetan bezala, A. Zabala, VRBn Añibaroren aipua kasik hitzez hitz itzuliaz:

La y consonante, llamada vulgarmente griega, muestra muy bien la pronunciación general de Vizcaya, que es la genuina del bascuence, y la que usan también los navarros españoles, y todos los bascongados franceses. Al contrario la j gutural no se señala sino una pronunciación particular y moderna de los pueblos de Guipuzcoa y sus límites, y la de algunas personas de otros, que los imitan en virtud de la idea errada, en que están de ser mejor esta pronunciación. Véase a Cardaveraz *Eusqueraren berri onac* pag. 24: Larramendi Prolog. al Diccion. part. 1. 16: Hervas *Historia del hombre* tom. 1. lib. 2. cap. 7: Zamacola *Hist. de las Nacio. basc.* t. 2, pag. 310, nota 63. Usaré pues, no de la j sino de la y, como se vé en las obras vizcainas *Esculiburu* y las del P. Cardaveraz (bien que en estas es i) y en las labortanas *Testament zaharreco...*, *Cantico izpiritualac*, *Catichima* (vi-vii.or.).

Nolanahi ere, Zabalaren hitzak zehatzagoak dira alde askotatik: hasteko, Añibarrok aipatu maisu guztien erreferentziak erantsi ditu. Hona hemen, bada, j-ri buruzko tradizio zabal horren lekukoak:

En este dialecto de Guipúzcoa se ha introducido la pronunciación castellana de la jota, gutural y fuerte: *jauna*, *jo*, *jatorriz*, etc. que es contra la costumbre de todos los demás dialectos, y parece pronunciación pegadiza (Larramendi, xxvi.or.)²⁷.

Jota Euscararena ezta baicic Erdaratic artu edo etorria. Euscalerrietan len *ia*, *ie*, *io*, *io* usatzen: ta orañere Bizcaian ascotan esaten da: *ian*, *iauna*, *monia* ta ez *jan*, *jauna*, *monja*: au eransia da (Kardaberatz, 24.or.).

Los Españoles recibieron las lenguas Fenicia y Araba, que son afines; y aunque entre ellos ha dominado un dialecto latino; mas con éste ha quedado en muchos reynos de España la pronunciación Araba *ja*, *je*, *ji* &c que no han usado jamás, ni usan, los Portugueses, Catalanes y Vizcainos de países interiores de Vizcaya. Esta observación hace ver, que la lengua Cántabra (que fue la antigua de España) no tenía la pronunciación gutural *ja*, *je*, &c que afea no poco el acento Español (Hervas, 239.or.).

(27) *El imposible vencidon* honela dio: «la pronunciación general de la j y de la g no es del Bascuence. Verdad es que en algunas partes la j consonante se pronuncia muy gutural, como en Romance, *jauna*, *jan*, *jo*, *anagea* &c. pero es pegadiza essa pronunciación; de que es argumento que no sólo en Francia, mas tambien en la mayor parte de los Bascongados de España, se pronuncia como la j Latina, dulce y no gutural *joan*, *jauna*, &c. y es menester guardar la primitiva pronunciación» (337.or.). Osterantzean, Larramendi ez da garai hartan hots honen benetazko nolakotasunaz kezkatzen den bakarra, Etxeberri Sarakoak ere honela bait dio: «Mintçaira lodiegua-ere ezta ongui heldu Escuararequin, hala nola I eta X lodiqui erraitea: eta baldin escualdun batçuec hala mintçgo badira, hori heldu da, ceren erdarac edo gaztelaniac, mintçaira molde hau hartu baitu Arabiatic» (Urkixoren ed., RIEV XVIII (1907), 134-137.or.).

J con el sonido *iota*, y no de *jota*, porque este sonido gutural y escabroso lo recibieron los castellanos de los Arabes (Zamakola, 138.or. 63. oharra)²⁸.

Idazle guztiok bat datoz /x/ hotsa berrikuntzat —eta are berrikuntza baztergarrizat— sentitzean. Hala eta guztiz ere, /x/ eta /j/ grafian bereizteko proposamen bakarra —hau da, <i>z baliatzea— Kardaberatzek aipuan eskeini eta bizkaierazko idazlanetan erabili²⁹ zuen; besteek aski dute <j>ren euskal hotsa zein den zehaztatzearekin³⁰.

Zabala eta Añibarro ez zitzaizkion, baina, Kardaberatzek proposaturikoari lotu, kontsonante zen hots hori bokale batez irudikatzea ez zeritzaielako biderik hoberena:

No usó [Kardaberatzek] en esta obra de *j* acomodándose a la pronunciación general de Vizcaya: (Véase el *eusqueraren berri onac* página 24, donde asegura que la *j* gutural no es propia del vascuence, sino pegada del castellano; y hace mención de la yota en Vizcaya) aunque no tuvo acierto en el uso de la *i* vocal por consonante (*Noticia*, 19-11.or.).

Aitzitik, gaztelerak —eta baita lapurterazko zenbait liburuk— eskeintzen zien grafia argi batez (*y-z*, alegia) baliatzea erabaki eta praktikan jarri zuten (ez soilik <j>ren lekuan; cf. 5.atala) luzaro iraungo zuen ohiturari hasiera emanik.

Guztiarekin ere, badago oraindik xehetasun bat axola handikoa: ELan hainbeste grafi-aldaketa eginik, Añibarrok *sartaurrean* soilik *j* : *y* honen kontu ematen du —eta luzeki eman, gainera—. Honek esan nahi du, ziur aski, aldaketa horrek besteetarik zeharo bereizten zuen garrantziren bat zeukala: hain zuzen ere oraingo proposamen honek ahoskatze eran ere bait zuen eraginik (besteek ez bezala). Ikusirik <j> grafema jadanik galdua zutela /j/ fonema irudikatzeke —aipatu aurreko egileek aldarrikatua gora behera—, azken garaietan hobesten ari zen joera bat zela kausa (cf. Zabala: «y la de algunas personas de los otros, que los imitan en virtud de la idea errada en que están de ser mejor esta pronunciación»), eta /j/ hots jatorra inolako aldaketa gabe mantendu nahiz, <y> grafia berri baina zalantzarik gabekoa proposatzen dute haren ordeiz bi frantziskotarrok.

(28) Astarloak *Discursos filosóficos*en <j> onartzen du, nahiz eta argiro esan /j/-ri (eta ez /x/-ri) dagokiola: «Si los árabes tienen en su alfabeto la J gutural, han errado: han adoptado un sonido animal: un sonido hijo del órgano destinado por la naturaleza para la formación del idioma animal; nosotros tenemos la j bocal, y no necesitamos de la J árabe: nuestra J es la misma letra que la dicha J de los árabes, con la sola diferencia de que ésta se halla modulada por el órgano animal y aquella por el racional» (133.or.).

(29) Baina arrazoirik eman gabe (bestelako ohar luzeak —morfologi kontuez batipat— egin arren): cf. *Cristiñau doctrina* (data ezezaguneko) eta *Jesus, Maria ta Joserren devociñoco libruchoric atararico devociño batzuc* (Iruña 1764).

(30) Antzera egiten du Olaetxeak ere, berarentzat <j>ren abantail arrazoizkoa bai batzuen /x/ eta baita besteen /j/ irudika dezakeela bait da: «*Jangoicoa, Jesus, Javea, Jarri, Janci*, &c. esribidu dira J-agaz bada batzuc esaten dave *Yangoicoa, Yesus, iavea* & eta J-agaz, nai batera, nai bestere (sic) esango da» 167.or. Ohar bedi esanak esan /j/ irudikatu nahi duenean <y> eta <i> hautatu dituela. Alabaina, Larramendik eta Errok, onesten zuten ahoskapena idatziz adierazi nahi dutenean <y>z baliatzen dira, hain zuzen: «La pronunciación de la *j* gutural, que hay en algunos parajes, no parece del Bascuence, sino pegadiza del Castellano, *jauna, jan, joan, jo*, que en lo general del Bascuence se pronuncian *jauna, jan, joan, jo*, inclinándose a *vauna, yan* &c.» (DT xxxviii.or.); «A la letra *i*, baxo de la modulacion *Ya, Ye, Ja, Jo*, &s. le diéron nuestros mayores el nombre de *Iota*...» (1806:70).

5. V-i-V → V-y-V

Lehendabiziko edizioan bokale arteko *i* <i> bezala traskribatzen da, hiru bider <y>z ordezkatuak dagoela egia bada ere:

gaztaya 131, *celaya* 74, *dayen* 35 (baina *daièn* 34 (2), 123, *daiela* 9, 15, 43, 66, 72).

B-n, beti ez izan arren, oso ugaria da y grafemaren erabilera tes-tuinguru nonetan:

badaragoyozu 56, *baya* 26(4), 41, 42, 52, 64, 69... (orotara 35 agerralditan; *baia* 130, 248), *daroyot* 76, *dayogula* 114 (A106 *daiogula*), *dayogun* 183(2), 188, *dayoguntzat* 247, *dayozun* 239 (A227 *daiozun*), *doyanean* 118, 188 (A95 *doianean*), *emoyozuz* 31, *eztacarroyola* 7, *garbaya* 22 (A18 *garbaia*), *geyago* 8, 19, 22, 28, 30, 31, 78, 82, 83, 91, 94, 117, 130, 150, 157, 158, 163, 165, 166, 168, 193, 214 (baina *geiago* 156, 166, 170, 176, 179, 209, 212, 225(2), 226, 227; A17, 39, 45, 71, 73, 78, 84, 143, 151, 156, 208, 211); *geyen* 17, 19(2), 44, 47, 63(3), 80, 82 (baina *geien* 224, A130, 55 (3)), *iya* 66, 210, 216, 224, *nayeraac* 40 (A7 *naiera*), *sayetz* 222, *celayari* 84, *mayan* 63, 180 (A55, 169 *maian*).

Grafia hutsean murgilduaz, azpimarratzekoa da aldaketaren salbuespen gehienak bukaerantz biltzen direla, batez ere *EL*ari erantsitako zati berrietan (Jesus eta Mariaren nekeei buruzkoetan, alegia).

Gogotan badugu bokale arteko [j] zaharra nahiz [j] nahiz [(d)ʒ] ahoskatzen dela eta zela³¹ Bizkaieraren eremurik zabalenean, halabeharrez hautatu behar zuen Añibarrok <y>a B-ko grafi-sistema berriaren koherentzia mantendu nahi bazuen: A-ko bokalearteko <i> horiek ez zuten /i/ bokalea baina horri zegokion kontsonantea isladatzen (cf. Zabalak Kardaberatzi aurpegiatua) eta hortarako (cf. gorago) <y> zen aukeratu grafema berria.

6. V → B

Gutxienez Larramendi eta bere jarraitzaileentzat jakina zen euskarak ez zuela *v*-z adierazteko hotsik eta azken finean <v> erdaratik zetorren eredentzia bat baino ez zela euskal grafian:

V,v, latinez konsonante deritzana berez guchi bear du [euskarak]. Eusquerazco itcetán, orren lecuán *B,b* esateco ta escribitceco errazago ta obeago du. A. Larramendic ondo dio, Eusquerazco itzac beren jatorrizco sustraiean ez *v*, ezpada *B,b* dutela (...) eta aurrentzat iracurten ta escribitcen icasteco, Erregla au ascoc (sic) obe da (*Eusqueraren berri onac*, 24-25.or.)³².

(31) Antza denez, ahoskera honen arrastoak lehendabizikoz *Refranes y Sentenciasen* aurki ditza-kegu (cf. Mitxelena 1976:176-177): bestalde, gipuzkeraz eta nafarrerazko ahoskera, Mitxelenak diosku-nez, oso hurbil dago *Gaztela Zaharreko* <y>-ren ahoskatzetik. Hemen erabaki ezin dugun beste ar-za da Añibarrok [(d)ʒ] ala [y] ahoskatzen zuen azterketa sakonagoa merezi bait luke.

(32) Ezin izan dut Larramendiren idatzietan *b/v*-ri buruzko aipurik ediren. Kardaberatzek dioen hau beharbada Larramendiri entzuna da, cf. *Eusqueraren berri onac* 38: «Substantivo berequico Ice-nac eransi ta elcarrequin batean esatea, Eusqueraren privilegioa da, orañurrenean A. Larramendic esancidan bezala», 49 «... Aita Manueli [Larramendiri] esan izan diodan bezala».

Ez dago gure artean ikerturik *v* eta *b*-ren erabilera idazle zaharren-
gan; alabaina, zabarragoren bat gora behera, badirudi hein handi ba-
tean eta Larramendirengandik aurrera bederen, Añibarrok ematen di-
gun banaketa ohizkoa zela:

Ninguna vos (sic) bascongada trae consigo V consonante, sino B:
barria, biotza, bicitza, bizcaya, zabala... Con todo, algunos escriben
con V consonante las voces que la tienen en latín o en castellano, v.g.
videa, vicitza... via, vita (GB 167.or.)³³.

Ohizkoa diogu, ezen ez orokorra: Markinako eskolakoak, esatera-
ko, ez datoz bat puntu honetan; batetik, Añibarrok aurkeztu joeratik
oso urruti kokatu behar ditugu Prai Bartolome³⁴ eta Juan Jose Mo-
gel³⁵, biongan *v* eta *b* sistimarik gabe —edo asko jota oraindik somatu
ez dugun sistimaren baten menpe³⁶—, banaketa zilegi berarekin alegia,
agertzen bait dira. Mogel zaharra, aitzitik, Añibarrok azaldu sistimari
atxikia dakusagu, bere lehendabiziko lan argitaratuan sarriago ikusten
diren salbuespen gutxirekin³⁷.

Bizkitartean, *Gramática bascongada*ko banaketa izan zen A-n hartu
zuen bidea; banaketa defektiboa da nonbait: erdal antzeko hitzak *v*-re-
kin idaz daitezke:

Veronica 191(2), 192; *Calvario* 4, 12, 89, 117, 176(2), 178, 180, 188, 190,
222(2); *avisu* 58; *lavatorio* 105; *virtute* 10, 19, 32(2), 69, 72, 73; *vicio* 15,
69, 73, 76; *villau* 155, 156; *salvadu* 21, 25, 42, 53, 55, 56, 57, 64(2), 65, 69,
102, 112, 127(3), 138, 147, 167, 169; *salvatzalle* 111, 185, 203, 228; *salvaci-
ño* 20(2), 78; *vorondate* 45, 127, 130, 178, 184, 190; *devociño* 4, 46, 49, 77,
80, 130, 169, 176, 177(2), 215, 216, 229; *vide* 2, 3, 136, 143, 152, 177, 178(2),
179, 189(2), 190(2), 222 etab.; *adivide* 2; *escuvide* 225; *galvide* 186, 52,
53; *videbaguetasun* 137; *verbaldi* 17; *verba* 8, 30, 130, 132, 148, 165, 171,
172(7), 201, 208, 216; *viztu* 2(2), 125, 152, 210, 223, 224, 232, 233; *viztuera*
40, 231; *viztugarri* 2; *vici* 1, 5, 11, 14, 15(2), 25, 40, 42, 48, 49, 83, 102, 110,
123, 127, 184, 190, 197, 204, 227, 233(2), etab.; *viciera* 8, 16, 75, 186; *vicitza*
10, 24, 31, 33, 35, 36(2), 41, 52, 58, 67, 69, 83(2), 84, 118, 184 etab.; *vici-lecu*
106, 159; *veneragarri* 83, 122, 172, 194, 210, 228; *valio* 48(2), 103, 146;
viotz (?) 38, 58, 80, 100, 105, 111, 126(2), 141, 142, 143, 152, 155, 158, 164,
165, 177, 178, 179, 195, 216(2), etab.; *viot-damu* 227; *viotz-dei* 44; *viotz-
min* 40, 115, 142; *vaneria* 36, 97, 201; *venial* 128; *vertute* 202, 232; *visi-
tea* 218; *visitatzera* 218; *Evangelio* 100(2), 101, 121(2); *servitzari* 3, 231.

(33) Adibideetan soilik *v*-dakarren arren, *envidia* edo *salvatu* bezalakoak ere oso arruntak ziren.

(34) *Dantzac*: *viguna* 42, *vegui* 55, *viarrac* 56 eta *alaveetaco* (< *alabadu*), *javoneetia* (< *jabonadu*)
harrigarriak. *Ikasikizunak* I: *garvijac* 4, *davee* 5, *alaveetan* 49, *vijotza* 51, *ervestetuteco* 55, *vide* 55,
viurtu 368, *vijua* 307, *alavai* 231, *vildurrian* 323; II: *viotceetan* 6, *viurtuteco* 97, *neva* 223; III: *ervest-
eti* viii, *daven* 2, *daviltzanac* 5, adib.

(35) *Eskolia* 1816: *garvitasunaren* 129, *viztu* 129, *verva* ii, *garvi* iii, *minveratuco v*, *vardin* 162.
P. Bartolomek gehixeago darabil <*v*>, *Dantzetan* batipat. Badute bi markinarrok alde interesgarri
bat: P. Bartolomek maizenik *dave*, *nevan* eta antzerakoak darabiltzan bitartean, J. J. Mogelek be-
ti (?) *eban* (*Eskolia* 8), *dabee* (48,194), *daben* (157) *b-z* idazten ditu.

(36) Zenbait kasutan ez ote beren hizkeran [w]-a ematen zelako bokale artean? Cf. Olaetxea:
«GAVA, *Javea*, *Davena*, *Evan*, *Even*, &c. Erri ascotan esaten dira V.agaz beste batzuetan b.agaz; emen
escribidu dira V.agaz, *Eva* eta *Ave* leguez, bada alan bacoachac bere errico usura esango dau, batzuc
Gava, *Javea*, *Davena* &c. beste batzuc *Gaba*, *Jabea*, *Dabena*, &c» (167.or.).

(37) *Confesio*: *virtuteric* 41, *vorondatea* 41, *escuvide* 195, baina *lenvico*. Peru Abarkaren hizte-
gian (Zelaieta, aip. art.) honako hauek ikus daitezke: *vaso*, *venda*, *venta*, *ventera*, *verba*, *verso*, *vici*,
vide, *vinagre*, *virgina*, *visita*, *viva*, *volontario*, *vorondate*. *Vizcaitar* ere gaztelerezkotik azal daiteke;
vitartean zalantzakoa da: cf. beheerago Añibarroren *vitarteco-z*.

baina ez da beharrezkoa:

bicio 19, 41; *billau* 14, 120, 145; *salbatzalle* 96; *borondate* 10, 15, 16, 18, 61, 70, 71, 80, 102; *bide* 63, 64, 65(2), 76, 100, 126, 174 etab.; *adibide* 76, 101; *gach-bide* 22; *on-bide* 37; *galbide* 9, 26, 38, 52, 81, 118; *ceru-bide* 63; *berbataldi* 81; *berba* 7, 15, 23, 38, 39, 41(2), 69, 72, 98, 116, 119, 133(2), 135, 143, 151, 158 etab.; *biztu* 10, 11, 30, 40, 71, 120, 160, 175; *bici* 75, 102, 173; *bici-lecu* 166; *bicitza* 145; *balio* 21, 31, 84, 85, 111, 112; *balioitsu* 43, 112, 168; *biotz* 6, 8, 15, 16, 21, 79, 112, 173 etab.; *biotz-miñ* 74, 124; *serbizaria* 12.

gainera, erdal «antz» hori oso zabala da, ikusten denez, eta ez da beti erraz asmatzen ea hitz bat v-z doan benetan erdal kutsurik ikusten ziotelako³⁸. Agerraldien kopuru urriagatik sistimatik landa dirudien v-z idatzitako hitzen bat ere topa daiteke:

vildur 157 (baina *bildur* 12, 15, 23, 37, 40, 49, 56, 62, 72, 80, 93(2), 95, 140, 149, 173, 234, 155; *bildurgarri* 23, 24, 40, 59; *bildurtu* 26, 71); *garvitasun* 159 (baina *garbitasun* 63, 72, 120, 153, 164); *villa* 152 (baina *billa* 64; *billatu* 15, 125(2)); *vildots* 184 (baina *bildots* 95, 107, 117, 118, 198, 230(3)); *vere* (baina *bere* 10, 13, 16, 19, 31, 65, 148, 214 etab.); *ucavillaz* 74 (baina *ucabillaz* 117, *ucabillada* 211, *ucabilcada* 199).

Sistema defektibo hau alde batera utziko da behin betikoz B-n:

Beronica 196, 197; *Calbario* 16, 99, 124, 185, 186, 188, 195(2), 213, 221, 226, 235; *birtute* 15, 37(2), 82, 176; *billau* 127, 160, 169, 170 (behin *villau* 18); *salbadu* 25, 29, 48, 62, 110, 134, 179; *salbatzalle* 105, 119, 223, 241 (baina *salvatzalle* 192); *salbaciño* 24(2); *borondate* 14, 69, 79, 90, 191; *debociño* 5, 6, 52, 56, 86, 91, 181, 185, 186(2), 228, 229, 241; *bide* 3, 59, 72(2), 83, 86, 132, 146, 186, 200 etab.; *adi-bide* 5, 109; *galbide* 13, 30, 60, 92, 125; *berbaldi* 20; *berba* 11, 12, 19, 27, 44, 84, 91, 107, 133, 147, 173, 215, 222 etab.; *biztu* 3, 34, 46, 80, 127, 131, 169, 173, 211, 236, 245; *biztuera* 45, 236, 243; *bici* 1, 9, 18, 28, 52, 84, 125, 140, 182, 214, 243 etab.; *biciera* 12, 20, 76, 85; *bicitza* 15, 20, 29, 42, 76, 121, 154, 158, 189, 207(4), 227, 247 etab.; *beneragarri* 94, 128, 215, 220; *balio* 25, 55(3), 94, 111, 120, 162; *biotz* 10, 34, 66(2), 86, 105, 113, 132(2), 158, 169(2), 199, 210, 241 etab.; *Evangelio* 109(2) (baina *Evangelio* 109, 128(2)).

Ordurako Kardaberatz eta Larramendiren hitzak beranduagoko hizkuntzalariek onartu eta areagoturik zeuden; Hervas, esaterako, eritzi beretsukoa bada ere, gauzak zailtzera etorri zen:

Asimismo en la lengua vascuence falta la letra *b* y la consonante *v*; y se usa un acento que podremos llamar medio entre el de la *b* y el de la *v*: y este mismo acento dura hasta ahora entre los españoles (...) y lo mismo sucede á los gascones (...). En las palabras vascuences, en los apellidos de los vascongados y en los nombres de sus países las letras *b* y *v* se usan promiscuamente á capricho: porque los

(38) Hori da *viotzekin* gertatzen zaiguna: bai *ELan* eta baita lehen aipatu markinarrengan ere maiz agertzen bait da; beste horrenbeste esan daiteke *vitarteri* buruz, B12 *vitartecoric* harrigarria bada bi ediziotako agerraldi bakarra (A8, 11, 16, 18, 31, 69, 77, 80, 140, 141(2), 149, 226, 229, 236, B15, 36, 78, 91, 156(3), 164, 222, 239, 248 *bitartecoric*); itxaron legez, D10 *bitartecoric* dio, isuri zaion *v* zuzenduz. Alcaketakaz kanpo, markatu nahi duguna zera da: Mogelek ere *Peru Abarkan vitartean* dakarrela (127. or.), nahiz eta —gorago azaldu bezala— elkarrizketa horietan *v* ez den erdal hitzetan baino agertzen. Zelaietari jarraituz behintzat, *vitartean* izango litzateke *v* daraman euskal hitz bakarra.

vascongados no las distinguen en la pronunciación, y este trabajo tienen todos los españoles; los cuales, para escribir en unas palabras españolas la *b* y en otras la *v*, según se hallan estas letras en las latinas de que se derivan, no se gobiernan, como debían, por el oído de su pronunciación, sino por la memoria; por lo que, del alfabeto de la lengua española se debían desterrar las cifras de las letras *b*, *v* y substituir una nueva, que denotase el acento medio que tiene la pronunciación española (*Catálogo de las lenguas V*, 249-250.or.).

Antza denez, ez zuen ez Espainian ez eta Euskalerrian ere jarraitzailerik erdietsi honetan; ahoskatze bereizkuntza ilunetan sartu gabe, nahiago izan zen —Euskalerrian behintzat— bi letretarik bata aukeratu, horrela bikoiztasuna «hots bati adierazle bat» arauaren bitartez ezabatuaz. Besteetan bezala, Zamakolak «ikutu historikoa» ematen dio arazoari, ren aldeko eritzia sendotuaz:

Los bascos no conocían las letras C ni K, ni tampoco la V consonante, que causa hoy tanta confusión en los idiomas que la adoptaron de los latinos. En lugar de la C y de la Q usaban de la K y de la B en todo cuanto se escribe hoy con V consonante, porque la lengua de los Bascos no pronuncia sino las letras naturales (*Historia de las naciones bascas II*, 142.or.).

Astarloak ez du <v> «Aitzineko hizkuntzaren alfabetoa»n kokatzen; arazoa, dena dela, nekeza bide zen eta oso luze azaltzen du bere aukeraren arrazoa (*Discursos filosóficos*, 135-137.or.). Ekar dezagun hona zerbait:

No hay letra mas comunmente recibida en las Naciones Europeas que la V que llaman consonante, y dirán quizá sus literatos que á lo menos nuestro alfabeto carece de esta letra y que siendo tan necesaria como que se sirve de ella para diferenciar las voces y sus signados ha de reputarse este defecto por muy esencial; pero les respondemos que el idioma primitivo ni otro que sea perfecto debe admitirla en su alfabeto. Si la V consonante diversifica las voces y sus signados hoy en los idiomas no fue así en otros tiempos. No tuvo lugar esta letra indecente hasta que los Latinos en sus gramáticos establecieron aquella decantada regla que dice: *que la u vocal pasa muchas veces a ser consonante cuando hiere á otra vocal*: desde esta época empezó a recibirse en la literatura esta nueva *u* y llegó a mudar de figura y hoy la vemos adoptada generalmente por toda la Europa.

Antes de esta época no era conocida la dicha *v* consonante en lengua alguna (...) Las voces latinas y griegas que hoy se escriben con V consonante, se escribían ántes con la U vocal (...), se grabaron anteriormente con B y sonaron *Bita*, *Bibo*; y que el único motivo que tuvieron los latinos para esta variedad fué la pobreza de su idioma, la falta de voces y la necesidad de aplicar dos ó más signados á una sola palabra.

Honekin eta gehiagorekin saiatzen da desegiten latinetikoa, ustezkoa, eredua ³⁹.

(39) Izugarria da hemen eta bestetan latinari egiten dion kontrakarria; aztertzekoa litzateke agian, zeren eta honela euskararen alde saiatzen delarik Europa osoan latinak zeukan pisua deuseztatzen, baliteke nolabait geroko garbizaletasun amorratuaren azpian izatea.

Añibarroren aldaketari gagozkolarik, aitortu behar da badaudela kontraadibideak: hauek bi berbatara mugatzen dira, haatik ⁴⁰: *Virginea* (A16 = B20; A8 = B12; A21 = B25; A27 = B31 etab.) eta *Ave* ⁴¹ (A9 = B13; A10 = B14; A12 = B16 etab.); bi hitzok hutsik egin gabe *v-z* idatzirik ditugu bai B-n eta baita D-n ere. Ez dirudi, ordea, zailegi azaltzeak; gutxienez *Ave* ez dut uste inork euskal hitzatzat hartuko lukeenik, Añibarrok berak azaltzen digunez:

Eusquera uts garbian esan bear liteque *Agur* Maria Nafarroaco cartilla eusquerazcoan [*ND-n*] dagoan leguez: bada *Ave* latifiñari quenda da: ta onegaiti erdeldúnac bere lecuani ifintun dabe *Jangoicoac salba zaizala Maria*. Dempora lucean icusi eztozun adisqueide maite bati, adirazoteco bera icusteaz artzen dogun poza, esan daroagu, *Agur* urlia: celan zabilz aspaldian? (*ME* 123.or.) ⁴².

Virgineari arrazoirik aurkitzea ez da horren erraz, oster; behin behinekoago bada ere, begirune konturen batez azal daiteke edo, bestela, izen propio bezala sentitzen zuela pentsa dezakegu ⁴³.

Nolanahi ere den, bide beretik dugu —oi bezala— Zabala. Pundu bakar batean bereizten dira, baina, bi idazleok: Zabala beti lehenaldiko NORK-ZER paradigmán *v-z* baliatzen da, arrazoi etimologikoengatik, agi denez ⁴⁴:

Alegietan: *evazanac* 91, *nevala* 91, *nevanean* 91, *ez-tavé* 92, *even* 93, *davela* 93, *evan* 97; Ulibarriri egin gutunean: *nevala* 48(2) (baina *dabee* 48, *eztabela* 48).

7. H → Ø

Ezaguna denez, Bonapartek bere bilketa lanak egin zituen denboretarako jadanik <h>ak bere balio fonetiko guztia galdurik zuen hegoaldean —Zugarramurdi eta Alkerdi herrietan salbu— eta ordurako hasirik zegoen bere desagerpena Lapurdiko kostaldean (cf. *FHV* 204-205.or.). Ga-

(40) Lehen aipatu *villau* eta *salvatzalle* errakuntzatat baino ezin daitezke hartu; bietarik bat (*villau*) *billau* bihurtzen du D14ean, bestea oharkabean mantentzen den arren (D164). Gogotan izatekoak dira Blecuaren honako hitzok: «Problema distinto plantean las reediciones corregidas por el autor. Habitualmente estas correcciones se llevan a cabo sobre un ejemplar impreso que no siempre es el de la primera impresión y, aun cuando lo fuera, no hay edición exenta de errores (...) En todos estos casos el editor del texto crítico se encontrará, pues, con una serie de errores o de cambios no de autor que, sin embargo, han sido admitidos por él» (1983:190).

(41) Baita agerraldi bakarrean (A3=B13) *Averi* lotua dagoen (cf. *VB* «SALVE, lo mismo que *Ave*: c. *agur*) *Salvea* ere.

(42) Cf. *VB* «*Ave-Maria*: c. *Agur-Maria*» eta *Misioco canta santuac*: «*Salve Virgen Pura* eusqueraz. 1. *Agur* Virginea garbia, *agur* Virginea ta Ama, *agur* Virginea ederra, *agur* gure Erreguiña» (23.or.).

(43) Susmo honen aurka *v>b* aldaketaren adibideen artean aipatu *Beronica* eta *Calbario* badoaz ere, alde ekar dezakegu *GG-esk*-eko jokaera: 202. orritik aurrera *b* *v*-ren tokia hartzen hasten den arren, *David* 252, 266, 315; *Vespasiano* 233; *Livio* 244; *Calvario* 253; *Venus* 254, 274; *Virginea* 257, 258 etab.

(44) Arrazoiok bide honetatik susma daitezke: Zabalarentzat aditz trinkoak eratzeko balio duen erroa aditzaren partizipiotik —azken letra eta hasierako *y-a* (horrelakorik balitz) kenduaz— lortzen da; baina adizkian txertatzerakoan euskarak hasierako *e-a* bilakatzen du, nahiz eta zenbaitetan *e-a* mantendu den (cf. 59-60.or.); horregatik *dot*, *dozu*... formen azpian datzana *d-au-t...* litzateke, *dau*-ren erudura (cf. «La ó de los artículos es originalmente *au*» 6.or.); halaber, *nabe*, *dabe*, *neban* eta hone-lakoen azpian *n-au-e* *d-au-e*, *n-eu-an...* leudeke: «Del participio *euki* toma para radical de tensos perfectos *au* ó *eu* (...). Yo usaré por más común de *au* para los artículos puros, y de *tu* [sic, *eu*-ren orde] para los de recipiente, y en los que la *au* suele pronunciarse o la escribiré con esta letra, notada con su capilla [ó] que indique su equivalencia» (60-61.or.). Ez dirudi, beraz, Zabalarengan Olaetxeak deskribatu ahoskatzea (ik. 56.oharra) isladatzen denik. Bestalde, arrazoi hauexengatik Azkuek ere bere *Euskal Izkindean* laguntzailearen formak *-u-z* idatzi zituen (*neuan* etab.); cf. Laka 1986: § 2.4.3.1.

raian garaikoa, XVIII-XIX. mendeetan ere *h*-aren alferrikotasunak biziki kezkatu zituen hegoaldeko idazleak; Larramendik, debekatu bagarik, hitz hoskide batzu bereizteko proposatu zuen, alde batetik:

La hache ò aspiración está muy en uso en Labort, Baxa Navarra y Zuberoa, assi en lo hablado como en lo escrito, pero no en los dialectos de España, como ya lo tengo dicho: y aunque no se aspirasse la hache me inclinaria á que se escribiesen con ella muchas voces como en Francia, para distinción del significado. Pongo exemplo: *ori ori ori* parece una voz y son tres distintas, que significa *toma esso amarillo* y se debieran distinguir assi: *óri orí hori*; porque *óri* «toma» tienen el acento en la *ó* y decimos también *orizu*; *ori* «amarillo» en la *i*; y *hori* «esso» también en la *i* pero tuviera distinción en la *h* con que se escriben y pronuncian essa voz en Labort, aunque nunca es gutural esta aspiración como lo es en Andalucía. Lo mismo digo de *hurá* «aquél», *urá* «agua», *haria* «carnero», *aria* «hilo», *haur* «este», que nosotros decimos *au*, y *aur aurra* «niño» y assi de otras muchas voces. Pero en esto tampoco me desagrada la indiferencia y assi, escribiré unas voces de un modo y otras de otro (*DT xxxiii*; ik. Cor. 296 ere)

eta bestetik erabat errespetatu zuen ahoskeran oinarrituriko iparraldekoen usadioa:

Las voces aspiradas apenas tienen lugar en los Bascongados de España, aun las que en lo escrito llevan la *h* ó la aspiración: pero tienenle en los de Francia, donde es muy frecuente. En esto cada Provincia guarde su estilo, como en el tonillo particular de la voz (*El imposible vencido* 337-338.or.).

Larramendiren ikuspundu zabala ahantzita, Kardaberatzek *h*-a euskaratik —axola zitzaion *bere euskaratik*— herbestetu nahi zuen, bide batez hasperenketaren aurka gogor mintzo zelarik:

Achea letra dan edo ez, Autoreen artean eztabaida andiac dira. Naiz letra, naiz aspiracioa dela, edo beemenciaz soñu gogorra ematen duena, emen gure Eusqueran ta Bizcaian Ache ori alfarricaco edo servitcen ezduen gauza da. H ori izquetan batzuec Ge, bestea Jota eguitendute. Guc orrelaco aspiracio begemente edo behementeric usatcen ezdegu. Abraham esateco, Abrajan diote. Quen ortic: gure Eusquera suave eztizcoarenzat soñu ori ezta (*Eusqueraren berri onac* 23.or.).

Eritzi berekoa zen Mogel, Kardaberatzek esanikoaz gain Larramendiren proposamenari aurre egiteko arrazoiak ematean:

Sobre la *h*, hay variedad de opiniones. El P. Cardaveras (sic) sostiene, que en el bascuence es letra inútil. Larramendi, que puede usarse de ella alguna vez, para distinguir las voces equívocas. No es esta á mi ver razón suficiente, cuando en la pronunciación no se distinguen tales voces equívocas. La buena escritura debe conformarse con la pronunciación. Los bascongados y franceses llenan de esta letra *h* todas sus obras, y depende de que cortan de otra manera que nosotros muchas voces. Es pronunciación ingrata, torpe á nuestros oídos (*Peru Abarka* 11.or.)^{44 bis}.

(44 bis) *Peru Abarcaren* beste pasarte batean berrartzen du Mogelek gaia: *Peruk Maisu Juani*

Teorikoki onetsia edo gaitzetsia izanik ere, Añibarroren garaian oraindik sarri asko erabiltzen zen, batipat erdaratik mailebatutako *h*-dun hitzetan, berak A-n eta Mogel biek beren idatzietan erakusten digutenez⁴⁵. Nolanahi den, han ere urri darabil Añibarrok *h*-a; bigarren edizioan, ostera, ia ezabatzen du, GBn esandakoari («La letra aspirada H no hace falta en el bascuence, sino quando entra en composición de *cha*, *che*, *chi*, *cho*, *chu*, v.g. *emenche*, *anche*, *orche*, etc.» 167.or.⁴⁶) jarraituaz:

A34 *abitu* : B39 *abitu*; A91, 120, 216 *hereje* : B101, 127, 229 *ereje*; A92(2), 93(2), 211 *hortu* (baina 220, 221 *ortu*) : B101(2), 102(2), 151, 212, 234(2) *ortu*; A89 *hostia* (baina 104, 111(2), 113(3), 116, 171, 174 *ostia*) : B99, 112, 118(2), 120(3), 123, 124, 184, 222 *ostia*; A79, 82, 129, 132, 134 *hume* (baina 135 *ume*, 209 *umezurtze*) : B89, 140(2), 147, 148 *ume*, 210 *umezurtza*; A46, 97, 166, 178, 184, 201 *humil(l)* : B178, 186, 191 *umil*; A11, 14, 49, 94, 107, 181, 198, 227 *humiltasun* : B15, 18, 82, 179, 202(2), 239 *umiltasun* (azken hontan ematen da kontraexenplu bakarra: B54 *humiltasuna*).

Markinarren artean, P. Bartolome da *h*-a erabat kendu duen idazle bakarra; ezin izan dut, begirada arin batez, bederen, *h*-aren arrasturik aurkitu, ez *Dantzetan* (*onestidaderic* 50, 127; *aciendia* 39, *umiai* 42; *abitubac* 167; *onestidadia* 50, 54, 156, 157, *ondrauba* 51) ez eta *Ikasikizunetan* ere (I: *Ervas*⁴⁷ IX; *ondria* 65, *ostijagaz* 166; II: *ondrauba* 3; *onestidadiaren* 5, 6; III: *abitubac* 7; *umiac* 321; *Erege* 322; *onestidadia* 337, 338).

8. Bustidurak

Oro har, badirudi bigarren edizioan bustidura grafiak berariaz gutxitzen direla. Hori da, hain zuzen, Mitxelenak Añibarroren garaikide birengan —P. Bartolome eta Juan Antonio Mogelengan— aurkitzen zue-na, bataren erabilera harrigarria⁴⁸ eta bestearen zalantzak ikusirik:

Se hace duro creer que este «descuido» en indicar por escrito un rasgo de la nasal que sin duda estaba presente en la pronunciación del vizcaíno oriental de Eibar-Marquina sea casual si se tiene en cuenta sobre todo que escribir *n* en tales casos parece ser la regla en fray

Joanis pranzas, eta bere mintzaira, aurkezten dionean, hain zuzen; Maisu Juanek, ulertu ezinik, honela diotsa bere lagunari: «Celan ori, ituaren itoz, ta arin esan biarraz, ta *arnasa ots batzuben artian* badino gutzia?» (158.or.).

(45) *Peru Abarkan* baigorritarrari dagozkionez gain (*haraguiaren* 158, *haunzchumeac* 169, *heriotze* 157, *hilen* 158, *huñqui* 172), honako hauek aurki daitezke Zelaietaren «*Peru Abarca*-ren hiztegia»n (ASJU XII-XIII (1978-79), 149.or.; ohar bedi [cf. Mitxelenena 1978-79:208] Zelaietak ez duela bere hiztegia liburuaren azken zatia sartzen): *hebreotarrac* 186, *herege* (?), *heridac* (Peruren ahotan) 63, *heridu* 48, *honraubac* 73, *humanua* 84, baina *idalguija* (Peruk) 51, *onrada* (M. Juanek) 54, *onrau* (Peruk) 185. Era berean, *Confesio* onean *heregia* 5, *heregiaco* 5, *hostiaren* 194 bezalakoan aldamenean —ez dakit zein heinetan— *onraco* 203, *ostia* 203, 204(3), 205(2). Oraindik *h*-ari atxikiagoa agertzen zaigu bere iloba Juan Jose: *Eskolia* 1816 *honesta* 2, *honra* 68, *Heremubetaco* 165, *honrragarría* 195, *humildian* 165, *Historijaco* 139; *Eskolia* 1845 *honestidade* 189, *herenciya* 190, *Heremubetaco* 166; 82 *Ipcricitari* kontrajar dakioko, esaterako, 1816ko *Ermita* 139 : 1845ko *Hermita* aldaketa interesgarria.

(46) Kardabertzek ere gauza bera zioen *Eusqueraren berri* onetan: «*Cha*, *che*, *chi*, *cho*, *chu*, *Eusquerac* chit ascotan du: ta onetanche bai Achea ondo datorrela» (23.or.).

(47) Añibarrok, aldiz, *Herbas* (B8) dakar.

(48) *Dantzak* 3 *baino*, adibidez, ez da sekula zilegi Añibarroren usodioan, non *baña* (B-n *baya*, cf. 5.atala) eta *baño* (hala nola *egüño* A37, 47, 50, 163, 192, B54, 175, 226) <ñ>z idazten bait dira.

Bartolomé (...). La explicación del hecho puede acaso buscarse a lo largo de la línea siguiente. La palatalización en tales casos era «asémica» —creo que Azkue empleó este término, pero puedo equivocarme—, y puramente contextual (...) y todo rasgo cuya realización puede ser confiada con toda tranquilidad al automatismo del hablante (o del lector), no necesita en rigor ser indicado (1978-79:212).

Mitxelenak garaiko idazleon idazkeratik atera duen lege hau ia hitzez hitz irakur dezakegu denbora bereko teoriko ezagun baten idazkietan:

La anteposición ó posposición de la vocal *i* á la *n* dan en la composición la pronunciación equivalente a *ñ* en los dialectos en que existe, como *oina* por *oña*, el pie, *gania* ó *gaina* por *gaña*, lo que está encima (Erro 1806:77)⁴⁹.

Sudurkari honi dagokionez, A-ko <iñV> ia bakarraren alboan B-n bai <iñV>, bai <inV> ditugu:

— <iñV>: A3 *alegiña* = B5, 48, 129, 133, 134, 137, 141, 143, 145(2), 153, 155, 162, 224; A232 *bardiñak* = B244; A156 *baziñoan* = B170;

— <iñV> + <inV>: A46, 129, 177(2), 215 *deboziño* = B6, 186(2), 228, 229, 241 (baina B52 *debozino*); A141, 143 *egiña* = B143, A128, 133 *egiñaz*, A16, 69 *egiñena* = B6, A12, 42, 47, 84, 213 *egiñik* = B28 (baina B20, 79, 83, 145(2), 158, 189 *egina*, B144 *eginagaz*, B5, 123, 162, 84, 50 *eginak*, B134 *eginaren* (=A74) B79, 122, 130 *eginen* (=A115), B21 *eginetan*, B24 *eginenik*, B5, 16, 34, 53, 81, 11, 116, 171, 173(2), 189, 205, 213, 210, 218, 220, 221, 224, 226, 236 *eginik* (=A24, 30, 38, 47, 72, 172, 178, 205, 209), B10, 21, 47, 50, 65, 94, 124, 155, 189 *eginiko* (=A6, 18, 44, 133, 139, 157); A7, 21, 69, 79, 82, 84, 103, 168, 219 *eskiñi* = B11, 25, 79, 90, 118, 120, 117, 179(2), 180(2), (baina B111(2), 112(2), 128, 180, 187, 232 *eskini* = A90, 122); A1, 4, 5, 20, 82, 123 *zeregiña* = B1, 9 (baina B40, 129(2), *zeregina*);

— <inV>: *atsegiña* A27, baina, B57 (eta A50) *atsegina*; A8, 16, 21, 27(2), 50, 51, 52, 53, 60, 68, 72, 161, 173, 177, 203, 205, 214, 220, 223, 224, 236 etab. *Birjiña* : B12, 25, 31, 43, 58, 60, 62, 68, 110, 176, 208, 210, 231, 234, 236, 244 etab. *Birjina*; A8, 141, 187, 209, 226, 229(7), 230 *erregiña* : B12, 156, 194, 208, 239, 241, 242(7) *erregina*; A21 *ileziñau* : B16 *ilezina*; A128 *eragiña* : B19, 45, 76, 136, 138(2), 144, 174, 192 *eragina*; A67, 164, 167, 178 *erexegiña* : B75, 170 (eta A50, 156) *erexegina*; A218 *giñian* : B232 *ginean*; A7, 186 *ziñaidezan* : B12 *zinaidazan*.

Hitz bukaerako *-iñ* oso gutxitan dakusagu A-n (A12 *ileziñ*; A41 *atsegiñ* (baino A66 *atsegin*); B-n ordea behin ere ez⁵⁰.

(49) Gogora bedi Larramendik aterabide bera proposatzen ziola /s/-ren korapiloari.

(50) Cf. B28 *il-ezin*, B56, 61, 65, 75, 76, 205(2) *atsegin*. Bestelakoa da *oñ*-en kasua: A88, 92, 105, 203, 204 *oñak* = B98, 101, 205, 215; baina B48, 228 *oñ* vs. B209 *oiñ*; berdintsu B58 *usaña* baina B70 *usaiñ* eta are 223 *usaintsuakaz* (=A22). Inoiz, bestalde, A-ko *in/iñ* zalantza baren ordez <ñ> dugu, B-n: A130 *arrañaz* / B138 *arraña*; A135, 184, B59, edozein / B152 (=D129) *edozeñeri*; honekin batera, aldiz, kontrakoa ere ikus dezakegu: A162 *zeñentzat* : B174 *zeñentzat*; A123 *zeñen* : B129, 165, 222, 223 (eta baita A102, 150 ere) *zeinen*. Ikusitakoaren arabera, sistema berrian <in> edo <ñ> hutsa aski dira bustidura adierazteko, <iñ> baztertueak nolabait informazio gehiegi ematen zuelarik bokale ondoko testuinguruetan. Azkenik, markatzekoa da behin behintzat bustidura grafia ezberdinak esanahia bereizteko ere erabiltzen dituela B-n: «mihia» A41, 60, 189, 158, 171 *miñ* / «mina» A104, 115 *miñ*; 31, 74 *miña*; 25, 40, 124, 142, 145, 167 *min*; 179, 209 *minak*. B-n, ordea, «mihia» 143 *miñ*, 173 *miña*; 178, 181 *miña*; 47, 68 *miñagaz*; 225 *miñik* / «mina» 204, 208, 219, 221 *min*; 188, 206 *minak*; 205, 226, 233 *minez*.

Albokariekin ere, A-n bokale artean <(i)ll> nagusi bada, <il> dugu grafiarik normalena B-n:

A8, B246 *dedilla* : B12, 13, 49, 190 *dedila*; A43, 181 *erabilli* : B18, 48, 49, 50, 53, 112, 133, 134, 189, 212, 217, 218, 223, 230 *erabili*; A8, 82, 165 *ibillera* : B13, 93, 177, *ibilera*; A99 *illuntza* : B10, 108 *iluntza*; A64(2), 92, 171, B92 *ibilli* : B56, 73, 88, 101, 139, 146(3), 147, 151, 154, 152, 205 *ibili*; A38 *eztidilla* : B43 *eztedila*; A13, 150, 189, 190, 203, 205(2), 206, 207(2), B165 *illik* : B17, 34, 207, 208, 210 *ilik*; A33, 114, 119, 160, 164, 207, 209(2) *illa* : B38, 79, 121, 126, 208(2), 222, 244 *ila*; A14, 19, 20, 69(2), 75, 77(3), 110 *ille* : B17, 22, 24, 76, 85, 87(3), 117 *ile*; A23 *nadilla* : B27 *nadila*;

-ll eta -llK ere askoz ugariagoak dira A-n B-n baino:

A34 *ill-janzi* : B39 *il yantzi*; A22(3), 28, 77, 102, 144, 167, 189, 205(2), 233(2) *ill* : A6(2), 40, 45, 48, 222, B46, 52, 55, 100, 110, 143, 157, 173, 179, 182, 193, 207, 212, 216, 244, 245(2) *etab. il*; A160 *illgo* : A6, 22, 142, 143, B10, 26, 157, 159, 195, 215, 220 *ilgo*; A116, 174 *illte* : B33, 233, 235 *ilte*; A206 *illtzara* : B207 *iltzara*; A183 *illtera* : A87, 180, B95, 188, 190, 194, 220, 224, 225 *iltera*; A111, 115, 204 *illtzan* : A89, 171, B110, 206 *iltzan*; A91, 146 *ongill*; A46, 166, 201 *humill* : A97, 178, B178, 186, 191 *(h)umil*;

9. Azentua

A edizioaren bereizgarrien artean azentuak markatzea sartzen da: ez hitz guztietan, baina nahiko ugari agertzen da liburuaren lehenda-biziko zatian; 100. orrirantz urritzen doa, alabaina; 114-115. orrialdeetan lehengo maiztasunera bihurtzen den arren, handik aurrera ez dugu bakanen bat baino aurkituko: hots, oro har 116. orritik bukaeraino ez dago azenturik.

Desagerpen honen azalpenik ez dugu, ez eta ELaren eskuizkriburik erabakitzeke, adibidez, ea egileak berak horrela jokatu zuen ala arazo teknikoek eragotzi zuten aurrerantzean markatzea. Añibarroren gainerako idazlanen eskuizkribuetan begiraturik, geroagoko dirudien *Nekea arinduriken* azentua A-ko lehendabiziko zatiaren antzera dakusagu obra osoan zehar. *Geroko geroaren* itzulpenean eta *Misionari Euskaldunean*, aldiz, askozaz urriagoa da. Ez da inon, dena den, edizio horretan bezalako bapateko desagerpenik.

Azentuaren lekuari dagokionez, badirudi lehendabizikoz Larramendik eta gero Añibarrok berak GBko «Acentos» (168-169.or.) atalean bilduriko azentu-sistema goitik behera jarraitzen dela ELan; ikus ditza-gun adibide apur batzu:

«... de los nombres sin sus artículos, sea regla cierta, que todos ellos tienen el acento en la última» (*El imposible vencido* 350.or.): *adibidé* 75; *adimentú* 15; *adú* 51, 52; *aitá* 43, 63, 66; *aldé* 73; *amá* 77, 84; *ondrá* 61; *anguerú* 9, 18, 46; *ardurá* 25, 34; *arerió* 81. «...del nombre declinado, ó tomado con su artículo, como éste es subjuntivo o pospuesto, parece tan del nombre que suena como si fuera parte del. Pues por esto passa el acento del nombre al artículo en singular: y la regla

universal es que se acentúa la última» (id. 351.or.): *adimentuá* 45; *arduréa* 79; *arimeá* 12, 20, 21, 32, 40, 48, 69; *arnaseá* 27; *arrotasuná* 18; *astiá* 60, 79; *ateá* 55. «Si el nombre está en plural, el acento es suyo y no del artículo, y está en la última syllaba del nombre, tenga el artículo el incremento que quisiere» (id. 351-2.or.): *adibidéac* 76; *angueriúac* 85, 97; *asmúac* 10.

Berez, azentuak zentzu handia bide zeukan bere eritzian, zenbait zalantzazko kontutan bereizgarri gerta bait zitekeen, Larramendik *h-a* zela eta erakutsi zuenez (cf. 7.atala):

Hai nombres que no se pueden distinguir si son singular o plural sino es por el acento: y por eso es mui necesario éste para la construcción bascongada (GB 168.or.).

Teoriko bezala haxe dioen arren, B-n azentu marka guztiak desagertzen dira, gutxi batzu —eta ez esanguratsuenak— salbu:

A1, B1 *cristiñauá*; B12 *lar-beré*; B16, 59 *beinberé*; B5, 21, 136, 148(2) *beré*; B1a, 21 *ce*

eta tankera honetakoak; huskeria hauetaz gain, B-n azentuak zeregin bakar bat dauka: bertsoetako pundua adieraztea, alegia.

10. Ondorio gisa

Begibistan da dagoeneko *Esku-liburuaren* grafi aldaketen ikerketan aurreko, atzeko eta inguruko beste askorenek lagundu behar izan dutela, nahiz eta zitezkeenetarik bat baino gehiago zintzilik gelditu bide zai-gun, gure ezin-iritsia edota itsumendia gaindituko dutenen zai. Nolanahi ere, Añibarroren jokaeren azalbeharrak Larramendiren idazlanetarik ibiltzera eta are aspalditik euskaldunen begietarik urrun, ia zigorpean, dautzan Astarloa, Erro eta Zamakolaren liburuak irakurtzera eramán gaituenez gero, aukera profita dezakegu gure hainbat aurreko-rentzat «iluntasunen mendea» izan zen garai hartan barrena argi bizi-rik ez baina agian izpiren bat bizteko. Zeren eta Añibarroz —eta Zabalaz berebat— esan daitekeenaren zatirik handiena, garrantzitsuena behar-bada, euskalari haiek eginetatik eta haiekin sortu girotik bait datorki-gu: ez gaude jada begiak itxita idazteari ekiten dion horietako baten aurrean; gure frantziskotarrok beren garaiko gizonak dira, esan ohi den legez, ikusmira komentutik at dutelarik, misioaldietan eta irakur-keta jorietan, hizkuntz erizpide eta ekintzetan.

Grafiaren azterketan zehar, lehen eta behin, Añibarro Larramendi eta Astarloaren aurrerapenak lotzen jakin zuena bezala ageri da; larramenditartasunean iminirik galdu gabe —berarentzat *Maisua* zen eta—, sasoiak etorri eta joan, bazen mende erdi luzea andoaindarraren azken liburua argitara zenetik. Euskara langai zein lan-gai zuen bat ezin zitekeen, bada, hartan gelditu eta Añibarrok bere kasa, bestean oinarri harturik, gramatika eta hiztegia ontzen ditu etengabe, Larramendik utzi hutsuneak bete nahian.

Grafiari dagokionez aipatu beharrekoa da *Gramática bascongadan* —«Pronunciación» deritzan atalean (167-168.or.)— orduko grafi-erizpi-deak biltzen dituela, zeintzuk —nola bestela?— agerriki Larramendiren eta Kardaberatzen erakutsietarik atereak diren, batarenetarik bestea-renetarik baino areago. Azterna guztiek agertzen digute ezen Larramendiren *El Imposible vencidoko* gai bereko atala hartu zuela gidari, hango berriei Kardaberatzenak erantsiz. Aski da hasierako ahapaldia ekar dezagun:

La pronunciación de la lengua bascongada es generalmente dulce, suave, graciosa, sin aspereza ni violencia alguna. Escrivese como se habla; y por eso para ambas cosas de pronunciación y ortografía y modo de escribir se tendrán presentes las reglas siguientes (167.or.).

Larramendik honela zioen:

La pronunciación del Bascuence es generalmente muy dulce y graciosa, sin aspereza ni violencia alguna. Escrivese como se habla y quando se habla, se escribe con facilidad, como ya está ponderado en la Demonstración previa (337.or.).

Handik aurrera besteak esana laburtu du maiz, baina inoiz xehetasunen batean bere iturria baino gehiago luzatu da eta Kardaberatzen iruzkinak K, V, Q eta hasierako R-ari buruz ere bereganatu ditu moldaturik; gipuzkoarren idazlanetan zetorren TT letrazkoa kendu eta «UI» ataltxoak markinarren idazkera bereziak behartua sartu du, hala nola bizkaitar tradizioan —bera barne— erabili ohi zen SS-a ere.

Honek adierazten digu, lehenik, XVIII. mendetik hurrengoaren hasierara arte idazleen artean arazo beretsuek iraun zutela; baita hauei ematen zizkieten konponbideak ere ezer gutxi aldaturik zeudela.

Erakutsirik gelditu da lan honetan zehar 1802ko edizioan Añibarro tradiziozko garaian (gogora hasierako zatiketa) sartuta dagoela, Larramendik zabaldu pare bat usadio (*b/v* banaketa, *tz-ts*) erantsita bada ere. Oraindik, bada, «larramenditarrago» izan zitekeen, baldin Larramendik asmatu <is> digrafoa erabiltzera abiatu bazen, *h*-a hitz homofonoak bereizteko egokitu edo (Kardaberatzek nahiago izan zuen bide-tik) euskaratik kanpo utzi bazuen; azkenik, mailebuak behin betikoz euskal hitzizat bataiatzen bazituen, hitz jatorretarik urruntzen zituen *v*-a *b* bihurtuz.

Gure susmoak egia badira (cf. Urgell 1987) holako zerbait egitera deliberatu zen 1808 inguruan (*Misionari euskalduna* datajartzaile hartuta), zeren eta 1802-1821 tartean kokatu ditugun idatzietan bapateko ez den aldaketa ttiki bat ikusten hasten bait da Añibarroren grafian: orduko eskuizkribuak gainetik zuzendurik daude tarteka, eta *v*-ak *b*-z estalirik ikus ditzakegu, hala nola *h*-ak arras gutxiturik; soilik <is> ez zen bere egitasmu berri honetan sartu; esan bezala, <ss> eta <x>aren artean betetzen du horren lekua, lehen bezala baina agian sistimatasun gehiagorekin.

Halere, ez dakigu —eta jakingarria da— Añibarro honetan aitzindaria den ala beste larramenditarren gisan dabilen; badirudi, ordea, ez dagoela Larramendik proposatutakoari hain ondo lotzen zaionik, maisuak ateak aski zabalik utzi bait zituen, erizpideak —ezen ez aginduak— eskeiniatz. Agintzera etorri nahi izan zuena Kardaberatz dugu; alabaina, eredurik hoherena norberak egiten duena izaki, bere ospe guztiak ez zion grafian eskolarik sortzeko balio; Larramendiren atzetik eraiki zen grafi-sistema, anitz pundutan egongaitz eta istilutsu izanda ere, nahiko izan zutenek nekez jarrai ziezaioketen bere maisuaren bideak ezeze bereak ere jarraitzen ez zekien bati.

Dena den, Añibarrori, idazketa eta zuzenketa lan horretan zihar-duela, Zabala albora eta euskalari berrien idatziak eskuetara iritsi zitzaizkion; lehendabizikoa 1815. urtean eta besteak 1803 ondotik, urte honetan argitaratzen bait da lehenengoa, Astarloaren *Apologia*. Zabala aurretiaz Astarloaz zaletua zenez gero, suposa daiteke berak sartu zuela Añibarro euskalaritzaren bide berri horietan, *Apologiaren* aitzindari zitekeen baina azkenean ezgaraiko fruitu bezala agertu zen *Discursos* begibistan izateko irrikia kutsatu bide ziola bere lankideari. Ezin gaitzke geratu, baina, gramatika itzel hori irakurriez gero Añibarro eta Zabala idazkerarekin gerta zitekeenaz gogoetak egiten.

Itxadon arren, bazegoen zereginik soberan, gramatika arloan bereziki, langile prestu hauentzat; Zabalak, Astarloarenaz idorotzerik izan zuen guztia bilduz, bere *Verbo regular bascongadoari* ekin zion, Añibarrrok *Gramática bascongadan* egin ahozko aditzaren deskribaketaren ondorio gisa eta kultur hizkuntza guztietan bezala paradigma (ustez) hoherenak, idatziz erabili behar direnak hautatuz, azalduz eta adibidez hornituz.

Ez zen hainbestekoa grafia kontuetan pairatu behar izan zuten hutsunea, Astarloaren berri eskasen ondoren Errok eman bait zien oinbide nahikoa ikasteko. Fernando VII eta Carlos María Isidroren laguntzaile (eta Done Luisen Ehun Mila Semeen *cicerone*) izan zen politikoko hark kultur gauzetan ere aritzeko astia eta gogoia erakutsi zuen; garaiko beste askoren modura, nonnahi agertzen ari ziren aitzineko txanpon eta harrietako izkribuak miatzeari eman zitzaion eta, guztiok dakigunez, ez lehendabizikoz ez azkenekoz baina bai bestek baino oihartzun gehixeago lortuaz, euskaraz baliatu zen haien izkutuak azaltzeko.

«Soy hombre en quien es herencia el error» zioen berak era ederean, eta geroko ikerketek bere ideiak banan banan deuseztatu ondoren erratutzat gogoratzen da, doi doi, idazle trebe hau; baina bere jokabidetik atera daitezkeen ikasbideak (norbaitek oraindik zerbait atera nahiko balu...) albo batera lagata, jar gaitzean orduko beste euskaldun baten tokian. Zabalarenean esaterako. Astarloari eskeintzen dizkion laudorioek ez gaituzte okertu behar, ez bait zen A. Mateo inprimaturik irakur zezakeen guztia sinistra emana, kritiko zorrotza baizik usu; Errori buruz, zehazkiago, eritzi zuhur hau ematen du: «obra elegante,

no sé si sólida» (*Noticia* 16. or.). Ez zen nor sentitzen, antza denez, aitzineko espainolen idatzietako zeinu bitxiaren mezua ondo asmatua ote zegoen erabakitzeko; baina, idazkera zaharrean irakur zitekeena gora behera, bazen Erroren aurkientzetarik ikasgai franko: Astarloak *Apolo*gian erdizka baino kontatzen ez zuena, hain zuzen. Aztertu gabe egon arren, erabili esapideez badirudi garbiro edozeinek —are gehiago astarloar batek— lot zezakeela zuzenean Erroren saioaren zati handia Astarloak euskal letren, hotsen eta silaben esanahiez idatzia zuenarekin; hain garbiro non pentsa bait zezakeen Erroren lumatik zantzu batzu bederen erdiesten ari zela; ez bedi ahaztu Zamakola eta Erro izan zirela Astarloak utzi bere idazlanen gordetzaille, argitaratzeko baldintzapean, bide batez⁵¹.

Beraz, Erroren idatzien eta Zamakolaren noizbehinkako aipamenei esker, bi frantziskotarrek euskal grafia argi berriz ikusterik izan zuten; eta, honen ondorioz, sekula inork erabiligabeko sistema berria asmatu zuten, elkar lanean apika. Sistema hori bera da *Esku-liburuaren* bigarren ediziotik aurrera eta Zabalen obra guztietan dakusguna⁵². Añibarro-Zabala grafi-sistema berriaren osagaiak —arazogabeak landa utzirik— hauexek dira:

- 1) *C* (+*a,o,u*=/k/; +*e,i*=/s/), *Z* (+*a,o,u*=/s/; azken hau *e,i* testuingurura zabal daiteke, baina analogiaz (*gauza-gauzetan*, *ezta-be-ezeban* bezalakoetan) gehienbat.
- 2) *K* (+*e,i*=/k/).
- 3) *CH* (beti /č/, sekula ez /k/, nahiz eta ordura arte ohizkoa izan LS 71 *Christiñauac*, 94 *Christo* legezkoetan).
- 4) *F* (Mogelen aurka).
- 5) *G* (+*a,o,u*=/g/; +*e,i*=/x/ eta ez da *J*-rik), *GU* (+*e,i*=/g/).
- 6) *H,J,QU,V* eta *X* desagertzen dira.
- 7) *IL* nagusi /j/ irudikatzen.
- 8) *IN* /ɲ/ irudikatzen; Ñ ere erabil daiteke, baina ez *IN*.
- 9) *NB,NP*.
- 10) *SH* = /š/.
- 11) *TS,TZ* Larramendiren erara, baita *n,r,l* ondoan ere (cf. Urgell 1986).
- 12) *Y* = /j/; grafema bera *V-i-V* adierazteko.
- 13) Azenturik ez.

Aldaketaren norabidea, bistan da, euskararen izaera fonetikoari zegokion nortasun grafikoa ematea izan zen; hala behar ere literatur hiz-

(51) Cf. Daranatz 1909:382.

(52) Guztietan delako, hain zuzen, nekez saia gaitzke zitekeen garapenaren bidez datatzen, Añibarrorenekin egin bezala (cf. Urgell 1987) Zabalenak ere, gehientsuan datagabe izan arren; data ziurra duten bakarrak sermoitegiko gutxi batzu dira, guztiak —eta hau garrantzitsua da— *Esku-liburuaren* bigarren edizioa baino beranduagoak (cf. 16.oharra). Alegiei buruz ezertxo ere ez arikigun bitartean, *Verbo regular bascongadoz* antzeman dezakegunak ez bide du balio handirik, hainbat urtetan zehar idatzia bait da (cf. VRB i-ii.or.). Honetaz gehiago jakin artean, grafi-sistema biek elkarrekin asmatua dela mantendu behar da, ene ustez.

kuntza izango bada, erans dezakegu Zabala eta Añibarroren asmoak oker ulertzeko bildurrik gabe. Baina erdaratik zetozen eredentzia bi-koitiz baliogabeok eta beste zenbait, kontrajar diezaigukete, erdaraz ere —edo batez ere— eztabaidan zeuden; solik *Academiaren* jarrera noiz berrizaleak, noiz zaharzialeak salbatu zituen, *v*, *h*-a eta *b*, *p* aurrean *m* idazteko ohitura, /kw/ balioko *qu*-ak eta /š/ zaharraren arrastoa zen *x*-a arbuatuak izan ziren bitartean; hots, Añibarro-Zabala grafi-sistima hein handian Espainian eta gaztelerarentzat egin ziren hobekuntza proposamenen isladapen ttipi, berantkor eta, batez ere, isolatua baino ez litzateke; azken finean, inork ez die bioi jarraitzailerik ezagutzen, tamalez 1845 inguruan literatur bizkaierazko tradizioa (markinarra zein arratiarra) eten bait zen. Mende bukaera heldu behar benetazko grafi-esku-liburuak eta beharrezko zen indarra ager zitezen.

Baliteke, baina ez dut uste⁵³. Alderantziz, ene aburuz, gazteleraren grafi-sistimarekiko zilbor-hestea ez zen XIX. mendearen bukaeran apurto, hasieran baizik, euskalariek aldamenen zuten literatur hizkuntzan eztabaidatzen ari ziren arazoak (euskararenak ere, eredentziaz) eta eztabaidon edukiak bereganatu, bere kasa eztabaidatu eta hautapenak egin zituztenean eta, inoiz bada, Añibarrok eta Zabalak hautapen horiek eta beste idatziz jartzen ausartu zirenean⁵⁴.

(53) 1845tik aurrera gertatua, gutxienez 1880 arte, ezezagun samar da oraindik; ondorengoa bera ere ez dago askoz ikertuagoa. Horregatik, gaur egun ez da batere erraz loturarik idorotzen; halere, han hemen ausnartutako zantzu batzuk izan badirela esatera makurtzen gaituzte: adibidez, *Esku-liburua*, grafia berriarekin, 1845, 1852, 1854 eta 1866an berrargitaratua izan zela, zitekeen maiztasunik handienarekin; Zabalaren *Verbo regular bascongado* 1848an argitara zela Gipuzkoako Aldundiari esker (ez dezagun ahaztu xehetasun hau liburu horren zabalkundea kontutan hartzerakoan). Lotura, dirudenez, Jose Ignacio Aranaren aldetik bilatu beharko dugu neurri handi batean, 1880 inguruan barreartzen den grafi-sistima berria (*Euskal-Erriakoa*, Campionen gramatikakoa, adib.) harena dela ematen bait du; guratsuko idazle gipuzkoarrak urte gutxiren buruan sistima zaharretik berrira igaro ziren, ziur aski: gonbara, esaterako, Serafin Barojaren 1874 *Carlistaren pamparroiqueria*, 1875 *Gaci-Guezac*, 1877 *Santo Tomasco feriya almanaque bilingüe erderaz eta eusqueraz para el año de 1878* etabarretako grafia aipatu aldizkari hartan ateratzen zituen artikuluetakoarekin.

(54) Diren murrizketa guztiak eginez, ezin aproposago deritzegu Lakaren (1986:2) hitzoi: «Garai honetako edozein testuren edizio kritiko erabilgarria egin nahi badugu, hasierako lana da garaiko hizkuntza zertan zegoen (edo zertan zebilen) jakitea. Euskal literaturaren gainerako garaietan ez bezala (agian Larramendiren ondorengo idazleak salbu), metahizkuntzak berebiziko eragina du garai honetan, hizkuntza idatzian. Lehenago ere baditugu gramatikagile edota euskararen gainean diharduten egileak, baina aurreragokoen lanez ez zuten gero literatur lanetan garai honetan duten adineko isladapenik». Garaian garaikoa, eta bakoitzean indar gehiagorekin, Larramendiren lanek ireki zuten teoria eta idazkeraren arteko zubitxoak inoiz baino sendoago dago Zabala eta Añibarroengan, Lakak hala definitu duen garaia kasik mende erdian aurreratuz.

BIBLIOGRAFIA

- ASTARLOA, P. P. (1803). *Apología de la lengua Bascongada*, Madrid. Faks. Ed. Amigos del Libro Vasco, Bilbo 1983.
- , (1883). *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva, o Gramática y análisis razonada de la euskera o bascuence*, Bilbo.
- AZKUE, R. M. (1891). *Euskal-Izkindea*, Bilbo.
- BLECUA, A. (1983). *Manual de crítica textual*, Castalia, Madrid.
- DARANATZ, J. B. (1909). «Astarloa, Zamacola et Erro», *RIEV* III, 375-395.
- DT = Larramendi 1745.
- EBO = Kardaberatz 1761.
- ERRO, J. B. (1806). *Alfabeto de la Lengua Primitiva de España y explicación de sus más antiguos monumentos de inscripciones y medallas*, Madrid.
- , (1807). *Observaciones filosóficas en favor del Alfabeto Primitivo o respuesta apologética á la censura crítica del cura de Montuenga*, Iruña.
- GARMENDIA, J. (1968). *Obras inéditas de Iztueta*, LGEV, Bilbo.
- GB = F. P. A. Añibarro, *Gramática Bascongada*, L. Villasanteren arg. *ASJU* III (1969) eta separata gisa, Donostia 1970.
- GOIKOETXEA, I. (1983). *Juan Bautista Gamiz Ruiz de Oteo*. Arabako Aldundia, Gasteiz.
- HERVAS, L. (1789). *Historia de la vida del hombre I*, Madrid.
- , (1805). *Catálogo de las lenguas V*, Madrid.
- KARDABERATZ, A. (1761). *Eusqueraren berri onac*, Iruña.
- IV = Larramendi 1729.
- LAKA, I. (1986). *Hiperbizkaieraren historiaz. Hastapenak*, tesina argitaragabea, EHU, Gasteiz, [Ik. orain *ASJU* XX-2, XXI-1, 2 eta 3].
- LAKARRA, J. (1985a). «Larramendiren hiztegitantzaren inguruan» *ASJU* XIX-1, 9-50.
- , (1985b). «Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737)» *ASJU* XIX-1, 235-281.
- LAPESA, R. (1984). *Manual de historia de la lengua española*, Gredos, Madrila.
- LARRAMENDI, M. (1729). *El imposible vencido*, Salamanca. Faks. Hordago, Donostia 1979.
- , (1745). *Diccionario Trilingüe*, Donostia. Faks. Txertoa, Donostia 1984.
- , (1754). *Corografía de Guipúzcoa*, J. I. Telletxea Idigorasen arg., Soc. Guip. de Ed. y Publ., Donostia 1969.
- LASA, J. I. (1977). *Tejiendo historia*, Soc. Guip. de Ed. y Publ., Donostia.
- MADARIAGA, B. (1816). *Euscal-errijetaco olgueeta ta danzeen...*, Iruña.
- , (1816-19). *Jaungoicuaren amar aguindubeetaco... icasiquizumac*, 3 lib., Iruña.
- MITXELENA, K. (1977). *Fonética histórica vasca*² Donostia.
- , (1978). «Para la historia de la ortografía vasca» *FLV* 30.
- , (1978-79). «El texto de Peru Abarca», *ASJU* XII-XIII.
- , (1982). «Un catecismo salacenco» *FLV* 39.
- MOGEL, J. A. (1800). *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac*, Iruña.
- , (1881). *Peru Abarca*, Durango. Faks. Gerediaga Elkarte, Durango 1981.
- MOGEL, J. J. (1816). *Baserritar nequezaleentzaco escolia*, Bilbo.
- , (1845). *Baserritar jaquitunaren ehecho escolia*, Gasteiz.
- Noticia = Zabala 1856.
- OLAETXEA, B. (1763). *Doctrina cristiana*, Gasteiz.
- RUIZ DE LARRINAGA, J. (1924). «El vascófilo franciscano P. Fr. Juan Mateo de Zabala» *RIEV* XV.
- SARASOLA, I. (1976). *Historia social de la literatura vasca*, Akal, Madrid.
- SEGARRA, M. (1985). *Història de l'ortografia catalana*, Ed. Empúries, Barcelona.

- ULIBARRI, J. P. (1975). *Gutun liburua* (XIX. mendearen hasierako eskuizkribuaren faks.), Gasteiz.
- URGELL, B. (1985). «Literatur bizkaieraz: Añibarroren *Esku-liburua*» ASJU XIX-1.
- , (1986). *Añibarroren Esku-liburua eta literatur bizkaiera: aldaketen tipologiatik idazkeraren garapenera*, tesina argitaragabea, EHU, Gasteiz.
- , (1987). «Añibarroren inguruan zertzelada batzu» in J. A. Lakarra (arg.), *Hiztegiak eta Testuak* [=EHU-ko Udako Ikastaroak 1986] inprimategian EHU-ko argitarapen zerbitzuan.
- URKIXO, J. (1915). «¿Historia o novela? El herrador vascofilo Juan Pablo Ulibarri», *Euskalerraren Alde V*.
- , (1919). *El Refranero Vasco I. Los Refranes de Garibay*; Faks. RIEV², XXVII, LGEV, Bilbo 1976.
- VILLASANTE, L. (1961). «El Padre Palacios (1727-1804)», *Scriptorium Victorien- se* 1961.
- VRB = Zabala 1848.
- ZABALA, J. M. (1848). *El verbo regular bascongado*, Donostia.
- , (1856). *Noticia de las obras que han salido a luz después de las que cuenta el P. Larramendi*, Donostia. Urkixo Liburutegian gordetzen den kopia eskuizkribatua erabili dugu.
- , (1907-9). *Fábulas en dialecto vizcaíno*, RIEV I, III, R. M. de Azkueren arg.
- ZAMAKOLA, J. A. (1818). *Historia de las naciones Bascongadas*, 3 lib. Auch.
- ZELAIETA, A. (1978-79). «Peru Abarca-ren hiztegia» ASJU XII-XIII, 87-199.

Geroko eranskinak

Aurreko lana argitara zenetik bost urte igaro dira; ondoko oharrok ezin dute, nahita ere, urteon luze-laburraren neurri behar bezala eman, handik aurrera han ikutu zenbait arlo, batez ere Larramendiren inguruari dagozkionak, berrartuak eta berlanduak izan bait dira (ikus azkenekotzat *Manuel Larramendi. III. Mendeurrena*, Andoain 1992). Ezinbestean, liburu honen argitaratzaileen bibliografia bikainera jo beharko du irakurleak holakoez jabetzeko; nolana ere, begira bitez Liclio Nieto eta M^a José Martínez Alcaldereen sarrerak Alejo Venegas-en *Tratado de Orthographía y acentos* eta Gregorio Mayans-en *Abecé español-i*, hurrenez hurren (Arco, Madril 1986 eta 1991).

Zehazki lanaren gaiari buruz, ez nik ez bestek, dakidalarik, ez du besterik atera. Oso hurbildik jotzen du, ordea, berriki Xabier Altzibarrek aurkeztu duen, eta laster argitaratuta ikusi nahiko genukeen tesiak, Mogeldarrak, Astarloarrak eta Prai Bartolomeri buruz, zeinaren atal oso bat hauen grafiari zuzentzen bait zaio.

Badaude, han hemen, lanean zehar, orain osabeharreko iruditu zaizkidan zenbait puntu. Esaterako, lehendabiziko orrietan, grafi gaiaren deskribaketa dela eta, tradiziozko garaiazen azkeneko zatia, hots, Larramendi ondoko idazleena, eta kritikoaren hasieraren artean benetako etenik ez zegoela esaten nuen “oraindik zehazki ezagutzen ez ditugun bideziorretarik” lot bait daitezke biak. *Zehazki* horrek esan nahi duena zera da: mende bukaera eta hasierako aldizkarietako grafi eztabaidak bildu eta ikertu gabe daudela, batetik; bestetik, J. I. Aranaren *Disertación sobre la ortografía éuskara* (1890) ikerlarien eskuetan jarri beharko litzakeela, ez bait da erraz aurkitzen; eta azkenik, honen, Arana-Goiriren eta Azkueren lanei orain arte baino arreta gehiago eskaini behar zaiela. Sarri badirudi garrantzi gehiago eman ohi diogula azken biek, batez ere, egin zuten “desegite-lanari”, ezen ez, kontra egiteko bada ere, agiri agirian daramaten eta beren aurrekoekin lotzen dituen zilbor-este handiari.

Larramendiren bustiduren tratamenduaz gehiago esan daiteke orain orduan baino. Han eman adibideek, /s/ adierazteko proposatu zituen grafema guztietarik soilik <is> aukeratu zuela eman zuten aditzera; zerrenda jadanik luze hura beste adibide on batekin osa daiteke: *DT*ko “Desmoronar, *gueldica deseguin, baraise lurreratu*”. Alabaina, horren aldean badugu orain <sy> ere erabili zuela baieztatzeko oinarririk: “Puntería, *punteria, beguisyada* Lat. Collimatio, collineatio” (cf. “apuntar, assestar, *beguichedatu*. [...] Lat. Collimo, as; collineo, as”, bestetan ere gertatzen zaion <ch> zalantzazko horrekin, oker ez banago Iparraldeko grafiaren ume (oharkabeko) baino izan ohi ez dena).

Hauen aldean, bestelako bustiduretan, gutxienez <ty> ere aurkitu dugu: “(De) puntillas, *oin puntyetan*”. Azkenik, baliteke <id> ere egotea, “desacatamente, *eiderguero, deseiderto, deseiderki, deseiderguiro*”, “desacatamente, *eiderguea, deseidertea, eidercaitza*”, “desacatar, *eiderguetu, deseidertu*” bezalakoetan: cf. *desedertu*, “desaliñar”, *desederto* “desaliñadamente”, besteen bustidura gabeko aldaerak izan daitezkeenak.

Nolanahi ere, Larramendik honetan ere jarraitzaileen bat izan zuen: cf. Mendi-bururen honako grafia hauek: *aiseri* (*OtGai* III 302), *erisco* (ib. 299), *goissoac* (ib. 303), *geroiseago* (*IArg* I 197), *goisoo* (ib. 271); hauek ere <is>aren lehentasunaren ispilu.

<sh> erabili zutenen zerrenda ere osa daiteke, eta horren historia, bide batez.

Aurreko lanean Añibarro eta Zabalaren ondoren Iturriaga eta Iztueta isolaturik bezala kokatzen nituen; are gehiago, Iturriagaren usadioa bera ere are zalantzatan geratzen zen. Bigarrenaz uste dut zalantza guztiak albo batera utzi behar direla; lehendabizikoaz, XIX. mendearen erdialdera <sh> maila bateko idazleentzat arrunta zela esan behar da, bai Uriarte bai Arrue ere horretaz baliatu bait ziren; esaterako, Uriartek, Apokalipsiaren gipuzkerazko bertsoan (1858) *ishildu* (Apoc. 8, 1) dakar, bizkaierazkoan, ordea, *issilic quelditu*, euskalki horretako tradiziorik zahar eta, antza denez, sendoenari atxikiz; bestalde, Arruek *Santa Genovevaren vicitzan* (1886) *pishca* (87) eta *ishildu* (87) gutxienez. Lehentxeago, eta nahiz Añibarro eta Zabalaren komentukide eta bizikide izan, J. C. Echavariak, ordea, <ss> darabil; hala, *Issitora* (*Onqui...* [1824] 73), *carrassiya* (ib. 28), *inchisso* (ib. 28), *issuri* (ib. 44). Ziur nago, honez gero, /s/aren adierazpenaren historiak oraindik etekin handiak itxaron ditza-keela.

Bestalde, badirudi <x>ari dagokion alderdi batean, erdaratiko hitzenean, Añibarro Kardaberatzen esanari lotu zitzaioala; alegia, 10bis oharrean salbuespen bezala aipatzen nituen bietarik bat; *essamina* > *esamina* aldaketa, horrexek bakarrik azal dezakeela dirudi; gogora dezagun: “Ekix au Euskerak bere iñoiz ere bear eztu [...]. *Egsaminadorea*, *egsaminatu*, naiz *esaminatu*, s batekin ondo esaten ta eskribitzen da” (EBO 23).

Amaitzeko, <h>a dela eta ez nuen orduan aipatu Larramendiren pasarte labur bat, agian ez bere jarrera baina bai ondoko zenbaitena hobeto ulertarazten diguna, alegia, hiztegiko “[Lapurtera] en lo escrito es embarazoso; porque lo 1º, aspiran muchas voces y en otras que no aspiran ponen sin necesidad la *b*” (2DT xxvii). Hiztegiko Eranskineko <h>-arekiko joeraz ikus daiteke orain J. A. Lakarraren ohar-rrak in *Memoriae L. Mitxelena*, 241 eta 257. or.; ene ASJU xxvi-1eko lanean ere (1992, 221 hh.) badira, azkenik, Añibaroren Harrietekiko letraldaketan oinarrituri-ko grafiazko zenbait.

Bonaparte Printzearen inguruko hizkuntz eztabaidak

RICARDO GÓMEZ

(UPV-EHU)

Abstract

The object of this essay is to give an account of the linguistic polemic that arose towards the end of the last century between Prince L.-L. Bonaparte and other Basque scholars, like W.J. van Eys, J. Vinson and A. Luchaire. This aspect has received little attention from students of Bonaparte's work. The author of this essay attempts to develop certain topics of discussion which at the time meant an advance in research on the Basque language, as well as to explain the relationship of these Basque scholars with the linguistics theories and methods of their time, and especially with the influence of Schleicher and comparative grammar in general.

O. Sarrera.

Ikastaro honen zuzendariak Bonaparteri buruz zerbait esatea proposatu zidanean —eta bihoakio ene esker ona ikastaro honetan parte hartzeko eman didan paradagatik*— garbi nuen behinik behin zertaz ez nintzen mintzatuko: printzeak urte luzeen buruan Euskal Herrian egin zituen txangoez, datu bilketez eta dialektologi lanez alegia. Izan ere, luze eta ongi, ez agian merezi bezainbat, jardun da Bonaparteren obraren alderdi hauetaz —ik., besteren artean, Arana Martija (1984), Lacombe (1907), Mitxelena (1964: 24 hh., 1988: 960), Riezu (1958), Rodríguez Ferrer (1873: 65-82), Villalonga (1953-57), Villasante (1979), Yrizar (1960, 1981)—. Haatik, hizkuntzari eta hizkuntzalaritzari buruzko eritziek hala nola euskarari buruzko lan teorikoek —euskalkien edota hizkeren deskribapen hutsa direnetatik bereizteko, nonbait— aipamen txikiren bat edo beste soilik merezi izan dute noizpait Bonaparteren obraz arduratu direnen izkribuetan. Honela, bada, gauza jakina da Bonapartek eztabaida luze eta bortitzak izan zituela garaiko zenbait hizkuntzalarirekin, bereziki van Eys eta Vinsonekin. Baina eztabaida haien nondik-norakoa ez da inon ere zehaztu. Interesgarri irudituz zait, beraz, euskalaritzaren historian garrantzi ukaezina duen polemika hartan ukitu arazoak eta eritziak bildu eta berauei buruzko xehetasun batzu ematea. Hiru arlotan jarri dut arreta berezia: eztabaidagaien azalpenean, European indarrean zeuden teoriakiko harremanetan eta euskalaritzaren nolabaiteko aurrerapena zekarten emaitzetan.

Polemika aski luzea izan zen; esan daiteke Bonaparte euskaraz arduratu zen denboraldi osoan iraun zuela. Gure hizkuntzari buruzko lehenbiziko lan teorikoan (Bona-

(*) Lan hau E.H.U.-ko Donostiako VII. Udako Ikastaroetan ("Euskalaritza XVIII eta XIX. mendeetan", 1988ko iraila) emandako hitzaldiaren testu zuzendu eta osatua da. Eskerrik beroenak berriz Joseba Andoni Lakarrari eta, orobat, Juan Jose Larrea eta Pello Salabururi testu honen zirriborro ezberdinak irakurtzeko jarri duten arretagatik eta beren ohar baliotsuengatik. Okerrak ene.

parte, 1862)¹ gerora eztabaidatuko ziren gaiak kausi ditzakegu jadanik eta, ikusiko dugenez, ia hil arte jarraituko zuen bere teoriak defendatzen eta kontrakoak gogorki errefusatzeko.

Goraxeago esan bezala, Louis-Lucien Bonaparte, Willen Jan van Eys eta Julien Vinson dira polemika honetako eskuhartzaile nagusiak. Guztiarekin ere, hauekin batera Achille Luchaire sartu beharra dago, gehienetan bigarren eskuko informazioa badarabil ere, aurrekoen lanen laburpen zehatza eta kritika zorrotza burutzen baititu. Beraz, lau autore hauen esanetara mugatuko naiz batik bat, baina ez ditut aipatzeke utzi nahi eztabaida hauetan alde edo moldez parte hartu zuen besteen izenak, zerrenda halabeharrez osagabe geratu arren: A. Burnell, Arturo Campión, Hyacinthe de Charencey, Jean Duvoisin, Manuel Gorostidi, Abel Hovelacque eta Inchauspe kalonjea.

Eztabaidagaiak zenbait ataletan banatu ditut: lehenbizi, gramatika konparatuaren eragina, batez ere Schleicher-en teoriak Vinsonengan izan zutena, aztertu dut; bigarrenik, polemikan parte hartu zuten autoreek zientzia berriari —hizkuntzalaritzari— eta beronen metodoari buruz zituzten jarrera ezberdinak bereizi; hirugarrenik, autoreok euskararen eta munduko beste hainbat hizkuntzaren artean burututako eraketak aipatu eta irazkindu; bukatzeko, iberismoaren arazoaz, euskararen bizitzari buruzko eritziez eta euskalkien auziaz esan zituztenak jaso.

1. Europako hizkuntzalaritzaren eragina.

1.1. Polemika hasten den garaian Europako hizkuntzalaritzaren joera nagusia —ez dakit “teoria” deitzea zilegi ote den— gramatika konparatua dugu, 1870.az geroztik neogramatikoen eta besteren lan hasi berriek finkatuko duten historiako ardurak hoberurik (cf. Mounin, 1983: 184 hh.). Labur esanda, gramatika konparatuaren helburua hizkuntzen arteko antzekotasunak erkatu eta beraien arteko ahaidetasuna aztertzea da, hizkuntz familiak osatzen saiatuz. Gramatika konparatuaren ekarpenik garrantzitsuena hau da: hizkuntzen arteko ahaidetasuna ezagutzeko, hizkuntza horien gramatikak, ez hiztegiak soilik, erkatu behar direla berrestea². Konparatismoak, metodo konparatiboak natur zientzietan erdietsi zuen arrakastarik handiena. Hortaz, gramatikariek metodo hori bereganatzean, zientzia hauen kontzeptuen eragin ukaezina nabaritu zuen. Izan ere, XIX. mende osoan hizkuntzari lotuen zaion hitza *organismoa* da; hizkuntza izaki bizia bailitzan ulertzen da (cf. Mounin, 1983: 166)³.

Alabaina, ez da aurreko garaietako ideekin erabateko etenik gertatzen, Alemaniako Erromantizismoarekin esaterako. Gramatika konparatuaren aitzatza jo izan den F. Boppek oraino sinesten zuen sanskritoaren bidez jatorrizko hizkuntzara (*Ursprache*-ra) iritsi ahal zela, gizahizkuntzaren lehen hitzak, lehen erro monosilabikoak bila zitezkeela. Orobat, jatorrizko hizkuntzan erroen eta esanahiaren arteko erlazioa ez zela arbitrarioa, hots, erroek berezko esanahia zutela (cf. Mounin, 1983: 181). Bestalde, W. von Humboldt, gramatika konparatuak gehiegi kezkatu ez bazuen ere, honetaz baliatu zen

(1) Guztiarekin ere, euskararekin izandako lehenbiziko harremana 1847.ekoa da, *Specimen lexicum comparativum omnium linguarum europaearum* izenburu duen lanean sartu euskal hitzak alegia (cf. Arana Martija, 1984: 34, 13. oh.). Esan behar dut alde batera utzi nahi ditudala Bonaparteren bizitza eta beraren lanen zerrendatzea. Ene ustez, printzearen biografiaz onena Villalongarena da (1953-57), nahiz eta huts batzu izan (cf. Arana Martija, 1984: 33, 17. oh.); tamalez, Arana Martijak berak (*ibidem*) agintzen digun Bonaparteren bio-bibliografia zabalagoa ez da oraindik argitara eman. Orobat, Bonaparteren euskarari buruzko lanen zerrendak —ezosoak— ikus daitezke in Lacombe (1907) eta Yrizar (1960).

(2) Ideia hau lehenagokoa bada ere —Ludolf, Lhuyd, Gyármathi, W. Jones, etab. (cf. Mounin, 1983: 166-168)—, gramatika konparatuak zabaldu eta metodo jakin baten mende bideratu zuen.

(3) Gure artean, adibidez, Unamuno gazteak ere onartu zuen gizahizkuntzaren ulerkerak hau: «Todo idioma es un organismo y un organismo que pasa en su desarrollo por tres momentos o fases, que los lingüistas llaman monosilabismo, aglutinación y flexión.» (1884: 104-105).

hizkuntzaren jatorria bilatzeko; beraren hipotesiaren arabera, hizkuntza gizagogoari hertsiki loturiko propietatea da, barne-barnekoa, gizakia eta hizkuntza batera jaio ziren eta (cf. Mounin, 1983: 197-198). Gauza jakina da, bestalde, burutapen hauek Euskal Herrian, Astarloarengan zehazki, izan zuten eragin zuzena⁴.

1.2. Ez dut luzatu nahi izan gramatika konparatuaren ezaugarrien azalpenean, zenbait ideia orokor ematera mugatu naizelarik. Hala ere, interesgarria deritzot, gramatika konparatuaren berezitasunak hobeki ezagutzeko eta honek euskalari hauetariko zenbaitengan izan zuen eragin nabarmena ikusteko, Vinsonen testu batzu (1874a: 5-6; 1874b: 238-239; 1875a; 1876a: 612; 1877a: ix-xii; 1879: 146-147) eta Schleicher-en teoriak⁵ xehekiago erkatzeari. A. Schleicher-en ezaugarri nagusia metodoari eta fonetikari emandako garrantzia da. Lehen, metodoaz eta lan "zientifikoa" egiteaz zuen ardura, ikusiko denez, van Eysengan eta Vinsonengan ere oso ageriak dira; orobat Bonaparte-rengan, baina ikuspegi aski ezberdina darabilelarik. Bestalde, Vinsonen berak eman nahi izan zuen aditzera noiz edo behin Schleicher-en metodoaren garrantzia:

Celui qui est au courant de l'oeuvre remarquable de Schleicher; celui qui a lu et médité les principes fondamentaux, la raison d'être de cette puissante méthode, dans la rapide esquisse que le maître en a tracée, ne saurait comprendre qu'on n'essayât pas de l'appliquer à tous les produits sonores de l'organisme humain, c'est à dire aux diverses manifestations du langage articulé. (Vinson, 1874b: 239)

Schleicher-ek letrak eta soinuak ederki eta beti bereizten bide zituen, aurreko autoreek —eta ondorengo anitzek— ez bezala⁶. Badirudi, baina, garai hartako euskalarien artean ez zela erabateko bereizketa hori egitera iritsi, gehien hurbildu eta kezkatu zena van Eys izan zelarik —hala ere, behin eta berriz darabil «lettre» hitza soinuz ari delarik, garaian ohi zenez—. Orobat lege fonetikoaren garrantzia aztertzerakoan: «...les lois phonétiques sont d'un intérêt de premier ordre pour l'étude d'une langue» (van Eys, 1873a: xvii), edo «Quand nous saurons à fond les lois de la phonétique basque, nous y trouverons sans doute un auxiliaire qui nous sera très-utile» (xix. or.).

Vinsonen aipatu laugarren testua (1877a) nahiko esanguratsua da Schleicher-ekiko atxikimenduari dagokionean. Izan ere, nahiz eta bere orrialde horien xedea orduko hizkuntzalaritzaren ideia nagusiak laburki azaltzea izan («rappeler en quelques traits rapides les principes essentiels de la linguistique moderne», ix. or.), Schleicher-en teoriak eta eritziak doi-doi laburtzera mugatzen da (orobatsu 1876a: 6). Egia esan, atxikimendu ia oso hau aspaldian aipatua da⁷, eta are markagarriagoa da Vinsonen izkribuen data eta atal honen hasieran aipatutako 1870. urte inguruko hizkuntzalaritzaren aldaketak kontutan hartzen baldin baditugu.

Hasteko, Vinsonen filologiaren eta hizkuntzalaritzaren arteko bereizketa azaltzen du. Lehenbizikoa «étude principalement historique» da (1877a: x); bigarrena, aldiz, «est une science purement naturelle» (*ibidem*)⁸. *Étude* eta *science* hitzak aukeratzeak, ene

(4) Cf., hala ere, Tovar (1980: 152): «...y naturalmente critica la teoría de Astarloa sobre el significado propio de cada letra...», eta bereziki Laka (1989).

(5) Schleicher-en hurrengo aipua frantsesezko 1852ko itzulpen batetik jasoak daude, jatorrizko edizioa eskuratzetik ez baitut izan.

(6) Cf. «...les sons changent de plus en plus, les caractères alphabétiques restent immuables en montrant une époque du passé, comme l'aiguille d'un cadran arrêté.» (Schleicher, 1852: 29).

(7) Cf. «Por sus trabajos y aun por sus conversaciones, me consta que en lingüística [Vinson] seguía principalmente a Hovelacque y a Schleicher, sin evolucionar con el tiempo, en el sentido en que lo ha hecho dicha ciencia. No se recataba en proclamar su oposición a los neogramáticos y a los lingüistas posteriores a esta escuela. No discutió en realidad con ellos...» (Urquijo, 1927: 221).

(8) Cf. «L'une, qui s'appelle la philologie, étudie la langue pour arriver par là à la connaissance de l'essence intellectuelle des nationalités; la philologie appartient à l'histoire. L'autre s'appelle la linguistique; elle ne s'occupe point de la vie historique des nations: elle est une part de la physiologie de l'homme.» (Schleicher, 1852: 12).

ustez, ez dirudi batere gauza arbitrarioa denik, Vinsonek hizkuntzalaritzaren zientifikotasuna azpimarkatu nahi baitu⁹. Hizkuntzaren kontzepzioa ere ezberdina izango da, ikuspuntu batetik edo bestetik begiratuko bada. Filologoen ustez —dio Vinsonek (1879: 146)—, hizkuntza «*órgano de expresión de las sociedades humanas*» da; hizkuntzalarien eritziz, ordea, gizakiaren funtsezko ezaugarria da, «*phénomène essentiellement caractéristique de l'espèce humaine*» (1877a: x), edo beranduago adieraziko duenez:

...hecho natural, producido espontáneamente, bajo influencias externas por los órganos físicos del cuerpo, sin otro objeto que dar expresión rápida y exacta del pensar humano. (1879:146)

Era berean, hizkuntzari buruzko ikuspuntu edo azterbide bietariko bakoitzak metodo ezberdin bati jarraituko dio. Horrela, bada, filologia metodo historikoaz baliatzen den bitartean, hizkuntzalaritzak, natur zientzia denez, beste natur zientzien metodoa erabiliko du, hau da, metodo konparatiboa. Hizkuntza izaki bezala aztertzen du, beste-lako «*organismes naturelles*»-en parean jartzen duelarik:

Qu'on l'appelle *linguistique, glottique* [Schleicher-ek gogokoen zuen izena] *glottologie* et même, par un abus trop persistant, *philologie comparée*, la science du langage suit la méthode des sciences naturelles et ne procède que par l'observation et l'expérience. (Vinson, 1877a: x)¹⁰

Urte batzu lehenago, xehekiago adierazten ditu hizkuntzalaritzaren metodoaren beheharrak:

La méthode de la science du langage, ainsi entendue, devra donc être celle des sciences naturelles. Elle devra s'occuper d'étudier isolément les éléments constitutifs des langues, leur nature, leur composition matérielle, leurs modifications, leurs affinités, leurs tendances; elle devra ensuite, à l'aide des éléments étudiés de la sorte dans plusieurs organismes, établir une classification générale toujours flexible, toujours accessible à l'introduction de nouveaux membres doués de caractères élémentaires spéciaux. (Vinson, 1875a: 6-7)

Ohar bedi orain arte zenbat aldiz agertu zaizkigun *nature, natural* edo *naturelle* hitzak hizkuntzalaritza berriaren zehazkizunak ematerakoan. Schleicher-entzat adjetibo honek oso esanahi zehatza du: naturala legeen menpean, borondateatik at dagoena da, askatasunik ez duena¹¹. Natura / Historia kontrajarpena Schleicher-en pentsakeraren sustraietan dago, eta hurrengo orrialdeetan azalduko diren arazoetan behin eta berriz berragertuko zaigu. Hizkuntzalaritzak, beraz, hizkuntzaren alde «*naturalena*» izango du aztergai, fonetika eta morfologia, alegia. Honelaxe jarraitzen du Vinsonek:

Ainsi, la Linguistique est une science naturelle. Les organismes phoniques, qui constituent son objet, sont des produits spontanés et inconscients des organes humains, soumis, en leur qualité d'êtres naturels, à la grande loi de l'éternelle variabilité, suivant les influences de milieu, de climat, de société, d'isolement, etc., mais aussi incapables d'être modifiés sous l'action d'une volonté extérieure ou intérieure, qu'un quelconque des êtres organisés qui nous entourent (1875a: 6)¹²

(9) Cf., dena den, Vinsonek beste leku batean filologiaz dioena: «*c'est une science essentiellement historique*» (1875a: 5).

(10) Cf. «*La méthode de la linguistique diffère donc totalement de celle des sciences historiques, elle doit être la méthode des autres sciences naturelles.*» (Schleicher, 1852: 3)

(11) Cf. «*Il ne faut point croire que la langue, comme appartenant au côté naturel ou non libre de l'Homme, soit exempte de cette loi, qui se montre aussi dans la série des organismes naturels.*» (Schleicher, 1852: 15-16). Schleicher-en itzultzaileak ondoko ohar hau eranstean du, bereizketaren iturria azalduz: «*L'auteur, comme hégélien, maintient la différence entre Esprit, Intelligence, Liberté d'un côté, et Nature, Non-Liberté de l'autre.*» (*ibidem*).

(12) Oso antzeko pasartea, sarri hitzez hitz, ikus bedi in Vinson (1877a: x). Cf., halaber, «*Tout ce qu'il y a dans la langue de naturel, c'est-à-dire provenant de l'essence naturelle de l'Homme, et mis en dehors de l'influence de la volonté, c'est la science des formes [morfologia?], elle appartient à la linguistique. Tout ce qui, dans la langue, dépend de la pensée et de la volonté individuelles, la syntaxe, et encore plus le style, sont du domaine de la philologie.*» (Schleicher, 1852: 4).

Nahiz eta Vinsonek soinuak («organismes phoniques») eta Schleicher-ek hitzaren formak («formes») aipatu (ik. 12. oh.), ukazina da hizkuntz erkaketan, oro har, fonetikak —eta, terminologia berriagoa erabiliz, fonologiak— eta morfologiak duten lokarri hertsia¹³.

Hizkuntzaren xedea pentsaera adieraztea delarik, hizkuntzak sailka daitezke pentsaera adierazteko modu ezberdinen arabera:

...on a constaté que les divers idiomes ont employé des moyens différents pour rendre le mieux et le plus vite possible l'idée, conception ou intuition, et sa forme variable, pour traduire avec exactitude la signification et la relation. (Vinson, 1877a: x)¹⁴

Hitz hauetan, sailkapenaren erizpide bezala erabiliko diren esanahia («signification») eta erlazioa («relation») zertan dautzan gehiegi zehazten ez badu ere, askoz garbiago adierazi zuen 1875eko artikuluan:

La plus exacte manière d'exprimer la pensée sera naturellement celle qui pourra le mieux en rendre les diverses nuances. Mais que sont les diverses nuances de la pensée? On peut s'en rendre compte par cette considération que les idées, les conceptions ou les intuitions peuvent être dirigées dans divers sens, c'est-à-dire qu'il faut distinguer, dans une idée, une conception ou une intuition, le fait qui est à sa base et la modification éprouvée par ce fait suivant le temps ou l'espace; ce que nous résumerons par ces deux mots, indiquant le but naturel du langage; «signification, relation». Le langage le plus parfait sera donc celui qui exprimera simultanément la pensée et sa manière d'être, le fait et sa modification, la signification et la relation. (Vinson, 1875a: 1)

Hortaz, esanahia eta erlazioa adierazteko bideen arabera, hiru hizkuntz multzo («groupes» dio Vinsonek (1875a; 1877a), baina gainerako izkribuetan gehien erabiltzen duen izena Schleicher-ek ere badarabilen berbera da: «classes») bereiz daitezke, Humboldt-ek lehenbizikoz bereizitako hiru tipologi talde ezagun eta klasikoak, hain zuzen. Lehen taldean hizkuntza isolatzaileak («monosyllabiques» edo «isolantes») sartzen dira. Hizkuntza hauetan hitz guztiek —erroek, nahiago bada— esanahia dute eta erlazioa bestelako bideez adierazten da: «le premier, celui des langues isolantes où les racines monosyllabiques sont toutes significatives et où les relations ne s'expriment que conventionnellement, c'est-à-dire ne s'exprimaient pas à l'origine» (Vinson, 1877a: x)¹⁵. Bigarren taldea osatzen duten hizkuntza eransleek («agglomérants, composants ou agglutinants» (1875a: 3)), aldiz, bi motatako hitzak dituzte, bata esanahia adierazten duten erroak eta besteak esanahia galdu duten eta erlazioen berri emateko lehenbizikoei eransten zaizkien erroak: «A une racine significative, on ajoute, soit devant, soit derrière, une autre racine qui devient en quelque sorte l'accessoire, le corollaire, le complément de la première dont elle ne sert qu'à modifier le sens. Ces racines de relation, ces mots secondaires s'emploient d'ailleurs aussi indépendamment comme mots significatifs» (1875a: 2), «le second, celui des langues agglutinantes où les relations sont rendues par des racines jadis significatives réduites à un rôle secondaire et subordonné» (1877a: x) eta «las [hizkuntzak] del segundo usan también dos palabras, pero la segun-

(13) Antzeko parekatzeak darabiltza Schleicher-ek ere: «...sous des formes acoustiques, c'est-à-dire par des mots...» (1852: 6). Ik., halaber, hurrengo oharra.

(14) Cf. «...chaque langue peut être décomposée en deux éléments: des notions d'un côté, et des rapports de l'autre. Les notions, les représentations, sont en quelque sorte les matériaux de la langue; les rapports entre elles font sa forme [...] On appelle significations ces notions et ces représentations. On peut dire que l'essence d'une langue se base sur la manière dont elle exprime acoustiquement, c'est-à-dire par un mot, les significations et les rapports (ou relations)» (Schleicher, 1852: 7).

(15) Schleicher zehatzagoa da hizkuntza isolatzaileek erlazioa nola adierazten duten azaltzerakoan: «Une langue à monosyllabes ne se compose que de racines, de mots exprimant une signification, et qui renferment implicitement la relation [...] par la place qu'on lui fait occuper dans la phrase, par l'accentuation et l'intonation, par le geste, etc., etc.» (Schleicher, 1852: 9).

da de estas queda reducida al oficio de servidora, vasalla ó esclava, y no tiene existencia independiente» (1879: 146)¹⁶. Azkenik, hizkuntza malgukari edo flexiboetan («langues à flexion», «flexionales») esanahidun erroa bera aldatzen da erlazio ezberdinak adierazteko: «enfin le troisième, celui des langues à flexion ou le changement de relation est indiqué dans la racine-même, dans la voyelle radicale» (Vinson, 1877a: x-xi)¹⁷.

Zernahi gisaz, talde hauek ez dira inolaz ere itxiak, ezta —eta hauxe da Schleicher-en teoriaren gunea— estatikoak ere: «il faut en conclure que le langage est essentiellement progressif et variable dans le sens d'une amélioration constante de l'expression des relations» (Vinson, 1877a: xi). *Corruptio linguae* delako kontzeptu zaharra eta eboluzionismo berriaren ideiak bereganatu eta nahasirik (cf. Mounin, 1983: 203), Schleicher-ek uste du hizkuntzak talde batetik bestera igarotzen direla perfekzioaren xerka. Hizkuntza perfektoa pentsaera albait hobekien eta azkarren adierazten duena da, hots, —Vinsonen hitzetan— «...le système linguistique le plus parfait sera celui qui indiquera la relation par un changement dans la forme de la racine significative qui restera une» (1875a: 2), edo «...la lengua más perfecta será la que las [esanahia eta erlazioa] haga sensibles juntamente, con un sólo esfuerzo vocal» (1879: 146)¹⁸. Hizkuntzen bilakabide hau, erlazioen adierazpenaren hobekuntza prozesu hau alegia, —berriz ere hitza— «naturala» da, gizakien borondateak zerikusirik ez baitu. Honela, bada, hizkuntza isolatzaileak eransleak izatera igaro(ko) dira eta orobat eransleak flexiboak izatera¹⁹. Azken hauek baitira, goiko definizioek iradokitzen duten legez, maila gorenera iritsi diren hizkuntzak²⁰.

Alabaina, Vinsonek (1875a: 3; 1877a: xi) ohararazten du gaurko hizkuntza anitz ez direla sailkapen horretan sorburu duten antzinagoko hizkuntzen mailara iristen. Latinar eta hizkuntza erromanikoan adibidea, hala nola hizkuntza germanikoan (ingelesa eta alemanera) eta berauen ahaidea zen gotikoarena aipatzen ditu. Itxurazko kontraesan honen konponbide gisa, Vinsonek Schleicher-en teoriara jotzen du berriz ere, oraingoan esplizitoki baina. Organismoak diren heinean, teoria honen arabera hizkuntzak ere jaio, hazi, birsortu eta hil egiten dira. Honela, bada, Schleicher-ek, Darwinen lana argitara eman aurretik ere, bi aldi bereizi zituen hizkuntza baten bizian. Batetik, aurrerabide formala («développement formel») lortzen den bitartekoa: garai horretan

(16) Cf. «Voilà la deuxième grande classe de langues, celle des langues d'*agglomération* ou d'*agglutination* [...]. C'est là que le mot se forme par des membres; voilà une différence fondamentale d'avec les langues monosyllabiques. Mais ces membres ne se confondent pas encore en un seul organisme entier; voilà leur différence fondamentale d'avec les langues à flexion. Le mot n'y est donc qu'un composé de plusieurs mots conservant encore chacun une sorte d'individualité.» (Schleicher, 1852: 11-12).

(17) Cf. «Dans la troisième classe, enfin, nous trouvons la signification et la relation incorporées dans des mots particuliers, et cela sans déroger à l'unité.» (Schleicher, 1852: 12), eta «La fusion indissoluble, fusion intellectuelle, de la signification avec la relation, s'exprime dans les langues à flexion par l'inséparable fusion matérielle ou phonétique, c'est-à-dire que le radical lui-même peut subir une flexion. C'est le caractère essentiel de la troisième classe des langues.» (147-148. or.).

(18) Cf. «Une langue parfaite devait exprimer d'une manière acoustiquement complète ses éléments matériels et ses éléments formels.» (Schleicher, 1852: 7)

(19) Cf. «Nous avons ainsi le droit de nous attendre à voir dans le cours des siècles les idiomes s'élever par degrés de l'état monosyllabique à l'état d'agglutination, pour aboutir enfin à l'état de flexion.» (Schleicher, 1852: 17).

(20) Cf. «Voilà certainement la classe la plus élevée, la plus riche, la plus féconde, la plus flexible; elle seule reflète, mieux que les deux précédents, les mouvements de l'âme et de l'esprit, l'acte de la pensée, dans laquelle, on le sait, il y a fusion complète de la *signification* et de la *relation*, qui se pénètrent réciproquement.» (Schleicher, 1852: 12). Jakina, hizkuntza flexiboez ari da; eta hauexetaz jarraitzen du, hizkuntzaren eta izaki bizien arteko parekatzea (*hizkuntza = organismoa*) beste maila batera eramanez: «Les idiomes à flexion sont donc les êtres les plus parfaits de tout le Règne de la Parole; dans ces idiomes le mot est devenu l'*unité de la multiplicité des membres ou des organes*, c'est-à-dire l'organisme animal unitaire et multiple à la fois.» (Schleicher, 1852: 13). Esan behar da lehenago hizkuntza isolatzaileak mineralekin eta eransleak landareekin erkatu dituela.

hizkuntza bat isolatzaile, eransle eta flexiboen taldeetatik igarotzen da maila gorenera iritsi arte. Schleicher-en ustez, maila horixe izango zen hizkuntza indieuroparrak erdietsi zuena, esaterako. Bigarren aldian, hizkuntzak atzerabide formala («*décadence formelle*») jasaten du, flexio sistemaren gainbeheratzea eta suntsipena gertatzen direlarik: «le sens primitifs des affixes s'oubliait de plus en plus, ils s'usent, s'alterent peu à peu et finissent souvent par se perdre» (Vinson, 1877a: xi). Atzerabide formalaren hasiera, hizkuntza historian sartzek markatzen du: «La *décadence formelle* commence dès qu'une langue arrive à l'histoire» (*ibidem*)²¹. Schleicher-en teoria honetan, aurrerabidearekin gertatzen den bezalaxe hizkuntzen atzerabidea ere «naturala» da, eta horregatik bai bata bai bestea hizkuntzalaritzaren aztergai dira²².

Amaitzeko, eta euskararen ezaugarriak aipatzen hasi baino lehen, Vinsonek (*ibidem*) ohar bat egiten du Schleicher-en teorian hizkuntza eransleek duten lekuari buruz: hizkuntza eransleak bestelako hizkuntza —isolatzaile edo flexibo— baten eraginez bakarrik abiatu ahal izan dira atzerabidean (cf. halaber 1875a: 34; 1877a: xi). Eta hauxe da euskararen egoera, hain zuzen. Hizkuntza eranslea izanik, euskaldunak historiaren bidean jarri dira herri indieuroparrekiko harremanak direla eta (1877a: xv). Vinsonek euskal aditz sistemaren aldaketa ematen du adibide gisa²³:

Pendant sa vie historique, pendant sa période de *décadence formelle*, le verbe a éprouvé, en basque, des accidents dont on ne trouve nulle part d'exemple aussi complet. La conjugaison primitive ou, si l'on veut, simple et directe des noms verbaux est peu à peu tombée en désuétude et a été remplacée par une remarquable composition de noms verbaux, d'adjectifs et de verbes auxiliaires [...]. Les auxiliaires de la conjugaison périprastique sont presque les seuls restes du système simple primitif. (Vinson, 1877a: xiv)

Gaur egun hain simple iruditzen zaigun adizki trinkoen antzinasunaren kontu hau, perifrastikoak noiz eta zergatik nagusituz doazen alde batera utzirik, ez zegoen garai hartan inolaz ere zeharo erabakirik. Eritzi horretakoak ziren —Oihenart (1638)rengandik zetorren tradizio bati jarraiki— Humboldt (1817), Mahn, van Eys (1867) eta Ribáry hungariarra (1877), besteak beste. Baina kontrako eritzia agertzen zuten euskal gramatikari gehienek, esaterako Larramendi (1729), Darrigol (1827), Chaho (1836), Duvoisin (1867), Inchauspe (1869) eta Bonaparte printzeak (1869b)²⁴.

Azkenik, markagarria da aipatu Ribáry-ren *Essai...-ren* edizioari (Vinson, 1877a) Bonapartek egindako oharretan (cf. Bonaparte, 1877c), Schleicher-en teoriaren laburpenari buruz deus ere ez esatea. Onartzen ote zituen printzeak alemaniarraren ideiak ala euskararekiko arazoez bakarrik jardun nahi zuen oharretan? Nik neuk ez dut Bonaparteren izkribuetan Schleicher-en teoriari buruzko aipamen zuzenik kausitu; ikusiko

(21) Cf. «L'expérience démontre que dans les temps historiques les langues déclinent, et nous n'assistons jamais à la naissance d'une langue nouvelle. Eh bien! en voyant aux premiers rayons de l'Histoire la Langue déjà si richement développée, nous en inférons avec raison que la formation de la Langue avait lieu avant l'Histoire.» (Schleicher, 1852: 17-18), eta «Il y a donc deux époques totalement distinctes dans l'Histoire des idiomes: d'abord l'histoire de leur *développement*, c'est l'époque anté-historique, puis l'histoire de leur *décadence*, c'est l'époque historique.» (Schleicher, 1852: 19).

(22) Cf. «Quelle est la cause de cette *décadence*? Cette cause existe dehors de la libre volonté, elle est au-dessus de toutes les langues. L'histoire sociale d'une nation, surtout la littérature, pourra accélérer ou retarder la *décadence* de son idiome, mais n'oublions pas que le point de départ de cette *décadence* existe dans la nature humaine. C'est donc la linguistique, science de la nature humaine, qui aura à étudier l'histoire de l'idiome.» (Schleicher, 1852: 28-29).

(23) Unamunok euskararen flexiorako pausatzat jo zuen aldaketa hau: «Pero debo añadir que el idioma vasco guarda un lugar intermedio entre la aglutinación y la flexión, es un idioma aglutinante en el cual se desarrollan hoy mismo formas flexivas, como el paso de la antigua conjugación aglutinante a la conjugación analítica con el auxiliar.» (1884: 91). Cf. § 3.2.

(24) Autore hauen ideien laburpenerako, ik. van Eys (1875: vii-xv) eta Vinson (1868). Aditz perifrastikoaren antzinasuna aldeztu dutenen artean, M. Harrietek jarrera berezia erakusten du, adizki trinkoak euskartik kendu behar direla adierazten baitu (cf. 1741: 507)

dugunez, baina, beronen izena salbatuko du, besteak beste, Vinsonek (1877a: xxii) emandako hizkuntzalaritza berriaren maisuen zerrendatik (cf. Bonaparte, 1877c: 16).

2. Zientziaz eta metodoaz.

2.1. Hizkuntzalaritzaren aro berri honek ekarri zuen metodoazko eta zientifikotasunazko ardurak aurreko euskalarien lanen kritika eta berrirakurketa bultzatu zituen. Horrela, bada, Luchaireren (1879), van Eysen (1867, 1873a, 1875, 1879) eta Vinsonen (1868, 1879) ustez, euskalaritzaren aurreko lanak oro har, eta bereziki euskal gramatikarien lanak, ez dira zientifikoki eginak, metodorik eza nabari zaie eta akatsez beteta daude. Larramendiri buruz, van Eysek (1873a: iii-iv) uste du beraren hiztegia ona dela «à consulter», baina hutsa franko duela —gaur egun, Larramendiren helburuak aintzat harturik, haietariko zenbait merezimendu gisa jotzen dira²⁵—, hala nola euskal hitz bakoitzari dago(z)kion euskalkia(k) ez aipatzea, ordurarte erabili gabeko hitz asko sartzea, espainierazko hiztegi baten²⁶ itzulpena izatea, hainbat hitz asmatzea «entièrement en désaccord avec le caractère de la langue basque» —adibide gisa *be-* eta *des-* aurrizkiez sortutakoak aipatzen ditu— eta, azkenik, etimologia okerrak asmatzea, euskara espainieraren eta latinaren iturria dela frogatzeko.

Vinsonen eritzia (cf. 1868: 8) ulerkorragoa da, Larramendiren *Artea* eta *Hiztegia* juzkatzerakoan. *Artea* eredu klasikoei atxikiegia dela uste du eta, beraz, euskara ondo ezagutzeko ez duela balio, baina halaber ez dela ahantzi behar noiz idatzia den. *Hiztegia*-n, van Eysek bezala, bere ustez euskararen arrotz diren hitz asko kausitzen ditu.

Andoaindarra alde batera utzirik, van Eysek Astarloari buruz duen eritziari, euskalari horren beste pasarte anitzetan bezalaxe, ironia handia dario: «les voyelles isolées n'ont plus de secrets pour lui» (1873a: iv). Vinsonek, bere aldetik, Lécluse-ren *Manuel...* (1826)²⁷ kritikatzan du: «malgré son épigraphe vaniteuse, traduction grecque du triple mot de César, est loin d'être un guide complet et suffisant pour l'étude du basque» (1868: 10). Orobat, van Eysek (1875: ix) uste du Lécluse-ren gramatikak ez duela ezer berririk ekartzen; baina baduela gauza on bat, Darrigolek bezala bi aditz laguntzaile (*naiz* eta *dui*) bereiztea, alegia. Dударik gabe, Darrigol kalonjea da euskal ikerlarien artean kritikarik leunenak jasotzen dituen. Bai van Eysek (1867: «Introduction», vi) bai Vinsonek (1868: 10) nolabaiteko seriotasun eta zientifikotasuna aitortzen dizkiote *Dissertation*-i (1827). Guztiarekin ere, van Eysek zenbait akats, batik bat deklinabidearen inguruan, antzematen dizkio (1867: «Intr.», vi-viii). Era berean, Vinsonen aburuz, Darrigolen abiapuntuak —euskararen bikaintasunaz, isolamenduaz eta konjugazio bakarra (perifrastikoa alegia) izateaz duen ideiak— bere seriotasun asmo guztiak galeraztan ditu. Antzeko eritzia merezi dute Vinsonentzat Chahoren lanek (1836, 1856): alde batetik, hizkuntzaren jatorriaz nahiko zekien eta horrexegatik —Vinsonen hitzetan— «il y a lieu de regretter sa mort prématurée, car il aurait certainement contribué pour une bonne part à l'analyse définitive du basque» (1868: 13); beste aldetik, osera, ez dago batere ados Chahok euskaldunen jatorriari buruz dituen ideiekin: «Ces idées gâtent les travaux de M. Chaho» (1868: 12).

(25) Gaur egungo ikuspegiarako, ik., besteren artean, Mitxelena (1984b), Lakarra (1985a, b, c) eta Sarasola (1986).

(26) Van Eys ez bide da ohartzen Espainieraren Erret Akademiaren *Diccionario de Autoridades* zela, Larramendik berak aitortu zuenez, andoaindarrak eskuartean izan zuena: «Después de tan improbo trabajo empezé mi Diccionario, siguiendo passo por passo, y voz por voz al gran Diccionario de la Real Academia Española en sus Seis Tomos.» (1745: liiii-liv).

(27) Ik. orain obra honen edizio berria in Lakarra (1987) eta Lakarra eta Urgell (1988).

Garaiko euskalarien artean, H. de Charencey-ren eta Inchausperen lanak dira kritikarik latzenak jasotzen dituztenak. Hona zer dioen Vinsonek lehenari buruz: «l'auteur est trop porté à la complication, et plusieurs de ses hypothèses semblent très hasardées» (1868: 19). Orobat van Eysek: «nous regrettons l'assurance avec laquelle M. de C[harencey]. nous donne des étymologies plus que douteuses» (1873a: xii). Diodan, gainera, Vinson (1874b)-n Charenceyren aditz teoriaren kritika aurki daitekeela. Inchausperen aditz teoriaren azalpenean, van Eysek argudio kaxkarrak, orakulo tonua (1873a: xvii), nahasmendu handia eta terminologia «baroque» (1875: x) hautematen ditu. Vinsonek, bere aldetik, «théorie essentiellement métaphysique» (1875: 3) deitzen dio.

Egundaino bazterturik laga dugun arren, Luchairek ere (1879: 110-111) bere eritzia adierazi zuen gramatikari euskaldunen lanei buruz. Horrela, bada, uste du Larramendi, Lardizabal, Astarloa, Darrigol, Zavala, Inchauspe eta enparatuei kritikarako sena eta hizkuntzalaritza orokorraren ezaguera peitu zaizkiela, baina beraien lanetan agertu datu ugariak baliagarriak direla hizkuntzalari berrien ikerketa konparatiboetan erabil daitezzen.

Eritzi hauek oro laburtu asmoz, van Eysek hiru arrazoi erideiten ditu gramatikari anitzek euskararen berezitasuna aldarrika dezaten: gramatikari klasikoek eragin nahasgarria (1875: vi), gramatikarienez jakintasuna (1879: viii) eta «la préférence pour les explications extraordinaires, surnaturelles, quand l'explication naturelle se trouve sous la main» (*ibidem*)²⁸.

Vinsonek (1868: 24-25), euskalarien lanen kritika egin ondoren, bi motatako sailkapenetan banatzen ditu. Lehenbizikoan euskaldunak eta kanpotarrak bereizten ditu: euskaldunen artean gehienak ez dira hizkuntzalariak eta uste dute kanpotarrek ezin dezaketela euskara menperatu ezta behar bezala aztertu ere; beraien eginkizun bakarra, bestalde, ikerlari zuhurrageok erabiliko dituzten materialeak prestatzea da. Bigarren sailkapenean beste bi azpitalde bereizten ditu: batetik, jakitunak («les savants»), zeinak emaitza onak lortzeko gai baitirateke, eta, bestetik, euskalaritza jolasgarri gisa erabiltzen dutenak, inolako prestakuntzarik gabe ideia zoroak eta terminologia iluna asmatzera emanak direnak:

...et des hommes qui ont fait du basque comme ils auraient fait de l'alchimie; qui se sont amusés à cette étude, parce que ceux qui s'en occupent sont bien vus dans le pays, ou parce qu'elle est peu courue; qui, après avoir découvert du fond de leurs cabinets les singularités d'une foule d'idiomes plus ou moins inconnus, ont monté un échelon et ont fait du basque l'objet de leurs lumineuses élucubrations accompagnées d'un perpétuel étalage de mots aussi longs qu'ignorés du vulgaire; qui enfin ne se doutent pas qu'il est besoin pour être philologue d'une certaine aptitude naturelle, et qu'on ne peut faire de travail sérieux sur une langue qu'après en avoir étudié plusieurs, c'est-à-dire après s'être éclairé sur la vraie nature du langage et les principes de la grammaire générale. (25. or.)

Beste alde batetik, beren hizkuntzaren gainean idazten duten euskaldun gehienak elizgizonak dira, euskararekiko ikerketatik ondorio filosofiko eta historikoak atera nahi dituztenak. Jakina, Vinson bereziki garai hartan oraino jatorrizko hizkuntza bakar batean eta Babelen mitoan sinisten zutenetz ari da, eta hain zuzen Inchausperen pasarte bat dakar adibide gisa (25-26. or.)²⁹.

(28) Ohar bedi berriz ere *naturelle* hitza agertzen dela, hots, legeen bitartez erdiets daitekeena.

(29) Vinsonen *Ursprache*-ri buruzko eritzirako, ik. Vinson (1876a: 38).

Luchaire, van Eys eta Vinsonen kritika hauen beste muturrean Bonaparteren eritziak kausitzen dira. Printzeak euskal gramatikarien lanak defendatzen ditu, Larramendirenak³⁰ eta Inchausperearenak³¹ batez ere, haiek bakarrik ezagutzen baitute ederki eta «zientifikoki» beren hizkuntza. Hortaz, kanpoko hizkuntzalariei dagokielarik, hizkuntzalaritza orokorraz badakitela onartzen duen arren, beldur da euskaraz bereziki arduratzen ez diren hauek —ez bera bezala, hogeitamar urtez jardun izan baitu euskara aztertzen³²— huts asko egingo ez ote dituzten (cf. Bonaparte, 1876: 1). Eritzi hau Hovelacque-ri zuzendurik dago, baina Vinson eta van Eys ere aipatuko ditu beherago (1876: 17, 22).

Izan ere, ikerlari hauek, Bonaparteren aburuz, ez dute euskara ongi menperatzen, batik bat «au point de vue scientifique» (1877c: 16; 1877a: 1). Honelako erizpideak, behin eta berriz errepikaturik ikusiko ditugu Bonaparteren izkribuetan. Eta, larriago dena, Vinsonek euskara gorroto duela esatera iristen da, euskaldunak zenbait ideiarekin³³ bat ez datozelako eta ikerlari honek euskara erabat menperatzen ez duelako (1877c: 6). Egia da, eta inork ere ez zion merezimendua ukatu³⁴, Bonapartek euskararen ezagutza bikaina zuela; baina aitortu behar ere printzearen kritika hau hein handi batean gehiegizkoa bide dela, van Eysek esaterako sakonki ezagutzen baitzuen euskara, euskalki idatziak behinik behin (ez, agian, hain sakonki Vinsonek³⁵).

2.2. Metodoazko ardura, esan bezala, oso handia da garai horretan³⁶. Ikusten ari garen autore guztiak sarri askotan metodo zientifikoaz³⁷ mintzo dira, hala euskalari gehienek erabiltzen ez dutela salatzeke, nola —oso gutxitan— autoreren baten metodoa go-raipatzeko. Gorago esanaren arabera, van Eysek eta Vinsonek metodo zientifikorik eza antzemango dute aurreko euskalari gehienetan lanetan: «presque tous, enfin, me semblent conçus d'après de tout autres principes que ceux, seul féconds et logiques, de la méthode scientifique, positive et naturelle» (Vinson, 1874b: 238). Bonaparteren lanei buruzko eritziak, aitzitik, aski ezberdina da autore baterean eta besterean.

(30) Esaterako, gazt. -ez port. -es atzizki patronimikoei buruzko polemikan (cf. Bonaparte eta Burnell, 1882). Bonapartek Larramendiren eritziak —euskarazko instrumentalaren -ez atzizki bera direlakoa alegia (cf. Larramendi, 1729: 10-11)— hobesten du eta gogorri aldeztu ere, hainbeste miresten zituen Alemaniako eta Ingalaterrako hizkuntzalarien eritziak kontra hain zuzen. Hau da, gotikerazko -is genitibotik eratortzen dituen Diez-en teoriaren kontra: «Por qué en esta cuestion especial relativa á dos lenguas nativas de Larramendi, y que ha ilustrado con excelentes trabajos gramaticales y lexicológicos, no puede éste tener razon y no tenerla los sabios alemanes?» (Bonaparte eta Burnell, 1882: 204). Ik. beherago § 4.2.3.-n esaten dena.

(31) Inchausperi buruz zehazki, hona Bonaparteren pasarte hau: «Inchause un des hommes les plus profondément versés dans la langue basque, et dont l'autorité doit être considérée, selon nous, comme incontestablement supérieure à celle d'autres linguistes étrangers qui, quelque grand que puisse être leur mérite en fait de linguistique générale, rien sont pas moins des appréciateurs plus ou moins superficiels du vrai caractère de cet intéressant idiome.» (Bonaparte, 1869b: 159).

(32) Jakina, euskararen berri izan zuenetik hasten da kontatzen nonbait, ez zinez euskara aztertzen hasi zenetik, 1855-56. urteen inguruan ziurrenik (cf. Arana Martija, 1984: 35). Ik. 1. oharrean esandakoa.

(33) Campión (1878: 237) zehatzagoa izango da ideia hauen zer-nolakoari dagokiolarik: «Ojalá en lo sucesivo no tengamos que deplorar, como hasta aquí, en lo mucho bueno que producen los señores á que aludo [Hovelacque, van Eys eta Vinson], un espíritu estrecho y exclusivo que se manifiesta en la denigración metódica y continua de los escritores vascos y no vascos que disienten de sus ideas, en la mal encubierta enemiga hacia la raza euskara, sin duda porque no milita en las filas del racionalismo evolucionista...». Cf., halaber, Vinsonen erantzuna (§ 5.2.) eta Granja Pascual (1986: 225). Ikus bedi artikulua honen zenbait alderdiren ikuspegi osagarri baterako.

(34) Egia osoa esango bada, van Eysek eztabaida hauen azken aldian euskararen azaleko ezaguera izatea leporatu zion Bonaparteri: «...et avec des notions si superficielles de la langue Basque le Pce. Bonaparte voudrait discuter ce qu'il croit être des questions obscures.» (van Eys, 1889b: 52).

(35) Cf., hala ere, Mitxelena (1984b).

(36) Cf. erakusgarri gisa Unamunoren honako hitzok: «Proceder con método vale tanto como acercarse a la verdad [...]. Hoy necesitamos método, y método riguroso.» (1884: 104-105).

(37) Metodo honi erantsitako beste adjetibo batzu *moderno*, *positivista* eta *naturala* dira. Ik. beheraxea-go.

Van Eysek lan zientifikorik ez egitea, bere uste eta eritzietan soilik oinarritzea leporatzen dio: «Nous avons de nouveau ici une preuve éclatante du manque total d'une base scientifique; ce ne sont pas même des théories, c'est du guesswork, comme on dit si bien en anglais» (van Eys, 1890b: 64). Era berean, eritzi hauek egia bakarra eta aldaezina bailiran azaltzen bide ditu Bonapartek, orakulo baten gisako tonu dogmatikoa erabiltzen duelarik: «On le voit, le Pce. Bonaparte, selon son habitude, ne discute pas; il proclame un dogme [...] une parole d'oracle, deux mauvais arguments, et la chose est prouvée!» (van Eys, 1889b: 52-53).

Zer esanik ez, Bonapartek argumentu berberak itzultzen dizkio bere erantzunaren azkenean: «je crois y avoir assez prouvé que les mauvais arguments, les dogmes et les paroles d'oracle qu'il [van Eys] me reproche lui appartiennent exclusivement» (Bonaparte, 1890: 63). Zernahi gisaz, Bonaparteren harrokeria beste autore anitzek ere seinatu dute (cf., esaterako, Luchaire, 1877b: 379); eta orobat Bonapartek beste autoreri egotzi ere (ik. beherago Vinson ez dioena).

Vinsonen kritika bestelakoa da oso, askoz ere samurragoa. Vinsonek (1868: 24) Bonaparteren metodoa —inkestak egiteko txangoak burutzea alegia— euskara ezagutzeko onena dela dio; aitortu behar du, baina, ez dagoela edonoren esku (arazo ekonomikoa dela zio, hain zuzen). Halaber, printzearen *Le verbe basque...* (1869b) bukatugabea goraiatzeko du, bildutako datuen aberastasuna eta fidagarritasuna azpimarkatuz:

Ce magnifique ouvrage dont l'achèvement doit être ardemment réclamé est indispensable à l'étude du verbe euscarien. C'est le seul qui donne, d'une manière absolument certaine, les formes actuellement en usage dans tous les dialectes basques (Vinson, 1875b: 341, 2. oh.)

Azkenik, Ribáryren *Essai*-ren edizioan, Bonaparteren bi mapa famatuei bikainak deritze (Vinson, 1877a: xvii). Izan ere, xv-xviii. orrialdeetan euskalkiei buruz ematen dituen datuak oro, dudarik gabe, aipatu mapetatik bertatik ateratzen ditu. Nolanahi izanik, begien bistakoa da hizkuntzari —eta zehazkiago euskarari— buruzko ikuspuntuak Vinsonengan eta Bonaparterengan arras ezberdinak, gehienetan kontrajarriak direla. Adibide gisa, Ribáryren aipatu lanaren edizioari printzeak egindako ohar eta zuzenketa ugariak (Bonaparte, 1877c) ikustea besterik ez dago.

Jarrera bikoitz hau dela zio, ez da harritzekoa Vinsonen bi muturretatiko kritikak jasotzea, hots, Bonaparteren aldekoenak eta kontrakorik amorratuena:

Je ne m'abaisserai pas à répondre au vieux grognard ou grognon de Ciboure [Duvoisinez ari da]; il me reproche surtout de ne pas avoir adopté les théories du prince Bonaparte et d'avoir discuté ses opinions. On sait que, d'autre part, M. Van Eys me reproche le contraire, et m'accuse de traiter le prince L.-L. Bonaparte comme on traitait il y a deux cents ans "le Roi Soleil" (Vinson, 1891: 71)

Bestalde, Bonaparteri eskuharki aitortu zaion ezaugarri bat Luchairek ere aintzat hartzen du, datu biltzaile on, zuhur, zehatz eta fidagarri izatea alegia³⁸:

Toute publication du prince Bonaparte, si courte qu'elle soit, révèle des faits nouveaux, acquis par cette observation scrupuleuse qui donne une valeur scientifique au plus minime détail. Ses recherches sur le basque, en particulier, sont des modèles d'investigation linguistique, et, sans elles, il faut le reconnaître, les travaux de MM. Vinson et van Eys relatifs à la phonétique, au lexique et à la composition verbale de l'euscara, manqueraient, en partie, de la clarté et de la solidité qui les distinguent. (Luchaire, 1877b: 378)

(38) Ik., esaterako, Schuchardten ondoko pasarte hau: «La exactitud y la importancia de las formas verbales atestadas por aquél [Bonaparteren *Le verbe basque*] no sufren mengua por el hecho de no haber él sido siempre feliz en su explicación. Todo lo contrario. Lo que le faltaba de esa facultad adivinadora, y hasta diría artística, de la que tampoco puede prescindir la Filología, le sobra en aptitud y afición de observar la realidad hasta en los más mínimos detalles.» (Riezu, 1958: 160-161)-tik jasoa. Eritzi bertukoak dira Lacombe (1908c: 780), Mitxelena (1964: 25-26) eta Urquijo (1908: 215), besteak beste.

Jakina, Bonapartek ezin zuen aurreko eritziaren azken esaldia onartu. Ezin zuen onartu, alegia, berak bildu materialeek beraren ideien aurkako teoriak defendatzen zituzten lanetarako balio zutela, eta honelaxe adierazten du Luchaireri egindako erantzunean:

...nous sommes forcés d'avouer que nous ne croyons pas que les linguistes compétents en fait d'euskara puissent voir, dans nos études sur cette langue, quelque chose pouvant servir de base aux idées qui appartiennent en propre à MM. Vinson et van Eys, et qui sont loin, selon nous, de présenter cette solidité que M. Luchaire croit, dans sa compétence en fait de basque, pouvoir leur accorder d'une manière aussi gratuite.[...] nos idées sur la phonétique, sur le verbe et sur la grammaire basque en général, se trouvent confirmées par nos recherches, et [...] les idées de MM. Vinson et van Eys, lorsqu'elles leur appartiennent exclusivement, sont tout à fait insoutenables, soit parce qu'elles reposent sur des faits imaginaires, soit parce qu'elles se trouvent en contradiction avec des faits réels. (Bonaparte, 1877a: 1)

Bonaparteren eritziari heldu diegunez, ikus dezagun zer uste duen printzeak gainerako euskalariak darabilten metodoari buruz. Bonapartek uste du, gorago aditzera eman den bezala, bereziki garaiko gramatikari euskaldunek burutzen dituztela euskararen gaineko lan zientifikoak. Aitzitik, euskaraz soilik arduratzen ez diren hizkuntzalarriak, kanpotarrak hain zuzen, "amateurrak" baino ez dira. Horrela, bada, Vinson (1877a)-ri egindako oharren helburuak aipatzen dituelarik, honelaxe definitzen du bigarrenaren:

2^o. Châtier le manque de modestie, le ton dogmatique et certaines insinuations qu'un simple amateur s'est trop souvent permises en parlant d'auteurs très-respectables par leurs connaissances linguistiques... (Bonaparte, 1877c: 65)

Orobat van Eysi buruz: «cet amateur de basque» (Bonaparte, 1890: 63). Badirudi sarritan Bonaparte ahaztu egiten zela (ahaztu nahi zuela?) bera ere kanpotarra zela eta ez zuela euskara soilik aztertu. Izan ere, euskararekin bide zuen atxikimendu berezia gorabehera³⁹, gauza jakina da beste hainbat hizkuntza eta dialektoren testuak ere bildu eta aztertu zituela: Italiakoak, Frantziakoak, Ingalaterrakoak, fino-ugriakoak, etab⁴⁰.

Haatik, kanpotarrak (Hovelacque, van Eys eta Vinson batik bat) amateurtzat hartzen baditu ere, Luchaireri dagokionean ñabardura txiki bat eransten du printzeak. Luchaire asmo oneko amateurrak da: «cet amateur bien intentionné» (1877c: 15). Arrazoia begi bistan dago: Luchaire iberismoaren alde agertzen zen. Hortaz, Bonaparte Luchaireren ikuspuntuarekin bat zetorren, baina ez honek proposatzen zituen etimologia gehienekin (*ibidem*)⁴¹.

2.3. Orainokoa jaso diren aipuetan dagoeneko nabari denez, polemikari tonu gogor samarra dario. Zerrenda inolaz ere agortu nahi ez dudalarik, hona hemen erakusgarri gisa autoreon zenbait pasarte bortitz, ironiatsu eta, batzutan, iraingarri ere. Dударik gabe, Bonaparte eta van Eys dira "maisua" honelako adierazpideak erabiltzen. Esaterako, lehenbizikoa ondoko hiperbole topikoez baliatzen da maiz, kritikatu nahi dituen lanen huts ugariak azpimarkatzeko:

Si nous voulions relever toutes les inexactitudes, toutes les fausses appréciations, et surtout toutes les erreurs dont fourmille la compilation de M. Hovelacque [1876], il nous faudrait écrire un livre plus volumineux que celui qu'il vient de publier. (Bonaparte, 1876: 23)

(39) Bonapartek —el más vascófilo de los vascólogos— deitu izan zaio— euskalduntzat zuen bere burua, maila batean behintzat (ik. esaterako § 5.2.). Goraxeago esan bezala, euskaraz ederki zekien; Euskal Herria maite zuen eta, beste aldetik, ez da ahaztu behar bere bigarren emazteak, Clemence Richards-ek, zeinarekin, hainbat urtez elkarrekin bizi ondoren, 1891. urtean *in articulo mortis* ezkondu baitzen, euskaraz bazekiela; izan ere, Araian, Hondarribian eta Zegaman bizi izana zen Claudio Otaeguiaren emaztea zen bere ahizparekin.

(40) Bonapartek aztertutako beste hizkera eta dialekto haien eskuizkribuen zerrendarako, ik. González Echeagaray (1984: 115-146).

(41) Nolanahi ere, gainerakoei bezala Luchaireri ere «ton dogmatique» egozten dio (cf. Bonaparte, 1877d: 7).

Edo:

...je n'ai pas voulu faire une critique des ouvrages de M. Van Eys, car la critique m'aurait pris plus de temps que de composer un nouveau dictionnaire. (Charenceyri zuzendutako gutun batean (1884-IV-10), ik. Lacombe, 1908c: 779)

Orobatsu Vinsonek (1877a: xii) proposaturiko euskararen silaba zaharraren egitura (CV) gaitzesten duenari⁴²: «Il n'y a à tout cela qu'un petit inconvénient, le manque absolu de preuves. Et voilà la science que l'on ose appeler moderne et positive!» (Bonaparte, 1877c: 7). Edo, Vinsonek berak (1877a: 53) euskarazko *bizarria* hitza gaztelera-tik mailegatua dela esaten duenean⁴³, honelaxe erantzuten dio: «Qu'en savez-vous?» (1877c: 53). Bestalde, d'Abbadieri zuzendutako gutun batean Luchaireren erreseina (hots, Luchaire, 1877b) «passablement bête» dela diotso⁴⁴. Baina, zalantzarik gabe, ez-tenkadarik zorrotzenak van Eysi sartzen dizkio. Esaterako, Campiõni zuzendutako gutun batean euskalari holandarrari buruz honako hau dioenari :

Vous avez grand tort, selon moi, de vous abaisser jusqu'à Mr. van Eys. Ce que cet intrus de la science dit de bon sur le basque ne lui appartient pas, et tout ce qui lui appartient est plus que mauvais. (cf. Lacombe, 1932: 194)⁴⁵

Era berean, van Eysen lanetan pasarte bortizik eta ironiaz beterik ez da falta. Bes-teak beste, Inchausperi buruzko honako hau:

Si M. l'abbé n'a rien découvert de nouveau dans notre "Essai de gr. basq." il doit plutôt s'en prendre à lui-même qu'à nous; s'il l'avait lu, il y aurait trouvé, croyons nous, plusieurs choses. On ne peut malheureusement contenter tout le monde. (van Eys, 1873a: xvi)

Edo Bonaparteri buruzko beste pasarte nire aburuz oso ironia garratza darabilen hau:

Pour donner un échantillon des explications grammaticales du prince Bonaparte, nous citons un petit paragraphe, auquel nous avons fait allusion dans notre Etude sur les Auxiliaires [1875], & qui contient autant d'erreurs que de propositions. (van Eys, 1879: x)⁴⁶

2.4. Eztabaida hauetan metodologiak izan zituen lekua eta garrantzia kontutan hartuko baditugu, nor bere metodoari buruz —erabiltzen duenari edota erabili behar denari buruz— esaten dituenak ere ikusi beharra dago. Hasteko, Vinsonek bi hizkuntza-

(42) Bidenabar, diodan CV silaba egitura hori proposatzeko, Vinson euskararen hiru ezaugarri fonologi-kotan oinarritzen dela:

- a. Kontsonante geminaturik eza.
- b. Euskarak kontsonante taldeen aurkako joera («aversion») izatea.
- c. Maileguetako hitz azkeneko herskariet bokal epentetiko bat eranstea.

Bonapartek, bere aldetik, bigarren ezaugarriari murriztapenak ezartzen dizkio: batetik, silababakarretako *-ntz*, *-rtz*, *-st*, etab. ditugu, eta, bestetik, *br*, *pr*, *gr*, *kr*, eta zenbait euskalkitan *zr*, *sbr*, *tzr*, *cbr*, *nr* (azken hauek espaineratik, gaskoieratik edo frantsesetik mailegatuak ezin izan daitezkeelarik). Nolanahi izanik, euskara zaharrak zenbait kontsonante talde onartzen bide zituen (cf. Mitxelena, 1985a: 375 hh.), baina printzearen argudiaketan horrelakoak eta zalantzarik gabe talde berriagoak direnak (sinkoparen ondorio edota mailegatuak direnak) nahasten dira, gaur egun azterketa diakronikoa deritzagunaren garrantziaz batere erreparatu gabe.

(43) Cf. ...le substantif *bizarria* "vaillance" emprunté à l'espagnol. (Vinson, 1877a: 119). Cf., bestela, Comrominas: «Del it. *bizzarro* 'fugoso', propiamente 'iracundo, furioso', S. XIII, deriv. de *bizza* 'ira instantánea, rabietá', de origen incierto, quizá voz de creación expresiva; el fr. *bizarre* 'estrambótico' procede también de Italia. *DERIV.: Bizarria*, 1569.» (1983: s.v. *Bizarro*). Bonapartek bidezkoago erizten zion, erabat ziur ez bazegoen ere, euskarazko *bizar*-etik eratortzeari (1877c: 53); horrela, Echavek abiatu eta Larramendiren bitartez Diezek onartu zuen erizitari atxiki zitzaion printzea ere.

(44) Lacombe (1908)-tik jasoa.

(45) Cf., halaber, gorago "tonu dogmatikoaz" esandakoa.

(46) Jarraian, van Eysen Bonaparteren pasartea dakar, eta ondoren «proposition» bakoitzari buruzko irazkinak, honelako buru llabur bezain zorrotzak bakoitzaren aurretik ezarririk: «1^{re} proposition & 1^{er} erreur. [...] 2^{me} proposition & 2^{me} erreur. [...] 3^{me} proposition & 3^{me} erreur. [...] 4^{me} proposition & 4^{me} erreur.» (x-xi. or.).

ren edo gehiagoren arteko ahaidetasuna (genetikoa erantsi beharko?) frogatzeko hizkuntzalaritza historikoak finkatu zituen erizpide berberak aipatzen ditu:

La parenté de deux ou plusieurs langues ne saurait en effet résulter uniquement d'une même physionomie extérieure; pour conclure à une communauté d'origine, il est indispensable que, comparés à un même degré de développement, leurs principaux éléments grammaticaux soient non-seulement analogues par leur fonction, mais encore qu'ils se ressemblent phonétiquement d'une manière suffisante pour rendre admissible l'hypothèse de leur identité primitive. Il sera sage de ne point affirmer, les racines significatives, qui sont après tout le fonds propre, la haute origine du langage, se trouvent être totalement différentes. Jusqu'à présent, aucune langue n'a présenté avec le basque une similitude de racines analogue à cette qu'on a depuis longtemps constatée entre le sanscrit, le grec et le gotique ou entre l'arabe et l'hébreu. (Vinson, 1877a: xviii-xix)

Aipu luze honetan aurreko euskalaritzaren kritika eta ikerketa berriek jarraitu behar duten bidearen proposamena kausitzen dira. Izan ere, euskararen ahaideak bilatzeko aurreko ahaleginak —eta ondorengo hainbat ere—, kasurik hoberenetan, hitz banaka batzuren antz fonetikoan oinarritzen ziren. Erkatzen ziren hitzak, bestalde, edozein euskalkitakoak eta garaitakoak izan zitezkeen, beste hizkuntzako edo hizkuntzetakoak garai ezberdinekoak izanagatik. Gainera, askotan, erkatutako hitzen esanahiak ere ezberdinak izateak ez zuen eragozpen handirik sortarazten. Vinsonek, berriz, honelako lan alferrikakoen aurrean, zenbait hizkuntzaren artean ahaidetasuna dagoela baieztatu ahal izateko betebeharezko baldintzak ezartzen saiatzen da. Lehenik, erkatu nahi diren hizkuntzek bilakaera maila berekoak izan behar dute («comparés à un même degré de développement»), hots, Schleicher-en teoriaren arabera, hizkuntza bat *isolatzaile-eransle-flexibo-garai historiko* aldietatik igarotzen baldin bada, hizkuntzak prozesu horretako maila beretik igarotzen direlarik hartu behar dira, erkakizun izango badira⁴⁷. Euskararen kasuan, hizkuntza eranslea izanik, beste hizkuntza eransleen artean soilik bilatu ahal izango dira ahaideak. Bigarrenik, gramatika elementu nagusiak —ez “hitzak” bakarrik— erkatu behar dira; gramatika konparatuaren abiapuntua, ikusi dugunez. Hirugarrenik, ez da nahikoa elementuok funtzio bertsua betetzea; gainera, antzekotasun fonetikoak funtzio bereko elementuek jatorri berbera dutela frogatzeko adinekoa izan behar du. Azkenik, esanahidun erroen («racines significatives») artean ere, parekotasun franko bildu behar da. Baldintza guzti hauek garaiko ikerketarako aldaketa ikaragarria bazekarten ere, gaur egun badakigu ez direla nahikoak hizkuntzen arteko ahaidetasun genealogikoa, den abstrakzio kontua dela, erabakitzeke (cf. Mitxelena, 1964: 161 hh.).

Beste toki batean, Vinsonek proposatzen du euskara eta iberikoa egokiro erkatu baino lehenago ezinbestekoa dela, euskalkien azterketaren bidez eta hizkuntzalaritza berriaren metodoak erabiliz, euskararen berreraiketan ahalik eta gibelenera jotzea. Hemen berriro ere halako axola erakusten du ikuspegi historikoaz:

Si la langue des inscriptions ibériennes est parente du basque, il faudra, pour pouvoir utilement l'en rapprocher, avoir remonté aussi loin que possible dans l'histoire de la langue euscarienne; c'est là un travail préparatoire essentiel, mais qui n'est point fait encore. Par conséquent, il convient avant tout de s'appliquer à reconstituer, par une analyse rigoureuse des dialectes actuels conformément à la discipline sévère de la science contemporaine, l'état auquel le basque était parvenu avant sa séparation en dialectes. (1874a: 9)

Bestalde, Vinsonek euskararen azterketarako bazterretako euskalkien (zehazki bizkaieraren eta zubereraren) ikerketaren garrantzia ere azpimarkatuko du:

Le souletin, qui a développé ainsi bien des séries de changements phonétiques, en est devenu d'autant plus important pour l'étude de la langue, et je persiste à prétendre que, si l'on ne

(47) Cf. Unamunok (1884: 104-105) erizpide honi egindako irazkina.

peut comprendre les huit dialectes dans une étude générale, il faut y faire entrer les dialectes extrêmes; à ce point de vue, le souletin et le biscayen, dont les verbes notamment sont très-riches et très-instructifs, doivent très-certainement venir avant les dialectes navarrais, tous mixtes ou intermédiaires. (1875b: 346)

Horrela, badirudi Johannes Schmidten *Wellentheorie* famatura⁴⁸ edo, areago, Bartoliren eta Italiako neolinguistikaren Bazterguneen Erizpidera⁴⁹ hurbiltzen dela.

Van Eysek, bere aldetik, honako esaldi esanguratsu hau eskeintzen digu: «les mots disent assez leur propre histoire» (1873a: xxxvi). Zer esanik ez, geroago «barne berre-raiketa» deitura izango zuenaz ari da⁵⁰. Eta esanak betez, *-a* artikuluaeren etimologia **ar* dela erakutsi zuen (izartxoak guk jarria da), euskararen barneko frogak ematen dituelarik (cf. van Eys, 1873b).

Azkenik, Bonaparte printzeak, zenbait izkributan barreiatu (cf., batez ere, 1876 eta 1877b), bere metodoaz dioena agertu nahi dut. Lehenbiziko berezitasuna, jakina denez, inkestez baliatzea da, hots, hitzunengandik beraingandik jasotako datuak biltzen ditu «sur les lieux mêmes» (1876: 19). Bigarrenik, ahalik eta hizkera edo euskalki nahasketa gutxien duten hitzunengandik soilik jasotzen saiatzen da (1877b: 5). Hirugarrenik, datuak behin eta berriz eta kontu handiz egiaztatzen ditu, datuon balioaren ziurtasun guztia izan artean:

Ce procédé a été répété quelquefois jusqu'à trois fois avec des personnes différentes, et tous ces terminatifs verbaux n'étaient admis que lorsque l'accord était complet entre les habitants originaires de chaque localité. (1876: 19)

Edo, Gipuzkoako hizkera ezberdinez bildutako itzulpen eta datuei buruz:

...travaux qui ont tous été faits ou rédigés avec le plus grand soin sous la dictée des gens du pays, et dont l'exactitude a été constatée à plusieurs reprises par des personnes autres que les traducteurs et également compétentes. (1877b: 32)

Metodo berdina darabil Lardizabal, Zavala eta Inchauspe gramatikariek bildutako adizkiak egiaztatzeko (1876: 19). Dakusagunez, datu-bilketaren xehetasunik inimiñoenak ere zaintzen ditu⁵¹. Horregatik, agian, ez zaio arrazoirik falta bere azterketek gainerrako hizkuntzalarien —zehazki Vinsonen— euskal dialektologiako lanak zuzentzeko eskubidea ematen diotela esaten duenean (1877b: 32). Damurik, baina, eskubide hori ez zuen beti behar bezain zintzo bete eta, esaterako, batzutan bere laguntzaileek bidalitako itzulpenak «sur les lieux mêmes» zuzentzen zituen, hizkera bakoitzaren bateratasuna edo lortu asmoz eta beharbada zenbait hizkeratako aldaeraren batzuri atearak itxiz⁵².

(48) J. Schmidtek *Die Verwandtschaftsnerhältnisse der indogermanischen Sprachen* (Weimar, 1872) liburuan proposatu zuen lehen aldiz Uhinen Teoria (cf. Bynon, 1981: 266 hh.), aitzindaririk bazegoen ere (cf. Mitxelena, 1976: 78).

(49) Honetan ere formulazioaren aurretik ideia somatu zuenik ez da peitu, Schuchardt esaterako (cf. Mitxelena, 1976: 75, 3. oh.).

(50) Erka bedi van Eysen aipatu pasartea Mitxelenaren beste honekin: «...desde el punto de vista diacrónico [la lengua] constituye un sistema que retiene una cierta cantidad de información sobre su propio pasado, sobre sus fases anteriores.» (Mitxelena, 1963: 11).

(51) Esaterako, dioelarik euskalkiak azterterakoan kontutan hartu behar dela ez bakarrik euskalki bakoitzean zein hitz erabiltzen den («non-seulement la différence des mots en eux-mêmes»), baita hitz bakoitzaren adiera ezberdinak («acception») eta bai hitz bakoitzak edo adiera bakoitzak euskalki batean eta bestean duen maiztasuna ere (cf. Bonaparte, 1877b: 28-29).

(52) Honen froga gisa, erka bitez P. Hualde Mayok erronkarierara itzultako Asteteren eskuizkribua (Nafarroako Artxibo Orokorra, B-117 signatura) eta bertatik Bonapartek argitaratutako bertsioa (Bonaparte, 1869a). Azkuek printzearen zuzenketak begi onez ikusi bide zituen: «He cotejado el manuscrito de este catecismo con un ejemplar impreso y se ve que el príncipe comprobó y corrigió con acierto no pocas locuciones del traductor.» (Azkue, 1931: 257). Jakina, itzulpenok Bonaparteren eta Azkueren baitan zuten helburua ere kontutan hartzekoa da. Nolanahi ere, nire eritzi hau oso behin-behinekoa, inpresionista da; Bonaparteren eskuizkribu eta argitalpen guztien erkaketa exhaustibo baten emaitzek berretsi edo gaitzesi beharko lukete.

Atal hau amaitzeko, bi hitz autoreok aitortzen zituzten maisuak zeintzu diren adizteraz emateko. Vinsonek (1877c: xxii) hizkuntzalaritza berriaren maisuen zerrenda bat ematen du. Hona izenak: Schleicher (dagoeneko ikusia), Curtius, Chavée, Hovelacque eta Pezzi. Bonaparte printzeak aurreko lanari egin oharretan (cf. Bonaparte, 1877c) "maisu" guztiak onartzen ditu Chavée eta Hovelacque izan ezik, ezaguna denez, *REVUE DE LINGUISTIQUE ET DE PHILOGIE COMPARÉE* aldizkariaren sortzaileak izan zirenak. Hovelacque baztertzeko arrazoiak, nire lan honetan zehar garbi igerriko direla espero dut. Ilunagoa deritzot, ordea, Chavée arbuiaitzeko zioari.

Baina maisuei bagagozkie, eztabaidarik sutuena Humboldtengandik ingururatu gertatzen da. Bonaparte printzeak (1877c: 15) hizkuntzalaritzaren erraldoi («un des géants de la linguistique») deitzen dio eta beraren euskararen ezaguera goraitatzen (17. or.). Azken laudorio honen bidez, Bonapartek gainerako euskalari kanpotarrengandik (Hovelacque, van Eys, Vinson, ...) bereizi nahi du Humboldt. Maisutasun zientifikoa honi aurka egiteko, frogak eman beharko dituzte bestek:

Lorsqu'on nous dit que les opinions de ce grand linguiste sont partiellement contestées, nous n'hésitons pas à répondre qu'il ne suffit pas, dans ce cas, de contester une théorie généralement acceptée par les savants, mais qu'il faut, en même temps, produire arguments qui, par leur valeur intrinsèque, puissent, en suppléant au manque absolu d'autorité scientifique de ceux qui contestent, détruire la validité des raisons d'un grand maître. (*ibidem*)

Orobat, zientziaren ikuspuntu "demokratiko" honekin jarraituz, honako hau dio printzeak, Luchairek euskara Iparraldetik Hegoaldera igaro zela, eta ez garai hartan eritzi nagusia zen alderantzizkoa (ik. beherago § 6.2.2.), esaten dionean: «C'est à M. Luchaire à prouver le contraire, et non pas à nous à démontrer ce qui est généralement admis.» (Bonaparte, 1877a: 7). Ikusiko denez, Humboldtengandik aldeko eta kontraakoak iberrisaren aldeko eta kontraakoak berak izango dira, oro har.

3. Euskara eta mundu zabaleko beste hizkuntzak.

3.1. Hizkuntzalaritza berriaren ekarpenekin, hizkuntzen sailkapen tipologikoarekin batik bat, erabat aldatzen da euskararen eta beste hizkuntzaren arteko erkaketa saioen ikuspegia. Lehenago, inguruko hizkuntzetara, bai garai hartan bizi zirenetara (frantseza, gaskoia eta gaztelera) bai orduko hildakoetara (iberikoa eta latina, kasu) mugatzen ziren bitartean, aurrerantzean mundu zabaleko beste hainbat hizkuntza pihurtuko dira erkagai. Autoreok bat datoz puntu batean, euskara hizkuntza eransleen artean kokatu behar delakoan, alegia⁵³. Baina hortxe bukatzen da adostasuna. Puntu horretatik at eritzi eta jokabide ezberdinak azaltzen dira, honako hiru azpiatal hauetan banatu dituzdanak: euskara zein hizkuntza eranslerekin erkatzen duten, hizkuntza eransleen multzoan non kokatu behar den eta, azken honi loturik, turanismoaren arazoa.

Euskararen eta beste zenbait hizkuntzaren arteko erkaketa saioetarik bi arazo saihestu nahi ditut oraingoz. Iberikoarena batetik, aurrerago berrartuko baitugu, eta erkaketa bidez euskararen ahaideak bilatu nahi dituztenak bestetik, hala nola euskararen eta hizkuntza amerindioen arteko ahaidetasuna aurkezten duen Charenceyren lana (1868). Charencey adar eusko-algiko bat proposatzen du, baina Vinsonek kritikatzeko du ondorio lasterregiak ateratzen dituelako (cf. Vinson, 1868: 19) eta erro amankomunik ez dutelako (1874: 9). Izan ere, Vinsonen aburuz euskararen ahaideak bilatu aurretik, euskara bera ongi aztertu beharra dago:

(53) Cf., esaterako, ondoko baieztapenok: «A peu près la seule langue agglutinante en Europe [...] la langue basque.» (van Eys, 1867: v), «Así quedan distinguidas las lenguas en *monosilábicas, aglutinantes y flexionales* [...]. En cuanto al vascuence, pertenece al grupo segundo, y solo con los idiomas de la misma clase conviene compararlo.» (Vinson, 1879: 147), «To the Basque language [...], constituting by itself alone a whole family (the Iberian) and the whole Iberic stem, which is one of the agglutinative class.» (Bonaparte, 1884-85: 1).

Du reste, je suis d'avis que l'on ne connaît pas encore suffisamment la nature intime du basque pour pouvoir prononcer définitivement sur une question aussi importante. Il faut avant tout s'attacher à terminer l'analyse du basque. (1868: 21)⁵⁴

Esan nahi baita euskararen lege fonetikoak («nature») ongi ezagutu beharra. Nola-nahi ere, Vinsonek ez zion uko egin euskara beste hizkuntza eranslerekin erkatzeari, antzekotasun formal horietatik euskararen hainbat ezaugarri hobeto finka zitezkeela-koan. Horrela, bada, ederki ezagutzen zuen tamulerarekin (1868: 1920) —oroit bedi tamulera eta hindustaniera irakatsi zituela Parisen— eta hizkuntza amerindioekin (1876a) euskarak amankomunean dituen zenbait puntu eta bereizgarri aurkezten ditu, beti ere argi utziz guzti hori ez dela nahikoa ahaidetasuna frogatzeko:

Du résumé grammatical et des considérations qui précèdent, il se dégage nettement, si je ne m'abuse, cette conclusion qu'entre le basque et les langues américaines, il n'existe aucune parenté réelle. Les analogies morphologiques constatées entre les deux groupes ne compensent en aucune façon les dissemblances relevées et ne suppléent pas à l'incompatibilité des vocabulaires. (1876a: 37-38)⁵⁵

Bonaparte, jakina denez, hasiera hasieratik euskararen eta fino-ugrieraren arteko erlazioez arduratu zen (cf. Bonaparte 1862). Printzearen ondoriorik garrantzitsuenak dira, batetik, euskal aditza hizkuntza fino-ugrioenak baino osoago eta argiago dela (14-25. or.) eta, bestetik, bai euskaraz bai fino-ugriaraz bokal harmonia gertatzen dela, bakoitzean ezaugarri ezberdinak baditu ere (25-46. or.). Lehenbiziko ondorioari dago-kiolarik, euskal aditzaren berezitasunak ondoko hauek dira: adizkietan sujetua eta objetu zuzena ezezik, zeharkakoa ere isladatzen da («conjugaison objective pronominale à régime direct et indirect à la fois», 21. or.)⁵⁶, pertsona guztien arteko konbinaketak onartzen ditu⁵⁷ ia nahasketarik gabe⁵⁸ (15. or.) eta tratamendu ezberdinak bereizten ditu⁵⁹. Bigarrenik, euskarazko bokal harmonia deituaren aldakuntzen berri zehatza —euskalki bakoitzaren egoera barne— eta fino-ugriararen jokabidea laburki aipatu ondoren, honelaxe adierazten du bien arteko ezberdintasuna:

En effet la sympathie des voyelles ne se manifeste en basque qu'entre celles d'un groupe différent, tandis que dans les langues finnoises elle a lieu entre les voyelles d'un même groupe.

Les dures avec les douces et les douces avec les dures, c'est là la règle du basque: L'ANTAGONISME.

(54) Antzeko ideia agertzen du Unamunok ondoko esaldian: «Antes de comparar el idioma vasco a otros, es menester compararle a sí mismo.» (1884: 108).

(55) Gogora bitez Vinsonek ahaidetasun genealogikoa frogatzeko eskatzen zituen baldintzak (ik. § 2.4.).

(56) Vinson ere ohartu zen bereizgarri honetaz, eta honelaxe azaltzen du: «C'est une simple extension du principe d'agglutination, commun aux langues des deux classes linguistiques supérieures, c'est à dire du développement formel.» (Vinson, 1874b: 240). Hau dela eta, Vinsonek terminologi bereizketa bat eransten du, hots, semitikoak eta fino-ugriar —sujetua eta objetu zuzena isladatzen dituztenak— «conjugaison objective pronominale» dute; euskarak, ordea, zeharkako objetua bakarrik ere islada baitezake, «conjugaison attributive pronominale» ere badu (*ibidem*).

(57) Beste leku batean (1869b: 83) dioenez, Leizarragak erabili *narauanac*, *cerauzquiouet*, *baicrauzquiou* eta enparatuek NOR-NORI-NORK deritzagun sisteman lehen eta bigarren pertsonako objetu zuzena duten adizkiak ere bazeudela erakusten dute: «Les terminatifs à régime direct et à régime indirect à la fois ne peuvent présenter le régime direct qu'à la troisième personne, tandis que le régime indirect peut se rapporter à la troisième tout aussi bien qu'à la première et à la seconde [...]. Il n'en a pas été toujours ainsi...». Diodan, bidenabar, Bonapartek Leizarragaren *Testamentu Berria* Ginebrako Elizak burutu bertsiotik itzulia dela seinlatu zuela lehen aldiz (*ibidem*). Cf., halaber, Bonaparte (1876: 11) eta Ruiz Arzalluz (1990).

(58) Salbuespen bakarra *zaituzte* da ('haiek zu' eta 'hark zuek').

(59) *Alokutibo* izena proposatzen du, lehenbiziko aldiz nik dakidala (cf. Alberdi, 1986: 169-170). Bost tratamenduak aipatzen ditu printzeak dagoeneko: «indéfini», «masculin», «féminin», «respectueux» eta «diminutif» (1862: 19-21).

Les dures avec les dures et les douces avec les douces est celle des langues finnoises: le DUALISME. (Bonaparte, 1862: 45-46)⁶⁰

Halaber, Bonapartek ohartarazten du bokal harmonia ez dela euskararen hizkera guztietan gertatzen, ezta hizkuntza fino-ugrio guztietan ere (1876: 22-23). Haatik, gertatzen denetan aldaketa erregularrak dira, nahiz eta ezberdinak euskaraz eta fino-ugrieraz (1869b: xxxi).

Deklinabidearen eta aditzaren azterketan oinarriturik, Bonapartek uste du hizkuntza fino-ugrioen artean euskararekin antz handiena duena ez dela hungariera —Hovelacquek zioen bezala— baizik eta morduina eta, bigarrenik, vogulera (1876: 3-4).

Van Eys ere ez zitzaion hizkuntz erkaketaren tentazioari itzuri, nahiz eta ene aburuz ironia apur batez kutsaturik egon. Izan ere, bere gramatikan, bai euskarak eta bai mongolierak dituzten zenbait ezaugarri ematen dituenean (cf. van Eys, 1873a: xx-xxi), nonbait erakutsi nahi du euskarak edozein hizkuntzarekin izan dezakeela antzekotasunik eta, hala ere, horrek ez duela esan nahi ahaidetasunik badagoela⁶¹.

Azkenik, Luchairek (1879: 109, 1. oh.), aipatu ditudan zenbait erkaketa saioen berri eman ondoren, euskarak hizkuntza indieuropar eta semitikoekin dukeen antza zertan datzan argitzen du⁶². Hiztegi mailan gertatzen dira eta, maileguak ez direnean, kasualitateari zor zaie, besterik ez. Espreski esaten ez badu ere, badirudi oharpen hau, besteak beste, Chaho (1836)-ren teoriak errefusatzerako datorela.

3.2. Vinsonek fino-ugrieraren eta hizkuntza amerindioen artean kokatu zuen euskara:

...c'est une langue agglutinante et incorporante, avec des tendances au polysynthétisme. Elle se place par conséquent, dans la seconde grande classe morphologique des linguistes, entre les langues finnoises et celles de l'Amérique. (1877a: x)

Izan ere, lehenak atxikitzaileak («incorporante») soilik diren bitartean, amerindioak atxikitzaileak ezezik polisintetikoak ere badira (cf. Vinson, 1877a: xviii). Bi hitz hauen adierak nahiko nahasiak daude eta sarri askotan esanahikide bezala erabili izan dira. Dena den, oraingoa Vinsonen (1877a: xiv) ematen dizkien balioekin ulertu behar ditugu. Hots, hizkuntza polisintetikoak dira hitz elkarketan laburketa ugari dutenak, osagaien mugen artean nolabaiteko nahasketa gertatzen delarik⁶³. Atxikitzaileak, aldiz, aditz-jokoan objektua adierazten dutenak dira. Esan gabe doa euskarak bigarren hauen berezitasuna ezin hobeto betetzen duela, adizkiak objektu zuzenarekin ezezik zeharkakoarekin ere komunztatzen baitu. Gainera, *shandi* fenomenoak ez dira falta euskal hitz elkarketan, eskimaleraren mailara —esaterako— iristen ez bada ere. Beraz, atxikitzaileak eta polisintetikoak hizkuntza eransleak direlarik, eransteko ahalmenaren araberako sailka daiteke talde hau. Goranzko mailaketa hauxe ematen du Vinsonen ondoko pasarte honetan:

...le groupe dravidien très-pauvre en formes, le groupe altaïque déjà incorporant, le groupe basque (je ne dis pas ibérien, le sens de ce dernier mot est encore indéterminé) pleinement incorporant et tendant au polysynthétisme, enfin le groupe américain tout à fait polysynthétique.

(60) Bokal gogorak («dures») *e*, *a* eta *o* dira; leunak («douces»), berriz, *i* eta *u* (1862: 41-44): «En 'semea' le fils, l'*e* se change en *i* dans les variétés qui emploient *semia*, parceque l'*i*, voyelle douce, s'harmonise avec l'*a*, voyelle dure, tandis que dans 'mendie', la montagne, l'*a* dur de la forme naturelle *mendia* s'est changé en *e* pour s'harmoniser avec l'*i*, voyelle douce.» (43-44. or.).

(61) Unamunok (1884: 100-101), hala ere, van Eysen turanismoaren aldeko jarrera ikusi zuen pasarte horretan.

(62) Alde batera uzten dut akitanieraz burutu zuen ikerketa bikaina (Luchaire, 1877a), eztabaidagai haue-tatik urrun samar geratzen baita, oro har.

(63) Definizio hauek, Vinsonen Sayce-rengandik hartzen ditu (cf. Vinson, 1876a: 37; 1877a: 105). Nolanahi ere, ez du uste hizkuntza polisintetiko eta atxikitzaileek laugarren talde bat, eransleetatik berezia, osatu behar dutenik (1876a: 33-37).

Je n'indique que quatre anneaux de la chaîne; je ne puis ni ne voudrais donner une nomenclature complète. (Vinson, 1876a: 38)

Nolanahi izanik, Vinsonek garbi utzi nahi du, esan bezala, ez dela ahaidetasun genetikoaz mintzatzen:

Entre chaque anneau, il n'y a aucune parenté nécessaire, pas plus qu'il n'en existe entre les dialectes qui se groupent sous chaque anneau. (*ibidem*)

Edo:

Mais il n'en faudrait pas conclure que l'*escuara* soit un proche parent du finnois ou du magyare, de l'algonquin ou de l'iroquois. (Vinson, 1877a: xviii)

Egia esan, Vinsonek oso ongi bereizten ditu bi sailkapen motak bere lanetan dabilen terminologiaren bitartez: «famille», «parent», etab. baterako, eta «classe» eta «groupe» besterako (ik. § 1.2.). Bestalde, Vinson ohartzen da euskaraz zenbait flexio fenomeno gertatzen direla: «Pour moi, le basque me paraît être une langue agglutinante, mais dans une période voisin de la flexion.» (1868: 28). Dena den, ez du zehaztasun gehiagorik eskaintzen.

Aitzitik, Bonapartek flexio adibideak bilatzen ditu euskal aditz-jokoan. Alde batetik, izenarena ez bezala, aditzaren erroa («thème») alda daiteke:

En effet, le changement que l'on observe tantôt dans la voyelle, tantôt dans la consonne du thème verbal, prouve que même une langue aussi agglutinante que le basque peut offrir des exemples de flexion. (1877c: 8)

Esaterako, *dut / dit* bikotea *u > i* aldaketaren bidez azaltzen du Bonapartek, antza denez azkeneko *-i* bakoitzaren balio ezberdinaz ohartzeke eta latinezko *egit / agit* bikotearekin (aditz erroaniztun direlakoekin, alegia) parekatuz. Adizki alokutiboek ere ematen diote flexio adibiderik euskaraz: «On peut même aller jusqu'à dire que les terminatifs allocutifs basques suivent souvent la méthode des langues flexives.» (*ibidem*). Adibide bat besterik ez dut ekarriko hona, ene aburuz nahiko adierazgarria dena bestalde:

Nous avons [...] dans *ziokat*, allocutif masculin de *dïot* «je le lui ai», non seulement le suffixe pronominal *t* «je» et *k* «toi» allocutif, mais aussi un vrai phénomène de flexion dans le changement de *d* en *z*. (1877c: 29)

Bestetan bezala Bonapartek datuen azterketa zuzena ematen ez badu ere, oraingotan intuizio ona behintzat baduela aitortu behar zaio.

3.3. Bonaparteren eritziz, euskarak bakarrik adar bat osatzen du, beste zenbait adarrekin batera hizkuntza turanikoen familia osatzen duelarik:

Les langues ouraliques et les langues altaïques en général, appartiennent d'ailleurs à une souche toute à fait distincte de celle constituée par le basque à lui tout seul, qui forme à son tour, avec d'autres souches aussi indépendantes que lui, la grande classe des langues qui ne sont ni aryaniques ni sémitiques, et que l'on qualifie tantôt de «langues touraniennes» dans l'acception la plus ample de ce mot, tantôt de «langues agglutinatives», de «langues allophylïennes», etc. (Bonaparte, 1876: 4)

Esan beharra dago «famille», «souche» eta antzeko berbak erabili arren, printzeak ez duela esan nahi hizkuntza turaniko guztien artean ahaidetasun genetikoa dagoenik. Astiroago aztertuko dugu jarraian turanismoaren arazo hau.

Turanikoaren asmakizuna Max Müller-i zor zaio. Vinsonek dioskunez, familia horretan ez arioak —hots, ez indieuroparrak—, ez semitikoak, ez txinoa diren hizkuntzak sartu nahi dira (cf. Vinson, 1877a: xix). Ribàryren *Essai*-ren hitzaurrean, Vinson bi-

ziki gogor agertzen da turanismozaleen aurka. Beraren eritziz, *turanismo* hitzak ez du ezer esan nahi eta jatorrizko hizkuntza bakarraren ameskerian sinisten dutenen asmerkia da (ix. or.). Hortaz, turanismoaren aldekoak aurreko mendeetan hizkuntza guztiak hebraieratik zetozela ziotenekin parekatzen ditu (xix. or.). Azken batean, teoria metafisikoa besterik ez da.

Bonaparteren oharrek (1877c) banan bana erantzuten diete Vinsonen eritzioi. Lehenengo eta behin, Vinsonek *turanismo* hitzak zer esan nahi duen ez dakien bezalaxe, berak ez daki *metafisiko* hitzak zer esan nahi duen Vinsonen ahotan:

Il n'y a rien que l'on redoute autant que l'inconnu; et de même que M. Vinson ignore ce que peut signifier *touranisme*, de même il nous paraît ignorer le sens du mot métaphysicien, qu'il croit pouvoir appliquer à l'homme qui entrevoit la liaison du sémitisme avec l'aryanisme et qui emploie le mot "touranisme". (1877c: 45)⁶⁴

Turaniko hitzak baliatzen direnak zuzen edo oker egon daitezke, baina ezin uka daiteke hitzak baduela esanahia (5. or.). Arazoa, baina, ez da esanahirik eza, esanahi gehiegi izatea baizik:

Ce n'est pas, en effet, le manque de sens de cette mot, mais ce sont au contraire les trois sens différents dans lesquels il est employé par les grands linguistes, qui le rendent peu à propre à exprimer nos idées. (*ibidem*)

Izan ere, zenbaitentzat turanikoa ez arianiko eta ez semitiko dena da; besterentzat, aldiz, 'eransle' esan nahi du, eta gainerakoentzat, azkenik, 'altaiko' (*ibidem*)⁶⁵.

Bestalde, printzeak ez du onartzen Vinsonek familia turanikoari atxikitzen dion «olla podrida» deitura, turanismozaleek *familia* hitzari ez baitiote hizkuntza indieuroparrez mintzatzerakoan duen esanahi berbera ezartzen. Bonapartek terminologi arazo bat («guerre de mots») besterik ez du ikusten. Gauzak horrela, hizkuntz terminologia hori batera dadin eta, autore batekin eztabaidatu aurretik, beronek darabilen terminologia ongi uler dadin eskatzen du (1877c: 13-14). Laburbilduz, turanikoa dela eta, Vinsonek barnean dauden hizkuntzetan jartzen du arreta, erlazio estuegirik ez dutela hautematen duelarik. Bonapartek, berriz, kanpoan geratzen diren hizkuntzetan, eta, ondorioz, indieuropararen eta semitikoaren artean dagokeen harremana hartzen du erizpidetzat. Bonaparterena, beraz, turanismoaren definizio negatiboa dugu.

Azkenik, aipatzekoa da van Eysek, hasieran behintzat, turanismoa onartzen bide duela, dioelarik: «Il est bien reconnu aujourd'hui que le basque appartient à la grande famille de langues dites: Touraniennes» (1867: v).

4. La question ibérienne.

4.1. Iberismoaren —eusko-iberismoaren, nahiago bada— teoria agian larregi laburtuz, zenbait ideia nagusi azaltzen saiatuko naiz sarrera gisa⁶⁷. Oro har, onarturik dago

(64) Bonaparte hizkuntzalaritzaren joera berrien alde edo kontra zegokeen, baina garbi dago azken urte- etako lanak ezagutu egiten zituela. Bere teoriak laguntzeko ekar ditzakeenean behinik behin —komeni zaiocenean— aipatzen baititu. Esaterako, turanismoa dela eta, Ascoliren «Il Nesso Ario-Semitico» lana aipatzen du, arazoa oraino erabakitzeke dagoela aitortzen badu ere (cf. Bonaparte, 1877c: 5).

(65) Antzeko oharpena egin zuen Unamunok *turaniko* hitzaren polisemiari, zeinak berba baztertzea erabaki arazi bide baitzion: «...pues mientras para los unos designa los idiomas que no son arios ni semíticos, para los otros es sinónimo de altaico en geografía, y para los más, de aglutinante en lingüística.» (1884: 101).

(66) Ez da zuzena, Bonaparteri dagokionean behinik behin, Unamunok dioen honako hau: «La misma ilusión de tomar lo parcial por lo total, la forma por el compuesto, *de concluire parentesco de lo que sólo expresa grado análogo en el desarrollo*, ha producido hoy la opinión más autorizada y realmente la menos inverosímil del origen turánico o ugro tartárico del euskera.» (1884: 100). Azpimarkatua nirea da.

(67) Teoria honen zer-nolakoak, historia eta kritika ikus bidez, besteak beste, in Caro Baroja (1982), Gorrotxategi (1984, 1985) eta Tovar (1980). Azken urteotan eusko-iberismoaren «hipotesia» berriz plazaratu da Verd (1980)-ren eskutik. Honek erabat onartzen ez badu ere, iberismoa deuseztzeko argudioak aski ez direla frogatzen ahalegintzen da.

Humboldt izan zela XIX. mende hasieran aurreko apologista eta gramatikarien teoriak metodo zehatz bati jarraiki birplanteatu zituen lehena. Horrela, bada, toponimo iberikoen interpretazioak aztertzen jardun zuen, euskararekin erabateko korrespondentzia fonetikoak izan zituzten eskatzen zielarik, jatorri berbera zutela onartuko bazen. Azterketa konparatibotik ondoko ondorio hauetara iristen da; euskara eta iberikoa gauza bera dira edo, zehatzago esan, iberikoa euskararen “arbasoa” da; euskara, beraz, penintsula guztian hedatua izan zen, toponimian nabari denez. Bi tesi hauek garaiko ikerlari gehienek —alemaniarrek eta, jakina, euskaldunek batez ere— onartu zituzten⁶⁸, eta gutxi gorabehera berriakusten ari garen polemika hasten den sasoiari iritsiko zitzaizkien lehen kritikak, Hovelacque, Tubino, van Eys, Vinson, Zobel de Zangroniz etabarraren eskutik.

4.2. Honaino ikusi ditugun lau autore nagusienetarik, Bonaparte printzea da iberismoaren alde sutsuen eta tematien azaltzen dena. Hovelacque (1876)-ri egin oharretan (cf. Bonaparte, 1876) Humboldten argudioak aldeztu ditu⁶⁹ eta iberismoazalea den Potten pasarte bat ekarri. Beronen arabera, iberismoaren eta euskararen arteko ahaidetasunaz zalantzarik ez dago, ikerlan berriek eskaini duten euskararen ezagueraz zehatzagoak Humboldten lanean aurkitu dituen hutsak eta akats fimiñoak gorabehera (22. or.). Halaber, Vinson (1877a)-ri egin erantzunean (cf. Bonaparte, 1877c) gaia berrartzen du, xehetasun haboro ematen duelarik. Lehenik, Humboldt, Pott eta enparatuen maisutasuna berraipatzen du. Jarraian, iberismoa zientifikoki ongi oinarriturik dagoela adierazi. Horrexegatik, hain zuzen, «elle est généralement admise par ceux qui ont rendu les plus grands services à la science philologique» (1877c: 14). Gainera, ez da egia —dio— iberismoaren aldeko frogarik peitu denik. Bonaparteren izkribuetan sakanaturik idoro daitezkeen hiru argumentu ezberdin hauek honetara nahi ditut⁷⁰:

– Korsikako zenbait toponimoren euskal jatorria

– *Baita* eta *ga* “hitzak”

– Gaztelazko *-ez* eta portugesezko *-es* patronimikoak osatzeko atzizkiak

4.2.1. Bonapartek Korsikako zenbait toponimok euskal jatorria zutela uste zuen (cf. Bonaparte, 1877d). Toponimo hauek⁷¹ frogatuko lukete euskaldunak luzaro bizi izan zirela Korsikan latindarren aurretik. Izan ere, printzearen aburuz, toponimoen presentzia ez da nahikoa korsikarrek euskal jatorria dutela pentsatzeko; horretarako euskararen aztarnarik Korsikako dialektoetan ere idoro beharko baitzatekeen, gaur egun substratoaren eragina esango genukeena hain zuzen:

Pour pouvoir admettre que les Corses soient d'origine basque, il faudrait que leurs dialectes, évidemment néo-latins, présentassent un certain nombre de mots basques autres que des noms locaux, car ces derniers sont les seuls qui puissent persister dans la langue du peuple qui succède. (1877d: 9)

Egia da toponimoek ez dutela herri baten jatorria frogatzen, baina printzeak eskatzen duen baldintza arras ahula da; nonbait etimologista zaharren mailan jartzen du bere burua, nahikoa baitzaio Korsikako dialektoetan zenbait euskal hitz kausitzea korsiarren euskal jatorria baieztatzen. Bestalde, Bonapartek dio ezin pentsa daitekeela,

(68) Beste zenbait tesik, ordea, ez zuten hain arrakasta handirik izan, hala nola iberoen (hots, euskaldunen) presentzia Italian, jarraian ikusiko dugun bezala (ik. § 4.2.).

(69) Ez printzeak berak dioten bezala «désintéressé dans cette question qui ne nous est pas personnelle» (Bonaparte, 1876: 22). Izan ere, hizkuntz edo histori arazoak baino zerbait gehiago sartzen zen eztabaidaren hondoan, Granja Pascualek (1986) ederki adierazi duenez.

(70) Ez da ene xedea, hala ere, Humboldten toponimo zerrendari egin kritikak, berriusketak eta hobekuntzak aztertzea, nahiko ongi ezagutzen baitira eta lana luzeegi gertatuko bailitzateke. Ik., besteren artean, 67. oharrean aipatuak eta Luchaire (1879).

(71) Esan gabe doa azalpen gehienetan metodo akats nabarmenak daudela, irudipen hutsa ez direnetan. Esaterako, *Lincimosa* mendia Nafarroako *Linzoain* herriarekin parekatzen duelarik.

Mattei-k uste bide zuen legez, euskaldunek egonaldi laburra besterik ez zutela egin ir-
lan, hala izatekotan ez baitzuketen toponimorik utziko.

Beraz, Bonaparte, aurkikuntza honen bidez, iberokoak (hots, euskaldunak) Italian
egon zirelako Humboldtten ideia frogatzen saiatu zen:

Dans nos "Remarques sur les dialectes de la Corse et sur l'origine basque de plusieurs noms
locaux de cette île" [...], nous donnons une liste de mots communs au basque et au corse. Nous
croyons qu'elle confirme l'opinion de Humboldt quant à la présence des Ibères ou anciens
Basques en Italie. (Bonaparte, 1877c: 15. oharra)⁷²

Garbi da, alabaina, Bonaparteren argudiaketak akats nabarmena duela. Iberoak Ita-
lian bizi izan zirela frogatzeko frogatu gabeko teoria batez baliatu zen: eusko-iberismo-
az, iberoen eta euskaldunen arteko identitateaz, alegia. Eta orobat eusko-iberismoa fro-
gatu nahi zuen Korsikan toponimo euskaldunak zeudela esanez, eta hortik Italian ibe-
roen presentzia idokiz. Dakusagunez, gurpil zoro bat sortzea besterik ez du erdiesten.

4.2.2. Ildo beretik doa iberismoaren aldeko bigarren froga. Bonapartek (1877c: 10.,
23-24) euskarazko *bait(h)a* (*aitaren bait(h)an* erako egituretako) lombardierazko zen-
bait dialektotan idoro daitekeen *baita*-rekin erkatzen du. Azken honen esanahia 'txabo-
la', 'aterpe', 'etxe' edo 'ikaztegi' da (10. or.). Bidenabar, hitz —ez «partikula» (23. or.)—
hau hainbat hizkuntza semitikitatan ere aurkitzen dela dio, hebraierazko *baitih* ('etxea')
kasu. Bestalde, bizkaierazko eta gipuzkerazko *gan*, *gana* eta *gandik* formetan
bait(h)a-ren esanahikidea den *ga* «leku izena» ikus daiteke. Bonaparteren eritziz, *ga*
italierazko *ca*-tik, *casa*-ren era dialektal aruntetik hurbil dago. Hortaz, *gan* hitzez hitz
in casa, *in ca* edo frantsesezko *chez*-en baliokidea litzateke. Guzti honek euskaldunen
eta italianoen arteko harremanak frogatuko litzuzke:

L'Italie présenterait donc, dans ses dialectes, le mot basque *baita*, et l'euskara, à son tour, au-
rait adopté *ga*, dérivé de l'italique *ca* ou *casa*. Nous voyons dans ce dernier fait une autre
preuve de contact basco-italique. (1877c: 23)

Era berean, honelako espideetan, erregimenari dagokionean ere euskararen eta ita-
lieraren arteko paralelotasunik bide dago. Euskaraz, euskalkien arabera, genitiboan ager
daiteke edo ez: G *senarragan*, *senarrarengan*, L *senarraren baithan*, GN *senarra
baitan*⁷³. Italiera, bere aldetik, *di* preposizioaz balia daiteke edo ez: *in casa di marito*
edo *in casa il marito*⁷⁴.

(72) Egia esan, Larramendirengandik dator eritzi hau (cf. 1745: lxxxvi-lxxxvii, xcii hh., clxxv) eta Seneca-
ren pasarte batean (*De consolatiōne ad Helviam* 7, 8 hh.) oinarriturik bide dago (cf., esaterako, Tovar, 1980:
32 hh.).

(73) Adibide hauek eta hurrengoak Bonapartek berak emanak dira (cf. 1877c: 24).

(74) Badirudi Azkue, hasieran behintzat, Bonaparteren azalpen honekin ados dagoela, printzearen teoria
laburtu ondoren honako hau dioelarik: «Bonaparte (Remarques sur certaines notes, [1876] p. 10, 22, 23) sostie-
ne que los Vascos prestaron á los Lombardos su BAITA, "casa," y los Italianos á los Vascos su *ca*, sinonimo dia-
lectal de CASA, que nosotros hemos cambiado en GA, GAN. Esta aserción la habría corroborado el ilustre y be-
nemérito príncipe, si hubiera tenido en cuenta: a) la existencia de BAITA en el sentido liberal de "casa" en L,
tal como se ha expuesto.— b) que las frases que él cita: "in casa del marito", é "in casa il marito," como equi-
valentes á la francesa *chez le mari*, se dicen aun actualmente en muchas localidades de Castilla "en casa el
marido" y aun (lo que dá más fuerza á su opinión) "en cá el marido". (1905-1906: s.v. *baita*). Zernahi gisaz,
urte batzua geroago kontrako eritzia agertuko du: «No hay datos para asegurar que el vocablo lombardo-pro-
venzal *baita* "casa" se haya usado entre nosotros como independiente: *baita bat*, *baita zahara*. El oficio que
desempeña en vascuence desde que lo tenemos en casa es de infijo de declinación, equivalente al *-gan-*, al
parecer primitivo y seguramente indígena, a pesar de la opinión contraria de Bonaparte: *neugandik*, *nerega-
nik*, *ene baitarik*.» (1923: 12). Hots, euskarazko *baita* lombardierazko *baita*-tik zetorkeen, baina *gan* jatorriz
euskalduna zatekeen. Hizki hauek euskal jatorrizkoak ez direlako hipotesiek luze iraun dute gure artean. Esa-
terako, Omaechevarriak, jatorriak emateaz gain, noiz mailegatuak izan ziren ere seinatzen du: «*Baita* corres-
ponde al semítico *bait* o *baitu*, "casa", representando, no sólo en el árabe, sino en el asirio-babilónico, he-
breo y fenicio *beth* (de donde se deriva el nombre del "alfabeto"). La forma diptongada *baita* nos lleva al
árabe. *Ga* es el correspondiente vocablo romance que procede del latín "casa", y que en la actualidad se em-
plea en la forma "ca", sobre todo en los dialectos provenzales y catalanes, y algo en el castellano ("He estado
en *ca* de la señora Juana", "Je suis été chez madame Jeanne") [...]. Diríamos, pues, que *-eta-* se introdujo en
el plural en la época romana, procedente del colectivo latino "etum", en plural redundante *-eta-*, bien atesti-
guado en los monumentos literarios, y que *-ga-* corresponde a la época romance y *-baita-*, en simultaneidad
cronológica aproximada con *-ga-*, a los tiempos del primer contacto cultural con los árabes, a los siglos IX-X.»
(Omaechevarría, 1962: 39-40).

4.2.3. Hirugarren froga, azkenik, gaztelerazko *-ez* eta portugesezko *-es* patronimi-koetan oinarritzen da. Atzizki hauen inguruan polemika bat piztu zen Londresko *THE ACADEMY* aldizkarian 1882.eko otsailaren eta maiatzaren bitartean, Bonapartek eta A. Burnell-ek esku hartu zutelarik. Halaber, urte berean eztabaida hauen itzulpen laburtuak agertu ziren *EUSKAL ERRIA* eta *REVISTA EUSKARA* aldizkarietan (cf. Bonaparte eta Burnell, 1882), euskararekiko ikerketek sortarazten zuten interesaren erakusgarri, nonbait.

Polemikaren abiaburuan Burtonek *Os Luisiadas*-en edizio batean bidenabar ezarritako baieztapen bat dago, patronimiko hauek jatorri euskalduna dutela dioelarik. Burnellek, ordea, beste bi aukera ematen ditu: latinezko *Medices* erako formekin erkatu edo osterantzean, Díez-ek egin zuen bezala, gotikerazko *-is* genitibotik datozela pentsatu. Nik dakidala bederen, azken hau da gaur egungo hipotesirik zabalduena, Portugal eta Gaztelako erromantze modernoetan alde haietako latinak gotikeratik hartuko zuen formak irauten duela, alegia. Bonaparte printzea ere lehenbiziko aldiz Larramendik (1729: 10) aurkeztu zuen ideiari atxikitzen zaio, euskarazko *-ez* instrumentaletik le-
tozkeela, alegia, eta gazteleran eta portugesean euskararen aztarna gehiago bilatzen saiatzen da (cf. Bonaparte eta Burnell, 1882: 201-202).

Orobat, Bonaparterentzat adierazgarria da atzizki hauek erabiltzen diren eremua, Espainia eta Portugal hain zuzen, antzina euskaraz mintzatzen zen eremu berbera izatea:

Ahora bien, el sufijo *ez (es)* con la significación española y portuguesa "de", no pertenece ciertamente ni al latín, ni á los dialectos neo-latinos de Italia, Francia, Bélgica, Suiza y Valaquia, y si sólomente al español y portugués, dos dialectos de la península española, en donde el bascuence se habla todavía y se hablaba ántes de la existencia de estos dialectos. (202. or.)

Hortaz, oraingoan ere substratuaren eraginaz ari da inplizitoki. Polemikak Larramendiren eta Alemaniako hizkuntzalaritzaren eritzien arteko tirabirak aipatuz eta metodo kontuak zehatzagotuz jarraituko du (ik. 30. oh.).

4.3. Vinsonek iberismoaren kritika burutu zuen zenbait lanetan, teoria honen oinarri zientifikorik eza salatu zuelarik:

Sepan, pues, que no he negado el origen ibérico de los vascos; sólo he dicho y digo que hasta ahora no me parece comprobado tal origen, pues sus partidarios se fundan en argumentos quebradizos y en etimologías infantiles y anticientíficas. (1879: 147)

Izan ere, iberismoa *a priori* faltsu batean oinarriturik legoke:

...elle repose principalement sur l'*a priori* suivant: les Ibères ont occupé jadis toute l'Espagne et le midi de la Gaule, or l'escuara vit encore au pied des Pyrénées, donc l'escuara est un reste de la langue des Ibères. Le vice de ce syllogisme est évident; la conclusion ne s'impose point et se déduit mal des prémisses. (1877a: xi)⁷⁵

Jarraian, Vinsonek iberismoaren alde eman diren frogak banan bana kritikatzeko di-
tu (*ibidem*). Froga hauek bi motatakoak dira: Lehenak, inskripzio eta txanpon iberiko eta zeltiberikoaren interpretazio saioak. Txanpon hauek idatzirik dauden alfabetoa ongi deszifratu arte ezin dela interpretazio fidagarriak eman dio. Jakina denez, urte haietan penintsulako alfabeto prelatinoen zenbait irakurketa saio diferente eman ziren (Boudard, Heiss, Delgado, Zobel de Zangroniz, Philips, etab.⁷⁶) eta berauen arabera euskararekiko azaleko antzekotasuna hurbil edo urrun zitekeen. Gainera, Vinsonek dioenez, euskararen bidezko itzulpenak hainbat autorek eztabaidatzen dituzte (ik. § 4.1.). Bigarren froga idazle klasikoek bildu toponimo eta antroponimoek osatzen dute.

(75) *A priori* honen azalpen luzeago baterako, ik. Vinson (1874a: 6-7).

(76) Cf. Hübner (1893: 'Prolegomena', iii-xxxix). Autore hauetariko zenbaiten lanak irazkintzen ditu Vinson (1874a: 8-9).

Hauetarako Humboldték eta beronen jarraitzaileek eman dituzten etimologiak onartezinak dira. Gainera, hauek euskararen hiztegi eta gramatikaren azaleko ezaguera erakusten dute (cf. Vinson, 1874a: 7). Aitzitik, Luchairek proposatu dituen etimologia batzuek hobesten ditu Vinsonen. Hirugarren argudio bat eransten du iberismoaren kontra, zeinak euskaldun gehienek ezinikusi luzea erdiets araziko baitzion⁷⁷. Vinsonen euskaldunek beren hizkuntzaz beste berezitasunik ez dutela baieztatzen du, eta jarraian zenbait ohitura itxuraz propio —ilargiaren kultura, kasu— errefusatzen ditu, oinarri dituzten Estrabonen pasarteak zein herriri buruz ari diren ez baitago batere garbi⁷⁸.

4.4. Arazo honi dagokiolarik, van Eysen jokabidea, sarritan bezala, nahiko zalantzaragarria da, edo agian hobeto esplikatuko genuke bilakaera baten ondorio dela baldin badiogu. Horrela, bada, hasiera batean euskararen alfabeto zaharra ezagutzeko inskripzio eta txanpon iberikoak oinarri hartzen dituen bitartean⁷⁹, geroago iberismozaletan argudioak kritikatu ditu (cf. 1874a) eta hipotesi hutsa, frogatugabea besterik ez dela esango du, ez alde ez kontra agertuz:

Jusqu'à aujourd'hui l'alphabet primitif basque est inconnu, & la seule chance de le retrouver sera peut-être sur les monnaies à inscriptions dites ibériennes; mais jusqu'ici la lecture de ces inscriptions est si incertaine, qu'il n'y a rien à préjuger soit pour, soit contre la théorie d'identité du basque & de l'ibérien. Personne, autant que nous sachions, n'a nié la possibilité de la parenté du basque & de l'ibérien; mais encore de nos jours cette parenté n'est qu'une hypothèse pure & simple, sans aucun fait positif pour l'appuyer. [...] Ce qui a été nié, & à bon droit, c'est la certitude de la parenté du basque & de l'ibérien. (van Eys, 1879: 7-8)

Hortaz, esan daitekeen gauza bakarra da, Vinsonen ere zioenez, iberismoaren teoria ez dagoela batere egiaztaturik. Jarraian, Vinsonen testuetan ikusi ditugun argudio batzuek errepikatzen ditu: iberikoa gaizki deszifratua dagoela eta, ondorioz, iberikoari buruz ezer ziurrik ezagutzen ez dela (*ibidem*).

4.5. Iberismoaren kontrako eritzi guzti hauek ohizko teoriak aldeztzen zituztenen berehalako erantzuna emarazi zuten. Bonaparterena aipatu dut dagoeneko; oraingoan aipa dezadan, laburki bada ere, A. Campiónena, euskaldunen jarrera nagusiaren adierazgarri. Campión bere artikulu batean (1878)⁸⁰ Humboldtaren alde agertzen da, eta iberismoaren aurkakoak Euskal Herriaren etsaitzat jotzen ditu adere handiz, garaian nahikoa zabaldua dagoen eritzia bestalde:

Ocupando el pueblo vasco una situación especial dentro del gran organismo social del que forma parte, ha sucedido que los enemigos de su modo de ser político, han procurado combatirle con armas de mejor ó peor ley, mejor ó peor templadas, no sólo en su legislación, sino en todas las manifestaciones de su existencia [...]. Es imposible, ni imaginar siquiera, mayor aplomo en las conclusiones, más aspereza en la crítica, más desprecio del contradictor que el manifestado por esos señores en sus estudios. Y no se limitarán á destruir teorías, ni á desvalorar hipótesis, ni á negar hechos, sino que aprovechan cuantas ocasiones se les presentan para rebajar al pueblo euskaro hasta el nivel de los pueblos más salvajes. (Campión, 1878: 231-232)

Ageri denez, arazo zientifikoak ezezik, arrazoi politiko eta ideologikoak ere hartzen dira kontutan, dagoeneko zenbait autorek azpimarkatu dutenez⁸¹. Aurki itzuliko gara gai honetara. Gainera, Campión Humboldtaren zenbait toponimoren etimologiaren —batik bat van Eysen gaitzesten dituenen— balioa frogatzen ahalegintzen da, hagitz ondorio eskasa lortzen duelarik, egia esango bada (233-237. or.).

(77) Cf. Urquijo (1927) eta Mitxelena (1984b), besteren artean, Vinsonen eritziek euskaldunen artean izan zuten harrerarako.

(78) Ik. halaber Vinson (1874a: 9-13), iberioaren eta euskararen arteko harremanei aurre egiteko behar den aurrelanean (euskara zaharra berreraiki eta iberikoa ondo irakurri) eta iberismoaren aldeko hizkuntz argudioen (*ili, iri,...*) kritikarako.

(79) Cf. «Le suffixe *co*, entre autres, paraît toujours avoir été écrit avec *c*, ou par la ligature *co*, sur les monnaies ibériennes.» (van Eys, 1867: «Avant-propos de la première édition», vii).

(80) Cf. Granja Pascual (1986: 223-226), Campiónen artikulu honen irazkin zabalago baterako.

(81) Cf., besteak beste, Granja Pascual (1986: 225) eta Mitxelena (1984).

4.6. Iberismoaren aldekoa orobat, baina Bonaparte eta Campi3n baino kritikoa da Luchaire. Humboldtren teoriak onartzen ditu, oro har; ez du onartzen, baina, euskaldunen presentzia Italian. Halaber, iberismoaren aldeko frogak gehiago eta zientifikoa-
 ak bilatu behar direlakoan dago:

Tout en reconnaissant les imperfections de l'oeuvre de Guillaume de Humboldt, nous sommes au nombre de ceux qui pensent que ses conclusions sur la *question ib3rienne*, fond3es sur des arguments plus nombreux, plus scientifiquement pr3sent3s, et restreintes 3 l'Espagne et 3 la Gaule m3ridionale, constituent plus qu'une simple hypoth3se et touchent de pr3s la v3rit3. (Luchaire, 1879: vii)

Luchairek, beraz, zientifikotasun maila eman nahi dio iberismoari. Horretarako, Pirinioetako toponimiaren azterketa sakonari deritzo biderik egokiena. Lehenik, euskararen lekukotasunik zaharrena delako; bigarrenik, mendikatearen mutur batetik bestera amankomuneko erro eusko-iberikoen geruza bat («couche») nabari delako —berriz ere dakuskegu, Bonaparteren kasuan bezala, substratuaren teoriaren aipamena⁸²—; eta, hirugarrenik, antzinako hizkuntza eta herri iberikoen hedapenaren berri eman diezagukeelako (*ibidem*)⁸³. Luchaire da, nik dakidala, euskal ikerketetarako toponimiaren azterketa sakon eta exhaustiboaren beharra eta garrantzia ikusten dituen lehendabizikoa, aurrekoak (Garibay, Oihenart, Poza, Echave, Larramendi, Moguel, Herv3s, Erro eta Humboldt, besteak beste) toponimo zerrenda luzeen edo ez hain luzeen etimologiak asmatzera mugatu baitziren.

Zientifikotasuna betetzeko arau metodologikoak ematen ditu, toponimiaren aztertzeari aurre egin behar dionak jarraitu beharrekoak⁸⁴:

Suivant nous, pour rendre fructueuses les recherches dont il s'agit, il faudrait, de toute n3cessit3, s'atreindre aux cinq r3gles suivants:

1^o Poss3der au moins les notions 3l3mentaires de la phon3tique et de la grammaire euskariennes, surtout pour ce qui concerne les mots compos3s et les suffixes.

2^o Comparer les noms basques modernes aux formes anciennes conserv3es dans les chartes, terriers et cartulaires.

3^o Contr3ler constamment la nomenclature du Pays Basque fran3ais par celle du Pays Basque espagnol.

4^o Ne proposer d'3tymologies que celles qui sont 3videntes par elles-m3mes ou suffisamment justifi3es par les caract3res physiques des localit3s.

5^o Observer les r3gles g3n3rales et de sens commun auxquelles ob3issent toutes les toponymies. (Luchaire, 1879: 136-137)

Hurrengo orrialdeetan (138-187. or.) toponimo zaharren eta garaikideen azterketa sakona burutzen du: aldaketa motak (izen aldaketa, inguruko hizkuntzen eragina, apokopea, aferesia, protasia, sinkopa, asimilazioa, etab.), leku-izenetako atzizkien zerrenda⁸⁵, bakoitzaren irazkinarekin, eta toponimoetan arruntenak diren hitz motak eta ze-

(82) Cf. orain Oroz (1980): euskara eta iberikoaren antzekotasunak substratuaren teoriaren bidez azaldu nahi ditu, Pirinioen inguruetatik harago iristen delarik.

(83) Orobat, toponimiaren azterketaren bidez bai euskarak dagoeneko galdu dituen hitz batzu, bai euskararen atzizki eratorbideak hobeki ezagut daitezke: «De m3me, un examen attentif de la toponymie basque peut conclure 3 des r3sultats int3ressants, non-seulement en nous faisant conna3tre des formes et des radicaux qui n'existent plus dans le vocabulaire usuel, mais encore au point de vue de proc3d3s de suffixation, si curieux 3 3tudier dans les langues agglutinantes, comme le basque.» (Luchaire, 1879: 135-136).

(84) Eskertzekoa litzateke gaur egun euskal toponimiaz arduratzen den orok jarraituko baliete. Cf., esaterako, Mitxelena M^a L. Guazaren tesiari eginiko irazkina (Mitxelena, 1955).

(85) Atzizkiak honelaxe sailkatzen ditu: bokalez hasitakoak eta kontsonantez hasitakoak, eta azken hauen barnean ezpainetako batez (*b, m*), hortzetako batez (*t, d, tt, z, s, c, x, tx, c, cb, tz*), sabaiko batez (*g, qu, c*), sudurreko batez (*n, ñ, gn*) eta mihiko batez (*l*) hasitakoak (cf. Luchaire, 1879: 147-175). Guztiarekin ere, letren sailkapena bide da, soinuen bainoago.

rendak, adibide ugariz horniturik, ematen ditu. Azterlan exhaustibo eta ongi egituratu honen xehetasunez ez dut luzatu nahi, baina bai aipatu Luchairek bi atzizkiri buruz dioena, *-baita* eta *-ga* hain zuzen, lehenago ere agertu baitzaizkigu. Bonaparteren *-ga*-ren etimologia kritikatzan du, batere zientifikoa ez delakoan. Bestalde, bizidunen deklinabideko *-ga*- eta leku-izenetako *-aga* ongi bereizten ditu, Bonapartek egiten ez bide duen bezala⁸⁶. *Baita*-ri dagokionean, ordea, Luchaireren ustetan, printzeak ematen dion esanahia ('maison') duke edo zukeen, baina nolana ere Bonapartek eskaini arrazioak ez du balio handirik eta inolaz ere ez du frogatzen euskaldunen eta italikoaren arteko harremanik (Luchaire, 1879: 158-159).

Azkenik, bere "arartekotasuna" berriz ere aldarrikatu ondoren, eta van Eys eta Vinsonek *uli* eta *ili*-z duten eritzia kritikatu ondoren, Humboldtten lana hobetzeko premiazkoak diren bideak aurkezten ditu: batetik, froga hobeak bilatzea eta Espainiako antzinako leku-izenen azterketa zehatzago eta osoago baten bitartez laguntzea; bestetik, Plinio Zaharraren, Estrabonen, Ptolomeoren etab.-en testuen interpretazio zuzenak eta aurkikuntza epigrafikoei ekarritako datu berriak kontutan hartzea (191. or.). Bistan denez, iberismoaren arazoari aurre egiteko nahiko jokabide osoa eskaintzen du.

5. Euskararen desagerpenaz.

5.1. Euskara Euskal Herrian beharrezkoa den ala ez, desagertu behar duen ala ez polemikaren alderdi batean euskal hiztegiaren egokitasunaz eztabaidatu zen. Bi arazo nagusi sartzen dira eztabaidan: euskal hiztegia *urria* ala *aberatsa* den eta euskal hitzak ideia abstraktuak adierazteko gai direnentz.

Badirudi, besterik esan arte, Hovelacquek (1876: 102) piztu zuela eztabaidagaia, euskal hiztegia osorik ez ezagutua eta urria zela zioelarik⁸⁷. Bonapartek aurreko baieztapenaren kontraesan nabarmena salatzen du. Halaber, Hovelacquek urritasunaren alde emandako argumentuetariko bat —*gogo* hitzaren esanahi ugarietatik ateratzen den zehaztasunik eza— gaitzesten du:

En tout cas on se refuse à prendre au sérieux l'argument en faveur de cette pauvreté, qui consiste à lui reconnaître six expressions différentes au lieu d'une seule: car si le basque est pauvre dans un cas, il est évident qu'il est six fois riche dans un autre. (Bonaparte, 1876: 21)

Vinsonek Hondarribiako hizkeraz argitara emandako S. Mateoren ebangelioko pasarte baten itzulpena (cf. Vinson, 1876b) irazkintzen duelarik, Bonapartek (1877b: 43-44) euskarak erabat materiala ez dena adierazteko hitzik baduela baieztatzen du. Zehazki, "action de pleurer" adierazteko *negar* badagoela, eta hortik *negar egin* edo "pleurer", hots, "faire action de pleurer"⁸⁸. Iparraldean, haatik, frantsesaren eraginez, ez dira "action de pleurer" (abstraktoa) eta "larmes" (materiala) bereizten⁸⁹; baina honek ez du esan nahi Hegoaldeko euskalkietan bereizketa hori ez dagoenik: *negar* / *mallo* hitzen bidez hain zuzen gertatzen baita. Beraz:

C'est donc "faire action de pleurer" ou "hacer lloro" qui rend beaucoup mieux que "faire larme" le *negar egin* du basque, langue qui n'est pas si dépourvue d'expressions pour tout ce

(86) Luchairek aipatu arren, ezin izan dut Bonaparteren lanetan horrelako nahasketarik idoro, printzea deklinabide atzizkiak soilik mintzatzen baita

(87) Susmoa dut, alabaina, Hovelacquek euskarari buruzko ideia gehienak, guztiak ez badira, Vinsonengandik jasoak zituela, eta horrelako zerbait idoki daiteke gainera Vinsonen pasarte honetatik: «Quant à leur partie purement critique, ces deux brochures [Bonaparte, 1876, 1877c] se confondent et me concernent presque exclusivement, car M. Hovelacque, dans sa *Linguistique*, n'a pas émis beaucoup d'opinions, beaucoup d'appréciations qui ne soient miennes ou que je ne partage entièrement.» (Vinson, 1877b: 211).

(88) Hona Vinsonen hitzak auzi honetaz: «Nigar egin "faire larme"; il n'y a pas de mot simple pour "pleurer".» (1876b: 10, 18. oh.).

(89) Bietarako *pleurs* nahiz *larmes* erabil baitaitezke frantsesez.

qui n'est pas absolument matériel, comme on nous le chante depuis assez longtemps sur tous les tons. (1877b: 44)

Vinson (1877a)-ri egindako oharretan Bonapartek berriz eusten dio gai honi. Egia esan, Vinsonek Hovelacqueren argumentuak eta adibideak errepikatu besterik ez bide du egiten, hau da, euskal hiztegiaren urritasuna eta euskal hitzek ideia abstraktuak adierazteko duten ezgaitasuna aldarrikatu (Vinson, 1877a: xiv)⁹⁰, eta honelaxe ohar-tarazten du Bonapartek:

...en décidant, de sa propre autorité, que son vocabulaire, qu'il avoue ne connaître qu'imparfaitement, est fort pauvre; en avançant que le basque n'a pas de mots pour exprimer des idées abstraites, etc., il ne fait que répéter exactement ce qui a été dit par M. Hovelacque son maître, qui a au moins sur lui le mérite de l'originalité. (Bonaparte, 1877c: 11)

Baina Vinsonek badakar ikuspegi berria eztabaida honetara. Izan ere, abstrakziorako ezgaitasuna dela zio, euskarak mendeetan zehar hainbat hitz mailegatu ditu inguru-ko erdaretatik, eta herri indieuoparrekiko harreman hauen bitartez, hain zuzen ere, heldu dira euskaldunak histori bidera (1877a: xiv-xv). Ikusi dugunez, Vinsonek jarraitzen dituen Schleicher-en teorien arabera, historian sartzek hizkuntzaren atzerabidea hastea dakar berekin, eta hizkuntza eransleen kasuan historian sartze hau hizkuntza isolatzaile edo flexibo baten eraginpean soilik gerta daiteke. Oroit bedi § 1.2.-n esan-dakoa.

Luchairek bi lekutan gutxienez eman zuen bere eritzia gai honetaz. Batean Vinsonekin ados agertzen da:

Quant au caractère matériel et tout *naturaliste* du vocabulaire de l'euskara, caractère que le prince B. se refuse à reconnaître ([1877a:] p. 44), nous le considérons avec M. Vinson comme difficilement contestable. (Luchaire, 1877b: 380)

Ohar bedi hemen *naturaliste* hitza —Luchairek berak azpimarkatua— ez dela erabiltzen zentzu “schleicherzaleaz”, baizik eta naturaren inguramenaren berri bakarrik eman dezakeen hizkuntza izendatzeko. Bonapartek (1877a: 7) ez zuen Luchaireren jarrrera hau aintzat hartu eta beraren tonu dogmatikoa —berriz ere— seinaltatzera mugatu zen.

Beste leku batean (1879: 177) euskal toponimian oinarritzen du Luchairek bere aburua, oraingo honetan zertxobait apalago agertzen delarik. Dioenez, leku-izenen azterketatik euskaldunak artzain herria zirela, irudimen gutxikoa eta ideia abstraktuetarako gaitasun eskasez hornitua, antzematen da, baina honekin ez du esan nahi —argi utzi nahi baitu— bere garaiko euskaldunen izaera halakoa denik.

Honelako eritziak berriz azalduko dira autoreon izkribuetan, baina argumentu berdinak errepikatuzera edo aurreko artikuluren batera dei egitera mugatuko dira (ik., esaterako, Bonaparte, 1884a: 4-5).

Euskarak hitz abstrakturik ez duelako ideia hau, Vinsonek hastapenetik azpimarkatutako beste arazo batekin lotu beharra dago: euskaldunen kultur atzerapena, «loakartutako adimena» (cf. Vinson, 1868: 6) hain zuzen ere. Apezgoaren eragin itzelak galera-zi du euskaldunen aurrerapena. Eta egoera berezi hau mantendu baldin bada, hizkuntza gordetzeagatik jazo da:

Pourquoi le pays basque a-t-il gardé cette physionomie spéciale? La principale cause est certainement la conservation de sa langue. (Vinson, 1868: 6)

(90) Oroit bedi Unamunok ere jaso zuela ideia hau: «...el euskera es pobrísimo en voces significativas de objetos espirituales o suprasensibles y hasta carece de términos que expresan ideas abstractas en general.» (1884: 113 hh.).

5.2. Hizkuntza izakia den heinean, euskarak bizirik irauteko borrokatu behar du. Alabaina, latinaren eta erromantzeen presioak euskara nabarmenki atzera eragin du Espainia aldean: Nafarroako hainbat herrik euskal izena dute, baina bertan ez da gaztelera baizik mintzatzen; herrialde honetako bertako euskararen mugaguneetan biztanlerik gutxiengoak erabiltzen du euskara. Hau dela eta, hizkuntza aldatu egiten da non-nahi: umeek mailegu erromaniko anitz sartzen dituzte hitz jatorren orde; kanpotarrekin harreman ugarien dituzten edo bizimodu modernoak agerian den tokietan, Donostian eta Donibane Lohitzunen kasu, okerrez jositako euskara mintzatzen da. Guzti honek, Vinsonen aburuz, euskararen heriotza hurbila iragartzen du (1877a: xi-xii). Euskaldunen kultur atzerapen honen frogagarri gisa, euskararen hizkera ezberdintasun handia aipatzen du:

...il n'est peut-être pas deux villages où l'on parle absolument de la même manière. Ceci est tout naturel du reste chez un peuple illettré et qui ne peut se mettre au niveau de ses voisins qu'en oubliant son antique langage. (xiv. or.)

Beraz, inguruko herrien mailara iritsiko badira, euskaldunek euskara ahaztu beste biderik ez dute. Eritzi guzti hauek, berriz bilduko ditu Vinsonek Iruñeko *REVISTA EUSKARA*-ren lehenbiziko aleei egindako erreseinan (cf. Vinson, 1878; cf., halaber, Granja Pascual 1986: 221-223), dioelarik foruak berpizteko eta euskara indartzeko ahalegiak oro alferriakokoak eta are kaltegarriak direla:

Mais de pareils efforts sont incontestablement stériles; rien ne saurait arrêter le cours inexorable des choses. Il n'y a rien de national chez les Basques, absolument rien d'original, que leur antique idiome, et c'est précisément parce que cet idiome est incompatible avec leur civilisation actuelle —toute espagnole— qu'il ne peut plus vivre et qu'il doit fatalement disparaître. Le basque n'est ni une langue littéraire ni une langue convenable aux instincts démocratiques de notre siècle.

L'opinion contraire est fondée sur une erreur, sur une méprise trop générale encore, mais bien excusable du reste. On croit à des institutions nationales basques, à une espèce de société républicaine des montagnards pyrénéens, dont les fameux *fueros* auraient été la charte et le code. Et pourtant ce point de vue est absolument faux: il n'y a rien de vraiment libéral dans les *fueros*, qui tendent simplement à la réglementation d'une oligarchie cléricale autoritaire. (1878: 466-467)⁹¹

Eritzi hauen iturriak Schleicher-engandik haraindi bila daitezke, A. Comte-ren hiru estadioen —teologikoa, filosofikoa eta positiboa— teoriaran eta, ziuraski hurbilago, H. Spencer-en darwinismo sozialean. Azken honek hiru gizarte mota bereizten ditu konplexutasun mailaren arabera: primitiboak, militarrek eta industrialak. Gizarte hauek ere, Schleicher-en hizkuntz taldeekin gertatzen den bezalaxe, bilakabide baten ondorio dira. Vinsonek, eta beranduago Unamunok ere, bi eskema hauek gainezartzen ditu. Beraz, hizkuntza eransle duen euskal gizartearen eredu militarren barnean sartzen da, eta hizkuntza flexiboa duten espainiar eta frantses gizarteak, aldiz, eredu industrialari dagozkio⁹². Bi gizarte eredu hauen arteko borrokan, Vinsonen aburuz, industrialak, bi-

(91) Unamunok ideia honi ere eutsi zion *mutatis mutandis* (cf. 1901: 238 hh.).

(92) Cf. Comteren ondoko pasarte hau: «Estudiando el desarrollo de la inteligencia humana [...] desde sus primeras manifestaciones hasta hoy creo haber descubierto una gran ley básica, a la que se halla sometida la inteligencia con una necesidad imposible de variar, y que me parece que se puede establecer con solidez, gracias a las pruebas racionales que nos suministra el conocimiento de nosotros mismos y a la verificación histórica que se puede llevar a cabo mediante un atento examen del pasado. Esta ley consiste en lo siguiente: cada una de nuestras principales concepciones, *cada rama de nuestros conocimientos* pasa necesariamente por tres estados teóricos diferentes: el estado teológico, o ficticio; el estado *metafísico*, o abstracto; el estado científico, o *positivo* [...]. Desde aquí proceden tres tipos de filosofías, o de sistemas conceptuales generales, acerca del conjunto de los fenómenos, que se excluyen recíprocamente. El primero es un punto de partida necesario para la inteligencia humana; el tercero es su estado fijo y definitivo; el segundo se halla destinado únicamente a servir como etapa de transición.» (Reale & Antiseri, 1988: 274)-tik jasoa; azpimarkatua nirea da. Agian, azpimarkaturiko hitz hauetan ikus daitezke hiru estadioen teoria hau hizkuntzalaritzan aplikatzearen zioa eta geroko hipotesien iturburua. Izan ere, agertu zaigunez, *metafisiko* eta *positibo* hitz hauek dira hizkuntzalari "berriek", lehena aurrekoen lanak kritikatzeko eta bigarrena beren metodoa izendatzeko, erabili ad-jetiboak (ik. § 2.).

lakatuena soilik iraun behar du, eta euskara oztopo bat besterik ez da, Euskal Herrian dagoeneko nagusi den ereduia Espainiakoa —industrial— baita («toute espagnole»).

Bonaparteren ustez, aldiz, batetik ezerk ere ez du adierazten euskara hiltzear dagoenik; bestetik, dagoeneko aipatu dudan argumentu bat —Vinsonek euskarari gorroto diolako— erabiltzeaz gain (1877c: 6), erakutsi nahi du ez dagoela batere frogaturik euskaldunek auzokoen aldean kultur maila apalagoa dutenik. Horretarako, Frantziako 1867ko alfabetagabeen estatistikez baliatuko da. Urte hartan, Landetan alfabetagabeen portzentaia %33-83koa den bitartean, Behe Pirinioetako Departamenduan, zeinetan biztanleen heren bat euskaraz mintzatzen baita, %10-25ekoa besterik ez da (12. or.). Bestalde, ezin baieztatu daiteke euskaldunak bihotzaren edo gogoaren nolakotasunetan direnik makurrago. Izan ere, mundu guztiak ezagutzen ditu euskaldunen zintzotasun, adoretasun eta leialtasuna. Printzeak mundu orori —Vinsoni barne— opa dizkio euskaldunen ezaugarriok:

Quant à nous, qui n'avons l'honneur d'être basque que par le coeur, nous souhaitons à tout individu de n'importe quel pays, sans excepter M. Vinson, l'intelligence, l'honnêteté, la bravoure, et surtout la loyauté qui se trouvent chez l'immense majorité des membres de cette noble race, un des plus beaux ornements de notre France. (Bonaparte, 1877c: 12-13)

Vinsonen «erasoen» kontra Campión ere azaldu zen *REVISTA EUSKARA*-n argitaratutako aipatu artikuluekin (cf. Campión, 1878). Bertan iberismoaren kontrako ikerlariak ez direla inpartzialak eta Euskal Herria mesprezatzatzen dutela dio (ik. Campiónen pasartea, § 4.5.). Orobat Gorostidik (1878).

Vinsonek salaketa guzti hauei erantzun zien *REVISTA EUSKARA*-n bertan argitaratu zuen eta Campiónek gazteleratu zuen artikulua batean (cf. Vinson, 1879). Bonaparterekin zenbait arazo zientifikotan ados ez dagoela aitortzen du, baina berak inolaz ere ez dio euskarari kalte egin nahi. Nortzu diren Euskal Herriaren benetako lagunak galdeztzen du gero: iraganari begira, euskarari eta Euskal Herriari laudorioak emaki geratzen direnak ala, aurrera begira, gizarte guztiarekin batera joan beharra ikusi eta Euskal Herriaren gaitzak konpondu asmoz aholkatzen eta kritikatzatzen dutenak (148. or.). Artikulua euskarazko hitz batzuekin amaitzen du, zeinetan euskararenganako bere maitasuna azaltzen baitu:

...Badakite nahi nukela herri huntako seme lehial eta azkar guztiak heldu diran demboretan bizi daiten bethico, ez, orai bezala, bere baithan beretzat choilqui lan eginik, bere chocoan hil daiteno, bainan sociedadade generalean sarturic igan dezatentzat, lehembiziko lerroetan, mereci duten bezala, heren cualidade handi guziaz.

Badakite ere Laphurdin izan ditut adisquide onec cembait eta nola maite dudan eskuara, nola ikasi dudan mintzaira eder eta zahar hura, nola nahi nuken hura ere bizi dadin. Bainan nor ausartatuko dá gauzen ibiltzeari buruz alchatzera, demborari erranez: eztuk eginen hire obra? Hobe zait munduco gorabeherei yarraikitzea oroiturik atsoititsak erráiten duenez: *oro nabiz, oro gal!* (*ibidem*)

Berandu gabe etorriko zaie beste alderditiko erantzuna Vinsonen argitasun hauei, Gorostidiren izenburu bereko artikulua baten bitartez (cf. Gorostidi, 1879) alegia. Gorostidik berriz ekiten dio Vinson Euskal Herriarren etsaia delako eritzari, eta Bonapar- tek (1877c: 11-13) Iparraldeko datuez egin zuen bezala, Gipuzkoako zenbait jakingarriz baliaturik, kultur maila bainoago, euskaldunen moral eta ohitura bikainak —Gorostidirentzat zibilizazioaren neurgailuak— aldarrikatu gogo ditu (227-230. or.)⁹³.

(93) Cf. *REVISTA EUSKARA*-ko artikulua hauetat, Granja Pascual (1986: 226-230).

6. Euskalkiez eta euskal literaturaz.

6.1. Bonaparte printzeak egin zituen euskalki eta hizkeren sailkapenengatik erdietsi zuen ospe handiena. Ez dut beraien xehetasunez luzatu nahi, hasieran esan dudan bezala aski aztertuak izan baitira —ik. lan honen hasieran eman erreferentziak, batez ere Mitxelena (1964) eta Yrizar (1981)—. Azpimarkatuko dut soilik Bonaparteren azken sailkapen argitaratuak (cf. 1863, 1869b)⁹⁴ izan zuen arrakasta. Izan ere, ikusten ari garen autore gehienek —eta bestek— aipatzen dute eta jarraituko diote euskalkiei buruz mintzatu behar dutenetan. Horrela, bada, Vinson (1877a: xv-xviii), Campión (1878) eta Luchaire (1879: 97-100, 126) printzearen euskalki edota azpieuskalki bakoitzeko herrien zerrenda eta Bonaparteren beste zenbait dialektologi argibide errepikatuzera mugatuko dira ia soilik.

Aitzitik, van Eys zertxobait aldentzen da sailkapen honetatik, *Grammaire*-n (1879: 1) sei euskalki nagusi bereizten baititu: «le bisciaïen, le guipuzcoan, le labourdin, le bas-navarrais, le navarrais-espagnol & le souletin». Hala ere, garbi utzi nahi du ez direla oso ezberdinak, euskalki diferenteetako hiztunek elkarri ulertzeko dituzten zailtasunak gorabehera, euskalki guztiak mailegu bertsuak hartu eta eragin berberak jasan baitituzte. Orobat, lege fonetiko berberak dituzte⁹⁵.

Guztiarekin ere, bizkaierak gainerako euskalkiek baino itxura arkaikoagoa duke-lako eritzia aurreratzen du, Lacomberen eta Uhlenbeck-en lanak —azken honen gehiegikerietara iristen ez bada ere— agertu baino mende erdi bat lehenago⁹⁶. Bizkaieraren bereizgarriak, van Eysen ustez, ondoko hauek dira (24. or.):

a) Bi erregimendun aditz-jokoan —hots, NOR-NORI-NORK erakoan— bizkaierak hiru laguntzaile erabiltzen ditu, *eutsi* indikatiborako, *egin* subjuntiborako eta **edin* ahalarerako, gainerako euskalkiak *euki*-z eta **ezan*-ez baliatzen diren bitartean.

b) Hiatoak eta, oro har, bokal bikoitzak eta hirukoitzak agertzeko joera nabarmena du: B *zaar* / orok. *zabar, zar*; B *lengo* / orok. *lehengo, lengo*; B *debekau* / orok. *debekatu*.

c) Zenbait hitz berezi, bizkaieraz bakarrik erabiltzen direnak: *gura*, kasu.

Halaber, zenbait bilakabide maizago gertatzen dira bizkaieran gainerako euskalkietan baino, hala nola artikuluak eragindako bokal aldaketak —*semia semea*-ren ordez, *arnua arnoa*-ren ordez— eta *r*-ren galtzea —*semiaen semiaren*-en ordez, *no nor*-en ordez, *ze zer*-en ordez (*nok-nork, zek-zerk?*) eta, oro har, singularreko genitiboaren *r*-ren erortzea—. Ezaugarri hauetatik eta bestetatik honako ondorio hau aterako du van Eysen lerro batzu beherago:

...faudra-t-il en conclure que le guipuzcoan & les dialectes basques français ont formé autrefois un groupe homogène, séparé du bisciaïen, mais toujours dans une relation de dialectes, ou faudra-t-il envisager le bisciaïen comme un dialecte plus ancien? Il serait peut-être prématuré de se prononcer sur cette question d'une manière décisive, mais il nous semble que le dialecte bisciaïen pourrait être considéré comme l'ainé de la famille. (4. or.)

(94) Bonaparteren maparen eta *Le verbe basque*-ren argitalpen daten arazoaz, ik. Yrizar (1981: 105, 26 eta 27. oh.).

(95) Hauxe da, nik uste, van Eysen ondoko pasarte honen muina: «Sauf les différences caractéristiques, les dialectes basques sont souvent pareils; des emprunts se sont faits de part & d'autre, ou des influences ont agi également chez les uns & chez les autres. Une langue dont tous les dialectes ont adopté en commun la totalité des lois phonétiques ne présentera guère des variations bien grandes...» (1879: 1). Maileguei buruzko baieztapenak, oso oker ez banago, beste interpretazio bat ere onartzen du, hots, euskalkiek elkarri hartutako maileguak direlako. Haatik, lehena adosago bide dago pasartearen testuinguruarekin, bai eta, bidenabar, datuekin ere.

(96) Bi autore hauen argudioen kritikarako, ik. Mitxelena (1964: 58 hh.; 1981) eta Lakarra (1986); cf. hala-ber Zuazo (1988: 107 hh.).

Euskalkien arteko erlazioak direla eta, beste auzi bat hartu behar dugu kontutan, hastapenetik eztabaidagai ageri zen euskalki nagusiaren arazoa, hain zuzen. Lehentasuna gipuzkerari ala lapurterari —bion arteko hautaketa baita— eman behar zaion dugu hizpide. Alabaina, alferreko kontua eta funsgabea irudi balezake ere, aipagarria da ene ustez, autoreok erakutsiko dituzten arrazoi eta argudiaketengatik eta, bereziki, dagoeneko K. Zuazok (1987: 930) azpimarkatu duenez, hizkuntz eredu baten bilaketak euskaldunok elkarrengana hurbiltzea ekarri zuelako. Zentzu honetan, Vinsonen eritziz, hizkera guztien multzoa bakarrik izan daiteke euskararen eredu, hagitz handiak baitira berauen arteko ezberdintasunak:

Le basque a quatre principaux dialectes: labourdin, souletin, gipuscoa [sic] et biscayen; mais il faut dire, en outre, que d'un village à l'autre on remarque des différences souvent importantes. Il est donc superflu de rechercher quel dialecte représente le mieux la langue; c'est seulement de l'ensemble de toutes les variétés qu'elle peut se dégager. (Vinson, 1868: 6)

Luchairek, ordea, lapurteraren alde joko du, forma zaharrak gipuzkerak baino hobeki gorde dituelakoan. Halaber, Vinsonen ere eritzi berekoa dela gehituko du⁹⁷.

Ezer gutxi gainera diezaioket, bestalde, K. Zuazok Bonaparteri buruz zuzen esandakoari (cf. 1987: 932-934); ohartarazi nahi nuke, dena den, printzeak bere lanetan bi motatako arrazoiak darabiltzala gipuzkeraren gailentasuna aldarrikatzerakoan: aipatuenak arrazoi praktikoak edo dira, gipuzkeraren jatoriasunarekin, “erregulartasun” gramatikarekin, hitzunen kopuru ugariarekin, etab.-ekin zerikusirik dutenak (cf., esaterako, Bonaparte, 1869b: 158; 1876: 5; cf. halaber Azkue, 1927: 13-14). Baina berebiziko garrantzia dute bestelako arrazoiek ere, arrazoi historikoak dei genitzakeenak. Azken hauek aspaldiko polemika baten alde bat baino ez dira: euskara Hegoaldetik Iparraldera ala Iparraldetik Hegoaldera eraman izan zen⁹⁸.

6.2. Arazo honen abiaburuan, gure artean, Oihenarten *Notitia* (1638) dugu, Toursko Gregorioren pasarte batean oinarritzen bide delarik (cf. Gorrotxategi, 1984: 71, 64. oh.; Tovar, 1980: 57). Beraren arabera, Akitania osoa izan zen erromatartua, Euskal Herriko Iparraldea barne. Eta euskara Iparraldean, *Vasconia Aquitanica*-n, baskoien erasoen ondorioz sartuko zen lehenbizikoz, VI. mendean alegia. Hauxe zen, bada, Bonaparteren garaian hedatuen zegoen tesia:

Que le basque ait été importé d'Espagne en France, est une vérité historique généralement admise et enseignée comme telle, même dans les livres les plus élémentaires [...] La plupart des hommes instruits admettent toutefois que “La Gascogne, qui formait du temps des Romains la Novempopulanie ou Aquitaine 3^e. prit son nom des Vascons ou Basques, peuple d'Espagne qui, refoulé par les Goths, franchit les Pyrénées vers l'an 542 et s'établit dans les provinces nommées Gascogne et Guyenne.” (Voyez Bouillet “Dictionnaire universelle [sic], d'Histoire et de Géographie”, au mot *Gascogne*). (Bonaparte, 1877a: 6-7)

Bonapartek ideia hauek jaso zituen hainbat lanetan eta berauek eramango dute Hegoaldeko euskalkien —bereziki gipuzkeraren— jatoriasunaren eta lehentasunaren alde egitera:

En ce qui concerne le guipuscoan, indépendamment de son vocabulaire et de la régularité de son verbe, il est, au point de vue pratique, le dialecte principal, le plus connu et le plus répandu du basque espagnol, de même que le labourdin moderne est, malgré son infériorité linguistique, le plus connu du basque français; mais comme les dialectes de France ne sont eux-mêmes en origine que des dialectes d'Espagne, il s'en suit que le guipuscoan se trouve être en même temps le premier des dialectes basques vivants. (Bonaparte, 1876: 5)

(97) Nik bederen ez dut Vinsonen ustezko eritzi hori inon ere kausitu; beharbada, eta Luchaireren hitzak kontutan hartuz gero, ez litzateke harritzekoa izango ahozko komunikazioa izan zela pentsatzea: «M. Vinson considère même le labourdin comme mieux conservé que le guipuscoan.» (cf. Luchaire, 1877b: 380).

(98) Cf. Gorrotxategi (1984: 70 hh.; 1985: 574 hh.).

Teoria honek eraginda, Bonapartek Hegoaldeko euskalkietako hizkuntz egiturak, hitzak, etab. hartuko ditu beti jatorrizkotzat. Printzearen lanetan barreiaturik, joera honen ondoko adibideok kausitu ditut, laburki bada ere jarraian ukituko ditudanak:

6.2.1. *ÛETA ÛSOINUAK*: Bonaparte bokal hauen auziaz *Le verbe basque*-n (1869b: xiv, 2. oh.) mintzo da, bigarrena aurrenekoaren eta *u*-ren arteko soinutzat («une prononciation intermédiaire entre celle de l'«u» et de l'«ü»») jotzen duelarik. Bi bokal biribildu hauen hedadura xeheki aipatu ondoren, printzeak ohartarazten du *ü* Iparraldeko euskalkietan soilik, eta ez guztietan, agertzen dela eta bigarrena, aldiz, Frantziatik hurbilen dauden Hegoaldeko haranetan. Hemendik bi soinu hauen jatorri frantsesa ateratzeko ez du aparteko ahaleginik egin behar:

Si maintenant on considère d'une part que le son de l'*ü* n'existe qu'en France, et seulement en Soule, en Mixe et à Bardos d'une manière obligatoire et générale, et d'autre part, que le son vraiment intermédiaire 'u' ne s'entend que dans les vallées espagnoles les plus rapprochées de la France, on pourra regarder, au moins comme possible, non seulement l'origine française de l'*ü*, mais aussi celle de l'*u*'. (Bonaparte, 1869b: xv, 2. oh.)

Baina bigarren aukera bat ere badakar, agi denez hobesten duena: *ü* tarteko soinua jatorriz euskalduna litzateke (hots, Hegoaldekoa) eta, Iparraldera iragandañoan, hango euskaldunek frantsesezko *ü*-ren eraginez aldatuko zuketean, azken soinu hau frantsesetik mailegatu besterik ez bazuten egin:

Si nous penchons pour l'opinion contraire, seulement quant à l'*u*, qui après tout n'existe pas en France, c'est qu'il nous paraît difficile de pouvoir admettre que les Basques français, qui sont tous d'origine espagnole, aient rien donné à l'Espagne. Ils auront bien probablement emprunté au français le son 'ü', ou bien sous l'influence de cette langue, ils auront changé l'*ü* en 'ü', mais quant au premier de ces sons, il doit être d'origine basque. (*ibidem*)

6.2.2. *DA / DAGO*: Vinsonek uste zuen Hegoaldeko euskalkietan gertatzen den *da / dago* bereizketa, azken honek lekuzko zentzua duelarik, gaztelera *ser / estar* aditzenaren kopia hutsa zela. Bonaparteren (1877b: 34) eritziz, ordea, alderantzizkoa jazo zen, hots, Iparraldeko euskalkiek euskaraz jatorrizkoa den erabilera hau frantsesaren eraginak kutsaturik galdu zuten, *egon* aditza erabat desagertarazteko bezainbateko eragina nozitu ez bazuten ere. Bonapartek arrazoizkoa deritzo jatorrizko erabilera Hegoaldeko euskalkietan hobeki gordetzeari, euskara Iparraldera penintsulatik ekarria izan zelako (*ibidem*).

6.2.3. *ESAN / ERRAN*: Orobat, Vinsonek *esan erran*-en aldaera dela dioelarik, Bonapartek kontrako eritzia agertzen du berriro ere arrazoi bertsuak erabiliz:

Nous ne saurions assez protester contre cette mauvaise habitude de conclure du basque de France ou de Navarre au guipuscoan et au bisciaïen. C'est le contraire qui devrait avoir lieu, car les dialectes basques de France ne s'étant formés que de ceux de la Navarre espagnole, et le guipuscoan et le bisciaïen ayant toujours été considérés comme les plus anciens et les plus importants de tous les dialectes basques, c'est bien de ceux-ci qu'il faudrait conclure à ceux-là, à parité de circonstances. Nous dirons donc que *erran* est une variété de *esan*. (Bonaparte, 1877b: 38-39)

Beraz, bestelako arrazoirik ezean, Hegoaldeko formak hartu behar dira beti jatorrizkotzat.

6.2.4. *BAI(T)*:- Kasu honetan ere Hegoaldean bilatu behar da iturria, printzearen eritziz. Izan ere, Bonapartek aditzera ematen du, Vinsonek (1876b) ez bezala, *bai(t)*-aditz aurritzia Iparraldeko euskalkietan ezezik Nafarroakoetan ere erabiltzen dela⁹⁹:

(99) Oroit bedi, dena den, dagoeneko *Le verbe basque*-n egin zuela antzeko adierazpen bat («La forme causative (*baitu*, etc.) appartient à tous les dialectes, moins le guip. et le bisc.») eta, argitaratu gabe ere, 1864.ean Echeniqueri zuzendutako gutun batean gipuzkeraren eta nafarreraren arteko muga erabakitzeke erizpidetzat erabiltzen duela: «*Ceren ona baita* ou bien *ceren ona dan* pour exprimer: *porque es bueno, parce qu'il est bon*. Le *baita*, le *baitu* etc. ne sont pas guipuscoans. Il est bien vrai que je trouve *baita*, mais rarement, dans les catéchismes d'Urdaïn et d'Etcharri-Aranaz, mais voilà tout ce que j'y trouve de vraiment navarrais.», (Urquijo, 1910: 280).

La forme causative, contrairement à ce qui dit M. Vinson, existe dans les deux dialectes navarrais espagnols, d'où elle a passé en France, et c'est probablement sous l'influence du guipuscoan que par exception elle ne se trouve plus ni à Irun ni à Fontarbie, du moins chez les personnes qui s'en tiennent au parler exact de leur localité. (Bonaparte, 1877b: 39-40)

6.2.5. *EK* ERGATIBO PLURALA: Vinsonek (1876b) uste du ergatibo pluralaren (berak, jakina, ez du *ergatibo* deitura erabiltzen, «nominatif baizik») *-ek* marka Iparraldeko euskalkietan bakarrik gertatzen dela. Bonaparte, aldiz, euskalkiez zuen ezaguera sakonaz baliaturik, aurki konturatu zuen (cf. 1862: 36-39) bi *-ek* diferente zeudela euskaraz: batetik, aurreko silabako bokal itxi —berak «douce» dakar— baten eraginez ixten den *a* baten ondorioz agitzen dena eta, bestetik, berezko *-ek* atzizkia. Lehenbizikoa, esaterako, horrelako bilakabidea duten euskalkietan erabiltzen da bai ergatibo pluralerako eta bai ergatibo singularerako eta absolutibo pluralerako ere —printzeak «actifs du pluriel», «actifs du singulier» eta «nominatifs du pluriel» deitzen ditu—, aldaera eufonikoak besterik ez baitira. Baina Iparraldeko euskalkietan eta goi-nafarrerazko zenbait hizkeratan (38. or.) agertutakoak ez du zerikusirik aurrekoarekin:

Le rôle que le *e* y joue dans les dialectes basques n'a rien d'euphonique; il est idéologique, puisqu'il sert à distinguer l'actif du pluriel du nominatif du même nombre, nominatif qui en France comme en Espagne se trouve être toujours identique avec l'actif du singulier. C'est à cause de cette distinction importante que le basque français ne néglige jamais à son grand avantage de faire au pluriel, comme elle est toujours faite dans tous les dialectes au singulier, que les formes *mendiek*, etc. ne peuvent jamais appartenir qu'à l'actif du pluriel, tandis qu'en basque espagnol elles peuvent à son grand détriment s'appliquer, de même que les formes *mendiak*, etc., soit à l'actif singulier, soit au nominatif pluriel, soit à l'actif pluriel. (1862: 39)

Zenbait urte beranduago (cf. 1877b) Bonapartek berriz eutsiko dio gaiari, oraingoan non erabiltzen den *-ek* «ideologiko» hori zehatzagotuz eta beraren jatorria nondik-norakoa den azalduz:

Nous n'admettons pas le moins du monde que les dialectes basques espagnols n'aient pas le suffixe actif pluriel en *ek*. Le dialecte haut-navarrais méridional en fait un usage aussi fréquent qu'en France, où c'est bien d'Espagne, après tout, que ce suffixe s'est introduit. Le guipuscoan et le biscaïen l'ignorent, et il en est de même du haut-navarrais septentrional pour ceux qui préfèrent de considérer le baztanais, qui le possède, comme un sous-dialecte du labourdin. (1877b: 41-42)

6.3. Aitzitik, Luchairek ez zuen onartu hain hedatua zegoen Hegoaldeko euskalkien antzinagokotasunaren eritzia. Edo, bederen, Bonaparteren *Observations...* (1877b) liburuxka irazkintzen duelarik dioen bezala, auzia ez dago batere garbi eta erabakirik:

...nous n'admettons qu'avec réserve son opinion, plusieurs fois énoncée dans cette brochure (p. 34, 39, 42), sur l'antériorité des dialectes espagnols et leur supériorité vis-à-vis des dialectes français. Prétendre que le basque a été «importé» d'Espagne en France par les habitants de la Péninsule [...] c'est résoudre bien promptement une question d'origine très-grave et très-délicate. Comment le prince B. pourrait-il démontrer que les Basques français ne sont pas aussi anciens dans leur pays que les Basques espagnols dans le leur? Nous aimerions à voir cette thèse soutenue avec les développements qu'elle comporte. (Luchaire, 1877b: 380)

Jakina denez, Luchairek gaskoia gainerako oc hizkeretarik bereizten duten zenbait ezaguarri azaltzeko euskararen (edo antzekoren baten) sustratoaren beharra ikusi eta Akitaniako inskripzio zaharretako onomastika aztertu ondoren (cf. Luchaire, 1877a), bertako biztanleek erromatarren garaian jadanik euskaraz mintzatzen zirela frogatu izan zuen, Oihenartek eta defendaturiko tesia bertan behera uzten zuelarik¹⁰⁰. Nolanahi

(100) Gauza jakina da Mitxelenaren ustez Luchaire bereziki historialaria eta bigarren maila batean hizkuntzalari (Schuchardt ez bezala) zelako iritsi ahal izan zela, hutsak gorabehera, halako ondorioetara (cf. Mitxelena, 1964: 72-74; 1982: 14-15).

ere, ez dugu ahantzi behar Luchaireren ideia berri hauen iturburuan oraindik ere iberrismoa dagoela. Beraz, euskararen muga zaharrak iparralderantz ezezik hegoalderantz ere luzatzen zituela.

7. Bukatzeko.

Aurreko orrialdeetan Bonaparte printzeak garaiko zenbait euskalari eta, oro har, hizkuntzalarirekin izandako eztabaiden berri eman dut. Honen bitartez, Bonaparteren eta gainerako estabaidakideen euskararekiko, hizkuntzarekiko eta hizkuntzalaritzarekiko ideia nagusiak azaltzea izan dut helburu nagusi. Haatik, lan honen mugak finkatu beharra bainuen, auzi anitz geratu dira agertzeke edo sakonki aztertzeke; esaterako, fonetika-fonologiaren arloan *k*- eta *b*-ren kontua (zein zaharrena); [f], [x] eta [ɸ] soinu-antzinatasuna euskaraz; kontsonante taldeen ugaritasuna, etab.; morfologian, euskararen deklinabide zaharra, *zu* izenordainaren antzinatasuna eta bereziki aditz teoriaren inguruko eztabaida, zalantzarik gabe sutsuenetariko bat; azkenik, hiztegiari dagokionez, autore ezberdinek eman etimologien irazkina.

Agian gehiago luzatu beharko litzateke Bonaparte, van Eys eta Vinsonen, nabarmenenak baino ez aipatzearren, hizkuntz ideien iturburuen azterketan. Izan ere, hemen aipamen soila izan duten zenbait "maisú"-ren lanek —Curtius, Chavée, Pezzi eta Ribáryrenek—, hala nola Vinsonek Hovelacqueri eta Bonapartek euskal gramatikari zaharrei zor dizkietenek miaketa sakona mereziko lukete. Baina oraingoz bego horrela.

ERREFERENTZIAK¹⁰¹:

- Alberdi, J., 1986, «Euskarazko tratamenduen ikuspegia: I. Historia apur bat», *ASJU* XX-1, 149-202.
- Arana Martija, J. A., 1984, «Prólogo» in González Echegaray, 1984, 29-48.
- Azkue, R.M^a, 1905-06, *Diccionario vasco-español-francés*, Tours. Berrarg. faksimilea: Bilbo, 1969.
- _____, 1925, *Morfología vasca*, Bilbo. Berrarg. faksimilea: Bilbo, 1969.
- _____, 1927, «Observaciones acerca de la obra *Langue basque et langues finnoises* del Príncipe L.-L. Bonaparte», *Euskera* VIII. Separata: Bilbo, 1927.
- _____, 1931, «Particularidades del dialecto roncalés», *Euskera* XII, 207-407.
- Bonaparte, L.-L., 1862, *Langue basque et langues finnoises*, Londres.
- _____, 1863, *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*, Londres.
- _____, 1866, *Formulaire de prône en langue basque, conservé naguère dans l'église d'Arbonne. Deuxième réimpression*, Londres.
- _____, 1869a, *Le petit Cathécisme espagnol du P. Astete, traduit en trois dialectes basques: 1. Aezcoan, par Don Pedro José Minondo, instituteur à Garralda, avec la coopération de Don Martin Elizondo d'Aribe; 2. Salazarais, par Don Pedro José Samper, curé de Jaurrieta; 3. Roncalais, par Don Prudencio Hualde, curé de Vidangoz. Vérifié et modifié sur les lieux mêmes par le prince Louis-Lucien Bonaparte, avec le concours des gens de la campagne, et après avoir rendu les trois versions aussi comparatives que possible*, Londres.
- _____, 1869b, *Le verbe basque en tableaux, accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l'euskara: le guipuscoan, le bisciaïen, le haut-navarrais septentrional, le haut-navarrais méridional, le labourdin, le bas-navarrais occidental, le bas-navarrais oriental et le souletin; avec les différences de leurs sous-dialectes et de leurs variétés. Recueilli sur les lieux mêmes de la bouche des gens de la campagne, dans cinq excursions linguistiques faites dans les sept provinces basques d'Espagne et de France pendant les années 1856, 1857, 1866, 1867, 1869*, Londres.
- _____, 1869c, «Note sur les prétendus génitifs et datifs pluriels de la langue basque», *RLPhC* II, 282-284. (1866-4-6).
- _____, 1876, *Remarques sur plusieurs assertions de M. Abel Hovelacque concernant la langue basque, accompagnées d'observations grammaticales et bibliographiques (Extrait de la "Revue de Philologie et d'Ethnographie", publiée par Ch. E. de SÉLUVY. Tome deuxième, No. 3, Paris, 1876)*, Londres.
- _____, 1877a, *Notes sur certaines remarques de M. A. Luchaire*, Londres (1877-6-21).
- _____, 1877b, *Observations sur le basque de Fontarabie, d'Irun, etc.*, (*Actes de la Société Philologique* VI, 3), Paris (Londres, 1876-12-20).
- _____, 1877c, *Remarques sur certaines notes, certaines observations et certaines corrections, dont M.J. Vinson a accompagné l'Essai sur la langue basque par F. Ribáry (Extrait des "Actes de la Société Philologique", Tome VII, No 2. Paris, 1877.)*, Londres (1877-3-26).
- _____, 1877d, *Remarques sur les dialectes de la Corse, et sur l'origine basque de plusieurs noms locaux de cette île... (Extrait du numéro 4 des "Annales de la Corse", Paris, 1877.)*, Londres (1877-2-13).
- _____, 1883a, «Carta lingüística», *EE* IX, 261-265. (Londres, 1883-6-30).
- _____, 1883b, «Carta lingüística», *EE* IX, 485-489. (Londres, 1883-11-12).
- _____, 1884a, *Nouvelles remarques sur quelques assertions de M. J. Vinson concernant la langue basque*, Londres (1884-12-12).
- _____, 1884b, *Remarques sur certaines assertions de M. J. Vinson concernant la langue basque*, Londres (1884-10-28).
- _____, 1884-85, *Italian and Uralic Possessive Suffixes compared*, Londres.
- _____, 1889a, «Notes sur certaines assertions de M. van Eys concernant la langue basque», *Euskara* (Berlin) III-6, 47.
- _____, 1889b, «Nouvelles Notes sur des nouvelles assertions de M. van Eys concernant la langue basque», *Euskara* (Berlin) III-7, 51-52.
- _____, 1890, «Corrections des prétendues "Corrections" faites par M. van Eys, de mes premières "Notes sur certaines de ses assertions concernant la langue basque"», *Euskara* (Berlin) IV- 8, 62-63.
- Bonaparte, L.-L. eta Burnell, A., 1882, «De las terminaciones hispano-portuguesas *ez* y *es*», *Revista Euskara* V, 191-192 eta 201-209. [Londresko *The Academy* aldizkarian sortutako polemikaren laburpen eta itzulpena].
- Bynon, Th., 1981 [1977], *Lingüística histórica*, Madrid.
- Campión, A., 1878, «El anti-iberismo. Notas», *Revista Euskara* I, 231-237.
- Caro Baroja, J., 1982, *Sobre la lengua vasca*, Donostia.
- Chahou, A., 1836, *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835). Avec portraits et costumes*, Paris.

(101) Zenbait lanetan autoreek berek ezarritako data eranstean dut parentesien artean.

- _____, 1856, *Dictionnaire Basque, Français, Espagnol et Latin*, Baiona.
- Chomsky, N., 1984 [1966], *Linguística cartesiana*, Madrid.
- Corominas, J., 1983 [1961], *Breve diccionario etimológico de la lengua castellana*, Madrid.
- [Darrigol (l'abbé)], 1827, *Dissertation critique et apologétique sur la Langue Basque, par un ecclésiastique du diocèse de Bayonne*, Bayonne.
- Duvoisin, J., 1868, «Quelques mots à propos de l'Essai de grammaire de la langue basque de M. W. J. Van Eys», *Courrier de Bayonne*, 1868-2-9. Berrarg. in van Eys (1873a), xxiii-xxxii.
- Ellis, A. J., s.d., *Prince Louis Lucien Bonaparte's lists of vowels and consonants... Reprinted from pp. 1293 to 1307 and pp. 1325 to 1357 of Alexander J. Ellis's Early English Pronunciation*, s.l.
- González Echegaray, C., 1984, «Catálogo de los manuscritos reunidos por el Príncipe Luis-Luciano Bonaparte que se hallan en el País Vasco...», *Euskera* XXIX, 23-184. Berrarg.: Bilbo, 1989.
- Gorostidi, M., 1878, «Leyendas vascongadas», *Revista Euskara* I, 177-184. eta 209-216.
- _____, 1879, «El método científico y la lengua euskara», *Revista Euskara* II, 225-231.
- Gorrochategui, J., 1984, *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*, Bilbo.
- _____, 1985, «Historia de las ideas acerca de los límites del vasco antiguo», *ASJU* XIX-2, 571-594.
- Granja Pascual, J. J., 1986, «Julien Vinson, el euskera y una polémica del XIX», *ASJU* XX-1, 217-235.
- Harriet, M., 1741, *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua Francez hitzuncunã ikbasi nabi dutenen faboretan*, Baiona.
- Hovelacque, A., 1876, *La linguistique*, Paris. [Batez ere 87-106].
- Hübner, A., 1893, *Monumenta linguae Ibericae*, Berlin.
- Humboldt, W., 1817, *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweiten Bandes des Mübrids über die cantabrische oder baskische Sprache*, Berlin.
- _____, 1821, *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens mittelst der Vaskischen Sprache*, Berlin.
- Lacombe, G., 1907, «Basquisants contemporains. Le prince Louis-Lucien Bonaparte», *RIEVI*, 161-166.
- _____, 1908a, «Achille Luchoire», *RIEVI* II, 808-809.
- _____, 1908b, «Basquisants contemporains. Le Jonkheer Van Eys (Notice Bio-bibliographique)», *RIEVI* II, 805-807.
- _____, 1908c, «Quatorze lettres inédites du Prince Louis-Lucien Bonaparte au Comte de Charencey», *RIEVI* II, 775-786. (1862-9-29-tik 1888-11-10-ra).
- _____, 1932, «Lettres du Prince L.-L. Bonaparte à D. A. Campión», *RIEVI* XXIII, 192-198. (1880-5-6-tik 12-31-ra).
- _____, 1933, «Lettres du Prince L.-L. Bonaparte à D. A. Campión», *RIEVI* XXIV, 304-313. (1881-1-22-tik 6-2-ra).
- Laka, I., 1989, «Astarloaren hizkuntzalaritzaz», *ASJU* XXXIII-1, 75-86.
- Lakarra, J.A., 1985a, «Larramendiren hiztegitzaren inguruan», *ASJU* XIX-1, 9-50.
- _____, 1985b, «Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkojotiko sermoia (1737)», *ASJU* XIX-1, 235-281.
- _____, 1985c, «Berriz Larramendiren segizioko zenbaitez», *ASJU* XIX-2, 439-452.
- _____, 1986, «Bizkaiera zaharra euskalkien artean», *ASJU* XX-3, 639-681.
- _____, 1987, «Lécluse-ren euskal gramatika. Euskalaritzaren historiarako lanabesak (I)», *ASJU* XXI-3, 813-916.
- _____, eta Urgell, B., 1988, «Lécluseren hiztegia. Euskalaritzaren historiarako lanabesak (II)», *ASJU* XXII-1, 99-211.
- Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido. Arte de la lengua vascongada*, Salamanca. Berrarg. faksimilea: Donostia, 1979.
- _____, 1745, *Diccionario trilingüe vasco-español-latín*, Donostia. Berrarg. faksimilea: Donostia, 1984.
- Lécluse, F., 1826, *Manuel de la langue basque*, Toulouse-Bayonne Berrarg. in Lakarra (1987) eta Lakarra-Urgell (1988).
- Luchoire, A., 1877a, «Les origines linguistiques de l'Aquitaine», *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, 1876-77, 349-423. Separata: Pau, 1877.
- _____, 1877b, «Observations sur le basque de Fontarabie, d'Irun, etc. par le prince L.-L. Bonaparte...» [irazkina], *Revue Critique d'Histoire et de Littérature* XI, 378-380.
- _____, 1879, *Étude sur les idiomes pyrénéens de la région française*, Paris. Berrarg. faksimilea: Genève, 1973.
- Mitxelena, K., 1955, «La toponimia romana en Vizcaya» [irazkina], *ASJU* II, viii-xii. Berrarg. in Mixelena (1988), 627-629.
- _____, 1963, *Lenguas y protolenguas*, Salamanca. Berrarg.: Salamanca-Barcelona, 1986.
- _____, 1964, «Sobre el pasado de la lengua vasca», Donostia. Berrarg. in Mixelena (1988), 1-73.
- _____, 1976, «La fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas», *Revista Española de Lingüística* VI, 309-326. Berrarg. in Mixelena (1985b), 73-85.
- _____, 1981, «Lengua común y dialectos vascos», *ASJU* XV, 291-313. Berrarg. in Mixelena (1987), 35-55.
- _____, 1982, «Sobre la historia de la lengua vasca», *ASJU* XVI, 143-156. Aipuaq berrargitalpenari dagozkio, in Mixelena (1987), 9-21.
- _____, 1983, «Euskara eta euskarekiko ikerlanak (1700-1880)», in *Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa*, Bilbo, 237-250. Aipuaq berrargitalpenari dagozkio, in Mixelena (1988), 948-964.
- _____, 1984a, «Aurkezpena», in Sarasola (1984), 11-23. Berrarg. in Mixelena (1988), 349-360.

- _____, 1984b, «Presentación», in Vinson (1984).
- _____, 1985 [1961, 1977], *Fonética Histórica Vasca*, Donostia.
- _____, *Lengua e historia*, Madrid.
- _____, 1987, *Palabras y textos*, Bilbo.
- _____, 1988, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, ASJU-ren gehigarriak 10, J. A. Lakarra (arg.), Donostia.
- Mounin, G., 1983 [1967], *Historia de la lingüística. Desde los orígenes al siglo XIX*, Madrid.
- Oiharçabal, B., 1989, «Les travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729)», *BMB* eta *ASJU* XXIII-1, 59-73
- Oihenart, A., 1638, *Notitia utriusque Vasconiae tam Ibericae quam Aquitanicae*, Paris. Bigarren argitalpen gehitua: 1856. Azken honen gaztelerazko itzulpena badago J. Gorosterrazuk *RIEV*-en argitaratua.
- Omaechevarría, I., O.F.M., 1962, «Declinación vasca», *Euskera* VI, 29-42.
- Oroz, F. J., 1981, «La relación entre el vasco y el ibérico desde el punto de vista de la teoría del sustrato. Esbozo de una hipótesis», in Varij, *Iker-I*, Bilbo, 241-255.
- Reale, G. & Antiseri, D., 1988, *Historia del pensamiento filosófico y científico. III. Del romanticismo hasta hoy*, Barcelona.
- Ribáry, F., 1877, *Essai sur la langue basque...*, Paris. [Vinsonek hungarieratik itzulia eta oharrez osatua. Hungarierazko lehen edizioa: *Nyelvtudomány közlemények* V (1866), 37-75. eta 426-474. Ik. Vinson (1877a)].
- Riezu, R. P. J., 1958, «El Príncipe Luis Luciano Bonaparte», *PV* XIX, 149-164.
- Ruiz Arzalluz, I., 1990, «El original griego de Leizarraga: ¿una quimera filológica?», in J.A. Lakarra (arg.), *Memorial L. Mitxelena Magistri Sacrum* (ASJUren gehigarriak 14), Donostia (inprimategian).
- Sarasola, I., 1984, *Hauta-Lanerako euskal biztegia. A-aurten*, Donostia.
- _____, 1986, «Larramendiren eraginaz eta», *ASJU* XX-1, 203-215.
- Schleicher, A., 1852 [1850], *Die Sprachen Europas in systematischer Uebersicht. Linguistische Untersuchungen*, Bonn. Frantsesezko itzulpena erabili dut: *Les langues modernes de l'Europe par A. Schleicher, traduit de l'allemand par Hermann Ewerbeck*, Paris, 1852.
- Tovar, A., 1980, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Madrid.
- Unamuno, 1884, «Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca», in Unamuno (1968), IV. liburukia, 87-119.
- _____, 1901, «Discurso en los Juegos Florales celebrados en bilbao el día 26 de agosto de 1901», in Unamuno (1968), VI. liburukia, 237-250.
- _____, 1968, *Obras completas* [16 liburukil, M. García Blanco (arg.)], Madrid.
- Urquijo, J., 1908, «Cartas escritas por el Príncipe L. L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores», *RIEV* II, 215-221, eta 655-659. (1857-12-1-tik 1861-12-11-ra).
- _____, 1910, «Cartas escritas por el Príncipe L. L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores», *RIEV* IV, 233-297. (1862-1-2-tik 1869-4-8-ra).
- _____, 1927, «Julien Vinson (1843-1926)», *RIEV* XVIII, 217-224.
- Van Eys, W.J., 1867, *Essai de grammaire de la langue basque. Deuxième édition revue et augmentée*, Amsterdam. Lehen argitalpena izengabe agertu zen 1865.ean.
- _____, 1868, «Réponse à M. le Capitain Duvoisin...», *Liberal Bayonnais*, 1868-8-18. Berrarg. in van Eys (1873a), xxxi-xxxiv.
- _____, 1873a, *Dictionnaire basque-français*, Paris-Londres.
- _____, 1873b, «Le pronom démonstratif basque a-t-il toujours été a?», *RLPbC* VI, 183-186. Berrarg. in van Eys (1873a), xxxv-xxxviii.
- _____, 1874a, «La langue ibérienne et la langue basque», *RLPbC* VII, 3-15.
- _____, 1874b, *Le verbe auxiliaire basque*, Paris.
- _____, 1875, *Étude sur l'origine et la formation des verbes auxiliaires basques*, Paris.
- _____, 1879, *Grammaire comparée des dialectes basques*, Paris.
- _____, 1883, *Outlines of basque grammar*, London.
- _____, 1886, «Le dialecte de Dechepare», *Euskara* (Berlin) I-1, 1-2.
- _____, 1888a, «Traduction littérale des Poésies de Dechepare avec notes explicatives», *Euskara* (Berlin) I-4, 27-28.
- _____, 1888b, «Berichtigungen und Zusätze», *Euskara* (Berlin) II-5, 37-38.
- _____, 1889a, «Goizian. Ilherrian. Batheyarria», *Euskara* (Berlin) II-6, 44-45.
- _____, 1889b, «Corrections des "Notes" du Prince L.-L. Bonaparte dans le No. 6 de l'Euskara», *Euskara* (Berlin) III-7, 52-53.
- _____, 1890a, *Les verbes auxiliaires dans le Nouveau Testament de Licarrague*, La Haye.
- _____, 1890b, «Nouvelles Corrections des "Nouvelles Notes" du prince L.-L. Bonaparte dans le No. 7 de l'Euskara», *Euskara* (Berlin) IV-8, 63-64.
- Verd, G. M., S. J., 1980, «Sobre la cuestión vascoibérica», *ASJU* XIV, 99-133.
- Villalonga, J., 1953-57, «Introducción a un estudio sobre Luis-Luciano Bonaparte y sus trabajos», *EJ* VII, 39-68.
- Villasante, L., 1979, *Historia de la Literatura Vasca* 2ª edición corregida y aumentada, Oñate.
- Vinson, J., 1868, «Coup d'oeil sur l'étude de la langue basque», *RLPbC* I, 381-405. Aipuaq separatari dagozkie: Paris, 1868.

- _____, 1870-71, «Premier essai de phonétique basque», *RLPbC* III, 423-458. eta IV, 118-127.
- _____, 1872, «L'étude de la langue basque: les publications récentes du prince L.-L. Bonaparte», *RLPbC* V, 190-219.
- _____, 1874a, *La question ibérienne (Extrait des Mémoires du Congrès scientifique de France, session de 1873, t. II, p. 357-368)*, Paris.
- _____, 1874b, «Le verbe basque», *RLPbC* VI, 238-253. Separata: Paris, 1874.
- _____, 1875a, *La science du langage et la langue basque (Extrait du Bulletin de la Société de Sciences et Arts de Bayonne, Séances des 15 Avril et 27 Mai 1874)*, Paris.
- _____, 1875b, «Le verbe auxiliaire basque», *RLPbC* VII, 322-347. Separata: Paris, 1875.
- _____, 1876a, *Le basque et les langues américaines. Étude comparative lue au Congrès des Américanistes a Nancy le 23 Juillet 1876*, Paris.
- _____, 1876b, «Spécimens de variétés dialectales basques», *RLPbC* VIII, 310-319. Aipuak separatari dagozkio: Paris, 1876. (Bayonne, 1876-1-21).
- _____, 1877a, «Avant-propos» eta «Notes complémentaires», in Ribáry (1877), x-xxv. eta 99-119.
- _____, 1877b, «Les études basques et la critique», *RLPbC* X, 210-222.
- _____, 1878, «Revista Euskara» [irazkina], *RLPbC* XI, 466-468.
- _____, 1879, «El método científico y la lengua vasca», *Revista Euskara* II, 144-148.
- _____, 1880, «Grammaire Comparée des dialectes basques», par W.-J. Van Eys» [irazkina], *RLPbC* XIII, 117-123.
- _____, 1881, «Orreaga, balada por d. Arturo Campión» [irazkina], *RLPbC* XIV, 101-104.
- _____, 1888, «Berichtigungen und Zusätze», *Euskara* (Berlin) I-4, 30.
- _____, 1891, «Berichtigungen und Zusätze», *Euskara* (Berlin) V-9, 70-71.
- _____, 1892, «Nécrologie: le prince L.-L. Bonaparte», *RLPbC* XXV, 80-84.
- _____, 1909, «Le présent et le passé dans la conjugaison basque primitive», *RIEV* III, 315-317.
- _____, 1918, «Études grammaticales. La forme primitive organique du passé», *RIEV* IX, 16-24.
- _____, 1919, «Syntaxe basque. Position du déterminant et du déterminé», *RIEV* X, 58-71.
- _____, 1920, «La Phonétique Basque», *RIEV* XI, 5-9.
- _____, 1984 [1891], *Bibliographie de la langue basque (Volúmenes I y II). Con unas palabras sobre la presente edición de Luis Michelena*, ASJU-ren gehigarriak 9, Donostia [J. Urquijoren alean oinarritutako edizioa].
- Yrizar, P., 1960, «El príncipe Luis Luciano Bonaparte y su obra», *BAP* XVI, 3-14.
- _____, 1981[1949], «Los dialectos y variedades del vascuence», in *Contribución a la dialectología de la lengua vasca (I)*, Donostia, 95-125. Lehen argitalpena in *Homenaje a Don Julio de Urquijo e Ybarra I*.
- Zuazo, K., 1987, «Euskaldunek euskalkienganako izan dituzten jarrerez», *ASJU* XXI-3, 927-950.
- _____, 1988a, *Euskararen batasuna. Iker-5*, Bilbo.
- _____, 1988b, «El verbo regular Vascongado del dialecto vizcaino gramatikaren ekarriaz», *ASJU* XXII-2, 547-568.
- _____, 1989, «Zubereraren Saikapenaz», *ASJU* XXIII-2, Jarri orriak (ALE HONETAN).

Van Eysen gramatika-lanak

IBON SARASOLA
(E.H.U.)

ABSTRACT

This paper deals with the contribution of the Dutch linguist Wyllen J. van Eys (1825-1914) to Basque studies. Within his contribution the Grammaire Comparée des Dialectes Basques (Paris 1879) is especially analysed. This is a Basque grammar written following the ideas and methods of the contemporary European linguistics. In his grammar van Eys sets up some of the basic ideas —like the absence of declension in Basque— generally accepted by grammarians nowadays, which had been considered the result of later research work.

0. Aldez aurretiko bi oharrez hasi nahi dut hitzaldi hau. Lehenbizikoa. Joseba Lakarrak eratu eta antolatu duen ikastaro hau * biziki interesgarria iruditzen zait. Besteak beste, herri batek bere iker-ihardunbidearen aztertzeari ekiten dionean maila bat gorago igotzen delako bere kultur garapenean. Eta hori da ikastaro honetan azken buruan proposatzen zaiguna: aurreko mendeetako euskal gramatikaren ikertzaileen lanari buruzko gogoeta bat. Zer izan ginen jakitea zer garen jakiten lagungarri gerta dakigukeen aldetik betoz ordu onean honelako ikastaroak.

Dena dela, kontu-garbiketa honi, nere ustez, testuingurua falta zaio, hots, garai haietako Europar hizkuntz ikerketei buruzko egoera erabatekoa edo orokorra zein zen jakitea. Badakigu XIX. mendearen hasieran gramatika konparatua hasten dela Alemanian lantzen; baina zein zen gramatika-ikerketei buruzko egoera Europako, eta bereziki Espainia eta Frantziako unibertsitateetan, eta ildo beretik, zer irakasten zen alor horretan euskaldunak hezten ziren apaizgaitegietan? Honi buruzko argibideak, nere ustez, beharrezkoak genituzke gure kultur historiaren irudi beteagoa izateko.

Bigarrena. Van Eysen lana aztertzerakoan eragozpen larri bat dut. Ez ditut behar bezain ongi ezagutzen XIX. mendeko euskal gramatikari buruzko lan guztiak. Hortaz, nik Van Eysi leporatzen dizkiodan zenbait aurkikunde besteren batek egina edo susmatua gerta daiteke. Ikastaro honetan proposatu zaigun elkarlana izan daiteke oztopo hori gaingitzeko biderik onena.

1. Ez dut Willen J. Van Eysen bizitzako zertzeladei buruz gauza handirik jakiteko aukerarik izan. Amsterdamen jaio zen, 1825ean. Lacombe dioenez (1908: 805) «ikasketa sendoak egin zituen, grinaz ikasi zuen hizkuntzalaritza». 1866an, eta

* [Arg. oharra. Egileak «Euskalaritza XVIII eta XIX. mendeetan» izenarekin EHU-K Donostian udaran urtero egiten dituenen artekoa aipatzen du.]

data kontuan hartzekoa da, bidaldi bat egin zuen gure artera, Gregorio Arrue ezagutu zuelarik Zarautzen. Bigarren bidaldi bat egin zuen, 1868an, azkena. Londresen bizi izan zen eta 1914ean hil zen, San Remon.

Dena dela badira beste zenbait alderdi Van Eysen obrari hurbiltzeko interesgarriak gertatzen direnak.

Adibidez, bere ikerlanetan gehien aipatzen diren liburuak. Hauek dira: *Diez-en Grammatik der romanischen Sprachen* (1836-1844), Bopp-en *Gramatika konparatua* (1833) eta obra horren Breal-en frantses itzulpenaren hitzaurrea, A. H. Sayce-ren *Principles of comparative philology* (1874). Max Muller-en ¹ *Lectures*, Brachet-en *Dictionnaire étymologique* eta Salva-ren gaztelaniazko gramatika. Bestalde, Pott-i —antza denez hizkuntz indieuroparren etimologia eta fonetika erkatua sortu zituena— euskal izen bereziei buruzko lan bat eragin zion, eta N. van der Tuuck, «hizkuntza polinesiarretan adituenetako bat», adiskide zuen. Argi dago beraz, besterik gabe nondik nora zebilen hizkuntzalaritza eta gramatika-kontuetan.

Bere ikerlanetan nederlandera, alemana, ingelesa, frantsesa, italiara eta gaztelania erabiltzen ditu. Azpimarragarria da, agian, latina gutxi aipatzen duela. Hizkuntzozon egitura eta nolakotasunez etengabe baliatzea da bere lan-metodoaren ezaugarri nabarientako bat. Adibidez:

Nous croyons y avoir démontré jusqu'à l'évidence qu'il n'existe pas de déclinaison en basque pas plus qu'en français; quand on connaît les langues turque, hongroise, etc., cette question est simple, elle n'embarrasse que ceux qui prennent le latin et le grec pour base (*Dictionnaire Basque-Français* [=DBF], xxxiii).

Euskal gramatika guztiak ezagutzen zituen, eta bere lanetatik ateratzen denez sakon ikasiak eta aztertuak zituen. Larramendi, Zavala, Inchauspe, Gèze, Bonaparte, Duvoisin eta Vinsonen lanak behin eta berriro aipatzen ditu, ez denak eta ez beti —bereziki Zavala, Duvoisin, Bonaparte eta Inchausperenak— laudoriozko aiputan.

Erabiltzen dituen euskal testuei dagokienez, azpimarragarriena hautatzen dituen autoreak berak dira: batez ere Etxepare zaharra, Leizarraga eta Axular hain zuzen, eta gipuzkerarentzat Lardizabal. Testuok ere, eta beste hainbat, sakon ezagutzen zituela argi ikusten da bere lanetan, adibidez Oihenarteren atsotitz eta neurtitzen Archuren zuzenketa eta itzulpenari kritikan (ik. *DBE* xiiihh.).

2. Van Eysek batez ere gramatika bat eta Hiztegi bat utzi zizkigun. Gramatikak *Grammaire comparée des dialectes basques* izena darama eta Parisen argitaratu zen 1879an. Lehenago, 1865ean, *Essai de grammaire de la langue basque* bat argitara zuen, aski kaxkarra denek esaten dutenez. 1867an Euskal Herrira egin zuen lehen bidaldiaren ondoren erabat eraberritua berrargitara zuen. Hamabi urtetako isilune baten ondoan jendarteratzen du, beraz, bere *Gramatika konparatua*, gramatika-alorrean burutu zuen lanik garrantzizkoena. Berak dioskunez «Notre Essai du dialecte guipuzcoan ne pouvait guère être complété, qu'en devenant une étude comparative des dialectes différents» (*Grammaire comparé* [=GrC] vii).

Bitarte horretan, 1873an bere lanik ospetsuena —Arana Goiri euskara-ikaslearen lehen gidaria, besteak beste— *Dictionnaire basque-français* hiztegia argitara zuen, hau ere Parisen.

(1) Antza denez, Sayce-ren aurretik Oxford-en irakasle egon zen filologo bat zen.

Euskal testuen argitaratzaile legez, 1596ko *Refranes y Sentencias*en argitalpen bat, eta Leizarragaren San Mateoren Ebanjelioarena dira aipagarrienak ².

3. Beste ezertan sartu aurretik Van Eysen zientzigizon *talantea* erakutsi nahiko nuke, bere lanaren adierazgarririk ohargarrienetako bat baita. Horrela, esaterako, iberikoaren auziarekiko jarrera, geroago etorri ziren hainbat hizkuntzalari eta euskalari famatuena baino zuhurragoa, eta beraz zientifikoagoa, izan zen. «Il n'y a rien à préjuger soit pour, soit contre la théorie d'identité du basque & l'iberien» diosku, hipotesi hutsa dela baieztatuz. Teoria Larramendirena dela gaineratzen du, eta Humboldt-ek harena errepikatu besterik ez duela egiten; harrezkero «abrité sous le nom du célèbre philologue allemand, on a répété de confiance ce qu'on ne se trouvait pas en état de vérifier». Eta ahaidetasunaren frogak non dauden galdetu ondoren horrela dio: «vouloir comparer une langue dont on ne sait pas lire l'écriture à une langue qu'on ne connaît presque pas, est un tour de force qui ne peut guère donner un résultat sérieux» (GrC 8).

Orobat, euskal aditzaren auziaz ia gaur arte berriro aurkitzen ez dugun jarrera bat erakusten du. Arazoa larria dela, zinezko azterketa eskatzen duena, aitortu ondoren, lehenik zer den zaharra eta zer gero erantsia berezi behar dela aditzera ematen du. Bestalde, konturatua zen jadanik euskararen hots-legeak ezagutzen genituenean laguntzaile bikaina izango genuela aditzaren auzian. Ildo beretik, *eraman dut-etik deramat* eratoritzen delako Intxausperen teoriaren aurrean, hau besterik ez dio: «l'auteur ne dit pas comment, ce qui n'aurait pas été tout-à-fait superflu» (GrC 130), eta iruzkin hau egiten dio Bonaparteren «no discussion upon it is possible, the matter is so evident» topiko saihesgarriari: «de cette façon on ne court pas risque de s'embrouiller dans ses arguments» (ib. 284).

Egiatzko ikerlariak bezala ez du inolako beldurrik ez dakiena aitortzeko. «Nous l'ignorons» esaldia behin eta berriz agertzen da bere lanetan. Orobat ezjakintasuna gainzuritzeko denok erabiltzen ditugun edergarrien fede ematea: «mais la question de la sifflante reste, pour laquelle nous n'avons aucune hypothèse à offrir. Lettre adventice, lettre euphonique ou lettre de renforcement, &c, ne serait qu'un euphemisme pour ne pas dire «j'ignore» (GrC 125), edo «on a voulu reconnaître dans *ki* un datif; mais cette explication ne nous avance guère; c'est simplement répéter la difficulté en d'autres termes, car qu'est-ce que le datif *ki*?» (ib. 159) adierazten duenean.

Bukatzeko, beste askoren artean bat hautatu dut. Vinson-ek *balitz* > *zen* proposaketa plazaratu zuen. Bere ustez *zen*-en jatorrizko forma *ziz zen*, zeinak gero *zitz* eta *litz* eman baitzuen. Problema funtsezko bat du eratorketa honek, beste guztiak hutsal bihurtzen dituena: *ziz*-ek ez duela euskal inperfektoa *esplikatz*en. Eta hori izan zen, hain zuzen, Van Eysek aitzakiatu ziona.

4. Aski interesgarria iruditzen zait halaber zientzigizon gisa horrela agertzen den Van Eysi Euskal herriko garaiko iker-giroak eragiten dizkion gogoeten berri ematea:

Plus on étudie le basque, & plus on voit diminuer l'abîme, qu'ont croyait exister entre le basque & les autres langues (DBF vii). L'admiration naïve pour des phénomènes imaginaires fera place à une admiration intelli-

(2) Euskal arlotik at, aipatu artikuluan adierazten duenez, ezer gutxi argitara bide zuen: *Aperçu de la grammaire hollandaise* bat, 1890ean argitaratua, eta xv eta xvi. mendeetako frantsesezko Biblia eta Itun Berriei buruzko bibliografia bat, bi liburukitan.

gente, basée sur la connaissance des faits. L'admiration par exemple, pour la déclinaison & pour la conjugaison, cessera nécessairement, ou changera de nature, le jour où l'on verra que la déclinaison n'existe pas, & que la conjugaison basque a été soumise aux mêmes lois de la logique que celle des autres langues, c'est-à-dire qu'elle exprime dans ses flexions le sujet, le verbe & l'objet (...). & s'il recontre des flexions difficiles à expliquer, ou qui ne s'expliquent pas pour le moment, il faut s'en prendre à l'ignorance du grammairien, & non pas aux particularités de la langue basque (DBF viih.).

Ez da beraz inor harrituko Euskal herrian ikusten zuen iker-giroaz mintzatzen denean jalgitzen dituenekin:

Une autre cause que a fortement contribué à perpétuer le caractère d'étrangeté qu'on croyait découvrir dans la langue basque, c'est la préférence pour les explications extraordinaires, surnaturelles, quand l'explication naturelle se trouvait sous la main (GrC viii).

edo ildo beretik salatzen duenean Zavalak-eta erabiltzen dituzten izen korapilotsuen bidez euskarari eman nahi zaion bestelakotasun-aira:

Zavala nomme 'pretérito remoto indicativo conjetural' ce que n'est autre chose que le présent de conditionnel, formé selon la manière des langues romanes (GrC 182).

Orobat hurrengo iruzkinean, euskararen egiazko bestelakotasunaren aurrean euskalariak hartzen duten jokaeraren salaketa ikusi behar da batez ere:

Quand une flexion est obscure, ce n'est pas la langue qui est bizarre ou divine, ou tout autre qualificatif qu'on voudra lui appliquer, c'est nous qui sommes dans l'ignorance, par rapport à ses lois phonétiques ou à ses particularités de prononciation (GrC 115).

Eta aditzaren arazoaz jarraituz, argi dago Van Eysen ustean garaiko ikerketen huts nagusia hau dela, kasurik hoberenean deskripzio eta sailkatze-lan hutsera mugatzen zirela gure artean:

Jusqu'à présent on n'a donné que des tableaux, ce qui n'explique rien; on chercherait vainement un principe. Ce qu'il fallait, c'était des lois, des règles, une méthode enfin (GrC 114).

Egoera horren barnean bere asmoak argiak dira:

Nous espérons faire rentrer la langue basque dans la famille des langues naturelles, d'où elle était bannie par suite de théories où la fantaisie règne en souveraine. Le surnaturel a été & est encore toujours invoqué pour expliquer le verbe basque. Désespérant sans doute de trouver une solution rationnelle à la question de la conjugaison, on s'est jété dans les bras de la théologie & l'on a voulu expliquer par un dogme chrétien ce qui n'était qu'une difficulté grammaticale (GrC 114).

Eta ildo beretik hiztegian:

Nous espérons que le présent travail contribuera à faire disparaître, en grande partie, ce qui restait de rêveries grammaticales (DBF vii).

Iruzkin eta baieztapen hauek aditzera ematen duten jarrera, erabat berria egiten zait garai hartako gainerako euskalarien ihardunaren aldean. xix. mendeko egoera ezagutzen dudana neurrian bederen. Izan ere, nere ustez Van Eys dugu lehen

euskalari modernoa³, guk gaur ditugun iker-kezka berak dituena eta iker-arazoak ezartzeko eta aztertzeke gure ikuspuntuak erabiltzen dituena.

5. Hitzalditik geratzen den zatian Van Eysen *Gramatika konparatu*-aren hainbat alde aztertuko ditut.

Van Eysen azken gramatika-lan hau lan zabala eta mardula da. Eta aski modernoa bestalde. Adibidez ortografiari buruzko ohizko zatiaren orde, euskararen hots-sistemari buruzkoa eskaintzen du, lehen aldiz, nik dakidanez, gure artean. Ondoren artikulua, deklinabideaz —edo zehazkiago gaur egun deklinabide-atzizki edo deitzen ditugunez— eta izenaz, izenondo eta izenordainez dihardu, 100en bat orrialdetan. Gero aditzari buruzkoa dator, aski zabal tratatua, besteak beste adizki-taulak ere ematen baititu; zati honek gramatikako 330 orrialde hartzen ditu. Aditzaren ondoan adizlagunaz eta konjuzioez dihardu 25 orrialdetan. Azken zatia joskerari, sintasiari dagokio, 60 orrialderekin.

Van Eysen helburua garaiko ikerbide aurreratuenen arabera, euskararen gramatika konparatuaren oinarriak ezartzea da. Dena dela Van Eysen lana aski zorrotza da deskripzio hutsaren mailan. Horrela, berak adierazten du lehenik, nik dakidanez, *ba-* eta *bait-* aurrikiez ez dela hikako formarik gertatzen (GrC 522 eta 526), edo *jaten dedanean*-en azpian *jaten dedan orduan* edo dagoela (ib. 518); orobat, esaterako, sujeto bera aditz iragangaitz eta iragankor banari lotzen zaizkionean lehenengo aditzak gobernatzen duela komunztadura (ib. 471) Halaber, beste maila batean, Etxepare zaharrak ez duela *zein* erlatibo-balioz inoiz erabiltzen.

6. Euskal gramatika-ikerkuntzara Van Eysek dakartzan ekarpen eta ikuspegi berriak ez dira hutsaren hurrengoak. Batez ere kontuan izanik aitzindari bat izan zela, eta erabili nahi zuen tresneria teorikoa, oraindik hasi berritan zegoela. Verner-en legea, esaterako, 1875ekoa da, eta neogramatikoen lanak oraindik ez zeuden eskumenean.

Bere ekarpen nagusietako batzuk berak aipatzen ditu DBF-ren hitzaurrearen ix. orrialdean:

- Le système phonétique.
- L'article ou le pronom était primitivement *ar*.
- La déclinaison n'existe pas.
- Le pronom *zu* est pluriel; *hi* seul est singulier; *zuek* est le pluriel de *zu*⁴.
- Le superlatif est le génitif pluriel⁵.
- Le pronom possessif est le génitif du pronom personnel.
- Il y a des suffixes composés.
- Le futur périphrastique est rendu par le génitif de l'adjectif verbal.
- Il y a plus d'un auxiliaire.

Van Eysen gramatika aztertuz erraz ikusten da ez direla hauek haren ekarpen bakarrak. Bestelako bi besterik ez ditut aipatuko, beste euskalari batzuen aurkikundetzat ditugunak hain zuzen: *kin*-en etorkia *kide*-n dela, Schuchardt-i (1947: 61) leporatzen dioguna eta Van Eysek gramatikaren 76. orrialdean aurkitzen dena, eta

(3) Orobat alde metodologikoetan; esaterako «Quand même la thèse de M. l'abbé [Inchauspe] serait exacte, ce dont nous doutons beaucoup, son argument ne vaut rien» (DBF xviii).

(4) Honetaz berriro mintzatzen da gramatikaren 93. orr.-an, plurala zena erdal «vos» eraginez bihurtu zela «singulier honorifique» gaineratuz. Gaur egun erabat onartzen dugun iritzi hau «guztiz harrigarria» iruditzen zitzaion Duvoisin kapitainari: ik. DBF xxviii.

(5) «Le superlatif absolu est rendu par le génitif suivi de l'article *a*. *On* 'bon' fait *onen* 'des bons' & *onena* 'le ou celui des bons' = le meilleur» (GrC 32).

aditz-izenekiko *-n-a non* kasu-atzizkikoa dela, Lafonen aurkikundetzat genuena, baina euskalari holandarrak aztertzen ari garen obraren 58 eta 23 orrialdeetan argi eta garbi adierazten diguna.

7. Lehen aipatu dugunez, euskararen hots-sistema GrC-en lehen zatian ematen da, bigarren kapituluan hain zuzen. Kezka hau bere garaiko hizkuntzalari hobereenetarik jaso zuen, jakina baita konparatistentzat hots-legeen azterketak zuen axola. Ildo horretatik «les lois phonétiques sont d'un intérêt de premier ordre pour l'étude d'une langue» (DBF xvii) esango digu. Hortaz, Van Eys da, dakidanez, euskal hots guztiak taula batean sailkatzen dituen lehena. Fonetika-azterketen garai hartako egoera kontuan hartuz deskribapen eta sailkapen aski egokia iruditzen zait. Bestalde, hirugarren kapituluan euskarazko hots-legeak finkatzen saiatzen da, garai hartan erabat berria gertatzen den zehaztasun eta xehetasun batez. Horrekin ez dugu esan nahi, ezta hurrik eman ere, arlo horretan beti asmatzen duenik, baina, esaterako, leku-denborazko kasu-atzizkiak izen-sintagmari lotzean gertatzen diren gorabehera korapilatsuak hots-legeen bidez garbitu nahi izanak badu interes teorikorik. Bestalde, alor honetan ere badu aurkikuntzarik. Nabarmenena, gaur egun «aurkiberritu» dugun *gizonek < gizonaek < gizon-ak-ek* eratorpena.

8. Neretzat Van Eysen ekarpenik handienetakoa euskal ikerketen arloan deklinabideari buruzkoa da. Ordura arteko ikerlari guztiak, latinaren-eta ereduari jarraituz, hizkuntza deklinabidedunen ildotik azaltzen saiatzen ziren izen-sintagma perpausuan artikulatzean gure hizkuntzan ematen diren gertakariak. Van Eys da azalpena atzizki-sistema baten ildotik bideratzen duen lehena. Berak dioenez, euskarak, inguruko hizkuntzek bezala, artikulua du eta perpausaren osagaien arteko erlazioak atzizki bidez gauzatzen dira.

Van Eysentzat euskal artikulua *-a* atzizkia da, haren forma zaharra *ar* zen⁶ eta beste hizkuntza askotan bezala erakusle bat da, bizkaieraz gordetzen den *a* erakuslea hain zuzen. Artikulu honek plural bat du: *-ak*. «Kasu»-atzizkiez honela dio hitzez hitz: «les autres modifications du nom, qui dans d'autres langues sont exprimées par des cas ou par des prépositions, sont indiquées en basque par les suffixes; la langue basque ne possède pas de déclinaison» (GrC 29). Zer esanik ez, artikulurik bazegoela ere ukatzen zuten bere garaiko gainerako euskalarien artean⁷ berebiziko polemika sortu zuela baieztapen hauekin.

Euskal hizkuntzalaritzari, aipatu berri dugun latin eta grekoaren ereduaren eraginagatik, asko kostatu zaio atzizki-sisteman oinarritzen den deskribapen-moldearen abantailez jabetzea. Orobat, atzizkiok izen-sintagma osoa hartzen dutela eta haren osotasunari dagozkiola, ez da azken urteetako gramatika-lanak arte argi eta garbi baieztatzen⁸. Bigarren puntu honetan ere Van Eys dugu aitzindaria «la langue basque est extrêmement économe dans la manière d'indiquer les rapports des mots entre eux; ce n'est qu'au dernier mot de la proposition qu'on ajoute le suffixe

(6) Gavel (1929, 51-52), Van Eysen iritziari jarraitzen zaio: «on voit que parmi les cas qui ne sont point simplement conservés de la déclinaison primitive [...] mais formés spécialement pour le singulier, plusieurs présentent entre le radical et la caractéristique casuelle un élément *-ar*. L'origine de cet élément n'est pas douteuse: il ne faut y voir, suivant une hypothèse de Van Eys, que le radical de l'un des démonstratifs euskariens».

(7) Horrela Duvoisinek eta Gèzek, Van Eysen berak gramatikaren 26. orrialdean gogoratzen digun bezala.

(8) Bestalde, badirudi, honetaz, nik dakidanez, gehiegi idatzi ez bada ere, mendebaldeko hizkuntzetan bederen, latinez bezala grekoz, alemanez eta abarrez, deklinatzeak komuntzadura dakarrela; hots, izen sintagma jakin bateko osagaien komuntzadura dela hizkuntza deklinabide-

qui doit désigner ce rapport» dioskunean. Eta honekin lotura hertsia duen, eta duela gutxi arte hainbat euskalari nahastu dituen arazo batez uste aski zuzenak zituen ordurako hizkuntzalari holandarrak:

Le sujet & l'objet existent [euskaraz], comme de raison; c'est la logique qui le veut; mais la grammaire ne connaît ni nominatif, ni accusatif (GrC 470).

Azken buruan, deklinabide ala atzizki-sistema, terminologi hutsezko arazo irudi lekioket norbaiti. Baina ez da hala. Atzizki-sistemaren ikuspuntua hartuz deskribapena askoz ekonomikoagoa da —hots, askoz zientifikoagoa—, eta bide horretatik *surdeclinaison* delakoa, erlatibozko perpausak deklinatu egiten direla eta antzeko bitxikeriak saihesten ahal dira. Are gehiago, izen sintagmaren arloan, euskararen eta latin-hizkuntzen artean, are xehetasunetan, dagoen ezin ukatuzko kidetasuna —osagaien ordena, adjetiboarena izan ezik, erabat alderantzizkoa gorabehera— eredutzat erabiliz, deskribapena erabat errazten da⁹, eta hainbatek hain maitea duten baina euskal estudioei hainbat kalte egin dien euskararen berezitasuna hausten. Izpiritu honetan, *semearenak*, hots *seme-ar-n-ak* eta «les-de-le-fils», edo *eman duenarentzat* eta «pour celui qui donne» etab, erabateko kideak —erabat alderantzizko hurrenkerarekin— direla ikuserazten saiatuko da liburuan zehar. Ikuspuntu «normal» hau da, azken buruan, Van Eysen euskal hizkuntzalaritzara dakarren ekarpen nagusia.

9. Van Eysen ekarpenaren beste alor nagusia aditzarena da. Bere gramatikan egiten da lehen aldiz adizki-egituren eta hauen osagaien analisi funtzionala, eta analisi horren ondorioak ikerketa-tresna gisa erabiltzen dira¹⁰.

Aditzaren alorrean ere Van Eysen jokaera «desdramatizatze»aren aldekoa da: euskal aditzak ez du funtsean gauza berezi nabarmenik eta, oro har, inguruko hizkuntzen gisakoa da. Bere hitzetan, «la conjugaison basque ne s'éloigne pas autant qu'on l'a cru de celle des autres langues» (GrC 113); «les temps des verbes basques sont les mêmes que ceux de la langue française ou espagnole, ou l'usage qu'on en fait est à peu près la même» (ib. 501), «le principe est le même; *dut* n'est pas plus extraordinaire que 'j'aile'; seulement, en français on écrit 'je-ai-le', dont la syntaxe a fait 'je l'ai'» (ib. 115). Are gehiago, 127 orr.-an azaltzen duenez,

dunen ezaugarri funtsezkoenetako bat. Alde honetatik hizkuntzen bat bada gure artean «deklinatzen» ez dena, hizkuntza hori euskara da, sintagma barruko osagaien numero-komunztadurarik ere ez baitu. Beste hitz batzuez esateko, izen-sintagmako erredundantzi maila hutsa da euskaraz, eta horren ondorioz oso hertsia da osagaion hurrenkeraren gobernatzen duen legea, latinez, esaterako, ez bezala. Eta perpausaren osagaiak, aldiz, askatasun handiz koka badaitezke han edo hemen, euskarak perpaus-mailan, adizlagunaren egitura dela eta, duen erredundantzi maila garaiaren ondorioa da...

(9) Are gehigo «(kasu) absolutu»-aren kontu hori utziko bagenu —hots, paradigmetatik baztertuko bagenu— eta latin-hizkuntzetan antzera mintzatuko bagina —artikuluak, erakusleak, atzizkiak edo posposizioak etab. — hainbat deskripzio erraztu egingo liriateke, nere ustez. Adibidez, askotan aipatu da *etorri zen gizon hura* bezalakoan balio bikoitza, erlatiboduna eta gabea. Baina *gizon-i* kasu-atzizkiren bat erasten badiogu —*etorri zen gizonak* edo *etorri zen gizonarentzat* etab.— orduan bikoiztasuna desagertu egiten da zeren *zen* erlatibozkoa soilik baita. Salbuespen bat dago, kasu absolutua —*etorri zen gizona*— hain zuzen, hots, «kasu»-en zerrendatik baztertu beharko genuena. Bestalde *gizon* «absolutu mugagabe»-a dela baieztatzeak analisia nahas dezake. Hori dateke, esaterako, M. Sagües-en *Metodo elemental de euskera* liburuan ematen diren zenbait argibide okerren iturburua. Adibidez *gizon hura* esapidetan *gizon* mugagabearen dagoela esaten digunean.

(10) Esaterako gramatikaren 504. or.-an frogatzen denean *banu* etab. *nuke*-rekin lotu behar dela, eta ez, Larramendik eta ziotenez, *nuen*-ekin, horretarako hirugarren pertsonan agertzen den *l*-aurrizkian oin hartzen duelarik.

maite dut alemanezko *ich habe ihn lieb*-en kide hitzez hitzezkoa da: «*maite* est 'lieb'; *d-u-t est* 'ich-habe-ihn' en lisant à rebours».

Campionen hizkuntzalaritza lanez mintzatu behar badut hemen, beharrezkoa izango dut noraezean Campionez beraz ere zerbait esatea.

Jendea hasia dugu don Arturoz mintzatzen eta ordu ere bazen: zenbait lan irakurri ditut behintzat han eta hemen^a. Badirudi, nolahi ere, ez dela oraindik aski den adina esan Campionez beraz. Pertsona baino giroa eta ingurunea gogokoago izan ditzake norbaitek. Ni, berriz, bestetara ninderaman haizeak: eza-gutu nahi nukeen eta behar litzatekeen neurrian ezagutzen ez dudana (gehientsuok ez dugun?) pertsonagana.

Campionen bizitza nolazpait itxuratu behar baldin banu, zaharragoak eta berriagoak bereziko nituzke. Ez noski bata, lehen aldia, bestea ez bezalako delako guztiz, baizik eta bata eta bestearen artean halako giro-aldatzea, tenperatura aldetik batez ere, nabari uste dudalako. Borroka bideak (eta *cat' exochen* borrokabide den politika) saihesten ditu eta alderantziz gero eta emanago agertzen zaigu abia-abiatik hain gogoko zituen ikerlanei. Gradu kontuan gabilitza, berriz ere diot, eta ez da inola ere bai-ala-ezko arazoa.

Hogeitabi urte zituen 1876an, ebakondoz hain beterik utzi gintuen gerraren azkenean. Nondinahi hartzen ditugun horren ondorioak, ez ziren inolaz ere hementxo jende asko eta askoren buru-bihotzak asebetetzeko modukoak izan. Ezta Campionenak ere. Horrelako lehia urrikigabeen ondoren, askok, ez zenbaitek, pentsatu ohi du bide okerretik, malkarrik malkar, ibiliak garella eta, egin direnen kalteak eta hutsaldeak ageri direnez gero, erraz genukeela bestelako kamioeren bategatik, lehenagoko kutsurik ez duenetik, abiatzea. Uste horiek, ordea, gainerako usteen pare, ustela dute erdia.

Karlista-liberalen arteko gerra aski alferrikakoa, noragabea, iruditzen zitzaion Campioni, Nafarroari (eta Nafarroa ez da nafarren bilduma baizik: lehengo eta oraingo nafarrena, etorkizun direnak bestalde) eta Campionentzat eta besterentzat Nafarroaren sorkari eta eraskin baizik ez zen gainerako Euskal herriari ez zion deus eskaini, kaltea baizik. Lehengo ustebideak ahitu ondoan, berriak behar ziren bilatu. Eta hori ez zitzaion neke gure gizonari amaituberri zen gerratean ez zelako gehiegi lotu, bihotzez eta asmoz ez behinik-behin, ez batzuen ez besteen alderdiari.

Borroka bukatu bezain sarri, beraz (eta amets hau berau egin du geroko zenbait amesgilek), deseginak ageri ziren behatopabide zitezkeenak; prest, berriz, orubeak nahi-eta-ezko genituenak eraikitzeko. Esan beharrik ez amets hori aurki aienatu zitzaizela. Lehengo lepotik zuten burua lehengo alderdiek eta ez zebiltzan

* *Euskera* XXX (2. aldia), 1985-1, 63-70. or.

^a [Ik., adibidez, R. Ciérvide *FLV* 41-42 (1983) eta J. J. Granja Pascual *FLV* 43 (1984), *ASJU* XX-1 (1986), XXI-2 (1987) eta *Euskera* 1985-1.]

bereganatua zuten eremua inori uztekotan. Lehen, egia esan, gobernubideak erabat aldatzeaz eta mantentzeaz ari ziren ardailan; gero, berriz, kargutxoak eta boto-mordoxkak gordetzeaz. Hitzak hitz, ordea, ez zen funtsean deus aldatu. Ondorio horien zain mingotsaren irudia jaso nahi duenak ez du, urrutira gabe, gurearen *Blancos y negros* irakurri besterik. Gogoan duelarik, gainera, *gure* orduko literatura ez dela soil-soilik euskal literatura, baizik eta horretaz gainera gurean sortzen den erdarazkoa. Navarro Villosladaren gerrate ondoko *Amaya* (1876), esate baterako, ez zuen Campionek, hain gurea zelarik, baztertu. Ikus, bestela, honek REVISTA EUSKARA-n egin zion kritika edo, hobeki esan, aditzera ematea. Eskumenean dugu orain Otatzu jaunari eskerrak.

Nafarroari zinetan eta benetan zegokion joera, besterenganako grinena mirabe ez zena, nahi zuen Campionek, eta honekin batean beste batzuek: Nafarroaren lehenaldian finkatua, honen historia sendoa oinarritua... Eta, oraindik bizi zelarik, aldi igaroan lur horietan hedatuago eta indartsuago ageri zen hizkuntzan.

Gogo-iritzi horiek ez ziren, esan den bezala, Campionenak bakarrik, ezta alderatzeko ere. Hor bazkatu ziren 'Asociación Euskara' eta REVISTA EUSKARA zirelakoak, Iturralde, Oloriz, Altadill, D. Irujo, E. Aranzadi, beste hainbesterekin Campion bera lagun ^b.

Zenbait urteren buruan,ugar horiek ez ziren ito, bai ordea epeldu eta are ilaraundu. Euskarak, Nafarroako euskarak buruenik, ez zuen burua jasotzen, behe-tik beheitiago zihuan. Hortik zetorkion haragian josia beti eraman zuen arantza, gero eta barrenago, Donostiako azken orduetaraino. Politikarako isuria, berriz, eta isuri euskaltzalea, lege zaharren aldekoa nolazpait esan, indarberritu zen. Bestetan areago, ordea, Nafarroan baino, bide berriok ez zirela, gainera, Campionen arrazgokoak. Bere usteen alde gatazka bizian ibili ondoren (ikus, esaterako, *RIE* Ven lehenbiziko urteak), berera itzuli zen eta, bere horretan, lagun eta adiskide ospatsuz inguratutik, hainbat euskal elkarteren partaide eta buru zelarik, lanean iraun zuen kemenak agortu arte, bista aurrenik.

Badakigu euskal idazle izan zela, erdal idazle ez ezik, maizago eta ugariago hasiera hartan gero baino. Beste horrenbeste egin zuten, egia esan, Etxegarai anaiak eta hauei ez zaie nabari Campionek nabarmen duen ajea. Ez baitzuen honek sekula euskarazkorik idatzi erdarazkoen aldamenean jar dakiokkeenik. Erdarazkoek izan zuten beti garra eta giharra, orain (Otatzu jauna agertu arte, bederen) zokoratuxe badaude ere.

* * *

Erdarak gogorazi dit, zehar bidez, Campioni, Broussainekin batean, Euskal-tzaindiak egotzi zion eginbide larria, euskararen batasunerako bide bila. Egin zuten lana, ederki egin ere, ikusteko ondoriorik gabe, haatik: inolazko ondoriorik ez zuela izan esan baitaiteke. Gogo da, gura, uste eta asmoak mamitzen eta gauzatzan dituen noski eta ez zegoen, ez orduan eta ez frankoz geroago, gogorik, gogo eragungarriarik esan nahi nuke, jende samalden artean, harako burutapen hutsalak burutzeran daraman horietakorik. Entzun berria diot Charritton jaunari Broussain azkarrago izan zela eta bere laguna nagiago egiteko horretan, Lacomberengandik datozen gutun agertu berriek adierazten omen dutenez. Horrela bide da, izan, baina ez dakit bietarik inork, ez bata ez besteak, xede-helburuak hurbil eta eskuragai ikusten ote zituen. Ezetz nioke nik.

^b ['Asociación Euskara'-ri buruz ikus A. Elorza «Los orígenes del nacionalismo vasco en Navarra» en *Ideologías del nacionalismo vasco*, San Sebastián 1978, 11-107. or.]

Burua eta eskuak erabiliak zituen gazte-gaztetandik herriari dihoazkion arazoetan, gerra amaitu baino lehenagotik, hain zuzen. Eta Bonapartek sorrerazi ez zion grina hori ez zitzaien sekula ihartu, urritzen eta bakantzen joan bazitzaion ere, bizi eta herioaren legez. Euskal bideak, ordea, Printzeaganik jaso zituen, batipat, eta euskalkietarako isuria lehenbizi, *Orreaga*-rekin, 1880. Mintzabeharra ere berekin zekarren, ordea, eta ez huts-hutsik besteri jaulkia jasotzekoa. Horrexegatik beragatik ez zaio noski iraingarri irudituko inori, berriz ere badiot Nafarroako euskal erakusgarri horien iturburua txukun eta txairo (erdaraz ez ote, gainera?) idatzi nahiak ondorioak ahuldu eta indargabetu zituela. Galduan irten zen euskalkien ezaguera eta ez genuen, galera horren truk, Altabizkarko kantuaren kimu berri bat, Hiribarrenenaren ondoan, irabazi baizik egin.

* * *

Besterik mintzatu da hemen *Gramática*-z eta ez nuke zaharrak berritzen abiatu nahi. Obra hori ere, nolazpait, Bonapartegandik dator, baina Campioneak eginak ezina zirudien Printzearentzat. Honek, izan ere, bildu eta metatuko zizkizuen hango eta hemengo aberastasunak, baita bata bestearen hurren ipini ere argi eta garbi. Elkarretaratze huts hori baino goragoko lotura eta joskera ematea gaitz zitzaien haatik, Schuchardt-ek gero esango zuenez. Prest zeukan lana (harriak, adrikuak, kareta eta zurajea baturik daudenean etxea prest dagoen modutsuan) ondorengo leialak burutu zion. Bai iaio burutu ere.

Badakit oraindik orain don Manuel Lekuonak goraiatu duela liburu hori, ikas- eta irakasbide izan zuen aldetik, baina ez naiz gauza igertzeko norainoko eragin eta ondorioa izan zuen. Askok irakurri dugu —ikuskatu behintzat, bai—, lehenago edo beranduago, baita erosi ere, egokierak eskura badigu. Ez dirudi, horratik, maizegi erabili dugunik, aipatzea baita erabili izanaren seinalerik nabarmentena, eta aski urriak dira *Gramática*-z aurki daitezkeen izena baino urrunago-ko aipamenak. Horrela iruditzen zait behintzat niri.

Euskal etxeko borroken kondairak ez digu argitasun larririk eskainiko Campionen erabateko iritziez, hizkuntzalaritzari dagokionez. Zaharragoa zen Bonaparte, 1813an jaioa, ez zen beti ongi moldatu gazteago zituen van Eys (1825) eta Vinson-ekin (1843), ezta hauek ere harekin. Etsai van Eys izan zuen batipat, beldurgarri itxurako etsai, sinesgaitz badirudi ere orain. Gure egunotan, izan ere, ez baitzaizkigu ez van Eys ez honen Gramatika-Hiztegiak halako erraldoi itxuran agertzen ^c.

Ez dago esan beharrik Bonaparteren borroka-lagun sutsu izan zela gure nafarra, maizenik guttieneko kontuan. Ez dut inolaz ere esango, gainera, okerbideetik ibili zela horrela jokatzean. Argitasun pila bildurik hartu zuen Printzearengandik eta, gehiago axola zaiguna, azterbideak ere ikasi zituen honengandik bilduak ugaritzeko: ikasi ez ezik, gure arteko besteri irakatsi ere bai. Bonapartek, haatik, zenbait aburu eta uste ere, hainbeste argibideren aldamenean, eman zion bere ikasleari. Orotariko eta erabateko iritzia, esan nahi dut, horrelakorik gabe (estari nahiz nabari) ez baita azterlanik xumeena ere egiteko modurik. Bonapartek berak ere, bada, zein ere teorizekena zen, ezin izurizko zorra kitatu zuen, noiz edo noiz.

Lacomberi esker, badakigu ze oinarritzko (horrela baderiztegu) liburu eskaini zizkion Bonapartek Campioni hizkuntzalaritza orokorrerako edo. Louis Benloew, *Aperçu général de la science comparative des langues pour servir d'introduction*

^c [Ik. orain I. Sarasolaren lana in J. A. Lakarra (arg.), *Euskalaritza XVIII eta XIX. mendeetan*, EHU 1989.]

à un traité comparé des langues indo-européennes, Paris 1858 (lehenbiziko argitaraldi hau da, hain zuzen, *Gramática*-ren obra-zerrendan, lxix hh., ageri dena; ez bigarrena), eta Hovelacque-ren *La linguistique*. Azkeneko hau adiskidea ez dakit, baina Vinson-en laguna zen, batez ere REVUE DE LINGUISTIQUE ET DE PHILOGIE COMPARÉE hartan. Benloew-en liburua, Printzeak dioenez, «ne me paraît pas trop mauvais». Nekez pila dezakegu egungo egunean iritzia iritziaren gain, Benloew-en izena, omena ez ezik, aspaldi suntsitu baitzen, esateko moduan.

Delako zerrendan ikus dezakegu Campionek ikusiak zituela Bopp eta Diez-en liburu sonatuak: *frantsesera itzuliak*. Whitneyrena ere, frantsesez *La vie du langage*, arima erratu bihurturik bizi zenean baino ospatsuago duguna (badakizue zergatik), lista horretan aurki dezakegu.

Itzulpenak hartu ditut ahotan Bonapartek 1881ean, aldatu berria dugun kontseiluarekin batean, esaten zizkion hitz hauek direla bide: «Vous me demandez des renseignements sur des ouvrages écrits en français sur la linguistique en général. Eh bien, je vous étonnerai sans doute en vous disant que nous ne possédons rien qui puisse se comparer aux ouvrages des Allemands et même, selon moi, des Anglais, qui, eux aussi, ne possèdent rien de plus que les Allemands». Lerro hauek, jakina (aski da urteari begiratzea), Londrestik datoz.

Dena den, Campionek ez zituen itzulpenetan baizik ezagutu artean alemanen lanak. Eta itzulpenetan ere, berandu. Ez dirudi Schleicher irakurri zuenik: Sayce ingelesa, bai, behar bada. Eta 'gramatiko berri' edo 'gazte' zirelakoek *the wonderful seventies* haietan zabaldu zituzten bideak ez zituen begiztatu.

Bi pasarte atera nahi nituzke hemen, Campionen lehenbizi hartako eta gero-ko ideiak azaltzeko. Ez dakit ongi ze ondorio atera dezakegun iturburu horietarik: dena den, ez zaigu behintzat kaltegarri gertatuko bata bestearekin erkatzea, argi-izpiren bat sor daitekeelakoan. Erdaraz utzi ditut, ez baitut uste nigandik datorren euskara don Arturoren erdararen pareko izango denik.

Lehen puntua *Gramática*-tik dator, 11 hh.: Lubbock-en *L'homme préhistorique* aipatuaz:

El progreso de un lenguaje está íntima y esencialmente ligado al desarrollo intelectual del pueblo que lo habla. Las lenguas de las razas más inferiores no contienen palabras que indiquen idea alguna abstracta y genérica. Las tribus australianas [Australiakorik eta batez ere *aboriginal* direlakoetarik aurrean ez dugulakoan ari naiz], que pueden considerarse como las más salvajes del globo, en los idiomas que usan, carecen de términos para indicar ideas de aquellas clases como *árbol, pez, pájaro*, etc., y únicamente poseen términos específicos aplicados a cada variedad particular, son incapaces de contar más arriba de cinco, y la palabra que expresa este último número representa en su espíritu la idea de muchos objetos, como entre nosotros los vocablos cien o mil.

Badirudi, nolana ere, gu *hamaika*-n gelditu garela Cantor-en kontagai diren azkengabeak aditzera emateko. Nork esan behar ziokeen Campioni horixe berori egotziko ziotela luzaro gabe euskarari, *arbola (zuhaitza, zuhamua, aretxa, errexala, etc.) zela eta*, don Miguel de Unamuno argiak eta Verdes Montenegro hagitz ilunak.

Pero á medida que progresa la inteligencia del pueblo y se ejercitan con lentos y continuados trabajos las funciones de generalización y abstracción [baina hori, Aristotele eta San Tomas lekuko, *noús poiëtikós* edo *intellectus agens* dela medio, berezko du gizon orok], se crean vocablos nuevos que corresponden á las nuevas ideas. Cuanto más compleja se torna la organización social, más necesidad hay de aumentar su vocabulario.

Horrela, gure haurren hurrek *herriak behar zaitu* idatzi beharrean, kaskailduen antzera, *herria behar zaitu* ipiniko dute atzeman berria dugun goragoko mailan. Ez ote da hor, *avant le mot*, harako *stadial'nost'* zelako 'dotrina berri' haren zantzurik?

Acontece también que las lenguas presentan grados de parentesco unas con otras; que proceden, por derivación, unas de otras, y la clasificación científica constituye grupos con ellas, y busca su filiación, y establece, á veces conjeturalmente, á veces positivamente, su generación y evolución, y consigue, no sólo referirlas á un cierto tipo de organización general [tipo edo egitura modu batera, gureztat], sino también á un tronco común del cual proceden varias ramas, ó mejor dicho, á una *matriz* [lehen-hizkuntza, *Ursprache* alemanez]. Así sucede con las lenguas indo-europeas, cuyo progenitor ha sido hallado por los lingüistas merced a sapientísimos trabajos de reconstrucción, tan delicados como exactos...

Ildo beretsutik, 22 eta hh.:

La más alta generalización á que se ha llegado en materia de taxonomía lingüística ha sido la de constituir tres grupos en que pueden entrar todas las lenguas conocidas...: lenguas monosilábicas..., lenguas aglutinantes..., lenguas de flexión. Esta clasificación es en lingüística lo que las tan conocidas de Bäuer y Cuvier en zoología, los cuales dividieron á los animales en vertebrados, moluscos y zoófitos... Cada uno de los grandes grupos lingüísticos mencionados revela una diferencia verdaderamente *orgánica* [orain, segur aski, 'estructural' litzateke], y según el común sentir de los lingüistas contemporáneos, el tercer grupo procede de los anteriores por evolución, debiéndose indudablemente este punto de vista á la influencia avasalladora que ejercen actualmente las teorías transformistas de Goethe, Lamarck, Darwin y Haeckel, muy en boga en la actualidad, tanto que por todas partes rompen las fronteras de las ciencias naturales. Sin embargo, en estos últimos tiempos se ha iniciado una reacción notable contra los principios de la escuela lingüístico-naturalista representada por Bopp, Grimm, Schleicher, Hovelacque, cuyas teorías a pesar del tinte eminentemente positivo de que quieren revestirlas sus adeptos, son en más de una ocasión completamente arbitrarias.

Kontrako ikuspuntu hau, dirudienez, Saycegan aurkitu zuen. Nik, aurrera gabe, puntu bat markatu nahi nuke. Etsaiak sortu zaizkion eskola «escuela lingüístico-naturalista» deritza hemen; ez «naturalista» eta kito. Horrela bada, nahiz Champion ez den sekula Darwin eta kideen iritzien alde agertzen (Goethe gaizki sartu du andana horretan, honen *Urpflanze*-ak ez baitzuen zer ikusirik ezta gero-ko *Ursprache* umilarekin ere), ezta ere mintzatzan bizidunen arteko «sortze eta bilakaera»-ren aurka. Alde ez bazegoen (bere sailetik kanpora ari zen, nolana ere), ez zuen gure artean irakur daitezkeen itxuragabekeriaren antzekorik idatzi.

Hona bat, etimologiari eta Arratia eta Agarre'tar Jon Mikaili, EUSKADI 10, 1913, 34, zor dioguna, *areitz*-en sorrerarekin borroka bizian: «¿Sería completamente improbable suponer que el vasco en alguna época de su historia se alimentara de la fruta de este árbol? Sería verdaderamente sugestiva una tal etimología para un defensor del estado salvaje del hombre primitivo [egoera horri ere ez dio muzin egiten Campionek, ikusi dugunez]. Mas no para nosotros que en el salvajismo descubrimos indicios claros de degeneración, y damos fe incontrastable a documentos divinamente auténticos que nos vedan tales aberraciones».

Gogoko zuen (edo, guttienez, sekula baztertu ez zuen) sailkatze modu horretarik ez zuen, ezin zezakeen, ondorio larririk atera euskarari buruz. Ik. 25. or. Hizkuntzarik gehienak bezala euskara «pertenece al grupo de las lenguas agluti-

nantes; esto no ofrece duda alguna y es por todos los lingüistas reconocido; pero en cambio las dudas aparecen en cuanto se trata de designar puesto al euskara dentro del grupo ya nombrado... me contentaré con expresar la opinión que me parece más fundada, y es la que coloca al euskara, dentro de la clasificación general de las lenguas aglutinantes, entre las lenguas uralaltaicas y las americanas.»

Eman dion kokalekua zabal baino zabalagoa da, ikusi duzue: Ameriketara bada guztitakorik. Ez dio ezer, bestalde, ahaidetasunaren aldetik. Kaukasoko bazterrak ez ditu aipatzen, nahiz eta Fitaren *El Gerundense y la España primitiva* 1879koa izan. Orduko 'iberikoa' ere ez du ukitzen. Hübner-en *Monumenta*, egia da, ez dira 1893 arte irtengo.

* * *

Urteen buruan, luzaroan ikasi eta aztertu ondoan, iritziak aldatu zituen, ez bide gehiegi. 1931ean agertu zen, lehenago prest bazegoen ere, *Origenes del pueblo euskaldún* (*Euskaria* 10.^a serie), 2-3, 3.^a parte, *Testimonios de la lingüística* vol. 1. Saillatze lanari ekiten dio hemen ere, 106 hh.:

Los lingüistas de antaño clasificaron a las lenguas mirando a una forma o tipo que estimaron fundamental y característico, y crearon tres grupos: el de las lenguas monosilábicas, el de las aglutinantes y el de las de flexión; los de hogaño, impresionados por las imperfecciones, inconvenientes e inexactitudes de dicho encasillamiento taxonómico, le repudiaron sañudamente y buscaron el modo de sustituirle. Según Mr. Meillet, uno de los corifeos franceses de las nuevas teorías, la única clasificación lingüística que goza de valor y utilidad es la clasificación genealógica, fundada en la historia de las lenguas; pero esta clasificación sólo explica la sucesión de las lenguas y de los dialectos diferentes. Mr. Meillet viene a confesarlo...; una familia de lenguas es el conjunto de hablas más o menos diferenciadas entre las que continúan una misma lengua común... En puridad, estimo yo que el nuevo método viene a expresar determinaciones geográficas; no pasa de ahí. Pero teóricamente considerado, y salvas sus imperfecciones, es superior al fundado exclusivamente sobre los datos de la geografía... algo semejante llevan a cabo los actuales lingüistas, que renuncian a las clasificaciones orgánicas en vez de mejorarlas o sustituirlas ventajosamente. De no haber clasificación mejor, se habrá de confesar antes que en la Lingüística no existe verdadera materia susceptible de conocerse científicamente.

Jakitearen aurrerakuntzak, lasai zeudenak lotuaz, ez zuen, bistan da, Campionen gose-egarria apaltzen: biztu egiten zuen, izatekotan ere. Brugmann-ek edo Meillet-ek hautetsi zuten bidea, izaerari baino bilakaerari itsatsiagoa, ez zen zenbait berrizalaren apeta burugabea: jadanik hartua zuten biologoek eta ez dute utzi geroztik hona. Bakar-bakarrik, ezin uka arrazoi honen indarra Campionen pentsabideak ulertu nahi baditugu, biologia askotaz ere urrutiago, aspaldirantzago, heda daiteke hizkuntzalaritza baino. Hizkuntzek, idazkerari hain lotuak daudelarik, opa dizkiguten mugak ez dira behar genituzkeen bezain zabalak. Eta nekez aurkituko dugu hizkuntzetan, bizidunen artean bezala, denboraren zedarriak atzeraziko dituen aztarnarik.

Hizkuntzetan geureari gagozkiola, gainera, euskararen zurztasunak, ahaidetik ezak, irtenbideak mozten zizkion Campioni eta mozten dizkigu geuri, ez baitugu aurkitzen lekurik horrentzat saillatze modu honen bitartez. Ezin lor dezakeguna lor lezakegu, behar bada, ez dakigun zerbait gertatuko balitzaigu. Nolanahi ere, hobeko dugu egona ezinegona baino, ustekabekoen begira gaudeino.

Esan beharra dago, azkenera gabe, ez zuela sekula Campioneak historia ahaz-

turik eduki, aurre-historia ez ezik. *Gramática*-n, 13. orrialdeko oharrean, aipatzen digu bidenabar nolako fruitua atera zuen aspaldisko Mommsen-ek hizkuntzaren emaitzetarik Erromako Historiaren lehen tomoan. Eta *Orígenes*-en, 129 hh., saiatu zen bere kabuz bai hizkuntzaz baliatzen bestetarako (ik. «El baskuenze, instrumento de la llamada paleontología lingüística»), bai hizkuntzaren historia lantzeko lekuko zahar eta aski atzenduak zein genituen erakusten. Eske hori entzun zuen beste inork baino biziroago agian eta, eskeak ernaturik, azterbideak agirian utzi zituen. Ondorengo lana ez zegokion berari.

Daramadan ildotik itzuri, beste zerbait, inork eskatu ez didana, ukituko dut bukatzeko. Campion idazleaz, idazleaz *ut sic* Larramendik ziokeenez, ez da inor gehiegi mintzatzen; han-hemenka entzun dut, gainera, hantua, puztua zela haren idazkera. Ez zuten horrela uste bere garaiko eta gerotsuko batzuek, hala nola don Boni Etxegaraiak, aski zirikatzaile jaulki zitzaion *La Bella Easo*-ren berrian, *RIEV* 3, 1909, 532-537: «El nombre de don Arturo Campión es el más prestigioso de cuantos hoy cultivan las letras en el país vasco-navarro.»

Gordinegia aurkitzen du, halaz guztiz: «Un reparo hemos de oponer á *La Bella Easo* y es el excesivo uso que su autor hace de ciertos procedimientos naturalistas, que si fueron discutibles siempre, hoy están desacreditados y pasados de moda.» Beraz, beheraka zihoan 'naturalismoa' Etxegarairen ustez, hizkuntzalari-tzan Campionen ustez zihoan bezalaxe. Ez zait iruditzen, ordea, okerreko bidetik zebilenik kritika, joera hori arras nabari baita Campionen elaberri eta kondairetan erabat. Gure arteko guttirengan adina, eta ez naiz euskal idazleaz ari.

Horren aldamenean, beste ixuri garbia ageri duela, goitarragoa, epika kutsukoa, antzinateari lotzen zaionean: niri, zuzen nahiz oker, Hebbel gogorazten dit elkar-hizketan hasten denean. Baita Flaubert ere, eta ez *Madame Bovary*-koa.

Hau ongi irakurria zuen, noski, eta behin bederen badirudi nolazpaiteko lotura aurki daitekeela bataren eta bestearen artean. *Sancho Garcés* berriz irakurri dudanean *Salammô*-ren VII. kapitulua etorri zait gogora. Kapitulu horren pasarte bat, hobeki esan: Hamilkarri semeak arranoa garaitu duen borroka kontatzen dion hura.

Euskalaritzaren eta hizkuntzalaritzaren historiarako bibliografia

Hitzaurrean gaztigatu bezala, hemen aurkezten duguna bibliografia hautatua da. Hautatua, batetik, Hizkuntzalaritzaren historiazko atalean Europako Mendebaldeko tradizioari soilik egin diogulako leku, beste tokietakoak (India, Arabia...) alboratuz eta, hein handi batean, Europako Antzinate eta Erdi Aroari buruzko lanak ere murriztuz; hautatua, bestalde, lehen iturrietan obra nagusiak edo-ta ezagunenak —azken urteotako berrargitalpenak ere, ezagun zitzaizkigun neurrian, gehitu nahi izan ditugu— eta ikerketetan idatzita dauden hizkuntzengatik nola edo hala irakurlego zabal batengana iris litezkeenak baino ez ditugulako sartu, ez oro ordea. Euskalaritzazko historiografiaz den bezainbatean, osoki besarkatzeko asmoa izan dugu, nahiz ezinbestez bat edo bestek irrist egin.

ASJU = *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, Donostia.

BAP = *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, Donostia.

EE = *Euskal Erria*, Donostia.

EEsn = *Euskal Eснаlea*, Donostia.

FLV = *Fontes Linguae Vasconum*, Iruñea.

GH = *Gure Herria*, Baiona.

HEL = *Histoire Épistémologie Langage*, Saint-Denis.

HL = *Historiographia Linguistica*, Amsterdam-Philadelphia.

Lg = *Language*, Baltimore.

LH = *Lengua e Historia* (= Mitxelena 1985b)

Memoriae = *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum* (= Lakarra (arg.) 1991b).

PT = *Palabras y textos* (= Mitxelena 1987).

RFE = *Revista de Filología Española*, Madrid.

RLPhC = *Revue de Linguistique et Philologie Comparée*, Paris.

SHLV = *Sobre historia de la lengua vasca* (= Mitxelena 1988).

Symbolae = *Symbolae L. Mitxelena Oblatae* (= Melena (arg.) 1985).

I. Bibliografia orokorra

1. Lehen mailako iturriak

Adelung, J. Ch., 1806-17, *Mithridates, oder Allgemeine Sprachenkunde, mit dem Vater Unser als Sprachprobe in bey nahe fünfhundert Sprachen und Mundarten*, Vossische Buchhandlung, Berlin, 4 lib. Berrarg. faksim. G. Olms, Hildesheim-New York, 1970.

Alberti, L. B., 1490, ik. Grayson (arg.) 1964.

Aldrete, B. de, 1606, *Del origen i principio de la lengua castellana o romance que oi se usa en España*. Berrarg. faksim., L. Nieto Jiménez (arg.), C.S.I.C., Madrid, 1975.

- Alemán, M., 1609, *Ortografía castellana*, J. Rojasen arg. eta T. Navaroren ikerketa, El Colegio de México, México, 1950.
- Arenas, P. de, 1611, ik. Leon-Portilla (arg.) 1982.
- Arnauld, A. & C. Lancelot, 1660, *Grammaire Générale et raisonnée*, Paris. Berrarg. faksim. Friedrich-Frommann Verlag, Stuttgart-Bad Cannstatt, 1966.
- Ballot y Torres, J. P., 1894, *Gramática y apología de la lengua cathalana*, Barcelona.
- Barros, J. de, 1540, *Gramática da lingua portuguesa*, Lisboa. Ik. Buescu (arg.) 1971.
- Beauzée, N., 1767, *Grammaire générale ou exposition raisonnée des éléments nécessaires du langage, pour servir de fondement à l'étude de toutes les langues*, Friedrich Frommann Verlag, Stuttgart, 1974.
- Bellay, J. du, 1549, *La défense et illustration de la langue française*. Berrarg. faksim. Paris, 1930.
- Bello, A., 1847, *Gramática de la lengua castellana*, R. Trujilloren arg., Arco/Libros, Madrid, 1988, 2 lib.
- Bembo, P., 1525, *Prose della volgar lingua*, G. Tacuino, Venice.
- Bonomi, I. (arg.), 1986, *Pierfrancesco Giambullari: Regole della lingua fiorentina*, Accademia della Crusca, Firenze.
- Bovelles, Ch. de, 1533, *Liber de differentia vulgarium linguarum et Gallici sermonis varietate*, C. Dumont-Demaizièren arg. frantsesezko itz. eta oharrak, Klincksieck, 1973.
- Buescu, M^a L. C. (arg.), 1969, *Textos pedagógicos y gramaticais de João de Barros*, Verbo, Lisboa.
- (arg.), 1971, *João de Barros. Gramática da lingua portuguesa*. Faculdade de Letras, Lisboa.
- (arg.), 1975a, *A gramática da linguagem portuguesa de Fernão de Oliveira*. Imprensa Nacional-Casa da Moeda, Lisboa.
- (arg.), 1975b, *Duarte Nunes do Lião. Origen da lingua portuguesa*, Livraria Classica editora, Lisboa.
- Cascales, F., 1952, *Cartas filológicas*, J. García Soriano (arg.), Espasa, Madrid.
- Colón, G. & A.-J. Soberanas (arg.), 1979, *Elio Antonio de Nebrija. Diccionario latino-español (Salamanca 1492)*, Puvill, Barcelona.
- Condillac, E. B., 1798, *Essai sur l'origine des connoissances humaines*, in *Oeuvres de Condillac*, I, Paris.
- Correas, G., 1625, *Arte de la lengua española castellana*, E. Alarcos Garcíaren arg. eta hitzaurrea, Anejo LVI de la RFE, C.S.I.C., Madrid, 1954.
- , 1627, *Arte Kastellana*, ik. Taboada (arg.) 1984.
- , 1630, *Ortografía Kastellana, nueva y perfeta*, Salamanca. Berrarg. faksim. Espasa-Calpe, Madrid, 1971.
- Corro, A. del, 1636, *Reglas gramaticales para aprender la lengua española y francesa*, L. Nietoren arg. eta ikerketa, Arco/Libros, Madrid, 1988.
- Covarrubias, S. de, 1611, *Tesoro de la lengua castellana o española*. Berrarg. faksim. Turner, Madrid, 1979.
- Davis, J., 1632, *Antiquae Linguae Britannicae dictionarium duplex, prius britannico-latinum, posterius, latino-britannicum*, London
- Della Croze, M., 1746, *Tbesauri Epistolici Lacroziani*, Lipsiae.
- Destutt de Tracy, 1817, *Éléments d'idéologie. I. Idéologie proprement dite. II. Grammaire*, Courcier, Paris. Berrarg. faksim. Vrin, Paris, 1970. 1803ko lehendabiziko argitalpenetik aldaketak daude.
- Diderot, D. & J. d'Alembert, 1751-72, *Encyclopédie, ou Dictionnaire raisonné des sciences, des arts et des métiers*, Paris. Berrarg. faksim. A. Calzolari & S. Delassusek (arg.), ikerketekin eta J. L. Borgesen hitzaurrearekin, F. M. Ricci, Parma, 1970-79, 17 lib.

- Diez, F. Ch., 1836-44, *Grammatik der romanischen Sprachen*, E. Weber, Bonn, 2 lib.
- Donatus, A., [K. o. IV. m.], ik. Holtz 1981.
- Du Cange, Ch., 1678, *Glossarium Medias et Infimae Latinitatis*, Paris.
- Etienne, R., 1546, *Dictionarium latino-gallicum*, Paris.
- Giambullari, P., 1551, *Della lingua che si parla e scrive in Firenze, e un Dialogo di Giambattista Gelli, Sopra la difficoltà dell'ordinare detta lingua*, L. Torrentino, Firenze.
- , ik. Bonomi (arg.) 1986.
- González-Llubera, I., 1926, *Nebrija: Gramática de la lengua Castellana, Muestra de la historia de las antigüedades de España, Reglas de orthografía en la lengua castellana*, H. Milford, London.
- Granier de Lassagnac, M. A., 1859, *Antiquité des patois. Antériorité de la langue française sur le latin*, E. Dentu, Paris.
- , 1872, *Histoire des origines de la langue française*, Fermin Didot, Paris.
- Grayson, C. (arg.), 1964, *La prima gramatica delle lingua volgare*, Commissione per i Testi di Lingua, Bologna.
- Grimm, J., 1822 [1819], *Deutsche Grammatik*, Dieterische Buchhandlung, Göttingen.
- Herder, J. G., 1771, *Abhandlung über den Ursprung der Sprache*, Berlin. Gazt. itz. «Ensayo sobre el origen del lenguaje», in *Obra escogida*, 131-232, P. Ribasen itz., Madrid, 1982.
- Hervás, L. 1778-87, *Idea dell'Universo*, Gregorio Biasini, Cesena, 21 lib.
- , 1784, *Catalogo delle lingue conosciute (Idea dell'Universo, vol. XVII)*, G. Biasini, Cesena. Berrarg. faksim. in Tovar 1987, 95 hh.
- , 1800-05, *Catálogo de las lenguas de las naciones conocidas, y numeracion, division, y clases de estas segun la diversidad de sus idiomas y dialectos*, Madrid, 6 lib. Berrarg. faksim. A. Tovar-en hitzaurrearekin, Atlas, Madrid, 1979.
- Hovelacque, A., 1877 [1876], *La linguistique*, Reinwald, Paris.
- Humboldt, W. von, 1822-23, *Sobre el origen de las formas gramaticales y sobre su influencia en el desarrollo de las ideas*, C. Artal-en itz., Anagrama, Barcelona, 1972.
- , 1826, *Carta a M. Abel Rémusat sobre la naturaleza de las formas gramaticales en general y sobre el genio de la lengua china en particular*, C. Artal-en itz., Anagrama, Barcelona, 1972.
- , 1836, *Über die Verschiedenheit des menschlichen Sprachbaues und ihren Einfluss auf die geistige Entwicklung des Menschengeschlechts*, Berlin. Gazt. itz. *Sobre la diversidad de la estructura del lenguaje humano y su influencia sobre el desarrollo espiritual de la humanidad*, Ana Aguden itz., Anthropos-MEC, Barcelona-Madrid, 1990.
- , 1991, *Escritos sobre el lenguaje*, A. Sánchez Pascualen arg. eta itz. eta José María Valverderen hitzaurrea, Península, Barcelona.
- Izengabea, 1555, *Util y breve Institución para aprender los principios y fundamentos de la lengua española*, Lovaina. Berrarg. faksim. A. Roldánen ikerketa eta aurkibidearekin, C.S.I.C., Madrid, 1977.
- Izengabea, 1559, *Gramática de la lengua vulgar de España*, Lovaina. Berrarg. faksim. R. de Balbín eta A. Roldánen ikerketarekin, C.S.I.C., Madrid, 1966.
- Jiménez Paton, B., 1614, *Epitome de la ortografía latina y castellana. Instituciones de la gramática española*, Baeza. Berrarg. A. Quilis eta J. M. Rozas (arg.), C.S.I.C., Madrid, 1965.
- Keil, H., 1855-80, *Grammatici latini*, B. G. Teubner, Leipzig. Berrarg. Georg Olms, Hildesheim, 1961, 8 lib.
- Lancelot, C., 1656² [1644], *Nouvelle méthode pour apprendre facilement & en peu de temps la langue Latine*, Paris.
- , 1660, *Nouvelle méthode pour apprendre facilement et en peu de temps la langue espagnole*, Paris.

- Leibniz, G. W. von, 1703-04, *Nuevos ensayos sobre el entendimiento humano*, J. Echevarriáren itz. eta arg., Ed. Nacional, Madrid, 1983.
- Leon-Portilla, A. H. de (arg.), 1982, *Pedro de Arenas. Vocabulario manual de las lenguas castellana y mexicana (1611)*, UNAM, México.
- Marcos Casquero, M.-A. (arg.), 1990, *Varron. De lingua latina*, Anthopos, Barcelona.
- Mayans y Siscar, G., 1737, *Orígenes de la lengua española compuestos por diversos autores*, in *Obras Completas*, 312-419, A. Mestre-ren arg., Publicaciones del Ayuntamiento de Oliva, Valencia, 1984.
- , 1766, *Francisci Sanctii Brocensis opera omnia*, Frères de Tournes, Geneva, 4 lib.
- , 1991, *Abecé español*, M^a J. Martínez-en arg. eta ikerketa, Arco/Libros, Madrid.
- Meigret, L., 1550, *Le tretté de la grammère françoèze*, C. Wechel, Paris.
- Morales, A., [1585], *Discurso sobre la lengua castellana*, in F. Cerda y Rico (arg.), 1772, *Obras que Francisco Cervantes y Salazar ha hecho, glosado i traducido*, Madrid.
- Nebrija, E. A. de, 1481, *Introductiones Latinae*, Salamanca. Bigarren arg. Venezia, 1491.
- , 1492, ik. Colón & Soberanas (arg.) 1979.
- , 1492, *Gramática de la lengua castellana*, A. Quilis-en hitzaurrea eta ikerketa, Editora Nacional, Madrid, 1984, 2. arg.
- , 1503, *De vi ac potestate litterarum*, A. Quilis & P. Usábel-en arg., itz. eta faksim., Soc. General Española de Librerías, Madrid, 1987
- , 1516, *Vocabulario de romance en latín*, G. J. McDonald-en arg., Castalia, Madrid, 1973.
- , 1517, *Reglas de orthographía en la lengua castellana*, A. Quilis-en arg. eta ikerketa, Publicaciones del Instituto Caro y Cuervo, Bogotá, 1977.
- , ik. González-Llubera 1926.
- Oliveira, F. d', 1536, *Grammatica da lingua Portuguesa*, G. Galhard, Lisboa. Ik. Buescu (arg.) 1975a.
- Oudin, C., 1607, *Thrésor des deux langues, française et espagnole*, Paris. Berrarg. ...*Reveu, corrigé et augmenté d'une infinité d'omissions, additions, locutions, phrases, proverbes, sentences & recherches tirées du Tresor de Covarrubias*, Lyon, 1665.
- Palsgrave, J., 1530, *Lesclarcissement de la langue françoise*, Pynson, London.
- Pastrana, J. de, ca. 1485, *Compendium gramatice brevissimum ac utilissimum: thesaurus pauperum sive speculum puerorum*, Salamanca.
- Pensado, J. L. (arg.), 1970, *Fr. Martín Sarmiento. Colección de voces y frases gallegas*, Univ. de Salamanca, Salamanca.
- (arg.), 1973, *Fr. Martín Sarmiento. Catálogo de voces y frases de la lengua gallega*, Univ. de Salamanca, Salamanca.
- Priscianus, [K. o. ca. 500], *Institutiones grammaticae*, in Keil 1855-80, II-III. lib.
- Ramus, P., 1559, *Grammaticae libri quattuor*, A. Wechel, Paris.
- Real Academia de la Lengua Española, 1726-39, *Diccionario de Autoridades*, Madrid. Berrarg. faksim. Gredos, Madrid, 1979, 3 lib.
- , 1771, *Gramática de la lengua castellana*. Berrarg. Ed. Nacional, Madrid, 1984.
- Reichling, D. (arg.), 1893, *Das Doctrinale des Alexander de Villa-Dei*, A. Hofmann & Co., Berlin.
- Rousseau, J. J., 1781, *Essai sur les origines des langues*, Genève. Gazt. itz. *Ensayo sobre el origen de las lenguas*, M. Arminio (arg.), Akal, Madrid, 1980.
- Sánchez de las Brozas, F., 1587a, *Minerva o de la propiedad de la lengua latina*, Salamanca. Berrarg. F. Rivera Cárdenas-en itz. eta hitzaurrearekin, Cátedra, Madrid, 1976.

- , 1587b, *Minerva seu de causis linguae latinae*, Salamanca. Berrarg. faksim. M. Brea Claramonte-ren hitzaurrearekin, Friedrich Frommann, Stuttgart-Bad Cannstatt, 1983.
- , ik. Mayans y Siscar 1766.
- Sarmiento, M., Fr., ik. Pensado (arg.) 1970, 1973.
- Scaliger, J. C., 1540, *De causis linguae Latinae*, S. Gryphius, Lyon.
- Schleicher, A., 1850, *Die Sprachen Europas in systematischer Uebersicht: Linguistische Untersuchungen*, H. B. Köning, Bonn. Frantsesezko itz. *Les langues modernes de l'Europe*, H. Ewerbech-en itz., Paris, 1852.
- , 1861-62, *Compendium der vergleichenden Grammatik der indogermanischen Sprachen*, H. Böhlau, Weimar.
- , 1863, *Die Darwin'sche Theorie und die Sprachwissenschaft*, H. Böhlau, Weimar. Frantsesezko itz. *La théorie de Darwin et la science du langage*, A. Franck, Paris, 1868. Berrarg. in Tort 1980, 55 hh.
- Scioppius, C., 1628, *Grammatica philosophica, sive institutiones grammaticae latinae*, Mediolanum.
- Simón Abril, 1953, *Apuntamientos de cómo se deben reformar las doctrinas y la manera de enseñallas...*, Biblioteca de Autores Españoles 65, 293-300.
- Smith, A., 1761, *A Dissertation on the Origin of Languages*, G. Narr (arg.), (Tübinger Beiträge zur Linguistik, 3), Tübingen, 1970.
- Taboada, M. (arg.), 1984, *Gonzalo Correas. Arte Kastellana (1627)*, Univ. de Santiago de Compostela, Santiago.
- Texeda, J. de, 1619, *Gramática de la Lengua Española*. Berrarg. faksim. J. M. Lope Blanch (arg.), UNAM, México, 1979.
- Trippavit, L., 1581, *Etymologie des mots françois tirez du grec*, Orleans.
- Valdés, J. de, 1982², *Diálogo de la lengua*, J. M. Lope Blanch (arg.), Castalia, Madrid.
- Varron, [K. a. I.m.], ik. Marcos Casquero (arg.) 1990.
- Venegas, A., 1531, *Tractado de orthographia y accentos en las tres lenguas principales*, L. Nieto-ren arg. eta ikerketa, Arco/Libros, Madrid, 1986.
- Viciano, M. de, 1574, *Libro de alabanzas de las lenguas hebrea, griega, latina, castellana y valenciana*, Valencia.
- Villa-Dei, A. de, 1119, ik. Reichling (arg.) 1893.
- Villalón, G., 1558, *Gramática castellana. Arte breve y compendiosa para saber hablar y escribir en la lengua castellana congrua y decentemente*, Amberes. Berrarg. faksim. C. Garcíaren arg. eta ikerketarekin, C.S.I.C., Madrid, 1971.
- Vossius, G., 1635, *De arte grammatica libri septem*, Amsterdam.
- Wilkins, J., 1668, *An essay towards a real character and a philosophical language*, London.

2. Ikerketak

2.1. Lan orokorrak eta bildumak

- Aarsleff, H., 1970, «The History of Linguistics and Professor Chomsky», *Lg* 46. 570-585.
- , 1971, «'Cartesian Linguistics': History or Fantasy?», *Language Sciences* 17. 1-12.
- et al. (arg.), 1987, *Papers in the History of Linguistics. Proceedings of ICHoLS III, Princeton 1984*, (Studies in the History of the Language Sciences, 38), John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- Abad, F., 1976, *Historia de la lingüística como historia de la ciencia*, Fernando Torres, Valencia.
- , 1980, *Lengua española e historia de la lingüística*, SGEL, Madrid.

- Abellán, J. L., 1981, *Historia crítica del pensamiento español. Del Barroco a la Ilustración. Siglos XVIII y XIX*, Espasa-Calpe, Madrid.
- Agud, A., 1980, *Historia y teoría de los casos*, Gredos, Madrid.
- Ahlquist, A., 1983, *Histoire de la linguistique: la tradition irlandaise*, Collection THTL, Université de Paris 7, Paris.
- Allen, W. S., 1948, «Ancient ideas on the origin and development of language», *Transactions of the Philological Society* 45. 35-60.
- Alonso, A., 1951a, «Gramáticos españoles y franceses de los siglos XVI, XVII y XVIII», *Nueva Revista de Filología Hispánica* 5. 1-37.
- , 1951b, «Identificación de gramáticos españoles clásicos», *RFE* 34. 221-236.
- , 1955, *De la pronunciación medieval a la moderna en español*, R. Lapesaren arg., Gredos, Madrid, 2 lib. 2. arg. 1976.
- Alvar, M., 1984, «La lengua y la creación de las nacionalidades modernas», *RFE* 64. 205-238.
- Arens, H., 1969², *Sprachwissenschaft: der Gang ihrer Entwicklung von der Antike bis zur Gegenwart*, Alber, Freiburg. Gazt. itz. *La lingüística: sus textos y su evolución desde la antigüedad hasta nuestros días*, Gredos, Madrid, 1976, 2 lib.
- Ariza, M., et al. (arg.), 1988, *Actas del I Congreso Internacional de Historia de la lengua española (Cáceres 1987)*, Arco, Madrid.
- Auroux, S. & F. Queixalos (arg.), 1984, *Hommage à Bernard Pottier. Pour une histoire de la linguistique amérindienne en France*, C. N. R. S., Paris.
- et al. (arg.), 1984, *Matériaux pour une histoire des théories linguistiques*, Univ. de Lille III, Lille.
- Blecua, J. M., 1975, «Introducción histórica y teórica», in J. Alcina & J. M. Blecua, *Gramática española*, 35-194, Ariel, Barcelona.
- Bleiberg, G., 1951, *Antología de elogios de la lengua española*, Ediciones Cultura Hispánica, Madrid.
- Bolelle, T., 1965, *Per una storia della ricerca linguistica. Testi e note introduttive*, A. Morano, Napoli.
- Bonfante, G., 1953-54, «Ideas on the Kinship of the European Languages from 1200 to 1800», *Cahiers d'Histoire Mondiale* 1. 679-699.
- Breva Claramonte, M., 1980, «La teoría gramatical del Brocense en los siglos XVII y XVIII», *Revista Española de Lingüística* 10. 351-371.
- Brunot, F., 1906, *Histoire de la langue française des origines à nos jours*. Berrarg. A. Colin, Paris, 1967.
- Buceta, E., 1925, «La tendencia a identificar el español con el latín», *Homenaje a Menéndez Pidal*, I, 85-108, Madrid.
- Bynon, Th., 1977, *Historical Linguistics*, Cambridge Univ. Press, Cambridge. Gazt. itz. *Lingüística histórica*, J. L. Melenaren itz., Gredos, Madrid, 1981.
- & F. R. Palmer (arg.), 1986, *Studies in the History of Western Linguistics in Honour of R. H. Robins*, Cambridge Univ. Press, Cambridge-London-New York-Melbourne.
- Calvet, J.-L., 1981, *Lingüística y colonialismo*, Ed. Jucar, Madrid.
- Cardim, L., 1931, «Gramáticas anglo-castelhanas o castelhanas-ánglicas (1586-1878)», *O Instituto* 81.
- Chevalier, J.-C., 1968, *Histoire de la Syntaxe. Naissance de la notion de complément dans la grammaire française (1530-1750)*, Droz, Genève.
- Chomsky, N., 1966, *Cartesian Linguistics*, Harper and Row, New York, Gazt. itz. *Lingüística cartesiana*, Gredos, Madrid, 1984.

- , 1986 [1984], *Knowledge of Language*, Praeger, New York. Gazt. itz. Alianza Editorial, Madrid, 1989.
- Closa Farrés, A., 1977-78, «La difusión hispana de la *Ars Minor* de E. Donato en los siglos XVI y XVII», *Anuario de Filología* 3. 47-80; «La difusión hispana de la *Ars Minor* de E. Donato en el siglo XVIII hispano», *id.* 4. 39-91.
- Cohen, E., 1986, «La Cábala: una teoría de la lectura», *La Gaceta del Fondo de Cultura Económica* 187.
- Collado, J. A., 1973, *Historia de la lingüística*, Mangold, Madrid.
- Colon, G. & A.-J. Soberanas, 1985, *Panorama de la lexicografía catalana*, Encic. Catalana, Barcelona.
- Comas, A., 1967, *Les excel·lències de la llengua catalana*, Rafael Dalman, Barcelona.
- Coseriu, E., 1967a, «L'arbitraire du signe. Sobre la historia tardía de un concepto aristotélico», in Coseriu 1977, 13-61. Lehen arg., alemaneraz, *Archiv für das Studium der neueren Sprachen und Literaturen* 204. 81-112.
- , 1977, *Tradición y novedad en la ciencia del lenguaje*, Gredos, Madrid.
- Costantini, L., 1972, «Notes sulle questione della lingua presso i serbi tra il XVIII e il XIX secolo», in Picchio (arg.) 1972a, 163-224.
- Cruz, J. M. de la, 1974, «Ortografía e historia lingüística. Contrastes significativos entre el inglés y el español», *Filología Moderna* 14. 269-348.
- Curtius, E. R., 1976, *Literatura Europea y Edad Media Latina*, F.C.E., Madrid, 2 lib.
- Delasalle, S. & J. C. Chevalier, 1986, *La linguistique, la grammaire et l'école, 1750-1914*, Armand Colin, Paris.
- Dessaux-Berthonneau, A.-M., 1982, *Téories linguistiques et traditions grammaticales*, Presses Universitaires de Lille, Lille.
- Droixhe, D., 1978, *La linguistique et l'appel de l'histoire*, Droz, Genève.
- Esteve Serrano, A., 1982, *Estudios de teoría ortográfica del español*, Publicaciones del Dep. de Lingüística General y Crítica Literaria, Universidad de Murcia, Murcia.
- Fano, G., 1962, *Saggio sulle origini del linguaggio, con una storia critica delle dottrine glottogoniche*, Einaudi, Torino.
- Foucault, M., 1974⁵, *Las palabras y las cosas. Una arqueología del saber*, F.C.E., México.
- Fries, D., 1989, *La Real Academia Española ante el uso de la lengua (1713-1973)*, Sdad. Gral. Española de Librería, Madrid.
- Gancillac, M. de, 1966, «Histoire des théories du langage», *Le Langage* 2. 69-82.
- Gil, L., 1981, *Panorama social del humanismo español (1500-1800)*, Alhambra, Madrid.
- Gilson, E., 1974, *Lingüística y filosofía. Ensayo sobre las constantes filosóficas del lenguaje*, Gredos, Madrid.
- González de la Calle, P. U., 1925-26, «Documentos inéditos acerca del uso de la lengua vulgar en los libros espirituales», *Boletín de la Real Academia Española* 5. 258-273, 370-397, 652-673; 6. 76-88, 302-317.
- Gulsoy, J., 1959-62, «La lexicografía valenciana», *Revista Valenciana de Filología* 6/2-3. 109 hh.
- Halliday, M. A. K., 1983, «Ideas About Language», in F. B. Agard et al. (arg.), *Essays in Honor of Charles F. Hockett*, Brill, Leiden.
- Hanzeli, V. E., 1969, *Missionary Linguistics in New France: A Study of Seventeenth- and Eighteenth-Century Descriptions of American Indian Languages*, Mouton, The Hague.
- Harnois, G., 1929, *Les théories du langage en France de 1600 à 1821*, Les Belles Lettres, Paris.

- Hartmann, R. R. K. (arg.), 1986, *The History of Lexicography. Papers from the Dictionary Research Centre Seminar at Exeter, March 1986*, (Studies in the History of the Language Sciences, 40), John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- Hayashi, T., 1978, *The Theory of English Lexicography, 1530-1791*, (Studies in the History of Linguistics, 18), John Benjamins, Amsterdam.
- Hoiyer, H. 1973, «History of American Indian Linguistics», in Sebeok (arg.) 1973, 657-676.
- Hymes, D. (arg.), 1974, *Studies in the History of Linguistics: Traditions and Paradigms*, Indiana Univ. Press-Bloomington, Indiana-London.
- Itkonen, E., 1991, *Universal History of Linguistics: India, China, Arabia, Europe*, (Studies in the History of the Language Sciences, 65), John Benjamins, Amsterdam.
- Jacob, A., 1973, *Genèse de la pensée linguistique*, Armand Colin, Paris.
- Joly, A. & J. Stefanini, 1977, *La grammaire générale. Des modistes aux idéologues*, Publications de l'Université de Lille III, Villeneuve-d'Ascq.
- Kahane, H. & R. Kahane, 1979, «Decline and survival of Western prestige languages», *Lg* 55. 183-198.
- Kintana, X., 1971, *Linguistika orain arte*, Lur, Donostia.
- Kiparsky, P., 1974, «From Paleogrammarians to Neogrammarians», in Hymes (arg.) 1974, 331-345.
- Koerner K., 1978, *Towards a Historiography of Linguistics*, (Studies in the History of the Language Sciences, 19), John Benjamins, Amsterdam.
- (arg.), 1980, *Progress in Linguistic Historiography*, (Studies in the History of the Language Sciences, 20), John Benjamins, Amsterdam.
- , 1988, *Practicing Linguistic Historiography*, (Studies in the History of the Language Sciences, 50), John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- Kuhlwein, W. (arg.), 1971, *Linguistics in Great Britain. Vol. I: History of Linguistics*, Max Niemeyer, Tübingen.
- Kukenheim, L., 1962, *Esquisse historique de la linguistique française et de ses rapports avec la linguistique générale*, Brill, Leyden. Bigarren arg. zuzendu eta osatua 1966.
- Labaude-Jeauroy, Th., 1925, *La question de la langue en Italie*, Université de Strasbourg, Strasbourg.
- Lambert, P.-Y., 1976-79, «Les grammaires bretones jusqu'en 1914», *Études Celtiques* 15. 229-288; 16. 233-236.
